

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Elgoibar



Aurkibidea

Udalerria: Elgoibar

Sarrera



Deba arro industrialeko herria, makina erremintaren hiriburua. Hizkerari dagokionez, gehienetan bizkaieraren barruan sailkatu izan da, baina gipuzkeraren eragina azpimarratu izan da beti. Koldo Zuazoren azkenengo sailkapenean, tarteko hizkeratzat hartu izan da, mendebaldeko eta erdialdeko euskalkien arteko zubi-lana egienez.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 11.599
- **Euskaldunak:** %69,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **128**
- Zintak: **143**
- Pasarteak: **2.447**
- Transkribatutakoak: **300**
- Audioak: **276**
- Bideoak: **1.647**

Proiektuak

- 101L - Aniztasuna Ikasgai
- Ahaztuen Oroimena
- Dialektologia-EHU
- Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- Elgoibar 1936
- Elgoibarko euskara
- Elgoibarko Izarra
- Elgoibarko Makina Erremintaren Historiazaleak
- Elgoibartarren esanetan
- Erditzea erdigunera: begirunea eta indarkeria gorpuzten dituzten bizipenak
- Ermua eta Eitzako euskara
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskararen historia soziala Elgoibarren
- Gazte gara gazte
- Markina-Xemeingo ahotsak
- SOKA: Euskal Dantzaren Urratsetan

Hizlariak



Jabi Agirre Osoro (1958)

Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea (1916-2005)



Sigmako Aizpizkarbekoa baserrian jaio zen. Bederatzi anai-arrebaren artean bigarrena, baserriko lanak egiten laguntzen eman zuen haurtzaroa, eta 17 urterekin Olasarte baserrira zerbitzatzera joan zen. 18 hilabete bertan pasa ondoren, Eibarko alkate zenaren, Orbearen, etxean aritu zen lanean. Venturak berak esandakoari eutsiz: "Gerria hasi zanian Orbeatarrak beldurrez ibili ziren, señoritoa alkate karlista zen eta. Aizpizkar baserrian denbora pixka eman eta gero, Orbeatarren etxera bueltatu nintzan. Baina hantxe kolpea hartu naban eta bizkarra apurtu nuen. Orduan, ama etorri zan bisitatzera eta etxera bueltatu nintzan berriro".

Itziar Agirregomezkorta Laka (1956)



Elgoibarren jaioa, zortzi anai-arrebatatik seigarrena. Aita elgoibartarra zen, Unastegierrota baserrikoa, eta ama, berriz, debarra, Irarrazabal baserrikoa. Gaztelaniaz ikasi zuen Aita Agirre eskola nazionalen, baina oso umetatik eskolaz kanpoko euskara-klaseetara joaten hasi zen. Nerabezaroan, euskal kontzientzia piztuta, Elorra dantzataldean hasi zen dantzan eta gerora umeei dantzak irakasten ere jardun zuen. Euskarazko kantak abesten zituen abesbatza batean ere parte hartu zuen eta baita euskarazko antzerkiak egiten ere. 15 urte ingururekin hasi zen gau-eskoletan euskaraz alfabetatzen eta gerora UNEDera joan zen, Bergarara, lehenengo D eta geroago B tituluak ateratzera. Idazkaritza ikasketak eginak zituen eta denda batean lanean zebilen, ikastolan gurasoentzako euskarazko eskolak ematea eskaini ziotenean. Hasieran bi lanak egiten bazituen ere, gerora denda utzi eta euskara irakasten jarraitu zuen, lehenengo gau-eskoletan eta gero, euskaltegiak sortu zirenean, hasieran urtebetez AEKn eta, ondoren, Udal Euskaltegian. Laneko azken urteak Udaleko Euskara Sailean teknikari eta trebatzaile lanetan egin zituen. Elgoibarko Izarrako kide aspalditik, **BARREN** aldizkariaren sorreran eta zuzendaritzan ere aritutakoa da. Elgoibarko euskararen historia soziala jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Sebas Larrañaga](#) senarrarekin batera.

Bitorio Agote Berasaluze (1938-2016)



Aiastia (San Migel) auzoko Zirarda baserrian jaioa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa gerrako bizipenak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Itziar Ajuria Garate (1924-2023)

San Bartolome kalean jaio zen, baina gaur Santa Ana kalean bizi da. Aita Arratiako Ubide herriko Anbe baserrikoa zuen, eta ama Deban jaio eta umetan Elgoibarrera etorritakoa zen. Eskola publikoetan 15 urtera arte ikasi eta gero, familiako jostundegian egin zuen lan 38 urte izan zituen arte. Gero "Banco de San Sebastián" en egin zuen lan, letrak kobratzen. Emakume batentzako lan egokia ez zela irudituta, bankuak kaleratu egin zuen. 1962. urtean, Elgoibarko lehen ikastolako lehen andereñoa izan zen; "Ikastola del Lorito" deitzen zioten hasieran. Ikastolaren hasiera gogorra eta geroko bilakaera azaltzen ditu. 1986. urtera arte egin zuen lan ikastolan. Gotzon Garate euskal idazle eta hizkuntzalari jesulaguna Itziarren lehengusua zen; beroni buruzko hainbat gauza kontatzen ditu. Kantu eta jolasak jasotzeko ere elkarrizketatu genuen Itziar, geroago.



Uxue Alberdi Estibaritz (1984)

Elgoibarren jaioa, Getarian bizi da; ama elgoibartarra du eta aita getariarra. Bertsolari eta idazle ezaguna da. Kazetaritza ikasi zuen, eta gaztetxotatik hasi zen idazten zein bertsoetan. Makina bat plaza egin ditu, eta hainbat liburu eman ditu argitara, helduentzat nahiz umeentzat; Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria eskuratu zuen 2016. urtean. Feminista da, eta generoarekin lotutako gaiak asko landu ditu. Bi elkarrizketa egin genizkion: bata, etxean erditzeari buruzkoa, eta bestea literaturari, bertsolaritzari eta generoari buruz.



Lourdes Alberdi Salaberria

Jose Alzibar Agirre

Inazio Ansola Arsuaga (1920-2013)

Aiastia (San Migel) auzoko Olazarraga baserrian jaio zen. Aita Mendarokoa zuen, eta ama Olazarraga bertakoa. Irabaneta baserriko [Bentura Arrieta](#)rekin ezkondu zen eta Olazarragan bizi izan ziren. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko.

Pastora Ansola Arsuaga (1917-2009)

Aiastia (San Migel) auzoko Olazarraga baserrian jaio zen. Aita Mendarokoa zuen, eta ama Olazarra bertakoa. Bizimodu gogorra tokatu zitzaion, gurasoak bera oso gaztea zela hil zitzaizkion eta. 18 urterekin ezkondu egin zen eta senarraren baserrira joan zen bizi izatera, Idotorbe (San Pedro) auzoko Otsorotxiki baserrira. Gerra denboran senarra hil zitzaion eta sei seme-alabarekin geratu zen. Gogor lan egin behar izan zuen bizimodua aurrera ateratzeko. Urte askoan alabaren tabernan (Untzonekuan) lan egin zuen.



Emilia Ansola Baskaran (1926)

Aiastia (San Migel) auzoko Belarreta baserrikoa.

Fernanda Ansola Zelaia (1925)

Teodora Arakistain (1907-2003)

Sallobente-Ermuaran (San Lorentzo) auzoko Iriarteberri baserrian jaio zen eta auzo berean bizi izan zen beti, Antsola baserrian. Gurasoak ere biak elgoibartarrak zituen. Ezkondu aurretik bi urtez neskame egon zen Biarritzen konde batzuen etxean. Baserriko bizimoduari buruzko eta Biarritzen pasatako urteei buruzko azalpenak ematen ditu.



Joxepa Aranberri Arostegi (1911-2005)

Maalan jaio zen 1911n. Ama Elgoibarko Gurutzetakoa zen eta aita Azkoitia partekoa, Ugarixa baserrikoa. 7 anai-arrebatatik bosgarrena zen bera. 11 urterekin etxeko tabernan hasi zen lanean eta 28 urterekin ezkondu arte ibili zen bertan. Ezkondu ostean etxe berria egin zuten eta han ere taberna jarri zuten azpian. Senarra gazterik hil zitzaion. Ondorioz, alargun eta bi ume txikirekin, berak bakarrik atera behar izan zuen taberna aurrera.



Elisabeth Aranberri Etxaniz (1936)



Azkoitiko Urrategi auzoko Koategi baserrian jaio zen. Bederatzi anai-arrebatatik hirugarrena izan zen. Aita etxekoa eta ama Aizpurutxoko Aituondo baserrikoa zen. Auzoko baserri batera maistra bat ekarri zuten senide baten bidez eta baserri horretan bi etxetako umeek jaso zituzten eskolak, tartean Elisabeth. Ezkondu aurretik, sukaldean ikastera joan zen Azkoitiko Olaberri tabernara. Bizi guztia eman du baserrian, ardi, ganadu, soroko eta azoka lanetan. Lizundiatxabola baserrira ezkondu zen, etxeko Jose Inazio Juaristirekin. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Karmen Arizmendarreta

Pilar Arregi Garate (1918-2008)



Elgoibarren jaio zen eta bertan ikasi zuen. Gerra zibilean, bere gizonarekin batera Kataluniara heldu zen, eta Pirinioak gurutzatuz, Frantziako "Argeles sur Mereko" errefuxiatu eremuan egon ziren. Aste batzuetara, Pabe ondoko herri batera joan ziren lanera. Han jaio zen beren lehenengo alaba. Bigarrenaren zain zegoela, 1940an, Espainiara itzuli ziren. Gizona kartzelan egon zen lehenbizi, eta "Batallón de Trabajadores"en ondoren. Eibarren bizi izan ziren urte batzuetan, baina 1950eko hamarkada hasieran, Mexikora joan ziren bizitzera, eta han bizi zen Pilar. Hizkeran ere nabari zitzaion hori, gaztelaniaz hitz egiteko joera eta azentu berezia zuelako.

Roke Arregi Garate (1922-2016)



Elgoibarko San Bartolome kalean jaio zen 1922an. Aita Azkoitiko Xuxula baserrikoa zuen eta ama Elgoibarkoa, baina amaren aldeko amama Santandertik etorria zen. Gerra garaian Xemeinen bizi zen izeba Petra Garaterengana joan zen babes bila. Frontea aurrera pasa zenean, berriz Elgoibarrera itzuli zen. Gerrako bizipenak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2012an ([ikusi euren webgunean](#)).

█

Marcos Arregi Iriondo (1913-2003)



San Antolin auzoko Oleta baserrian jaio zen eta bertan eman zuen bere bizitza osoa. Hamaika anai-arrebaren artean bigarrena. Eugenia Gurrutxagarekin ezkondu zen 1944. urtean. Aita Azkoitikoa zuen. San Pedroko fabrika egin zuen lan 14 urtez, baina aita gaixotu zenean Oleta baserrira bueltatu zen. Txorizale handia zen eta, besteak beste, txoriei buruzko kontu asko jaso zitzaizkion.

Juanito Arrieta (1905-2000)



Kaletarra. Umetan meza-mutil ibili zen mojekin eta Maalako kapilauarekin. Maristetan ibili zen eskolan. 18 urterekin gidatzeko baimena atera zuen eta gerra garaian komitekoen eta hainbat sozialista ezagunen txofer lanetan ibili zen. Gerora Altzolako bainuetxean administrari lanetan aritu zen, eta bertan ezagutu zuen bere emazte izango zena. Elgoibarko euskara aztertze egin zitzaion elkarrizketan bere emazte Agapita Soraiz (1914-2000) ere azaltzen da.

Bentura Arrieta Bergaretxe (1925-2018)



Arriaga bailarako Irabaneta baserrian jaio zen. 10 anai-arrebatatik bederatzigarrena izan zen bera. Bi ahizpa gerra denboran hil zitzaizkion gaixotasunen ondorioz. Aita Irabaneta bertakoa eta ama Arriaga bailarako Zabalatorre baserrikoa zituen. Aita hargina zen, zubigintzan eta beste harlanetan aritutakoa. Elgoibarko herrigunera ura eramateko lehen obra berak egin omen zituen. Etxetik 2 kilometrora zegoen Altzolako eskolan ikasi zuen, Altzola eta Mendaroko beste ikasle batzuekin. Eskola bukatu eta etxean geratu zen, harik eta 26 urterekin Olazarragara ezkondu zen arte etxeko [Inazio Ansola](#)rekin. Sei seme-alaba izan zituzten. Baserriko bizimoduari buruzko azalpen ugari eman zituen egindako elkarrizketetan.

Bittor Arrieta Etxaniz (1926-2012)



Familia Aldai baseritik kalera etorri eta gero, San Frantzisko kalean jaio zen. Sei anai-arreba izan ziren. Aita Arriaga auzoko Aldai baserrikoa, eta ama Arriaga bailarako Karkizao baserrikoa ziren. Eskola publikoetan sei urte arte ibili eta gero, marianisten Pilarreko eskolan jarraitu zuen gerra hasi zen arte. Gerra garaiko bizipen ugari kontatzen ditu. Gerora aitaren tailerrean hasi zen lanean eskopeta-baskulak egiten. 1940. urtean “Arrieta y Compañía” lantegia sortu zuten, eskopeta osoak muntatu eta doitzeko. Lantegiak “Manufacturas Arrieta S.L.” izena hartu zuen 1955. urtean. Elkarrizketa garaian ere izen berberarekin jarraitzen zuen ehizarako eskopetak eta fusilak egiten. Bittor Errosario kaleko Jasone Vallejorekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Jose Antonio Arrieta Etxaniz (1924-2016)



Melitongua kale-etxean jaio zen, gaur egun Pedro Mugurutza etorbidea dagoen lekuan zegoen. Sei anai-arreba izan ziren. Aita Arriaga auzoko Aldai baserrikoa, eta ama Arriaga bailarako Karkizao baserrikoa zen. Umea zela etxea erre eta Arriaga auzoko Aldai baserrira joan ziren bizitzera. Beranduago kaleko San Frantzisko kalera itzuli ziren. Eskola publikoetan hasi eta zortzi urterekin marianisten Pilarreko eskolara joan zen gerra hasi zen arte. Marrazketa ere ikasi zuen gau-eskolan. Hamalau urterekin etxeko tailerrean hasi zen lanean eskopeta-baskulak egiten. 1940. urtean “Arrieta y Compañía” lantegia sortu zuten, eskopeta osoak muntatu eta doitzeko. Lantegiak “Manufacturas Arrieta S.L.” izena hartu zuen 1955. urtean. Elkarrizketa garaian izen berberarekin jarraitzen zuen ehizarako eskopetak eta fusilak egiten. Jose Soraluzeko Eitzagaetxetxo baserriko Margarita Oregirekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba dituzte.

Ion Arrieta Soraiz (1952)



1952an Elgoibarren jaioa. Gurasoak ere elgoibartarrak zituen: aita kaletarra eta ama Altzola auzokoa. Maalako mojen eskolan ibili zen lehenbizi eta Pilar ikastetxean ondoren.

Pello Arrieta Soraiz (1950)

Elgoibarren jaioa 1950ean. Gurasoak ere elgoibartarrak ziren, ama Altzola auzokoa. Hamalau urterekin seminariora joatea erabaki zuen eta euskararekiko irrika piztu zitzaion bertan. Ordurako jada euskal dantzak ikasten aritua zen eta euskarazko gau-eskoletara ere joaten zen. Arrebekin solfeoa ikasi zuen etxean eta, ondoren, txistua Patxiko Etxeberriarekin. Elgoibarko scout taldean eta "Juventud elgoibarresa"n ibili zen gaztetan. Filosofia eta Letretako ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean, Geografia eta Historiako espezialitatean. Elgoibarko eta Eibarko institutuetan euskara irakasteko deitu zioten jada soldadutzara joan aurretik. Gerora ere Elgoibarko institutuan lan egin zuen Euskara eta Historia irakasten eta lan handia egin zuen institutua euskaratzen eta euskarazko materiala sortzen. 1985ean herriko historia aztertzeko konpromisoa hartu zuen. Barren aldizkarian hasi zen herriko historiari buruzko zutabeak idazten. Jasotako informazio guztiarekin liburua argitaratu zuen gero. Abiapuntua jarri zuen herriko bestelako liburu batzuk argitaratzeko. Hainbat ikerketa argitaratu ditu, besteak beste, Elgoibarri buruzko `Elgoibarko ondare historiko artistikoa: Arkitektura zibila´ (1996), `Elgoibar, modernitatearen atarian (1870-1910), euskal jaiak 1907´ (2007) eta `Elgoibarko udal musika bandaren historia 1885-2010´ (2010).



Regina Arrieta Soraiz (1947)

Pedro Arrillaga Garate (1918-2014)

Arana baserrian jaio zen. Sei anai-arrebatatik bigarrena izan zen. Aita etxekoa eta ama auzoko Goikoetxe baserrikoa zen. Arana baserria Elgoibarko mojena izan zen harik eta liberalak karlisten aurkako gerra irabazi eta kendu zieten arte. Baserria salgai jarri eta Pedroren aitonak erosi zuen. Zortzi urtetik 12ra arte auzoko eskolan ibili zen, dotrina baino ez zuten ikasi. 12 urterekin Eibarrera eramaten zuen esnea astoan, bezeroei banatzeko. Soldadutzan Asturiastik Ebrorainoko frontetan borrokatu zuen. Arana baserrian eman du bizitza guztia. Eibarko Gorosta bailarako Altzubarren baserrikoa zen Petra Iriondorekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.



Agustina Arrizabalaga Eibar (1912-2012)



Idotorbe (San Pedro) auzoko Urkieta (Urkitta) baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen ezkondu arte. 24 urterekin ezkondu eta kalera joan zen bizitzera. Senarra sastrea zen eta jostundegiko lanak ikasi behar izan zituen. Senarrak bazuen lehendik seme bat eta ondoren beste lau mutil izan zituzten.

Antonio Arrizabalaga Ugarteburu (1934)

Aiastia (San Migel) auzoko Zirarda baserrikoa.

Pedro Joxe Artetxe Egia (1916-2004)



Azkue (San Roke) auzoko Andikao baserrian jaio zen 1916an, eta han bizi izan zen, autobidea egiteko bota egin zuten arte. Sei anai-arrebaren artean bosgarrena zen bera. Denak bizi ziren baserri hartan, amaren parteko aitona-amonak barne. Pedro sei-zazpi urte zituela hasi zen Plaza Txikiko eskolan, baina bere maisu zenak "blastaria" eman omen zion, eta ez zen gehiago bueltatu. Gero, ordea, Don Erasmorenean hasi zen ikasten. Han ibili zen 11 urte bete arte, urte hartan komunioa egin baitzuen, eta ordutik aurrera, lanean hasi behar izan zuen: hasieran baserrian, gero zentrolean... Gerrak harrapatu zuen, baina, momentu hartan, eta soldadu joan behar izan zuen 30 hilabetez. Bueltatu zenean, bere postuan beste bat zegoen, eta berak beste toki batzuetara jo behar izan zuen. Trenbidea egiten ere aritu zen, eta azkenik, Sigman gauzaina izan zen jubilatuta arte. Horrez gain, soldadutzatik bueltatzearekin batera, emaztegaia aurkitu zuen Pedrok: Ines Zendoia Oregi (Agirretxiki baserrikoa). 40. urte inguru hartan, beraz, ordura arte errentan izan zuen baserri hura erosi zuen 22.000 durotan, eta bertara joan ziren emaztea eta biak.

Maialen Astigarraga (1985)



Dantzaria eta dantza-irakaslea. Elgoibarko Haritz dantza taldeko zuzendaria ere bada. Dantzaren inguruan egin zion elkarrizketa Euskal Kultur Erakundeak 2015ean, Soka proiekturako.



Jesus Mari Astigarraga Zubiaurre (1951)

Antton Azpiazu Kaltzakorta (1956)

Elgoibarren jaioa, 1956an. Aita elgoibartarra zuen eta ama ere bertan hazitakoa, nahiz eta familia Etxebarritik etorria izan. Eskola nazionalean urtebete egin ostean, Pilar ikastetxeko San Viatorreko fraideekin ikasi zuen. Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin arren, umetan euskara-eskola batzuk ere jaso zituen Felix Etxeberria eta Jesus Larrañagarekin. Aita, Anton Azpiazu, oso euskaltzalea eta kultura zalea zen eta gaitasun handia zuen musikarako. 1965ean txistua eta solfeoa irakasten hasi zen etxean bertan eta Anttonek ere umetan ikasi zuen. Gazte-alaiak txistu taldeko kide izan zen Antton eta Udal txistulari banda ere sortu zuten. Hainbat ekitaldi eta dantza-saiotan jo izan du urte askoan (Euskal Jaiak, Dantzari txiki egunak...), herriko dantzariari laguntzen. Aita hil zenean, berak hartu zuen txistu-eskolaren ardura zenbait urtez. 1970 inguruan Udal Musika Bandan sartu zen eta baita Mausitxa txaranga ere, handik urtebetera. Gaztetan "Juventud elgoibarresa" taldean ibili zen eta, besteak beste, euskara eta kultura bultzatzeko hainbat ekimen bideratu zituzten: euskal kantarien kantaldiak, "Diálogos para la juventud" aldizkaria, danborrada... Urte asko egin zituen Juan Mugerza krosaren antolaketan ere.



Maria Jesus Badiola (1941)

Felix Balzola Astarloa (1928)

Otsoroandi baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Eibarko Gorosta auzoko Marapilla baserrikoa. Hiru seme-alabatatik bigarrena da bera. Umetatik hogeiki ganadu-buru inguru izan dituzte etxean orain dela gutxira arte. Bere bizimodua baserritik atera izan du beti; garai batean, 500 litro inguru esne saltzen zuten egunero kalean. Plazara ere eramaten zituzten etxeko ekoizpenak saltzera. Eibarko Arrate auzoko Gaztelu baserriko Dominga Leturiondorekin ezkondu zen eta bi seme-alaba dituzte.



Pedro Barrutia Mendikute (1920-2005)

Elgoibarren kalean jaio eta bertan bizi izan zen beti. Aita ere Elgoibarkoa zuen eta ama Mendarokoa. Denetariko lanak egin izan zituen, baina bere zaletasun handiena zentral elektrikoak ikustea zen.



Izaskun Belategi Okina (1946)



Aretxabaletan jaio zen 1946an. Aitak Elgoibarren lan egiten zuen eta, Izaskunek 13 urte zituenean, Elgoibarrera joan zen bizitzera familia osoa. Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen arren, gerora Elgoibarko Izarrako gau-eskoletan ibili zen euskaraz alfabetatzen. D titula atera zuen Bergarako UNEDen eta euskara irakasten hasi zen, lehenengo gau-eskoletan eta 1982tik aurrera Elgoibarko AEKn, harik eta erretiroa hartu zuen arte. AEKn lankide izandako [Amaia Larrañaga](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa Elgoibarko euskararen historia soziala jasotzeko proiekturako.

Felisa Bergaretxe Ardanza (1915-2018)



Ermuan jaio zen 1915. urtean. Sei anai-arrebaren artean hirugarrena, 1939. urtean etorri zen Elgoibarrera. "Ama eta nere atzetik datozen neska bixak ni baino lehenago etorri ziren Elgoibarrera, baina aitxa kartzelan zegoela ni Bilbon geratu nintzen hura zaintzearren". Emakume langilea, Sigmako fabrikari aritu zen josteko makinak probatzen; denda eta taberna ere bere ardurapean izan zituen. Itziarren ezkondu zen 1949. urtean, eta bi seme-alaba izan zituzten. "Nere gizonari *Sangre Vasca* deitzen zuten Elgoibarren, toki guztietan euskalduna sentitzen zelako".

Frantziska Bernedo Berasaluze (1925)

Aiastia (San Migel) auzoko Zirardatxiki baserrikoa.

Jesus Bilbao Aizpiri (1940)

Elgoibarren jaioa 1940an. Bai aita eta bai ama gerra sasoiari alargun geratu ziren eta, aurretik beste hainbat seme-alaba zituzten arren, Jesus izan zen bikotearen seme bakarra. Aita inklusakoa zen, baina Sollube ondoko baserri batean hazia, Bermeon. Amak euskaraz egiten zuen beti, baina aitak ez hainbeste. Hori dela eta, etxean amarekin bakarrik egiten zuen euskaraz; gainontzean gaztelaniaz. Eskola publikoan ibili zen lehenengo eta gero mojekin Pilar ikastetxean. 1956an Danobat enpresako bulego teknikoan hasi zen lanean, aprendiz-laguntzaile moduan. Bertan ezagutu zituen Felix Etxeberriak eta Sabin Osorok zeresana izan zuten euskararekin eta euskal kulturarekin izan zuen harremanean; esaterako, ikastolaren sorreran murgiltzean. Lanean berehalaxe gero eta arduraz handiagoa hartzen hasi zen, hasieran bulego-teknikoko buru eta 1966an Danobateko gerente eta, tarte horretan, Elgoibarko Izarraren eta ikastolaren inguruko kontuak jakin arren, ez zuen hainbeste parte hartu. 60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkadaren hasieran, Caja Laboral Popular-eko Batzorde Errektoreko kide ere izan zen. 1974an Danobat utzi eta makina-erremintaren alorreko enpresari batzuekin batera Maherholding eratu zuen. Trantsizio garaian EKOR Euskadiko Enpresen Sindikatuko sustatzaile eta presidenteorde izan zen. Era berean, Euskadin garrantzitsuak diren bi zentro teknologikoren bultzatzaile eta sortzaile izan zen: Tekniker eta Fatronik. 2012an Debegesaren Gure Balioak saria jaso zuen eta 2016an Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak emandako Joxe Mari Korta Saria ere bai.



Ana Castilla Molin (1958)



Balentin Egaña Lizundia (1934-2021)

Aiastia (San Migel) auzoko Beoain ("Bigoin") baserrian jaio zen. 17 anai-arreba ziren bi ama desberdinenak. Euren aitak lehenbiziko emaztearekin hiru seme-alaba izan zituen; alargun gelditu eta berriz ezkontzean, beste 14 izan zituen. Aita Itziarkoa zen eta ama Larruskaingoa. Bere anaia [Inazio](#)rekin batera egin zitzaion Elgoibarko euskara jasotzeko elkarrizketa.



Inazio Egaña Lizundia (1927-2013)



Aiastia (San Migel) auzoko Beoain ("Bigoin") baserrian jaio zen. 17 anai-arreba ziren bi ama desberdinenak. Euren aitak lehenbiziko emaztearekin hiru seme-alaba izan zituen; alargun gelditu eta berriz ezkontzean, beste 14 izan zituen. Aita Itziarkoa zen eta ama Larruskaingoa. Bere anaia [Balentin](#)ekin batera egin zitzaion elkarrizketa Elgoibarko euskara jasotzeko proiektu honen barruan.

Josefa Egaña Lizundia (1924-2014)

Aiastia (San Migel) auzoko Beoain ("Bigoin") baserrian jaio zen. 17 anai-arreba ziren bi ama desberdinenak. Euren aitak lehenbiziko emaztearekin hiru seme-alaba izan zituen; alargun gelditu eta berriz ezkontzean, beste 14 izan zituen. Aita Itziarkoa zen eta ama Larruskaingoa.

Josepa Egidazu Gorostidi (1926)



Elgoibarko Idotorbe (San Pedro) auzoko Urkiola baserrian jaio zen. Gero, Markinara ezkondu zen, baina bertakoek arin nabaritzen diote "probintziana" dela. Aita Elorrikoa zen eta ama San Pedrokoa bertakoa. Josepak gizonaren gurasoak zaindu behar izan ditu eta baita izeko-osaba ezkonbakoak ere. Honez gain, behar handia egin izan du beti baserrian. Baserriko lanen inguruan eta familiako kontuez hitz egin zigun berarekin egon ginenean, besteak beste. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Juan Mari Eguren Iriondo (1951)



Elgoibarren jaioa, 1951n. Gurasoak ere biak Elgoibarren jaioak ziren, baina amaren familia bertakoa zen eta aitarena, berriz, Errioxatik etorria. Amarekin eta haren familiarekin euskaraz egiten zuen, baina aitarekin gaztelaniaz, nahiz eta euskaraz ere pixka bat ikasi zuen lan-giroan. Umetan, lehenengo, mojekin ibili zen eskolan, gero Aita Madinabeitia eskola publikoan pare bat urtez eta, ondoren, fraideekin Pilar ikastetxean Batxilergoa egiten. Handik Eibarrera joan zen, Armeria eskolara, delineaatzaile ikasketak egitera. Lanbi lantegian lan egin zuen erretiroa hartu arte. 1987an Elgoibarko Izarra elkarteko lehendakari izan zen urtebetez. Eta urte horretatik 1995era bitartean Elgoibarko Udaleko zinegotzi ere izan zen; bera egon zen Udaleko lehen Euskara Batzordean.



Nati Elkoroiribe Alberdi (1930-2014)

Mariano Elustondo Aizpiri (1912-2007)



Sallobente-Ermuaren bailarako Marigorta (Maiorta) baserrian jaio zen. 31 urte zituela, Uparitzagabekoa baserriko Gloria Maiztegiarekin ezkondu zen, eta orduetik, bertan bizi izan. Zortzi anai-arrebaren artean gazteena zen Mariano. Lanari dagokionez, 1939. urtean, gerratik bueltatzerakoan, forjan hasi zen lanean, eta bertan lau urte igaro zituen. Urazandiko fundizioa zabaldu zutenean, ordea, bertara joan zen lanera, eta bere bizitzako 36 urte hantxe eman zituen lanean.

Mari Karmen Elustondo Oñederra (1947)



Elgoibarren jaioa. Gurasoak ere elgoibartarrak zituen. Eskola nazionalean ibili zen lehenbizi eta 10 urterekin Santa Klara kolegiara joan zen. Umetan gaztelaniarako joera hartu zuten arren, gurasoek euskaraz egiteko esaten zitelako eutsi zioten euskarari. Euskarazko klaseetara ere bidali zuten umetan. Geroago, gau-eskoletan ibili zen eta Bergarara joan zen, UNEDera, euskaraz alfabetatzera. 16 urterekin Elgoibarko Izarra elkartearen hasi zen lanean, administrari gisa; 26rekin utzi zuen, ezkondu zenean. [Angeles Ortuosterekin](#) batera egin zitzaion elkarrizketa [Euskararen Historia Soziala Elgoibarren](#) proiekturako.

Maria Epelde Arriola (1916-2011)



Mutrikun jaio zen 1916ko abenduaren 3an, Sakoneta baserrian. Zortzi anai-arrebatatik 5.ena da bera, eta denak bizi ziren baserri hartan, baita aitona-amonak ere. Sei urte ingururekin hasi zen eskolan eta 11 urterekin utzi egin zuen eskola lanean hasteko. 13 urte zituela, baina, etxetik alde egin behar izan zuen gerra pasa arte, eta Bilbora joan zen bere bi ahizpak han baitzeuden etxe batean zerbitzatzen. Bueltatu zenean, Arriola tabernan hasi zen lanean, eta 28 urterekin Valerio Esnaola "Musillonekuarekin" ezkondu zen.

Agurtzane Epelde Iriarte (1960)



Elgoibarren jaioa, 1960an. Aita mutrikuarra eta ama azpeitiarra. Sortu berria zen Elgoibarko ikastolan ibili zen umetan, hamaika urtera arte. Handik Santa Klarako ikastetxera joan zen lehenbizi, Batxilergoa egitera, eta, ondoren, Eibarko institutura. Elgoibarko Izarrako gau-eskoletan euskara irakasten hasi zen. Udal euskaltegiak sortu zirenean, plaza atera eta Bergaran hasi zen lanean; Elgoibarren Udal euskaltegia martxan jarri zenean, hara aldatu zen gero. Umetan Elgoibarko Izarraren dantza-eskolan hasi zen dantzan eta gerora bera ibili zen umeei euskal dantzak erakusten denbora luzez.

Mari Jose Estibariz Astarloa (1958)



Elgoibarren jaioa. Gurasoak tolosarrak zituen biak, baina ez zekiten euskaraz eta ez zuen euskararik jaso etxean. Eskolan ere gaztelaniaz ikasi zuen dena, mojekin. 15 urterekin, euskararekiko kontzientzia piztuta, euskara ikasten hasi zen eta zazpi urtez jardun zuen gau-eskoletan, euskara ikasten. Ikastaro trinko bat ere egin zuen Arrasaten udara batean. 1977an "Pitxintxu" denda jarri zuen ahizparekin batera eta euskararen aldeko jarrerari eutsi izan diote beti dendan: lehen hitza euskaraz, kartelak euskaraz, euskarazko brodatuak... Parte hartu duen bestelako taldeetan ere (Haizea Emakume Taldean, Txankakua Merkatarien Elkartean...) beti saiatu izan da euskararen erabilera eta presentzia bultzatzen. Elgoibarko euskararen historia soziala jaotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

Jone Etxabe Garate (1946)



Zumaiako Artadi auzokoa. Bost urte inguru zituela familia Elgoibarrera joan zen bizitzera, aitak bertan lan egiten zuelako. 1963an, 17 urte besterik ez zituela, Elgoibarko ikastolan hasi zen andereño lanean, [Felix Etxeberriak](#) eskatuta. Elgoibarko ikastolako bigarren andereñoa izan zen, beraz, [Itziar Ajuria](#) eman baitzion hasiera 1962an. Ikastolan lanean hasi baino lehen, bi hilabetez [Karmele Esnal](#) andereñoarengana joan zen Jone, haren metodologia ikastera, eta 1963-1964 ikasturtean zehar prestakuntzarekin jarraitu zuen. Elgoibarko ikastolan lan egin zuen erretiroa hartu arte. Bizi osoa Elgoibarren pasa arren, bere euskarari eutsi dio. Lankide izandako [Nekane Iturbere](#)kin batera egin zitzaion elkarrizketa, Euskararen historia soziala Elgoibarren" proiekturako; noka egiten diote elkarri.

Luis Etxaniz Osoro (1930-2003)



Urruzuno auzoko Munoandi baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen ezkondu artean. Gero, kalera joan ziren bizitzera. Aita Azkoitiko Aldazabal baserrikoa zuen eta ama, berriz, Urruzuno auzoko Abatetxekoa. Bederatzi anai-arreba ziren, zazpi mutil eta bi neska. 19 urterekin fabrika hasi zen lanean eta 22 urte forja baten tornulari lanetan ibili zen. Soldadutza Burgosen egin zuen, eta horri buruzko kontu ugari kontatzen ditu.

Felix Etxeberria Larrañaga *Parapan* (1926-2022)



Sallobente-Ermuaran auzoko Parapan baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Azkoitiko Madariaga auzoko "Luarixe" (Luberiaga) baserrikoa. Zortzi anai-arreba ziren, bera laugarrena. Zortzi urterekin hasi zen eskolan, baina hamaikarekin utzi egin behar izan zuen etxeko lanak egiteko. Hamalau urterekin peoi lanari ekin zion Eibarren; gero Orbea bizikleta lantegian eta Elgoibarko Sigman ere jardun zuen. Elgoibarko Jarbe lantegian doitzaille lanbidea ikasi zuen. Bertan bederatzi urtez jardun ondoren, lantegiko beste hamasei langilerekin Danobat makina-erreminta lantegi berria sortu zuten, geroago kooperatiba bihurtuko zena. Euskarazko klaseak hartu eta eman ere egin zituen, harik eta beste lagun batzuekin Elgoibarko Ikastola sortu zuten arte. Urtebete geroago, Elgoibarko Izarra euskara elkarte sortu zuten. Lolita Canales elgoibartarrarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Josefa Gabilondo Agirregomezkorta (1920)



Idotorbe (San Pedro) auzoko Egigurentxiki ("Eguentxiki") baserrian jaio zen. Bost anai-arrebatatik laugarrena izan zen. Aita etxekoa eta ama auzoko Aubia (Aubixa) baserrikoa zen. Bederatzitik 13 urtera arte auzoko eskolan ikasi zuen. Gero, kalera joan zen josten ikastera. Gerran anaia bat eta aita galdu zituen, eta honen ondorioz ama ere hil egin zitzaion. Baserrian bizi izan da beti. Urtetan, egunero joaten zen kalera esnea saltzera. Armueta baserrira ezkondu zen etxeko Antonio Arrizabalagarekin.



Antonio Garagarza Leturiondo

Aiastia (San Migel) auzoko Zumeta baserrikoa.

Juan Garate Epelde (1910-2001)

Niceto Garate Goihartzun (1923-2017)

Gotzon Garate zenaren anaia. Elgoibarko Izarra elkartekoek elkarrizketatu zuten, herriko kontuak jakiteko.

Damiana Garate Olañeta (1918-2018)

Idotorbe (San Pedro) auzoko Armazio baserrikoa.



Pake Gartzia Konde (1952)

Iñaki Gorostiza Etxaniz (1932)

Elgoibarren jaioa 1932an. Aita bertakoa zuen eta ama Azkoitiko Aldazabal baserrikoa. Zortzi senide izan ziren. Umetan eskola publikoan ibili zen. Oso gazterik hasi zen dantzan, Jose Maria Agirrebaltategi abadeak bultzatuta eta 11 urterekin jada jendaurrean dantza egiten zuen. Gerora bera izan zen dantza-taldeko irakasle, Luis Gurrutxagak erreleboa hartu zion arte. Pilotan ere aritzen zen eta lagun-talde batekin batera Baltasar Pilotazale Elkarteak sortu zuen. Gainera, futboleko ere aritzen zen eta Elgoibarko talde guztietan jokatzeko gain, Gipuzkoako selekzioarekin ere jokatu zuen.



Alfonso Guilló González (1953)

Donostian jaio zen 1953an, baina beti bizi izan da Elgoibarren. Aita katalana zen, baina ez zuen ezagutu, bera jaio aurretik hil zelako. Ama Donostiarra zen, baina amaren ama elgoibartarra; hala ere, birramama Medina de Pomarrekoa zen eta, beraz, euren etxean ez zen euskararik egiten. Elgoibarko Aita Agirre eskola nazionalean ibili zen 9 urtera arte; handik Eibarko La Salle ikastetxera joan zen eta 16 urterekin magisteritza ikastera Donostiara. Elgoibarko ikastolan lan egiteko proposamena egin zioten eta euskaraz ikasteko konpromisoa hartu zuen. Bere kontura hasi zen euskara ikasten Oñatibiaren "Euskera irrati bidez" metodoarekin eta udara bat Azkoitiko Aitolazar baserrian pasa zuen, euskalduntzen. 19 urterekin hasi zen lanean Elgoibarko ikastolan eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte. Zuzendari kargua ere izan zuen hasierako urteetan. Oso gazterik hasi zen lagunekin musika jotzen eta 16 urterekin "Expresión sonora" taldea sortu zuen beste hiru lagunekin batera. 1971n "Koska" taldea sortu zuten, euskaraz abesten zuen lehenengotako rock taldea izan zena. Bi diska ere kaleratu zituzten, lehenengoa 1976an eta bigarrena 1979an. 1985ean desegin zen taldea. Hala ere musika jotzen eta sortzen jarraitzen du oraindik ere Alfonsok.



Agustin Gurrutxaga Garate (1917-2016)

Aiastia (San Migel) auzoko Berdezkunde baserrian jaioa. Aita ere bertakoa zen. Bertan bizi izan da beti. Emaztea Etxebarrikoa. Gerra garaian bakarrik irten zen baserritik. Hiru urte egin zituen nazionalekin. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).



Joxe Gurrutxaga Lizarralde (1919-2014)

Sallobente-Ermuaran auzoko Urkidi baserrian jaio zen 1919ko otsailaren 4an, eta han bizi izan zen 30 urte bete zituen arte. 12 anai-arrebaren artean, zortzigarrena zen bera. 17 urterekin Unzueta tailerrean hasi zen lanean, soldadutzara joan arte. Handik bueltatutakoan, Sigman aritu zen jubilatuta arte. "12 pezeta eta txakur haundi bi" irabazten zituen, gogoratzen duenaren arabera. Sallobente-Ermuaran auzoan bertan ezkondu zen Andresa Izagirrerekin, eta emaztearen baserrira, Garagartzabekora, joan zen bizitzera.



Zuhaitz Gurrutxaga Loiola (1980)

Aiastia (San Migel) auzokoa. Aitaren jaiotetxean (Berdezkunde baserrian) bizi izan zen 3 urtera arte. Gero Aldatz-gain izeneko etxea egin zuten handik gertu eta hara joan ziren bizitzera. Ume-umetatik izan zuen futbolerako zaletasuna. 12-13 urterekin Elgoibarko futbol taldean hasi zen jokatzeko federatuta eta 14rekin Errealera eraman zuten, infantiletara. Umetan ebakuntza bat egin zioten bihotzean eta, arazo horren ondorioz, Errealean infantiletan zebilela, medikuek esan zioten ezingo zela profesional mailara pasa. Orduan, Elgoibarrera itzuli zen, kadeteetara. Han zebilela, Espainiako selekzioak deitu zion 15 urtez azpikoekin jokatzeko. Pentsari esker albistea zabaldu zen eta Erreala berriz jarri zen berarekin harremanetan. Ordukoan, azterketa medikua ongi atera zen. 19 urterekin debutatu zuen Errealarekin. 3-4 urte egin zituen guztira. Gero, beste talde batzuetan ibili zen: Aljeciras, Rayo Vallecano... Madrilera joateak begiak ireki zizkion eta beste gauza batzuetan hasi zen: antzerkia ikasi, irakurri... Gitarrarekin kanta sortzen hasi zen eta 'Van Poppel' izeneko taldea sortu ostean, diska bat ere kaleratu zuen. 2010ean eman zuen bere lehen kontzertua. Nahiz eta 32 urtera arte futbolekin jokatzeko jarraitu, kultura arloa ere jorratu zuen: musika, monologoak... Azken futbol taldea Beasain izan zuen. Ordurako monologoak egiten hasita zegoen. Gero, telebistara jauzi egiteko aukera sortu zitzaion eta futbola utzi egin zuen. 'Tumatxak' saioa aurkezteko eskaintza egin zioten lehenbizi; atzetik etorri ziren 'Hizkamizka' eta 'Herri txiki infernu handi' saioak.



Jose Gurrutxaga Ondartza (1921-2016)

Elgoibarko Ormetxe etxean jaio zen. Gurasoak elgoibartarrak ziren, eta bi seme-alaba izan zituzten. Eskola publikoetan lau urtez eta beste lau marianistekin ikasi zuen. Eibarko "Irasuegui y Maruri" inprimategian lanean hasi eta berehala gerra etorri zen. Aita "Batallón Prieto" rekin joan zen Lekeitiora, eta Jose berarekin joan zen. Bilbon zeudela, amarekin elkartu eta Frantziara egin zuten ihes biek. Hiru urte etxetik kanpo pasatuta, Frantzian eta Katalunian zehar, A Coruñako Padron hiriko kontzentrazio esparrutik itzuli zen etxera. Eibarko tresneria banaketa-biltegi bateko bulegotik jubilatua zen. Kirolari amorratua izan da beti. Korrikalari beterano txapelketa askotan hartu du parte Euskal Herrian, Espainian eta Europan zehar. Makina bat errekor hautsi eta domina lortu ditu bere korrikalari ibileran. Juana San Martin elgoibartar ile-apaintzailearekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.



EGB-007 Hizlari ezezaguna

Julen Iriondo Bergaretxe (1920-2014)



Santa Ana kaleko Sansonenekua etxeko hirugarren pisuan jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama San Antolin auzoko Zabalatorre baserrikoa. Gerra hasi aurretxoan, eskolari utzi eta lanean hasi zen 'Gabilondo y Cía' arma-lantegian. Mobilizatuta bezala egin zuen lan lantegi hartan, baina gerra bukatu zenean, urtebeteko soldadutza egin behar izan zuen Deustuko 'Recuperación de Automóviles' zentroan lanean. 13 urterekin, Elgoibarko musika-bandan tronpeta jotzen hasi zen. Beranduago, bandako zuzendari izan zen urte batzuetan. 50eko hamarkadan, Iriondo altzari-denda ireki zuen. Kontxa Azkue elgoibartarrearekin ezkondu zen.

Luis Mari Iriondo Garate (1931-2020)



Luis Mari Elgoibarren jaio zen 1931. urtean. Aita, Jose Mari Iriondo, Altxolakoa zen; ama, Maria, zestoarra eta sukaldari bikaina. Zortzi urte zituela, elizako koruan triple moduan hasi zen eta hortik sortu zitzaion musikarengatik zaletasuna. Herriko bandan klarinetea eta txistua jo zituen eta ezpata-dantzaria ere izan zen. Lehen hezkuntza egin ondoren, 6 urterekin eskola publikoetan hasi zen don Felix maisuarekin. Ondoren, beka bati esker, San Viatore anaiekin ibili zen El Pilar ikastetxean. Bere asmoa ikasten jarraitzea bazen ere, 13 urterekin Arana lantegian hasi zen: "pintxe" lanetan lehenengo eta aprendiz geroago. Bere burua tailerrei lotuta ikusi zuenez, Elgoibarko "Artes y Oficios" eskolan eta "Señorita Ana"ren akademian ikasketekin jarraitu zuen. Bere trebetasuna ikusiz, Sigma lantegiko bulego teknikoan lanpostua eskaini zioten eta bertan egon zen 30 urte egin eta Acmen gerente modura hasi zen arte. Acmen zegoela egin zituen enpresa-zuzendaritza ikasketak. Elkarrizketa garaian erretiratuta zegoen arren, ikasten jarraitzen zuen. Kultura zaletasun handiduna: historia, arte, musika eta zinezalea. Ez dago Elgoibarren berak parte hartzen ez duen kultura ekintzarik.

Teodosia Iriondo Garate (1907-2010)



San Frantzisko kalean jaio zen. 12 urte besterik ez zituela, San Frantzisko kalean bertan zegoen abarketa-denda batean hasi zen lanean. Teodosia 18 urte bete arte egon zen han lanean, baina kiebra egin zuen, eta estazioaren parean zegoen beste abarketa-denda batera joan zen lanera. 20 urterekin Teodosia Kubara joan zen eta 8 hilabete eman zituen bertan. "Industria jartzera jun ginan, hango jendiari erakusten egon ginan. Ez dakit zergaitikan baina han neska ederragoa nintzan, askoz ere, hemen baino. Kubatik etortzerakoan alpargaterixiak kiebra ein zaban ta zerbitzera jun nintzen Madrilera, nere lehengusina Muguruza arkitektu elgoibartarraren etxean zegoen orduan. Gainera, Elgoibarko neskak zeuden Madrilen orduan, eta haiekin ibiltzen nintzan ni". 24 urterekin ezkondu zen Madrilen ezagutu zuen andaluziar batekin.

Pako Iriondo Lizarralde (1926-2014)



San Roke (Azkue) bailarako Tokieder etxean jaio zen. Aita San Antolin (Altzola) auzoko Garaño baserrikoa (gaur galduta) zen, eta ama, berriz, San Roke (Azkue) auzoko Agirrekoa. 13 urterekin eskola utzi eta 'Arriola y Cía' arotzeriarako makinak egiten zituen lantegian hasi zen mandatari lanetan. Bertan doitzaille titulua atera zuen. Gero, 'Estarta y Ecenarro' (Sigma) lantegian jardun zuen jubilatuta arte. Gerra denboran, familia leku ezberdinetan banatuta egon zen. Piedad Madariaga bergararrarekin ezkondu zen, eta alaba bat izan zuten. Mendizale amorratua, Elgoibarko Eup! Mendizale taldeko kide izan zen gaztetan. Eup! taldetik Morkaiko elkarteak sortu zuten. Garai hartan sei lagunentzako motxila bat izaten zuten, eta kanporako irteeretara kamioi batean joaten ziren, Guardia Zibilaren salbokonduktoa lortu eta gero. Morkaiko elkarteko eta 'Federación Vasco-Navarra de Alpinismo'-ko presidentea izan zen urte askoan. Euskal mendizaletasunaren historia eta gorabeherak, materialaren bilakaera eta abarri buruz mila azalpen ematen ditu. Mendi kirolerako lehiakortasuna aztertzen du. Bere euskal mendi kutunenak zeintzuk diren azaltzen du.

Juliana Irizar Goiburu (1912-2011)



Idiazabalen jaio zen Mitzizar baserrian 1912an, eta 14 urte bete zituen arte egon zen bertan. 7 urte zituela hasi zen eskolan Idiazabalen eta 12 urte bete arte ikasi zuen. Zazpi anai-arrebaren artean bigarrena, 14 urterekin Donostiara joan behar izan zuen familia oso aberats baten etxera zerbitzatzera. "Izatez elgoibartarrak ziren, baina Argentinara joan eta han dirutza handia egin zuten". Gerora, pare bat urtez Donostiako hotel txiki batean lan egin ondoren, Elgoibarrera etorri zen 27 urte zituela. Modesto Arriolarekin ezkondu zen 1940. urtean. Alargun gelditzean, familia aurrera ateratzeko, halabeharrez, lanean hasi behar izan zuen. Horrela, 1953. urtean Sallobente-Ermuaran auzotik kalera etorri ziren bizi izatera. Estanko batean lan egiteko aukera izan zuen, eta familia aurrera ateratzea lortu zuen.

Pako Isasti Irusta (1929-2021)



Altzolako Sakristauen etxean jaio zen. Zazpi anai-arreba ziren. Ama etxekoa eta aita Itziarko Endoia auzoko Urki Handi baserrikoa zen. Zortzi urtetik hamabira auzoko eskolan ibili eta gero, Arantzazura joan zen fraidegai. Bertan bi urte bete aurretik gaixotu eta etxera itzuli zen. Eraikuntzarako arotz bezala jardun zuen "Carpinteria Juaristi Apraiz" lantegian jubilatua zen arte. Urte pare batez Debako Txopa tailerrean jardun zuen ebanista lanean. Umetan aitajaunarekin hasita, bizi guztia auzoko elizako sakristau lanak egin ditu. Mezan kantatzen zuen, eta beste auzoko lagun batzuekin Altzolako koroa sortu eta berak zuzendu zuen. Markinako Larruskain auzoko Amallobieta baserriko Justa Amallobietarekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Elgoibarko euskara jasotzeko egindako elkarrizketan Pedro Larizekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Pako argazkiko ezkerrekoa da.

Nekane Iturbe Balda (1940)

Ikaztegietan jaio zen. Zortzi senide izan ziren. Magisteritza ikasi zuen eta Altzolara joan zen bertako mojen komentura, batxilergoko ikasleei eskolak ematera. Hango abadeak euskal kontzientzia piztu ostean, Donostian egin zuen urtebete andereñoen erresidentzian eta [Mari Karmen Mitxelena](#)rengana joaten zen praktikak egitera. Elbira Zipitriarekin ere izan zuen harremana. Han prestatu ostean, Elgoibarko ikastolan hasi zen lanean 1965 inguruan eta 1975era arte jardun zuen. Elgoibarrera ezkondu eta bizi gehiena bertan pasa arren, bere euskarari eutsi dio. Ikastolako lankide izandako [Jone Etxabe](#)rekin batera egin zitzaion elkarriketa "Euskararen historia soziala Elgoibarren" proiekturako; noka egiten diote elkarri.



Joseba Konde Zubiaurre (1954)

Elgoibarren jaioa, Santa Ana kalean. Ama elgoibartarra zen, Metalgua baserrikoa, eta aita, berriz, Ermutik etorria. Aitaren aldeko aitona-amonek Konde taberna izan zuten plazan eta Josebaren gurasoek, berriz, Gorbea taberna, Santa Ana kalean. Umetan Eibarko La Salle ikastetxean ibili zen eta Unibertsitate-ikasketak Bilbon egin zituen. Bertan ikaskideei euskara irakasten aritu zen. Geroago Bergarako UNEDen ibili zen euskara titulua ateratzeko. 1979an Elgoibarko Eskola Profesionalean hasi zen irakasle gisa eta kontabilitatea euskaraz eman zuen lehen irakaslea izan zen. Elhuyarreko kideekin batera ikasmateriala euskaratzeko lanean ibili zen. Kontabilitatea euskaraz emango zuen irakaslea behar zela eta 1988an Unibertsitatera pasa zen, baina ikasturte bat besterik ez zuen egin, Kondia lantegian hasi baitzen lanean. Elgoibarko Izarra elkarteko lehendakariorde eta lehendakari izan zen 1981-1982an eta Elgoibarko ikastolako (Pedro Migel Urruzuno kooperatibako) lehendakari ere bai 1992-1993 urteetan.



Juan Lariz Garate (1918-2017)

Altzolan jaio zen 1918an Rezolako zentralaren ondoko Altzolabe baserrian. Aita markinarra eta ama mendaroarra izan arren, ezkondu ondoren Altzolara joan ziren, eta 5 seme-alaba izan zituzten. Haietako hirugarrena dugu Juan. Rezolan bertan hasi zen lanean lehenengoz, 17 urte zituela. Gerratea etorri zenean, ordea, soldadu joan behar izan zuen. Gerra ondoren, 24 urte zituela, Sigman hasi zen lanean, 54 urte bete arte. 1960an Pakita Olazabal mendaroararekin ezkondu zen.



Pedro Lariz Muguruza (1924)



Altzolako baserri batean jaio zen, baina kalean bizi izan da. Aita Bolibarkoa zen, baina gaztetan Oizete baserrira joan zen familiarekin bizitzera. Ama, berriz, Mendaroko baserri batekoa zen. Aitak eta osabak gaur egun elkarte dagoen lekuan egin zuten eurak bizitzeko etxetxo bat eta han bizi izan zen Pedro ezkondu arte. Elgoibarko euskara jasotzeko egindako grabazioan Pako Isastirekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Pedro argazkiko eskumakoa da.

Joxe Mari Larrañaga Arrizabalaga Larra (1960)



Elgoibarren jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Aramaiokoa. Sortu berria zen Elgoibarko ikastolan ikasi zuen 9 urtera arte eta, ondoren, Pilar ikastetxean. Elgoibarko Izarrako dantza-taldean ibili zen umetan. Futbolearen ere jokatu zuen gaztetan eta, han zebilela, lagun batzuen bitartez antzerki mundura gerturatu zen. Taupada antzerki-taldean sartu zen 1977an, taldea sortu zenean, eta ordutik bertan jarraitzen du, 40 urte baino gehiagoan euskarazko antzerkiak egiten. Elgoibarko euskararen historia soziala jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa Taupadako kide duen [Eduarne Lasarekin](#) batera.

Amaia Larrañaga Bilbao (1961)



Idotorbe (San Pedro) auzoko Legarda baserrikoa. Umetan auzoan bertan ibili zen eskolan, sei urte ingurura arte. Ondoren, Elgoibarko eskola nazionalen ibili zen eta handik Eibarko institutura joan zen. Euskaraz alfabetatu ostean (Bergarako UNEDen ibili zen D titulua ateratzen), euskarazko irakasle gisa hasi zen lanean eta 1982an Elgoibarko AEK sortu zenean, bertan hasi zen lanean. AEKn lankide izandako [Izaskun Belategi](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa Elgoibarko euskararen historia soziala jasotzeko proiekturako.

Sebas Larrañaga Uriguen (1956)



San Bartolome kalean jaioa. Gurasoak ere elgoibartarrak zituen, baina aitaren aldeko aitona azkoitiarra zen eta amaren aldekoa, berriz, ermuarra, `Etxegiña´ bertsolaria, hain zuzen ere. Herriko eskola nazionaletan ikasi zuen. Elgoibarko lehenengo umeen dantza-taldeko kide izan zen eta gerora irakasle ere bai Elgoibarko Izarrako dantza- eskolan. Saltsa askotan sartuta ibili zen gaztetan: dantzan, antzerkian, abesbatzan, "Juventud elgoibarresa" taldean... Aubixa aterpetxea sortu zenean, lehenengo txandetako begiralea izan zen. Euskaraz alfabetatzeko hainbat ikastaro egin zituen eta D titulua ere atera zuen Bergarako UNEDen. Maisutza industrialala ikasi zuen Eibarko Armeria eskolan, baina, Aubixan umeekin ibili ostean, irakasle sena piztu zitzaion eta Magisteritza ikasi zuen Donostian. Ikasketak bukatzeko urtebete falta zitzaiola Elgoibarko ikastolan hasi zen lanean eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte. Elgoibarko euskararen historia soziala jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Itziar Agirregomezkorta](#) emaztearekin batera.

Edurne Lasa Amorebieta



Kortezubin jaio zen, baina, oso txikia zela, familia Elgoibarrera joan zen bizitzera. Ama Kortezubikoa zen eta aita Legorretakoa. Ikasketak gaztelaniaz egin zituen arren, euskaraz alfabetatu zen Bergarako UNEDen. Magisteritza ikasi eta Elgoibarko ikastolan hasi zen lanean, baina hainbat formakuntza egiten jarraitu zuen. Ume-umetatik izan zuen irudimen handia eta antzerkirako zaletasuna eta 1977an Taupada antzerki-taldea sortu zuen beste zenbait lagunekin batera. 40 urte baino gehiago daramatza euskarazko antzerkiak egiten. Elgoibarko euskararen historia soziala jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, Taupadako kidea duen Joxe Mari "Larra"rekin batera.

Floren Leiaristi Iriondo (1928-2015)



Azkue (San Roke) auzoko Santsongoa baserrian jaio zen. Ama zuen bertakoa eta aita, berriz, Sallobente-Ermuarian auzoko Garagartza baserrikoa. Bost urte zituela, familia osoa jaitsi zen kalera bizitzera, Kamiñorokoa etxera. Zortzi urterekin hasi eta 15 urtera arte Plaza Txikiko eskolan ikasi zuen. Aitak Alkortaren tailerrean egiten zuen lan, eta amak espartinak josten zituen etxean. Florenek 'Juaristi Hermanos' makina-erreminta txikien tailerrean ikasi zuen tornulari lanbidea. Gero, Danobat kooperatibara joan zen lanera, eta bertan jubilatu zen. Sallobente-Ermuarian bailarako Marigorta ("Maiorta") baserriko Teodora Elustondorekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten.

Juliana Lete Ipintza (1908-2001)



Idotorbe (San Pedro) auzoko Ipintza baserrikoa. Umetan artzain egon behar izaten zuenez, eskolara gutxi joan ahal izan zen. Baserriko bizimoduaren gaineko azalpen ugari ematen ditu. 18 urterekin ezkondu zen. Senarra Eibarko Aginaga auzokoa zen. Ezkondu ostean gurasoen baserrian (Ipintzan) geratu zen bizitzen, eta bertan bizi izan da beti.

Joxe Lizarralde Agarre (1917-2006)



Azkue (San Roke) auzoko Agirre baserrikoa. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Soraluzeko Iturbe Zahar baserrikoa. Eskolan, gutxi ibili zen. Auzoan eskolarik ez, eta herriko eskolara joaten zen. Gerra denboran Teruelen egon zen, eta 32 hilabete egin zituen soldadutzan. 27 urte egin zituen trenbidean lanean, kaltzadore lanetan. Elkarrizketa egin zitzaionean Petra bere emaztea ere bertan zegoen.

Patxi Lizarralde Iriondo Agarre (1936)



Mutrikuko Abeletxe baserrian jaio zen, ama hangoa zelako eta 1936an gerra hasi zenean hara joanda zeudelako. Aita elgoibartarra zen, Agarre baserrikoa. Maalako mojen eskolan ibili zen lehenbizi eta gero Pilar ikastetxean, San Viatorreko fraideekin. Meza-laguntzaile zebilela hasi zen antzerkiak egiten eta berehala hasi zen nagusien antzerki taldean ere parte hartzen. 1959an Elgoibarren egin zen lehen euskarazko antzerkian parte hartu zuen, `Aitona eta biloba´ obran, hain zuzen ere. Geroago `Ixkiña Mutrikun´ euskarazko monologoarkin herririk herri ibili zen. Antzerkigintza, mendizaletasuna eta beste hainbat kontu izan genituen hizpide "*Elgoibarko euskararen historia soziala*" proiekturako egindako elkarrizketan.

Maritxu Loiola Ugarteburu (1948)

Idotorbe (San Pedro) auzoko Aubixa baserrian jaio zen 1948an. Ama zuen bertakoa eta aita ere auzokoa, Usatorre baserrikoa. Auzoko eskolan ibili zen umetan. Hamaika urtera arte ez omen zen asko joan kalera. Berak 20 urte zituela joan ziren kalera bizitzera, aitaren osasun arazoengatik; aldaketa handia izan zen berarentzat. Andres Alberdik lagunduta, D eta B euskara tituluak atera zituen UNEDen, Bergaran. Ondoren, bi urteko itzulpengintza ikastaro bat egin zuen Donostian. Euskara irakasten hasi zen, hasieran ikastolaren lokaletan eta, geroago, udal langileei. Elgoibarko Udaleko lehenengo itzultzailea izan zen, nahiz eta hasieran itzulpen lanak baino gehiago kultura bultzatzeko lanak egin: azoka bultzatu, jaialdiak antolatu... Bere aitak Elgoibarko Izarrarekin sinatutako hitzarmenari esker, Aubixa baserria aterpetxe izateko moldatu zuten. Hasierako urteetan Elgoibarko ikastolako umeak joaten ziren uda pasatzera. 1989-1990 inguruan monumentu historiko izendatu zuten. Etxea eraberritu zuten eta euskal girotze barnetegi moduan hasi zen berriz 1992an. Ordutik Maritxuk darama etxearen ardura.



Mahai-ingurua Elgoibarren

Hilario Agirrebeñari, Mari Paz Idiakezi, Maria Teresa Juaristiri eta Perpetua San Martini egindako elkarrizketa, herriko kontuak jasotzeko, jolasak batez ere.

Ramon Maiztegi Iriarte (1921-2005)

1921ean jaio zen Elgoibarren Ormaetxea etxean eta lau urte bete arte bizi izan zen bertan. Ondoren, Santa Klara kalera joan zen bizitzera anaia eta gurasoekin batera. Aita Soraluzekoa zen eta ama bergararra. Gerra etorri zenean, ikasteari utzi behar izan zion, eta frontera eraman zuten Eibarrera; 15 urte besterik ez zituen. Gerra ostean, "Estarta y Ecenarron" hasi zen lanean, eta han aritu zen bere bizitza osoan. Erlijosoa, mendizalea eta euskaltzalea, ez zen inoiz ezkondu. Morkaiko mendizale elkartearen, Gure Bide elkartearen, Odol emaitzen elkartearen eta "Cooperativa Elgoibarresaren" sortzaileetariko bat izateaz gain, "Club Deportivo Elgoibar" elkartearen zuzendaritzan ere egon zen.



Imanol Mendikute Elorza (1927-2019)



Kaletarra. 3 urte bete zituenean Satur Ciaran irakaslearekin hasi zen eta 6 urte ingururekin Pilarreko ikastetxera eraman zuten. Han gerra hasi arte ibili zen. Gerra ondorenean Don Felix irakaslearekin jarraitu zituen ikasketak. Eskolarik gabe geratu zenean, 14 urterekin, aitarekin hasi zen lanean. Ume denbora gehiena Belokireneko presa azpian pasatzen zuen lagunekin. Gerra denborako bizipen ugari kontatzen ditu.

Eulali Mugerza (1912-2003)



Aiastia (San Migel) auzoko Kaskantezar baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen ezkondu artean. Aita elgoibartarra zen, eta ama Etxebarrikoa. Gazte denbora gehiena artzain pasatu zuen. 21 urterekin ezkondu eta Arriaga (San Antolin) auzoko palazio-etxera joan zen bizitzera, senarraren familia bertan bizi zen eta. Grabazioa egin zitzaionean senarra ere bertan zegoen eta biek hitz egin zuten.

Begoña Mugerza Oria (1953)



Elgoibarren jaioa 1953an. Gurasoak ere elgoibartarrak zituen. Maalako mojen eskolan ibili zen 15 urtera arte eta gero administraritzza ikasi zuen gau-eskolan. Elgoibarko Udalean lan egin zuen, Artekartzan. Azken urteetan San Lazaro egoitzako administrari arduraduna izan da. Parrokian ere asko lagundu izan du, bai barruko jardunean eta baita mezetan ere 1972tik gaur arte. 70eko hamarkadan Ongarri Kultur Elkartearen sartu zen bazkide gisa eta hainbat kontutan laguntzen zion ahizpari, hura izan baitzen Ongarriko idazkari 1968tik aurrera eta lehendakari 1975etik aurrera. [Gloria](#) ahizparekin batera elkarrizketatu dugu, "Elgoibarko euskararen historia soziala" proiekturako.

Gloria Mugerza Oria (1941)



Elgoibarren jaioa 1941ean. Gurasoak ere elgoibartarrak zituen. Maalako mojen eskolan ibili zen 13 urtera arte eta gero jostundegi batean hasi zen lanean. 1968an Ongarri Kultur Elkartearen sartu zen eta idazkari lanak egin zituen hainbat urtez. 1975ean Ongarriko lehendakari izendatu zuten eta Gipuzkoa mailan kultura-elkarte bateko lehendakari kargua hartzen zuen lehen emakumea izan zen. [Begoña](#) ahizparekin batera elkarrizketatu dugu, "Elgoibarko euskararen historia soziala" proiekturako.

Juanita Mugerza San Martin (1939)



Elgoibarko Kaskante baserrian jaioa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Agurne Muguruza Alberdi (1935)



Sallobente-Ermuaran auzoko Garagartza baserrian jaio zen. Umetatik baserrian lan egin beharra izan zuen. Gainera, bost ahizpa zirenez, etxeko eta soroko lanak edo abereen zainketa, euren artean banatu behar izaten zituzten lan guztiak. Auzoko eskolan ibili zen. Gero grabatzen ikasi zuen, eta Eibarko lantegi baterako jardun zuen lanean, grabatzen, damaskinatuak egiten. Ezkondu ostean, kalean jarri ziren bizitzen. [Nati](#) ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Nati Muguruza Alberdi (1938)



Sallobente-Ermuaran auzoko Garagartza baserrian jaio zen. Umetatik baserrian lan egin beharra izan zuen. Gainera, bost ahizpa zirenez, etxeko eta soroko lanak edo abereen zainketa, euren artean banatu behar izaten zituzten lan guztiak. Hiru urterekin hasi zen auzoko eskolan, nork zaindurik ez omen zuelako. Bi udatan Altzolako bainuetxean lan egin zuen jangelako arduradun moduan eta handik Sigmara joan zen lanera. Ezkondu ostean, kalean jarri ziren bizitzen. [Agurne](#) ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Txomin Mujika Latxa (1952)



Elgoibarren jaioa 1952an. Gurasoak ere elgoibartarrak zituen. Eskola publikoan ibili zen ume-umetan Satur irakaslarekin eta gero San Viatorreko fraideekin. 14 urterekin Gasteizera joan zen kolegiara eta, ondoren, Ekonomia ikasketak egin zituen Bilbon. Ume-umetatik barruan izan du musika. Jose Antonio Ezeiza organo-jotzailearekin hasi zen musika ikasten eta berehala txistua jotzen ikasi zuen Patxiko Etxeberriarekin. Hark solfeoa ikasteko gomendioa egin zion eta Angelta Zabalarekin ibili zen solfeoa ikasten. Bilbon ikasten egon zen denboran bertako kontserbatorioan egin zituen musika-ikasketak. 1970ean debutatu zuen Elgoibarko Musika Bandan eta urte berean Mausitxa txaranga ere sortu zuten zenbait laguneren artean. Ia 50 urte egin zituen Elgoibarko Musika Bandan, azken zazpi urteak zuzendari gisa. Banco de Vizcaya-n lan egin zuen lehenbizi eta, ondoren, Kutxan. 2006an Bilboko Udal Musika Eskola, Musika Banda eta Txistulari Banda batzen dituen BilbaoMusikan sartu zen eta bertan egin zituen laneko azken urteak. Dultzaina jotzen ere herririk herri ibilia da.



Lurdes Odria Aldazabal (1952)

Joxe Odria Osoro (1913-2010)



Larruskaingo (Bizkaia) Damakorta baserrian jaio zen. Sei urte zituela, ama alargun gelditu zen. Bederatzi urterekin Elgoibarrera etorri ziren, eta Goenagatxebarria ("Guenetxeberri") baserrian jarri ziren bizitzen, baita amona ere. Sei anai-arrebaren artean bosgarrena zen bera. Ermuaran-Sallobente auzoko Luis Etxanizek Mokoroa baserrian ematen zituen klaseetara joan zen. Gerra aurretik, San Pedroko fabrikari hasi zen lanean 19 urte zituela. Soldadu joan behar izan zuen, ordea, eta hiru hilabetean Bilbon egon zen zauriturik. Gerraz gero, Iriondorekin latorritegian hasi zen ikasten. Gerora, bere kontura jarri zuen beste latorritegi bat. Dantzaria bera, hamaika jaialditan aritu zen Miren Vallejo elgoibartarra bikote zuela. Bere emaztea Maltzagako erromerian ezagutu zuen. Berak 26 urte zituen, eta Teodora Aldazabalek, bere emazte izango zenak, 17. Handik zortzi bat urtera, Plazentzian ezkondu ziren.

Iñaki Odrizola Sustaeta (1961)



1961ean Elgoibarren jaioa. Elgoibarko ikastolan ikasi zuen lehenbizi eta, ondoren, Pilar ikastetxean. Magisteritza ikasketak egin zituen eta Elgoibarko ikastolan hasi zen lanean. Geroago Filosofia ikasketak egin zituen eta Elgoibarko institutuko irakasle izan zen. 1977an Taupada antzerki-taldean hasi zen eta hainbat antzezlanetan parte hartu zuen. 1988an taldea banatu egin zen eta Ekekei antzerki-taldea sortu zuten. 2001 bitartean antzerkigintzan jarraitu zuen Ekekei taldearekin. Gaztetatik izan du idazteko zaletasuna eta 1982an I. Etxepe saria irabazi zuen, poesia arloan. Gerora ere hainbat sari irabazi izan ditu, besteak beste, Imagina ezazu Euskadi saria 1994an, `Hausnarketa hezeak´ lanarekin, Kafe Bar Bilbao antzerki saria 2012an, `Azken ordua´ lanarekin, eta Ernestina de Champourcin saria, poesia arloan, 2019an.

Mila Oartzabal Osoro (1932)



Elgoibarren jaioa, 1932an. Aita eibartarra zuen, ikatz-saltzailea; ama, berriz, elgoibartarra, Abetetxe baserrikoa. Mojekin egin zituen ikasketak, dena gaztelaniaz. Luis Bilbao senarra eta biak Elgoibarko Izarrako kide egin ziren elkartearen hasierako urteetan eta lehendakari kargua ere bete zuten (Luisek 1973an eta Milak 1977an). Elgoibarko Izarran lehendakari kargua izan zuen lehen emakumea izan zen. Umeei kristau ikasbidea irakasten ere aritzen zen.

Maria Ormaetxea Iñarra (1916-2011)



Eibarko Iraegi baserrian jaio zen, zazpi anai-arreben artean. Ama bertakoa zuen eta aita Aramaioko Kerizti baserrikoa. Bertso kantaria izan da bizi guztian, aita Julianek irakatsita. Hogeita hamar urte zituela, Elgoibarko Aizpizkarbekoa baserrira ezkondu zen, bertako Casto Agirregomezkortarekin. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Angeles Ortuoste Arana (1949)



Ereñon jaio zen. Gurasoak ere bertakoak zituen. 11 urtera arte amamarekin bizi izan zen eta gero Elgoibarrera joan zen. Umetan Ereñoko eskolan ibili zen arren, Elgoibarrera joatean, mojen kolegioan eta Anita irakaslearekin egin zituen ikasketak. Euskarazko gau-eskoletan ere ibili zen. Elgoibarko Izarra Elkartean aritu zen lanean, administrari gisa. [Mari Karmen Elustondorekin](#) batera egin zitzaion elkarrizketa, [Euskararen Historia Soziala Elgoibarren](#) proiekturako.

Sabin Osoro Unzueta (1922-2021)



San Frantzisko kalean jaio zen. Ama elgoibartarra eta aita mutrikuarra zituen. Maalako mojen eskolan, Publikoetan eta marianistenean ikasi zuen. Hamalau urterekin hasi zen lanean. Pedro Loiolaren tailerrean ikasi zuen tornulari ogibidea. Danobat, Eguzki eta Goiti kooperatiben sorkuntzan hartu zuen parte. Elgoibarko ikastolaren sorreran eta garapenean, eta Elgoibarko Izarra euskara elkartearen sorreran ere parte hartu zuen. Beste hainbat proiektu sozialetan ere parte hartu du. Garbiñe Uriguen elgoibartarrarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

Fermin Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo (1923-2010)



Elgoibarren jaio zen. Aita Barrundiako Audikana kontzejukoa, eta ama Aguraingoa zituen. Bost anai-arrebatatik zaharrena zen Fermin. Zortzi urte zituela galdu zuen aita, eta bere bi anai-arrebarekin Elgoibarko babes-etxean hartu zuten. Hamahiru urterekin Ciaran makina-erreminta lantegian hasi zen lanean. Hamaika urte Ciaran-en eginda, Sigmara joan eta bertan jardun zuen jubilatuta arte. Pilota eta futbol zalea zen; Elgoibar futbol taldeko atezaina izan zen, baina pilotari profesional bihurtu zenean utzi behar izan zion futbolari. Barakaldon 1944. urtean debuta egin eta hemeretzi urtez jokatu zuen profesional mailan, lantegiko lana alde batera utzi gabe. Elgoibarko Anjelita Alzibarrekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten.

Jose Mari San Martin Odria (1927)

Aiastia (San Migel) auzoko Soarte baserrikoa.

Maria Pilar San Martin Odria (1927)

Aiastia (San Migel) auzoko Soarte baserrikoa.

Danele Sarriugarte Mochales (1989)



Elgoibarren jaioa, bi ahizpata gazteena. Aita elgoibartarra du (hark gurasoak bizkaitarrak zituen) eta ama Cuencakoa (12 urterekin Elgoibarrera bizitzera joandakoa, familiarekin). Ikastolan ikasi zuen Danelek, eta ondoren Itzulpengintza ikasketak egin zituen EHU, Gasteizen. Itzultzailea da ogibidez, baina literatura eta kazetaritza ere landu ditu. 2014an argitaratu zuen lehen lanarekin, "Erraiak" eleberriarekin, idazle ezagun bilakatu zen. Ondoren, "Azala erre" (2018) eleberria plazaratu zuen. Besteak beste Berrian, Argian eta Picara Magazine aldizkarian kolaboratu du kazetari moduan. Bere ibilbideaz, literaturaz eta feminismoaz hitz egin genuen Danelerekin. Baita euskarari buruz ere: euskara nahiko nahastuta daukala dio, ez duela elgoibartarrez hitz egiten. Azken urteetan Donostian bizi da.

Andoni Segundo Armero (1957)



Elgoibarren jaio zen 1957an. Gurasoak Mantxatik etorri ziren.

Ixidore Solupe Zulaika (1948)



Ondarroan jaio zen 1948an. Ama zuen bertakoa eta aita, berriz, elgoibartarra. Ondarroan bizi izan zen lehen urteetan aitona-amonekin. Bost urte zituela Elgoibarrera eraman zuten gurasoek, haiek aurretik ere Elgoibarren bizi ziren eta. Elgoibar oso erdaldunduta zegoen eta hizkuntzarekin arazoak izan zituen, gaztelaniaz ez zekielako. Pilar ikastetxean ikasi zuen lehenbizi eta, ondoren, Eibarren, Armeria eskolan. Garai horretan solfeoa ikasten hasi zen eta soinua handia ere ikasi zuen Peli Arantzabal `Angiozarko itsua´rekin. Mutikotan hasi zen dantzan ikasten, Ongarri Kultur Elkartearen dantza-taldean. 1964an, 15 urte besterik ez zituela, Elorra dantza taldea sortu zuen. 1966an, berriz, Elgoibarko Izarraren umeen dantza-eskolan irakasle lanean hasi zen. Dantza gain, gitarra, akordeoia eta txalaparta ere irakasten zituen. Gitarrarekin abesten ere aritu zen zenbait jaialditan. 1968an Danobat lantegian hasi zen lanean. 1973an dantza-kontuak utzi behar izan zituen, Gasteizera joan zelako lanera.

Margari Soraluze (1933-2003)



1933an jaio zen Elgoibarko San Lorentzo baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Debako Lastur auzokoa. Bederatzi urtera arte Sallobente-Ermuarango eskolan ibili zen, eta gero eskola publikora joan zen kalera. 15-16 urterekin, umezain ibili zen Elgoibarko etxe batean. Ezkondu ostean, eskolan umeei jatekoa ematen hasi zen lanean.

Dionisio Txurruka Arozena (1920-2009)



Urruzuno auzoan jaio zen 1920ko urrian, baina 1948ko maiatzean Aia (San Migel) auzoko Talaia baserriko Manuela Zabalarerekin ezkondu zen, eta Talaia baserrian bizi izan da beti. Gurasoak ere Elgoibarkoak zituen. Umetan artzain ibili zen, baina gerra garaian tailerrean hasi zen lanean. Lehenbizi "Txitxarruan" tailerrean eta gero Alkortarenean 46 urte egin zituen tailerrean lanean.

Juana Txurruka Osoro (1928-2022)



Sallobente-Ermuaran auzoko Orraindi baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama auzo bereko Aozar baserrikoa zen. Aita bi bider ezkondu, eta Juana bigarren ezkontzatik jaio zen. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Auzoko eskolan ikasi zuen seitik 12 urte arte. Maria, Juanaren ahizpa, raketista profesionala izan zen. Mexikora joan zen jokatzera, eta bertan ezkondu zen. Juana asko bidaiatutako emakumea da. Gelasoro (Gelatxo) baserrira ezkondu zen, Bizkaiko Munitibarretik etorritakoa zen Pedro Bollarrekin. Lau seme-alaba izan zituzten.

Josefina Ulazia Etxeberria (1930)



Azkue bailarako San Roke baserrian jaio zen. Lau anai-arreba izan ziren. Ama etxekoa eta aita Azkoitiko Santa Kruz auzoko Zumeta baserriko etorritakoa zen. Maalako mojetan eskolan ikasi eta gero, Mendaroko mojetan brodatzen ikasi zuen. Josten ordean, Elgoibarren ikasi zuen. 1948. urtean etxea erre zitzaientzen; etxegilea zen Josefina aitak berreraiki zuen baserria. Etxera ezkondu zen Josefina Jose Mari Zabaleta azkoitiarrarekin. Hiru seme-alaba dituzte.

Pepita Unzueta Iriondo (1922-2018)



San Ignacio (gaur Trenbide) kaleko 7. zenbakian jaio zen, tren-geltoki ondoan. Tren-geltokiko taberna zuten etxeko beheko solairuan; "Mozkotenekua" izenarekin ezagutu zen taberna. Aita Errosario kaleko "Mozkotenekua" etxekoa zen eta ama Mutrikuko Olatz auzoko Abeletxe baserrikoa. Bi urterekin hasi eta hamalau urtera arte eskola publikoan ikasi zuen. Kontabilitatea ikasteari ekin zion Eibarren, baina gerraren hasierak eten zituen ikasketok. 1941. urtean familia osoa birraitonak izena eman zion etxera joan zen bizitzera, Errosario kaleko "Mozkotenekua" etxera. 50 urtez berak kudeatutako mertzeria-denda izan zuen etxean. Gerra denboran Francoren armadak elgoibartar biren kontrako "juicio sumarísimo" a nola egin zuen eta epaitutako biak non hil zituzten kontatzen du. Antonio Perez de Aguado gasteiztarrarekin ezkondu zen "Mozkotenekua" etxera. Bi seme ditu.

Rosa Unzueta Iriondo (1919-2013)



San Inazio kalean, (gaur egun, Trenbide kalea), 7. zenbakian jaio zen, tren-geltoki ondoan. Tren-geltokiko taberna zuten etxeko beheko solairuan; "Mozkotenekua" izenarekin ezagutu zen taberna. Aita Errosario kaleko "Mozkotenekua" etxekoa zen eta ama Mutrikuko Olatz auzoko Abeletxe baserrikoa. Bi urterekin hasi eta hamalau urtera arte eskola publikoan ikasi eta gero, kontabilitate ikasketak egin zituen Eibarren. Joskintzan jardun zuen 25 urte inguruan, eta gero ahizparen "Mozkotenekua" etxeko mertzeria-dendan egin zuen lan.

Garbiñe Uriguen Etxegiña



Jon Peli Uriguen Ansola (1968)

Jose Urrutia Etxabe (1933-2020)

Elgoibarren jaio zen 1933ko irailaren 9an. Aita, Martin Urrutia, `Martiñaundi´ ezizenez ezagutua herrian, Elgoibarko Lekunberri baserrikoa zen eta ama, Maria Etxabe, Elgoibarko Karkizao baserrikoa. Ezkondu arte Elgoibarren, San Bartolome kalean, Alde Zaharrean, bizi izan zen; gerora, Santa Ana kalean. Ofizios San Pedro laminazioetan tailer mekanikoko taldeburu izan zen eta afizios maketagilea.

Maite Vallejo Arriaga (1936)

Errosario kaleko `Vallejonekua´ etxean jaioa. Aita, sestaoarra, hiru urterekin etorri zen Elgoibarrera; ama elgoibartarra zen. Lau anai-arrebatatik gazteena. Aitak forjan lan egiten zuen eta amak Peñalba abarketa-lantegirako abarketak josten zituen etxean. Satur maistrarekin ibili zen Eskola Txikian eta gero eskola nazionalen. 14 urterekin ikasketak bukatu ostean, maistrei laguntzen ibili zen, ordezkapenak eginez. [Miren](#) ahizparekin batera egin zioten elkarrizketa Arrieta anaiek, Elgoibarko hainbat kontu jasotzeko. Kantu eta jolasak jasotzeko elkarrizketan ere parte hartu zuen ahizparekin batera.



Miren Vallejo Arriaga (1923-2020)

Errosario kaleko Vallejonekua etxean jaioa. Aita, sestaoarra, hiru urterekin etorri zen Elgoibarrera; ama elgoibartarra zen. Lau anai-arrebatatik zaharrena. Aitak forjan lan egiten zuen eta amak Peñalba abarketa-lantegirako abarketak josten zituen etxean, Mirenek lagunduta. Hiru urterekin eskola txikian hasi zen ikasten, euskaraz; sei urterekin publikoetara pasatu zen eta erdaraz jaso zituen eskolak. Hamahiru urterekin gerra hastearekin batera, eskolok bukatu ziren. Hamabost urterekin Valenciaga tailerrean hasi zen lanean; gero "Alcorta y Cía"n jardun zuen ezkondu zen arte. Pako Juaristi "Txitxarrokoa"rekin ezkondu zen Txitxarrokoa etxera. Antzezlanak egiten zituzten gerra aurretik Batzokian, Anjel `Mutriku´ eta Antonio Manterolaren zuzendaritzapean. Urte askoan jarraitu zuen antzerkia egiten eta Euskal Eztei Zaharrak ere antzeztu izan zituen senarrarekin batera. Dantza solte txapelketetan ere ibiltzen ziren. Euskara eskolak ematen ere aritu izan zen. Elkarrizketetako batean Mirenen koinatua Bitor Arrieta ere egon zen. Kantu eta jolasak jasotzeko egin genion elkarrizketan eta Arrieta anaiek Elgoibarko hainbat kontu jasotzeko egindako elkarrizketan ere [Maite](#) ahizparekin batera azaltzen da.



Julian Zabaleta Barrenetxea Yulen (1921)



"Yulen" Elgoibarren jaio zen 1921ean. Aita eta ama ere elgoibartarrak ziren. Aita, Telesforo, don Antonio Arrillaga medikuaren txoferra zen eta ama, Josepa, Sallobente auzoko Musillo baserrikoa. Herri-eskolan ikasi zuen don Marino eta don Erasmo maisuekin. Lanbide-heziketan berriz Bernardo Ezenarro izan zuen marrazketa artistiko zein linealeko irakasle. 15 urterekin hasi zen lanean, Elgoibarko forjetan lehenengo eta Jose Leon Ziaran, Jarbe eta Danobaten beranduago. Eibarko Hortensia San Martinekin ezkondu zen 1951n eta bi seme izan zituzten. Bi zaletasun izan eta landu ditu: mendia eta marrazketa. Marrazketarako bereziki txikitatik erakutsi zuen berezko dohaina eta trebezia.

Maria Zelaia Etxaniz (1924-2020)

Elgoibarko Izarra elkartekoek egindako elkarrizketa, herriko jolasak jasotzeko.

Iñaxi Zendoia Oregi (1914-2004)



Agirretxiki baserrian jaioa. Azkue (San Roke) auzoko Andikao baserriko Pedro Artetxerekin ezkondu zen eta bertara joan zen bizitzera. Elgoibarko euskara aztertzekeo lanerako egindako grabazioan senarrarekin batera azaltzen da.

Jose Zuatzubizkar Goenaga (1922-2015)



Elgoibarko San Ignazio kalean jaio zen (orain Trenbide kalea). Aita Arrasateko Meatzerreka auzoko Txoza baserrikoa, eta ama Zestoako Arruagoikoa "Arruagoia" auzokoa zen. Sei seme-alaba izan zituzten. Josek eskola publikoetan ikasi zuen bost urtetatik 15 urte arte. Marrazketa eta geometria ere ikasi zituen gau-eskolan. Zubiaurre tailerrean egin zuen lan gerra denboran, espoletak egiten. Gero aita eta anaiarekin, Felipe Zuazubizkar etxeko tailerrean egin zuen lan. Baserrietarako makina txikiak egiten zituzten, eta iturgintzarako erremintak. Tailerra handitu zutenean, 1941. urtean, Akar izena hartu zuen. Jose jubilatatu zenean itxi zuen tailerra. Aldai baserrian jaiotako Sabina Arrietarekin ezkondu zen. Lau alaba dituzte.

Sotera Zubiaurre Garitaonaindia (1908-2004)



1909an jaio zen Elgoibarko Usetxe baserrian. Gurasoak eta zortzi anai-arreba bizi ziren bertan, eta bera zazpigarrena dugu. Ama Ermukoa zen, Berdengilokoa; aita, berriz, elgoibartarra. Bost urterekin hasi zen eskolan Maalako Ospitalean, eta han jardun zuen 13 urtera arte. Hango abesbatzan ibili zen eta Orfeoirako probak egiteko ere deitu zioten. 25 urterekin Prudencio Iribarrenekin ezkondu zen. Ezkontza uztailaren 5ean izan zen, eta egun haietan Iruñeko San Ferminak zirenez, eztei-bidaia haranzko bidean hasi zuten. Baina lasaitasun gutxiegi aurkitu zuten han, azkenean Bartzelona eta Madril bisitatzera joan ziren.

Joxe Zubizarreta Armaixa Txiki

Juliana Zubizarreta Gurrutxaga (1910-2006)



Sallobente-Ermuaren auzoko Armaregieta ("Armaitta") baserrian jaio zen. 14 urterekin, Lekunberri baserrira joan zen hango lanak egiten laguntzeko. Bertan bi urte eman ondoren, Urruzuno bailarako Urruzunoetxetxo baserrira joan zen. 11 anai-arrebatatik hamargarrena zen Juliana. Urruzuno auzoko Aldapa baserriko Juan Larrañagarekin ezkondu zen 21 urte zituela. Panderojolea bera, Katalotzari lagun eginez, hamaika erromeria girotu zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Ikazkintza

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Garate, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EGB-001/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Ikazkintzan ibilitakoa. Euren baso batean haritza jo eta pinua sartzea erabaki zuten. Orduan egin zuten ikatza, 1950 inguruan.

Transkripzioa

- Ze esaten gare? Ez juat entzuten eta.
- Iketza eitten zenduala zuk.

- Iketza baten ein gendun, baten, baten.
 - Kontau, kontau pixkat istorixia ikatzana ta, ze hamen...
 - Iketzana? Ba iketza, mendi bat euen... [...] Mendi bat gaunken, zera, haritza edo sartzen [...] eta haritzak ez zaban balio ezetako orduen. Ta ba pentsau genduen, jo haritza eta piñua sartzia. Eta piñuak orduan gehixao produzitzen zaban eta piñua sartu. Ta hortittik ba, orduan balore gitxi zeuan basuan, haritz zaharrak eta haritzak, horrek ez zeuben balio ezetako be. Iketza orduaintxe ein gendun.
 - Eta zuk zeuk, zuk?
 - Neuk ez, beste obrero batek eta neuk lagundu.
 - Eta noiz hori?
 - E?
 - Noiz?
 - El año... el año 50 edo holakotxe baten. Bai.
 - Hamen?
 - Bai, hor behian daukeu terreno bat eta hortxe behien, Ziarda badakizu nun daon? Han azpikaldian.

1.2. Ikatza nola egin

- **Hizlaria(k)**: Gurrutxaga Garate, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EGB-001/008
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Ikatza nola egin zuten.

Transkripzioa

- Ta zela eitten zenduen ikatza?
 - E?
 - Zelan eitten zenduen ikatza? Zelan?
 - Iketza? Iketza eitten zan ba, zehetu, piñuek, zerak, egur haundixek edo, ta zehetu ta txondorra ein, gero tapau, hortako opiziala bihar zan, guk ez gendun balio baiña hari lagundu eitten jakon. Ta opiziala zauan ta opiziala gaiñera hirurogeta hamar urte eukiko zittuen ta harek gogor eitten zaban. Eta erre tximinixia ere bai. Gabian ohera jundakuan kamastrua ipinitta zaukan ta haren eztul hotsa ere [...]. Baiña lana gogor eitten zaban harek. Bai. Ba orduan, orduan hortantxe dedikatzen zien asko ta...
 - A bai? Askok?
 - Bai. Artian banaka asko. Pagua ta pagaburua ta asko artian.
 - Eta hamen ingurukuak?
 - Bai. Zer, haura obrerua? Bertan auzokua zan.
 - Auzokua.
 - Auzokua bai. Ha gizon zahar bat gizajua. Harek hau palta ta... Holaxe.

1.3. Maiorta baserriaren deskribapena

- **Hizlaria(k)**: Elustondo Aizpiri, Mariano

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref**: EGB-010/004
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:07:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Maiorta baserria nolakoa zen. "Sala" deitzen zitzaion gela handia zuen eta gero beste 4 gela zituen. Nola banatzen ziren lo egiteko. Etxeko atea ez zen inoiz giltzarekin ixten, trankarekin ixten zen.

Transkripzioa

- Garai hartan zelakua zan zuen baserrixa, etxia, zelakua zan?
- Zelakua? Basarrixak ohi dian modukua-edo... basarri haundixa zan, e! Ta da haura basarrixax, baiña basarrixak ohi dian modukua.
- Habitaziuak ta hola, akordatzen zea zenbat zazkazen?
- Bai, habitaziuak zaukazen harek e... bat, bi, hiru, lau, bost habitazio zaukazen harek, bai.
- Ta gutxi gorabehera zenbatek eitten zenduten lo bakoitzian, bik-edo? Bi edo hiruk?
- Bueno, guk e... mutil-koskorrok edo zerak, eitten genduan ba, kuarto bat, salia esaten zitzakona, haundixa zauan, haundixa, baiña, e! Ta hiru ohe zeuden han ta ba, bakoitzian bi-edo, han eitten genduan ta [...]
- matrimoniuak e... Nere anaixa ere ezkondata zauan ta han, harek beste kuarto baten; eta bestia, aitta ta ama beste baten. Bai.
- Ederki. Etxetik ateratzen ziñatenian edo aitta ta ama ateratzen zianian, giltzez ixten zittuzten e...
- Bai zera! Bai zera! Ezta pentsau ere!
- Ez gaur egunian bezela, ezta?
- Buuu... Ezta pentsau ere ez! Bai, orduan ibiltzen zan ijitua asko, asko e! Gaur bat ez dabil.
- Giltzik bazauan ala ixteko?
- E?
- Klaro.
- Atiek ez zeuken, lehengo atiek ez zeuken giltzik.
- Klaro.
- Giltzikan e... bakarren batzuk bazaukezen giltzak, baiña ez zan ateik ixten. Ta gero ba itxitzen zan ataiko atia eta gero zaukan e... geuk zertzeko burdiña bat zaukan hola [pasau]. Hari atzaparrakin geuk e... zabaltzen genduan haura.
- Ta gero burdin hori ze sartzen zan zulon baten-edo?
- Bai, zulo... trankia zan, ezta?
- Bai, trankia.
- Trankia. Ta harek eusten zion.

1.4. 12 urterekin eskola utzi eta aberketak josten

- **Hizlaria(k)**: Iriondo Garate, Teodosia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref**: EGB-011/002
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:02:55. **Bukatu**: 00:04:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Eskola 14 urtera arte izaten bazen ere, aitzak neskek ez zutela eskola beharrik eta lanera bidali zuen 12rekin alpagata lantegira. Zazpi anai-arreba ziren familian.

Transkripzioa

- Teodosia, ta hara jun aurretik, zerbitzera zenbat urtekin jun ziñan?
- Kanpuan e... zelan izan zan? Egon. Gero, handikan etortzerakuan.
- A, Kubatik etorritta jun ziñan zerbitzera?
- Bai, bai.
- A! Orduan, lehenengo aldiz...Ta zenbat...?
- Lehenengo hamentxe fabrikan alpagaterixan lanian hamabi urtekin, e!
Hamalau izaten zan eskolia, baiña ni hamabira arte aillegau nitzan. Gure aitta zanak pentsatzen zaban emakumiak ez zebela bihar, jakin ezkeru etxeko gauzia... matxista, orduan. Eta [basarrikua]. Gero aizta bat neukan; haura zan pixkat delikadia, baiña lana ein bihar zan, ez zan asko irabazten ere ta... Gero beste bi mutil: zaharraua, ni baiño zaharraua, ta gero txikixena.
- Zu ziñan bigarrena, orduan?
- Baiña zazpi euki zaban. Badakizu orduan zenbat ume eukitzen zeбен?

1.5. Arrieta abarketa lantegian lanean

- **Hizlaria(k):** Iriondo Garate, Teodosia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref:** EGB-011/004
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** San Francisco kalean, Arrieta abarketa-lantegia zegoen, azpeitiar batena, eta han aritu zen lanean. Abarketagilearen inguruko kontuak eta lanekoak aipatzen ditu. 12rekin hasi eta 20 urtera bitartean aritu zen bertan lanean.

Transkripzioa

- Alpagaterixia nun zauan?
- Hamen, San Frantzisko kalia, Arrieta esaten ziuena. Azkoittiarra zan bera. Ta San Pedron lana eitten zaban, biharra, gure aittak ere bai orduan, gure aitta zanak. Eta... Baiña azkoittiarak alpagateruak zian ta haura itxuria etortzen zitzakon eta gero ba harek e... harek ipini zaban. Oso gizon ona zan, e! Gero dendia zeuken ta dirua ez zeбен ematen, txartela. Eta gero eurok denda haundixa zauken ta gauza asko zauken. Eta neskak, haren alabak, harek, e... dendia ondo eruan zeбен. Dana zauan karuaua, zegatikan, badakizu, dirua ez zeбен ematen eta han bat bihar zan. Baiña aitta zan pixkat... lana euki bihar, nahiz galdu, lana euki bihar! Ni atzaparreko miñakin nenguan, han, badakizu, "deprisa" eta haura, jostorratz haundi harek bero-bero-bero eitten zian eta hari ikutzen bazioun erre eitten zan. Ta batzuek e... soziuzak, ni bizkorra nitzan lanian, e! Han

ere. Eta harek ikutu zian ta ni, gaiñera, ez naiz izan [txartzekua], e! Beti herida guztiak saniatzen zian neriak. Baiña orduan harek bero-berua zauan ta erre-edo ein zian ta pixkat bajiakin egon... bajia orduan ez zauan... e... jun ez lanera. Ta ikusi zianian, juteko, juteko han lanera zeozer egongo zala neretzako, haura ez bada, lehengua ez bada zeozer. Ta [ez nahi ikusi] kalian-ta bere obreruak-eta. Gizon ona zan, e! Baiña negoziarako harek berak ez zaban balio. Alabak-eta bai dendan... Dendiak asko eman ziuen hareri, baiña taillarrak ez. Gero kiebra-edo ein zaban. Valentziano batzuekin zor edo zeoze. Zeoze [trensia]-edo. Eta lan gitxi zauanian, ekartzen zaban baterixa txarrak. Guri gustatzen zitzakun Azkoittikuak, Azkoittixan, hango [trensia] ta, ba, harixa-ta, doble lan, askoz ere lehenao eta aberixaritan-eta ere ez. Eta beste horrek, Valentzia aldetik etorri [zianian], hamen sartzen genduan, e... orratz, esto... zera, jost... orratzak haundixak ta gero [ura] e... hola ematen zitzakon zera, orratza hartu ta berriz atara ein bihar ta harek, e... materixal txarra ekartzen zabanian, haura, haura hamen satu ta hamen urten eitten zaban. Okertuta ziharo. Ezer ere ez. Harek irabazten zabalakuan, [trensia] merkiaua zalako, baiña bestetikan...

- Galtzen ertetzen zan.

- Materixalak hainbeste ein genduanak, danak okertuta, lanik ein eziñikanta... Halaxe.

- Eta Teodosia, zenbat denbora egon ziñan zu lanian hor, Arrietanian?

- Hor?

- Bai, zenbat urterekin hasi ziñan hor, hamabi urterekin?

- Neska gaztia sartu nitzan ni hor, hamabi urtekin edo hola sartu ta...

- Zenbat urte?

- Bai, gero behintzat hemezortzi-edo, hogeitatu-edo...

- Hogeitatu bar urte bai?

- Lanian hantxe.

- Eta gero jun ziñan Kubara?

- Gero, gero Kubara, gero jun nitzan.

1.6. 20 urterekin abarketagintza erakustera Kubara

- **Hizlaria(k):** Iriondo Garate, Teodosia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref:** EGB-011/005
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** 20 urterekin Kubara joan zen Azkoitiko Mancisidorren bidez; industria eramatera joan ziren. Bere koinatua mekaniko lanetara joan zen eta 8 hilabete pasa zituzten bertan. Abarketak egiten erakusten zuen.

Transkripzioa

- Eta gero jun ziñan Kubara?

- Gero, gero Kubara, gero jun nitzan.

- Ta Kubara zenbat urtekin jun ziñan?

- Kubara jun nitzan esto... azkoittiar bat Mancisidor esaten diuena, beti abadiekin-ta hola, eta horri fraillen batek ein zion hara industria eruatia, han ez zauan hola lanikan-eta. Eta gero bi neska giñan jutekuak eta harek atzera ein zaban, hola pixkat makal samarra zan-ta. Gaixotu ezker ere haura urrin zauala ta... Ni gogorra nitzan eta, gaiñera, gustatzen zitzatan ikustia gauzak ta nere diruakin ezin jun eta hola okasiua edo baldin banaukan [...]. Eta gero, nere kuñaua ere jun zan, gaiñera, haura mekaniko bezela eta han egon giñan zortzi hillebetian. Sei, sei zan izateko, baiña makiñak Estados Unidos edo handikan etorri bihar zan eta harek tardau zeuben hille bi etortzen eta harek hille bixak, e...

- Eta ze urtian jun ziñeten hara?

- E?

- Ze urtean izan zan? Noiz jun ziñeten Kubara?

- Ze urte? Hara jun nintzana?

- Bai.

- Horixe ez naiz akordatzen.

- Urtea ez bazera akordatzen, zuk zenbat urte zenezkan?

- Nik neukan orduan... Zenbat eukiko neban? Hogezi ez dakit, holakotxen bat.

- Orduan zapaterixan zeunden zu lanian orduantxe, ezta?

- Orduan, "menor de edad" nitzan ondiokan.

- Baiña zapaterian zeunden lanian, alpargatak eitten hamen eta jun ziñan hara?

- Bai ba, baiña bertara hauraxe lana eittera, e!

- Bai, haura erakustera.

- Bai, haura erakustera.

1.7. Etxean dutxarik ez

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/029
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:53:03. **Bukatu:** 00:54:42
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Etxean ez zuten dutxarik eta askan bainatzen ziren ur hotzetan. Ilea apaintzera ez ziren joaten, etxean moldatzen ziren.

Transkripzioa

Etxian, illia apaintzera orduan! Bi kopeta nik, ja! Bi kopeta nittuan, edarrak gaiñera, holaxe, harek orraztu, lotu, ta han ez zagan, eh! beti apainduta! ni apaintzera, estraiñeko, ezkontzeko joango nitzan, seguramente, "sí, yo para casar".

1.8. Sagardotegia etxean

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/059
- **Iraupena:** 0:05:01. **Hasi:** 01:47:07. **Bukatu:** 01:52:08

- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Baserriaren egitura azaltzen du. Usetxe azpian sagardotegia izan zuten garai batean. Elgoibarren bazen beste sagardotegi bat. Sagarra erosi egiten zuten Soteraren etxean eta dolarean egiten zuten sagardoa. Arratsaldean joaten zen jende gehiena eta tortilla eta arraina jaten zuten. Barrika zabaltzen Sotera ibiltzen zen.

Transkripzioa

Goizian ere, jende asko etortzen zan botelliakin sagardao billa, zenbat irtetzen zan! Hiru txakur haundi edo izango zan, nik ez dakat goguan eh! Oiñ baiño sagardau ederrauak ai! Oingo sagardaua, binagria dirudixe horrek, harek ez diraz sagardauak, eta koloria, ura, ura. Gurian hori-horixa; eitten zebeu tolaría geunkan ta gero prensia, behian ertetzen zaban, bete, barrikak bete ta harek fermentatu egitten zaban, irakiñ egitten zaban. Gaiñera botatzen zabanian, gero zenbat graduko ta, zortzi gradu daukaz, ta nik horrek goguan daukadaz ondiokan.

Bazkaltzera? generalian arratsaldian izaten zan jendia. Goizian, ba, jendia zatorrena, ba, etortzen ziran banaka goizian ere, baiña arratsaldian, arratsaldian, jendia. Lan askoko ez, momentuko gauzia izaten zan, tortillia, ta arraiña eta txorizua, txorizua eibartarrerri sei txakur haundi, ta elgoibartarrerri errial bi.

1.9. Damakortan jaio eta Elgoibarrera bizitzera

- **Hizlaria(k):** Odria Osoro, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-014/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Damakorta baserría handia zen. Elgoibarrera etortzean kalea hurbilago zuten. Joxek anaia nagusienarekin lo egiten zuen. Etxeko atea ez zuten inoiz giltzarekin ixten, baina txakur gogorra zuten atean zaindari. Lehengo eta oraingo Elgoibar.

Transkripzioa

- Jaixo ziñan basarrixa zelakua zan?
- Ba basarri majua zan, haundi xamarra ta mendi asko ta [...].
- Ta gero aldaketa haundixa izango zan, klaro, Elgoibarrera etorri eta etxia ze, txikixaua?
- Bai, beti. Ta kalia hurrao ta beti geu ere hemen [pozikixao] han baiño, ta poliki-poliki ba, gustora.
- Eta bueno garai hartan normalian familixan, ba, anai asko ziranian, ba, lo ein bihar izaten zaben, ba, klaro, igual bi anai ohe baten edo... Zuri ere tokau zitzaizun beste anai batekin lo eittia?

- Bai honbre, danok.
 - Danok, ezta?
 - Bai. Nik anai zaharrenakin lo eitten naban.
 - Zaharrenakin?
 - Bai, [...].
 - Eta etxetik ateratzerakuan giltzez ixten zenduten?
 - Ezta pentsau ere!
 - Ezta pentsau ere, ezta?
 - Holakorik ez, txakurra bai gogorra ataixan bat edo bi igual. Gabian ta han, ene, ez zan giro! Hara arrimatzerik ez zaon. Txakurra baeuan, txakur beltz bat, terriblia! Ta bueno...! Oso gogorra! Ta txakur batekin bat juten bazan jo-ta itto [...] ahal izan ezkeru. Hortan bai! Hortan bai...
 - Zuretako zein zan hobia lehengo Elgoibar edo gaurkua?
 - Elgoibar? Nik ez dakit, ba, ze esan. Preparauta gaur dao, hau orduko, bueno... bateko ehun dao preparauta gauza danetan. Baiña jendia, ez dakit, ba nik, artietan... oin baiño errezaio [konbertidu] edo jende sanuaua edo hau pixkat... granujia gehixao edo... zeoze, esan nahi dot, ezta?
 - Desberdiña, ez?
 - Bai, bai, bai.

1.10. Larruskaindik Mendarora joaten zen zaldiz ogi bila

- **Hizlaria(k)**: Odria Osoro, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-014/006
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:06:35. **Bukatu**: 00:09:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aita berak sei urte zituela hil zen. Aitak baserrian lan egiten zuen eta amak sukaldeko kontuak eramaten zituen. Mendarora joaten ziren ogitara Ospas baserritik zehar zaldiz. Amama ere Elgoibarrera etorri zen eurekin bizitzera eta bera gerran zegoela hil zen.

Transkripzioa

- Aitta zuk zenbat urte zenittula hil zan?
 - Aitta hil zan, ba, nik... sei urte uste dot nittuela. Bai, sei urte. Pulmonixia edo holako batek hartu ta...
 - Eta zertan itten zeban lan aittak?
 - Basarrixan.
 - A! Baserrixan itten zeban?
 - Ta nunbaittera jornala [irabaztera] juten bazan ez bazan, basarrin batera edo, ba, basarriko zerakin danok.
 - Eta etxeko gauza guztixak amak itten zittun?
 - Amak. Amak eta lagundu gaztiak ere bai, baiña, behintzat, amak hango jentia edo... Ogittara-ta be... Ogittara Mendarora juaten giñan. Neu juaten nitzan, gaiñera, gehixenian, kaballo haundi batekin. Jarri kaballo gaiñian ta kaballo gaiñian etorri, ta ekarten nittuan hamabost eta hamasei ogi-ta. Ogixak laukuak, e! Horrek haundixok. Ta etorten nitzan Mendarotikan hona, Ospas, ez dakit, entzunda egongo zara, igual, Mendaron...

- Bai, bai.

- Hortik Arnoatera, behetik gora, behetik gora. Ta horra etorri ta, lehelengo, panaderuak ogixak sartzen ziazten kaballuan sarietan, ta han sarietan sartzen ziazten bost bat, ta gero, zakuan gaiñerakuak, zakukuak ipiñi gaiñian. Ta Ospas onduan jarri neu gaiñian, ta gaiñian etxeraiño, zaldixan gaiñian ogixa janaz. Ogixa janaz. Sasoi haretan! Gustora [hala be]!

- Eta amona... bueno...

- Amona hil zan gerra... ni gerra-denporan jua nitzan gerrera ta, ni gerran nauen. Amona hil zanian ni Kataluñan nenguan, Kataluñako frentian, Leridan.

- Eta zuekin bizi izan zan amona Elgoibarren?

- Bai, bai, bai. Ha, amona, Elgoibarren hil zan.

- Etorri zan bizitzera zuekin, ezta?

- Bai, bai.

- Ordun, etxian egon ziñeten: sei anai-arreba, ama eta amona?

- Bai.

- Eta amona, ezta?

- Amona. Bai. Amama hil zan larogeta hamaika urtekin, eta ni nenguan zerian, Lerida onduan, frentian.

1.11. Domeka arratsaldeak bakarrik izaten zituzten jai

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lodoso, Ainhoa
- **Erref**: EGB-027/003
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:05:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Odria, Ane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Baserrian bost-sei behi izaten zituzten. Aita eta anaia kalera joaten ziren lanera eta gazteagoek baserrian lan egiten zuten. Baserriko bizimodua. Domeka arratsaldea bakarrik izaten zuten jai eta inguruko erromerietara joaten ziren. Lehen ez zegoen gaur egungo anbiziorik.

Transkripzioa

- Eta gaztetan ze, ze itten zenduten, ze klaro, baserri puntan bizi izanda, soroko lanak...

- Bai...

- Lan mordua eukiko zenduten...

- Bai...

- Zelako basarrixa zan, kontauiazu.

- Pues e, zian ba ganaua, bost edo sei behi edo holan eoten zian. Aitta ta anaia kalera juten zian lanera eta gu, ba, lehenengo anaia etxian ta, ba ama, ama ta anai-arreba gaztetxuak eta etxian, pues, hola lana eitten gendun. Eta soruan, edo ortuan, edo ganauekin edo eitteko zauana eitten ibiltzen giñan.

- Astia lan ta lan...

- Lan ta lan, lan ta lan pasatzen genduan, ezta pentsau ere beste iñora

juterik eta ezta pentsau ere, ezta zapatuan ere sekula, domeka arratsaldia bakarrik. Domeka goizian mezetara, hango mezetako zeregiñak ein, etxera etorri ta, ba, etxian amari zerbait zukana lagundu ta gero arratsaldia libre. Pues arratsaldian juten giñan Elgoibarrera, kalera, handikan etortzen giñan edo uda-negu partian musikara edo pasio bat ematera o lokesea, erromerixa batera o, ibiltzen giñan geure lagunak juntau eta [geuk] disfrutatzen genduan.

- Bai, ta orduko jaixak San Isidro...

- Baita, San Isidro dala edo, ba, San Juan dala edo Santixao dala... inguruko fiestetara juten giñan eta oso edarki pasatzen genduan.

- Gaur moduko...

- Gaurko... anbiziorik, gaurko anbiziorik ez zan, e! Gaur dauan anbizio hau, e, bueno, esaten dabenez, guk ez dogu ikusten baiña, hau gabeko ibillera hau eta... ke ba! Illuntabarrian etxera ta pozik gaiñera, edarki pasau genduala-ta arratsaldia!

1.12. Esne-partitzera etxez etxe eta Guardia Zibilen kuartelera

- **Hizlaria(k)**: Ansola Arsuaga, Pastora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lodoso, Ainhoa
- **Erref**: EGB-033/014
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:16:28. **Bukatu**: 00:18:23
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Goizean jaiki, behiak jetzi eta esneak astoan hartuta kalera jaisten zen esne-partitzera. Guardia Zibilen kuartelera ere joaten zen esnea eramatera. Guardia Zibilak erdaldunak ziren eta ozta-ozta ulertzen zuten elkar.

Transkripzioa

-Pastora: Esnia ere astuekin erun bihar kalera gaiñera, ez zera oingo moduan kotxiakin, kotxiakin jun ta kotxiakin etorri. Ai! Neretzat holakorik ez da izen.

-Ze izaten zan orduan, aber Pastora, kontaizu. Jaiki goizian...

-P: Jaiki goizian, kortara jun ta ganauak jatxi, ta ipini marmittak hamen ta esniak ipini zeretan, astuak lotu, norbera preparamu ta ala!

-Plazara, merkatura.

-P: Bai.

-Beste lekukoa: Ta esniak partitzera.

-P: Esniak partitzera.

-Etxez etxe.

-P: Bai.

-Beste lekukoa: Bai, etxez etxe.

-P: Bai, kuartelian ibilitta nao ni esnia partitzen. Kuartelian. Elgoibarko kuartelian ere.

-Ta ze zian Guardia Zibilak?

-P: Guardia Zibilak, Guardia Zibilak.

-Ta ze zian euskaldunak ala erdaldunak?

-P: Bai, euskaldunak ez, e? Dana erdalduna.

-Ta zela ulertzen [zinenen]?

-P: Zela-hala moldatzen giñan. Ez dakit nik erderarik eta eskolarik.

-Beste lekukoa: Erderarik gitxi daki; oso gitxi.

-P: Enteniu in bai baiña kontestatzeko palta.
-Osea beti euskeraz zuk.
-P: Beti euskeraz, beti euskeraz. Geuk eitteko kapazidaria izan deun lekuan lana eitteko eskusarik ere sekula ez dou izen. Beti lanerako prest.

1.13. Umetan ardi-zain eta gero 46 urte tailerlean

- **Hizlaria(k):** Txurruka Arozena, Dionisio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-036/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
 - Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena:** Umetan ardi-zain ibiltzen zen mendian eta geroago Muxillo artzainarengana joan zen morroi. Bederatzi hilabete egin zituen han. Handik gerra zetorrela eta tailer batean sartu zuten gurasoek. "Txitxarruan" tailerra zen. 33 urte egin zituen bertan lanean, 1971an itxi zen arte. Lan faltarik ez zegoen orduan eta segituan aldamenen zegoen Alkortaneko tailerlean hasi zen lanean. 14 urte egin zituen bertan.

Transkripzioa

- Zuek eskolan-ta ibili ziñaten?
- Denpora gitxi!
- Zenbat urtian ibili ziñan?
- Ni ibili nitzuan e... ba lehelengo gaztetan ibiltzen nitzuan ni, ba, mendira jun ta ardixetan-ta ardixak zaindu ta ardixak kontu ta gero e...handikan jun nitzuan e... Musillo pastorian entzueria eukiko dok?
- Bai.
- Hara morroe, beatzi hillabete ein najaittuan han. Ta gero, handikan bialdu zien, e... taillar batera sartu zien aittak eta amak, e... gerria [sartu zan] ba, gerria zatorren eta taillarrian sartu nitzan, e... "Txitxarruan" entzueria eukiko dozu?
- Nola?
- "Txitxarruan" taillarra, "Txitxarruana". Osea, Azkoittiko karreteran [...] aldamenara, oin Alkortak bota dau...
- A bai, bai.
- Han, hantxe. Han ein najaittuan ba... hogeta hamahiru urte taillar hartan. Gero taillar haura, ba, itxi ein zan "el año setenta y uno". Bertan egon giñan gu e... kobratzeko geunkan ta bertan egon giñan zaintzen ta bestia-ta. Ba, gero, danok okupau giñan.: bata Sigman ta bestia beste aldan ta bestia hor-ta... Gu bostak han egon giñanak, ba, gero, ba, [magistratura] jun bihar izan genduan, ba, kobratzeko. Bestela, e... makiñak harrapau eingo dittu jentia ta makiñak geldu eukitzeko-ta. Ba, gero, ba, geure... esan jaonan geuk ere subastan erten ein bihar genduala ixotzen ez baldin bazan hango balixua beste. Ta gero, Santanderreko bat eta Bartzelonako bat hasi zittuan pujan, pujan, ta guria pasau zanian, gure numerua, ba guk laga ein giñon eta gero, ba, harek hartu zittuan makiñerixia. Ta gero

handikan, ba, ni sartu nitzan, e... ate batetik erten eta beste atian sartu, Alkortanian.

- Lan faltaik ez zauan orduan!

- Ez, ez, orduan lan asko zauan. Alkortanian sartu nitzan, oin Alkorta [goixan]. Bai. Eta Alkortanian ein nittuan beste hamalau urte.

- Hamalau urte han?

- Hamalau urte han. Danea, ba, berrogeta sei urte inguru taillarrian ein dittut. Oin, soldau ere, asko, e! Soldau ere... Gerrate denporan harrapau giñuzen ta gu egon giñan gerria amaittu ta gero ere, ba, lau urte inguruan ixa!

1.14. Pepita baserritar lanetan

- **Hizlaria(k)**: Unzueta Iriondo, Pepita; Unzueta Iriondo, Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-043/042
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 01:30:05. **Bukatu**: 01:31:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra denboran, Mutrikuko baserrian egon zen hiru hilabeteetan, gauza asko ikasi zituen Pepitak. Iturrean ere egin zuen, bere lehengusua eskolara joan ahal izateko.

Transkripzioa

-Nik hiru hillebetian zenbat ikasi naban, jesus maria ta jose! Basarriko kontua.

-Eta ardixakin gustora, e?

-Bueno, nik ez nittuan ardixak jezten eta. Lagundu bakarrik. "Joango naiz ni zurekin", eta bueno. A, ittulan ere ein naban.

-Zer?

-Ittulan. Ez dakizu zer dan ittulan eittia?

-Ittulan?

-Esan zian behin tiok: "Ingo dozu ittulan gaur?" "Zer da hori?" "Ba ni jungo naiz atzian zerakin eta zu ganauen aurrian" "A bai, joango naiz" "Eske zu joaten bazea Maritxu, nere edadekua, eskolara joango da" "A, joan dailla, [pasiau] eingo dot" "Jontxo!, ittularixa daukak, e. Topau dok, txiki-txikixa dok". Pasatzen zanak hor konpon.

1.15. Esne-behi onak emaztearen baserrian

- **Hizlaria(k)**: Leiaristi Iriondo, Floren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-049/029
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:42:23. **Bukatu**: 00:44:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena:** Orain ez dago proba-tokirik Elgoibarren. Berdura plazaren aurrean egiten dira probak herriko jaietan. Emaztearen etxean baziren idiak eta behiak. Egunean 500 litro ateratzen zituzten.

Transkripzioa

- Hemen idi probarik eta, garai baten eitten zien, ezta?
- Bai, bai, bai. Ta probatokixa egon zan hamen. Gaur ez dao, baiña probatokixa egon zan.
- Harrixa hor dao oindiok.
- E?
- Harrixa hor dauela oindiok.
- Harrixa bai, harrixa han ere bai beste bat [Elgoibarko] berdura plaza aurrian ere badao beste bat, baiña hamen oin probatokirik ez dao. Oin ferixa egunian edo San Bartolome perixia edo Gabon perixia edo holako egun batzutan eitten dittue probak han berdura plaza aurrian galtzadia dao ta han botatzen debe letxeria, markatzen debe ta haintxe eitten dittue giltza batzuk. Ostien ez dao, profesional plaza bat ez dao.
- Zuek etxien idirik eukitzen zebein?
- Idixak? Ez, behiak. Basarrixan behiak. Gero honen etxien bai, honen etxien idixak eta zortzi bat behi onak, e? Egunian bostehun litro esne etarutzen denpora askuan egoten zien honek.
- Kontxo!
- Bai.
- Ta nora eruaten zebein?
- Hamen partidu. Andria etorri goizian kalera ta hamen eguardira artekua... lan txakurra da hori, e? Esne partitzen. Ta hamen esnia, harek danak esnia partidu ta eukitzen zittuen zortzi bat behi ta erosten zebeinian beti hogeta hamar litrotik gorako behixa erosi, handik behera ez. Handik gorakuak hiretzat erdixa lagatzen jok, erdixa jaten jok pentsutan ta beste erdixa hiretzat lagatzen jok. Baiña honek hoge ta hamasei ta honek bajuok, honek, honek ez dittuk aillegatzen. Pentsuan preziaua dauka horrek. Horrek gasturako lain eitten juek.
- Osea, gutxienez hogeta hamar litro.
- Hogeta hamar litro. Ta harek eukitzen zittuan zortzi behi bata baiño bestia edarrauk ta bostehun litro egunian, da-da-da... Honen anaixak.

1.16. Esnea eta barazkiak saltzen

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/007
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:09:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena:** Bost behi izaten zituzten. Ardirik ez. Berak eramaten zuen esnea kalera astoan. Berdura ere saltzen zuten hainbat lekutan. Okindegi batean uzten zuten, eta Eroski ere bezeroen artean zegoen.

Transkripzioa

- Ganauak bagaunkazen.
- Zenbat?

-Guk bost bat behi eukitzen genduzen. Ta txalak eta astua, horretzek.
 -Ardirik?
 -Ez, ez, ardirik eta ez, hortik ezer ere ez.
 -Ganaua, okelatarako edo?
 -Esnia. Neuk eruaten naban. Goizian astuakin pare bat kantinkara hartu eta kalera jun eta etxerik etxe partiu. Eskilarak gora ta behera. Orduan aszensoreik ez dakit zeuan. Baten bigarren pisora, hirugarrenera, hurrengo ez dakit nora ta haintxe, partiu.
 -Egunero.
 -Egunero.
 -Ggoorra zan esnezainen bizimodua. Zenbat bezero eukitzen zittun?
 -Ba lau-bot bat bai. Gehixao igual, ez dakit neuk seguru. Gero berduria ere saltzen genduan.
 -Plazan?
 -Plazan ere bai, eta gero nik erueten naban dendetara. Eroskira ere bai, eta panaderixara eta porruak; txortak in eta igual hamar txorta edo gehixao eruan, laga han eta paatzen zien eta plazara jun be. Neetzat hobeto zan.
 -Eroskikua kontu barrixa da, ezta?
 -Lengua zan hori. Lehenao. Oin ez dabe hartzen basarriko jenerorik horrek, horrek kanpotik ekartzen dabe, baiña orduan nik Eroskira ere erueten naban.

1.17. Plazentziara fruta saltzera

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/009
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:10:26. **Bukatu:** 00:11:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena:** Arozena okindegian uzten zituen barazkiak. Erosoago zen eurentzat. Azokara denetik eramaten zuen. Izeba Plazentziara joaten zen astoarekin fruta saltzera.

Transkripzioa

-Porruok hara eruaten zittuen.
 -Haraxe eruan eta laga han. Eta ya está. Eske plazara jun eta han egon bihar ziñun goiz guztia igual beira. Igual saldu be igual etxera. Han berriz hobeto.
 -Eta plazara zer gauza gehixau eruaten zeen?
 -Porruak, azak, koniflorak et hortaukuak, ortuko gauzia.
 -Frutarik eta?
 -Frutarik ez. Frutia nere tiak-eta "en aquellos tiempos" juten zian Plazentziara astuakin, sagarrekin, oiñez.
 -Plazentziara?
 -Plazentziara astuakin juten zien.
 -Eibarrera ez?
 -Eibarrera ez, Plazentziara.

1.18. Morroi erdalduna familiak erdaraz ikasteko

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/012
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:12:25. **Bukatu:** 00:13:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Morroiak edukitzen zituzten. Erdalduna izan zuten bat; aitak nahi zuen eurek erdaraz ikastea. Aitak kanpoan egiten zuen lan. Anaia gazterik hil zitzaion Josefinari.

Transkripzioa

-Etxian aber zenek eingo zaban. Gu kriauekin bizi izan giñan, kriauekin.

-Nungua zan kriaua?

-Kastillanua.

-Kastillanua gaiñera? Klaro, zuek erderaz ikasteko?

-Horregatikan. Gure aittak nahi zaban guk erderaz ikistia.

-Eta hona ekarri morroia...

-Bueno, ez zaelako bestelakorik; ez zauen eta.

Laguntzailea: -Eske zure aittak ez zaban eitten lan basarrixan.

-Klaro, haura etxian ez zauan. Aittitakin eta morroia, eta gero nere anaixa ere bai, gaztia. Baiña gero hil ein zan haura.

1.19. "Santiago Pardo, para servirle a usted y a dios", morroiak

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Bi morroi ere izan zituzten momentu batean. Bat Santander aldekoa zen, erdalduna, grazia handikoa. "¿Cómo te llamas?". "Santiago Pardo, para servirle a usted y a dios" erantzun zien.

Transkripzioa

-Morroiak bat baiño gehixao euki genduzen. Sasoi baten bi ere bai. Bi batera. Udazkenian mendiko garo ebatera ta... Bat euskalduna zan, eta bestia kastillanua.

-Euskalduna nungua?

-Hamengotxia zan, hamengotxia. Etorri zan pare bat hillebeterako edo, lan asko zauan denporan. Kastillanua zan baiña salaua. Lelengo etorri zanian, esan nion: "¿Cómo te llamas?". "Santiago Pardo, para servirle a usted y a dios"

-Ja-ja...

-Para servirle a ustedes y a dios".

-Zenbat urte eukan?

-Gaztia. Hogeta asko ez zaban eukiko harek. Kastillanua, etorri zan eskinka, aber bihar genduan kriaurik. Bueno ba, bihar genduala ta aber, pasau giñan eta aber preguntatzen ba zela izena zitzakon ta...

1.20. Laian eta garo ebakitzen ibilia

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/019
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:20:16. **Bukatu:** 00:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Behin edo behin ibilia da laian. Bat falta zela eta erdian ipintzen zuten. Errazagoa da erdikoaren lana. Garo ebakitzen ere jarduna da aitaitarekin.

Transkripzioa

-Eta lehen-lehen'e laixetan ere bai.
-Ibilita zaoz?
-Laixetan, bai. Ibilitta nao neu ere behin. Falta zala baten bat, eta ni erdixan. Erdikua errezaia izaten zan. Erdixan ibilitta nao.
-Laixetan, e... Ez dot neuk inor sekula ikusi lan hori eitten.
-Laixetan, bai, gurian laixetan itten zan. Hiru lagun, hiru lagunek.
-Hori lan gogorra izango zan.
-Bueno. Ni erdixan; aldamenekuak itten zaben eta ni erdixan errezaio.
-Zu umia izango ziñan ondiok.
-Bai. Umia edo, gaztia artian. Hori behin edo behin, gitxittan, e.
-Eta gero goldia etorri zanian...
-Gero goldatu, goldatu.

1.21. Esnea azunbreka saltzen zuen

- **Hizlaria(k):** Arrillaga Garate, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-057/005
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:09:39. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** 12 urterekin esnea saltzera joaten zen Eibarrera. Han txakur handi bat (pezetaren 10 zentimo) gehiago ordaintzen zuten azunbreko Elgoibarren baino. Bezera asko zituela dio Pedrok.

Transkripzioa

-Lehen esan dostazu hamabi urtekin eskolia itxi eta Eibarrera esnia eruatera.
-Bai, hamabi urtekin Eibarrera esnia eruatera.

-Eibarreraino zergatik, ez euen hemen bezerorik ala?
 -Elgoibarren, baiña esan dizut txakur haundi bat gehixao pagatzen zala Eibarren. Hamen zortzi txakur haundi pagatzen zaben, litro bi orduan azunbria zan, azunbria litro bi, ta litro bi pagatzen zittuen zortzi txakur haundi eta han pagatzen zittuen igualeko kantidadia beratzi txakur haundi eta txakur haundi bat. Hogeit bat edo hogeta hamar bat litro litro eruaten zian eta hogeta hamarrek hiru pezeta. Dirua. Hogeta hamar txakur haundi hiru pezeta justuak. Ta zidarretan holakotxe boltsillokaria ebaltzen naban; hogeta duruak batzen nittuan eta jota praka-zorruak mutil-koskorak eutsi ezinda. Ta gero haura ganbixau ta hogei durukua etxera, aittari, hogei duroko papela. Enee!, gure aittan poza!
 -Zenbatian-zenbatian kobratzen ziñuen esnia?
 -Batzuek pagatzen zebeu hamabostera eta bestiak zortzi egunera. Zortzi egunera gehixenak. Azunbria hartze zabenak sei pezeta eta hiru txakur haundi pagatzen zittuan astian, eta bestiak doblia pagau bihar.
 -Ze zeunkan, bezero asko?
 -Puf, mordua. Batzuek litro bi hartzen zittuen baina lau litro ere. Hemen bidian batek etxia Saturixo eta horrek lau litro hartzen zittuan. Gero klinikan aurrian han zerian entradan Bar Loiolak harek ere lau litro hartzen zittuan, eta gure goixan beste bat bezerua, harek ere lau litro hartzen zittuan, baina bestiak danak hoixe.
 -Azunbria?
 - Bt edo litro bat hartzen zabana baiña bestiak bi litro, azunbria.
 -Ze faten ziñan, astuakin?
 -Bai, astuakin. Ez, kaballuakin edo zerakin jungo giñan, kotxiakin, je-je!!

1.22. Gurdigina izan zen Pedro

- **Hizlaria(k):** Arrillaga Garate, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-057/032
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:23:14. **Bukatu:** 01:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Berak egindako gurdi kaxak saldu izan ditu.

Transkripzioa

-Lehen esan dozu burdixak-eta eitten ziñuzela. Zeuretako ala saltzeko?
 -Saldu ein nittuan bi horri zerari, horko auzoko lagun bati. Eindda naukazen burkajia etxian edar askua etxerako banakan, eta beste bat einda baneukan goixan apurtzen bazan edo eta ein naban eta beste bat eitteko berari, eta halaxe ein nion.
 -Baina zeu arotz modura etxegintzan eta ez za ibili.
 -Ez, ez. Nik ekin banio eingo naban eta honezkero millonarixo. Mekauben zotz, ekin banio arotzerixan lagun pare bat hartuta kuadrillan. Ene, oin edozenbat diru etaratzen dabez, edozenbat gero

1.23. Aubixako arto eta gariak

- **Hizlaria(k):** Arrillaga Garate, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-057/035
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:27:15. **Bukatu:** 01:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Garia
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- **Laburpena:** Aubixa baserrian urtero egosten zuten karea, eta nabaria zen hango arto eta gariaren kalitatea. Landare eta hazi guztiak barreiatuta sartu behar direla dio Pedrok.

Transkripzioa

-Hor Aubixan, ostera, hor Aubixan gure aittan arrebaik zarrena Aubixara ezkondu zan eta harek etxian zeukan kalerua ta harek urter0 erreten zaben eta Jesus!, harek hartzen zaben garixa, babia, hartua... Artua're mietz ipintzen zaban, baiña hau baiño lodixaua kertena artuak, e! Ta bi buru, holakotxe buru tzarrak. Ganbaran honenbestian botata ezin sikatu ere. Zelako artodixa ta! Ta garixa ere horren moruan, nunian bat gari. Harek batzuen moduan ra-ra! zera, holako mehe-mehia garixa. Harek garixa ere halakotxe bakan-bakan, ta gero hamazazpi erru, eskutakaria, e; ipurdi bakoitzak hamazazpi puja gora. Zelakuak! Kolpe einda eskua beteik, ra! Ez dao garixan morudko botikaik. Eta gero harek ipintzen zaban moruan mieztuta ere batzuek ipintzen dabe; iñok ere ez! Harek berak hauraxe zekan ez zala bihar ugari eta ez dau bihar ezek ere ez, ugari ezek ere ez, ezta pinua ere. Pinua ere bakan ipintzen ez bada mehia, mehia; luzetu bai baiña mehia. Loditzeko lekua bihar dau, sei bat metrora.

1.24. Laiaketan gazte-gaztetatik bi lagun en erdian jarrita

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/005
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** 14 urterekin laian lanean hasi zen. Hiruzpalau lagunek elkarrekin egiten zuten laian, gazteenak erdian jarrita. Soro barrenetik lurra jasotzen ere ibilitakoa da.

Transkripzioa

-Laietan ere bai, hamalau urtekin laixetan eta.
-Ibilitta zaz laixetan?
-Laietan? Bueno, zenbat bidar ibilitta!
-Baina ez zeunken goldarik edo?

-Goldia bai egoten zan baiña, ze esango dizut ba... Nabua, nabua kastauaz lurra geratzen zan eta goldaketarako gitxi ta. Nabua kastauaz, kastauaz lurra laixatu eitten genduan. Ta laixetan ni ere hantxe txikixa, gaztia izen arren erdixan ipiñitta. Ezkiñetan ez, baiña erdixan erreztxuao ibiltzen zan; han ipiñi ta hantxe.

-Osea, hiru ibiltzen zinen?

-Ba lau, hiru-lau, holaxe. Baiña ni neska koxkorra ta hantxe.

-Horrek ekiñaldi luziak izango zien, ezta, laixan.

-Bai. Lurrai buelta eman bihar zakonian eta esportzua jo bihar izaten zan han edarra.

-Bigarrena zan laixetan...

-Laixetan ni asko eindakua naiz laixetan. Auzolanera ere junda ere bai.

Auzolanian, auzuan. Koiñata geunkan hor beheko basarri batera ezkondata, ta hara junda ta. Hor Arane, zuk esan dozun Pedron etxian lurra jasotzen ere bai zestuakin.

-Soro barrenetik.

-Bai soo barrenetik guenera ibilitta gaure.

1.25. Umeak gozozaleak

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/011
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:21:58. **Bukatu:** 00:23:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Umetan amak esaten zizkionak gosaritan esnea eta artoa jan zitzen. Azukrea ondo neurtuta ematen zion amak.

Transkripzioa

-Nere amak esaten zian eze hola... Hor goixan errota bat euki giñuan, errotia, han ixotzen genduzen artua ta garixa ta. Eta gero etxian ogixa ein; ta artua, arto-torta ein eta artua ta esnia ta. Artua ta esnia baiño kafia ta esnia nahixao izaten giñuan guk. Ta amak esaten ziun eze: "Zuek azukre gozuak erretzen zaittu. Halako lekutan umiak edarrak, potolo-potoluak, ta Irunakortan eta, han errotia zeuan tokixan umiak potolo-potoluak, eta gu mehe-mehiak, ta harek esaten: "Zuek bai ba, kapia ta esnetxua jaten dozue azukriakin eta. Harek bai ederrak!". Esaten ziun. Baiña guk gozua jatia nahi azukriakin kapia ta esnia nahixao.

-Orduan azukarra gutxi, ezta?

-Azukarra, eneee! Azukarra kontauta. Amak kotxaratxuakin neurtuta ematen ziun guri.

-Eta eztixa ez zeunken?

-Eztixa, ez zauan erlerikan gurian. Ez, ez zan, erlerik ez genduan eukitzen. Baiña eztixa, erosi ere zer orduan? Erosi ere gitxi. Erosi gauzia gitxi gure gazte denporan.

1.26. Lihoa, larrua eta saskigintza

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/037
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:16:44. **Bukatu:** 01:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Josefaren amonak ereiten omen zuen lihoa, baina Josefak berak ez du gogoan. Liho-putzurik ere ez omen du gogoan. Aitagarrebak abarkak egiteko, larrua busti egiten zuen biguntzeko, gero josi ahal izateko. Mendarotik auzoko Eguren-Nagusi baserrira ezkondu zenak saskiak egiten zituen etxean.

Transkripzioa

-Zuk sekula ezautu dozu liñua soruetan?

-Ez, souan ez nik hori bedar hori. Ikusitta nao nere jaixotetxian. Armaixo haundi bat zan eta hantxe haura bedarra ezaututa nao. Baiña etxian hartzen ez. Nere amamak eta eitten (ereitten) ei zebeñ baiña nere akorduan ez.

-Zuk orduan amama-ta goruetan ez zittuzun ikusi?

-Goruetan neu be einda nao.

-Baiña liñuakin ez.

-Ez. Ardi-laniakin.

-Zuek hemen liño-potzuak eukiko dittuzue, ezta?

-Ez dakitt. Ez naiz ni konturatzen.

-Uste dot leku askotan dagozela oindiok izen horrekin.

-Baiña hemen ez, ez dot iñori sentiru.

-Liñapuzuetan gaztaiña be zumitza eitteko ta.

-A bai, beratu eta hori. Zesteruak, zestua eitten zabenak, eta bai. Hori ezaututa nao.

-Eta zure aittagarreba hain artistia izanda narruakin eta, otzararik-eta ez eben egiten?

-Ez.

-Esan dostazu burdixentzako eta eitten zittuela; eta narruzko abarkak eta.

-Narruzko abarkak harek eitten zaban uretan busti eta trapu baten, trapu bustixan bueltan batuta ipini. Eta bigun-bigunak eukitzen zittuan gero abarkia joskixakin josteko.

-Ez zeukan ohiturarik otzarak eta; zesterua ez zan?

-Ez, ez, zesterua ez zan. Hemen Eguengo gizona bai, Mendarotikan ezkondu zana hona Eguenea, gizona. Eta harek zestuak eta edarki eitten zittuan. Harek basuan hartu gaztaiña-langaixak eta berak etara zumitzak eta harek eitten zittuan. Baiña gurian etxian ez dot ezautu hori. Ez dot ezautu, ez.

1.27. Nati esneak partitzen eskolara baino lehen

- **Hizlaria(k):** Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref:** EGB-068/047
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:09:37. **Bukatu:** 01:11:14

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Lehengo berdura-plaza askoz politagoa zen. Esnea saltzen zuten, baina berdurarik azokan ez. Natic esneak partitzen zituen eskolara sartu baino lehen. Oso goiztarrak ziren denak.

Transkripzioa

Nati: -Lehen askoz polittaua zan berdura-plazia oin baiño.

Agurne: -Bota egin bihar debela esate debe.

Nati: -Ez dauka konparaziorik ere ez dauka.

Agurne: -Baiña ez jone /etxone/ esaten bota egin bihar debela? Bai...

Nati: -Ez jonat /etxonat/ entzun baiña...

Agurne: -Eta berrixa ein bihar debela esaten debe, ez dakitt.

-Eta nun zeuan hori merkatu plaziori?

Agurne: -Ba justu oin plazia dauan lekuan.

-Bertan zeuan?

Agurne: -Bertan zauan. Gero in zeuben dana bota ta haundixa ein. Baiña berta-bertan.

-Ta zuek joaten ziñaten saltzera?

Nati: -Ez. (...). Eta hori, hau plaza honetan... Gu ez giñan bajatzen berduriakin. Guk esnia. Eta arrautzak eta. Guk nehikua genduan etxekua guk jateko dana. E, Nati? Dana jaten gendunan (barre). Babak eta ortukuak eta danak jaten gendunazenan.

-Etixerik etxe partitzen zenduen?

Nati: -Bai, eta gaiñera nik partitzen naban nere tiana ere bai. Eta gero bidian errekauek ere, batzuetan San Lorentzokuak, beste batzuetan beheraoko etxekuak... Ta andra nausi samarrak zeurenak ba "hori ekarrizu ta haura ekarrizu ta bestia ekarrizu" ta errekauek ere itten genduzen; bestindako ere. Esniak partidu ta eskolara etortzeko beratziretarako, goizao-goizao.

Agurne: -Izan gera, e, Nati, izan gaittun goiztarrak.

Nati: -Bihako goiztarrak izen, aber bestela ze ingo genduan!

Agurne: -Goiztarrak (barre).

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Antzina jeneroa zaldi edo idiekin garraiatzen zen

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Garate, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EGB-001/011
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Idiekin eta zaldiekin garraiatzen zuten gerra aurretik jeneroa, Markinara... Bentan geratzen ziren. Pistolarekin bidera irteten zirela ere entzuna du.

Transkripzioa

- Bai.
- Alaba: Bentan egoten zan ta bentia zala hor ta...
- Bai. Lehen zerak ibiltzen zian transportistak, kanbioia ta ostientzien zan bezela ta, zera, karruekin ta ibiltzen zien, idixekin ta ardaua ta Markina ta [...] Elgoibartik eruten zaben dana, zera kamiorik eta ezer ez orduen. Kotxerik ez. Kotxerik gerra aurretikan dozena bat guena egongo zien Elgoibarren. Ta ostientzien geuk ezaututakua idixekin ta kaballuekin ta ezaututakuak jenerua portatzen, transportatzen.
- Ta kaballuekin be bai dilijenziak eta?
- E?
- Dilijenziak.
- Zera, bijilantiak?
- Dilijenziak.
- Karruakin eruaten zebeñ? Zaldixak karruakin juaten zian?
- Bai, bai, bai, bai. Karruakin ibiltzen zian. Karro lau erruberako haundixak, hortantxe dedikatzen zianak.
- Kaballuekin baiña?
- E?
- Kaballuekin?
- Kaballuekin ta idixekin ere bai.
- Ta personak han ibiltzen zian?
- E?
- Personak be hantxe? Jentia, jentia ere ibiltzen zan?
- Eurek transportatzen. Oin kamioiekin ta txofer ibiltzen dan bezela ba, harek haura zertzen zaben. Bai.
- Eta hamen gelditzen ziran, Bentan?
- Bentan, bai, bai.
- Bazkaltzen edo...
- Bai, idixekin eruten zaben Markiñara ta bueltan ta hor afaldu edo ta mozkortuta etxera igual ta. Bati idixak hor behera jun zakozen mozkortuta, baten [baten] bota hor mendixan behera ta, holakua zan orduen. Ta bidian pistoliekin erten ere igual ta.
- Bai?
- Bai. Ni gaztia nintzen baiña entzunda naon bidera ertenda diru zera erun nahi ta, ta-ta!
- Bai?
- Bai. Bai, bati esaten zaben horko basarri [...], Markiña ondokuari, erten ein ziola karreteruari, transportista zabilenorri ta zertu da ta alto edo eman dio ta beste horrek atara pistola ta, jo ta garbi. Esaten zaben, esan eitten zan.

2.2. San Lorentzon bazegoen eskola, baina bera ez zen joan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref**: EGB-008/005
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:05:04. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

- **Laburpena:** Ez zen eskolara joan baserrian lagundu behar izaten zuelako, baina auzoko emakume batekin doktrina ikasi zuen. Baserrietan egoten ziren eskolak. San Lorentzon kanpotik etorritako irakasle bat egon zen.

Transkripzioa

- Zu jun al ziñan eskolara?

- Ez maitie, ez nitzen juan.

- Ez, ezta?

- Iñora, iñora ez giñan ni jun. Batzuk jun zien, baiña... ez zien allegauko aitta ta ama edo... behintzat ni ez nitzen juan eskolara.

- Zu eskolara ez ziñan jun.

- Auzuan zan andra zahartxo bat ta hantxe ikesi naben hori, doktriña.

- A bai, erlijua ta dotriña.

- Besterikan nik ezer ez dakit.

- Eta zuk gogoratzen dittuzu Elgoibarren eskolak? Zu gogoratzen zea eskoletaz, nahiz ta zu ez jun?

- Bai. San Lorentzon egoten zan ta...

- San Lorentzon bazeuden?

- Bai, ta [Kurutzetan] ere bai ta holakotxe leku batzuetan egoten zan baserrietan eskolak. Ba, gure modukuak jutekuak, baiña ni ez nitzen juen. San Lorentzon, San Lorentzon ezautu naben kastellano bat egon zan, kastellano txiki bat.

- Maisu bat?

- Bai, maisu bat. Baiña nere lagunak juaten zien, baiña ni...

- Eta kanpotikan etorritakua?

- Bai, bai, nundik ez dakit, baiña kanpotik etorritakua bai.

- Eta eskolan neskak eta mutillak, ba, aparte ibiltzen zian, ezta?

- Ez. Ganbara bat [egoten zan], ganbara bat [hamen]... Oin, ez dakit aparte egoten zian, baiña leku baten...

- Bai, danak leku baten?

- Bai, bai, bai.

- Danak elkarrekin? Sallobenten, ezta?

- [Ganbarape] baten.

- Sallobenten danak, ganbara baten...

- Bai.

- Danak sartzen zittuzten han?

- Bai, neska-koskor eta mutikoskor, danak leku baten egoten zien.

- Eta ze juten zian eskolara, goizian, arratsaldian...?

- Bixetan, danien.

- Danian, ezta?

- Oiñ, orduak ez dakit.

- Ya.

- Baiña goizien eta eguardiko hamabixak arte eta gero, arratsaldien berriz. [Bietan, bietan].

- Oso ondo. Ta oporrak eukitzen zittuzten?

- Harek?

- Eskolara juten zianak?

- Harek bai. Harek txikixek, baiña nik haundixek eukitzen [neban] oporrak.

2.3. Orduko eskolako kontuak: zigorrak, txangorik ez

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref:** EGB-008/006
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:09:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena:** Batzuetan eskolara joan beharrean perretxikotara edo manzanilatara joaten ziren eta gero irakasleak zigortu egiten zituen. Anaia eta arreba joan ziren eskolara eta bazituzten liburuak ere. Uniformerik ez zuten erabiltzen. Orduan ez zuten txangorik egiten.

Transkripzioa

- Baten batek, eskolara ez bazan juten, baten batek piper edo eitten baldin bazaban, maixuak eta ze?
- Kastigua ematen ziu. Hala esaten zaben behintzat. Edo perretxiko batzera juten ziala edo mantzanilla batzera juten... bestela, jolasera igual, harei kastigua.
- Klaro, harek juten zian perretxikota ta mantzanillata ta eskola laga.
- Eskolara jai!
- Eskola jai eta gero, maixuak bronkia bota.
- Hoixe ba, hoixe ba.
- Zure anai-arreban batzuk jun zian eskola?
- Bai. Anaia ta arreba, bixek juen zien. Holako liburu batzuk ematen ziuzezen, baiña kaso gitxi harei.
- Uniformia eramaten al zeben?
- Ez, ez, ez.
- Ez, normal juten zian.
- [Daon bezela]. Txukun jun bihar ahal danetik, baiña uniformerik ez.
- Ya.
- Ez, ez, ez.
- Eta eurak eskola juten zianian, eskolara, han ikasi ta liburuetatik aparte, juten zian maixuakin, igual, mendira o eskursiora?
- Ez, ez, ez. Ordun ez zan holakorikan.
- Oso ondo.
- Orduan, behintzat, San Lorenzokuak ez zian juaten iñora.
- Edarki.
- Nere anai-arrebak hara juaten zian, ta nik hango berri dakit, e? Baiña ez zien juaten eskursiora ta hola. Orduan ez zan.
- Ez zan eitten...
- Orduan lana bakarrikan.
- Lana bai, baserrixan lan asko zauan gaiñera, ezta?
- Oiñ´e bai, ein nahi dabenantzako.
- Baitta hori ere, egixa da.

2.4. Gerra aurretik denek euskaraz

- **Hizlaria(k):** Elustondo Aizpiri, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana

- **Erref:** EGB-010/025
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Gerra aurretik dena euskaraz egiten zen Elgoibarren. Ez zegoen kanpotik etorritako jende asko eta zeudenek segituan ikasten zuten euskaraz. Guardia Zibilek semeek, adibidez, berehala ikasten zuten. Gerra ostean debekatuta zegoen euskaraz hitz egitea eta kalean euskaraz eginez gero gaztelaniaz hitz egiteko esaten zieten. Hala ere, euren artean euskaraz egiten zuten.

Transkripzioa

- Aber, oin euskeria buruz hitz egin bihar de /biheu/. Zela zauan ikusita euskeria Elgoibarren? Danok eitten zenduten euskeraz, ezta? Garai hartan.
- Gerra aurretik bai.
- Gerra aurretik danok euskeraz.
- Gerra aurretik bai, danak euskeraz.
- Eskolan ere esan dezu, nahiz ta liburuak erderaz egon, danak euskeraz.
- Bai... guk ez gendun ikesi [...]. Han ere euskeraz. Ta gerra aurretik danak euskeraz. Gaiñera, gerra aurretik hamen pasatzen zana bakarren bat zauan hamen kastellanua etorritakua eta haren umiak-eta ensegida ikesten zebe euskeraz. Kalia, e! Ez etxian. Etxian ezin leikixen gurasuak zertu, baiña kalia segiduan. Guardia zibillak umiak eta guardia zibillak ere ensegida euskeraz ikesten zebe. Bai. Hamen urte bat edo bi pasau ezker, ikusita.
- Hori gerra aurretik. Eta gerraostian?
- Gerraostian ba ya prohibidu eitten zebe.
- Prohibidu egin zebe.
- Bai. Por ejemplo, guk [...] hiru-lau lagun juntatzen bagin, ba, tabernan edo zerian, hasten gin eta "hablen en español" esaten zebe. Holaxe gerra ezker ba ya... zera zauen, euskeraz eitteko zerik ez zauen egon. Oin berriz euskeraz hasi dia oin.
- Baiña hala eta guztiz, gerra eta gero zue euskeraz itten zenuten, ezta?
- Guk bai! Gure gurasuak-eta ni pum ez zekixen...
- Etxian beti euskeraz. Eta lagunen artian ere euskeraz, ezta?
- Bai, bai, bai. Gaur egunian ere bai. Oin euskeraz jakin arren askok uste dot kalia erderaz eitten debela, e. Bai, askok. Zue ere erderaz ingozue /eigozue/, ezta?
- Ba bixetara, segun zeinekin zabizen.
- Hoixe.
- Segun, batzue euskeraz, beste batzue erderaz... badakizu.
- Bazuan pertsonaren bat zue ezagutu zenun gazteren bat ikasten zabala ingeleza edo frantsesa edo beste hizkuntzaren bat?
- Ez.
- Lehen ez, ezta?
- Ezta bat ere ez.

2.5. Goizez eskola eta arratsalde euskulanak

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonandia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi

- **Erref:** EGB-013/017
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:26:08
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Umetan denak batera eta gerora neska eta mutilak bananduta ibiltzen ziren eskolan. Eskulanak egiten zituzten arratsaldeetan, josten aritzen ziren. Oporrak gaur bezala izaten zituzten. Zigorrik ez zuten izaten. Umetako pasadizoak kontatzen ditu. Irakurri eta idaztea gustuko zituen Soterak, mojei irakurtzen zien bazkaldu bitartean.

Transkripzioa

Ze ospitalian beti, hamahiru urte edo holaxe, behiñ gora ezkerro, neskak bakarrikan. Behian, bai, eskola txikixan mutil ta neska. Orduan, tablia, tablia danak jaikitzen giñan ta eskolia ba, bankuak hor hasi ta honaiño, bueltan, "dos por uno es dos, dos por dos es cuatro", bueltan kantatzen genduan tablia amaittu artian, banan-banan. Goizian estudixua izaten zan eta arratsaldian esku-lanak.

(...)

Monjeri leetzen niuen, ba eurak bazkaltzen ezta! ta bentana txiki bat halakua zauken, holakotxia, ta ni han, harek bazkaltzen, ta ni "la vida de los santos, hoy de uno, mañana de otro", illeria bueno, ebanjeliua irakurtzen niuen nik haura ordubete edo, ez dakitt, ordubete ez, hiru ordu laurden edo zenbat izango zan ba jarixo hori, amaittu artian. Behiñ mariatu egiñ nitzan, makaldu edo ez dakitt nik, ta hamaikak, debilidadia ere, hazten nenguan orduan, ta mariatu egiñ nitzan, gero, harrezkerro hamarretakua ematen zien beti. Urte bi inguruan leetu niuen nik harek bazkaltzen zauden artian.

2.6. Hilean bi pezeta eskolara joateagatik

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/018
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:29:21
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolako liburuak erosi eta hilean bi pezeta ordaintzen zuten eskolara joateagatik. Ikasgai ezberdinak aipatzen ditu, marrazketa zuen gustukoan.

Transkripzioa

Nik, dibujua gustau egitten zitzatan asko ta, halaxe ni examiñetan, ba, nere lamiñak han bistan, aingerua batian dibujua, ta gero bistak eta holakotxiak, eta neri asko gustatzen zitzatan. Dibujoko maixua ere joaten zan, orduan botikarixua, ta jueza, ta holakotxiak, abadia, parroquia ta horretzek ziran profesoriak, examiñatzera etortzen ziranak. Ta dibujoko maixuak nere dibujuak ikusi zittuanian aber joaten nitzan dibujora, ta ez, ez nitzala juten, ta lastimia dala ba. Pezeta bi pagatu bihar ziran, zortzi ume ziran, ta pezeta bi orduan asko ziran.

2.7. Janzkera ezberdina astean eta jaiegunetan

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/027
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:52:32
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Orduko janzkeraz hitz egiten du; soineko bat luzerako izaten zuten. Aitaren jakarekin, jostunak etxera etorri eta abrigoa egin zion Soterari 12 urte ingururekin. Igandeetan, dotoreago ibiltzen ziren. Arropa Elgoibarren erosten zuten. Anekdotak bat kontatzen du. Alpargatekin ibili ohi ziren.

Transkripzioa

Aittan jakiakin egiñ zien. Jostuna etxera ekartzen zaban amak. Egun bi edo egitten zittuan, lo ta danak hantxe egitten zittuan, badakizu, gurian asko egoten zan ta. Eta aittan jakiakin egiñ zidan abrigua, eukiko nittuan... tan tonta tampoco no sería porque ya tendría unos 12 años porque yo...", goguan daukat, banixen eskolara, eta ama portalera ertenda, begira neri. Estreñeko, estreñeko, aittan jakiakin, banixela, begiratten dot han ta... ama holan irribarriakin zagan neri barre egitten dalakoan, buelta atzera, ta abrigua kendu ta ez naban jantzi. Gero, harrezkero baiña, ez neukan besterikan ta jantzi, ta bai pozik ibilli ere, bai pozik ibilli ere.

Goguan daukat nik, gure ama beti tela onak egittekua zan, ta urtiak ere orduan aurrera zixezen, baiña sastia, tuertua esaten ziuena, zelan zaban? José uste dot, Zabala, uste dot. Eustakia zaban ama, ta ekarri zaban trajia etxera, anaixana. Aste Santua zan, ta orduan Aste Santurako ta holaxe egitten ziran trajiak, egun señalatua eta, ekarri zaban trajia ta gurian beti ohitura bezela, "pago al contado", pago 30 duro zan traje hori, telarik onena eh!, beti ona gure amak, telarik onena. Ta hartu zaban dirua eta joan zan etxera. Hemen dator berriz Eustakia ta... "yo sé que me habeís dado pero no he llevado dinero a casa", "¿que no ha llevado? pues ya sabes que te hemos dado, sí pues eso, pues no veo Farola hartu, farola kandelikiakin, eta "¿qué encontraís?" udia zan, udia, udaberrixa behintzat, eta "¿qué encontraís? edo ¿qué buscaís? lo que no encontramos", sekula ez jata ahaizten erantzuna.

2.8. Berdura plazan antzerkia

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/036
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:03:33. **Bukatu:** 01:05:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Kultura » Antzerkia
- **Laburpena:** Kaminerokora erromeriara joaten ziren. "Sasikoipatsu" egunean bazkaria egiten zuten. Berdura plazan antzerkia egiten zen. `Erreguetan´ abestiaren hasiera abesten du.

Transkripzioa

- Gero izeten zan Kamiñerokuan zauan erromerixia orduan.
- lgandetan ere izaten zan?
- Bai, bai.
- Igandero egoten zan Kamiñerokuan?
- Bai, soñua egoten zan. Soñua eta... orduan...
- Juten al ziñan hara ere?
- Honbre! Ai enee! Harek egunak! Gure jangoikua! Bueno! Orduan baita... josten ikasten ere ibili nitzan, e! Eta eitten genduan, karnabaletan, "Jueves Gordo", "Sasikoipatsu" esaten giñon, eta "Sasikoipatsu" egunian jostunak danak -erretratuak ere badaukaraz nik, eta- han ipintzen zaben, bazkaixa enkargatzen genduan igual -Kamiñerokuan ere inda gaude-, ba, ipintzen genduan, bazkarixa eskatzen genduan. Angulak eta danak jaten genduzen orduan, oin baiño errezaio zian ta. Baiña orduan ere ordurako dirua zan! Ordurako dirua, oin bezela! Oin ere "mucho, pero... también ganamos mucho".
- Antzerkira juten ziñeten?
- Antzerkia zer da?
- Teatruak. Teatrua.
- A! Ein zaben teatrua batzuetan berdura plazan, bai, ein zaben, oso politta gaiñera ordurako, e! Geuretzako, ordurako.
- Eta gogoratzen al dozu?
- Bai: "Erreguetan ari nitzala eman dite albistia: ama zureak nahi ez duela biok elkarganatzia. Nola ez neukan, oraindiokan gauz hori erabakia, berbertatikan asmoa hartu det konbentuan sartutzia". Gero mutillak... luzia da, e!

2.9. Orduko egunkari eta aldizkariak

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/037
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:05:52. **Bukatu:** 01:08:45
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Aisia » Kultura » Irakurtzea

Aisia » Kultura » Antzerkia

- **Laburpena:** Antzerkia egin izan zuten berdura plazan. Antzerkia egin zutenak izendatzen ditu. Irakurtzea gogoko zuen eta egunkaria sortu zen artean edozer irakurtzen zuen. Egunkariak izendatzen ditu. Gaztelaniazko abesti bat abesten du (egunkari baten ingurukoa). Lehenengo atera zen aldizkaria La Estampa deiturikoa izan zen.

Transkripzioa

Egiñ zaben teatrua batzuetan berdura plazan, bai, egiñ zaben, oso politta gaiñera ordurako eh! ai zenbat barre! Bata hil zala usten dot, haura zera Kanutonekua zan, ta bestia, neskia berriz, Jesusa Arriola zan Laugariñenekua.

Gero, hasi ta gero, "Estampa", "Estampa", bat zan. Lehenengo rebistia hauraxe ezagutu naban nik, Estampa. Oiñ "Hola" ta bezela, haura marroia zan, kolorietakua zan, dana marroia, halakoxia, Estampa.

2.10. `Erreguetan´ kanta

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/040
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 01:10:37. **Bukatu:** 01:11:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Erreguetan´; abestiaren zati bat abesten du.

Transkripzioa

Esaten dizut, horrek teatruok afizionauak hasi zian eitten. Esan dizut: "Erreguetan ari nitzala...

Zure izena dadukat eta
edukiko det goguan,
besterenikan ez da sartuko
nere bizitza osuan.
Debekatutzen duten ezkerro
ezkondutzea munduan,
saiatu gaiten ahalegiñean,
alkartutzeko zeruan".

Horrek danak dakiraz nik, e! illeria ondiokan.

2.11. Otorduetako jakiak

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/047
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:26:17. **Bukatu:** 01:28:10

- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Kafesnea gosaltzen zuten eta otorduetan baserriko jakiak jaten zituzten. Txerria hiltzen zuten etxean. Orduan ez zen urtebetetzerik ospatzen.

Transkripzioa

Goizian kafesnia eh! kafesnia, nik kafesnia, orduan ere kafesnia, gero eguardixan, ta, etxeko jenerua, edo babak edo berduria, edo frutia.

Txarrixa hiltzen zanian, odolostia, gaiñian berduriakin, gero urdaixa ere, txarri haundixa izaten zan ta, urte guztirako urdaixa ere, ta holan frijidu, erdi sikatu eginda, haura ogi bittartian estu-estu eginda, holan bai, baiña haura urdaixa, egosittako urdaixa, nik ez!

2.12. Gabonetan familia bilduta

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/054
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:40:47. **Bukatu:** 01:41:50
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Gabonetan txerria hiltzen zuten etxean eta familia osoa elkartzen zen.

Transkripzioa

Gabonak, txarrixa hiltzen zan, ze poz! ze poz!, gabonetan, ene! Hutsa izaten zan gure extraordinarixua, txarrixa hiltzen zaben ta, txarrixa, arraiñik eta pentsatu ere ez, bixiguak eta orduan oiñ baiño ugarixago egongo ziran, baiña ez zaguan, txarrixa, hildako jeneruak bai, txarranka sopia ta horrek izaten ziran gure, ba, gero solomua ta konpotia, turroia ta, nik turroia, estraiñeko jan naban ba ez dakitt zenbat urtekin. Igual, hamalau urte edo gehixago edukiko nittuan, estraiñeko turroia probatu nabanian.

2.13. Aita Agirre obispoa etorri zenekoa

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/058
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:44:50. **Bukatu:** 01:47:07
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Nazionalistak aipatzen ditu. Elgoibarrera Aita Agirre obispoa joan zenekoa. Orduan abestutako kanta bat kantatzen du.

Transkripzioa

Behiñ etorri zan obispua, Txinan edo ez dakitt nun zagan, eta Elgoibarko semia, San Bartolome kalian jaixotakuak, bai San Bartolomen jaio zan, han etorri zan Elgoibarrera ta egiñ ziuen eh! Eskolara ere etorri zan.

Kantua ondiok goguan daukat nik: "bienvenido padre amado, gracias mil prelado egregio, ¡qué bueno! ya he tenido pero, dar la vida es de... nuestro corazón se alegra, nuestras manos baten palmas, y graciosas a nuestras almas cantan himnos en tu honor. A Jesus por vos pedimos os de larga y santa vida llena de dicha cumplida y ventura sin igual. El colegio está de fiesta, y por jubilosa clama, a un prelado en que os ama con cariño paternal. Bienvenido padre amado, gracias mil prelado egregio", "¡hay que cantar!, eso cantarí con 12 años".

2.14. Soldadutzan bi urte beharrean bakarra egitea tokatu zitzaion

- **Hizlaria(k)**: Odria Osoro, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-014/005
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:06:15. **Bukatu**: 00:06:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Odria, Ane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Zortea izan zuen soldadutzan justu bere kintari tokatu zitzaionean bi urtetik batera jaitsi baitzuten soldadutzako epea.

Transkripzioa

Soldadutzan e, hortxe euki gendun suertia. Gure kintia harrapau zeban bete-bete urtebeteko zerak, hartaraiño bi urte eitten zian soldau, bi urte, ta nere kintia alleau zan ta batera, urte bat atzera pasau zan.

2.15. Fraideak eskean baserririk baserri

- **Hizlaria(k)**: Odria Osoro, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-014/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:10:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Odria, Ane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Lehen errespetu handiagoa zitzaien nagusiagoei eta baita apaizei ere. Fraideak eskean joaten ziren baserririk baserri zakuak hartuta eta hamarretakoak ematen zitzaizkien baserrietan.

Transkripzioa

- Adiñekuenganako errespetua lehen zauana gaur baiño askoz haundixaua zan, ezta? Disziplina haundixaua zauan lehen, ez?

- Bueno, errespetua haundixa... Oin e, bueno, lehen abade batekin berba eitteko ere gure moduko gaztia ta billurak-eta eoten zan ta bestia ta... Gaur egunian abadia ikusten da ta, gaur ez dao sotanarik, ez dao besterik ta... parrokoa dakau ta akabo! Hori jua da e, pikutara jua da hori, e! Bueno... gure gazte denporan zauan errespetua ta... Frailliak eta asko orduan ta fraillia zakua hartu ta eskian basarririk basarri ta jua ta basarrixan ematen ziuen hori edo bestia ta gure ama zanak eta hamarretakua edo atsaldia bazan ere zeoze ematen jaten zaban... Haura jan ta haren poza ta bestia ta, beste zeoze eman zakura ta hartu zakua lepuan ta beste basarri batera ta... Azpeittittik-eta erten ta frailliak...
 - Holan ibiltzen zian, e?
 - Bai, bai, hori akordatzen [jat] hori ere...

2.16. Gau-eskolak Mokoroa baserrian

- **Hizlaria(k):** Odria Osoro, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-014/008
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:12:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Oso gutxi joan zen eskolara. Ermuaran-Sallobente auzoko Mokoroa baserriko Luis Etxanizek gau-eskolak ematen zituen negu partean baserrian bertan eta haraxe joaten zen gauza oinarrizkoak ikastera.

Transkripzioa

- Eskolara jun al zihan?
 - Gitxi, ezer ere ez.
 - Ezer ere ez?
 - Ezer ere ez.
 - Eta irakurtzen, idazten...
 - Nik eskola hamen, esateko, hamen San Lorentzo baillian basarrixa, Mokorua, ez dakit dakizun nun dauan. Ez dozu jakingo, San Lorentzo baillian...
 - Mokulu?
 - Mokoruakua, Ibarre panaderixia ezautuko dozu?
 - Ibarrene? Bai.
 - Ba, hurrungo basarrixa.
 - A bai?
 - Mokorua. Hango zer bat, mutil zahar bat eskolia zaukana zan ta harek eskolia ipintzen zaban neguan, gabeko eskolia. Ta hara juaten giñan han bueltako mutil gazte batzuk eta gabeko zera ta haretzek emandako apurrakin akabo eskolia.
 - Eta hantxe ikasi zendun irakurtzen eta idazten?
 - Tablia ere hantxe ikasi naban ta, zeoze ta, gero ahaiztu ta, jesus...
 - Izena zela zakan?
 - Izena Luis, Luis Etxaniz. Ta harek zaukan eskolia egun guztian ta illuntzixan hola basarrikuak eta gure morukuak nahi zeбенak jua. Ta ni

hamen lanian hasitta nenguan ikesten, hojalatero ikesten hasitta, eskolarik ezer ere ez ta haretzek, haretzek illuntzero etorri ta eitten naban zazpiretan etorri ta zortzi t´erdiak arte. Bi negutan ein nittun, bi negutan ein nittuan hiru hillebete, ta lau reglak haretzek moldau. Ta ya azkenerako fakturak ere neuk eitten nittuan batzuk eta abarrak ta hortitxikan ta abar ta... Eskolarik... bueno, hoixe ez ba! Haretzekin tira, zeozetan hasi nitzan ta holaxe. Gaztetan ez ziguen eskolara bialdu, ez genduen ikesi. Bialtzen ziuen Larruskaiñera, baiña dotriña edo, komuniua eitteko lain justu-justuan ta eskolia ezer ere ez, bueno... Hoixe ez ba.

2.17. Saturnina Ciaran irakaslea; Pilar ikastetxea

- **Hizlaria(k):** Maiztegi Iriarte, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-018/005
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Lehenbizi parbuluetan ibili zen eskola publikoan. Saturnina Ciaran elgoibartarra zen irakaslea eta umeei ipurdiak garbitu eta dena egiten zien. Eskola publikoan bi urte egin ostean Pilarrera joan zen. Zuzendaria Anbrosio Egia zen eta klaseak gaztelaniaz ematen zituen euskaraz ez zekien eta. Euskaraz hitz egitearren jolas-ordu gabe zigortzen zituzten. Eskolako ordutegia. Gabonetan eta abuztuan izaten zituzten oporrak.

Transkripzioa

- Ze eskolara jun ziñan?
- Lelengo juten giñan, zera, publikuetara, "públicas".
- Aita Agirre plazan, hamen, Plaza Txikitan.
- Bai, hori da, bai.
- Eta zenbat urterekin hasi ziñen?
- Han? Ba, zazpikin.
- Zazpi urterekin.
- Bai.
- Parbuluak eta ez zeozen?
- A, parbuluak bai, harek aparte.
- Nun ein zenittun parbuluak?
- Hantxe, hantxe bertan [...] Saturnina Ciaran, horrek merezi zaban omenajia. Ume guztiak, eskolia, ipurdixa garbittu ta danak eitten zittuan harek.
- Elgoibartarra zan bera?
- Elgoibartarra, bai, Saturnina Ciaran. Hil zan aspaldi. Oin haura bizi balitz, ba, eukiko zittuan, ba, larogeta hamasei bat urte.
- Eta parbuluetan zenbat urterekin hasi ziñaten?
- A, ez dakit nik zenbatekin, han pasatzen [zendun] pare bat urte eta gero pasatzen ziñan ta gero hemen...
- Goiko pisura, ezta?
- Pilar ipini ziuena [...] zeorri, ta gu Pilarrera pasau giñan.

- Pilarrera, hona, Urasandira.
 - Bai, ta durua pagauta hillian.
 - Eta zenbat urterekin pasau ziñan Pilarrera? Esan diazu zazpi urterekin hantxe...
 - Bai, ba, zortzi-beatzikin.
 - Han, pare bat urte eman zenittun hantxe.
 - Bai, bai.
 - Eta gogoratzen dozu publiketan zein zan zure maistra edo? Ze maistra izan zendun.
 - Ba Ambrosio, direktoria zan Don Ambrosio Egia.
 - Egia. Elgoibartarra zan bera?
 - Ez. Hor, e... Aretxabaleta aldekoa edo, ez dakit baiña, nik ez dakit seguru, hangua izango zan. Euskeraz ez zekixen.
 - Erderaz eitten zaban dana klasia.
 - Bai, dana, dana.
 - Orduan zuek ikasi erderaz ein zenduten?
 - Bai.
 - Pilarrian ere?
 - Bai, erderaz dana.
 - Maistrak eta irakasliak.
 - Bai, gero etorri zian, hamen hau remesa berrixau ta oin ematen dabe, baiña, lehen ez.
 - Lehen dana erderaz.
 - Dana erderaz.
 - Eta zuen artian zelan eitten zenduten?
 - Guk, e... gure kastigua zan, e... "¡sin recreo, ala, fuera!"
 - Euskera eittiagaittikan.
 - Bai, euskeraz eittiagaittik. [...] "casa, perro" ta esaten giñun ta...
 - Eta gogoratzen dozu zein zan zeneukaten ordutegixa edo, klasera juteko?
 - Zerera juteko?
 - Bai.
 - Ba goizian beatzietan eta gero, urtetzen giñan hamabixetan.
 - Ta arratsalde?
 - Arratsaldian, ba, ze, lauretatik seiretara edo.
 - Eta oporrak egoten zian?
 - Bai.
 - Ez gaur egun modukuak, ezta?
 - Ez! Oin dia, oin dia, oin dia... "supervacaciones".
 - Zelakuak zian? Zenbat egoten zan, oporrak? Holan, Gabonetan edo zeoze?
 - Bai, bai, Gabonetan hamabost egun ta bestian hillebete edo.
 - Hillabete abuztuan.
 - Bai, agostuan.
 - Eta Aste Santuan?
 - Ba Aste Santuan egongo zan hola, honek e... Nuestra Señora del Pilar, ta danak zela zian relijiosuak, ba astebete bai, behintzat, eitten genduan.

2.18. Irakaslea kanpotarra zen eta gaztelaniaz ikasten zuten Idiazabal

- **Hizlaria(k)**: Irizar Goiburu, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-019/004
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:09:58

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Idiazabalen bertan ibili zen eskolan zazpi urtetik 12 urte ingurura arte, baina askotan ezin izaten zen eskolara joan baserrian lana egoten zelako. Ganaduekin itulan ibiltzen zen sarri. Irakaslea, doña Juana, Artajonakoa zen. Dena gaztelaniaz ikasten zuten eta elizan ere gaztelaniaz egiten omen zen. Gauza oinarritzkoak ikasteaz gain, josten (bainikak egiten) ondo ikasi zuten eskolan.

Transkripzioa

- Zenbat urterekin hasi zifan eskolan eta zenbat urtera arte? Idiazabalen bertan egongo zifan, ezta?
- Bai, bai. Hamabi bat urte arte ibiliko nitzen. Baiña askotan edo soroon lan ein behar zala edo, badakizu, ganauakin eitten zan orduan lana ta ganauan aurretikan, "ittulia" esaten zikon. Bat ibiltzen zan, ezta? irikitzen bezela. Eta orduan soron lan ein biher zala ta askotan eskolara jun be igual gelditzen giñen.
- Eta zenbat urterekin hasi zifan eskolan?
- Ba ni ez naiz akordatzen zenbat urtekin hasiko nitzen, baiña orduan, e... zazpin bat urtekin edo hola.
- Parbulorik ez zauan, ez?
- Ordun ez zauan parbulorikan, dana iguala zan.
- Zazpi urtetikan hamabi urtera arte.
- Bai, hamabi urte arte, beti-beti jun ezta hori, e!
- Eskola berdiñian beti?
- Bai, beti. Maistra bat genduken...
- Zela zakan izena maestrak?
- Doña Juana. Artajonakua zan.
- Artajonakua. Euskalduna, ordun?
- Ez, ez, kastellania. Artajona Riojan edo Naparrua hurrian edo...
- A, bai, bai, bai. Naparroa, Naparroa [...].
- Naparrua hurrien-edo, baiña bueno, euskerarikan, ordun eskolan ez zan euskeraz ezer esaten.
- Naparra izanda, baiña...
- Dana erderaz.
- Dana erderaz eitten zenduten Idiazabalen, e?
- Bai. Euskeraz ezta pentsau ere!
- Eta liburuak eta dana erderaz?
- Dana erderaz.
- Dana erderaz.
- Dotriña ta dana erderaz. Elizan ere, gero komuniua ein bihar gendunian ta, elizan ikasten... dotriña. Eta, nik uste dot, elizan´e ez dakit ez genduan erderaz eitten.
- Arrarua baiña, Idiazabal hain herri euskalduna izanda-ta.
- Bai, baiña ordun, e... ez dakit, ba, nik...
- Ezberdiña zan, ez?
- Bai. Beno, Franco gerogo etorri zan, baiña... Baiña eskolan. behintzet, dana erderaz.
- Dana erderaz eitten zan?
- Bai, dana erderaz. Ta eskolan ze ikasten genduan ba guk orduan? Ba, "sumar" ikasi genduan.

- Irakurtzen pixkat.

- Bai, irakurtzen ta ostien, bainikia eitten, bainiak eitten. Holan maistria gehixao okupatze] zan. Gu bordatzen edo bainiak eitten, hori ondo ikasi genduan. Bainiak eitten.

- Bai, e... etxeko lanak eta holakuak, ez?

- Etxekuak ez, josteko.

- Bai.

- Bainiak, ez dakizu zer dan bainiak? Harixak etara ta gero [gora hartu] ta bainiak eitten.

- Holakuetan, ez?

- Bai.

- Oso ondo. Eta uniformerik bai?

- Ez!

- Ezta pentsau ere, ezta?

- Uniformia? Bueno, bueno... ezta pentsau ere ez!

- Eta adin desberdiñetako ikasliak zeundeten klase berdiñian?

- Bai.

- Bai, danak batera, ezta?

- Danak batera.

- Herriko danak ezagutuko ziñaten, ordun.

- Bai, bai.

- Ta neskak ta mutillak batera.

- Orduan, gaiñera, Idiazabal oso txikixa zan. Orduan nik ez dakit zenbat eukiko zittuan, e? Ze? Milla habitanteik ez zittun eukiko. Oain ya asko hasitta dao, baiña... oso-oso herri txikixa zan. Keba, bostehun baldin bazeukazen... Baserrixa zan, kalia ez zeon ezer ere.

- Neskak eta mutillak danak batera, ezta?

- Bai, danak batera.

2.19. Soldadutzako kontuak (Burgosen)

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Osoro, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Ibon
- **Erref**: EGB-021/014
- **Iraupena**: 0:04:54. **Hasi**: 00:20:26. **Bukatu**: 00:25:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Odria, Ane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Berak soldadutza Burgosen egin zuen. Ordurako gerrarik ez zegoen, baina militarrek gogorak ziren. Infanterian egon zen. Militar asko zegoen Burgosen eta kalera irtenez gero denbora guztian nagusiagoak agurtzen ibili behar izaten ziren. Soldadutzako kontuak; zer egiten zuten. "Zafarrantxoa"; baldosak garbitzeko modua.

Transkripzioa

- Zu soldadutzan egon zinan?

- Ni bai.

- Nun egon ziñan?

- Burgosen.

- Burgosen? Eta?

- Bueno, orduan ere, gerrarik ez baiña nahikua gerra bai.

- Bai...

- Sarjentuakin ta, batakin ta bestiakin, bai.

- Askok esaten dabe soldautzan ondo pasau zabela ta ez dakit zer...

- Bueno, bai, gu gure [...] gerrarik ez behintzat, ya bakia eon zan. Gu eon giñanian pakia eon zuan. Tirorik eta ez zuan eon ta... Baiña instrukziuetan ta militarra Burgos [...] oin ez baiña oin fabrikaziua ta bada Burgosen, baiña orduan ez, e. Orduan jauan han militarra. "Capitán general de la sexta región" Burgosen jauan. Geuk eitten giñuan infanterixan, ni infanterixakua nitzuan ta infanterixiak eitten jauan [...] hari, bijilantzia eitten jakuan hari bueltan, gau ta egun. Han etortzen zuan kapitan jenerala kalian [izanda, pasiaua emanda], hari saludau ta aurrian jo batera ta jo bestera, bertan aurrian. Bai. Ta jentia, han jentia Burgosen jauan asko, eta militarra, e! Kalera ertetzerakuan askotan hobe zuan eskuak burura lotuta jun beti hortan ibili bihar zuan bestela, saludua eitten. Egixa da hori, e! Kalera paseora erten eta...

- Ta beti saludau bihar zendun superiorra?

- Jakiña, haundixa, klaro... Kabua ez baiña, hasi kabo primerua, sarjentua, tenientia, kapitan jenerala, brigadia... bueno! Ta paseo lekua zauan haundixa ta han ibiltzen zan soldaua ta dana ta han ikusten zan, ba, galoiak eta "aiba diez!" saludau in bihar. Ta... tenientia edo bat edo sarjento bat igual pentsatzen bazan, saludatzen ez bazan, hurrengo egunian igual e, han gu ezautu eitten ginttuan infanterixakuak giñala ta derrepente [billatzen...] ez bazan saludatzen ta kastigua eguan. Bai, bai, bai, kastigua eguan.

- Ta, han ze eitten zenduten soldadutzan?

- Ba, goizian jaiki seiretarako igual. Seiretarako jaiki ta ohia ein, bakutxak beria in bihar eta gero, e, ba, pixkat kuartela garbitzen edo lagundu. Eskobiakin [betik] pasau bihar izeten zeban; zortzi batek hartu bihar eskobak eta ni sarri —beherengo egon giñan ta goixan bi, beste planta bi zaozen ta, nik e— eskobia hartzen kabua ikusten nabanian, barrako bentanatikan "taka!" kalera, kumun aldera salto eitten naban ta ya garbittutako inguruan sart. Orduantxe atetik sartu ta... Azkenerako badakizu ze izen ipini zien? "Despistao"! Danak e, soldauak eta ikusitta [...] zela juten nitzan ta bestiak esaten jauan "E! Etxanizi! Eman Etxanizi, Etxanizi eman, hori beti depistau eitten dok eta". Kabua... izaten zuan... kabo euskaldunak, kastellanua baldin bazan edo pixkat harrua bazan, pixkat gaiztua, baiña euskalduna baldin bazan segittuan dominatzen najittuan, ño... zigarro bat edo eman eta ya kitto! Baiña, baiña... ostras, ni azkenerako "Despistao". Ta barixakuetan "Zaparrantxua" esaten jakuan: kuartela... bota ura ta zerrautsa bota eta manta haundi batzuek ipintzen jaittuen, lau batek tiretu, beste bat sartu barruan eta mantiakin behai, zerai, baldosiai brillua ataratzen giñuan.

- Zela deitzen ziuen horri, Zaparrantxua?

- Zaparrantxua esaten jauen, Zaparrantxua: lelengoti ura bota eta gero zerriña...

- Bai...

- Eta gero e, holako manta haundi baten lau lagunek tiretu eta bat barruen sartu, han barruan. Jo-ta gero pixuakin kriston brillua ertetzen jauan zerai, baldosiari...

- Bai, baiña barruan zauana...

- Ez, barruan zauana libre ibiltzen juan, lau puntetatik helduta...

- A! Nik pentsatzen naban batu mantan ta...

- Eeez! Tiraka baiño hobe. Azkenian igual hau, e!

- Bai... gora?

- Azkenian igual hori azkar ez bazan ibiltzen hartu ta igual gora jaurti, hori bai. Baiña barruan ibiltzeko beti billatzen zaben han tiraka ibiltzia izaten zuan pixkat... azkenerako nekatzen zuan baiña. Batzuek atzetik eskobiakin,

batzuk mantakin jo-ta tiretu [horrekin] ibili ta beste batzuk atzetikan eskobiakin pasau. Gero kriston brillua ertetzen jakuan. Joe, baldosiai ertetzen jakuan brillo bat...! Ta gero handik puxka batera berriz ere bota igual beste zerrina eta, bueno, kanbixau —badakik, hainbeste soldau egoten zuan, igual berrehun edo gehixao ta kanbixau—, beste batzuek tiraka ta beste batzuk barrura ta beste batzuk jarritta eon ta bokadillua jan igual ta... zaukanak.

- Bai...

- Bai, ta [astia normala] hoixe, jaiki goizian ta "tak" kafetesnia hartu. Erten, bertan barruan, [barruko geletan] kafetesnia hartu eta gero zeoze instrukziora patixora. Ta teorikia.

- Teorikia?

- Bai, armiana.

2.20. Don Erasmo irakaslearekin ikasitakoa

- **Hizlaria(k):** Artetxe Egia, Pedro Joxe; Zendoia Oregi, Iñaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iriondo, Irune
- **Erref:** EGB-024/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Pedrok don Erasmo irakaslearekin ikasi zuen. Aurretik beste irakasle batekin ibili zen, baina behin jo egin zuen eta ez zen gehiago joan. Gazterik utzi zion eskolari gurasoak goiz hil zitzaizkion eta.

Transkripzioa

- Eskolara-edo jun ziñaten?

- P: Ni eskolan ibili nitzan ibili nitzan denporan don Erasmo [Urbizu]. Kolejixo bat zauanhortxe Armueta karnizerixia dauan atzian.

- A bai, bai, bai.

- P: Haretzekin ibili nitzan.

- I: Don Erasmokin?

- P: Don Erasmokin ibili nitzan ni.

- I: Don Erasmo, don Erasmo partikularra zan don Erasmo.

- P: Ni akordatzen naiz maixu kojo bat zauan hamen, Don Mariano edo.

Denpora gitxi ein naban harekin. Eman zian baten matrailleko bat kristona ta gehixao joan ez.

- Gehixao joan ere ez? Ondo ein zenduan!

- P: Ta gero don Erasmoana, haretzekin ibili nitzan, ibili nitzan [denporan].

Ta gazterikan eskoliai laga nion. Ama gazterik hil zan, aitta ere bai.

- Ta lanian?

- P: Etxian, soldautzara arte.

2.21. Soldaduak izan zituzten baserrian

- **Hizlaria(k):** Arakistain, Teodora

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Ibon
- **Erref**: EGB-028/009
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:15:54. **Bukatu**: 00:18:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: 11 senide egon ziren baserrian gerra denboran, Eibarkoak ere bertara etorri zitzaizkien eta. Gero 18 soldadu ere izan zituzten, beren zaldi eta guzti. Nongoak ziren soldaduak. Horren inguruko kontuak. Soldadu bati buruzko anekdota. Bederatzi hilabete egin ostean, Zumarragara joan ziren.

Transkripzioa

- Oseake gerra garaixan gaizki pasau zenduten.
 - Gaizki, pentsaizu, gaizki kontua, hamaika lagun egon giñan gerratian hemen, e! Eibarkuak.
 - Eibarkuak?
 - [Imanol ta Danel].
 - Hemen egon zian [harek]?
 - Bai, ba, bederatzi hillebetian, San Lorentzon ibili zian eskolan. Ta gero hemen egon zian hillabete ta erdixan soldauak, hemezortzi. Zaldi ta guzti. Ta gero, juaten zien e... zerbitzera [kanbixua] erutera, muniziuera erutera Karakatera hamendikan. Eta hemen egon zian lau eta aldekkuan reketiak bi eta gurian lau soldau lo eitten ta bestiak zerian, San Lorentzon. Eta San Lorentzon batzuek ta bestiak hemen, gure sapaixan. Hortxe, egunero. Juten zian txandan zaldixekin jana erutera hiru [zaldikada]. Gero hemen jarduten eben jokuan-ta. [...] bat zuan nafarra eta bestia, bi napar, baiña bat, zapatak zaukazen zatittuta, bai, zapatak e... apurtu samartuta zaukezen. Eta ze ein zaban berak? Brigadiak eskatu ein ziozen zapatak eta ez [...] lagunak. Eta badakizu ze ein zaban? Hartu zelan, e... [trakederan] aizkoriakin zatitzeko, hola ebai berixak ematjarren ta lotu zerakin, irabaliakin han jun zan ta bate eman ez ta zapatak ixa galduan zapata zaharrekin etxera. Ze barre orduan! Guk harekin barre...! Baiña hemen jokuan jardutzen zebeu lau edo bostek, bai. Ta gurian [...] baiña hola zeeze arrautzia edo hola jaten zebeu, ta holan pasatzen zebeu. Eta San Lorentzon [...] juten zian barreñoi handi birekin, hola, balda birekin kafietesnia ekartzera. "Tupi" esaten ziuere eurek, beltz-beltza etortzen zan ta. Eske han zuan e... sukaldia ta beti brigadia, koziña, sukaldian-ta holaxe. Haura juten zan baldiekin ta ekarri eta batzuek, dirua zaukenak, ba, esnia guretik hartu ta [...] zurittu eitten zebeu, [...] beste batzuk dauan moduan. Bizimodua. Hemen hillebete ta erdi ein zittuen ta gero Zumarragara jun zien, baiña penaz jun zian, ohittuta zeuden-ta... [...].

2.22. Euskaraz hitz egitearren, arazoak soldadutzan

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Iriondo, Irune
- **Erref**: EGB-035/005
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:05:25. **Bukatu**: 00:06:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Euskaraz ari zirelako, ia beste batailoi batekoak akabatu egin zituen. Komandanteak bakoitza bere lekuan jartzeko agindua eman zuelako salbatu ziren.

Transkripzioa

-Guenaxeberriko hau Odria, Odria... Sigman ibilittako haura.
-Bai, ez dakit zein dan baiña...
-Hauraxe [nebala lagun], gu bagindoiazen gure gonbestazian (konbertsazioan) ta euskeraz, ta erten diue, batalloia. Harek e... derrepente garbittuko giñuazen e... Komandante batek goittik beste batalloi [bati] diarra: "Ia, bakutza bere lekuetara!", danak erretiratzen zian e! [Altutik] gero, e! Orduantxe salbau! Bestela... Euskeraz eitten gendualako.
-Amorrua euskaldunei harek! Ta erderia ikesi in bihar, ezta?
-Ta guk ze, ze, ze ikesiko genduan ba! Ze ikesiko genduan ba? Eskolarik bako pertsonia...
-Bai, baiña, nahi ta nahi ez erderia pixkat obligauta... obligauta moduan, ez?
-Bai. baiña entenditzen zaben harek nahi zeбенak e! Bai, entenditzen zeбен. Baiña, hauraxe dana bakarrik eittia nahi, erderia.

2.23. Soldadutzan sukaldeko laguntzaile

- **Hizlaria(k):** Lizarralde , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iriondo, Irune
- **Erref:** EGB-035/006
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:06:55. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzan kamillero lanak egiten zituzten eta sukaldean laguntzen ere ibiltzen ziren: egurretara joan, egurra txikitu, patatak zuritu, sua piztu... Janari aldetik ez zuten arazorik.

Transkripzioa

-Guk e... kamillero eitten genduan.
-Nun?
-Kamillero. Ta koziñan, frentiak [galtzen zabanian] kozinan biharra ein. Ta jan ta edan ondo eitten genduan guk, ondo. Geure kapitanak esanda: "Zuek nahi dozuena jan". "Ein lana holaxen" esaten zigun guri harek.
-Ya, baiña orduan dana han barruan eitten zenduen, ez? Batalloian edo...
-Bai.
-Kanpora ez zenduen ertetzen, herrira edo?
-Egurretara ta, badakizu, koziñan biharra eitteko egurrak ekarri ta, pitzatu ta ipini ta, sua ein ta, patatak zurittu ta...

2.24. Pilarreko ikastetxean ikasitakoak

- **Hizlaria(k):** Txurruka Arozena, Dionisio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-036/011
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:10:24. **Bukatu:** 00:11:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** "Kolegixuan" (Pilarreko ikastetxean) ikasi zuen.
Irakasleak: don Seberiano, don Anbrosio... Matematika ariketak arbelean egiten zituzten eta besteek esaten zuten ondo edo gaizki zeuden. Diktaketak ere egiten zituzten. Irakasleak erdaldunak izan arren euren artean euskaraz egiten zuten, erdaraz gutxi zekiten eta.

Transkripzioa

- Zu akordatzen zera eskolan-ta ze ematen zenduten, ze ikasten zenduten?
- Bueno, bai, gu eskolan ibili giñan e... kolegixuan. Kolegixuan geunkazen Seberiano bat, don Anbrosio, azkeneko kursuan ematen zabana. Ta guk eskolan orduan eitten gendun, ba, pizarra bat egoten zan eta ematen ziguzen, ba, lantzian batei, ba, Matematikak, ipiñi han ta aber zelan ataratzen genduzen ta bestiak e... igual e... atzian begira zaonak esaten zaben: "Ez, hola ez da, hola ez da, ez da hola" eta eitten...
- Ze eitten zenduten kanpora urten ta eskribittu zuek eta...?
- Bai, bestiek ikusi handikan. Ta gero, ba, leitu, kopixia, berak liburutikan maixuak esaten zigun ta, ba, kopiau guk ta gero berak, ba, markau eitten zigun zein zaon ondo einda. "H", guk e... "h"-kin ein biharrekua "h"-ik be igual eitten genduan ta guk ez dakau, ez dakau e... hortan e... zerik batere ta... Denboralia ibili nitzan ni eskolan, baiña gero eskolatikan erten ein bihar izan genduan ta gero...
- Erderaz eitten zenduten orduan eskolan?
- Ez. Orduan erdaldunak zian eurak, baiña guk gitxi eitten genduan, e! Geuk alkarrekin euskeraz [eitten genduan].
- Ta lagatzen zizuen eitten?
- Bai, bai, lagatzen ziguen orduan, orduan lagatzen ziguen. Berba batzuk, disparatiak esanez kontestau-ta eitten genduzen, baiña ez genkixen artian ta denbora gitxi ta... Oin e... oin bai, oin, oingo gaztiak erderaz ta euskeraz, bixetara eitten dabe ya, bixetara erakusten diue. Baiña guk ez genduan izan denborarikan ere. Ta gero e... hor zihar jun giñanian, akabo! Gosia pasau hor zihar, dirurik ez genduan eukitzen, eta...
- Garai txarrak zian orduan.
- Bai, bai. Guk e... urte txarrak, urte txarretan jaixotako umiak gera gu.
- Bai, gerria...

2.25. Soldadutzako ibilerak: Bilbo, Burgos, Gasteiz, Deba

- **Hizlaria(k):** Txurruka Arozena, Dionisio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-036/013
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:13:02. **Bukatu:** 00:15:24

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Bilbon egon zenean soldadutzan tailer batean egon ziren lanean. Handik trenez etortzen ziren etxera. Baina bigarren egonaldian Burgosen egon ziren eta handik ezin izaten ziren etxeratu. Basueta baserriko Jose Garitagoitia eta biek bi egunetarako ihes egin zuten etxera. Itzultzean denak beste norabait destinatuta zeudela ikustean beldurtu egin ziren. Baina azkenen biak Gasteizera bidali zituzten. Gasteizen elgoibartar baten semea izan zuten teniente. Zozketa bat egin zen jendea Castro Urdialesera edo Debara bidaltzeko eta beraiei Debara tokatu zitzaien.

Transkripzioa

- Ta soldautzara-ta juten ziñanian, zela, biak-ta zela eitten zendun?
- Ba, biak guk azkenengo aldiz e... hamen, Bilbon egon giñanian, Bilbon, trenez etorten giñan gu, trenian etorten giñan.
- Trenian.
- Bai. Bilbon sartu giñanian gu, lanian sartu giñan taller baten, e... Universidad de Deusto, Salesianos. Oin kanbixauta dao total. Eta han eitten genduan hiru errelebotan bihera. Eta hiru errelebotan gabaz tokatzen jakunian, goizian lauretan ertetzen genduan. Orduan juten giñan e... trena hartu eta hona etorri, eta gero, astelehen gabian tokatzen zitzakun berriz eta ondo, ba, bueltia ein ta ondo. Oin, bigarren junaldixan, ba, gu Burgosen egon giñan, Burgosetik aurrera eta handikan e... ezin etorri izeten giñan, urruti ta...
- Ta hogeta bi hillabetian bertan egon ziñan?
- Hogeta bi hillabetian; gero, handikan guk hanka ein genduan Burgostik, bi lagunek, nik eta Basuetakuak, Basuetako Jose, Jose Garitagoitia. Bixok. Beste lagun bi laga, geure lagunak, eta etxera hanka ein genduan febreruan. Ta hamen pasau bi egun ta jun giñan atzera, Burgostikan, ba oiñez bastante bide zaon ta beste lagunak paketiak eta horrek hartu ta eruteko. Ta aillau giñanian, ba, esan ziguen, ba, espediziak danak destinauta zaozela. Ta gu sustau ein giñan orduan, "Lehen hainbeste denbora einda ta oin hamen berriz zeoze pasau bihar jaku" ta "Ba zuenik ez dakiu ezer ere". Lantzian berrogeta hamar botatzen zittuen e... eruten zittuen regimentuetara. Eta gero, sobrau zianak, eurek pentsautako lekura bota. Eta hola hasi zan listia ta nere listia aillegau zan, "Dionisio Churruca, Flandes, Infantería, Flandes, Vitoria" tokau zaten. Ta gero bestia, Basueta ere estututa haura ere, eta hari "Artillería cuarenta y seis, Vitoria" haura ere.
- Bueno, behintzat...!
- Bixok, bixok, bai. Bixok. Ta gero, guk euki genduan ba elgoibartar bat Julian "karterua" esaten zitzakon lehen, zuek ez dakit, ez dozue ezautzen. Ta guk euki genduan haren semia teniente Vitorixan. Ta gero sorteo bat egon zan, bi batailloe, bat Castro Urdiales ta bestia hona, Debara. Ta guri Debara tokau zakun.
- Bueno, behintzat.
- Bai, bai. Hurrien, hurrien.
- Hurrian, zeoze.
- Hor basarririk basarri ibiltzen giñan, garixa ebai ta bata ta bestia ta...
- Etxian bertan.
- Bai, etxian bertan.
- Ta Vitorixa ez dao urruti, oin, baiña lehen, lehen...

- Bai, lehen e... Ta Burgos e... bastante baxia ta... Bai, gazte-denboran, ba, etsitta ya, ez giñala etorriko gehixao pentsauta, hainbeste urtian.

2.26. Eskolan isekak, erdaraz ez jakitearren

- **Hizlaria(k):** Soraluze, Margari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iriondo, Irune
- **Erref:** EGB-037/001
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** 1933an jaiotakoa da Margari. Erdaraz ikasteak garrantzia zuen lehenago. Beste umeek burla egiten zieten baserritarrak zirelako eta erdaraz ez zekitelako eta irakasleak ere errieta egiten zien zerbait galdetuz gero. Eskola publikoan ibili zen.

Transkripzioa

-Erdaraz ikasi ezker, eske eurak zela ez zakixen ez erderaz ta ez eskolan, ta eurak erderaripe gelditzen zian ba, eurentzako ez zan mundua e, euskeriakin bakarrik ez zan, eurentzako zan e, erderia jakitzia ere eskolia zala pentsatzen zaben usten dot nik.

-Karo, ta gaiñera hain indarrez sartu zan erderia hamen...

-Karo, ni "en el año treinta y tres" jaixotakua naiz e, "el año treinta y tres", oin daukaaz hiruroeta sei urte. Eta harentzako inportantia e hoixe, erderaz ikestia. Kalera bialdu ninduan beratzi urtekin hamaika arte eskolan, plaza txikixan, publiketan. Karo euskalduna ni ta beste azkoittiko bat, Miren edo, gero Upaira ezkondu zan, edade batekuak. Ta gu gaiñera hartu giñuazen orduan basarrikuak giñan ta hartu giñuazen e "Boronas! No sabéis nada!" Eta usten dot harrika ere eitten zigula kaleko umiak e, kaleko umiak e! Usten dot harrika ere eitten zigula. Tamaiña haretantxe, e! Egon e giñan [...].

-Bai, bai [...].

-Bai, bai. Halaxe eon giñan, burla...! Eta... bueno. Eta, klaro, guk maistriak zeoze esaten bazaban guk ez gendun ulertzen, ez gendun entenditzen... Guk ez gendun entenditzen haura. Eta preguntau ein biheko giñon ba aldamenekuari "Ze da hori?" e, preguntau ein biheko giñon, ta hareatik ere maistriak errita itten zizun. Berak ez zaban entenditzen guk ze esaten giñon... Klaro, harek ez zaban entenditzen gure euskaria... Ta guk ere ez beria! E? Eta aber, zela entendiuko giñan.

2.27. Kaleko umeek burla egiten zieten eskolan

- **Hizlaria(k):** Soraluze, Margari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iriondo, Irune
- **Erref:** EGB-037/003
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:04:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** San Lorentzo auzoko eskolan ibili zen 9 urtera arte, baina askotan ezin izaten zen eskolara joan, etxean lanak izaten zituztelako. Gero kalera joan zen plaza txikiko eskola publikora. Senar-emazte batzuen etxean egoten zen. Kaleko umeek burla egiten zieten, "boronas" deitzen zieten. Azalpenak gaztelaniaz izaten ziren eskolan eta ez zuten ezer ulertzen.

Transkripzioa

-Aber guria, zu, beratzi urtekin. San Lorentzon ibili eskolan ta ez nitzan ixa batere juten, gaiñera; egualdi txarra zauala, ardixak zainttu biher ziela...

-Klaro, lana ta...

-Ardixak zainttu biher ziela, egualdi txarra zauala, aittari lagundu bihar niola ganau... Eske nik ez dakitt ze pasatzen zan. Ta geo kalera. Matrimonio bat bazauan hor Plaentziakua Paka edo, beti elizan —Benito pintxia edo— beti elizan zauren matrimonio bat. Ta harek ekarri nindduen haren etxera. Ta gero, ba, erderaz eta eskolan ikestera bi urtian plaza txikixan. Ze? Nik ez naban ezer ikesi. Zela ikesiko naban, ba? Ezer ez naban ulertzen eta... bueno, bueno, bueno, bueno. Gero, kaleume guztiak hartu giñuezen aurrian burlaz. Zu! Nik, harek... horrek danok egixak dia, e! Ume danak burlaz hartu giñuezen, "Boronas, no se qué" ta ze gogokin jungo giñan ba gu? Jun nahi ezta. Ta gero ikestia nahi ere ez, jakin ere ez, ta ikestia nahi ere ez. Esaten dau, e, ni eon nintzanian, hil zan Paka, San Bartolome kalian bizi zian ta harek esaten zaban gero: "Paka, eskillaria eskobatzia nahi dozu? —hola, ikesten edo, leziua zeoze ikesten ta— Nahi dozu eskillaria eskobatzia? Nahi dozu ontzixak sikatzia?" Ta beti zeoze preguntezka lana ingo niola. Osea, ez genkixen eskolan eta... gero haura tratua eskolan bertan, berriz...! Haura tratua, egixa esanda, porke guk ez gendun esplikazio bat entenditzen, guk ez genduan entenditzen esplikazio bat! Ta gure eskolia hoixe izan zan ta erderia eta zera ere bai. Ta ezebez ikesi. Ze, ze... Nik ez dakit, milagro z bizi gara, e! Esaten dot: lana ein ta bizi. Baiña ostian gaurko gaztiak daken kulturria o daken... Nik problema hori beti euki dot. Ba... Baiña, ze ingo dou, ba? Zu, holaxe jaixo giñan, holaxe hazi gara eta, ba, hamentxe sozidadian bizi gara.

2.28. Ezkerra izan arren, eskumarekin egin behar dena eskolan

- **Hizlaria(k):** Isasti Irusta, Pako; Lariz Muguruza, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-038/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:18. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- **Laburpena:** Irakasleak kanabera gogor batekin jotzen zituen. Pedro ezkerren zen, baina ez zioten uzten ezer ezkerrekin egiten eta ikasi egin zuen eskumarekin gauzak egiten.

Transkripzioa

-Joe, eskola hartara bildurtuta jungo ziñaten danak, ez?
 -Holakotxe kañabera gogorra izaten da, ba? Halakotxia; danga! bizkarrian behera, ta ni...
 -Hori okerrak ziñatelako izango zan...
 -Keba! Bera okerra! Ni ezkertixa naiz, izetetz.
 -Eta lagatzen zizuen?
 -Laga? Hasi iñoiz ta etorri atzekaldetik ta ddianga! atzaparretan ta, hola ta gero bestiakin...
 - Hizlaria2: eskubixakin.
 - Nik oin jan ta eskribitzen eskumiakin haintxe ikesitta.
 -Eta oin ya...
 -Oin ya lagatzen debe.
 -Bai, baiña oin ya zu eskubixakin ingo dozu dana, ez? Ohittuta ya...
 -Lehen? Eskribittu ta jaten. [...] ezkerakin. Ta pelotan ez gea oin ibiltzen, baiña ibili bihar badok, hau nausi!
 -Bai, bai. Jende asko hola, e!
 -Lehen ez zaben ametitzen [...] ba! Igual hola zerian hasi ta atzekaldetik etorri igual ta danga! atzaparretakua galanta kañaberiakin ta kendu eskua atzera ta benga bestiakin.

2.29. Doktrina ondo ikasi behar jaunartzea egiteko

- **Hizlaria(k):** Isasti Irusta, Pako; Lariz Muguruza, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-038/005
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:06:18. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Euskara » Euskararen egoera
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
- **Laburpena:** Eskolan gauza oinarrikoak ikasten zituzten. Doktrina ondo ikasi behar izaten zen jaunartzea egiteko. Bi komunio egiten ziren, handia eta txikia. Errege egunean egiten zieten doktrinako azterketa. Euskaraz ikasten zuten doktrina.

Transkripzioa

-Ta ze ikasten zenduten eskolan?
 -Guk ba, aeio ta multiplikatzaileak, dibiditzaileak ta holakotxe batzuk ta gero diktado esaten jakona... Ta geo beste zer bat itten zigun guri, batek irakurri bi hoja edo ta harek leitzen zaban zera buruz hauraxe ahal dan onduen eitten. Bakoitzak beria e, aparte. Oin e, birek alkarri kopiatzen bazien, e...
 -Neri basarrietan esaten zien dotriña eitten zabela asko...
 -Dotriña bai, dotriña kumuniua. Kumuniua eitteko ta...
 -Dotriña asko eskatzen zeben, gaur e, gaur [...] baiña orduan dotriña asko.
 -Dotriña orduan zian gairerik txikixa ta haundixa. Bat txikixa errezo

gitxiokin ta, haura ikasi ta gero bestia haundixa pregunta haundixauak eta gauza haundixaokuak. Kumuniua eitteko derrigor ikasi bihar zan, esamiñau, bestela...

-Ta esamiña eukitzen zenduten?

-Bai. Elgoibartikan eta ez dakitt nundik danak kanpokuak etortzen zian.

-Ta euskeraz ala erderaz eitten zenduten?

- Dotriñia euskeraz.

-Euskeraz, bai.

-Ostiango eskolak...

-Eskolia erderaz.

-Eskolako lanak erderaz.

-Ez zebeñ lagatzen euskeraz eitten eskolan?

-Ez. Berba erdi ez gendun guk euskeraz eitten. Eskerrak hari oiñ erderaz ondo itten deu!

-Bueno, behintzat zeoze ikasi badozue...

-Bai, bai. Hori bai.

-Orduan dotriñia egoten zanian, beste gauza bat ona zaon. Hamen hotel asko egon zian ta Hotel Larrañagara etortzen zan ta Doña Ines ez dakit Bartzelonakua o nungua zan, harek erregalo mordua ekartzen zittun. Hori organizatzen zebeñ soltera batzuk zaozen hamen ta harei ematen ziuena ta. Erregen egunian egoten zan dotriñian esamiña e, dotriñiana. Ta onduen ataratzen zabanak gehixen... bueno aurren ataratzen zabanak jertse edarra, esportak, alkondaria ta erregaluak kategorixakuak.

-Bueno, behintzat ilusua bazakazuen zeozetarako...

-Honbree! Hoixe!

2.30. Gerragatik eskola urte bat galdu

- **Hizlaria(k):** Ajuria Garate, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-042/004
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:06:13. **Bukatu:** 00:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublikak
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Sei urtera arte egon zen eskolaurrean. 14 urtera arte irauten zuen orduan eskolak, baina gerragatik ikasturte bat galdu zuenez, 15 urtera arte ibili zen eskolan.

Transkripzioa

- Zenbat urte eskola aurrian?

- Seirekin uste dot ateratzen giñala. Bai.

- Gero ya haundixen eskolara?

- Gero goixan zerian, hor oin Padre Agirre da baiña behian zeuden parbuluak eta goixan lelengo mailla edo, hamalau urte arte. Gero guk galdu gendun, hamahirutik hamalaura galdu gendun gerriagatik urtebete, kurso bat. Eta gero utzi ziguten guri hamabost urte arte. Urte haura galdu gendulako gu egon giñan hamabost urte arte.

- Eta orduan zuk justo hamabi urte gerria hasi zanian.

- Bai, hamabi urte.

2.31. Elgoibarko lehen ikastola

- **Hizlaria(k):** Ajuria Garate, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-042/025
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:03:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Aurreko lana galdu zuenean, ikastola berrirako andereño lana eskaini zioten. Donostiara joan zen Karmele Esnalekin lan berrirako prestatzera. Ikastola ez zen legezkoa, baina 1962. urtean 29 umerekin hasi zen Itziar. Hurrengo urtean berrogei umetik gora egon ziren, bi andereñorekin.

Transkripzioa

- "Baina beste kargu bat daukat zuretzako: andereño, ikastola zabaldu bihar dogu", esan zian. "Ene -esan nion-, josten ere in bihar dot ba. Anaixari josten laguntzen edo ta". "Anaixa ondo dao laguntzia baiña lenengo zeu zara ere, lenengo zeu zara" "Bueno, esango dioet etxian". Aittak entzun zebanian "Bueno, gustatzen bajatzu, bai". Haura euskeria ba. Eta sekula santa neri anaixak sekula ez zian berba bat erderaz ein. Sekula ere ez. Igual euren andriai igual erderaz baiña neri: "Itziar, ekarrin hori"; baiña mutil bezela, hiru mutillen arteko neskia nintzan eta mutil bezela. "Hi, ekarrik hona!" Ba mutil bezela. Eta esaten dizut, gero ba holaxe, ikastola zabaldu bihar dogu ta. Aittak esan zaban ba "Bai, bai, zuk nahi badozu bai".

-Eta hori zan?

-Hori zan ba...

-Hirurogeita bixan?

-Bai. Orduantxe jun nitzan Donostiara, Karmele Esnalegana eraman ninduen pixkat preparaziua eitteko, ez neukan titulurik eta ezer ere ta baiña, tira, hantxe edarki moldatu giñan, ta neu hasi nitzan hogeta bederatzi umekin.

-Lenengo ikastolan, ezta?

-Bai, lenengo hasieria.

-Eta ikastolia legala zan orduan?

-Ez, keba, keba! Eneee!, esaten dot nik: neu ausarta kargua hartu nebalako, baiña ausarta gurasuak, nere pekura laga zebe ba hogeta beratzi ume. Benetako abertzaliak.

-Beratzi umekin hasi ziñan?

-Hogeta bederatzi, lelenguak. Ya bigarren urterako ya berrogei bazian. Gu kursua hasi ta aurrera zijoala inaguratu gendun ikastolia. Eta gero haura, klaro, hasieran berriz ere ba ya berrogeta bat, bai, berrogeta bat banittuan. Eta ia beste bat hartu bihar zala ta hasieran, urtarrillan, berriz'ee beste bat hartu zebe. Ointxe jubilatatu da. Iez, ni baiño gaztiaua zan, nik hogeta hamazortzi urtekin eta haura hemazazpi edo hemezortzikin hasi zan. Bai, beteta zittuan ere.

2.32. Gotzon Garate, euskaltzalea

- **Hizlaria(k):** Ajuria Garate, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-042/032
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:21:11. **Bukatu:** 01:23:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Gotzon Garateren familian lau anaia izan ziren jesuitak. Bere euskaldun kontzientzia Azpeitiko baserrietan esnatu eta garatu zitzaiola esaten omen zuen Gotzonek.

Transkripzioa

-Orduan lau anai izan zien horrek jesuita?

-Lau anai, lenengo lau anai, eta batek urten zeban. Loiolara lau anai izan zien horrek. Eta oin hori hil da baiña beste bi gelditzen dia. Bestia, zarrena, ni baiño urtebete gaztiaua ta bestia gaztetxuaua da. Baiña haura gaixotuta egon bihar dau. Nik illobak dititut Venezuelan nere anaia batenak, ointxe egon dia Gabonetan, eta harek ezagutzen dittu ta. Uste dot eskaxa dauala oso eskaxa. "Ley de vida".

-Beste anekdotan bat Gotzonena?

-Anekdotak? Ez dakit ba. Etorri zian omenaldixa izan zebanian Azkoittitik etorri zian basarri batetik andra-gizonak. Euren sukaldian zela egoten zan; baina beran etxia izan zan basarrixak. Bere maixuak izan ziala, beti esaten zeban berak. Harek erakutsi ziuela. Gaiñera berak konzientzia hartu i zeban, euskaldun konzientzia, sartu jesuita ta Azpeitxian. Hasi zala basarrixak bisittatzen, ta geruao ta konzientzia haundixaua, euskal konzientzia ikaragarrixa. Eta gero ez dakitt zenbat basarri ikusittakua, zazpi herrialde guztietatik, e. Danetan izan da. Zenbat gauza jaso zittuan, zenbat lan egin daban euskeriagatik! Ze pena! Holako langillia ta holako... Holaxe.

2.33. Inspektore zorrotzak

- **Hizlaria(k):** Ajuria Garate, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-042/036
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:28:23. **Bukatu:** 01:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Parrokiako lokalera joan zirenean, inspektoreak ez zituen mahai luzeak onartzen ikasleentzako; ezta hiru umerentzakoak ere. Hirukoak ebaki egin behar izan zituzten.

Transkripzioa

-Gero beste banku batzuk ekarri genduzen berrixak kostata lortuta, lortzia

harek. Hirukuak zien. Ba hauraxe ere esan ziun: "No puede ser, de tres no puede ser. Tienen que tener los dos niños pasillo a cada lao". Ta moztu in genduzen. Bakarra baztarrian, bikuak, holaxe.

-Mahidunak zien ala mahi barik?

-Ez, ez, banko ta mahi ta guzti.

-Esan dozu hasieran lurrian jezarten ziela, ezta?

-Hasieran bai, lurrian. Eta gero lurra porlanezkua edo zan eta, hotza zala negurako ta in genduzen, "peor el remedio que la enfermedad", badakizu zer dan? Ba almodadillak honetaiko txikixak, ipurpian jartzeko, hotza zala ta. Hasten zienian burrukan batak [bestiai] botaka, esaten naban, ai!, "peor el remedio que la enfermedad". Gero ekarri genduzen hortako banku baju-baju-bajuak, luze-luziak, hantxe. Erretrato bat badaukat nunbaiten jarritta bueltan, ikastola bueltan. Eta gerora harek luziok, horrek haundixok eman zien neri; ba harek bost edo zazpi edo sartzen zien mahi luze bakoitzian.

2.34. Zortzi urte zituela, aita hil zitzaion

- **Hizlaria(k)**: Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-045/003
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:04:19. **Bukatu**: 00:05:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena**: Aita hil zitzaionean, zortzi urte zituela, bera eta anaia bi babes-etxetan hartu zituzten, eta arreba bat Araiara joan zen. Urte bi eman zituen babes-etxean.

Transkripzioa

-Lehen esan dostazu ospitalian zeundela gerra hasi zanian.

-Bai. Aita zela hil zan eta bost umekin geratu zan; laurekin baiña gero bosgarrena jaixo zan sei egunera. El día trece jaixo zan beste anaixa.

-Amakin ospitalian?

-Ez. Ospitalian egon giñan anaixa eta arreba bi, beste arreba bat Araiara joan zan.

-Ama zer geratu zan, etxian?

-Etxian. Lana bilatzen. Bizi egin bihar zaban harek ere ta.

-Eta ospitalian zenbat denporan egon ziñan?

-Ba bi urte edo holakotxen bat. Seguru ez dakit.

-Eta gero atzera etxera amakin?

-Klaro.

-Ama lanian hasitta edo?

-Ama hasi zan "interina" esaten dana

2.35. Babes-etxea San Frantzisko kalean

- **Hizlaria(k)**: Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-045/014
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:25:30. **Bukatu**: 00:26:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena:** Babes-etxea (ospitalea) San Frantzisko kalean zegoen, gaur egun dagoen toki berean. Mesedeetako mojen ardurapean zegoen. Eskolan zebilela, babes-etxean bizi zen.

Transkripzioa

-Ospittal hori nun euen?
 -Ointxe dauan lekuan. Hamentxe kalia. San Franzisko kale hau? Amaieria?
 Kanpantorre txiki bat dao; hauraxe da.
 -Oin zer dao hor?
 -Iguala.
 -Residentzia da oin be?
 -Bai.
 -Eta monjak edo zer?
 -Orduan monjak, monjak zeuden. Oin ez, oin ez dao monjak.
 -Ze monja zien?
 -Caridad.
 -Zer moduz arreglaitten ziñen eurakin?
 -Ondo.
 -Eskolan zebitzela orduan zuek eskolara fan eta gero bazkaittara ospitalera eta...
 -Holaxe, bai.

2.36. Pako Juaristi euskaltzalea

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Larrañaga, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-046/021
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:47:31. **Bukatu:** 00:49:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** 50eko hamarkadan, Pako Juaristi omen zen euskal dinamizatzaile bakarra herrian. Berarengandik asko ikasi zuten Felixek eta lagunek.

Transkripzioa

-Pako Juaristi zan hamen argi bakarra, euskalzalea edo euskaltzale bakarra herrixan mobitzen zana Pako zan. Eta horrekin hasi giñan. Pako Juaristi, hil zan. 1950 inguruan edo hasi giñan Bizkaittik Txinpartak ekarten, bestetik, Ondarrutik antzerkia. Eta gu ibiltzen giñan satelitiak, Pakon satelitiak giñan, lana eitten ibiltzen giñan berakin, eta beran bittartez ikasi genduan ikasi gendua euskerian zera. Meritua zakan Pakok orduan bakar-bakarrizan. Ta gaiñera arpegixa zaukan eta edozein lekutara presentatzen zan haura. Falangera jun bihar bazan'e Falangera euskeria aurrera etaatzeko. Gu baiño gehixao zan haura.
 -Aspaldi hil zan Pako hori?
 -Bai, honezkero izango dia hoge urte.

-Pako...
-Juaristi. Miren Vallejo, horretxen gizona.
-A, ba bixar naiz Mirenekin egoteko.
-Ba horretxen gizona. Honek Vallejotarrak beti izan dia euskalzaliak, beti, beti Miren Vallejo ta euskalzaliak. Ba eskerrak Pakori Elgoibarren ein zan dana; hasieria dana.
-Preguntauuko xat bixar. Miren bera be euskalzalia da, ezta?
-Bai, bai, euskalzale amorratua da Miren.

2.37. Ikastola klandestinoak

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Larrañaga, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-046/029
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:00:24. **Bukatu:** 01:01:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Gobernuak edozein egunetan ikastola itxiko zieten beldurra zuten, eta eraikinak ez galtzeko, Gure Kai "Sociedad Anónima"ren izenean jarri zituzten eraikinak. Ikastolak klandestinoak zirenean, Bidanian egin zuten lehen bilera. Felix han egon zen.

Transkripzioa

-Gero Gure Kai ere ein genduan. Gure Kai kontau otsun Osorok?
-Ez.
-Gure Kai. Bueno, nik ein doten lan guztia, parte hartu doten guztia iñok ein dau lana, e. Nik neuk... akulua izan naiz bakarrikan. Ta Osoro hau beste gauza askotan sartuta egoten zan, ta honena joan nitzan; ikastolak-eta normalian centro kulturaletan zauden, eta orduan ixteko amenazua zauan, eta lokalak ez kentzeko sociedad anonima bat sortu genduan, Gure Kai. Sociedad anonima bat. Sociedad anonima horrekin erosten genduzen lokalak eta ipintzen genduan ikastolia. Baezpan ere ikastolia ixten bazeben lokalekin geu gelditzeko. Ta ein genduan sociedad anonima bat. Gure Kai, sociedad anónima. Ikastolak klandestinuak zian, klaro. Lelengo billeria ikastolena Bidanian egin zan.
-Hemengo ikastolian bileria Bidanian?
-Ikastolen billeria, kanpoko ikastolen billeria. Eta zan injiniero bat, Goena. Sikologo famoso bat da, Goena, haren anai bat, Zegamakua uste dot dala. Harexek zuzenduta Bidaniako sakristixan egin zan lelengo billeria eta han izan nitzan ni.

2.38. Txerrama batek 17 txerrikume

- **Hizlaria(k):** Leiaristi Iriondo, Floren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-049/031
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:44:41. **Bukatu:** 00:45:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Txerri batek 17 ume egin zituen. 14 ume hazi zituen amak, eta beste hirurak auzoko andre batek biberioaz.

Transkripzioa

- Ta oindiok iñok ezautu ez dabana, txarri batek hamazazpi ume in zittuan han. Ez dabala iñok ezautu hori? Hori Sansonguan.
- Hamazazpi.
- Hamazazpi ume txarri batek.
- Kabittia be tripan.
- E?
- Kabittia be tripan.
- Ta hazi... hazi ta, hazi ezin. Hamalau titi dakaz txarrixak ta hamazazpi ume... Hiru sobrau zian ta Errieingo andriai eman ziuén, amistadia zauken ta. "Hi, nahi badon /nahibon/, bestela akabau ein bihar jittunau ta". "Ez, ekarri! Nik biberioiakin" ta biberioiakin primerakuak hasi zittuan harek.
- Hiru txarrikuma?
- Hiru. Ta hamalau hasi zittuan berak txarrixak.
- Amiak.
- Amiak.
- Jo, paliza edarra, ezta?
- Honbre!
- Amientzako hori...
- Bai. Ta, ba, euki zittuen txarrixak...
- Titi danak okupauta.
- Euki zi... Bai, danak okupauta ta agudo dabillena nausi. Agudo dabillenen bultza ein ta bestiana igual. Txarrikumia politta da, e?

2.39. San Antolin etxabe batera eraman zuten

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-050/002
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:02:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** San Antolingo ermita bota egin zuten autobidea egiteko. Etxebizitza batzuen etxabeen dago orain santua.

Transkripzioa

- San Antolin, oso edarra zan han ermita aldia San Antolin.
- Autopistiakin kendu egin eben?
- Bai.
- Eta ez zebein egin iguala?
- Bueno, beste bat dago, baina etxe haundi bat hor eginda, etxian azpixa. Entenditzen dozu? Elizia dago...
- Orduan San Antoliñen ermita hori oin dauela esan dozu dagola etxe baten azpixon?

-Etxe baten azpitan. (gizonak berba egiten du). Alderdi baten dago tabernia eta bestian dago, eliza eitten da.
-Ermittia?
-Bai ermitta. Hantxe dao San Antolin. Meza hantxe ematen dabe ta hantxe dao oin San Antolin.
-Lehengo lekuan dago?
-Ez, pixka-pixkat apartetxua. Hurrian baiña apartetxua, pixka apartetxua. Autopistan azpitan dao hori oin dauana. Ta lehen zauana aurrerao, pixkat aurrerao. Zan ermittia, aldamenia etxia, ta zan ermittalde polit-polit bat. Eta gero autopistia etorri zan eta eliminau zaben dana. Eta oin han rotondia, San Antoliñen han rotondia-eta badao, ba hantxe zan elizia. Ta gero rotonda bat ein zaben han eta ya eliminau zan...

2.40. San Antolindik Altzolako eskolara

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-050/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:04:54. **Bukatu**: 00:06:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: San Antolingo neska-mutilak kuadrillan joaten ziren Altzola auzoko eskolara. Mendaroko Mutriku aldeko batzuk ere joaten ziren bertara. 40 ikasle inguru elkartzen ziren eskolan, zazpi urtetik 14ra bitarteko neska-mutilak.

Transkripzioa

-Eta eskolan ze ibili zinan, San Antolin bertan edo?
-Altzolan eskolan; ixa bi kilometruan joaten giñan, baiña oiñez, klaro. Osea, kuadri..., orduan [joanaldi haundixak in?] eta danok kuadrillia joaten giñan, San Antolinguak danak Altzolara joaten giñan, bai.
-Eta han elkarketan ziñain Altzolakuekin?
-Bai. Gero bertakuak, eta Mendaro aldekuak ere bai baten batzuk, eta hogeta hamarren bat edo berrogein bat-edo.
-Mendaro aldetik be Altzolara faten zien, e?
-Mendaro partekuak edo...
-Garai hartan Mendaro Elgoibarren egongo zan, ezta?
-Baina hori Mutriku partekuak. Elgoibar partekoik ez zan etorten orduan, ez. Elgoibar partia alderdi batera zan, beste aldia Mutriku aldia zan Mendaro. Eta nik uste dot Mendaro parte hartakuak ziala, baiña gutxi, handik gutxi.
-Zebat izaten ziñein danok?
-Nik seguru ez dakit, berrogei bat inguru edo. Hogeta hamarretikan berrogeira bittarte izango giñan usten dot.
-Neska ta mutil alkarrekin?
-Danok alkarrekin.
-Zahar eta gazte be bai.
-Bai. Zarrauak eta gaztiauak, zazpi urtekin zan orduan eskolan sartzia, zazpi urtekin sartu eta hamalaura arte.

2.41. Abarketa beltzak eta zuriak

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/012
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:28:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Gerra denboran ere josi zituzten abarketak. Abarketa beltzak eta zuriak josten zituzten. Nola josten zituzten azaltzen du. Garai hartan abarketak gehiago erabiltzen ziren orain baino.

Transkripzioa

- Orduen ze zeuen jente asko Elgoibarkua alparketak josten?
- Bai, bai. Jende asko. Gerra denboran ere josi genduzen guk.
- A bai, gerra aurreko kontua da?
- Ez, gerra urten ta gero. Ni gogoratzen naiz soldauak eta hemen zeudela oindiok, abarketekin juaten nitzan ni Peñalbanera. Abarketak jositta, hola hartu, badakizu abarketia luzia ta, hola hartu ta juaten nitzan.
- Josittakuak erutera?
- Bai.
- Ta barrixak ekartera?
- Bai, barritxak.
- Zuek josi ze itten zotsein, gaiñeko telia?
- Makani... makinillia hola hartu, ipini, makinillia, ipini abarketia hemen eta josi.
- (gizona) Bai, ointxe esan duan bezela.
- Eta gero orpua jarri, gerto telia gaiñian jarteko?
- Gero lehenengo, lehenengo aurria.
- Bai.
- Gero atzia piskat zeraua zan, piskat zailaua edo nasaitxua edo, eta aldamenak gero. Nik jeneralian josten nittuan aurriak, ta amak, amak atzia eta muturra eta aldamenak.
- Muturra zer zan, gaiñetik ipintten xakon?
- Hemen.
- Bai, bai, baiña muturra refuerzo modura izaten zan?
- Bai, bai. Algodoi, hiru edo lau buelta hemen. Nik hau, hauxe nik, hau. Ta aitta, amak muturra eta atzia.
- Ia, ia. Ta ze koloretakuak izaten zien alpargatak? danak baltzak edo...
- Beltzak eta zurixak. Kolorezkorik ez naiz gogoratzen.
- Zurixak nortzuk ebaltzen zittuen, dantzariak kenduta?
- Jeneralian beltzak izaten zian, gehixenak, e? Bai.
- Garai hartan jentiak alparketak gehixao ebaltzen eben.
- Bai, bai. Nik hogeta hirua ibiltzen zan, ibiltzen naban.
- Hogeta hirua numerua?
- Bai. Hogeta hirua. Gure aittak hogeta zazpixa. Ta gure aittak ibiltzen zaban, Larreategiñekuak, dendia zeukena?
- (gizona) Bai.
- Hantxe erosten nittuan beti harentzat abarketak. Baiña reforzauak ez zian, e? Ez dakit zela esaten... "capella... capellados o". Beste izen bat zeuken harek. Haura reforzaua ez zan. Guk itten genduzen modukuak ez zian.
- Ze balixo eben, goguan dakotzu ze balixo eben alparketa pare batek orduen?

- Ezta ideiarik ere ez.

2.42. Kongregazioen indarra

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/017
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:36:46. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Hijas de Maria eta luistarren kongregazioetako kideak ziren. Luistarrekin egindako txango bat gogoan du Bitorrek, Mirenen koinatuak; 200 gaztetik gora joan ziren txangora. Dantza lotuan egitegatik neskek ez zuten zigorrik izaten.

Transkripzioa

- Gu gero dotrinatik eta dotriña amaituta gero ere grupuak-eta eitten genduzen eta ya astero-astero gure zerak.
- Hijas de Marian egon ziñan?
- Bai, jesus! Eta hori baiño gehixao ere bai, gaiñera. Hijas de Maria eta, jesus!
Koinatua: -Luistarrak eta. [...] Lurdesera jun giñuan guluistarrekin eskursio bat don Jose Mariakin. Ikusi in bihar da han etaratako argazkixa, e. Nik ez dakitt, igual berrehun lagun gaude, gaztiak, e. Orduan gaztiak hillian behin luistarren zerera juten zittuan.
- Berrehun gazte elgoibartarrak?
- Bai, bai, danak Luistarrak, lehen danak luistarrak zien.
- Eta zuek kastigaitten zittuein baltsiaun dantza eittiagatik eta?
- Neri ez. Ta guk itten genduan, e.
- Ba Hijas de Maria...
- Gu giñan "los trompos de la plaza". Lelenguak urtetzen genduzen, bai, dantzara. Dantzarixak. Bai agarrauan eta bai sueltuan.
- Herri batzuetan baltsiuan eitiagatik Hijas de Mariatik bota...
- Ez, ez, gu ez.
- Eta zuek eukitten zebein zintta urdina, ezta?
- Bai.
- Eta balsiuan harrapau ezkerro...
- Haura ez baiña, haura ez ziguen kentzen. Keba.
- Baiña zuek astian behin edo eukitten zebein meza bat, ezta?
- Eta reuniuak eta. Eukitzen genduzen, ez dakit ze izen zeukan harek. Gerora ere guk jarraitu ein genduan, beti jarraitu dou, oin bezela. Nere gizona urtero-urtero-urtero joaten zan Arantzazura ejerzitiuak eittera. Urtero-urtero-urtero-urtero. Ezkondata gero esan zian: "Ni egon nitzan ba dudan fraille jun ez jun". Askotan esaten neban: "hobe joan bahitz" (barerak). Askotan esaten neban.

2.43. Miren euskara irakasle

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/028
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:54:18. **Bukatu:** 00:56:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Ikastola sortu aurretik euskarazko klaseak ematen zituen Mirenek. Senarra kartzelan egon zenean, "Mecánica" eskolan eman zituen euskara klaseak. Umeei libururik gabe irakasten zien, baina "Mecánica"ko mutilekin Oñatibiarena erabili zuen.

Transkripzioa

- Eta zu ikastolan be, edo ikastolak sortzen be ibilli ziñan, ezta? Zu edo gizona edo bixok...
- Bai, gizona, bai. Gizona bai. Nik gero klasiak ere ematen nittuan.
- Ikastolan?
- Ikastolan ez. Ikastolarik ez zauan oindio.
- Euskeria erakusten?
- Bai. Gero haura egon zanian kartzelan, hemen egon nitzan Mecánica-n. Zeoze bihar naban ta, taillarretik ez genduan ezer atara ta, ezer ere ez. Eta hemen egon nitzan ta hemen denpora gitxi in naban, e?
- "Mecánica" ze da taillerren bat edo...?
- Bai, hementxe, eskola hau. "La Mecánica" esaten, Mecánica edo zela esaten diue honi? Automobilismo ta danak ematen dittue. Hemen, hemen, hemendik ikusten da. Hortxe egon nitzan. Abixau zien nahi banaban ordu batzuk eta, bueno, ba, baietz.
- Eta ze klase emoten zeбен, euskera klasiak?
- Bai, mutilleri. Bai, mutilleri ematen egon nitzan.
- Hori zenbat urtekin?
- Ezkonduta, ezkondu ta gero zan ta.
- Gizona kartzelan...
- Bai, bai, bai. Ta lehelengo, lehelengo ere egon nitzan txikixauekin. Orduan bai txikixak, orduan txikixa zeuan... orduan ez zauen ez, ezer ere ez, orduan bai ez zauala ezer. Lehelengo ibilli nitzan, honek, illoba hau hemen egon dana, honek txikixak ziala, honek txiki-txikixak ziala. Danak "izeko" esaten zien, honek "izeko" esaten zien, ta ume guztiak nere illobak zian, danak. "Izeko Miren! Izeko Miren!" ta haintxe, kantuak eta, zeoze, ez dakizu? Hemen ez, hemen liburu batzuekin "de Oñatibia", Oñatibia, ibilli nitzan. Ya hemen pixkat zeraua.
- Mecánica horretan?
- Bai.

2.44. Euskara irakasteko Oñatibiaren liburua

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/038
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:09:04. **Bukatu:** 01:10:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Oñatibiaren liburuak eta sistema erabili zituen euskara irakasteko.

Transkripzioa

-Eta zuk euskerazko eskolak emon zittuanian, aurretik ibilita zeozen euskeria erakusten? Planik edo libururik edo ezer bazeukatzuen edo?

-Ez, ez. Atzoegon nitzan ni, , erañun egon nitzan Donostian eta zabaldu naban kajoi bat eta euskerazko zerak. Esaten naban: nik hau eman naban? Ze liburu ibilli naban? Eta honek danak nik erakutsi nittuan, nik honek danak?

-Zer zien? Orduan euskera baturik eta ez zegoen, ezta?

-Ez, baiña "zu zara" eta "i aiz" eta. Ni hika sekula ez naiz ibili. "Hi haiz" eta, "hura da" eta "gu gara" eta "gu garenok", eta "gu joan giñan" eta. Hori danak neukazen, da-da-danak hantxe liburuan.

-Eta ze liburu jarraiketan zebein, bertako euskeria edo gipuzkuakua edo?

-Ez, hemengua.

-Bertakua, etxekua?

-Nik uste baietz. Singularra eta plurala eta horrek danak.

-Zuk zeuk eskolan erderaz ikasi zittuen gauzak hemen euskeraz erakusten?

-Ez, eskolak ez, horrek liburu batzuk zian, Oñatibia zan, Oñatibia uste dot zala.

-A, sistemian Oñatibiana?

-Bai. Gero aldatu in zittuen. Haura erretza (sic) zan, errez erakustekua.

-Eta hor zenbat denpora egon ziñan euskeria erakusten?

-(?)

-Baiña kurso bat baiño gehixao?

-Ez, ez.

-Hilabete batzuk?

-Bai.

2.45. Soldaduen lagun nola egin zen

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/044
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:21:24. **Bukatu:** 01:24:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Ohitura zaharra zen, norbait hiltzen zenean, bere izenean eliza barruan manta bat jartzea, eta goizeko mezan mantaren gainean kandela bat piztuta jartzea. Hil ondorengo urtebetean, egunero jartzen omen zen kandela. Nazionalak Elgoibarren sartu zirenean, Mirenek zeregin horretan ziharduen senide baten izenean. Beldurrez joan zen hurrengo egunean, baina egunak joan ahala, soldadu guztiak lagun egin ei zituen. Errekete asko izan zituen lagun.

Transkripzioa

- Gero, gerria izan zan gero ta ia. Ni, honek sartu zian egunian, hurrengo

egunian ze billur neukan urtetzeko kalera.

- Horreik nazionalak sartu zianian?

- Bu! Zeatik derrigorra genduan guk elizan, orduan zan ohitturia baten bat hiltzen zianian, elizan jartzen zan holakotxe manta beltz bat ta urte guztian beratzietako mezetan piztutzen zan kandela bat. Kandela bat piztu. Ekarrizu, hor, ohola badao ba Arantzazuko zera? Sukaldian. Hor armaixuan pegauta, pegauta ez. Holakotxe ohol bat...

- Argizaiola.

- Argizaiola, kandeliakin. Zauan ohitturia urte guztian... Hori, hori! Urte guztian piztuta egoteko mezia hil zanagaittik. Beittu, argizaiola.

- Bai, argizaiola.

- Hau ipintzen genduan piztuta hola manta gaiñian?

- Manta baltz horren gaiñian?

- Manta beltz bat...

- Ta mantia nun ipintten zeuen?

- Elizan.

- Eliza barruan, [...]

- Lurrian, lurrian.

- Lurrian.

- Eta hau ipintzen genduan hola piztuta meza bittartian. Ta honi sartu ta hurrengo egunian juan biha nitzan ni, zeatik geunkan holako bat basarriko bati itten. Basarrixan hil zan bat ta urte guztian nola euki biha zan, eurak ezin zian bajatu ta guri ematen ziguen urte guztian, ba, meza haretara juateko kandeliakin. Gero igual ekartzen ziguezen edo babak, edo patatia, pagatzeko. Ze itten, ze mesede itten giñun. Hauraxe. Eta honek sartu ta hurrengo egunian beratzietako mezetara juan biha nitzan. Nik neukan billura!

- A, nazionalak etorri zianian?

- Bai.

- A, orduan zan hori basarritar hori hildakuoi?

- Bai, ta hauraxe geunkan, manta haura urte guztian eitteko. Urten naban etxetik billur batekin! Ta juan nitzan Plaza Handira, aiuntamentua dauan tokira, Plaza Handira, ta arkupiak zeuden holaxe soldauz beteta. Pasau nitzan plazatik baiña holaxe, e? Pasau nitzan elizara, e? Billur batekin! Juan nitzan ta akabo. In naban mezia eukitzeko ta etxera zuzenian berriz ere. Ta handik aurrera, ba, egunero-egunero, ba, urtetzen-urtetzen, poliki-poliki-poliki, soldauak eta danak ein genduzen lagunak. Intendencia zauan, hor, bakizu nun zauan intendencia? Elizia, ezta? Gero bide hori badao ba [paratokiko] hona sartzeko?

- (gizona) A, bai.

- Hor zauan intendencia, hor baju horretan ta kamioia sartzan zeuben hor gauzeekin, jateko gauzeekin ta. Halako lagunak ein genduzen soldau batzuk, juaten giñan bakoitzian ematen ziguezen edo bote bat atuna edo jatekua zeoze ematen ziguen ta hantxe egoten giñan eurokin. Soldauekin, e? Baiña falangista batekin ere in genduzen.

- Lagun?

- Lagun ta reketiak ere bai. Rekete asko euki genduzen gaiñera lagunak.

2.46. Gaztainak eta babarrunak

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/022
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:23:16. **Bukatu:** 00:24:18

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Gaztaina jaten zuten sarri afaritan. Asko gustatzen zaio egositako gaztaina. Porru-patatak ere jaten ziren gauean. Eguerdian babarruna txerriki apur batez. Garbantzua domeketan.

Transkripzioa

- Udazkenian gaztaiña asko jaten zan, ezta?
- Jaten genduan, egositta; azala kendu, egosi eta gozua izaten zan, neri gustatzen jatan.
- Afaritan jaten zenduen hori?
- Afaixan jaten genduan hori. Edo noiznahi igual, preparauta zauanian ba jan egosittako gaztaiña.
- Zer zan garai hartan bazkai normala?
- Honbre ba, porru-patatak eta tortillia ta, "tortilla de patatas", ta oingo moduan... Ta berduria. Porru-patatak askotan gabian.
- Eta eguardixan?
- Eguardixan babia. Babagorrixa eta garbanzua.
- Garbantzua domeketn izango zan, ezta?
- Hori domekan.

2.47. Emakumeak eta gizonak elizan

- **Hizlaria(k):** Isasti Irusta, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-055/021
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:42:02. **Bukatu:** 00:43:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Garai batean, elizan gizonetzkoak aurrean jartzen ziren, bankuetan, eta emakumeak, ordea, atzean, aulkietan. Jauna hartzea ere gizonak emakumeek baino lehenago egiten zuten.

Transkripzioa

- Zela jezartzen zien gizakumiak eta emakumiak elizan?
- Elizan orduan zeuden bankuak, bankuak elizan aurrian eta atzian sillak. Atzian zeuden sillak. Eta bankuetan ba jeneralian emakumiak egoten zian baiña jeneralian gizonetzkoak bankuetan eta silletan andrazkuak.
- Garai hartan gizonetzkoak aurrekaldian eta emakumezkoak atzian.
- Bai. Gaiñera preferentzia eukitzen zeuben gaiñera gizonetzkoak eskumako alderdixan. Ezkerreko alderdixan emakumiak gehixao egoten zien baiña. Bai, nahasi egoten zien. Gero atzian zien sillak. Eta orduan zan ohitturia sepultura eta guzti, bakoitzak bere sepultura, ez dakizu? Ta ba bakoitzak bere sillia eukitzen zaban eta.
- Jauna hartu nahasik edo lelengo gizonak eta gero emakumiak edo...
- Nahasik. Baiña jeneralian gizonetzkoak izaten dia [azkenengo?].
- Gizonetzkoak eta gero emakumiak izaten zian.

2.48. "Ni naiz bertsolaria" bertsoa

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/004
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:09:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Gaztetako bertsoa: "Ni naiz bertsolaria" kantatzen du.

Transkripzioa

-Neskatiilatxua ziñanian kantatzen zeben bertso bat...

NI NAIZ BERTSOLARIA

Ni naiz bersolaria

Artxiolakua

nere kontrarixua

Zuanetakua (zuenetakua?),

nahi dabena etortzeko

Gipuzkuakua

orduan joko-gu

kitarra majua.

2.49. Galan eta Garcia Hernandez militar errepublikazaleen ohorezko bertsoak

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/007
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Fermin Galan eta Angel Garcia Hernandez militar errepublikazaleak Jakan altxatu ziren 1930ean. Fusilatu egin zituzten monarkiaren aurka egiteagatik. Haien ohorezko bertsoak kantatzen ditu Mariak.

Transkripzioa

Fermin Galan eta Garcia Hernandez

biak ziran kapitanak,

Abenduaren hamalauetan

afusillatu zianak,

kristau gaiztuak eiten ditue

modu horretako lanak,

aber zer nahigabe hartuko

zeben haiek hazi zituanak.

Gogoratzian nere bihotza
egiten da erdiratu,
sasorik onenian horrela
mundua bihar lagatu.
Españia ta Euskal Herrixa
horrek digute salbatu.

2.50. "Coronel Franco"ren bertsoak

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-061/009
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:16:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Coronel Franco"ren bertsoak.

Transkripzioa

Coronel Franco ere egin dute
kartzelara sartzen hasi,
barru horretan ez omen zeban
toki ederra ikusi,
leiho batetik salto eginda
Prantzira jun zan igesi.
Orain Españan jan da pasean
nahi dan bezala da bizi.

Arioplano eder bat dauka
noranahi azkar juteko,
nahi dabenian Prantziara ta
igual Portugalerako,
raia (?) badaka mekanikua
makiña-i arreglatzeko,
horrek bai badakala habilitadua
burua defenditzeko.

2.51. Bertso pupurria

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-061/011
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:16:15. **Bukatu**: 00:18:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Fermin Galan eta Angel Garcia Hernandez militar errepublikazaleen ohorezko bi bertso kantatu ditu gorago. Orain bertso

berriak gogoratu zaizkio. Beste multzo batzuetakoak izan daitezkeenak ere gehitu ditu.

Transkripzioa

Bi kapitanen pasadizua
bihar det adieraztia,
Garcia Hernandez esposatua
Galan zan mutil gaztia,
gurasueri kostatzen zaie
seme ederrak haztia,
gero hola tiroz hillazi
hori da gauza tristia.

Xoxo beltz hori egunen baten
jaio zan gari tartian,
kaltia franko egin du horrek
Españiako partian,
ez det uste nik izandu dala
guziontzako kaltian,
alkarregana gorrotu gabe
ondo konpondu gaitian.

Errege edo morroi beltz hori
egiña dute bialdu
berrogeta bost urte inguruan
hemen ein degu mantendu,
aspaldi samar batzuen partetik
egin degu ba guk saldu,
berriz honutza agertzen bada
ez aterikan zabaldu.

Oandiokan ez omen dago
jentia ondo aseta,
ez dakianik baldin badago
zabalduko nik gazeta,
urtian zazpi milloi inguru
eramana du soldata,
hala ere ez da gizendu
kasta txarrekoa da ta.

(...)

Horren tartian gehixago ere
badaude gizon gaiztuak
Hori pixka bat [...] izan balitzaz prestuak.
Luziferreren eskolan daude
ondo estudiantuak,
modu horako negoziuan
dabiltza aberastuak.

Aitona zahar bat hoi tartian
ez dago oso zuzena,
beste gauzarik geldu uztiak

emon omen dio pena,
modu horretan betia dauka
diruakin almazena,
izenik ez det esango baina
hanka bat dauka herrena.

2.52. `Markesaren alaba´ I

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/013
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:18:58. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Markesaren alaba" kanta ezaguna. (hurrengo pasarteetan jarraitzen du)

Transkripzioa

Zeruak eta lurrak
egin dituana...

Markes baten alaba
estudiatua
marinero batekin
enamoratua,
deskubritu gaberik
beran sekretua,
amoriua zeban
barrena sartua.

Egun senalle bat zan
goguan hartzeko
esan ziola honek
etxera joateko,
Lendabiziko hitzak
manifestatzeko,
Antonio zeuregaz
nago izeteko.

Nola esaten didazu
Juanita hitz hori
tentatzen ai zerala
traza badiruri,
ez zait zure gradurik
tokatutzen neri,
zuk ez egin burlarik
marineruari.

Eduki dezakezu
ongi sinistua,
aspaldian nauala

ni zuri gustaua
(?) Berriz egiteko
desanparatua,
hala egiten dezu
gaur juramentua.

2.53. `Markesaren alaba´ II

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/015
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:20:58. **Bukatu:** 00:23:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Markesaren alaba´kanta abesten du. (aurreko pasartearen ere abesten ditu bertso batzuk)

Transkripzioa

1

Markes baten alaba
interesatua
marinero bategaz
enamoratua,
deskubritu gaberik
beran sekretua,
ampriua zeban
barrena sartua.

2

Egun senalle bat zan
goguan hartzeko,
esan ziola horrek
etxera joateko,
desio dedan hitzak
manifestatzeko,
Ai Antonio zuregaz
nago izateko.

3

Zela esaten didazu
Juanita hitz hori,
tentatzen ai zerala
traza badirudi,
ez zait zure gradurik
tokatutzen neri,
ez ixozu egin burlarik
marineruari.

4

Eruki dezakezu

ongi sinistua
aspaldian nauala
ni zuri gustaua,
ez zaitut nik utziko
desanparatua,
hala egiten dezu
gaur juramentua.

5
Konformatu ziraden
alkarren artian
ezkonduko zirala
hurrengo urtian,
eskolak ikesteko
bien bitartian
beraren herritikan
gutziz apartian.

6
Hola disponiturik
jarri ziran biak
kartaz entenditzeko
alkarren berriak,
formalidadiakin
jartzeko egiak
baiña lo ez ziran egon
ama horren begiak.

7
Ezin egon zan ama
hitz hori sufritzen
berihala hasia zan
kartak detenitzen,
intenzio haundiaz
ezkontza galdutzen,
Juanitak holakorik
ez zeban pentsatzen.

2.54. "Gabon jaietan..." bertsoak

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/017
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:23:36. **Bukatu:** 00:24:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Gabon jaietan..." hasten diren bertsoak.

Transkripzioa

1

Gabon jaixetan etxera joanda

lendabiziko berbia
ama etortzen jata atera
hemen da nere semia (bis)
Bilbo aldetik irabazian
pasa da urtebetia,
honek dirua ekarriko dit
badaukat esperantzia.
Ez dezu euki espero txarra
neure amatxo maitia.

2

Amari atzera kontestau bihar
neuk daukat asko penarik,
Bilbao aldetik aspaldi hontan
ez degu irabazirik.
Patronak daure karuak eta
erdixok lanik gabarik,
trena pagauta etxait sobratu
txakur txiki bat besterik,
hobe zenduen ein ez bazendu
neure moduko semerik.

2.55. "Patxiko Jaunari" bertsoak

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/021
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:28:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Patxiko Jaunari" bertsoak.

Transkripzioa

1

Aizak Zabalako
Patxiko Jaunari
abixatu diola
berak lagunari,
Bizkaian Naparruan
hor dagoz beste bi
pruebak erakutsi
dezagun alkarri
onena zein dan
haitakuari.

2

Eskerrik asko dizut
hitz hori Patxiko,
enkargu hoietara
ez nozu jatxiko,
herriak ere ez dau

hori mereziko
lehen esan genduana
joka lenbiziko,
onena zein dan hantxe
degu ikusiko.

2.56. Fernando Bengoetxeari ateratako bertsoa

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/023
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:30:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena:** Fernando Bengoetxeari buruzko bertsoa.

Transkripzioa

Gure Fernando Bengoetxea
ehun urte da hil zala,
denpora askuan sentitzen det nik
hak utzi zeban itzala,
jaungoikuari eskatzen diot
nahi leukianak bezela,
haren anima irabazitta
zeruan ixan deixela.

2.57. Palankariei buruzko aitaren bertsoak

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/024
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:30:28. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena:** Aitak Eibarko udaleko brigadan egiten zuen lan. Tabernetan egiten zuen bertsotan. "Ni naiz bertsolarixa" aitaren bertsoek palankarien arteko apustu batez dihardu.

Transkripzioa

-Ez, ez, nik, e, zenbat. Aitta gurian onduan gustua. Ni ez.
-Zure aitta bertsuetan kalerik kale edo plazaik plaza ibiltten zan edo ez?
-Bai. Brigadan ibiltzen zan gure aitta. Lana. Edo batian edo bestian
taberneruak garbittasunagaittik ixten ziu merixendia edo bazkarixa. Eta
haura han jota ke bertsuetan.

Ni naiz bersolarixa
Artxiolakua,

nere kontrarixua
Osbanetakua (?)
palanka izan dedilla
zortzi librakua,
nahi dabenak irtetzeko
probintziakua.

Munduan da lau parte
horren danen kontra,
iñork urten nahi badu
joten jat erronka,
zortzitik hamaseira
dabena palanka
arraian pasa gabe
eskubiko hanka,
zeiñek urriñoao jaurti
egin plazan marka.

Palankari ez danik
etxuat markatu
jokatzaille ez danak
ez predarik hartu,
hizbidiak horrela
dittugula hartu
kontra iñor badator
neuk ezin barkatu.

(errepikatzen ditu)

2.58. "Behin batian Otxandixora" bertsoak

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/028
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:36:04. **Bukatu:** 00:36:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Behin batian Otxandixora" bertsoak.

Transkripzioa

Behin batian Otxandixora
gehixenok han izanikan
diru guztia kendu ziguten
merienda bat janikan,
eskerrak Bilbon ez daguala
holako tabernarikan.

Bakaillaua jan bagenduan be
zan ondo pagatutzeko
gero bersuok jarri genduzan

guziak ordaindutzeko,
nerek erosi ez zan palta ta
gu berriz pozik saltzeko,
uezabari bialdutsaguz
pote baten sartzeko.

2.59. "Joles eta joles" koplak

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/030
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:36:59. **Bukatu:** 00:37:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Joles eta joles" koplak. Santa Agedak edo Gabonetako koplak dirudite.

Transkripzioa

Joles ta joles etxekotxuak
nik joten dizut atia,
nik joten dizut atia eta
konsolatzeko jentia.

Etxeko Andra Marixa
esango dizut egixa,
etxe hontako oilo pintanak
sapaixan dauka habixa.

2.60. Hainbat kopia

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/032
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:40:08. **Bukatu:** 00:40:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Hainbat kopia. "Hasten banok hasiten bertso berriak kantatzen"; "Etxaburuan uztarri".

Transkripzioa

Hasten banok hasiten
bertso berriak kantatzen
gogorik ezta [kankas]koko guziok
ipiñiko jittuat dantzatzen.

Etxaburuan uztarri

ura txorrotik ekarri,
hamalau urre txintzarri
eren neskatxa gazte politeri.

Agure zarrak errenka
hasi zituan bueltaka...

Bazuan hor.

2.61. "Belia dago haitzian", Santa Ageda koplak

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-061/034
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:41:43. **Bukatu**: 00:42:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Belia dago haitzian" kanta. Santa Ageda kantaren zatia.

Transkripzioa

Belia dago haitzian
beran gaixoko etxian,
etxe hontako maiorazkua
apenas dagon etxian.

Etxian bada etxian
ez da etorriko hutsian
esku batian arrautzak daukaz
bestian lukainka paria,
horri gutxi iritxitta
pezeta biko pagia.

2.62. Domeketan goizeko mezara eta gero etxe garbiketak

- **Hizlaria(k)**: Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref**: EGB-068/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:06:20. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Domeketan seiterdietako mezetara joaten ziren beldur galanta pasatuz iluntasunagatik. Gero etxera etorri eta garbiketak: zoruak 'arenau', argizagia eman eta abar.

Transkripzioa

Nati:-Ostantzian ba aurrera halaxe. Eta gero pixkat haudittu giñanian ba,

mezia're hain zan sagraua, ba goizian juten giñan gu bixok seitterdietako mezetara.

Agurne-Baiña txingorra bazan ere!

Nati:-Juten giñunazenan eta eitten gendunan 'meza-txandia' esaten zakona.

Agurne--Bai. Eta zelako sustuak pasatzen genduzen bidian!

Nati:-Bai. Ba batian bata zatorren bizikletan poliki-poliki argixakin gabian eta bajatzen giñan San Lorentzoraiño farolakin eta gero handik behera oiñez baiña argirik gabe, eta baten bat juten baldin bazan goizian lanera edo bizikletiaikin atzetik, eta igual poliki-poliki zixenian ba sustuak hartzen genduzen. Eta goizeko seitterdietan igual neguan ere...

Agurne--Pentsau geure ondoren zatorrela, ta holaxe. Baiña billurrez aidian, e! Bueno, nik pentsatzen dot orduko meziak oinguan doblia balixo zabala.

Nati:-Bai, eta gero seitterdietako mezia entzun, etorri etxera, eta gero bestiak juten zian mezetara eta guk eitten genduzen etxeko lanak. Gaiñera lehen dana zan arenau lejiakin ta hondarrakin. Eta habitazietan dana "cera de palo" esaten zakona. Eman zepillua, alanbria, eta astian behin demaseko garbittua etxieri.

2.63. Dantza lotua debekatuta Azkoitia partean

- **Hizlaria(k):** Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref:** EGB-068/011
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:14:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Gaztetako erromeria lekuak: Kurutzeta, Irukurutzeta, Sallobente. Kurutzetan, Elgoibarko partean, 'agarrauan' (dantza lotua) egiten zen eta Azkaraten edo Madariagan, Azkoitia partean, ostera, debekatuta zegoen.

Transkripzioa

- Eta zuek nora joaten ziñen?

- Agurne: Gu?

- Nati: Kurutzetara eta San Lorentzora erromerixara.

- A.: Erromerixara baiña. Kurutzetara eta. Egun baten nere semiak esan zian: ama, lehen erromeixara juten ziñan, ez?, eta bai. Eta nora? Batian Kurutzetara, edo Irukurutzetara ere, ta. Ze nahixaoko neuke nik oin egotia hori! Horrek erromerixa horrek.

- N.: Erromeixara, Sargoatera Santixauetan, Irukurutzetara zerian, Santakruz egunian...

- A.: Baina bestela Kurutzetara.

- N.: Hori, Kurutzetara. Eta San Lorentzon'e egoten zan batzuetan.

- A.: Eta Kurutzetan, begira, Elgoibarko partian agarrauan itten zan, eta Azkaraten partitzen zan, Aizkoitixan ez zan itten agarrauan. Madarixan prohibiduta zeuan.

2.64. Kortako kakapilara jausi Agurne

- **Hizlaria(k):** Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref:** EGB-068/024
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:31:58. **Bukatu:** 00:33:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Baserriko lan guztiak egiten zituzten ahizpek. Behin, behi bat mugitu ezinik tiraka eta bultzaka ziharduten eta Agurne kaka pilara jausi zen. "Harrapatzen bahaut akaau eingo haut" esaten zion Natiri.

Transkripzioa

-Gizonezkuen lanak eittia tokauko jatzuen.

Agurne: -Jesus!

Nati: -Esan deuna. Etxeko lanak in lelengoti, eta gero ba solora; ba izaten zan nabua edo artua edo erromalaxa edo...

Agurne: -Baiña nik badakit behixak jazten ere. Neri tokau jata behixak jartzia. Eta honek...

Nati: --Ez zauan mutillik eta ein in bihar genduan.

Agurne: -Honek sokatik tira eitteko behixai eta jun nitzan etenda kakapilla haundi batera sartu (barre).

-Honek tranpia ein zetsun?

Agurne: -Beittu [...] behi bat, ezta, sokatik. Derrior eruan bihar zan sokatik, eta kortara sartzerakuan ez zaban nahi jun, eta esaten diot: "Nati, eraixon!", eta honek esaten zian: "Tira eixon sokatik!", eta "eraixon" eta "tira eixon", etetzen da sokia, eta jota atzeraka-atzeraka-atzeraka, kortan aeuan kakapillarik haundiñian sartu nitzan (barre). Bueno, hau etxaburuan gora ihesi eta ni ondorian. Bueno, nik harrapatzen det orduan, txiki-txiki...

Nati: -"Harrapatzen bahaut akaau ingo haut!!" (barre). Penia da 'zuka' eittia.

Agurne: -Ez dou in zuka, "harrapatzen bahaut" ez da zuka. (Barre). Eta holako urteerak. Holako urteerak geunkazen ba pillo bat. Bueno... Beste baten asto gaiñian ipini ninduen eta. Orduan partian

Nati: -Tio Txomin zana zan partian.

Agurne: -Tio Txomin eta hi're. Akuluakin erani-erain astuari ta ni poliki-poliki, toka-toka-toka azkenian goittik behera. (Barre). Jausi

2.65. Maistrak bizitza guztia Sallobenten

- **Hizlaria(k):** Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref:** EGB-068/028
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Cara al Sol egunero abesten zuten. Maistrak ez zien zigorrak ipintzen euskaraz egiteagatik. Donostiarra zen maistra. 18 urte

ingururekin etorri eta bitzta guztia Sallobenten eman zuen. Apopilo kale-baserri batean.

Transkripzioa

Agurne: -Francon banderia atara, e, Nati, eta 'Cara al Sol' egunero.
Nati: -Egunero abesten gendun 'Cara al Sol' eguerdixan, eta goizian jun eta Aittiaren einda eskolan hasi.
Agurne: -Hori zan...
Nati: -Eta gero 'Cara al Sol' abestu ta etxerutz. Hori egunero.
-Zigorrik ipintzen zetsuen euskeraz eitte arren?
Nati: -Ez. Hori... Nik usten dot zer itten zabala.
Agurne: -Konprendidu. Berari in ezian...
Nati: -Bai. Giñala euskaldunak eta berari erderaz in bihar giñuala baiña.
Bai, hori ze itten zaban, bai, rekonozitzen zaban hori, bai. (...). Bai baiña bera Donostittik etorri zan eta.
Agurne: -Ba pentsaizu, etxe baten egon zan haura..., apopillo egon zonan ba haura, ez?
Nati: -Klaro, haura etxe batera etorri zan eta hantxe pasau zittuan urte guztiak eta jubilau ta dana hantxe in zan.
Agurne: -Larogetamar urte arte, hantxe.
-Nati: -Ba haura igual etorriko zan...
Agurne: -Hemezortzzi urtekin.
Nati: -Orduan Magisterio ez zan izango gaurko bezelako... Baiña bazeukazen bere... estudixuak, bazeukazen. Donostiatik hola etortzeko, pentsaizu.
-Eta zer egon zan, auzoko baserriren baten edo apopillo...
Nati: -Bueno, basarrixa ez zan, kale-basarrixa zan.
Agurne: -Baiña aldatu be (gabe) leku baten denpora guztia.

2.66. Dotrina "puntatik hondoraiño" ikasi behar

- **Hizlaria(k)**: Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref**: EGB-068/031
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:44:22. **Bukatu**: 00:45:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
- **Laburpena**: Dotrina "puntatik hondoraiño" ikasi behar zen.
Natiren jaunartze taldea txikia izan zen, gerra ostea zelako.

Transkripzioa

-Gero dotriña be ikasi biharko zenduen, ez?
Nati: -Uuu! Hori zan sagraua. Dotriña zan ezer baiño sagrauaua. Dotriña bai puntatik hondoraiño.
Agurne: -Haura ikasi bihar zan... Ez zion inporta matematikak ez jakitzia, e. Baiña dotriña hori jakin bihar zan ondo.
-Baiña dotriña maistriak erakusten zotsuen?
Nati: -Ba dotriña...
Agurne: -Ez, abadia etortzen zan.
Nati: -Irakortzen ikasi genduanian dotriña... Maistriak ere galdetzen ziun. Eta gero etortzen giñan hona sakristixara ere komuniua eitteko, apaizekin

egoteko ta. Lehen itten zan komunio txikixa zazpi urtekin eta gero itten zan komunio haundixa hamar urtekin. Ta gu gerra ostekuak nola giñen hiruk bakarrikan euki genduan komunio txikixa. Eta komunio haundixan ere oso gitxi egon giñan gu. Eta ni ipini ninduen aurrengo txikiña nintzalako. Eta beste lagun bat ere. Honek haundiñak zielako azkenak. Agurne: -Gutxi jaten zonan eta... (barre). Nati: -Bai, baiña dotriña oso sagraua zan, ondo ikasi bihar genduan. Agurne: -Bueno, atzekuaz aurrera ere bai, e! Boj!

2.67. Plantxa mota ugari

- **Hizlaria(k)**: Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref**: EGB-068/034
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:47:18. **Bukatu**: 00:48:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Barruan txingarra ipinitako plantxekin lisatzen zuten sasoi batean. Erromeriarako joateko kankana, adibidez. Su gainean berotzen zirenak, elektrikoak eta lurrunezkoak ere ezagutu ditu harrezkero.

Transkripzioa

Nati: -Eta plantxau, lehengo plantxak tximinixia zauken harekin. Brasia botata barruan, eta erromeixara juteko kankana plantxau bihar izaten zan. Igual eukiko genduzen bi bata bakarrikan. Baiña orduan modia zan. Eta harekin, plantxa harekin plantxatzen. Haura zabaltzen bazan beheko ze haura kankana dana beltzittu ta hola ibiltzen giñan.

-Holako plantxia zakazuen?

Nati: -Bai. Nik ezagutu dittut haura kee hori, brasia sartutakua, su gaiñian berotzen zien plantxak, eta gero elektrikua baporrik be, eta gero baporduna. Honek'e hola ezautuko zittuan.

Agurne -Seguru.

Nati: -Ez haiz akordatzen... (penia daukat hika ein eza).

Agurne: -Badihardugula hika. Ez haizen akordatzen, zer?

Nati: -Hi ez haizenan akordatzen harek tximinixia zeukan plantxa harekin?

Agurne: -Bai, honbre! Haura deskuidatzen bahintzanan prasia urtetzen jaonan handik.

Nati: -Hori ba, esaten jonat ba.

Agurne: -Ta erre erropak.

Nati: -Ta ze pena!

Agurne: -Honbre! Lehen gitxi ta.

-Kankanakin joaten ziñaten orduan erromerixara?

Nati: -Nik euki naban.

Agurne: -Nik ez naban euki.

Nati: -Nik euki naban kankana. Gero hola nitzan. Ta soiñokua ba izurrakin, eta kankana almidoiakin plantxau ta harek ba buelua ematen zion, eta haura ondo zainduta.

Agurne: -alegiña inda.

2.68. Oinetakoak

- **Hizlaria(k):** Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref:** EGB-068/035
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:48:53. **Bukatu:** 00:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Abarketekin joaten ziren erromeriara. Beste oinetako klase batzuk: ponpoedun zapatilak, gomazkoak, larruzko zapatak...

Transkripzioa

-Abarketekin ala zapatekin zuek?

Nati: -Abarketekin. Abarketak.

Agurne: -Eta neguan kalbaixuak egoten zian, eta kalbaixuetara -horrek zuk ez zenduzen ezautuko-. Zapatillak zian hola "de paño" ez, kolorietakuak, eta gero zaken gaiñian ponpoe bat. Hola ponpoe bat oso politta. Ba haretxekin, baita edurra bazan'e haretxekin.

Nati: -Eta gero zauden zapatak, baiña gomazkuak... Bueno, gero narrua be ezautu genduan. Baiña mokasin tipora gomazkuak. Baiña gero ya erromeixara ta hasi giñaneako ya pasauta...

Agurne: -Zapatak.

Nati: -Eta komuniorako ta ya zapatak zian. Hori komunio aurretikan zian zapata horrek.

Agurne: -Gero modernizatu giñan, asko (barre).

2.69. Gerra aurreko eskolak Elgoibarren

- **Hizlaria(k):** Iriondo Lizarralde , Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-069/004
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:06:55. **Bukatu:** 00:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Monjek euskaraz zein erdaraz egiten zieten berba, baina ikasi erdaraz. Eskola publikoetan dena erdaraz. Garai hartan Elgoibarren zeuden eskolak.

Transkripzioa

-Zuek monjekin euskeraz eitten zebein ala erderaz?

-Euskeraz orduan monjekin, euskeraz ta erderaz, danera. Zeatik oso euskaldunak zian eta. Ni akordatzen naiz euskeraz eitten genduala baiña eskribidu ta hori erderaz eitten genduan. Eskribidu eta gauza horrek...

Hizketia, alkarrizketia erderaz zakixenai erderaz itten ziuon monjak eta euskeraz itten zuenei... eta horrela ibiltzen giñan. Baiña idatzixak, zertziak, danak erderaz.

-Publikuan be igual, edo publikuan dana erderia zan?

-Publikuan dana erderia. Orduan ez euan, hemen eon zan eskola partikular

bat eon zan, baiña orduan Elgoibar guztia hor eitten genduan lana, umiena ere bazauan eta emakumiena ere bai, gizonezkuena ere bai, eta eskola publikuak, eta gero ba Marianisten kolejiua; eta hori ta, hor zeuan zentrauta gauza guztia.

-Marianistakin ez ziñan ibili?

-Ez.

2.70. San Lorentzoko "unibertsitatean" lehenengo letrak

- **Hizlaria(k):** Zabaleta Barrenetxea , Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref:** EGB-071/002
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:03:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Jaioteguna. San Lorentzoko "unibertsitatean" ikasi zituen lehenengo letrak. Gero kalean don Felixekin eta don Marinorekin ibili zen. Irakasle ona ei zen don Marino.

Transkripzioa

- Otsillan hamaluan jaixo nitzan ni, barixaku baten. Goizeko ordubi laurden gitxiauetan.

- Orain dela?

- Larogeta hamaika urte. Gero lehenengo letrak ikasi nittuan San Lorentzoko ganbaran, "unibersidadia" esaten zion zerak, Pako Berdunek. "Gu unibersidade baten estudixautakuak gaittuk". Ta han ibili giñan, nik sei urte nakala ibili nitzan han. A-e-i-o-u hantxe ikasi neban. Horixe ikasi neban, unibersidadeko estudixuak.

- Ta gero handik...

- Handik ba etxera etorri nitzan Satur maistranera. Zure amakin eta.

- Eta han zela ikasten zenduen letrak? Nik entzunda daukat nere ama zana gandik R ikasteko, "suak ze itten deu? erre!", eta hola izaten zala.

- Ja-ja... Bai, holako... Gero segiduan pasau nitzan don Felixeana. Gero don Felixekin ibili nitzan, harekin sartu nitzanian baiño txarrao. Urtebete in ta txarrao. Eta don Marinonera pasau nitzan; ya in nitzanian zazpi-beratzi urte. Ta han zeozer.

- Orduan horrek zian garai hartako eskola nazionalak?

- Bai. Horretxek bixak zaozen maixu, don Felix eta gero beste aldian don Marino kojua. Haura ona zan. Haura etorritta zauan hona kastigon bategaittik.

2.71. Don Erasmorekin asko ikasi zuen

- **Hizlaria(k):** Zabaleta Barrenetxea , Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref:** EGB-071/004
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:05:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Don Erasmorekin Matematika, Gramatika, Kaligrafia eta abar. Eskolako onenak ziren bera eta beste agun bat.

Transkripzioa

- Don Erasmonera pasau nitzan eta hantxe ikasi zeozer. "Tantos..., tantos kilos, tantos quintales..." ta dana holakotxe... problema guztiak, benga ta benga. Han bai, dana idatzi, eskribidu ondo.

- Kaligrafia ta.

- ... Conde ta ni giñan lelenguak. Harek etarutzen zaban edo nik astero. Astia zapatuan itten genduan, ta! ipini han eta; ta! ipintzen zaban mahixan, ta mahixan jarri bihar giñan según la orden de... Goizetan Gramatikia eta arratsaldetan Aritmetikia. Ikasitta buruz emon bihar.

2.72. Marrazketa maisu Lanbide Eskolan

- **Hizlaria(k):** Zabaleta Barrenetxea , Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref:** EGB-071/007
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:10:31. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Lanbide Eskolan marrazketa maisu ipini zuten. Beti marraztu izan du. Eginez ikasten da.

Transkripzioa

- Bernardoren ordezeko moduan egon ziñan zu ofiziuia erakusten batzun batzuei?

- Gero bai. "Escuela de Formación Profesional" ipini bihar zanian, ba hasi in bihar zan zeozetan ta ni dibujan. Ni maixua nitzan, dibujoko maixua. Ta ha zeozen batzuek, Florentinon semia ta horrek dibujua. Adornua.

- Hori izango zan ya forjia ta... Forjan zenbat urte in zenduzen?

- Nik hamasei bat urte. Edo gehixao igual, ez dakitt. Soldautzara jun arte.

- Eta gero forjia bukatu eta hasi ziñan dibujoko...

- Ni dibujua beti.

- Orduan forjan zendela ere egon ziñan dibujua ematen?

- Ni dibujua beti. Nik papela ta dibujua beti in dot. Ta lapitzezkuan, beti dibujua eitten. Eitten-eitten-eitten, afiziñua, ta gero konstanzia esaten dana; Afiziñua euki ezkeru, eta horixe bihar da dibujan. Horixe bihar da, "hace falta constancia".

2.73. Eskolan onenatarikoa

- **Hizlaria(k):** Iriondo Garate, Luis Mari

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref**: EGB-073/009
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:17:48. **Bukatu**: 00:18:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Gordeta ditu eskolako boletinak eta koadernotxoak. Gramatika eta Kaligrafia asko ikasten zuten, 'redondilla', 'inglesa' eta 'gotika' ikasmateriak.

Transkripzioa

-Hori izan zan Pilarrian. Ta gordeta dakadaz gaiñera hango boletiñak eta kuadernotxuak-eta danak gordeta dakadaz. Berrogeta bat, berrogeta bi, berrogeta hiru... "Primer año de la Victoria, Segundo año de la Victoria", dana... Oso..., billobari erakusten niozen gaiñera, Gramatika eta Kaligrafia guk itten gendun asko. Kaligrafia, gaiñera, hiru letra klase: letra inglesa, oker-okera inda, "redondilla" kontabilidadia eruateko, ta "gotika", dotoria. Han daude kuadernuetan. Hori, Historia, Historia Sagrada, Matematika, bueno, han ikasi genduna. Eta ataritzen naban bigarren, lehen..., hirugarren..., baiña zera, hoixe. Ni pentsatzen ba bixar edo etzi bankuren baten edo ofizinarene baten. Pentsatzen, zeatik eze beste batzuk hasi zian kolokatzen.

2.74. Txistulariak gabon kanten lehiaketan

- **Hizlaria(k)**: Azpiazu Kaltzakorta, Antton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: EGB-115/037
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 01:03:24. **Bukatu**: 01:06:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Gabon kanten lehiaketa antolatzen aritu zen bere aita eta haren bitartez, txistulari taldeak ere parte hartu zuen. Euskarazko abestien liburu bat zeukaten eta handik ikasten zituzten kantuak. Kanturako lehiaketa bazen ere, txistua jo zuten. Gaztetxoek parte hartu zutela kontatzen du.

Transkripzioa

- Hemen dakat be bai, txistu eskolakuen lehenengo emanaldixa milla... bueno, ez dakit, urtia ez dakit zein zan, baiña txistu eskolakuen lehenengo emanaldixa izan zala Gabon kanten lehiaketia.
- A, bai. Hori izan zan... Centro Urbitarte zegoen lehen. Hori izango zan? Centro Urbitarte zegoen, bueno, elizako zentro bat, elizako areto bat zen, tabernia zakan eta gero zakan, ba, bueno, saloi bat. Hemen lehen ez zeuen. Sali bat hitzaldiak-eta emateko. Ta hitzaldiak-eta ematen zian han. Eta han egin zan txapelketa bat, gabon-kanten txapelketa bat. Eta antolatzen hor ibiltzen zan nere aitta. Eta nik uste dot nere aittak pixkat aprobetxau zabala, ba, ya zegoela hori, ba txistulari talde bat eruan eta bertan joteko.

- Eta euskerazko kantuak izango zian, ez?

- Bai, bai, bai. Hor zegoen... rebista bat dago `Txistulari´, txistularixena, eta handik ateratzen ziran batzuk, baiña gehixena zegoen beste liburuxka bat partiturekin eta han zeuden ba `Uso zuria´, e... gero... tipikuak. Oln ez naiz akordatze, baiña danak euskerazko abestiak. Eta handik ikasten gendun eta harek jotzen gendun.

- Baiña gabon kanten lehiaketa hori zan kantuan edo...?

- Bai ba. Gabon kanten lehiaketa izan zan kantuan, baiña gu egon giñan txistua jotzen... nere ustez izango zan, ba, bueno, esango zaban nere aittak: "Hor sartuko zaittuet eta holan jentia ikusiko dau ere txistua ez dala bakarrik kalia joteko, ba, jo leikela konzierto bezela ere jo leikela". ç

- Eta zeñek parte hartuko ote zeban hor, lehiaketan? Herriko jentia edo...?

- Lehiaketan abesten herriko jentia.

- Umiak edo...?

- Bai orduan umiak, umiak. Umiak zian. Bueno, umiak... Baiña umiak batzuk igual ya tendrían... Ni akordatzen naiz hor... zera, entzungo zendun, Pitxintxunekuak Marijo ta... haren kuadrillakuak, igual... haren kuadrillako batek gitarria jotzen zaban, Arratek, eta badakitt harek egon ziazela abesten, kuadrilla bezela. Orduan, bai, eukiko zebe 14 urte, 15 igual? Udaberri zakan izena, gaiñera, kuadrilliak. Eta irabazi zebe edo ez dakitt. Baiña gero... bai, baiña ume-umiak ez zian, ya... bueno, pixkat...

- Esan nahi dot ikasi, nunbaitetik ikasittako eukiko zittuen be bai euskerazko kantuak eta...

- Bai. Bueno, gero... bai. Nere ustez orduan Olentzero... ez zeuan oindiok. Gerotxuau bai? Olentzero hasi zan... bueno, hor bueltan hasiko zan Olentzero. Elgoibarko "Juventud elgoibarresa" hasi zan Olentzerori bultzatzen, lehenengo Olentzero horrek. Gaiñera, direktore zauan Igartua. Bai. Eta nik uste dot hor ere bai, horko taldekuak... Baiña lehiaketa horretan gaztetxuauak egongo zian. Baiña izan zian Elgoibarkuak. Baiña hori urte baten-edo antolatu zan, edo pare bat urte bakarrik.

2.75. Euskara irakasle institutuan

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Soraiz, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: EGB-125/024
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:51:36. **Bukatu**: 00:54:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena**: Institututik euskara emateko deitu zioten. Bere kontratuan euskara irakasle zela jarri beharrean, bestelako hitzekin adierazten zen, ezkutatzeko. Eibarko institutuko filiala zen Elgoibarkoa. Enrike Larrañaga zen institutuko zuzendaria, eta Pello idazkari eta euskara irakasle hasi zen. Soldadu joan zenean, ordezkatu zutenen izenak ematen ditu.

Transkripzioa

Gero handik etorri eta institutoan hasi nintzan. Eta institutotik deitu ninduten euskera emateko. Baiña oindik ez zan ofiziala eta nik dakaten lehenengo kontratua da hirurogeta... ez dakit, hamazazpian edo, "profesor de segunda lengua vernácula" edo holako zera bat jarrita, baiña "euskera"

ez zan agertzen. Kontua da ikastolako gurasoak... edo lehenengo promozioa ikastolatik institutorea joateko zorian zeudela eta institutorea 76an inauguratu zan. Eta lehenengo zuzendaria Tomas Uribetxeberria Eibarren eta hau zan Eibarko institutoko filiala edo auxiliarra edo. Eta hemen jarri zuten Enrike Larrañaga Elkorobarrutia- apaiz izandakoa, orduan apaiza zan, eta- horko zuzendari. Ni hartu ninduen idazkari eta beste Zornotzakoa baiña Eibarren bizi dan Joxe Ramon Kortabitarte ikasketaburu. Eta ni euskera ematen. Eta, hasieran, lehenengo urtean hemen eta Eibarren emateko. Eta hemen hasi... hasi bai, baiña gero soldau jua nitzan. Eta nere partez, nahiz eta lizentziatua ez izan nere emazteak-euskerazko titulua bai- nere emazteak eta Joxe Ramon Ezenarrok -gure kuadrillako bat zan, euskera titulua D aterata zaukana- eta bi hoien artean, nere emaztea, Maria Isabel Aizpurua Zabala eta Joxe Ramon Ezenarro, biak aritu ziren, ni soldau egon bitartean, euskera ematen. Eta Eibarren osatu behar nuenez ordutegia, Imanol Larrañagak eman zitun Ignacio Zuloaga institutuan nik eman behar nituen klaseak. berak eman zitun.

2.76. Eskola Profesionaleko lehenengo euskarazko klaseak; programazio-lengoiak euskaratzen

- **Hizlaria(k):** Konde Zubiaurre, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-137/007
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:12:28. **Bukatu:** 00:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
 - Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- **Laburpena:** Eskola Profesionaleko euskara adarrean berak kontabilitatea eta informatika ematen zuen eta Karlos Ansolak matematika finantzarioa. Beraiek izan ziren gai horiek euskaraz ematen lehenak. Mailaz maila joan ziren irakasgaiak euskaraz txertatzen. Gogoan du programa informatikoa pirateatuta ekarri zuela eta institutuko irakasleei irakasten jardun zuela. Fakultatean programazio-lengoiak liburutik ikasten zituzten. Gero Cobol eta Basic programazio-lengoiak euskaratu zituen Elhuyarrentzat. Mandatuak ikasteko komiki bat ere egin zuten.

Transkripzioa

- Mekanikara bueltata, nere lankidiak, euskerazko adarrian, bazauden. Karlos Ansola. Horrek ematen zaban matematika finantzierua. Nik kontabilidadia ematen naban bezela. Gero Mariasun etorriko zan, baiña uste dot beranduau dala.

- Orduan hasi ziñan lehenengua euskeraz emoten...

- Kontabilidadia bai. Eta hau, Karlos, bestia.

- Bixok. Zuek izan ziñazien...

- Bai.

- ... Mekanikan euskeraz zeozer emoten hasi zian lehenengua.

- Bai. Baiña copyright-a ez daukat, e! Ez dakit seguru-seguru, baiña baietzian nao. Eta horrek zian 5 urte; orduan, jun giñan urtetik urtera. Hasi giñan "preparatorio" eta 5.enera allegau giñan. Preparatorio zien... bueno, aurretikan, eta gero Lanbide Heziketa zan bi urte ta Lanbide Heziketa

bigarren mailla edo ez dakit zela deitzen zan, LH1 bi kurso eta LH2 hiru kurso. Orduan, ein gendun danak eta neuk kontabilidadia eta informatika. Informatika zien hola oin deitzen... oin Office deitzen dana, word, excel, acces... Bueno, acces gitxiau, baiña... Oin gehixau erabiltzen da power pointa. Lehen ez zauan hori. Baiña zauden beste batzuk, assistant seriea, eta zan writing, filing... ta ez dakit zer. Ta hori pirateauta hasi giñan erakusten. Ni Eibarko lagun batekin, Jabi Arresekin, ikasi neban laboralian eta ez dakit zela pirateauta ekarri neban hona. Eta gero egon nintzan erakusten institutuan honek, Andres, Iñasio, Angel... horreri. Baiña bai zan... Informatika... Kontuan izan, ni Bilbon, fakultadian, informatika zeuan liburu baten. Egun bat -egun bat- danok juten giñan Banco Bilbao Vizkaya-ko ordenadora ikustera, holako gela haundi baten -hau zabalian, baiña alturan- ta ikusten genduan "hau da ordenadore bat", buelta. Eta klasia zan liburua. Eta zien lengoaiak, programatzeko lengoaiak, ez aplikazioak. Eta lengoaiak itzultzen -lehenguan akordatzeko- usten dot zala Cobol lengoaiak egon nintzana Elhuyarren babesarekin itzultzen. Eta... Nik itzultitakoa dana orrazten zuten. Nere maila ba ez zan [profesionala]... baiña bueno. Eta gero beste hizkuntza... o beste lengoaiak bat usten dot zala Basic edo holakon bat. Ez naiz akordatzeko. Gero ein gendun komiki bat ere, ikasteko... zien honek mandatuak, COPY-C eta bezela, ein gendun komiki bat eta hori euskeratu gendun ere.

2.77. Matrikulazioa igotzeko, zerbitzuak eskaini behar

- **Hizlaria(k):** Castilla Molin, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-143/014
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Bi eskola publikoek gain, eskola pribatua (Pilar) eta ikastola zeuden Elgoibarren. Eskola publikoko matrikulazioek behera egin zutenean, beste ikastetxeek eskaintzen zituzten zerbitzuak eskaini beharra ikusi zuten. Bi urtekoen gela jarri zuten martxan eta jangela-zerbitzua ere bai, baina zeuzkaten baliabideekin moldatu behar izan zuten hasieran.

Transkripzioa

- Hasieran, bueno, A eredu...
- Bai, geu giñen A eredu. Bai.
- Eta zelan jua zan gero hori...?
- Gero, nik Imanoli aurreko egunian kontaktzen nion. Elgoibar da herri txiki bat. Eta, orduan, herri txiki bat eta lau eskola martxan: pribatua, ikastola eta bi publika. Ta orduan ez zegoen umerik hornitzeko eskola guztiak. Orduan, geuk ikusten genuen denboraren poderioz gure matrikula jeisten ari zela. Alde batetik geneukan pribatua eta beste aldetik geneukan ikastola. Orduan, heltzen zen matrikula garaia eta geure kopurua gero eta txikiagoa zen. Orduan eskolan zegoen erronka bat. Geuk eskola aurrera eramatea nahi genuen eta ikusten genuen etorkizuna nun zegoen. Orduan beste eskolek gurasoei eskeintzen zituzten baliabideak geuk ere eskeini behar genituela. Orduan geuk... hasi giñen... pues, lehehenengo, pues hori:

hartzaindegia. Geuk hartzaindegia ez genukan, 3 urtetik gora zetozen gure ikasleak. Orduan zer pentsatu genuen? Departamentuari eskatu genion laguntza eta jarri genuen martxan 2 urteko gela; gutxienez bi urtetik gora hartzea posible genukan ikasleak. Eta, klaro, departamentuak zer esan zigun: ez, martxan jartzea posible duzue, zuek erabiltzen badituzue dituzuen baliabideak. Eta, klaro, geuk honela egin genuen. Pentsatu genuen aber zein irakasle izan zitekeen aproposena hori egiteko eta gero beste aldetikan ere bai eguardian gelditu behar bagiñen ikasleekin zein irakaslek geneukan ordurik edo... posible geneukan gelditzea ikasle hoiekin emateko bazkaria. Eta honela lortu genuen, zeren eta 2 urtetik gora matrikula ofiziala izatea etorri zen askoz beranduago. Baiña urte... urtea, konkretuki, ere ez.

3. Natura

3.1. Txori izenak

- **Hizlaria(k)**: Gurrutxaga Garate, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EGB-001/021
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:36:35. **Bukatu**: 00:37:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Natura » Fauna
- **Laburpena**: Txori izenak: zozoa, birigarroa, hegabera, "durduria", "eskillaraso"; etab.

Transkripzioa

- Esan dozu txori konturik eta zuk...
- Ez, nik kaza, kazarikan ez dot sekula, sekula ez dot eskupetarik ibili.
- Baiña izenak bai, txorixen izenak eta.
- Txorixak bai.
- Nik nahi dot jasotzia txorixen izenak eta, ze diferentia da Markiñan modu baten, eta Eibarren beste baten, ta Elgoibarren beste baten.
- Hori, gauza guztiekin eitten da hori, e? Hori gauza guztiekin.
- Eta zeuek hamen San Migelen zelan esaten dozue, txorixak eta. Zeintzuk dira hamen...
- Txorixak?
- Bai.
- Zozua, birigarrua ta, eskillazua, durduria, ta izen gehixao ere bai. Gero horrek, kanpoko txorixa etortzen danian, hegaberak eta esaten diue.
- Etxoin, apuntau eingo dittut.
- E?
- Apuntau eingo dittut.

3.2. Txori izenak; mozoloa

- **Hizlaria(k)**: Gurrutxaga Garate, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EGB-001/023

- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:39:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Natura » Fauna
- **Laburpena:** Txori izenak; mozolua.

Transkripzioa

- Dibujuekin.
- A! Ez dakit ezautuko [deten] hoixe. Zozua ta horrek lehen sasoi baten baiña horrek desaparezidu ein dia.
- Gitxi?
- Ez dakit zerek ein daban hori. Desaparezido. Hortxe kanpotik datozenian etortzen dia baiña ostientzin...
- Eta gabekuak, gabian eta ibiltzen diranak holakuak?
- Hori zera, euskeraz mozolua esaten diot nik.
- Mozolua?
- Mozolua. Erderaz ez dakit zela dan ere.
- Eta hontza?
- E?
- Hontza.
- Hontza? Hontza beroni uste det esaten diuela.
- Baiña zeuek ez.
- Mozolua guk baiña hontza, hontza bai, hontza.
- Entzunda bai baiña zeuek ez dozue erabiltzen hori.
- Zuk entzunda bai hontza baiña erabili ez.
- Ez, nik sekula eskuan ikutu ere ez.
- Eta gau-txorixa?
- Gau-txorixa, gau-txorixa, berorri ez dakit ez diuen esaten. Gau-txorixa beroni, gabaz beori ibiltzen da marrusaka. Bai, berorri uste dot.
- Gabian ibiltzen dian jentiari be bai ezta? Gau-txorixa.
- E?
- Gabaz ibiltzen dan jentiari be bai, ezta? Gau-txorixa.
- Bai.

3.3. Lilia, loreen erregina

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/034
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:39:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Natura » Flora
- **Laburpena:** Loreetarako zaletasuna du. 'Lilixua' (lilia) ei da loreen erregina. Arrosak eta beste lore mota batzuk ere izaten ditu. Ortuan ere egiten du lan apur bat. Oparitu egiten ditu loreak.

Transkripzioa

- Betidanik euki dozu afiziño hori (loreetara)?
- Gaztetan ez nakan, porke gure amari ez zitzakon gustatzen lorarikan ta. Gero, gero hartu dot, gero.
- Ortuan eukitzen dittuzu lorok?

-Oin lorak... Larrosak, oin ez dago ezer, e! Baiña neguan ez dago, baiña egoten dia oso polittak.

-Eta zein da zeuri gehixen gustatzen jatzun loria?

-Gehixen? Bueno... lilixua da "el rey de las flores", lilixuak. Danak, larrosak eta jeraniuak eta. Gauza asko, danetik dakat.

-Jardiñik edo badaukazu etxian?

-Ortuan, hortxe. Ortuan lana ere eitten dot pixkat oiñ ere. Honbre. Pixkat, etxerako zeoze, etxerako hartzen dot, tomate batzuk eta, patatia ta, etxerako. Honek laguntzen dia.

-Eta lorokin zer egiten dozu, etxian adornuak ipintteko edo saldu edo...

-Ez, saldu ez, erregalo eiñ. Ta etxian ipiñi ere bai, eta hortxe egoten dia dotore. Baten batek eskatzen badia, ez diot kobratzen nik lorarik.

-Depora pasa orduan?

-Denpora pasa. Entretenitzeko.

3.4. 1956. urteko izozte gogorra

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Garate, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-057/036
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 01:28:43. **Bukatu**: 01:32:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Natura » Fauna » Hegaztiak
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Bera izan zen lehena basoan pinua sartzen. 1956. urteko izozte handia gogoratzen du. Pinu asko lehorteaz gain, txori asko hil ziren otsail hotz hartan. Hainbat txori klase aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Honek basuok oin danak pinu ikusten die ta oin dala 40-50 urte ez zan pinurik bakarrik be egongo, ezta?

-Hamen ez. Piñua geuria lelengo-lelengo hor goixan. Hamen esan dotena, Barrundixa esaten jakona, hor barrenian [Itziak?] sartu zaban alertza sartu zaban, milla landara, zati bat. Bi hetarea daukaz eta bi hetarea beheko barrenian bidian azpittik, San Pedrotikan San Migelerako karreteria. Lehen ere autuak joateko besteko zabaleko biria zeuan San Pedrotikan bueltan San Migelera lau-lau-lau, bueltan. Eta haretxen [...] puntan eta hauraxe hor zauan goizaokorikan. Gero're izoztia kuarentayunuan tokau zan, ezta? Ez, zinkuentayseisian. Orduan hamahiru urtekua han goixan Urkiolako etxaburuan hetarea bat pasauko saila jota dana siketuta laga zaban, siketuta gero, e!

-Izozte haundixa izan zan?

-Pufff! Izotza... Hillabete febrerua!... Ezta hamen ointxe egun honetan ein daben hotzenian beste beste egun guztietan hillebete, e. Ez euzkirik ikusi, dana holaxe laiñua, eta tti-tti, tti-tti noizian edur pikorta bat eta edurra holako bat lodi, hamabost bat zentrimetro, ez zaban loditzen eta ez zaban kendu, eta hortik hona txorixa hori! Birigarrua, hori bestia durdulia; durdulia joan zan, jo! Josumus!, zelako bandararak durdulak; hegaberia... Usurikan ez naban ikusi, baiña ostian kalandresa... Gehixen-gehixen durdulia eta birigarrua-ta hegaberia-ta... Josus!, danak hamen zihar. Bai,

hartzen zittuan jan haiziak eta han hartzen zittuaneko hamen Kalamuan ezkututzen zittuan koittauak. Santanderren eta plaian beltz, bel-be-bel-beltz dana, danak joan eta jatekorik ez eta danak hantxe akaau. Hantxe lurmena hantxe billau ta bajatu hantxe ta jatekorik ez eta. Belazarrak'e gogorak dia baiña han gure [Ezkuntza] aldeko saillian akaau zian hiru. Hiru edo egongo zian itxuria eta hirurak piñuetan han zauden bertan txokuan jarri ta bertan hil, akaauta. Hillabetian...

-Hori ze urte esan dozu izan zala?

-Zienkuenta y seisa, cienkuenta y seis. Cinco seis. Pufff! Cuarenta y unuan haizia. Oin ein dau eta orduan ere...

-Trena eta bota ebana, ezta? Hor Zarautzen edo trena ez eban bota haiziak?

-Bai. kuarentayunuan bota zaban. Atzeko kotxian beratzi itto zian. Erdixan geratu zana ez zan uretara aillegau baiña bestia hondokua uretan eta atzeko buztanian zixena behera eta uretan zaudenak itto. Orduan Donostiatikan etxera etorri nitzan ni haura han zeuala.

-Zu soldau zegozen orduan?

-Bai, ni orduan begira egon nitzan eta haura azpikua ta artian etaratzeko zauden eta. Hori barixakua edo izango zan eta ni zapatuan etxera eta han zauan behera txintxilixka haura.

4. Familia eta harremanak

4.1. Aizpizkar baserrian jaioa; baserri ingurua

- **Hizlaria(k):** Agirregomezkorta Ibarluzea, Ventura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Abarrategi, Iratxe
- **Erref:** EGB-004/001
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1916ko apirilaren 14an jaio zen Aizpizkarbekoa baserrian. Non zegoen baserria azaltzen du. 17 urterekin Sigmako Olasartera joan zen zerbitzatzera. Aurretik etxean baserriko lanak egin behar izaten zituen. Fruta-arbola asko zituzten etxean: gereziak, sagarrak... klase askotakoak. Saturio inguruko sailetan intxaurrak zituzten. Harrobia ere hurbil zuten eta bertako harriak eurenean txikitzen ziren.

Transkripzioa

- "Catorce de abril, el año mil novecientos dieciséis".

- Ta nun?

- Aitzbizkarren, Aitzbizkar Behekua, Sigmatikan hola beitzen dezu lehenengo basarrixa. Eibartikan zatozela, ez dakizu? Hola, e... esto, hori hola garajia ez da ikusten "unas patas"... Saturixo?

- Bai.

- Handikan [...] bueltia ta ra! Ikusten da, ba, Aitzbizkar? Hauraxe da. Ni hangua naiz.

- Eta gero, aber, zenbat urte arte egon zihan baserri hortan bizitzen?

- Ni, ba, hamazazpi urte edo... gehixao izango zan, ba, zerbitzera urten nabela estreiñeko. Nere aizta ez, haura lehenao. Olasarte, Olasarte entzun dezue sekula? Sigma ta aurrekaldian txalet bat zan [Olasarra]. Han egon zan. Eta ni hamazazpi urtekin etxien, soroko lanak, danera e! Basarriko

gauzia dana! Danera. Ta gurien zien, gaiñera, sagarrak ere bai klase danetikan ta holan, keixak ere bai, arbola edarrak, onak e! Bai ba, tratantiak zela zien, Vitorixan ikusten zeben gauza guztia ekarri eitten zaben. Sagarrak ere bazien madarixak bezelakuak ta klase asko! Han bai ta esto... kindak ere bai, "conserva guindas". Arbola onak, horrek danerako balio debe. Ta beste batzuek, badakizue? Han Saturixotik bueltia hartu ta da! zubixa? Zentrala? Han gero bestekaldian zien, haura guria zan, gure aittak-eta erosittakua, edo aittittak-eta ibairaiño. Eta han zien intxaurrak halakotxiak, e! Zortzi, illeria! Ezkerrera. [...] kanteria, kanteria ere bai, harrixa goiko zerian etara ta gurien makiñak, gure partian, han xehetu ta...

4.2. 11 anai-arrebatatik bi umetan hil ziren

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref**: EGB-008/002
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:02:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Armaitta baserria txikia zen. 11 anai-arreba ziren eta bera hamargarrena zen. Bi senide umetan hil ziren, eta berak ez zituen ezagutu.

Transkripzioa

- Zure baserrixa, jaixo ziñan baserrixa zelakua zan? Haundixa?
- Ez, txikie, txikie zan.
- Txikixa zan?
- Bai. Armaitta behekoa txikia zan. Ta hamaika anai-arreba giñan. Bai. Ta ni nitzen hamargarrena.
- A. Orduan bizi ziñaten zure aitta, zure ama ta hamaika anai-arreba?
- Bai. Baiña txikiten hil ziren bi, hil ein zien. Ez nittuen ezautu nik txiki bi harek.
- Ya.
- Baiña beste bederatzi bai.
- Bueno, zure aittak zertan eitten zaban lan?
- Basarrixan. Nere aittak...
- Basarrixan, ezta?
- Nere aittak, e!
- Zure aittak, bai.
- Bai. Basarrixan, Armaitta behekuan, basarrixan.
- Baserrixa eitten zaban lan, eta amak ere bai?
- Baita.
- Baserrixa lan ein eta baserriko bizimodutik bizi ziñaten.
- Bai.
- Oso ondo.

4.3. 16 urterekin lehenengo aldiz erromeriara

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Gurrutxaga, Juliana

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref**: EGB-008/003
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:02:32. **Bukatu**: 00:03:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Umea zela baserrian lan asko zegoen eta ez zen San Lorenzoko jaietara joaten. 16 urte ingururekin irten zuen lehenbizikoz erromeriara.

Transkripzioa

- Zelakuak zian kaletako festak? Sallobenteko festak txikitan? Gogoratzen dittuzu?
- Bai, umetakuak bai, baiña gutxi, [...] etxien ta.
- A, lan ein bihar zan.
- Lan ein bihar zan.
- Baserrixan lan asko...
- Ta etxian ein ein bihar.
- Etxian ein ein bihar. Jateko? Bai. Orduan, zu ez zera akordatzen San Lorentzoko jaixak zelakuak zian.
- Bai. Akordau bai, hola. Kalbaixuetara ta bajatzen nitzan. Baiña ostontzian ez nintzan erromerira ertetzen. Nik hamasei urtekin erten neuen erromerira. Hamasei urterekin.
- Hamasei urterekin, bai. Orduan, esan diazu lan asko zauala etxian, eta etxeko lanak eitten zenittuzten danok? Aittak, amak, zuek seme-alabok, danok?
- Danon arte.
- Zure anaixak ere bai?
- Danok.
- Danok?
- Harek, e... taillerrien, joaten zien harek, baiña gu gaztiok, ba, ahal dan lekuen, etxien, etxien.
- Ya. Zuek etxian egoten ziñaten. Baiña anaixak eta ya urtiak aurrera jun ahala ya taillerrera juten zian.
- Bai, taillarrera ta krieda, ta holan.

4.4. Baserriko askan bainatzen ziren ezkutuan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref**: EGB-008/008
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:12:35. **Bukatu**: 00:15:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

- **Laburpena:** Erromerietara hasi aurretik ez zen lagunekin gelditzen eta gero segituan mutilarekin hasi zen. Hondartzara ez ziren inoiz joaten zer zen ere ez zekiten eta. Batzuetan baserriko askan bainatzen ziren, baina ilundutakoan, ezkutuan, lotsa ematen zien eta. Kalean ere ibiltzen ziren eta baita txikitoak edan ere.

Transkripzioa

- Eta nun elkartzen ziñaten zuek, zuen neska kuadrillia?
- Ni erromerixara hasi aurretik, hamasei urtera artien, iñun ez, ta gero orduan hasi giñanien, ni nere adiskidiekin hasi nitzen segiduen.
- Zure gizonakin?
- Bai, nere gizona izandakuakin, nobixuakin.
- A, zure nobixuakin, bai, bai, bai. Eta erromeixan eta kalian ertetziaz aparte, zuek juten ziñaten, ba ez dakit, mendira o hondartzara o nunbaittera?
- Ez.
- Ertetzen zenduten? Ez.
- Hondartzara ez, mutillek ez zaben ezautzen eta guk ez genkixen zer zan hondartza ere. Urak billurra ematen zian. Pregaderan bakarrik ura.
- Ya. Hondartzaa?
- Ez, ez. Mendira ere gutxitan. Ba eukitzen genduen geure [barrixo...] erromeixa, ta haraxe juaten giñan [...] dana.
- Eta herrira jaisten ziñaten, kaleko, ba Maala edo Errosario kalera ta?
- Bai, bai, bai, kaleko erromeixetara bai.
- Lagunekin ibiltzera-ta jaiste ziñaten?
- Ez, San Bartolome ta Trinidadeta ta horretan bai, e, bai, bai.
- Herriko jaixeta orduan bai.
- Bai, bai.
- Eta tabernetan ibiltzen ziñaten?
- Bai, merienda batzuk eitten genduzen tabernan ere ta txikito batzuk hartu ere bai ta...
- Ardua?
- Ardua.
- A, bueno, bueno. Ondo, ondo, ondo dao hori! Ondo dao hori! Eta errekan ta baiñatzen ziñaten gaztetan? Plaia ez baziñaten juten...
- Bai.
- Errekan-ta baiñatzen ziñaten o ez?
- Ezkutuen, ezkutuen, bestien ezkutuen, lotsau eitten giñan-ta, bestien ezkutuan. Albergan ta, askia zelan esaten jako, ba? Ura egoten da han baserrixetan, askie.
- Askia, bai, bai, bai, badakit zer dan.
- Albergie.
- Bai.
- Hantxe ta han illundutakuen.
- A bai? Han? Ondo, ondo, bai.
- Illundutakuen, lotsia eukitzen genduan-ta.
- Ta "Upai-Goitxi"n edo hortikan ere?
- [...], baiñau.
- Baiñau "Upai-Goitxi"n?
- Astixa bazeuen, [ahal dan moduan], baiñau.
- Ondo, ondo.
- Baiñujantzixa erabili barik?
- Ezta pentsatu ere ez!
- Lehen ez zauan.
- Atzera lehengo erropak jantzi ta...

- Lehen ez zauan holakoik?
- Ez, [...], ez.
- Oingo kontuak dia?
- Guk ez behintzat. Oingo kontuak, [zenbat kontu...] polittak.

4.5. Debara joaten ziren trenez

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref:** EGB-008/009
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:16:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Ez du inoiz erre izan eta ez zitzaionez usaina gustatzen, senarrak ere oso gutxi erretzen zuen. Gaztetan bi bikote ibiltzen ziren sarri elkarrekin. Batzuetan trenean Debaraino joaten ziren.

Transkripzioa

- Ta esan dezu ardua eraten zendutela, ta erre? Zigarruak eta?
- Sekula santan nere atzaparretan ez da sartu erretzekua.
- Eta gizonak? Bai.
- Ezta.
- A, ez, e?
- Puru batzuek...
- Zure gizonak esaten det, bestela, zure gizonaz aparte, beste gizonak. Gehixo erretzen zebe gizonak emakumiak baiño?
- Ezta. Gu laukotia ibiltzen giñan jeneralian, laukotia: kuñau gaixa, kuñata gaixa eta nere lagun gaixa eta ni eta harek ez zebe erretzen ezer-ezer ere. Nere gizonak puru banakak, baiña zigarruak pentsatu ere ez. Puru banakak bai, baiña ez zaten gustatzen neri usain haura... baiña gutxitan erretzen zaban.
- Ya, ya.
- Neri ez zaten gustatzen.
- Eta gaztetan nunbaittera juten ziñaten? Trena hartu, adibidez, eta nunbaittera jun?
- Baita.
- Juten ziñaten nunbaittera?
- Debaraiño jueten giñan, iñoiz-iñoiz.
- Debaraiño?
- Handik aurrera trenik ez bazauen ere ez genkixen guk handik aurrera.
- Ya.
- Ta Debaz aparte, Bilbora ta hola?
- Ez, ez, ez, ezta pentsatu ere ez.
- Ez, ez, ez.
- Ezkondu nitzanian, Donostira aillegau nitzan ni, [...].

4.6. Ermuaran-Sallobente auzoko taberna eta denda

- **Hizlaria(k):** Elustondo Aizpiri, Mariano

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref**: EGB-010/001
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Ermuaran-Sallobente auzoko Maiorta baserrian jaio zen 1910ean eta bertan bizi izan zen ezkondu artean. Sallobaneten behar-beharrezkoak ziren gauzak erosteko dendatxo bat zegoen. Taberna eta jantokia ere bazeuden bertan.

Transkripzioa

- Zu akordatzen al zea nun ta noiz jaixo ziñan?
- Noiz jaixo nintzan nola akordauko naiz ba ni, hori gauza zailla da, e! Maiortan jaixo nitzan ni, "caserío Maiorta".
- Maiorta?
- Bai. Hortxe goratxuaon dao hori.
- San Lorentzo baillaran?
- Bai, bai. Hantxe jaixo nitzan ta...
- Oin dala larogeita bederatzi urte, ez?
- Bai. Ta hantxe hazi ere bai.
- Ta gero nun bizi izan ziñan, han ere bai?
- Bertan bizi hona etorri... ezkondu artian.
- Orduan, ezkondu arte...
- Han.
- Han bizi izan ziñan ta ezkondu ziñanian, hona.
- Ezkondu nintzarian, hona.
- Zenbat urtekin ezkondu ziñan? Jakitzeko pixkat hona zenbat urtekin etorri ziñan.
- Hogeita hamaika urtekin.
- Hogeita hamaika urtekin. Oso ondo. Gogoratzen al dezu orduan, San Lorentzon dendarik edo bazauan?
- San Lorentzon? Bueno, San Lorentzon zauan...
- Umia ziñanian, e!
- Bai, bai. Umia, eskolan-ta San Lorentzon ibiltzen giñan gu. Ba zauan, ze esango dizut ba, mostrador bat zauan, ezta? Ta handikan zerbitzen zeбен. Hola denda... denda zerik, e... espezialik ez, e! Biharreneko gauza batzuek egoten zian han, bai.
- Bihar, bihar-biharrezkuak zian gauzak?
- Bai. Gauzak e... egoten zian han [denda guztian] ardaa ta holako gauzak egoten zian.
- Ta nun zauan, San Lorentzon?
- San Lorentzon bertan.
- Bertan, hango etxian?
- Eon, eonda zaude San Lorentzon?
- Bai, egonda nao.
- Ba atian sartu eta eskubira bertan dao. Lehelengo atia da hori zeori; oin, gaur ez dakit nola egongo dan. Ta han zauan ta...
- Frontoian onduan dauan etxia [han oin tabernia...]?
- Bai, frontoira... handitxikan bidian. Hantxe zauan hori dendiori edo ardandegixori, hantxe zauan.
- Ta ze saltzen zeбен? Akordatzen zea?

- Saltzen zebeu ba... gero tabernia zauden han. Ta tabernia [klaro] komedora ezkertera. Barrura sartzen aurrera komedora eta han jendiak e... jan edo zertzen zaban. Bai, taberna ona. Bai, hantxe, San Lorentzon.
- Eta tabernia orduan esan diazu ere bazauala?
- Bai.
- Taberna bakarra.
- Tabernia bai.
- Hantxe.
- Han ez zauden beste... oin, gaur e... soziedadia ta badaude, baiña orduan bakar-bakarra, e! Bakarra.

4.7. Aita gazterik etorria Maiorta baserrira

- **Hizlaria(k):** Elustondo Aizpiri, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref:** EGB-010/003
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Aita ez zen elgoibartarra, baina zortzi urte inguru zituela etorri omen ziren Maiorta baserrira. Zortzi anai-arreba ziren eurak, baina kanpotik ekarritako beste bi ume ere hazi zituzten. Bera zen gazteena; bere aurreko anaia pulmoniarekin hil zen.

Transkripzioa

- Familixia zuria ere elgoibartarra izan da?
- E?
- Elgoibartarra familixia, zuria?
- Familixia bai.
- Bai?
- Bai. Aitta e... ez zan elgoibartarra izango, baiña zortzi urtekin-edo etorri ziala hara baserrira, ta ba bestiok, berriz, anaixok eta arrebok danak e... bertakuak.
- Han e... umetan, e... baserrixan, jaixo ziñan baserrixan, zeintzuk bizi ziñaten? Aitta ta ama...?
- Aitta ta ama ta beste... zenbat esango dizut? zortzi giñan gu.
- Zortzi anai-arreba?
- Bai ta bat hil ein ei, nere aurrekua, nik ez naban ezautu, baiña hil ein ei zan hiru hillabetekin-edo pulmonixan. Gero beste bi hazi zian kanpokuak.
- Bi etorri zian kanpokuak?
- Kanpokuak, oseake, haren lugarrerako ekarri zebeu bat. Ta gero, haura txikixa zauala, beste bat etorri zitzakuen hareri ta gero bi hazi zian.
- A, ya.
- Bi hazi zian. Asike, ba, zortzi ta bi hamar.
- Hamar, edarki. Orduan esan dozu bat pulmonixiakin hil zala? Hiru hillabetekin-edo.
- Bai. Hiru hillabete uste dot zittuala harek. Esaten debenez, e? Ni baiño zaharraua zan ta nik ezin haren berririkan zertu.
- Aitton-amonak zuekin bizi zian?
- Aitta ta ama bai.
- Aitton-amonak.

- Aittitta-amonak, nik aittitta justu-justuan ezautu naban; amama ez, berriz.
- Anai-arreben artian, zenbagarrena ziñan zu?
- Gaztena. Gaztena ta hurrenguari sei urte.

4.8. Elgoibarren jaioa 1907an

- **Hizlaria(k):** Iriondo Garate, Teodosia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref:** EGB-011/001
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Elgoibarren, San Francisco kalean jaio zen 1907an. Aita baserrikoa zuen eta ama, berriz, kaletarra. Gaztetan, Kubara joan zen hangoei abarketagintza erakustera.

Transkripzioa

- Eta noiz jaixo ziñan?
- Ni, "día siete. Del siete de abril". Bueno, de... ez dakit, "mil novecientos..."
- "Siete".
- "Siete", bai, oin ez dakit zenbat urte dan. Bueno, badakit zenbat daukadan.
- Bai, larogeta hamalau urte.
- "Noventa y cuatro" daukat.
- Oso ondo. Eta nun jaixo ziñan?
- Hemetxe, Elgoibarren.
- Baiña nun, baserrixan? Baserrin baten?
- Ez, kalian. Aitta zan basarrikua ta ama kalekua.
- San Frantzisko kalian jaixo ziñan?
- E... zerian, San Frantziskon, San Frantzisko kalian.
- Han jaixo ziñan?
- Beti han, bizi ere hantxe eon, [ein naban], oin ez, oin e... bueno, oin ere han inguruan, residentzian nao-ta.
- Orduan jaixo ziñan San Frantzisko kalian ta bizi guztia hor bizi izan zera?
- Bai, ez. Kriada ere ibili nitzan.
- A, bueno. Orduan, jaixo ta kriada jun arte etxe hortan egon ziñan ta...
- Elgoibarren. Kuban ere egon naiz ni.
- Bueno, bueno, bueno! Aber, ointxe horrena hitz egingo degu, orduan.
- Gauza asko eukiko dittuzu kontatzeko ordun?
- Eta industria jartzera, e! Hara.
- A bai?
- "De turismo" ez. Beti lanian. Ni jun nitzan, bi neska juteko giñan, baiña beste haura pixkat makal samarra zala ta haura urruti zauala gaixotzen bazan ere. Ni ez, ni beti izan naiz fuertia. Vamos, gaixo... han ere buruko min bat ere ez naban euki. Eta barkuan ta danak. Orduan, hau e... "El Cantábrico"- edo "ola" asko dao hor itsasuan. Ta hori pasau arte neu ere mareau ein nitzan, e! Gehixenak mareatzen dia, baiña ostian ez, gero ederki. Ta Kuban izan giñan alpargaterixia ipintzia, e... jartzera. Industria. Ni... ni erakustera.

- Taller bat irekitzera?
 - Erakustera hango...
 - Hango jendiari?
 - Bai eta...
 - Zertan erakusten zenion?
 - E?
 - Zertan?
 - Han?
 - Erakutsi zer?
 - Ondo egon nitzan, e... esaten zien "Teo —Teodosia naiz ni—, Teo, usted ha caído aquí con buenos pies [...]" Han neskia ederragua nitzan askoz ere hamen baiño! Bai, ez dakit zegatikan e... hango euzkixak eta gauzak, e...

4.9. 1909an jaioa Elgoibarko Usetxe baserrian

- **Hizlaria(k)**: Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-013/001
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1909. urtean jaio zen Usetxe baserrian eta bertan bizi izan zen ezkondu arte. 25 urterekin ezkondu zen Elgoibarko Prudencio Iribarrenekin.

Transkripzioa

- Usetxe baserrixan?
 - Abrillan hogeta bixan.
 - Milla bederatzirehun ta zortzigarren urtian, ezta?
 - Bedra... "en mil novecientos nueve creo que nació".
 - "Mil novecientos nueve".
 - Bai, bai.
 - "Mil novecientos nueve"?
 - "Nueve, creo".
 - Eta baserrixan jaixo ziñan?
 - Usetxen, bai. Usetxen.
 - Eta gero bizi osua hantxe eman zendun?
 - Hantxe bizi osua, ezkondu artian hantxe.
 - A, eta zenbatgarren urtian ezkondu ziñan?
 - Hogeta bost urtekin.
 - Hogeta bost urterekin ezkondu ziñan. Elgoibartarra zan senarra ere?
 - Baitta.
 - Zela zakan izena?
 - Prudencio.
 - Prudencio.
 - Prudencio Iribarren.
 - Iribarren.

4.10. Txangoak Loiolara eta Zumaiara

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/019
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:29:21. **Bukatu:** 00:32:05
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Eskolatik irteerak egiten zituzten eta Loiolara egindako irteeraren inguruko kontuak aipatzen ditu. Autobusa aldapan zihoanean jaitsi egin behar izaten ziren. Zumaiara joan zirenean gertatutako anekdota.

Transkripzioa

Loiolara joan giñan behiñ, behiñ edo birritan igual joango giñan, eta Silverion kotxia, Silverion kotxia, kaballoduna, eta Azkaratera aillegau giñanian, bajatu egiñ bihar, gu oiñez, ta kaballua. Gero, aldaparia pasatzen zanian, berriz, iepa! adelante, Loiolaraiñuan. Beste behiñ, Zumaiara joan giñan, ta Zumaian geuk eruaten genduan geure bazkarixa edo zana. Eta nik laga niuen, bai ba, plaia dago han ta, laga diogu bati zaintzen, ta nere bazkarixa txakurrak jan. Haura zaintzaille laga genduana ta ni bazkaririk ba(g)e. Mojiak eman zidan zedozer, eta behintzat, nere bazkarixa hor joan zan.

4.11. Neskak ez ziren tabernara sartzen

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/021
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:33:58. **Bukatu:** 00:36:55
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Tabernara ez ziren sartzen, kafea hartzera joaten ziren plazara eta mahai guztietan ura eta limonada egoten zen jarrita. 3 txakur handi balio zuen gaseosa botilak. Musika egoten zen plazan eta dantzara joaten ziren. Auzoko lagunak elkartzen ziren; neskak neskekin ibiltzen ziren.

Transkripzioa

Tabernara sekula ere ez, kafia plazan hartu bai. Orduan egoten ziran botellak hau bezela, mahai guztietan, holakotxe mahai biribillak izaten ziran, ta mahai bakoitzian botella ura egoten zan, mahai bakoitzian eh! Hainbeste mahai, ta danetan. Bai, herriko plazan hori, eta hantxe jartzen giñan, Kas edo, Coca-Cola ez zan orduan, limonadia, eta ez dakitt, Kas generalian, holan kanikia "taka" bultza eginda, barruan sartzen zana.

Segun, dantzara ertetzen genduan ta mutillak ertetzen bazauden, dantzan egitten gustokuak, ba tira, "vamos", gero amaitzen zanian dantzia, ba hiru txakur haundi balio zittuan botella gasiosiak, ta "vamos a tomar un

refresco", eta gustokoak baziran, "acepto", y si no eran, pues "no, no gracias", ta hala.

Hamabostian behiñ izaten zan eh! Ta Garizumia zanian zazpi aste musikarik ba(g)e. Pazkua etortzeko haura poza, ene!, oiñ bezala ez zagan ta.

4.12. Elgoibarko Altzola auzoan jaioa 1918an

- **Hizlaria(k):** Lariz Garate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-015/001
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Altzolan jaio zen 1918an eta bertan bizi zen, Zentralean.

Transkripzioa

- Beti bizi izan zera Altzolan?
- Altzolan beti.
- Zure bizi osua?
- Bai.
- Hona etorri arte. Zenbagarren urtian etorri ziñan Elgoibarrera, herrira?
- Ointxe dala lau urte-edo.
- A, ordun, bizi osua Altzolan eman dozu.
- Altzolan, Altzolan, Altzolan.
- Ondo, interesgarria izango da ordun. Ze kalen bizi ziñan?
- Altzolan?
- Bai, nun?
- Han kalerik ez zauan orduan, zentralian. Rezola, Rezola [bazuan] hemengua, Rezola? Haren zentral baten.
- Herriko sarrerian zauan, ez?
- Bai, bai, bai.
- Auzoko sarrerian.

4.13. Ama koinatuarekin ezkondu zen senarra hiltzean

- **Hizlaria(k):** Irizar Goiburu, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-019/003
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:04:06. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Ama Goiburu artzain-familiakoa zen, baina beraiek ez zuten ardirik izan. Aitak baserrian lan egiten zuen, baina tratantea zen eta Idiazabalgo alkate ere izan zen. Jose Joakin Irizar zen aita. Ama

aitaren anaiarekin ezkondu zen senarra hiltzean. Amak egiten zituen etxeko lanak baina beraiek ere laguntzen zioten. Anai-arreba asko zirenez elkarrekin lo egin behar izaten zuten eta baita amonarekin ere. Amona ona zuten. Berari amonaren izena jarri zioten. Etxeko giroa.

Transkripzioa

- Aitta ze zan? Artzaia esan diazu?
- Ez, artzaia zan aman familie, guk ez genduan ardiik euki sekula. Aman familia zan Goiburu, artzaitarra.
- Eta aittak zetan eitten zaban lan?
- Aittak baserrin, baiña aittuta, entzunda dakat, e, tratantia zala. Tratante honek, ganauakin... Ta, gaiñera, orduan, herriko alkatia zan.
- Herriko alkatia, Idiazabalgua?
- Bai. Oñ'e halaxe dao, Irizar alkatia.
- A. Zelan zakan izena aittak?
- Jose Juakin.
- Jose Juakin Irizar?
- Bai. Ni [ere] askotan, e... alaba Benito ipintzen dau, baiña gero gure ama, pentsaizu, ze... zela, ze estadun geldittu zan, gero anaiakin ezkondu zan, bere anaiakin. Benito. Ta nik badauzkat, ez dakit, e... "carnét de identidad"en "hija" Josefa Antonia y Benito, baiña ni ez naiz Beniton alaba, ni naiz Jose Juakiñen alaba.
- Zelan esan diazu ezkondu zala zure ama? Zeiñekin?
- Nere ama bere gizona zanan anaiekin. Bi, azkeneko bi alabak harenak die, zien. Baiña sekula, apellidua iguala ta sekula ez genduan...
- Klaro.
- ... euki, e...
- Iñolako arazorik.
- Ez, horretan ez.
- Orduan, etxeko gauza guztixak, ba, suposatzen dot, ba, etxia garbittu ta holako gauzak...
- Bai, bai.
- Amak eingo zittun danak, ez?
- Bai. Amak-eta, bai eta guk ere bai.
- Zuek ere lagundu bihar.
- Bai, bai, bai.
- Suposatzen dot horrenbeste anai-arreba izanda, ba bueno, baten batekin-edo egin beharko zendun lo, ezta?
- A, bai.
- Zeiñekin tokatzen zitzaizun zuri?
- Ba, ahizpak alkarrekin ta amonakin'e bai, akordatzen naiz ni lo eitten nuana.
- Zu baiño nagusixagua zana, zein zan, mutilla?
- Neskia.
- Neskia. Ta ordun berakin...
- Bai.
- ... lo eingo zendun, ezta?
- Ta amonakin ere, akordatzen naiz lo eitten nuan. Gero amona denbora askuan ohian egon zan, erreumiakin-edo. Baiña amona oso-oso... Beti errezatzen lagundu ezkeru, dana einda zeon harekin. Oso-oso amona ona zan.
- Oroitzapen ona dakazu, ezta?
- E? Bai.
- Rekuerdo ona.
- Bai, oso zan. Izena ere beria ipini zien nei. Orduan badakizu, amonak bere

izena ipintzia-ta, ba...

- Berantzako...

- Bai. Nik askotan, e... hor, e... leetu non, e... egon zala una bat izena kanbiau zeikeena, izena zatarra zeukeenak, ezta? Nahi baldin bazon, ba... Eta esan nun: "Ezta ezeatik ez nauke kanbiauko, nere amonak ipiniko zien ilusiuakin!"

- Hori da.

-Bere izena...

- Mantendu bihar.

- Berakin segittuko nauke, badakit ez dana politta, baiño...

- Eta lehen zauan adiñekuenganako errespetua gaur egunekua baiño askoz haundixaua izango zan, ezta?

- Buu, Jesus!

- Zertan igartzen zan hori?

- Ba, ni ez naiz akordatzen sekula amak jo nittunikan, baiña arpegi serioa ipintzen baldin bazaban, a! errespetua.

- Zeoze gaizki dao hemen, ez?

- Bai, bai. Guk ere eitten giñuzen gure... eskolatik etxerako lagunak-eta nunbaitten okaran batzuk harrapau edo zeoze ta etxera kejiekin eta orduan, ene! gure aman... Jo sekula ez giñuzen ein.

4.14. Neskame egon zen etxeko familia Elgoibarren egoten zen udan

- **Hizlaria(k):** Irizar Goiburu, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-019/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Aisia » Oporrak
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Neskame egon zen etxeko familiak Ibarrene baserrian pasatzen zituen egun batzuk udaran eta bera ere Elgoibarrera etortzen zen haiekin. Familiako ama Ibarreneko okinaren arreba zen (Zabaleta). Elgoibarren ezagutu zuen bere senarra izango zena. Plazan musika egoten zen udan Elgoibarren.

Transkripzioa

- Esaiazu pixkat ze... zure, bueno, mutilla izan zana eta gero zure gizona izan zana, zelan ezagutu zenun?

- Ba holaxe, erromerin baten-edo, erromerin baten nik uste dot ezautu nabala. Baiña ordun ez zeon, e... oingo konturikan, ezta gutxiagorik ere!

- Ze, Donostia aldian ezagutu zenun?

- Bai. Ez. Donostia aldian ez, e... hemen etxia euki zeбен, e... Elgoibarren, horrek, e... amerikana horrek, ein zeбен etxia...

- Bai.

- Ibarrenea.

- Bai.

- Ibarrenekua.

- Baserrixa, bai.

- Panaderixia daon etxia. Hor goiko pisua euren zan. Ta horra etortzen

giñan hola udan ta egun batzutan ta...

- A! a! Udan etortzen ziñaten Elgoibarrera.

- Bai.

- Ordun...

- Egun batzutan, e! Gutxi ez zikoen hainbeste gustatzen. Zahar-zaharrai pixkat tiratzen [zittuen], baiña gaztiak ez zebe nahi hona etortzerikan. Ta ezautu hemen ein giñan.

- Ordun, hamalau urtetikan Elgoibarrera etortzen ziñan zu.

- Bai.

- Uda partian.

- Bai.

-Familixarekin.

- Bai.

- A, ta ordun ezautu zendun.

- Beno, uda ere, uda guztitan ere ez, e! Zeatio zaharrai gustatzen zikoen ta in zebe hori etxia, baiña gaztieri ez zikoen gustatzen hemengo ambientia. Oso diferente hazittakuak zian ta harek euren kategorixan, ba... beste estilo bateko [...].

- Beste giro bat gustatzen zitzaien, ez?

- Baiña zaharrak, ba, anaixa ere hor zeuken, anaixa, panaderua zana. Ta gustatzen zikuen.

- Ibarrenekua?

- Bai.

- Zela zakan izena?

- Zabaleta.

- Zabaleta. Izena?

- Beno...

- Ez dezu gogoratzen.

- Jose zon zaharrak izena, gero Manuel izan zan panaderua.

- Manuel Zabaleta.

- Manuel Zabaleta.

- Ibarrenekua.

- Bai.

-Oso ondo.

-Eta ordun zu hamalau urtetikan Elgoibarrera, bueno...

- Bai, noizian behiñetan etortzen giñan.

- Bai, noizian behin, baiña bueno, ya ezautzen zendun herrixa, ez?

- Bai, ezautu non Elgoibarko... Bai.

- Klaro, ta hemen ezautu zenun...

- Bai.

- Zure gizona izan zana.

- Bai.

- Eta ze erromerixan izan zan gogoratzen dozu?

- Gu, e... orduan, udia izaten zan ta ordun gabian, plazan musikia egoten zan ta ordun gabian plazara, musikara, juten giñan.

- Igandetan egoten zan?

- Bai, bai. Beste gaiñontzian ezta irten ere ez, ezta pentsau ere ez!

4.15. Arantzazun ezkondu, bazkaria Gasteizen eta ezkonbidaian Madrilera

- **Hizlaria(k)**: Irizar Goiburu, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-019/034

- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:59:18. **Bukatu:** 01:02:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Arantzazun ezkondu eta bazkaria Gasteizen egin zuten. Bertan lo egin eta hurrengo egunean Madrilera joan ziren trenez ezteibidaian. Madrilgo bizipenak; raketistak ikusi zituzten eta elgoibartarra ere bazen tartean. 1940 inguruan "día de plato único" eta "día sin postre" eta halakoak egoten ziren. Hotel Ursulan lanean egon zenean ere baziren halakoak. Madrilgo markes eta kondeekin beteta egoten zen Ursula hotela.

Transkripzioa

- Ta zure ezkontza? Esan diazu ezkondu ziñala Arantzazun?
- Bai.
- Eta?
- Bitorixan bazkaldu.
- Bitorixan. Zelan, e... familixa osua jun zan edo?
- E... bi familixak.
- Bi familixak.
- Bai, bai, bi familixak.
- Eta zenbat elkartu ziñaten hantxe?
- Ba, nik ez dakit ba...
- ... bazkarixan?
- Hogei lagun ez giñan. Holakon bat. Orduan zan epokia, "el año cuarenta"n zeren egunak, e... "día de plato único", "día de sin postre"... eoten zianak eta Bitorixan, ba zeona jan bihar izan genduan. Ezin zeinken, e... edozer, e... nahi zana ezin zeikien jan. Ondo jan genduan, e! Baiña, e... "día de plato único" ta... Hotelak ere ezin zeiken. Ni hotel Ursulan egon nitzanian, ezkondu aurretikan, han ere... Han dana Madrilgo jentia zeon, dana, dana markesa ta kondesiak eta danak Madrildik ihes einda zerenak. Hotel Ursulan dana beteta zeon. Eta eoten zian "día de plato único", "día de sin postre"... Harek danak gero, haren zera... Francoi eman bihar zikon. Eta gu ezkondu giñanian ere esistitzen zan hori oaindikan. Baiña ondo bazkaldu genduan, Bitorixan bazkaldu genduan.
- Eta Arantzazutikan...
- Gero Arantzazutik Bitorixara ta gero Madrillea jun giñan, "viaje de novios".
- Eta ze ordutan ezkondu ziñeten?
- Ba goizian. Ez dakit nik, hamarrak inguruan edo ze ordu, ze ordu esateko seguru baiña...
- Eta gero zela jun ziñaten danak Gasteizera, Bitorixara?
- Ba... kotxietan edo taxisian edo... Arantzazutik jungo giñen.
- Kotxe desberdiñetan?
- Bai, bai. Eta gero...
- Emango zaban... Lehen horren kotxe gutxi egonda...
- Bai, bai, bai. Ni akordatzen naiz behintzet, bagenduala txofer, e... [orduen] taxistia Elgoibarren, Iglesias zan.
- Bai, ta berakin jun ziñaten?
- Hantxe bazkaltzen ere gurekin egon zan haura [...].
- Eta hantxe egon zan ere...
- Bai.

- Klaro, txoferra izanda...

- Bai.

- Eta gero esan diazu Madridera jun ziñatela ezkontza bidaia eittera?

- Madridera, bai.

- Eta zenbat denboratan egon ziñaten hantxe?

- Ba... astebete edo.

- Eta nola jun ziñaten, trenian, autobusian...?

- Trenian.

- Trenian.

- Trenian.

- Bitorixatik?

- Bai.

- Ordun, egun berdiñian?

- Bai. Ez. Bitorixan lo ein genduan.

- A! Lo ein zenduten hantxe lehenengo gauan.

- Bitorixan bai, eta hurrengo egunian jun giñan.

- Hurrengo egunian.

- Bai.

- Hantxe maletak eta dana laga ta...

- Hurrengo egunian.

- Eta ze nolako esperientzia izan zan Madrid ezagutu?

- Ba...

- Zuretzako? E?

- Ederki, ondo.

- Garai hartan e...

- Garai hartan Madridentan...

- Oso jende gutxi jungo zan Madrideraiño.

- Madridentan garai hartan, honek, e... deportistak, e... honek... zelan esaten zian honek... neskak, jokatzan zebeñ frontoietan...

- Raketistak?

- Raketistak zeuden. Bat Elgoibarkua zan.

- Bai, Berdungua edo.

- Bai.

- Baserrikua. Eta berakin egon ziñeten?

- Bai, bai. Ta juten giñan frontoira. Bi bider edo jun giñan.

- Ikustera hara.

- Ostian, kalia ibili ta...

- Ta bueno, pixkat hira ezagutu, ez?

- Bai.

4.16. Non jolasten zuten; errekan itotakoak

- **Hizlaria(k)**: Barrutia Mendikute, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Ibon
- **Erref**: EGB-022/015
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:28:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

- **Laburpena:** Non jolasten zuten. Eliza osteko bolatokian, Toletxen, errekan, futbol zelaian. Euren denboran errekan ito ere egin ziren zenbait herritar.

Transkripzioa

- Ta [gure] zea, ta hamen, hoixe, gaztiaotan Elgoibarren gauza bat euki dau, horixe, erreka ederra. Gero hemen e... gero, oin esaten debe eze: "Jolin, e... umiak eta..." Lehenaokuan [itten...] umiak ez dake barren iñun jolasian eitteko lekurikan. Oin pelotoiak plazan eitten debe. Guk pelotoiak bote bi eitten bagenduzen, jo-ta "echando puñetas" bialtzen ziguen hortikan. Baiña plaza txikixan, oin e... ganauak eta... plaza txikixan. Hor bestia, bola-tokixa, hemen eliza atzian. Hor ere baitta. Toletxen. Hau e... Hor badao, e... zera, hau e...

- Maalan esaten dozu?

- Bai, Maalan e...

- Antzoki inguruan?

- Bai, ez, Aranana izandakuan taillerra ta [...]. Han dana zera, zelaixa, kanpofubola ta gero, ba, esan dodana errekan ba, bueno, errekan... Ta Elgoibarren, nere akorduan, hiru-edo itto zian bakarrikan.

- Errekan?

- Bai. Bat hementxe, geure edadekua, neure edadekua. Zaharrak-eta jun-edo zerian ta sartu e... zerian, hemen e... zubixan... ta sartu hor, ta itxuria, dijestia kortau ta horixe hil zan.

4.17. Sei pezetarekin Donostiara joan, zezenak ikusi eta afaldu

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Lizarralde, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-026/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):** Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Elgoibartar bati amak sei pezetako paga eman zion Donostiako Aste Nagusira joateko. Diru horrekin, Donostiara trenez joan, neskalgunarekin zezenketa ikusi, Elgoibarrera itzuli eta afaldu egin zuten; bi errealekin bueltatu omen zen etxera.

Transkripzioa

- Beste bat esango dixat. Ez dau inporta zer esan, ez dok? Ze jardun?

- Ez, ez.

- San Lorentzon, [oin ez dok], oin Migel Mari badok ba, oin [...] ibiltzen dok ba? Haren aitta San Lorentzoko semia zuan, plako altu bat. Ta Donostiara jun, amak eman sei pezetako paga ta Donostiko "Semana", Aste, Aste Handixa, Aste, Aste haundixa, ez jakok esaten, Aste Nagusixa?

- "Semana Nagusixa".

- Bai.

- "Semana" ni...

- Ta amak sei pezeta eman paga, jaiko paga, sei pezeta eman ta harekin Donostiara jun bihar ta nobixia Donostian. Oin Juli bizi dok oindio. Nobixia Donostian. Donostiara jun trenian, korridia ikusi nobixiak junda, atzera etorri trenian ta Mutrikun afaldu etxerakuan. Ta errial birekin etxera. Sei

pezetak, sei pezetak zenbat balixo zeben orduan!

- Bai, eske oin entzuten dozu ta sei pezeta, osea...Txikle bat ere ez dakazu.
- Sei pezeta, makurtu ere ez.
- Makurtu ere ez, jendiak bota igual, ta orduan buf..
- Bai. Horretxek zittuan orduko kontuak. Pentzau noizkuak garan gu!

4.18. San Antolinen jaio eta ezkondu ostean Olazarra baserrira

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lodoso, Ainhoa
- **Erref:** EGB-027/002
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 74 urte zituen elkarrizketa garaian. Gurasoak biak elgoibartarrak ziren San Antolin auzokoak, eta bera ere han jaio zen Irabaneta baserrian. Hamar anai-arreba ziren, baina bi ahizpa gerradenboran hil zitzaizkion gaixotasunen ondorioz. Une gogorak pasa zituzten, baina senide asko ziren eta zoriontsu bizi izan ziren. Ezkondu ostean Olazarra baserrira joan zen bizitzera eta sei seme-alaba izan zituen, nahiz eta bat jaioberritan hil zitzaion. Oso zoriontsu izan omen da beti. Familiaren inguruko gogoetak.

Transkripzioa

- Bueno, Ventura, hasteko, izen-abizenak zeuriak, noiz jaixo ziñan, nun jaixo ziñan ta gurasuak nunguak zenittun...
- Ba ni jaixo, nik daukaraz oin hirurogeta hamalau urte.
- Hirurogeita hamalau urte, ta zara Ventura...?
- Naiz Ventura Arrieta Bergaretxe. Nere ama ta aitta bixak zian Elgoibarkuak, San Antolinguak zian bixak, ta ni San Antoliñen jaixua naiz. Ta ni gero handikan honara ezkondu ein nitzan, ta oin hamen Olazarran bizi naiz, zerian, basarrixan bizi naiz.
- Ta San Antoliñen nun?
- Irabanetan.
- Irabanetan, basarrixan?
- Basarrixan bai, bizitza guztian. Ez det iñora handikan honaraxe beste pausorik eman. Irabanetan jaixo eta hazi nintzan ta bizi nintzan hogeta zortzi urte arte ta handik etorri nintzan honara. Ta oin hamentxe daruaz beste urte guztiak.
- Eta bizimodua hangua, gogoratzen dozu nolako...
- Bueno... gogoratuko ez naiz, ba! Ezin neike ahaiztu ezta ezta... ezetan ere. Oso ederra! Gu hamar anai-arreba giñen, eta izan zan bizimodua, ba, gero sortu zan gerria, bi aizta hil zitzakuzen gerran ez, gaixorik, baiña hil zitzakuzen gerra denporan bat aurretik bestia atzetik, eta izan zian horrekin pena haundixak, baiña gu refamilixakua izatia zoragarrixa izan zan. Ni pentsatzen eoten naiz eta gaurko bat eta bi dian horrek ez dila gu kuadrilla haundixak bezin feliz ez dila eoten naiz pentsatzen. Kuadrilla haundixa, oso bizimodu zoragarrixa izan zan. Gero beti han ez zauan izaterik eta noizbaitten, ba, allegau zatan, bestiak ezkonduaz jua zian, ni gaztenetakua nintzan beste bat naban gaztiagua bakarrik ta neri ere allegau zatan ordua eta etorri nitzan, ezkondu nitzan ta etorri nitzan

honoraxe ta...

- Eta hamen...

- Hemen e, sei seme-alaba izan dittut.

- Sei?

- Sei. Eta bat hil zatan txikixa. Bai, mutilla jaixo zan eta gero hil in zatan, txiki-txikixa. Eta beste bostekin bizi izan naiz.

- Familixa edarra hala ere, e...

- Bai, oso bizimodu ona izan det, Jangoikuai eskerrak gustora bizi izan naiz ni hamentxe. Nahiz ta pentsauko dau askok: "han basarri puntan eta han bakarrik" edo ta "han bestia"... Baiña ez, ezta hola. Familixako izete bat, ama bat baldin bada benetakua, izen biher deu familixan bizimodua ta familixa onakin oso bizimodu ederra izan da, izeten da; nik halaxe izen det.

4.19. Bizimodu gogorra; gaztetatik guraso gabe

- **Hizlaria(k):** Ansola Arsuaga, Pastora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lodoso, Ainhua
- **Erref:** EGB-033/002
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bizimodu gogorra izan du. Aita zortzi urte zituela hil zitzaion eta ama 14 urte zituenean. 18 urterekin ezkondu egin zen. Gerra-denboran senarra hil zitzaion. Sei seme-alaba izan zituzten, baina bat hil egin zitzaion.

Transkripzioa

- Saso onian? Ez dakit saso onian jaixo nitzan. Zaharrena nitzan. Aitta hil jaten zortzi urtekin, ama hamalaurekin.

- Beronek zortzi zittula.

- Neuk zortzi nittuala aitta hil jaten ta ama hamalaurekin. Hamazortzi urtekin ezkondu nitzan, e!

- Gazte.

- E?

- Gazte, gazte.

- Gazterik, ezta? Pentzaizu gazterik ezkondu nitzan. Ta familixia atara dot aurrera. Hamazazpi urtekua zaharrena. Handik beherakuak geratu jatazen beste guztiak. Ta hamazazpi urtian alkarrekin bizi izen giñan. Gero gerratian, soldau eruan zebeñ, han gaixotu zan, hil jaten, goixan zerua ta behian lurra geratu nitzan.

- Ta oso gazte gaiñera.

- E?

- Osea, gazte, oso.

- Bai.

- Ta ze familixa zeukazun ordurako? Zenbat seme-alaba esan dozu? Seme-alabak.

- Seme-alabak? Ba, hiru seme, bat Ameriketetan daukat.

- Ala, Ameriketetan, e?

- Ameriketetan daukat bat ta beste bat San Pedron dakat ta bestia hamen daukat ta alaba bat Azkoittixan ta bestia Elgoibarren.

- Bost.

- Bost.

- Ta bat hil in zan.
- Bat hil.
- Seigarrena.
- Seigarrena hil in zan.

4.20. San Migel auzoko Olazarra baserrian jaioa

- **Hizlaria(k):** Ansola Arsuaga, Pastora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lodoso, Ainhoa
- **Erref:** EGB-033/004
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Izatez San Migel auzoko Olazarra baserrikoa den arren, gaur egun San Pedro auzoan bizi da. Aita Mendarokoa zen eta ama Olazarrakoa bertakoa.

Transkripzioa

- Orduan zu ze zera, San Migeldarra ala San Pedrotarra?
- Oin San Pedrotarra. Lehen izetetz San Migelgua. Ni Olazarrakua. Olazarrakua. Hantxe jaixua. Ta aitta Mendarokua naban.
- Eta ama?
- Ama Olazarrakua.
- Ama Olazarrakua.
- Olazarrakua.
- Eta hain gazte ezkontzeko edo...
- Ezer ere [...] nitzan ta...
- Holaxe zan orduan? Holaxe orduan?
- Hamen, bai.

4.21. Santsongoa baseritik Kamiñerokora bizitzera

- **Hizlaria(k):** Leiaristi Iriondo, Floren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lodoso, Ainhoa
- **Erref:** EGB-034/001
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Santsongoa baserrian jaio zen 1928ko maiatzaren 18an, baina sei urte inguru zituela Kamiñerokora joan ziren bizitzera. Ama Santsongoa baserrikoa zen eta aita Garagartzakoa. Ama anai-arrebatan zaharrena zen, baina etxean familia handia zegoen eta Kamiñerokora joan behar izan zuten bizitzera. Kamiñerokoa frontoia zegoen, eta horregatik eurak pilotarako zaletasuna izan dute.

Transkripzioa

- Basarrixan, Sansonguan jaixo giñan gu, ni behintzat. Ta gero handikan

kalera bajatu giñan nik sei bat urte nakazela. Ta gero Kamiñokuan bizi izan giñan, badakizu.

- Kamiñerokua?

- Kamiñerokuan, han "carretera Azcoitia", han. Ta gero, ba, ezkontzeko hona etorri giñan.

- Baiña... jaixo ez diazu...

- Jaixo basarrixan.

- Ta urtia? Ze urtetan?

- Urtia, ba, "el año veintiocho", "veintiocho, dieciocho de mayo". Datorren astian ein bihar dittut.

- Ontxe laster da.

- Oseake, zenbat? Kalkulau... "veintiocho"...

- Siete uno.

- Zazpi, e... hirurogeita hamaika.

- Bai, bai, hirurogeita hamaika ein bihar dittut. Datorren astian ein bihar dittut hirurogeita hamaika.

- Gurasuak nunguak zian? Aitta ta ama?

- Gurasuak zian bata Sansongua, ama, ta Garagarzakua, San Lorentzotik goratxuao, Garagarza basarrikua aitta, zian.

- Osea, elgoibartar oso-osua.

- Elgoibar, oso-osuak elgoibartarrak bixak.

- Ta zeu ere elgoibartar oso-osua zera.

- Ni ere Elgoibar... osua.

- Bai, hamen jaixota ta hamen e...

- Hamen hazi, hamen... Bueno, Sansonguan orduan jaixo...

- Sansonguan jaixo.

- Ta sei urtekin Kamiñerokora.

- Bai, kamiñerokora bizi izetera. Kamiñeroko etxia ein zebeñ, orduantxe eitten zauan ta haura ein zebeñian horra etorri giñan bizi izetera. Gure ama zan familixan zaharrena Sansonguan ta haura, ba, zela familixa haundixa zauan, hamar anaixa-arreba zian, zortzi lehelengo ta gero atzenak, bikixak, hamar anai-arreba zian gure ama-ta. Eta gero, harek e... kuadrilla haundixa ta bestia ta gure ama hartu zebeñ etxera lehelengo urte batzuetan. Ta gu famelixia, gure gaztena ez, ostian lau anai-arrebak han jaixo giñan baserrixan. Ta gero, ba, maiorazkua ezkondu zanian, gu kalera bajatu giñan, Kamiñerokora.

- Kamiñerokua ez da baserrixa, orduan?

- Ez, Kamiñerokua ez da baserrixa. Kamiñerokua, ze esango dizut ba nik? Hor kurban, e... oin karrozerixia dao. Lehen frontoia zan hor. Lehen Kamiñerokuan zaon frontoia ta gu danok han frontoian beti. Nik anai bat pelotarixa euki naban, beste bat korredoria, oseake gu danok pelotarako mutillak izan gara, deporte hortarakuak. Ta oin ere ni jaiero Eibarrera juden naiz partidua ikustera. Gustau eitten jata pelotia asko.

- Eta nundikan euki dozue? Nundikan euki dozue zuek holako zaletasuna, pelotarako zaletasuna?

- Ba esaten dizut, frontoian jaixo... frontoia, hor Kamiñerokuan frontoian bizi izen giñala. Guk bentanatik beti beittu ta frontoia geunkan, hamendik kalia bezela, guk frontoia geunkan etxetik. Ta beti-beti frontoian. Granujetan ere etorri etxera eskolatik, bazkaldu ta antxintxika frontoira, izardixa darixola eskolara. Aitta ta ama beti errietan.

- Aber, ba!

- Beti hola. Ta holaxe.

4.22. Lau urte egin zituen soldadutzan gerra garaian

- **Hizlaria(k):** Txurruka Arozena, Dionisio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-036/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Soldadutza gerra garaian egitea tokatu zitzaion eta lau urtez egon zen. Frontera joan beharrik ez zitzaion egokitu; baina, kintarik gazteena zirenez, azkenak izan ziren itzultzen. Lizentziatu eta lasterrera, berriz joan behar izan zuten eta beste 22 hilabete egin zituzten. Gerrara joan orduko, orain emaztea denarekin irteten hasita zegoen; handik itzuli eta berriz joan behar izan zuenez, neskalagunak itxaron egin zion.

Transkripzioa

- Berrogeita sei urte inguru taillarrian ein dittut. Oin, soldau ere, asko, e!
Soldau ere... Gerrate denporan harrapau giñuzen ta gu egon giñan gerria amaittu ta gero ere, ba, lau urte inguruan ixa!
- Gerria ez zenduten ondo pasauko, ez?
- Gerrian ez giñen... frenterañño ez nintzan ni ailleau. Baiña gero, ba, nola giñan gaztenak... Hamalau kinta giñan ta gu gaztenak ta etortzeko etxera, azkenak ta horregatikan, ba, denporia tardatzen zan asko. Ta gero, berriz, ze ein zaben? Ba mobilizaziua. Gu lizenziua ta handik lau hillabetera, mobilizaziua ein zeben, e... lau kinta "cuarenta y uno, cuarenta, treinta y nueve y treinta y ocho". Treinta y ochua salbau ein zan jun ba(g)e, baiña guk jun ein bihar izan genduan berriz. Ba, hamen e... makixak zabilzela edo tontokerixa batzueatik eta ein genduzen bigarren junaldixan, hogeta bi hillebete.
- Hogeta bi hillabete?
- Hogeta bi... bigarren junaldixan ere.
- Gu kejau eitten gara, bederatzi hillabete dila oin guretzat-eta.
- Pentsau hortikan zenbat denpora eingo genduan. Ta gero, ba, handik etorri eta lau bat urtera-edo ezkondu ein nitzan. Osea, ni gerrara jun edo gerratia amaittu baiño lehenao hasi nitzan emaztiakin, oin dakaten emaztiakin. Baiña gero, nola bigarrenian jun nitzan, ba, emaztiak itxain ein zian; berriz etorri nitzanian, ba, berriz ere berakin hasi.

4.23. Euskaraz egiten zuten eskolan erdaraz ikasi arren

- **Hizlaria(k):** Bergaretxe Ardanza, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-039/001
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Euskara » Euskararen egoera

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Ermuan jaio zen 1915ean. Sakristian ikasten zuten doktrina. Beraien artean euskaraz egin arren, irakasleek ez zieten uzten euskaraz egiten. Bere ahizpa gazteagoak Aldundiak jarritako auzoko eskoletan ibili ziren eta haiek euskaraz ikasi zuten. 12 urtera arte ibili zen eskolan.

Transkripzioa

- "En Ermua nací el diecinueve de abril", gero han, ba, hamabi urte, ba! Hamabi urte arte.

- "¿Del año quince, no? ¿Mil novecientos quince, no?"

- Orduan ikasten gendun euskeraz doktrina zerian, sakristian emoten oskuen ta erderaz, orduan ez euan euskerarik eittia gure zerian, eskolan ez [doskuen] guri, e! Baiña euskeraz... guk euskeraz eitten genduan, e! Baiña, ostian, maestria be kastellania zan, baiña "aparte de eso no había, entonces solamente eso". A! Ta gero egon zian nere aitzak gaztiauak ya zerak ifinitta, e... "escuelas... barriadas Eizaga y San Lorenzo" ya han euskeria be emoten eben. Diputaziñuak edo jarri zuan "Las escuelas...", e...

- Zuk esan dezu Ermuan jaixo ziñala.

- Bai.

- Ta zenbat urtera arte? Hamabi urtera arte esan dezu han egon ziñala edo zenbat urte artera egon ziñan?

- Hamabi urtera arte eskolan esan dotzut nik.

- A, a, eskolan Ermuan.

- Bai ba! Ta gero ba... errekauek ein ta bata ein ta bestia ein ta amari lagundu ta etxian ortuak be baeuazen ta...

4.24. Ama Debako hotelean lanean eta aita mikelete

- **Hizlaria(k):** Bergaretxe Ardanza, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-039/002
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 12 urtera arte ibili zen eskolan eta handik atzera amari edo aitari laguntzen etxean. Ermuan jaio zen, kalean. Bere gurasoak baserritarrak ziren, baina bera jaio zenerako kalean bizi ziren. Amak Debako hotelean lan egiten zuen lehengusinari laguntzen, eta aitak arma-fabrikari lan egiten zuen. Krisia egon zenean mikelete egon zen aita Donostian.

Transkripzioa

- Zuk esan dozu Ermuan jaixo ziñala.

-Bai.

- Ta zenbat urtera arte? Hamabi urtera arte esan dezu han egon ziñala edo zenbat urtera arte egon ziñan?

- Hamabi urtera arte eskolan esan dotzut nik.

- A, a, eskolan Ermuan.

- Bai ba! Ta gero ba... errekauek ein ta bata ein ta bestia ein ta amari lagundu ta etxian ortuak be baeuazen ta... Aittak porruak ifintzen zittuanian, ba nik, harek zera ein ta nik han ipini zerak, porruak, e! [...] zentimetro bat zeran gaiñian, e! Hantxe. Ondo. Ta gero ba etxeko... bai!

- Bai ta Felisa, zu Ermuan nun jaixo ziñan, baserri baten edo kalian?

- Ez, ez; kalian, kalian. Gure aitta ta ama basarrikuak izetez. Baiña, e... ordurako ya kalera...

- Etorritta zeuden?

- Harek kalian, bai ba. Soltera... Gure ama egoten zan udan, hamen, Deban. Lehengusiñia eben hamen zela, hotel e... leheñaoko hotel bat.

- Elgoibarren zauana?

- Ez, zerian... "En esto..."

- Altzolan?

- Deban. Ta han egoten zan... ai... izena!

- Miramarrera...

- Eon, eon. Lehengusiñia zan hango zera ta han pasatzen eban hareri laguntzen egoten zan e... zerian, aitzen dozu? Ta aitta barriz "era" e... pistolan-ta eitten ebana.

- Eskopetak.

- Eskopeta. "Pero también hubo" krisisa edo zeozer denporia "y estuvo en San Sebastián de esto, antes de... antes de casar, e! Estuvo en..." Donostian egon zan mikelete.

- Bai "policía", bai e...

- Mikeletia.

- Mikelete, mikeletia.

4.25. Aititak eraiki zuen "Sansonenekoa" etxea

- **Hizlaria(k):** Iriondo Bergaretxe, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-041/002
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:03:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Aita ere "Sansonenekoa" kale-etxean jaioa zen, eta ama Zabale Torre baserrian. Aititak eraiki omen zuen "Sansonenekoa".

Transkripzioa

-Zure aitta-amak nunguak zien?

-Ba hemenguak.

-Aitta be etxe honetan jaixotakua?

-Aitta hemengua, bai.

-Eta nork ein eben, ze sasoetakua da?

-Ba nere aittittak ein zaban etxia. Ta nere ama zan Zabale, Zabale dao basarri bat hor San Antolin Ballian. Fotografixia gaiñera etxian daukat. Zabaletorre da.

-Zabaletorre da basarrixan izena?

-Bai, Zabaletorre. Baiña Torre da, e. Ikustekua, e!

-A bai, e?

-Han dao Donostian en el Parke Miramon dao Zabaletorre, oso etxe politta. Nere ama horkua zan.

-Baiña Zabaletorre hori Elgoibarko basarrixa. Ze auzotan?
-San Antolin. Autopistatik erten eta bista-bista-bistan dao, pare-parian goixan; tak!, Zabaletorre. Nere ama zan horkua.
-Baiña aitta bertan jaixua.
-Aitta hemengua.
-Zenbat anai-arreba izan ziñien?
-Hiru anai-arreba, bi neska ta ni mutilla, ni azkena. Hil zien bixak harek bai, koittauak, bai.

4.26. Estartak lagunduta, etxea berreraiki zuen

- **Hizlaria(k)**: Iriondo Bergaretxe, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-041/028
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 01:06:46. **Bukatu**: 01:08:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Estartak lagunduta, erretako etxea berreraiki zuen. Emandako laguntasunagatik, Estartak ez zion trukean ezer eskatu. Julenen familiak ez zuen "Sansoneneko" etxea galdu.

Transkripzioa

-Ta zu, gero dator bigarren zatixa. Zuk uste dezu neri Estartak etxia jasota gero esan ziala "Hi, etxia gorde diak edo?". Ezta batere. Nik etxia jaso naban, ein nittuan neure konposiziuok, ahal dan guztia saldu ta neurekin geatu zan planta bajia eta beste gauza batzuk, etxe bi nere arrebantzako eta neretzako beste bat, eta hipotekiakin eta abarrían eta aurrera. Baiña Eulogio Estartak goguan daukat, "Levanta!" harek. Jodee, horrek die gizonak, e! Horrek die personak.

-Zenbat bizi zien etxe honetan? Ama bizi zan?

-Ama bizi zan, bai. Ta hori pasau zanian soltero nenguan ni. Ni amakin bizi nitzan eta arrebak nerekin. Ondo bizi giñan, pobre-pobre baiña ondo. Ondo bizi giñan. Baiña etxia geuria zan, Sansoneneko etxia,

4.27. Aita ubidearra

- **Hizlaria(k)**: Ajuria Garate, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-042/002
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:01:12. **Bukatu**: 00:02:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aita ubidearra zuen, Bizkaia eta Arabako mugaren marra gainean zegoen Anbe baserriari jaioa. Ama Deban jaio eta berehala ekarri omen zuten Elgoibarrera.

Transkripzioa

-Aitta, esan dizun bezela, Ubidekua, Ubidea, Bizkaixa. A, oso gauza bitxia, beran baserria, kale-basarrixa, muga Araba ta Bizkaixako muga etxe erdixak [eitten] zaban, ta berak esaten zaban Bizkai aldeko..., jaio zala Bizkai aldian. Ekarri zaban hori, ze periodiko izango zan orduan; gure beste etxe hartan egon zan periodikuak ekarrittako... Anbe zeu(n)kan basarriak izena, eta ekarri zeban oso bitxia zala etxian erdixan zijoala muga, Araba ta Bizkai.

-Etxe horretan jaio zan zure aitta?

-Bai. Eta etxe hartan Bizkai partian jaio zala, berak esaten zaban.

-Bera bizkaitarra orduan.

-Bizkaitarra, bera bizkaitarra.

-Zela zeukan izena etxiak?

-Anbe. Anbe basarria. Muga eitten zaban.

-Eta ama?

-Ama jaio Deban baiña hiru hillabetekin hona etorri zala. Ekarri [...], klaro. Orduantxe etorri ziala honaxe. Baiña jaio Deban.

4.28. Ama galtzerdigilea

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-050/022
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:50:02. **Bukatu**: 00:52:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Amak galtzerdiak egiten zituen Lizundia baserritik ekarritako artilearekin. Benturak haria egiten laguntzen zion. Irabanetan ez, baina Olazarren bazituen ardi batzuk. Etxerako egiten zuten gazta apur bat.

Transkripzioa

-Nik ama asko ezautu neban artilliakin lantzen.

-Lania? Eta nundik ekartzen zeben?

-Goiko basarritik. Han goixan basarriak daude, Lizundia esaten jakona, San Antolin behia, goixan Lizundiakuak daude goixan basarri mordua. Han lehen-lehendi ardixa egoten izen da han basarri danetan. Eta handikan hartzen zeban gure amak beti lania, eta galtzerdixak-eta asko eitten zittuan. Etxian landu, neu ere asko lagunduta nago amari, landuta; neu ere jardunda nao. Landu; gero gorua esaten zakona hamen gerrittikan honara ipini, han dza!, dza!, dza! zera ein, harixa ein, eta gero harekin harixakin galtzerdixak ein. Eta galtzerdi edarrak izaten zien.

-Nik be badauzkat.

-Badaukazuz, e. Harek bero-beruak.

-Eta hemen ardirik bazeukatzuen?

-Bai. Egon giñan pixkaten barek baiña oin ere badaukaguz.

-Zu hona etorri ziñanian baeuan artaldia?

-Orduan ez zeuan... Egon, egon..., bai, bazeuan, ni etorri nintzianian bazeuan hemen ardixa. Ez dakit. Gero kenduta egon giñan, bare egon giñan.

-Eta zu zeu gaztagintzan ibilitakoa za?
 -Gaztaegiñan? Etxerako zeoze bai, baiña asko ez; baiña zeoze bai. Jun dan urtian eta erreiñak ein dittu.
 -Baiña lehen?
 -Lehen ez. Nere etxian ez, ez zan batere...
 -Baina zu hona ezkondu ziñanian hogeta sei urtekin...
 -Gaztae asko ez ez genduan eitten. Ardi gutxi orduan. Gerotxuao bai, gero eitten neban gaztaia gerotxuao, ardirak gehittu genduzenian. Gero sasoi baten bai eitten neban puxkat etxerako; saltzeko ez, saltzeko sekula ez. Etxerako. Ta jun dan urtian mordua ein zeban, erreiña oin ibiltzen da. Neu zahartu ein naiz eta. Erreiña ibiltzen da.

4.29. Dantzak eta erromeriak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-050/024
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:53:35. **Bukatu:** 00:55:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Igandero joaten ziren lagunak kalera, zinean filma ikusi eta dantza egitera. Auzoko erromerietara ere joaten ziren.

Transkripzioa

-Beti be erromeixak edo juergatxon batzuk edo egingo zenduzen, ezta?
 -Bai. Oso gutxi baiña eitten genduzen.
 -Nora zeukazuen joeria joateko, San Antolinen bertan edo kalera edo.
 -Kalera, Elgoibarrera kalera asko. Domekako ibilixori, juntau kuadrillia. Bueno, lau lagun giñan, juntatzen giñan, geure kontuak edo geure zerak, eta kalera. Musikan buelta bat edo eman eta illuntzen zaban inguruan etxera.
 -Aramaittakorik eta ez zan egoten?
 -Ordurako amaittu samartu ein zian aramaittakuak. Baiña gu ere laster etxera. Bihako! Gure aitta ta amakin bihako etxera etorri.
 -Dantzan eitten zeben plazan?
 -Bai, eitten genduan. Erremeixak, batian eta bestian erremeixak zienian, fiestak, por ejemplo San Migel. San Migelera gutxi. Altzola, Mendaro, hor behian ibiltzen giñan gehixao ta horko fiestak-eta zienian?, booo, dantzan hoixe. Han ibiltzen giñan, han ibiltzen giñan.

4.30. Hamabost urterekin nobioa

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/013
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:28:36. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Abarketak utzi eta tailerrean hasi zen lanean. 15 urte eta hiru hilabete zituela, 18 urteko mutil batek maitasuna agertu zion. Berehala soldadu joan zen zazpi urterako.

Transkripzioa

-Orduan gerra denporan eskolia jare eta abarketak josten aittakin?
 -Bai. Eta gero taillarrera joan nitzan.
 -Zenbat urtekin?
 -Taillarrera ba hamalau-hamabost. Zeatik nobixua neukan, hamabost urtekin neukan nobixua ta.
 -Hamabost urtekin nobixua?
 -Hamabost urte ta hiru hillebete. El tres de mayo deklarau zitzatan nere.., eta neukazen hamabost urte, hillebete hiru egun gitxiao.
 -Eta berak, nobixuak?
 -Nobixuak ba hemezortzi, hemeretzi eitteko. Gerrara joan zan gero ta. Soldau joan zan eta. Hemezortzi urtekin eruan zittuen harek. Soldau.

4.31. Antzezle baten kontuak

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/042
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:18:00. **Bukatu:** 01:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
Aisia » Kultura » Antzerkia
- **Laburpena:** Antzezlanetan ziharduenean, Mirenek gehienbat erakusle (apuntadora) lanean jarduten zuela dio, artista bere senarra zela. Abestutako antzezlanetan bai hartzen zuen parte. Batzokiko garaian igotzen omen zen taulara. Eta elizan ere antzeztu zuen, erdaraz. Ezkontza zaharrak antzezten zituztenean, arreo a gurdy dotorean eramaten zuten. Jende askok hartzen zuen parte ezkontza zaharrak antzezten.

Transkripzioa

- Bueno, ez zatzu akordaitzen zuri beste hola anekdotan bat edo... zure teatro, teatro istorixak eta...
 - Ni teatror a apuntadora...
 - Ondo pasauko zenduen zuek [...]
 - Beti apuntadora eoten nitzan ni, e?
 - Apuntadora? Han zerien sartuta?
 - Bai. Artistia gizona zan. Ni, ni txabolan sartuta apuntatzen, txabolan.
 - Zure gizona beeeuen teatro mundu horretan?
 - Gizona?
 - Bai.
 - Bai, hor aguazil jantzitta.
 - A bai, ikusi dot lehen, egixa da.
 - Abade ta. Papel guztiak in dittu.
 - Kontxo.
 - Kantuan ez. Tango guztiak zekixazen baiña kantau gitxi itten zaban.

- Osea ke, zu apuntadora han zerien [...]

- Bai, hantxe sartuta.

- Kontxapian.

- Kontxapian. Hantxe beti. Gero erderaz eitten genduanian, bai, elizako zerian ta, elizan ibili giñanian erderazko batzuk bai, orduan bai. Erderaz baiña, erderaz.

- Orduen be apuntadora?

- Ez, ez.

- Zeu, zeu aktore ibili zara zekula?

- Bai. Kantuan ere bai. "Miss Flan".

- "Miss Flan"?

- "Miss Flan" zan obra bat, kantuan zan dana.

- A, operien modura?

- Bai, dana kantuan. Eta gero, zer txikixak bai. Hori batzokixan, gaztiaua, gaztiaua nitzanian. Nere anaixa hil zana, aitta, ni ama ta bere edadeko bat ume-etxe, ume-etxe. Hirurok esenarixuan. Orduan bai, orduan euskeraz. Harek batzokikuak zian. Baiña elizakuek erderaz.

- Osea ke, batzokixan euskeraz eta elizan erderaz, e?

- Bai.

- Eta hori garai, garai berdiñian?

- Ez dot uste. Batzokikua gaztiaua izango zan.

- Eta honeik bodok eta, honeik euskeraz eingo zitsuein ba.

- Zeintzuk?

- Boda, boda zaharrak eta.

- Euskeraz, bai.

- Hori kriston fiestia izango zan, ezta, kalia zihar?

- Ederra. Ederra. Bere burdixakin, burdixa, ohia jantzitta, lehengo...

- Arriua.

- Sobrekama, bai, arriu guztia ta sobrekamak, lodi harek eta dana bihar dan bezela.

- Ehunezkuak?

- E?

- Ehunezko izarak eta hola?

- Bai. Bai, dana zaharra, ederra. Ederra. Bi, bi in ginduzen. Lehenengo bat eta hogei urtera, zu!

- Zer zan, zeu ziñen ezkonketan zana?

- Ez, gu padrinuak giñan.

- A, padrinuak.

- Bai, ta gero atzian kolia, e? Biñaka, biñaka, biñaka kale guztian, ederra. Gero hori, bazkai hori, esenario, zerian, plazan ta. Bueno! Ta holaxe plazia, holaxe, e?

- Hori domekan bateko kontua izango zan, ezta?

- Seguro. San Bartolometako jaixak zian ta.

4.32. Elgoibartarren eta altzolarren arteko tirabirak

- **Hizlaria(k)**: Isasti Irusta, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-055/041
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 01:20:41. **Bukatu**: 01:22:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Altzolak Elgoibarrekin borroka asko izan eta gero, azkenean lortu zuen auzoan euren parrokia izatea. Mendekuz, elgoibartarrak parrokia berriko Santo Kristoa lapurtzera joan omen ziren; baina auzotarrak, jakinaren gainean, zain zeuden, eta...

Transkripzioa

-Anekdotak bat, del año pun izan bihar dau. Nahi zeben Alzolakuak parrokiak ein. Eta Elgoibarrek ez zaban nahi. Holaxe, burrukan hasi dia eta azkenian konsegidu zaban Altzolak ba baietz. Ez dakit zelako obispuak autorizauta. Eta elgoibartarrak esan zeben, bai ba guk santisimua jun eta harrapau eingo juau ba. Elgoibartarrak makilliakin eta etorri ei zian. Ta Alzolakuak enterau edo ez dakit ze in zien eta preparau zien, ta elizan sartu zienian, ra!, atiak itxi ta hiru egunian euki zittuen barruan elgoibartarrak.

-Elgoibartarrak lapurrak? (barreak).

-Hiru egunian euki zittuen elgoibartarrak hor barruan.

-Jaten be emon barik.

-Ez dakit nik, zeoze emango zioen baiña.

-Elgoibartarrei hori kontaitten dostazuenian zer esaten dabe?

-Bueno, ez dabe sinisten askok eta ba.

-Hori noizko kontua dan ez dozu jakingo?

-Ez, ez.

-Oseake elgoibartarrak santokristua harrapaittera.

-Bai. Etorri eta bestiak "laga sartzen, laga sartzen"; sartu zienian brast! eta gero "de guardia" bertan. Guardixan gero ateik zabaldu ez deixen.

4.33. Arreba eta nobio errepublikanoa aurrera joan ziren

- **Hizlaria(k):** Arrillaga Garate, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-057/019
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:53:33. **Bukatu:** 00:55:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Arreba eta nobio errepublikanoa aurrera joan ziren. Nobioa hil egin zen gerran. Gero, arreba Bartzelonara joan zen pilotan jokatzera.

Transkripzioa

-Hemeretzi egun edo etxian eta atzera buelta eitteko arreba zauan, gerratian haura aurrera joan zan, nobixua zerekua Eibarkua zakan eta, npbixua ta bixak aurrera joan zian eta. Nobixua republikanua zan amorratua, eneeeee! Hamen ere gu nazionalistak beti. Neu nazionalistia, nik sekula ez dot ukatu. Nik neuk botua oin ere nazionalistei, sekula ez dot paillau. Aurretikan di-da eitten dot, joaten naiz eta bota korreotikan eta amaittu eta kitto. Eta nik zeïni botatzen dian iñor ez da enteratzen. Korreosetan bakarrikan. [...]

-Arrebian nobixua republikanua..

-A, bai. Haura joan zan aurrera ta. Nobixua enlaze, motuak, e; artistia zan

haura ere, mekanikua ona, Eibarren harek estimazio edarra zeukan, senidiak erosi nahi zaben, ipiñi nahi zaben eurak taillarra, baiña harek bere kontura edozenbat diru etaratzen zaban. Motuak, edozein moto zahar erosi ta moto berrixak pinttauta ta berak ipintzen zittuan, berak arreglau dana. Ba nobixua hil. Joan zan zeera ta hamen pelotan ibilitta zauan ikesten, zerian, Elgoibarren Kamiñerokuan eta. Joan eta Bartzelonan pelotan ekin zion. Nobixua palta ta zeoze, hara joanda ez zaukan pasadizo ona ezin zeikien pasau. Ta Barzelonan pelotan ekin zion.

4.34. "Bertso berrixak jartzera noa"

- **Hizlaria(k):** Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-061/026
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** "Bertso berrixak jartzera noa".

Transkripzioa

Bertso berrixak jartzera nua
gusto dabenak aditu,
zergatik degu geure tartian
hamaikatxo bat meritu,
nola geran gu irabazixak
askok ezagutzen gattu

Nola mendian alkarregana
batutzen diran ardixak,
eta geu ere zazpi laguntxo
alkar estimaugarrixak,
ezagaturik daukaguz ondo
Bilboko tabernarixak.

4.35. 'Maketua' familiako ezizena

- **Hizlaria(k):** Muguruza Alberdi, Agurne
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref:** EGB-068/008
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena:** Aitonari esaten zioten 'Maketua'. Karretero ibiltzen zen, Errioxara-eta egiten zituen atzera-aurrerak, eta erdarakadak botatzen zituen bueltan, eta hortik ezizena. Ez zuten ezagutu, eta argazkirik ere ez dute.

Transkripzioa

.Aittari "Maketua" esan dozue deitzen zotsela. Zergaitik? Nundik zetorren?

Agurne:-Ba. Aittittagandik.

-A, aittittagandik zetorren...

Agurne: -Aittittari esate ei ziuen Maketua; eta ez genduan ezautu aittitta, e... Pena bat dakat nik...

Nati:-Berrogeta urtiakin hil zan, oso gazterik. Berrogeta zortzi urtekin edo.

Agurne:-Baiña pena bat dakatela erretratua ez eukitzia...

-Aittaittak ez zaukan erretraturik bat ere. Eta ez dou ezautu aittitta.

Agurne:-Ta ibiltzen ei zan probetan eta hola. Baiña ez dakau. Penia dakau, e. Eta gero hari esaten zioelako ba gero guri aittari esaten zioen, eta gero guri...

Nati:-Bai, baiña harena izan zan, lehen 'burdi haundixa' esaten zakona, hartzen zaban ardaua Riojan eta itxuria ekartzen zaban burdi haundixan; eta han erderaz. Eta gero hona etorritta ere, nola zan pixkat txistosua, ba hamen ere erderakadak, eta jarri ziuen ba "Maketua". Eta gero gu ba aurrera segidu dou.

4.36. "Txingorriñian" eta sokasaltoan

- **Hizlaria(k)**: Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref**: EGB-068/025
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:33:49. **Bukatu**: 00:35:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Txingorriñian" lustre kaxa batekin egiten zen, hanka baten gainean. "Pasa-misi", sokasaltoan. Dena erdaraz egin behar zen.

Transkripzioa

Jolasian-eta zer egiten zenduen?

Agurne: -Bueno. Dantzan ez bada, zer itten genduan guk?

Nati: -Eskolan eitten gendun sokasaltuan, txingorriña, pasa-mixi, ez dakit zer, bueno...

Agurne: -Etxian ez jaonan /etxaonan/ astirik.

Nati: -Etxian ez, etxian ez zauan astirik jolasteko. Rekreuan.

Agurne: -Etxera etorritakuan lanak in bihar zian.

-Zer zan txingorriñian?

Agurne: -Ez dakizu? Hori izaten da arraixa batzuk einda hola, lustre kaja batekin.

Nati: -Bai. "A primeras" edo da hori.

Agurne: -Guk erakutsi biharko janau honi.

Nati: -Hori "A primeras" da, uno, dos, tres...

-Hanka baten gaiñian...

Agurne: -Bai, hori. Geuk erakutsi bihar janau honeri jolasian.

-Eta "pasa-misi" esan dozuna?

Nati: Hori? Sokasaltua, jarri hola sokia eta "pasa-misi" bere kantuekin eta gero "Al pasar la barca" eta ez dakit zenbat...

-Kantuak erderaz esaten zien?

-Danak; dana erderaz eitten genduan; ezin zan ein euskeraz.

4.37. Arenatzen

- **Hizlaria(k)**: Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref**: EGB-068/033
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:46:03. **Bukatu**: 00:47:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Zurezko zoruak eta arasa "arenau" egin behar izaten zen, hondarrez lurra igurtzi.

Transkripzioa

Agurne: -Eskillaria areniakin, e.

Nati: -Baitta zera ere, sukaldeko armaixuak eta arasia.

Agurne: -Bai, hori bai.

Nati: -Arasia zan armaixo batek zaukazen hola..., platerak ipintzeko lekua, behian tazak ipintzeko lekua, beheraguan basuak ipintzeko lekua. Ta gero zan armaixo gaiña, bi kajoe armaixuak, ta behian ba bi ate. Ba haura dana arenau in bihar izaten gendun. Ta fregaderian..., su gaiñian azpixon zauden atiak, fregadera azpixa, gero beste ontzi batzuk ere egoten ziena, egurra egoten zana, horrek danak arenia eta lejiakin garbittu bihar izaten genduzen.

Agurnei: -Eta eskillaria.

Nati: -Eskillaria ere bai.

Agurne: -Ostian argizaixa.

-Nundik ekartzen zan arenia?

Agurne: -Hondarra zan, hondarra zan arenia esaen deuen. Saldu itten zeben.

Nati: -Lejiakin haura garbittu ta gelditzen zien zuri-zuri. Eta gero harek

zaukazen, arasia esaten diunak holako kortiña txiki batzuk kuadruak, hola izurrakin ipinita, ta harek plantxau ta astebukaeran ipini...
-Agurne: -Ikusiko zenduezen horrek antigualeko armaixo horrek, eta dakazenenak puntilla txiki batzuk batzuk kuadruak eta beste batzuk zurixak eta.

4.38. Argizaria ematen

- **Hizlaria(k):** Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref:** EGB-068/040
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:57:22. **Bukatu:** 00:58:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Argizaria eman aurretik ondo garbitzen zen zorua alanbrez. Astero ematen zitzaion argizagia. Hiru ahizpa zaharrenak jarduten zuten, gehienbat.

Transkripzioa

Nati: -Ba argizaixa emateko zan hola tokor bat, eta zauan makilla bat; han sartzen zendun haura tornilo batekin lotuta, eta ematen zenduan arraixara hola argizaixa. Eta gero han pasatzen zenduan alanbria.

Agurne: -"Cera de palo" esaten jako ba... Honek gaztiak dia.

Nati: -Gero pasatzen zan alanbria. Ta alanbre harek ataratzen zaban zikin guztia. Ta haura eskobatzen zendun, gero argizaixa ematen zenduan. Eta gero zepillo bat zan brillua ateratzeko, haura dana garbittu ta gero ematen zan, pasatzen zan eskoboiaikin, ta zikin guztiak atera ta gero baietiakin brillua.

Agurne: -Nati, baiña ze lan zonan haura...

Nati: -Haundixa zonan baiña halaxe gerbitzen gendunan jaixan.

Agurne: -Eta gero luzera aguantatzen jonan?, ez.

Nati: -Bueno. Aste guztian ibiltzen ba, astian ez geunkanan astirik haura argizaixa emateko. Baiña geure amor propixua geunkanan astebukaeran hari garbittu bat emateko.

Agurne: -Ez donan gitxi astian behin.

Nati: -Ez, baiña... Halaxe hartu gendun ohitturia ta.

-Eta danok eitten zenduen ala txandan-txandan?

Nati: -Bueno. Hiru zaharrenak gehixen. Bestiak...

Agurne: -Bueno, gu bixok gehixen.

Nati: -Bueno, zaharrena ere bai. Danok, hirurok.

4.39. Kortazargaina, Karakate mendiaren benetako izena

- **Hizlaria(k):** Iriondo Lizarralde , Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-069/013
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:19:16. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Baserrian denetik egindakoa da hemezortzi urte bete arte: itulan, ganaduak eta ardiak zaintzen Karakaten. Karakate esan ohi zaio mendi horri baina bere benetako izena Kortazargaina da.

Transkripzioa

-Basarrixan gure aita eta ni ere ba. Honbre, basarrixan ba danera probau nuen garai hartan. Soldau jun arte, edo hemezortzi urte arte, hemezortzi urte arte edo horrela, ba gari-jotia dala, gari-ebatia dala; souan ba ittulan ganauen aurretikan. Hemen orduan ba mutikua, orduan ba hamabi bat urtekin edo horrela, ganauen aurrian ta ganauak zaintzen eta basarriko kontuak. Ardizaiñian ere egon naiz Karakate puntia baiño pixkat beratxua. Karakate baserria zan orduan Karakate. Karakate, izen beria, berezko izan [jatorra] deu Kortazargaina. Batzuek diar itten dute, Plazentzia aldian eta, Muneta. Muneta da Plazentziako alderdirako basarri bat, ta Karakate da Elgoibar alderako basarri bat. Muneta basarrixak jarraitzen deu baiña Karakate basarrixa nik ez nuen ezautu. Han inguruko zelaixak-eta bai, horrek bai. Eta horrela, ta ni beti hola iñoiz liburuak-eta, hola Juanito San Martiñekin eta abar eta; horren izen originala neuk zuzendu nuen, lan klase hori itten zabena, ta irakurri dot liburu batzuetan Kortazargaiña, eta gero "entre comillas" Karakate. Jentiak, ez dakizu, Karakate, karakate, Karakate!

4.40. Ama sukaldari eta emagin

- **Hizlaria(k):** Iriondo Garate, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref:** EGB-073/003
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Amak Zestoako bainuetxean ikasi zuen sukaldari. Gero leku askotan ibili zen, aberats-etxetan batez ere. Emagin ere egiten zuen, jende asko jaio zen berarekin. Ikasteko erraztasun handia zuen amak.

Transkripzioa

-Berari entzunda, koziñera ikasiko zaban Zestuako balnearixuan, ta gero gure denporan ya urtero-urtero juten zan Altzolako balnearixora kozinera bezela. Ta orduan etxe partikularretara, aberatsen ere juten zan, hamen Elgoibarren, Plazentzian, Bergaran..., koziñera bezela. Eta gero ezautu gendun ere, ta Elgoibarren asko daude, berekin jaixotakuak, partera bezela ibili zan. Baiña asko, ume asko jaixo zian berakin, berakin.
-Ta nun ikastakua zan? Bere familikoren batekin?
-Ez, ez dot uste. Baiña oso ikasteko zakan erreztasun haundixa gauzak ikasteko, amor propixua galanta. Asko balio zaban emakumia.

5. Lanbideak

5.1. Olasarten eta Orbea alkatearenean zerbitzatzen

- **Hizlaria(k):** Agirregomezkorta Ibarluzea, Ventura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Abarrategi, Iratxe
- **Erref:** EGB-004/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:10. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** 17 urterekin Sigmako Olasartera joan zen zerbitzatzera. Ahizpa zebilen han lanean, baina utzi egin zuen Mobillasenean lanean hasteko. Handik etxera itzuli eta, gerra-denboran, Orbea Eibarko alkatearen etxera joan zen zerbitzatzera. Kolpe handia hartu eta etxera itzuli nahi zuen berak, baina etxekoandreak ondo zainduko zutela esaten zion amari.

Transkripzioa

- Eta han orduan esan dezu bizi izan ziñala hamazazpi urte arte. Eta gero kriada...?
- Hamazortzi.
- Hamazazpi-hemezortzi edo bueno, gutxi gorabehera. Eta gero nora jun ziñan?
- Ba, ni gero, ba, zertu ein nitzan. Lehelengo golpia hartu naban ta [segidu...]. Hirugarren egunian, etorri zan ama ta nik amari: "Ama, etxera, etxera, etxera" esaten nion. [Ta ba hau ere] bendauta nauan ba, ezta? Tetanua ta hartuta. Ta "Hau ondo zainttuko dot" señoritiak hori, "Ia... la señora", Gonzalez Orbea, ezta? Alkatia zan Orbea hori.
- Orduan alkatia zauan Orbea?
- Orbea. Bai, orduantxe gerra-denporia, gerra-denporan, gerria hasi zanian. Ta señoria ba Andikaotarra zan, hamentxe elgoibarkotarra zan, baiña Orbeak aberatsak zien ta fabrika haundixak, entzutia eukiko dozue Beistegi aldamenian ta. Ta bueno.
- Baiña zu hamazazpi urterekin jausi ziñan?
- Ni ez, hogeta... hogeta birekin.
- Bai, baiña hamazazpikin esan dezu erten zendula baserrittikan eta nora jun ziñan?
- Estreiñeko nere aizta egon zan tokixan.
- Baiña nora jun ziñan zure baserrittikan?
- Olasarte, Olasarte. Sigman.
- Olasarte zer da?
- Nere aizta han egon zan ta beste bat topau arte... Bera sartu zan zerian, "donde..." Jesus! Oin [akordauko dot?] Bergaran "donde Mobillas". Nere aizta egon zan hor Olasarten hiru urte ta erdixan egon zan. Ta gero sartu zan zerian, "Mobillas de Bergara".
- Ta orduantxe zu sartu ziñan, ezta?
- Ni hor egon nitzan, bai, hor egon nitzan, baiña beste bat topau arte egon nitzan ta gero etxera, eta gero, handikan Orbeanera sartu nitzan. Ta Orbeanian ere bagaozela gerria urten zan ta... noiz zan? "El día dieciocho de julio".
- Bai.
- "De julio".

- "De mil novecientas..."
- "Treinta y seis".
- Bai, urten zan.

5.2. 13 urterekin Mutrikun ogia banatzen eta gero Bilbora neskame

- **Hizlaria(k):** Epelde Arriola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-017/003
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:02:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Neskameak
 - Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** 13 urterekin Mutrikura joan zen ogiak banatzera eta gero ahizpa zuen Bilbon eta hara joan zen gerra bukatu artean neskame lanetara.

Transkripzioa

- Baiña ni basarrixan asko ez nitzan eon. Hamahiru urtekin erten naban. Hori kuadruori nerie da. Eta Mutrikun eon nitzan ogixak partitzen. Eta gero han bi urte in nittuan ta gero aitzak zela Bilbon naukezen bi, ba, Bilbora jua nitzan, etxe partikular batera zerbitzera jun nitzan. Eta gero Bilbon eon nitzan, ba, ba, gerria pasau arte.

- Gerria pasau arte.

- Pasau arte. Ezin geinken etorri hona. Gu han bestiekin geunden ta hona ezin geinken pasau. Aitta ta ama hemen zeuden baiña gu ezin pasau ta han eon giñan Bilbon. Eta gero, gerria amaittu zanian, etorri giñan basarrira.

5.3. Biarritzeko "Tres fuentes" etxean neskame

- **Hizlaria(k):** Arakistain, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-028/038
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:54:06. **Bukatu:** 00:56:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Biarritzen neskame egon zeneko kontuak. Eurak joan zirenean kondea hil egin zen eta kondesa semearekin geratu zen. Bost zerbitzari eta txoferra egoten ziren. Etxea handia zen jardinarekin, "Tres fuentes" izenekoa eta txoferrarentzat beste etxe bat zeukaten. Honen inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Oseake, Frantzian-ta ibilitta... bueno, Frantzian, Iparraldian ibilitta zaoz.

- Bai. Bi urte, urte bi ta erdi ein najaittuan behintzat han, e...

- Ez nakixan.

- Ez zekizun? Hantxe [...] nitzuan, ba, [...]. Bai.

- Joe, ondo bizi ziñan zu ere!
 - Bai hoixe!
 - Bueno, zu, edo harek hobeto.
 - Bai, harek hobeto! Pentseik ba, gu jun ta hiru hillabetera hil ein zuan kondia.
 - Hil ein zan han?
 - Gu jun ta [...] hil ein zan, hillabetian egon zan gaixorik [...] hil zan kondia, gero, kondesia geratu zan semiakin. Gero beste seme bi ta alaba ezkondata zerakin, e, Romanonesen entzutia eukiko dozu? Madriko aberatsena. Romanonesen semiakin zakan ezkondata alaba bat, Condes Alleres: condes [...] y condes Alleres. Harek egoten zien udan. Ba, bi hillabetiak pasatzen zittuen hantxe. Harek ekartzen zittuen euren kriedak, txoferra ta dana. Ta gu han egoten giñan, bederatzi lagun igual, [...] kriauterixia!. Ostian, bost: dontzeilla bi; geu, lau; [de tutela], bost; bost kriau, [mutilla "de tutela"] ta txoferra aparte.
 - Ez zebeñ etxe bakarria eukiko harek?
 - Ez, u! Etxiak [...] gaiñera harek [...] jardiñak ikaragarriak, han zuan etxe haundi bat, txaleta, eta beste etxe bat txoferrantzakua, aparte jardiñan. Jardin handi bat, itturri handi bat, "Tres Fuentes", "Trois Fonts" zan, "Trois Fonts" zaban izena, "Tres Fuentes". Hiru txorro holaxe ta "Tres Fuentes" etxiak izena [...].
 - Jo, ba, zu hamen ohittuta ta derrepente kanpora jun eta holako etxe batera jutia...
 - Baiña kriauena-ta pegante, baiña guk aparte, eskillara banatatik. Bai, guk etxia pegante, baiña guk geure bizimodua aparte. [... tia Maribik eta...] bazkarixa zerbitzen zebeñ bi lagunek, batek saltsia ta bestiak aurretik, hiru lagun, harek zerbitzen bi lagun. Geu be holaxe ibiltzen gaittuk. Bi lagun. Ta ostian, e... [...] gonbidau barik orduan... hirugarrena bai askotan orduan. Jesus! [Ze diru...]. Herrixa politta Biarritz, dotoria.

5.4. Estazioko umeak "maletero" lanetan

- **Hizlaria(k):** Unzueta Iriondo, Pepita; Unzueta Iriondo, Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-040/003
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 Lanbideak » Trenbideko langileak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Lehen askoz ere lasaitasun handiagoa zegoen bizitzeko. Estazio inguruko ume guztiak "maletero" lanetan ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Lehengo Elgoibar edo oraingua, zuentzako zein izan da, bueno, zein da Elgoibar hobia?
 - Bueno, "ahí está". Nahi dogu jendia egotia, lana egotia ta jende asko ta prosperaziua nahi dou, baiña bizi izeteko trankilidadia orduantxe, e! Jesus! Estazioko ume guztiak, "maleteruak"; karrua ezin dabala jaso ta bost [Zuazubizkarrenekuak] ta guk, jun ta karruari bultza ein, goittik behera aldapa zerian ta "ya está". Holaxe, holaxe bizi giñan. Oso...
 - Oso era...

- Oso politta zan.
- Oso era desberdiña zan, ezta?
- Bai, bai.
- Oso politta zan, baiña ziheroko desberdiña.

5.5. Aitaren hargin lanak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-050/011
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:18:59. **Bukatu:** 00:21:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Haritz Dantzari Taldea
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Marianisten zubia Benturaren aitak eraiki omen zuen. Elgoibarrerako lehenengo urak ekartzeko obren ardura ere berak izan zuen. Gerra aurrean langabezian zeuden langileekin egin omen zuten ur ekartze hori.

Transkripzioa

-Eta zure aittak hola obra seiñalaurik edo badauka?

-Ez dakitt, ezin neike esan hori. Haura leku askotan ibili zan, baiña hola bat esateko. Zubigiñan ere bai, Altzolan ere bai in zaban harek zubixa. Hamen ere ere Elgoibarren ere bai. Oin ez dakit bota ez daben hori. Baiña hemen marianistak esaten giñuan orduan; horko hori zubixa, peatoia osea, hori ere bai, hori ere berak langilliekin-eta berak egindakua. Ta bera langilliekin-eta ibiltzen zan. Gero obra bat, beste obra bat, beti esaten zebana, eta ni umia nintzan, ta goguan asko, baiña berak esaten zebana, Elgoibarrera urak, lenengo urak ekarri zittuena hemen San Migel Balletik.

-Eta berak egin eben zer hori?

-Bera zan nagusixa.

-Depositua ta kanala eitten?

-Bai, horrek eitten bera. Ta obrero parauekin gerra aurrian, obrero parauekin. Askotan esan zaban haura. "Nik ekarri najittunan ba Elgoibarrera urak obrero parauak lagun nittuala. Haura zonan, batek etxaukanan lanerako gogorik eta eurekin ekarri najonan", esaten zaban. Eta lenengo urak ekarritakua aitta guria izango zan. Nagusi, vamos, nagusi.

Oseake obrero parauekin.

-Bai ba, lan barik zauan jentia gerra aurrian, "obrero parauak" esaten zakon orduan, haretxekin.

-Orduan etxeko lanak zeinek egiten zittuan ba?

-Orduan anaia etxian, anai zaharrena. Haura kanpuan, aitta argintzan kanpuan ibili zanian anai zaharrena egon zan amakin nahasi, eta gu gaztiak, egon zan etxian. Gero aitta geldittu zan etxian eta anai zaharrena sartu zan Sigman. Sigmako taillar hortan ere ibili zan aitta hargintzan. Hor ere ibili zan. Taillar horretako lelengo hasi zanian aitta ere han. Orduan langille bezela izango zan, ez zan uezaba bezela izango, baiña ibilli zan. Eta gero orduantxen ia bere edadian hasi zanian aurrera pixkat, geldittu zan etxian, nahiz eta bixenbittartetan jun arren, etxian. Eta anaia sartu zan Sigman. Orduko ya, gerria pasau ezker hori, nagusittuta. Artebittartian anai zarrena etxeko lanetan egon zan.

5.6. Josten ikasten Mendaron eta Elgoibarren

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/006
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Bordatzen ikastera Mendarora joaten zen, mojetara. Hainbat joaten ziren Elgoibartik, trenez. Gero herrian jarraitu zuen ikasten.

Transkripzioa

-Gero ni juten nitzan josten ikastera, bordaketan ikastera. Ni hamasei urte nakazela juten nitzan Mendarora mojetara bordeketan ikistera, hamasei urtekin.

-Mendaroko monjekin?

-Mendaroko mojekin. Bordaketan han. Trenian juden giñan eta, hemen auzoko lagun bat eta bixok, eta beste kaleko batzuk ere bai. Atsaldia pasatzen genduan han. Bazkalduta gero, ordu batian trena hartu eta juden giñan. Eta gero ere hemendikan ere, herrixan ere ni josten ikisten ibilli nintzan gero ere.

5.7. Debara zurgintza ikastera

- **Hizlaria(k):** Isasti Irusta, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-055/012
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:22:42. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Debara joan zen zurgintza ikastera, Txopa tailerrera. Txopa itxi zenean, Elgoibarrera itzuli zen eta aurretik lanean ibili zen aroztegian jarraitu zuen lanean.

Transkripzioa

-Eta gero urte bat, bi urte faltau nitzan taillarretik, jun nitzan Debara, Deban zeon ebanisterixa bat, eta hara jun nitzan, pixkat ebanista ikasteko gogua neukan neuk. Eta jun nitzan Txopak, Pajea [...].

-Txopa zan taillarraren izena?

-Bai, Txopa, taillarra, ebanisterixa Deban. Hantxe plaia inguruan zauan eta hantxe bi urte edo ein nittuan.

-Eta ikasi zeen ebanista edo?

-Bueno, ikasi, zeoze ikasi gendun. Baina gero hari pasau zakon, bera pixkat golfo samarra zan uezaba; andria hil zakon hamen eta Ameriketara jun zan, taillarra itxi ta Ameriketara jun zan. Eta hor geratu giñan zortzi bat lagun edo. Atzera Elgoibarrera jun nitzan eta atzera hartu zian lehengo lekuan eta.

-Txopa hori taillerra itxi eta zuek danok lan barik.

-Bai.

-Orduan lehen be pasaitten zien holako gauzak.

-Bai, bai, klaro.

5.8. Haizearen indarra

- **Hizlaria(k):** Arrillaga Garate, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-057/037
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:32:26. **Bukatu:** 01:34:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Etxeginak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Berak etxean egindako azken erreteilan, porlan masatan ondo itsatsitako gailur-teilak eraman zituen azkenengo haizeteak.

Transkripzioa

-Zienkuenta y seisa, "ciencuenta y seis. Cinco seis. Pufff! Cuarenta y un"uan haizia. Oin ein dau eta orduan ere...

-Trena eta bota ebana, ezta? Hor Zarautzen edo trena ez eban bota haiziak?

-Bai. "Cuarenta y un"uan bota zaban. Atzeko kotxian beratzi itto zian. Erdixan geratu zana ez zan uretara aillegau, baiña bestia ondokua uretan eta atzeko buztanian zixena behera eta uretan zaudenak itto. Orduan Donostiatikan etxera etorri nitzan ni haura han zeuala.

-Zu soldau zegozen orduan?

-Bai, ni orduan begira egon nitzan eta haura azpikua ta artian etaratzeko zauden eta. Hori barixakua edo izango zan eta ni zapatuan etxera eta han zauan behera txintxilixka haura.

-Ointxe badaukazu etxe onduan pinu pilatxo bat apurtuta azkenengo haizetiak. 41ko hori zer izan zan, haundixaua?

-Pufff! Bai, hor bastante tokau da, hor gogor joten zaban bertan ere. Gure etxeko gaillurrian zauden taillak harek libratzia. Hori ein naban ointxe dala..., taillatua arreglau naban ointxe dala "treinta y dos", hogeta hamabi urte ein nabala ta. Gaillurian albuetaquak eta danak [...] ta amaittu ta gero ekarri nittuan beratzi milla tailla erretaillia itteko; azpi guztia ta dana dan-dana berrixakin sartu naban. Gero geñian batzuek zaharrak eta bestiak danak berrixak geñian. Gero haura kanala haura erdikua ipini sokia zuzen eta edarkixao hartu zaban dana. Eruan masia eta brau!, zulo guztiak bete ta haren geñian da!, jota masatan tailla berrixak, berrogeta hamar gaillur-tailla blast!, edarkixao kolokauta ipiñi zittuan, hartu bueltia bertako masiak, eta haura soltau leikenikan ez zauan pikatxoiakin soltatzeko ta. Haiziak haura soltau leike handikan ein daben haiziak. Ia zelakua egongo zan. Ez dakit nun izango dian harek tailliak geñiera. Sei edo zazpi leku baten eta bestian beste lau edo bost..., hamar bat tailla bai behintzat halaxe pegauta harek han porlanetan...

-Azkenengo haize honek atara dittu?

-Lehengoko haiziak.

-Kontxo!

-Harek han gaillurrian porlan-masatan harek sartuta laga. Holaxe masia gaillur guztian jota semiak eruanda baldakara handixa ta brooo! bota ta haren geñian brast! Haura haura tailla berrixa pegauta dauan moruan esan naban, hau libratzeko ze haize...!

6. Aisia

6.1. Jaietan udare, karamelo eta errozka saltzaileak

- **Hizlaria(k)**: Elustondo Aizpiri, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Erref**: EGB-010/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:35. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

- **Laburpena:** San Lorentzo jaiak Sallobenten. Bizkaitik jende asko etortzen zen udareak saltzera. Karameloak saltzera ere etortzen ziren, baita mendi-erromerietara ere. Erroskak.

Transkripzioa

- Ta festak, jaixak, umetan, gogoratzen zera? Umetan, e!
- Bai.
- Sallobenteko jaixak.
- San Lorentzoko jaixak, bai.
- Zelakuak izaten zian?
- Ba ze esango dot ba, orduan halakotxiak usatzen zian-ta... Ba erromerixia izaten zan. Erromerixia. Eta gero, berriz, e... lehen, e... asko etortzen zian zeretik, Bizkai aldetikan e... horrek udari-edo madari-edo horrek saltzera. Ta harek egoten zian illaran ta bertakuak ere bai, basarri batzuetakuak. Eta, badakizu, mutil-koskorak eta haretzek erosi ta... ostian karameluak. Karameluruak ere ba... hemenguak ibiltzen zian, karameluruak hamenguak, e... zuek ez zenduen ezautuko, Luis "Narru" ta izaten zian harek, han karameluekin juten zianak. Eruten zebe zer batekin, mando edo kaballo batekin eruten zittuen ta baitta igual, gaiñera, mendi-erromerixetara be igual juten zian harek! Irukurutzetako puntara be bai. Bai. Ta holaxe.
- Ya.
- Ta erroskak. Erroskak eta... Erroskak Mendarokuak.
- Bai, Mendaroko erroskillak.
- Bai, [...] ez dakit zer, gaiñera erroskeria. "Bizcochos de Mendaro".

6.2. Maalako jaiak

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:30
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Madalena festak izaten ziren auzoan eta erromeria egiten zen. Jende ugari biltzen zen, batez ere Txarriduna taberna zabaldu zenean. Meza nagusia egiten zen Maalan.

Transkripzioa

Santa Maria Magdalenan egitten zan fiestia, ta orduan, bueno, guretzako, Santa Maria Magdalena bizpera, kanpaiak, elizia, orduan hori izaten zan gure fiestia, erromerixa pixkat izaten zan, erromerixia ere bai izaten zan, baiña neuk sasoi ederra, ta orduan, dana ona. Gero, Txarridunanekeo tabernia sortu zanian, harek Santik, oso abilla zan haura bere parterako, ofiziorako, tabernia zeukan ta. Ta harek organizatzen zittuan jaixak, bueno, ta egoten zan Maala beteta toperaiñuan, toperaiñuan, mezia ere egoten zan, meza nagusixa, eta inportantzia haundixa ipiñi zion Maalari, gabian, gero erromerixia izaten zan. Behiñ ordu batera ezkerro, amaittu egitten zan Maalan, ta ixotzen zaben Toletxegaiña, ba haraxe, erromerixa, haraxe ixotzen zaben, ta hantxe soiñuakin. Aguro amaitzen zan, oiñ bezela amaierarik ba(g)eko gauak ez ziran izaten baiña azkena haraxe.

6.3. Elgoibarko zinea parrokoaren kargu

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/033
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:59:30. **Bukatu:** 01:00:34
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Zinema
 - Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena:** Irakurtzea asko gustatzen zaio eta egunkaria irakurtzeko zaletasun handia du. Elgoibarren zine bakarra zegoen orduan eta parrokoak zuen hango kargua.

Transkripzioa

Nire denboran parrokuak euki zaban, Don Ceferino, denbora askuan ez dakitt. "Ya empezaron a protestarle y todo, porque cuando llegaba el beso, cortaba". Poltsia hartuta zera joaten zan gero, astero bai, baiña orduan zenbat egoten zan, nik goguan daukat, gure amak, igual bi jai illaran edo hiru igual ta, ah!, ernegatu egitten najonen neri honek jaixok esaten zaban, badakizu pagia eman bihar, duro bi izaten zan baiña harek hiru mutil zakazen, lau mutil, ta aber, guri ez zigun, guri txakur haundixa bakarrikan.

"La mano misteriosa" ta horrek ziran serietakuak bai, ta ene!, gaiñera zinia ez dakitt zazpiretan edo ze orduan. Goguan dakat nik, gure amak, afalduta nahi izaten zebe mutillak joan ta esklaba geratzen zan ama, arratsalde erdixan afarixa eman bihar.

6.4. Futbolera bidean Soteraren sagardotegira bazkaltzera

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/044
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:18:09. **Bukatu:** 01:19:50
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Futbola
 - Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Futbol partiduak ikustera noizean behin joaten zen. Sagardotegia zuten Soteraren etxeok eta jendea joaten zen futbola ikusteko aitzakian bidean bazkaltzera.

Transkripzioa

Gitxittan, guk sardandeixa geunkan, ta han geunkan bastante, nahikua lan, pentsatu ere ez. Ni ez nitzan sarri izango futbolian, ez, entzueria bai. Ta harek, ene!, orduan, esaten dizut, etortzen ziran, Eibartikan etortzen ziran, bi espezial egoten ziran Eibartikan, ta bueno, gure sardandeixa gelditzen zan topera. Haruzkuan ere sartu egitten ziran, honuzkuan merixendatzera. Haruzkuan etortzen zan, lehen uste dot esan dizutela uste dot, hasi egiñ naiz, interbentore bat. Haura etortzen zan, bazkaldu egingo zaban harek

gurian seguro, fuentekada loiña jaten zaban, eta gero, siestia, botella bat sagardauakin, gero siestia egitten, "no comerá más fresco ni el rey" esaten zaban. Gurian fresko egoten ziran, loiñak garbittu ta, gero ez zagan bestela astirikan garbitzeko ta. Baiña hari gustatzen zitzakon berak harrapatuta, ta berak harrapatzen zittuan askan, holan erreminttia zagan ta ra, ra... ateratzen zittuan ta. Bueno, zoragarria izaten zan partidua zaganian, haruzkuan zedozer baitta orduan ere asko bajatzen zan, baiña honuzkuan, bueno!, amaitzen zanian, etxeruzkuan, bueno, asko gelditzen ziran merixendetarako, beste batzuk edan ta juan egitten ziran.

6.5. San Roke egunean gonbidautza

- **Hizlaria(k):** Odria Osoro, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-014/002
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** San Bizente eta San Roke jaiak ospatzen zituzten auzoan. Gelatxo soinu-jolea egoten zen soinua jotzen. San Roke egunean gonbidautza egiten zen.

Transkripzioa

- Itten zian festak San Roken lehen?
- Zela?
- Festak, jaixak, itten zian?
- Ke, ba! San Bizente ta bere eguna ta ostian ez.
- Eta ze izaten zan egun horretan?
- Ba, betekua. Jendia batzen zan ta kaletik eta basarritik eta... Soiñua jotzen zeuben, Gelatxo zan orduan famosua. Gelatxo ta horrek eta... ba! Hola hasi ta hola amaitzen zan ta...
- Eta egun politta izaten zan?
- Bai, bai, bai, oso politta.
- Bazkarixa kuadrillakuekin edo familixiak edo zelan itten zan?
- Familixako gonbidautzia-ta itten zan San Roke egunian, ta San Bizente da bestia, ta orduan ere, ba, oin bezela, jendia juaten zan ta, beti mezia ikusittakuan, ba, hamarretako bat edo, ta alkartasuna ta abarra, ta gero, ba, etxera. Ta hola amaitzen zan.

6.6. Hotel eta bainuetxe ugari Altzolan

- **Hizlaria(k):** Lariz Garate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-015/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:36. **Bukatu:** 00:02:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu

- **Gaia(k):**

Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

- **Laburpena:** Altzolan hotel eta bainuetxe asko zeuden eta jende ugari ibiltzen zen bertan. Kategoria handiko jendea ibiltzen zen, ministroak, militarrek eta jeneralak, besteak beste.

Transkripzioa

- Ze nolako auzua zan Altzola lehen?
- Altzola grandia.
- Umia ziñanian, ze zauan Altzolan?
- Joe... Hotelak asko!
- Hotel asko. Zeintzuk gogoratzen dittuzu?
- Hotela, "Balneario", "Larrañaga", "Bulevar", "Hotel Alzola", "Hotel Zelaia", "Hotel Sebastiana", "Hotel Ituarte".
- Jende asko ibiliko zan orduan, ezta?
- Bueno! Orduan jende kategorixakua etortzen zan Altzolara.
- Eta zenbat jende bizi ziñaten hor, Altzolan?
- Altzolan? Ez dakit zenbat giñan, e...
- Gaur egun baiño gehixo.
- Gaur baiño gehixao bai, gaur baiño gehixao, hirureun bat-edo, berrehun-hirurehun holakon bat.
- Eta ze denda zeuden Altzolan?
- Dendarik ez zauan orduan.
- Ez zauan? Eta jendiak nun eitten zaban erosketak?
- Elgoibarren.
- Elgoibarrera etorri bihar.
- Bai. Dendak egon zittuan geruao, geruao bai. Baiña orduan taberna bat zauan.
- A, ordun eraiki, edifiziorik garrantzitsuenak zian hotelak.
- Hotelak, hotelak, hotelak, bueno!
- Eta ze nolako jendia juten zan Altzolara? Gogoratzen dozu?
- Jende kategorixakua.
- Eta gogoratzen al dozu pertsona bereziren bat etorri izan zala [...] baiñuak hartzera edo...?
- Izenakin ezin neike esan, baiña ministruak asko. Jeneralak ere baitta.
- Ta, ba, Españako presidentia-edo gogoratzen al dozu etorri zala edo erregia edo?
- Presidentia ez, baiña ministruak-eta asko etortzen ziana bai.
- Militarrek ere, ezta?
- Militarrek ere bai gerra ostian-ta militarrek-eta, jeneralak-eta asko etortzen zittuan.
- Beste... beste moduko Altzola izango zan haura, ez?
- Bueno!
- Zuretzat... zein nahiago zenun, lehengoko Altzola edo gaurkua?
- Lehenaokua, gaur ez dao ezer.
- Gaur ez dao ezer, ez? Lasaitasun gehixegi igual...
- Bua! Ezer ez, ezer ez gaur. Orduan, orduan grandia zuan, baiña!

6.7. Txikiteoan abestu ere egiten zen

- **Hizlaria(k):** Maiztegi Iriarte, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-018/012

- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Taberna giroa
 - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Lagunarteko giroa kalean. Kalean kuadrilla handiak ibiltzen ziren eta txikiteoa egindakoa abestu egiten zuten. Condenekoa tabernan pasatzen zuten denbora asko. Ardoa edaten zen normalean eta txakur haundi bat balio izaten zuten.

Transkripzioa

- Ze giro egoten zan lehen Elgoibarren, Elgoibarko tabernetan?
- Girua? Ona.
- Girua ona? Zelakua izaten zan? Astean zehar jendia ze ordutan ateratzen zan?
- Hamen jentia poliki kantatzen dau. Ta Elgoibarren juntatzen giñan gu, ba igual giñan hogeta bost bat lagun kuadrillan, juntatzen giñan tabernetan ta lau txikito eran orduko ya bat hasten zan kantuan. Gero juntatzen zian beste [...] ta ixa orfeoia. Alkarrekin kantau ta... Beti ambientia.
- Beste kuadrillakuekin, ezta?
- Oin... Guk bai. Oingo txikiteuak eta, horixe zakan, [...] jentia mozkortu eitten da hori zela da hori...? "El bidón" ta...
- "Botellón"
- "El botellón" ta horrek ta... Orduan ez zauan. Orduan, ba, porroittikan edo bestetikan ta...
- Bai, baiña toki baten jarri ta hantxe jarraitu, ezta?
- Bai, jeneralian bai.
- Toki berdiñian. Jeneralian, ez zan eitten txikiteua taberna batetik bestera ta...
- Bai, bai eitten zan, baiña, juntauta ta gero... Hori da, baiña lasaiago, ez?
- Gure zera zan "Kondenekua".
- "Kondenekua"na beti? Hara juten ziñaten?
- Bai.
- Eta edan, ardua normalian, ezta?
- Bai ba, ardua. Zera, dirurik ez zauan gehixaorako ta!
- Zerbezarik eta holakuak ez.
- Ez.
- Sagardua ta edaten zan?
- Bai, eran bai, baiña lasai, lasai, oseake...
- Zenbat kostatzen zaban txikito bat?
- Txikitua orduan?
- Bai.
- Ba txakur haundi bat edo.
- Ta ze zaozen, kantidade desberdiñak, ez? Erdixa edo osua [...], ezta?
- Segun zelako borondatia dakan zerak.
- Kamareruan borondatian araberia.
- Bai.

6.8. Zine parrokiala; zentsura zinean

- **Hizlaria(k):** Maiztegi Iriarte, Ramon

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-018/023
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:33:35. **Bukatu**: 00:36:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Parrokiako zinea zegoen lehenbizi eta gerra ostean Santolaiak Odeola ("Odeón" antzokia) ireki zuen. Ceferino Urrestarazu parrokoa zen parrokiako zinearen arduraduna. 1930 inguruan itxi zuten zinea parrokoak ihes egin behar izan zuelako. Zentsura egoten zen zineetan. Txakur handi bi kostatzen zen zinea.

Transkripzioa

- Zenbat zine zezen Elgoibarren zure ume denboran?
- Elgoibarren? Bat ofiziala, parrokuak zakana, "cine parroquial".
- Hauxe, Errosarixo kalekoa.
- Bai, hori, bai.
- Eta zela zakan...
- Eta gero, gerra ostian, ipini zaban Santolaiak "Odeón".
- "Odeón". Eta "cine parroquial" a... parrokoa zein zan, orduan eruatzen zabanak?
- Ceferino Urrestarazu.
- Eta Elgoibartarra zan bera?
- Ez, ez. Horrek, parroko horrek, gerra denporan tokau zan ta... enfrontamentu batzuk ikusi zittuan. Politikan badakizu ze pasatzen dan.
- Eta alde egin behar izan zaban?
- Bai.
- Eta ya laga ein zuan zinia?
- Bai.
- Gogoratzen al dozu, gutxi gorabehera, ze urtian edo itxi zan zine hori?
- E... hori, zera, "cine parroquial"?
- Bai.
- Hori gerra aurretik, hor, "veinti nueve, treinta" edo holakon bat.
- Holan itxi zaban?
- Bai.
- Eta parrokuak aurrerao edo, osea, aurretik eruatzen zaban, ez?
- Bai, ta gero egoten zan ba "censura": haura, musuren bat-edo baldin bazauan ba, han e, bat seminaristia edo bateron bat, "dat!", ipini hola zeari ta...
- Agertzen zan.
- [Musua] ez ikusteko. Ez ikusteko zeari ipinita, objetibuari.
- Bai, bai, bai. Holakuak eitten zittuzten hor, e?
- Bai.
- Zinian? Eta gustokua zenun zinia? Gustatzen zitzaizun zinera jutia?
- Bai. Jeneralian, izaten zian pelikulak, ba, bakeruenak ta hola.
- Bakeruanak eta.
- Bai.
- Eta ahotsarik gabekuak eta holakuak.
- Bai ba, [...] zauanian ba...
- "Tostón" pixkat.
- Gustora danak, baiña parrokuak eta ez, hori ez da komeni ta bestia ta...
- Eta zenbat kostatzen zaban ziniak lehen? Gogoratzen dozu?
- Ba hoixe ba, txakur haundi bi. Erriala pagia ta txakur haundi bi zinia.
- Txakur haundi bi. Eta ordun, bueno, astero-astero ez ziñeten jungo,

ordun?

- Ba jeneralian, ni, jeneralian, bai, e!
- Eta ze ordutan egoten zan zinia?
- Ze ordutan?
- Bai.

Atsaldian egoten zan, e... ez dakit, seiretan edo, ta gero, gabian, [oin baiño] goizao, zazpiretan edo beratziretan edo.

- Igandetan normalian, ez?
- Bai, igandetan bai, jaiegunian.
- Eta zelakua zan zinia lehen?
- Oso politta zan hori lokalori, e!
- Zelan zauan einda? Ze zauan, komunak sarreran ta...
- Bai, bai, bai ondo ipinitta zauan.
- Ondo prestatuta.
- Hori Errosarixo kalia, e!
- Bai, bai, bai, hemengua.
- Bai, hori bai.

6.9. 10 urtez Elgoibar futbol taldeko zuzendaritzan

- **Hizlaria(k)**: Maiztegi Iriarte, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-018/034
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:53:54. **Bukatu**: 00:55:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Elgoibarko futbol taldeko zuzendaritzan egon zen 10 urtez, 16 urterekin hasita. Bera zuzendaritzan zegoen denboran txapelketa ugari irabazi zituen taldeak. Don Tomas Zubizarreta medikua eta Jose Rezola izan ziren futbol taldeko lehendakariak orduan.

Transkripzioa

- Futbolera Lerunera bai.
- Bai.
- Eta igandero juten ziñan edo zapatuero.
- Hamar urte ein nittuan direktibo, hamar urte ein nittuala direktibo "Club Deportivo Elgoibar"ren.
- Zenbat urterekin?
- Ba, hamaseirekin hasi ta hogeta seirekin laga nion.
- Ordun, oso gaztia sartu ziñan zu direktibo!
- Ba klaro! Bai.
- Eta zelan hori?
- Ba, [...] ikusi zaban dinamikuak giñala ta, ta duako lanak [bestiak be] ezin leike keju.
- Klaro, hor ez zan ezebe kobratzen, baiña...
- Gaiñera pozik [dagoz], e! Ni direktiban egon naizenian, beti etara dabe "Campeón de Guipúzcoa", "Campeón de Tercera", "Campeón de tal"...
- Elgoibarrek atera zaban.
- Bai. Ta hori da, ba, pozgarrixa.
- Bai ta...
- Dana ez da dirua, dirua ez da dana.

- Ta zein zauden presidente "Club Deportivo Elgoibar"en ordun? Ze hori izango zan gerra denboran, gerra denbora ta gerra amaittu ta gero.
- Bai. Don Tomás Zubizarreta medikua...
- Bera zan "Club Deportivo"ko presidentia edo?
- Bai, bai. Ta Jose Rezola ere bai.
- Egon zan presidente?
- Bai.
- Geroxeo?
- Bai, orduntxe, orduntxe [...] zerian...
- Urte haietan, ez?
- Bai.

6.10. Errekan arrantzan; angulen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Barrutia Mendikute, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Ibon
- **Erref**: EGB-022/014
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:26:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Arrantzan egiten zuten errekan. Besteen otarrak zaintzen egoten ziren, ea zer harrapatzen zuten. Arrainak harrapatu eta tabernara joaten ziren gero bazkaltzera. Angulak egoten ziren errekan. Angulen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Gero zerian ta peskan, ta peskan ba bai. Hartu peskia ta haura segurua izaten zan ta beste batzuen zestuak errekistau, zainttu. Albitxurik han bota jok, bestiak han bota jok, bestiak... ta "jaso ein bihar juau". Ta ura zikintzen zanian, pixkat [ugerrian] zauanian-ta jaso ta igual bardu mordua ta ra! Ta txabalituak ta ba, orduantxe hamabost bat urte-edo ta gero tabernara harek jatera ixilikan ta enterau eitten zan jendia. "Ene! Goiko Errotak eta Urbanek eta ez dakit zeñek-eta harrapau juek! Mekauen la letxe!!" Hortiko aldian zestua zakenak: "Horrek gure zestua errekistauko juen!". Ta holakotxe gauzak asko [...] ta ibili [...] ez dakit, gero ba, hortxe, gero arraiñetan ta, ba, arraiñetan asko ikusten genduan. Gero angulia. E? Ta gero zela ixotzen daban gora. Aurreraka ez da juaten, e!
- Atzeraka?
- Bai. Bai, zerian bai, hemen errekan, ba, hamen aurreraka juten da, baiña gero ixotzeko gora, hau e... odolgixa esaten gendun guk "musgo" esaten da erderaz. Ta horren bittartian sartu buztana ta dzi, dzi, dzi! Baiña bixkor gora, e! juten da.
- Ontxe harrapau dittue hamar angila, ez? Juan zan astian errekan?
- Hemen?
- Bai. E... Melitonen harrapau zittuen.
- Joño! Ta honaiño ailleau dia, e!
- Ba ointxe bajauta o ez dakit.
- Ontxe ba, itxuria, ba zertuko zian.
- Ba juañ zan, oin dala bi aste-edo.
- Ointxe, ointxe ba ertetzeko zea, ixotzeko gora. Ta aingiria...
- Angilia, e? Aingiria

- Bai, angulia bai. Ta angulia oin gora ixotzen da. [...] oin gora ixotzen da. Bai, ta haren ama Gatzagaraiño jun baldin bada, ta handik bajatu bada, angulia haraiño ixotzen deu.

- Jo ba ez daka bidia makala bueltan.

- Eta gero bajatzen da, setienbrian hasten da bajatzen. [Urerria] zikiña dauanian zera ta orduan etorten da gero e... jo ta goittik behera. Ta nik angulak, e... zera, aingirak holakotxe senduak, kongrio moduan esateko moduan. Kilo bi ta...

- Hori hemen?

- Pasatzen dana... Bai. Turbiñan sartzen zian ta turbiña geratu. Urik ta ezebe ezin da geratu. Ta baten aitta zanak esan zian "Dios! Aingiria dao turbiñan" ta "guazen, kendu ura" Kendu ura ta etara genduan ta "Benga! Etara hortikan" ta hasi naiz eskua sartu zer eta dauan ta jode! Nik billurra zer ta "Jolin! Aitta hemen zeoze dao" ta "Etara, helduixok billurrik be hori ittota daok-eta! Hori aingiria dok" Gero bai, gero behin, handik aurrera banakixan ta...

- Lehenengo aldixan...

- Etara ta holakotxe aingiria, turbiñan orduan, "Aiba Dios! Zela baiña hori?" Ta guk bagendukan aitta zanak-eta einda zeuden ba kanaletikan zauan ba konporta bat. Ta han egoten zan hola nasia esaten ziuena, parrilla bat einda egurrezkua, parrillia einda ta holakotxe distantziara, zera, ura ertetzeko. Ta "Hori ze eitteko ete dok hori, ze, ze eitteko ete dok?" Ta beti holakotxe... Eta horrek kondiorrek eta: "Hau ze, ze dok? Hemen sartzeko jakak egurra ta hemen ere bai" ta Nik aittari galderia: "Aitta, han hola ta hola badao" ta "Haura nasia dok" "Nasia zer da?" ta "Ba han e... aingiria hola ta hola etorten dok, hemen ikusten dok parrillia zelan daukaun honentzako" "Bai" "Baiña honen aldian txikixa, estua, hola ta hola ta hola, ba haura ustelduta jaok eta oin kasorik ere ez. Baiña han hola harrapatzen genduan aingirak" eta guk ein, atzera. Ta ein ta ipiñi ta da! zabaldu pixkat [urarria] zauanian. Ta jo-ta ura nundikan dixen, jo-ta handik juten da aguro, e, aingiria. Ta presatikan zela ez zan jausten, ez laga presatikan jausten urari. Ta urak zelan segitzen zaban... "Dra", baten sartu gara ta joe! Baiña demaseko, dana holakotxe... hamendikan... holakotxe aingiria! Dana hortik gorakua! Txikixa [danik] ezin da, baiña sartu giñan ta joe! Berrogeta hamar kilo bai!

- Neri bildurra emango zian.

- Ta zertzen ta "Eon!" "Ze?" ta "Hau hola hartuko dou" ta listuak. "Eon! Hau hola jasoko juau ta hemen zakua ipiniko juau". Bai, guk [...]. Zakuan bai, sartu zian hamar-edo, hamabost-edo, ez dakit zer sartuko zian. Bai, mordua jateko, ba jatordu bat eitteko. Baiña han sartu e... barruan e... zer batekin hartu bagenduz e... harrapauko genduzen ba, kiluak harrapauko genduzen, mordua.

6.11. Erromerian ezagutu, San Migelen ezkondu eta eztei-bidaian Bilbora

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lodoso, Ainhoa
- **Erref**: EGB-027/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:05:37. **Bukatu**: 00:07:17
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Odria, Ane
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

- **Laburpena:** Mutilekin ere ibiltzen ziren erromerietan, baina ez asko. Senarra ezagutzen zuen lehendik hurrekoa zelako, baina erromeriren batean hasi ziren harremanetan. San Migelen ezkondu ziren eta bertan egin zuten bazkaria. Traje beltzarekin ezkondu zen. Eztei-bidian Bilbora joan ziren eta 8 egun pasa zituzten bertan.

Transkripzioa

- Mutilletan, baiña, ingo zenduten?

- Bai mutilekin bai, klaro, [billau genduzen] gere lagunak eta baiña gitxi, ez giñan gu zenbait bezela hola ibiltzen giñanak. Bai, hitz ein, dantzan ein, pues, horrek eitten genduzen, baiña ez zenbaitten bezela hola mutil tartian ibiltzen giñan hortaikuak ez giñen.

- Ta nola ezautu zendun...

- Aitta? Iñaxio?

- Bai.

- Ba, gaztetandik beti ezautzen giñan, nola hurrekuak giñan. Hamendik San Antolin hur jartzen da, San Antolindik hau ta... Ezagutzen giñan ta halakon baten, erromeixan baten hasi giñan hizketan ta, ba, hurrengo jaixan ere bai ta hurrenguan ere bai ta... bueno...

- Zenbat denbora ibili ziñaten nobixo?

- Ba, ibili giñan hiru bat urte edo... hiru- lau bat edo, ez dakit esakto zenbat baiña, holakon bat bai ibili giñan.

- Ta ezkontza eguna ta gogoratzen dozu?

- Bai, ezkontza eguna beti gogoratzen da, hori gogoratu ezik ez dao, ez dao hori gogoratu ezik. San Migelen ezkondu giñan, bertan euki gendun bazkaixa ta gero jun giñan iluntzixan gu biajera eta jentia, ba, etxera, osabak eta...

- Familixa guztia...

- Bai, familixa guztia.

- Ta zelan juaten ziñaten orduan, nobixak oin juten dia, ba, zuriz jantzitta...

- Ez, ez, ez, ez. Traje beltza erun neban. Ondo goguan daukat: traje beltza. Orduan hauraxe eramaten zan, traje beltza.

- Gonia ta...

- Bai, gonia ta txaketia. Gona beltza, o... traje beltza.

- Eta biajia, biajia aittatu dozu...

- Ba Bilbora izan zan gure biajia. Bilbon pasau genduzen zortzi egun ta etxeratu giñan eta akabo, harrazkero hamentxe lanian.

6.12. Kamiñerokoko frontoia eta erromeria

- **Hizlaria(k):** Leiaristi Iriondo, Floren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lodoso, Ainhoa
- **Erref:** EGB-034/002
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
 - Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena:** Kamiñeroko frontoia estalia zen eta partidu asko jokatzeko ziren bertan. Elgoibarko pilotarien izenak. Florenen anaiak ere jokatzeko zuen. Erromeria ere egiten zen bertan eta Florenen aitak eta Pedro Gelatxoren aitak jotzen zuten soinua. Soinu-jolearena lan gogorra zela eta, aitak ez ziren afiziorik sartu semeei.

Transkripzioa

- Eta hango frontoia ze izaten zan hamen plazako frontoia bezela?
- Iguala, iguala, kubiartua izetia. Oso frontoi polita ta hor partiduak eta lehenao jokatzeko zian praka zurixekin ta profesionalak jokatzeko zeben. Ta hamen Elgoibarren saso(e) baten zian e... ze esango dizut ba nik? Artaso ta Fermin ta gure anaia ere pelotaria zan ta hola jaixetan-ta hor ipintzen zittuen hor partiduak ta hor jokatzeko zian.
- Demaseko girua egongo zan, ez?
- Bai, bai, anbientia, anbientia. Errormeixia ere ezaututa nao. Gelatxo soñujolia, Gelatxo oin Pedro dao hamen, horren aitta eta nere aitta joteko zeben soñua hor. Soñujolia zan nere aitta ere.
- A baita, e?
- Bai. Ta ni ezaututa nao mutil koskorra ta hor kriston erromerixia, frontoia bete-bete jente egoten zan han dantzan. Jesus! Kamiñerokuan.
- Ta ez zendun ikasi zuk soñua jotzeko?
- Ez.
- Ez, honek ez.
- Iñok ere ez.
- Eta beste anaia be ez.
- Ezta! Zaharrenak pixka-pixkat, baiña hartu ere ez bestek, e! Guk iñok ere ez, hartu ere ez afiziorik. Ta aittak sekula eman ere ez, zertzeko, haizerik eman ere ez. Harek esaten zaban "Soñujoliari badakizu ze pasatzen jakon?" "Zer?" ta "Danak aindu ta beti lanian ta beste guztiak erromerixan ta hi lanian beti, soñujolia beti lanian" esaten zaban. Gure aitta zanak ez zigun ematen aurrerapenik sekula. Soñujolia beti bera lanian ta lan nekosua da soñua, e! Harek soñua joteko-ta ibiltzen zanian jo-ta haundi-haundi einda eukitzen zaban esku(mu)turra ere! Haura, nekia da soñua!
- Gero lehengo, ez zian izeten... oingo modernuak dia zeak, baiña hola "antes" hola lotu hamendik eta... Oso diferentia.
- Oin, gaur egunian, ba adelanto haundixak daure eta aurrian euren mahaitxua, soñua ipini gaiñian-ta ta fazilidade haundixakin joteko debe gaur, baiña lehen ez.

6.13. Elgoibarko bandaren gainbehera

- **Hizlaria(k):** Iriondo Bergaretxe, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-041/030
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:10:58. **Bukatu:** 01:12:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Gerraostean bandako zuzendari zen Bereziartua erretiratu egin zen eta Bergarako Inazio Gonzalez Bastida ekarri zuten. Honen ondoren, extremadurar bat izan zen zuzendari.

Transkripzioa

-Gerra ostian jarraitu eben ohitura horrek?

-Bai, bai. Gero gerra ostian bakizu ze pasau zan. Gero haura ya geratu zan desastre einda dana eta gero direttore berri bat ekarri zeuben, Bereziartua erretiratu ein zan nerbixuekin zihero enredauta, eta gero etorri zan Bergarako bat, etorri zan direttore bandara, Gonzalez Bastida, Ignacio Gonzalez Bastida. Uste dot Oñatiko batekin ezkondu zala. Ignacio Gonzalez Bastida, direttore egon zan hamen. Ta gero haren ondoren etorri zan extremeño bat, bialdu zeuben, extremeño bat. El Colegio de Directores, ezta, orduan baakizu hori ba, El Colegio de Directores, eta etorri zan, eta zan direttore bat persona ona, baiña bakizu ze pasatzen dan, beti esaten dana, erderaz esaten dana, "hay que caer de pies", eta haura jausi zan Elgoibarren, gizajo bat zan, klarinetistia ona, itxuria hango bandaren baten, Extremaduran, zauan "clarinete solista", eta ona, ona zan. Baiña eskolan eta hola, klaro, harek preparau in bihar zittuan gaztiak, edukanduak eta, ezta, eta ba ez zaukan indarrikan edo ez zaukan abilitaderek eta poliki-poliki behera joan zan asuntua.

6.14. Bost urtez bandako zuzendari

- **Hizlaria(k):** Iriondo Bergaretxe, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-041/032
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:16:53. **Bukatu:** 01:18:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena:** Immigrazio handiko garaia zen, eta Galiziatik eta beste leku batzuetatik musikari gazte oso onak etorri ziren. Haietako batzuk bandan sartu ziren. Julenek bost urte pasa eta gero utzi egin zion bandako zuzendari izateari. 2010. urtean bandaren 125. urteurrena ospatu zuten.

Transkripzioa

-Orduan pasau zan beste gauza bat, beste fenomeno bat. Hasi zien ailegatzen kanpotarrak, emigraziua. Etorri zien kuadrilla bat, Galiziatik, mutil gaztiak, lanera, e, lanera. Etorri zian mutil gaztiak, zelako musikuak! Goguan daukat oin [...] ta, klarinete ba eta!, saxofonista bat eta!, hiru edo lau, gazte-gaztiak baiña artistak! Joe... Harek bandara etorri zian. Euren instrumentu ta guzti, gaiñera. "Y vosotros cómo tenéis los instrumentos?" "Allí también tocábamos y tal, y". Bueno, bandia hasi zan pixkat gora eta bueno. Holaxe hasi giñan, eta ondo. Baiña hortik ez zeuan..., bizi in bihar, bizi in bihar gera, e; eta handik ez zeuan. "Hi, Jose, nik ezin neike bizi, honekin lan asko dao hamen eta nik ezin neike bizi honekin eta beste proiektu batzuk daukaraz", hau dendia ipintzeko asmuana eta zerian, eta bueno, holaxe. Bost urtian egon nitzan. Ta holaxe.

-Bizi da oindio bandia?

-Bai! Oin ya dakagu ehun ta hogeta bost urte aurten. Joo, lehenguan ekarri debe zer bat, "de Amsterdam, el conjunto de metal", baiña munduan onenetaikua, e. Joee...

-Zer zabitze, ospakizunetan?

-Bai.

6.15. Pilotaria eta futbol atezaina

- **Hizlaria(k)**: Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-045/007
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:13:06. **Bukatu**: 00:15:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kirola » Pilota
 - Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Umetan hasi zen pilotan jolasten. 21 urterekin profesional mailan jokatzen hasi zen. Umetan, pareta bat eta pilota nahikoa ziren pilotan jolasteko. Hiru "perro" eta erdiko (txakur handia, pezeta baten hamar zentimo) pilotak erosten omen zituzten orduan. Elgoibarko futbol taldeko atezaina izandakoa ere bada Fermin.

Transkripzioa

-Tartian pelotan esaten dozu?

-Pelotarixa nitzan.

-Noiz hasi ziñan pelotan? Mutikotan hasiko ziñan, ezta?

-Hogeta bat urte neukanian. Profesional.

-Profesional, baiña pelotan jolasian umetan.

-Jesus, baitta lotan ere bai.

-Eta nun ikasi zenduan zuk, pelotalekuan edo kalia?

-Kalian! Ahal dan lekuan. Pareta euki ezker eta pelotia, segi.

-Pelotia zelakua ebalten zebein mutikotan, gomazkuak edo zelakuak?

-Narruzkuak.

-Mutikotan be bai?

-Lanazkua be igual. Baiña narruzkuak merkiak, e. Hiru perro ta erdiko pelotak esaten giñuan orduan. "De a 35 céntimos".

-Hiru pero?

-Hiru perro, txakur haundixak. Lanazkuakin igual itten gendun guk pelotan. Kartoiakin ere bai, borobildu ezker...

-Sake eitten baeben...

-Segi.

-Kuadrillan jokatzen zebein pelotan?

-Keba. Kuadrillan ere bai baiña frontoia, pareta nun zeuan hantxe. Afizio demasa.

-Asko izango ziñen sasoi hartan pelotan. Futbolian ez zan eitten?

-Baitta. Fubolian einda [daukat] nik.

-Baiña profesionala ez.

-Elgoibarren, Elgoibar. Elgoibar Club.

-Elgoibarko ekipuan? Orduan deportista...

-Atleta.

-Atletia izan za orduan, e.

-Ez. Portero eitten naban.

-Oseake Elgoibarko herriko ekipuan portero eta aparte pelotari.

-Bai. Bueno, orduantxe laga nion futbolari. Pelotan hasi nintzanian...

-Fubola akabo. Bixak batera eittia zaila, ezta?

-Klaro, ezin leiken gauzia.

6.16. Pilotari profesional gisa debuta egin zueneko

- **Hizlaria(k):** Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-045/017
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:28:12. **Bukatu:** 00:31:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Barakaldon egin zuen debuta pilotari profesional gisa. Cipri eta Asla-ren kontra jokatu zuten Fermin eta Artazo-k, Ferminendako profesionaletako lehen partida izan zenean. Artazo elgoibartarra izan zuen atzelari Ferminek. Hamazortzi urtez jokatu zuen profesionaletan, "Empresas Unidas" enpresarekin. Lehen partida irabazi egin zuen, eta 22 ogerleko jaso zituen.

Transkripzioa

-Pelotan esan dozu hogeta bat urtekin hasi zifala.

-Profesional.

-Nun eta nola eta zela izan leengo partidu profesionala? Ta noren kontra?

-Noren kontra... Harek hilda egongo dia behiñ honezkero. Barakaldon debutau naban nik.

-Barkaldon, e!

-Bai.

-Oseake errogeta lauan.

-Holakotxen bat.

-Bai, hogeta bat bazeukatzun, berrogeita lauan. Noren kontra?

-Cipri-Asla.

-Entzun barik neukan nik.

-Fermin-Artazo.

-Fermin Artazo zeu?

-Fermin (ni) eta nere zagerua Artazo.

-Zu aurrelarixa?

-Bai.

-[...].

-Artazo hau elgoibartarra zan?

-Bai, bai, elgoibartarra.

-Bizi da ondiok?

-Ez, ez.

-Zu aurrelarixa orduan. Eta enpresan baten bidez edo zela joan zifain Barakaldora?

-Enpresa baten bidez ez. Neri Artazok esan zidan: "debutau in bihar dok / biok/ holako lekutan, zerak suspendidu ei jok eta"; beste batek suspendidu ebalta ta neri ipiñi. Eta orduantxe hasi pelotan. Gero ba enpresak, enpresekin gero. Hemezortzi urte in nittuan nik profesional.

-Jontxo. Zu beti ibili za "Empresas Reunidas" horretan?

-Bai. Empresas Unidas.

-Ze rekuedo daukatzu lenengo partiduena?

-Irabazi in genduan behintzat.

-Zenbat akordaitten za?

-Ez. Irabazi genduala bai. Ta ze kobrau genduan ere bai.
-A bai?
-Baitta. Hogeta bi duro.
-Hogeta bi duro zan partiduagatik edo irabazi eta galdu igual kobrau...
-Ez, ez, partiduagatikan.

6.17. Pilota eta atletismo zalea zen

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Larrañaga, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-046/023
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:51:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- **Laburpena:** Kirolzalea izan da beti Felix, baina erronomia edo dantza zalea ez. Herri arteko pilota txapelketetan jokatuakoa da Felix. Arriola IV binakako bikotekidea izan zuen. Atletismoan ere jardundakoa da.

Transkripzioa

-Lanaz aparte eta ikastoliaz aparte eta euskeriaz aparte, erromeixak eta?
-Ez, ni erromeixan-eta oso motza izan naiz. Ez dot sekula dantzarik ein. Ta emakumietan ez nintzan atrebitzen arrimatzen. Osea, ez dot euki... Orduan bai, berbenia eta esaten zebeu orduan; igual halako lekuetan berbenia zeuala eta; ni sekula ez nintzan joaten iñora. Nik korrika, bazeuan korrika apostua edo premixuak edo baldin bazauden, korrika edo pelotan edo. Arrasaten eta jokatura nao ni praka zurixekin, e!
-A bai?
-Arrasaten eta Arretxabaletan. Eibarren ere bai; Deban ere bai.
-Kontxo. Profesionala ez.
-Profesionala ez.
-Fermin ibili zan profesional.
-Fermin bai, Fermin bai.
-Zu herri arteko txapelketetan eta?
-Bai, bai. Deban. Astelehenan'e bai. Ta Arrasaten jokatu naban gero munduko txapeldun izango zan batekin jokatu naban parejia. Arriola Cuarto. Debuta zan harena, haren debuta; neuk eruan naban haura Arrasatera.
-Zu aurrian edo atzian?
-Ni atzian. Ezkerrik ez nakan. Eskumiakin bakarrik eitten naban pelotan. Ta Arrasatera junda nao korrika eittera ere. Campo de Maala ez zan lehen?, Maala. Ba haraxe. Kontratauta, e, hamendikan ez dakit sei lagun edo jun giñan korrika eittera, jabolinia botatzera, ez dakit ze eittera. Ta bero bat bazeuan Arrasaten! Kanpo fubola Maala.

6.18. Korrika egitea betidanik gustatu zaio

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Erref:** EGB-047/027
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:41:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Beti gustatu izan zaio korrika egitea. Soldadutzara joan zenean, korrikara apuntatu zen. Bera distantzia motzekoa da, baina soldadutzan distantzia luzeetan jardun behar izan zuen.

Transkripzioa

-Zuri noiz etorri xatzun ba korri eiteko ta...

-Ba nik hori beti euki dot. Esango dizut. Ni soldautzara jun giñanian. Bueno, hamen igual in gendun jaixetan, beti izaten da herrixetan pixkat eittia, ta halaxe behin hasi nitzan. Baiña beti gustora, beti gusta (j)ata neri korrika eittia. Foballian ere ibilli naiz pixkat, e. Baiña korrika beti gusta izan [zat]. Eta soldautzara jun giñanian, ba, "zu ze?", ba deportia ez ba, ta. "Ba nik foballa ta korrika". Nik ez naban ezautzen ez balonzestorik eta... Bai, Donostian bai baiña, hamen herrixetan eta balonzestua ta zela...; ez naben ezautzen. Entzun bai, irakurri ta baiña. Ta jun nitzanian soldautzara. Baiña neri beti korrika gustau izan zata motxa edo, ez dakizu?, ez kilometruak.

6.19. Korrikalaria izateagatik soldadutza ona

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-047/029
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:43:47. **Bukatu:** 00:44:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Krosak korritzen zituzten. Bera distantzia motzekoa da berez, baina luzean jardun behar izaten zuten. Soldadutza ona pasatu zuen horri esker. Karrerak bukatzen zituen eta horrekin nahikoa zuen.

Transkripzioa

-"Bueno, a correr el cross". Hamar kilometro ta zortzi kilometro ta. Neria ez zan haura baiña soldautzia zan. Halaxe ba, haretzek librau [nauen] asko, guardixak eta horrek gauzak libre. Nik esaten naban, hurrengo datorren lizenzia, klaro, ni kuarentaydosa, hiru urte zian, eta gero kuarentaytres, cuarenta y cuatro, cuarenta y cinco. Handik etorriko dittuk onak eta gero nerekin ahaztuko dittuk eta ni gero hamendik aurrera horrek etortzen dianian "a picar". Hor ez zaon besterik. Baiña suertia euki naban. Bukatzen naban bai, lagundu ekipuari itten naban. Porke neri luzia ez jata /etxata/ gustau ezer ere.

6.20. Dantzazalea izan da

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-047/034
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:51:15. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Gaztetako erromeria lekuak: San Lorentzo, San Roke, Altzola, San Migel... Oso dantzazalea izan da. Igandetan bandak jotzen zuen plazan eta hura bukatutakoan Plaza txikira joaten zireen, eskusoinua egoten zen-eta.

Transkripzioa

-Zure gazte-denporan erromeixetara-ta nora faten ziñein?
-Nire emaztian denporan eta juten giñan San Lorentzora ere bai, San Rokera ere bai, Altzolara ere bai, San Migelera ere ba; erromeixetara.
-Eta herritik kanpo?
-Herritik kanpo? Ni ez naiz ibili hola herritik kanpo. Mendarora juten giñan nozian behin, baiña... Mendarora juten giñan porke nere emazteak ahizpa zakan han.
-Hamen herriko plazan domeka danetan egoten zan musikia?
-Dantzan? O, neri asko gus... Beti. Pentsaizu zer itten gendun guk orduan denporan. Plazan musikia, ta handik bukatu ta Plaza Txikixan egoten zan soiñu-... Eta hara ere dantzara.
-Plazan ze egoten zan, bandia?
-Bandia, bandia. Han dantzan, baakizu.
-Eta gero plazatik Plaza Txikira?
-Bai.
-Han soiñujolia.
-Bai. Neri asko gustau izan [j]ata dantzan ittia.

6.21. 2007an utzi zion txapelketetan parte hartzeari

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-047/037
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:54:13. **Bukatu:** 00:55:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- **Laburpena:** Emaztea hil zenean utzi zion txapelketetan parte hartzeari, 2007an (85 urterekin). Aguilas-en (Murtzia) korritu zuen azkena. España guztian korritu du. Azken aldera 100 eta 200 metroan korritzen zuen.

Transkripzioa

-Emaztea hil zanian ya laga nion korrikari. Urte bat lehenago ya ikusten naban, andria ez zan ondo ibiltzen eta, ta eskaxa, gero eta eskaxao ta, esan naban, bueno ba, bi milla ta zazpitan. Ya gaiñera nerbixuak aurreko

egunetan, txapelketa egunetan nerbixuak gero eta gehixao eta esan nuen, "ez, hau bukatu ein bihar da. Neu naiz lehenago..." Ta holaxe hogeta hamazazpizan (konfunditu egin da), "en Águilas, Murcia", Seme gaztiakin eta emaztia eta seme txikixakin jun giñan Aguilasera, korrittu naban han eta esan naban, hau azkena.

-Murzian be korriduta zaoz?

-Bai. Bueno, Murzia, Aguilas Murziakua da. Bueno, España guztian korridu [...], Sevillan, Barzelonan, Tarragonan, Geronan... Bai, leku askotan.

-Bi milla ta zazpizan?

-Bai.

-Orduan Murzian azkenengo karrera hor?

-Bai, en Aguilas. Lelengo hasi nitzan 200 eta 800 (metro); ya azkenian ya 100 ta 200. Ta ondo, ondo. Suertia euki dot, egixa esan.

6.22. Orain ere ordubete egiten du lasterka egun birik behin

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-047/038
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:55:38. **Bukatu:** 00:56:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- **Laburpena:** Orain ere ordubete egiten du lasterka egun birik behin bidegorrian. Maltzagaraino heltzen den bidegorria oso leku egokia da.

Transkripzioa

-Baiña oindiok be futiña egiten dozu, ezta?

-Orain? Bai, zera eitten dot, footin esaten dan moduan, footin, ordu bat ibiltzen naiz egun bittik, egun bittik egun bira.

-Egun bittik baten ordubete fotin eitten.

-Bai. Hor bidegorrixan. Hori, ordu ederrian ein zien. Neretzat behintzat primerakua.

-Bidegorrixori.

-Aldatz gitxi daude, bigarrena gaiñera ya zerao... Baiña, tira. Konpontzen naiz.

-Ta ze eitten dozu, bueltaka edo?

-Ez. Luzia da, ixa bost kilometro edo. Hemendik junda bost kilometro, hortxe izango dia.

-Hori zer dago, Eibarreruntz edo?

-Maltzagara. Bueno, Maltzagara bertara ez da heltzen baiña ya bastante harutz. Osea, autopistan pasau azpittik eta belaxe ya bueltia ematen dau.

-Bi egunetik baten karreraxua, futin.

Footiña.

-Hori ez da korrika eittia, ezta?

-Ez, ez. Korrika ein ezkeru kilometro bat baiño gehixao ezingo naban ein.

6.23. Kurutzetara erromeria

- **Hizlaria(k):** Leiaristi Iriondo, Floren

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-049/023
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:33:22. **Bukatu**: 00:36:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Erromeria handia egiten zen jaiero Kurutzetan, Elgoibartik bost km-ra, Azkarate ondoan. Pezeta bi ordaindu behar zen soinujoleari ordaintzeko. Batzen zena soinujolearentzat zen; gero tabernariak afaria ordaintzen zion, eta ardo botila ere bai soinua jotzen ziharduen bitartean. Basokada ardoak zerbitzatzeko ziren orduan.

Transkripzioa

- Gazte denporan edo mutil denporan edo erromerixak egoten zien hamen Elgoibarren?
- Kurutzetara juten giñan.
- Nora?
- Kurutzetara.
- Nun dao hori?
- Kurutzeta? Ba, Axkoittiko karreteria hartu ta "a cinco kilómetros" hamendik.
- Elgoibar barruen dao edo, edo Axkoittin dao?
- Ez, Elgoibar, Elgoibar. Axkoittixa Azkaratetik haruz dao. Elgoibar.
- Kurutzeta?
- Kurutzeta. Hara juten giñan erromerixara.
- Baiña hori zer da? auzo bat, eliza bat edo...
- Ezer ez. Taberna bat.
- Taberna bat.
- Taberna bat. Kamiñu hegalian taberna bat. Ta gero zeukan plazatxo bat, hola ataixan, plaza ta kamiñu, ta trafikorik ixa bat'e ez zauan ta jendia dantzan ta kriston erromerixak eitten zian.
- Ta hori zer zan, jaiero gaizia? Edo...
- Jaikua, jaikua. Jaixan bakarrikan. Ta orduan pezeta bi kobratzen zan dantzia.
- Dantzia.
- Bai.
- Baiña neskak ez zebe pagau bihar, ezta?
- Ez, neskak ez. Gizonezkuak pezeta bi pagatzen zaban dantzia ta iluntzi guztia libre, pare bat, hiru bat ordu dantzarako.
- Ze ibiltzen ziñain papeltxua ifinitta? Edo...
- Bai, bai, bai. Papeltxua hamen sartzen zan, pezeta bi kobrau mutilleri ta hamen sartu papeltxua ta, ba, jakitzeko zeñi kobrau dozun. Bestela, han igual dantzan eingo zebe hogeta hamar edo berrogei mutillek eta ipintzen ez bozu zeoze, ba, ez dakizu.
- Eta diru hori ze izaten zan soiñujoliantzako?
- Soiñujoilliantzako. Bai. Soiñujoilliantzako izeten zan hori. Gure aittak' e jotzen zaban han soiñua, ta beste hamengo gizon batek...
- A! Zuen aitta be faten zan hara?
- Baita, juten zan gure aitta ere. Bai, hamengo batek, Kataolatza esaten ziuen hamen bizi zan batek jotzen zaban. Harek zakan fijo haura hartuta. Batzen zabana berantzako ta gero tabernarixak afari bat ematen zion. Ta soiñu joteko denporan botilla bat ardao.
- A koño!
- Hori zakan, haren sueldua hori zan.
- Ura ez, ardao botillia...

- Ura ez, ura ez, ardao botillia. Ta ardao botillia, soñu joteko denporan ardao botillia. Hiru bat ordu itten zittuan. Ta ardao botillia ta gero handik jaikitzen zanian, jun gora ta afari bat ematen zion etxeoandriak hari. Ta batutako dirua harentzako, soñojoilliantzako.

- Tabernarixak be...

- Tabernarixak jendia ta mobimentua. Ta han orduan txikitua ez zan eraten, basokadia etaratzan zan. "Etarazu baso bat ardao". Koskadun baso haundi horrek. "Etarazu baso bat". Da! Ta hiru-lau lagunek handik itten zebe tragua. Oin bakoitzak bere txikitua eraten da, baiña orduan ez! Han ez zeuan txikitorik artietan.

- Orduen, baso ardaa atara eta bertatik bi-hiru-lau lagunek?

- Bai, bai. Bi-hiru lagun badaude, danak trago bana handittikan. Oin ez, oin txikitu...

- Basua garbiketan lan gitxiago.

- A bueno. Baiña txikitua garbixaua da. Hiru lagunek, hiru lagunek leku batetik baiña, baiña orduan hala zan. Han etara, "Etara basokada bat!" Ta jende asko egoten zan.

6.24. Madariagan dantza lotua debekatuta

- **Hizlaria(k)**: Leiaristi Iriondo, Floren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-049/024
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:36:26. **Bukatu**: 00:37:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Madarixan (Madariaga, Azkoitia parte) debekatuta zegoen dantza lotua, eta hango jendea Kurutzetara etortzen zen. Kurutzetan ezagutu zuen emaztea izango zena.

Transkripzioa

- Ta beste gauza bat esango dizut, Madarixan agarraua prohibiduta. Handikan hiru kilometrora, Madarixara, han agarraua prohibiduta. Ta handik jendia horra dantzara.

- Hor libre zan?

- Bai ba!

- Ta Madarixa zer da, beste auzo bat?

- Madarixa goratxuauan beste ermitta bat. Frontoia ta taberna ta, beste ermitta bat Madarixa.

- Eta han be egoten zien erromerixak?

- Bai, baiña han libria bakarrikan ta hamen agarraua. Ta jendia agarraura etortzen zan.

- Baltziuan.

- Honbre! Neska gazte edarrari helduta ein edo soltian ein, aldia dao.

- Hola ezautu zebe zuk zeure andria?

- Bai, haintxe, haintxe!

- Kurutzetan?

- Haintxe bai. Ni, honen basarrixa dao hamendik Kurutzetara bidien erdixen, kamiñuan erdixen dao honen basarrixa. Basarrikua da hau. Ta hara juten nitzan ta hartzen naban hau ta juten giñan hara ta merixenda bat eitten genduan ta dantzan eitten genduan ta han pasatzen genduan

jaixa. Egunaldi onakin behintzat.
- Ia ia. Oseake, Kurutzetako erromerixara jaiero.
- Jaiero, bai.

6.25. Aita soinua jotzen Kurutzetan

- **Hizlaria(k):** Leiaristi Iriondo, Floren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-049/026
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Plazan bandak jotzen zuen baina eurek nahiago zuten Kurutzetako erromeria. Aitak sarri jo ohi zuen soinua. Hainbat soinujole pasatu zen handik. Jose "Garagartza" esaten zioten aitari, baserriaren izenagatik.

Transkripzioa

- Eta hamen, plazan, bandia edo zera egoten zan?
- Bai, hamengua bandia baiña guri gehixao gustatzen zitzakun haura, soiñu txikixa ta, zerua, enteniu be gehixao haura hau baiña ta. Gero, ba, geure aitta be juten zan ta... Ibili zien Patxo soiñojoillia, Goikon mutillak ere bai, Katalotza ere bai, gure aitta ere bai. Mordua pasau zan han, e? Soiñojoille mordua. Batzuk, ba, fallatzen zebeñian, ba, beste bati diarra: "Hi! Mesedez nere lekua kubridik ezin neike etorri ta". Orduan gure aittari-ta ez [zixuen], haura pixkat zahartxuaua zan ta. Soiñua be zahartxuaua zaukan.
- Barrixa galduta...
- Berrixa harrapau ein ziuen ta!
- Zure aittak baeuken ezizenik? Bere izena zela zan?
- Jose Leiaristi Arrieta.
- Eta esan dozu bestia, Kata...
- Katalotza, Katalotza beste bat.
- Holako ezizenik ez eukan zure aittak?
- Ez. Gure aitta, `Garagartza´ esaten ziuen. Basarrixan... etxian izena zan Garagartza. San Lorentzo balleko Garagartza ta gure aittari esaten ziuen Jose `Gartza´, Jose `Garaartza´ esaten ziuen gure aittari. Jose Leiaristi iñok ere ez. Jose, Jose `Garaartza´ zan gure aittan izena.
- Lazaro `Itturri´...
- Hori Lazaro `Itturri´ bezela da, Lazaro Untzuetta da baiña Lazaro `Itturri´. Izen zan. Baiña holaxe dia. Gure aittak´e zaban Jose `Garaartza´, basarrixan izena esaten ziuoben. Bai, holaxe dia.

6.26. San Antolin jaiak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-050/028
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:00:19. **Bukatu:** 01:01:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Irailaren 2an da San Antolin eguna. San Antolin egunean eta txiki egunean (biharamunean) jolasak eta erromeria izaten ziren.

Transkripzioa

-San Antolingo jaixak noiz dia?
 -Setienbrian bixan san Antolin.
 -Hola zerbait espeziala eitten zebein?
 -Bai, uf, fiesta haundixa izaten zan San Antolin. Zan oso ermitta alde politta. Bera ermitta, gero buelta dana beria zeban, eta Elgoibartik eta jente asko joaten zan. Eta izaten zan san Antolin Eguna eta Txiki eguna fiesta haundixa izaten zan, bai.
 -San Antolin eguna eta?
 -Txiki eguna, bixamona. Bixamonian ere izaten zan zerbait. Ta san Antolin eguna oso fiesta haundixa izaten zan. Meza ederra eta gero ba jolasak; dana auzokuak eta jolasak eta oso... Gero erromerixia, jentia Elgoibartik eta Alzolatik, Mendarotik, danetik han juntatzen zan.

6.27. Antzerkia egiten zuten batzokian

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/003
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:06:32. **Bukatu:** 00:08:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Antzerkia
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- **Laburpena:** Antzerkia egiten zuten batzokian. Bederatzi urterekin Eibarko batzokiko agertokitik Eulia ta Txindurria ipuina irakurri zuela gogoan du. Anjel Mutrikuk eta Antonio Manterolak zuzentzen zituzten antzezlanak. Mutriku eta bere aita gerra denboran hil zituzten, espioiak zirela esanda.

Transkripzioa

- Batzokixan ze zeukatzuen, dotriña eta?
 - Teatruak-eta eitten genduzen gero batzokixan. Bai.
 - Kontxo. Umetan hori?
 - Umetan, bastante ume. Nik beratzi urte neukazen, Eibarrera joan nitzan batzokira eszenarixo batera irakurtzera. "Eulia eta Txindurria". Ez naiz aitzutzen nik irakurri naban zer harekin Eibarren. Beratzi urte edo hola eukiko nittuan. "Eulia eta Txindurria" zan liburua, hauraxe irakurri naban eszenarixuan.
 - Osea ke irakurtzen bakarrik.
 - Irakurri bakarrik.
 - Baiña gero antzerkixak...
 - Antzerkixak bai hementxe eitten genduzen, tablau bat ipini batzokixan eta...
 - Eta nork zuzentetan zittuan antzerkixok?
 - Han ibiltzen zan... Bertako zerak, gero gerra denporan hil zebeñ gaiñera

haura. "Mutriku" esaten giñun, Anjel "Mutriku" esaten giñun hari. Ta Antonio Manterola ta horrek danak batzokixan ibiltzen zian.

- Eta horrek zuzenketan zittuan?
- Bai, horretxekin ibiltzen giñian. Anjel "Mutriku" hil in zebeñ, ezta, gerra denporan? Haura eta Gastesi.
- [...]
- Orduan Anjel "Mutriku" eta bestia zela esan dozu, Manterola?
- Antonio Manterola. Haura ere [...]. Ni ez naiz gogoratzen, ni ez naiz gogoratzen horrekin, hil zittuena bai baiña... Hamahiru urte geunkazen eta. Koinatua: -Nik uste dot aitta-semiak hil zittuela, espixak ziela ta.

6.28. Herrian hil zituzten abadeak

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/026
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:53:34. **Bukatu:** 00:54:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Herrian zeuden bi abade fusilatu egin zituzten. Hildakoetako bat Zelestino Onaindia izan zen, eta bere anaiak Radio Parise;sen berriemaileak izan ziren.

Transkripzioa

-Hemen bi abade hil zittuen hemen, bi abade. Don Celestino Onaindia, eta bestia Markiñatik etorri zana. Haren billurrez, gorrixen billurrez hona etorri, eta hemen akabau zebeñ.

-Julianen etxian egiten eban lo.

-Bai, Julianen etxian egon zan.

-Koinatua: -Don Celestino markinarra zuan.

-Baiña haura hemen zauan, hemen zauan.

-Hemengo abaria bai. Julianek kontau noston

- Haura han egon zan eta bestia etorri zanian hantxe egon zien. Ba bixak hil zittuen. Ta fiñaua zan don Celestino!

6.29. Aiastia (San Migel) auzoko jaiak

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/032
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 01:00:39. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Aiastia (San Migel) auzoko erromeriara txuleta piperrekin jatera joaten ziren.

Transkripzioa

- Juergara eta erromeixetara nora faten ziñain, kalera edo?
- Erromeixetara, behin esango dizut ze ein genduan. Bueno, San Migelera joaten giñan, e, txuletia piparrakin jatera, San Migelera erromerixara.
- Txuletia piparrakin jatera?
- Txuletia piparrakin jatera San Migel egunian. Hoixe izaten zan.
- Zeuek eruanda ala bertan?
- Ez, bertan, bertan. Gogorrak, e, txuletia piparrakin jateko orduan.

6.30. Ahizpa, raketista; Elgoibarko raketistak

- **Hizlaria(k):** Txurruka Osoro, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-053/010
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:06:59. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Raketistak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Juanaren ahizpa, Maria, raketista izan zen. 15-16 urte zituela Bartzelonara joan zen pilotan egitera. Gero, Madrilen, Kanarietan eta Mexikon ere ibili zen. Maria mexikar batekin ezkondu zen, eta ia 50 urte egin zituen Mexikon. Elgoibarko beste raketista batzuk aipatzen ditu: Angela Juaristi, Felisa Muguruza, Juanita Arrillaga eta Maria Arrillaga.

Transkripzioa

- Zuri txokau zizatzun nik ahizpa raketistia naukala esatiakin, ezta?
- Bai, neri e san zostazun baiña honeri ez. Ze euki zeбен harek ahizpia raketistia.
- Nik euki neban, bai.
- Ta esan ostazun munduan zihar ta ibili zala.
- Bai, bai. Asko. Hamabost-hamasei urtekin atera zan Barzelonara, gero jokatu zeban zerien, Madriden ere jokatu zeban, ta gero Kanariasera juan zan ta azkenengo, Kanariastikan kontratau zittuen, Mejikora juan zan. Baiña orduan pelotari asko zauan! Elgoibarren ere bazauden Angela Juaristi, Felisa Muguruza, Juanita Arrillaga, Maria Arrillaga, guria Maria Txurruka.
- Ta horreik danak itten auen raketiakin?
- Danak, danak. Eibarren pelotari asko zauan.
- Baiña raketistak orduan.
- Raketistak.
- Eta zure ahizpiori Mejikoraiño juan zan.
- Bai.
- Ta han zenbat denpora in eben?
- Ba, han egin zituan berrogeta hamar urte ixa.
- A, ezkondu ta dana bertan?
- Ezkondu berandu in zan baiña, berandu ezkondu zan. Ezkondu zan.
- Mejikar batekin?
- Bai.
- Kontxo!
- Italianuen semia zan,

6.31. Etxebarrira neska-laguntzera

- **Hizlaria(k):** Isasti Irusta, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-055/036
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:09:47. **Bukatu:** 01:11:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena:** Sallobente eta San Migel (Aia) auzoetako erromerietara joaten ziren. Elgoibarrera ere joaten ziren, baina euren joera Deba aldera joatea izaten zen. San Migel auzotik Etxebarriraino joanda dago neska-laguntzera.

Transkripzioa

- Esan dostazu juergara ta Debara joaten zinatela.
- Debara, bai.
- Zuek ez zaukazuen beste auzo batzuetako jaittara edo...
- Bai, jun bai. Porrejenplo Elgoibarren San Lorenzuak, San Migel... Baiña hori zan urtian behin edo. Kontinuo ez zan.
- Kaleko jaitako bandara eta ez ziñain faten, kalera dantza egitera?
- Bai, bai, Elgoibarrera bai, Elgoibarrera juten giñan.
- Baiña zuek joeria goraldara baino behealdara gehixao.
- Bai, kuadrilla Deban zeuan, gure zera hori preparauta gure txamizouoi eta [horretxera] juten giñan. Zeeraiño, Markiña Etxebarriraiño be neska-laguntzen San Migeldikan. Gero etorri hadi handikan oiñez Altzolara.
- Markina-Etxeberrira oinez eta bueltau be oinez?
- Bai ba. San Migeldikan jun giñan hara zeera, Etxebarrira, eta gero handikan Altzolara oiñez.

6.32. Erromeriak Usatorre baserrian

- **Hizlaria(k):** Arrillaga Garate, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-057/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:07:50. **Bukatu:** 01:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Usatorre baserrian taberna zegoen, eta han egiten zituzten erromeriak jaiero. Eibartik etortzen zen soinujolea. Garizuman ez zen erromeriarik egoten.

Transkripzioa

- Hamen erromeixak eta, nora joateko ohituria zeukazuen?
- Erremeixara? Usatorrera. Usatorre.
- Usatorre basarrixan bertan?

-Usatorren tabernia zauan. Soziedadia ein zaben aurrian, zera, pabilloia in zaben zerian eta tabernia ipiñi zaben.
 -Zuek gaztiak ziñein?
 -Bai. Hamasei urtekin [abixara?] uste dot hara joaten giñan.
 -Eta han soiñua edo egoten zan?
 -Etorten zian hor Eibar aldetikan eta. Eibartarrak, soiñojoteillia Eibartik etorten zan. Edozenbat Bizkai aldetikan eta. Nundik ez.
 -Baiña hori jaiero?
 -Neska mordua zauan orduan!
 -Jaiero etorten zien?
 -Bai, bai, beti, beti.
 -Eta gero beste herri edo auzo batzutako jaittara be joateko ohittura bazeukatzen?
 -Bai, bai. San Migelera ere bai San Migeletan eta, baiña ostian hola jaiero Usatorrera. Jaiero, bai. San Pedron bai, sasoe baten eitten zan, ez dakitt noiz izengo zan. San Pedron igual Garizuman izengo zan. Zegatik eze akordatzen jata ni arpegixa tapauta harrapau ta zein dan ezautzen-ta elizpian da-ta, baiña haura izengo zan, Garizuman izengo zan hori. Orduan ez zan ba erremeixak egoten. Oingo moruan Garizumako sasoian. Ezta pentsau ere ez. Eta orduan ere ba jaixegunian erten ein bihar gaztiak norabaittera eta.

6.33. Aitagarreba harri-jasotzailea

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/028
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:59:48. **Bukatu:** 01:00:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Aitagarrebak harri-jasotzen ere egiten zuen. Sallobente-Ermuaran (San Lorentzo) bailarako "Mokoroa"rekin izaten zituen desafioak.

Transkripzioa

- Harrijasotzailia ta gaiñera artistia.
 - Harri jasotzen ere ba bere laguna, ez dakizu, Mokoruakua zan, San Lorentzo Balleko Mokorua; ez dakit entzueria daukazu. Kontrarixua. Kontrarixua edo, harekin jokuak itten zittuana. Harekin eitten zittuan jokuak harri jasotzen.
 - Beti batekin itten zittuan desafixuak?
 - Bai, besteik ez dot entzun. Harekin erretratua hortxe dao, erakutsiko dizut gero. Bai, hortxe dao, bixak hortxe daure.
 - Orduan indartsua izango zan gizona?
 - Bueno, bai. Hamar arruako harrixak-eta jasotzen zittuan. Biribilla jaso itten zaban eta. Kuadraua ere bai. Harekin plazan hortxe dao. Biribillakin egongo dala erretratuan uste dot.

6.34. Senarra idi-probalaria

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/030
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:00:54. **Bukatu:** 01:02:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Senarra idi-probalaria zen. Auzotarren arteko desafioetan hartzen zuen parte, auzoko jaietan. Mila ogerleko jokatzen zituzten desafioko. Orduko probalekua Idotorbe (San Pedro) auzoko taberna aurrean zegoen. Gaur egun probaleku berria daukate, baina idiak kanpotik ekartzen dituzte.

Transkripzioa

-Gizona berriz probalarixa. Auzuan bakar-bakarrik ibili zan?

-Bai, auzuan bakarrikan. Hauraxe ezta-baida, ez dakizu zela dan? Juntatzen zienian alkarrekin hor Aranburuko gizona, solterua zan, ez zan ezkondu. Harekin juntatzen zanian: "hiriak baiño neriak gehixao dittuk!" eta ez dakit zer eta. Ba jaixa ipintziarren, ba bata bestian kontraixo ta gero jentia etorri eitten zan.

-Eta jentiak apostu egingo eben.

-Bai, apostua, apostua. Bai, bai. Orduan milla duro asko zan, milla duro asko zan, ta milla duroko holakotxia jokua.

-Aranburukuak eta zuenak milla duroko desafixua, e?

-Bai.

-Zeiñek irabazten eben?

-Ba batzuetan guriak eta hurrengo... Irunagatxikikua be bazan. Irixa bat Irunagatxikikua eta bestia Aranburukua ez dakit zela, gurian kontra ta; haura galdu ta hola ibiltzen zien.

-Zenbat proba eitten zittuen urtian?

-Beno, San Pedruetako jaixak izaten zien. Jaixetakua zan bakarrikan.

-Orduan baeuan probatokixa oingo modura?

-Bai, bai, probatekixa bazeon. Han ez, oin dauan tokixan ez. Ze esango dizut ba, San Pedroko etxia, tabernia, aurretikan, hantxe; hantxe lauunatxuan. Lehen hantxe zan probatokixa. Eta gero oin ein dabe, ointxe eindakua da hori, oin berrixoi.

-Badago iririk?

-Etorten die kanpuetatik oin, etorten die. Bai kanbioian etorten die. Premixuak ipintzen dittue eta jentia kanpotikan etorten da.

6.35. Auzoko tabernak

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/039
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 01:22:03. **Bukatu:** 01:22:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

- **Laburpena:** Usatorre eta Urkiola baserrietan "sagardandegiak" (sagardotegiak) zeuden. Idotorbe (San Pedro) auzoko taberna berria da.

Transkripzioa

-Tabernara ez zan juten orduan iñor, etxera, bakoitza bere etxia ta kitto.

-Baeuen tabernaik orduan San Pedron?

-Ez, San Pedron ez.

-Auzuan ez zegoen?

-Urkiolan eta zerian, Usatorren. Bai. Bueno, sardaindeixak esaten ziu.

Sardaua gehixenian. Baiña San Pedron..., oingua da hori, hauxe kamiñua ein genduan ingurutikan hasitta daure taberniak in San Pedron .

6.36. Ipuinak irakurtzen ganadu zain

- **Hizlaria(k):** Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati

- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne

- **Erref:** EGB-068/041

- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:58:43. **Bukatu:** 00:59:38

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Aisia » Kultura » Irakurtzea

- **Laburpena:** Ahizpa zaharrenari behiak zaintzea gustatzen zitzaion. Agurneri batere ez. Nahiago zuen aitarekin belarretan egitea. Ahizpa txikienari irakurtzea gustatzen zitzaion eta inoiz behiak ihes egiten zioten.

Transkripzioa

-Ze eukitzen zenduezen, lanak banatuta? Batak soroko lanak, bestiak ganauak...

Nati: -Keba, danak, tokatzen zana.

Agurne: -Aizta zarrenari gustatzen zitzakon behiak zaintzia; irakurri eta puntua ein eta hola. Eta neri batere ez. Billlura ematen zian, zeatik behiak labainkaria ein ta, aldapia zan dana eta, jungo zialakuan goittik behera. Eta ni aittakin bedarretara nahixao naban, bizkarrian kargia ekartzia behiak zaintzia baiño. Ez don /ezton/ egixa?

Nati: -Bai. Gero txikixa zan oso, irakurtzia asko gustatzen zakona, aizta txikixena. Haura juten zan igual behiak zaintzera holako ipuin pillia hartuta, ta igual sartzen zian ganauak artua edo garixa jaten ta haura konturau ere ez irakurtzen; hainbeste gustatzen zakon. Entzungo balitt... (barre).

6.37. Mutikotatik mendira Eup! taldearekin

- **Hizlaria(k):** Iriondo Lizarralde , Pako

- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa

- **Erref:** EGB-069/016

- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:23:34. **Bukatu:** 00:25:08

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Mutikotan Herriko mendigoizale baterano batekin irteten ziren inguruko mendietara. 'Eup!' zen Elgoibarko taldea. Oso motxila gutxi zegoen orduan. Senide batek Bartzelonatik ekarri zion mendiko materiala.

Transkripzioa

-Zein da zure lelogo rekuerdia mendixakin? Mutikotan hasi ziñan?
 -Mutikotan? Ba esaten dizut, ba nik... Lanian hasi nitzanian, berrogeixan, hamahiru urtekin, han suerte bat euki naban, ba han zauren mendizale bat oso jatorra, gerra aurretikan mendizaletasuna eitten zabana. Eta harek zaukan beste lagun bat edo oso zera. Harekin urtetzen genduan Izarraitzera, eta Kalamua aldera, Urkora, Irukurutzeta aldera, [Antzipitzara?] Andutzera... Eta horrela hasi giñan. Ta gero poliki-poliki... Zan Grupo Eup! Elgoibarkua. Gero hortikan ba Elgoibarren zeuan grupo oso berezi bat, Grupo Eupekua; ta orduan motxillaik eta iñork ez, eta juten giñanania hola mendira, guk ez zakaun ezer, eta motxilla bakoitzian eruaten zaben janarixa lau lagunena. Zegatik eze orduan egongo zian Elgoibar guztian dozenerdi bat motxila. Ta dozenerdi motxila horretan ba eruaten zan orduan janarixa ba igual hamar edo hamabost lagunena.
 -Karua izango zan orduan motxila bat, ezta?
 -Nik lendabizikua zerian erosi naban, Barzelonan, tiak ekarri zien. Ta oiñetakuak eta horrek abarkekin eta. Ahal zan moduan, praka milraiaekin eta. Orduan horrela zan nere hasieria, ezta.

6.38. 1924an sortu 'Federación Vasco Navarra de Montaña' Elgetan

- **Hizlaria(k):** Iriondo Lizarralde , Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-069/029
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:55:58. **Bukatu:** 00:57:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** 1924an sortu 'Federación Vasco Navarra de Montaña' Elgetan. Eibarko eta Bergarako taldeek indar handia zutelako, ziur asko. Antton Bandrés, Indalecio Ojanguren... ziren bultzatzaileak. Uste du berak Euskal Herriari zertxobait eman diola.

Transkripzioa

-Zegatik uste dozu aukeratu zebela Elgeta federaziñua sortzeko?
 -Bueno. Hori Antxon Bandrés, Antxon Bandresek-eta gerra aurretik mendixan hasi zianian ba hartu zuten gauzaik egokixena, ba Club Deportivo Eibar eta, orduan baakizu, gero Bergara bestekaldian, eta hartu zuten haura "como apropiado" Elgeta.
 -Gerra aurretik dao han federaziñua?
 -Bai, bai, del año 1924. Zu, Federaziua sortu zan mil novecientos veinticuatro.
 -Eta beti euki dau sedia Elgetan?

-Sedia ez. Sortu, han sortu zan. 1924.
-Eta esaten dozu han Eibar, Club Deportivo, Pol-pol...
-Bai. Orduan Bandres. Nik Bandresekin relazio ona neukan. Antxon Bandres fundau zanakin, Indalezio Ojanguren eta horrekin harreman haundixak nittuan. Gaztia izan arren pixkat asko mobidutakua uste dot izan naizela, eta jangoikuai eskerrak kontsideratzen naiz... Honbre, nere lana izan da beti ba euskalzale ta Euskal Herrikua ta elgoibartarra ta abar ta. Nik uste dot Euskal Herrixari ta Gipuzkuari eman dioula bizi inportante bat eman dioula.

6.39. Urbiako mendikatea lekuri onena

- **Hizlaria(k):** Iriondo Lizarralde , Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-069/033
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:04:44. **Bukatu:** 01:05:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Aratz-Aizkorri-Degurixa mendialdea da berarentzat mendialderik konpletoena. Igoera praktikatzeko, Durangaldea. Aralar, zoragarria. Udalatx ere bai.

Transkripzioa

-Zuretako..., aittatu dittuzu mendi batzuk eta. Danak die polittak baina zein da zuretako txoko edo mendi kuttunena Euskal Herrixan?
-Nik konpletuena, hasi Aloñatikan, Aizgorri, Degurixa, Aratz... hori inguru hori. Neretzako. Oin, gero berriz hasi Aloñatik eta gaiñez gain Aizkorrainoko mendi hori, hori edozein lekutan ez dao. Harrixa ta haitza ta konplikatua ta bestia. Eta praktikatzeko mendixa gora, pixkat hola, Durangesaua. Aralar "una maravilla", baina samurraua, "más pastoril, más verde". Baiña konpletuena eta politta eta ederra, Urbia-Aizgorri-Degurixa. Degurixa ta horrek hirurok dia..., puf, "una maravilla". Udalaitz. Mendi bakarria izateko Udalaitz? Joe, ikusgarrixa.
-Jentiak, esate baterako, Degurixa, askok ez dabe ezagutzen.
-Keba!

6.40. Senar-emazte musikazaleak

- **Hizlaria(k):** Iriondo Garate, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref:** EGB-073/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:04:18. **Bukatu:** 00:06:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Luisen emaztea oso kantari ona da. Bi urteko biloba ere bikaina dator. Luis triplea izan zen umetan. Horri esker, bizi guztirako musika-sena izan du. Ezpata-dantzaria eta txistularia izan zen gaztetan.

Klarinetea jotzen zuen bandan. Orain organo automatikoa du etxean eta han ibiltzen da jota ke. Gurasoak ez ziren musikazaleak.

Transkripzioa

-Lehen alabagatik ibili zerate, baiña abotsagatik, alabaren abots edarragatik, baiña zure emazte Elisarena ere...

-Bai, oso abots edarra. Eta ez hori bakarrikan, kanturako, lehengo kantuak eta danak, oso, belarri oso ona. Bai-bai, kanturako erraztasuna daka. Ta oin ikusten dou billoba, billoba txikixa bi urtekua. Jo, kantuan da fenomeno bat. Bai-bai, oso..., bi urtekin, e! Dakiz kantutan! Neu ere tiplia izan nitzan, e! Zortzi urtekin tiplia izan nitzan. Zergatik eze organista, Inazio Bereziartua, gure etxian bizi zan, lelengo pisuan, ta ni hirugarrenian; ta horrek berak hartu ninduen ta eruan zidan korura, ta eskerrak berari bizi guztirako geratu jatan neri, esaten dana, sentidu musikala. Eskerrak hareri, zegatik eze hasi jatan musikia gustatzen zortzi urtekin; ta itten gendun tiple ta monagillo, bixetara. Ta gero harrezkero ba beti entzuten eta abar, ezta.

-Ta musikarekin jarraituz, bandako partaide ere izan ziñan.

-Bai. Lelengo, batera, izan nitzan... Klaro, guk gaztetan, badakizu, orduan danak ibiltzen giñan parroixan inguruan, parroixan inguruan gauza asko. Eta orduan lelengo izan nitzan ezpata-dantzarixa. Geruao txistularixa. Eta batera inguru, bandan; ikasi ta klarinetia jo naban bandan.

-Badaure zure argazkixak.

-Bai. Eta gaur egunian etxian dakat organo automatikua, osea, ritmo automatikuekin. Ta han ibiltzen naiz jota keia. Baiña eskerrak tiple izanari ya betiko geratu zitzatan musikarako jarrera hori. Eskerrak hari.

-Zure aitta edo ama kantariak zien edo?

-Ez, ez. Aitta zan basarritar normal bat. Ta ama ez, ama asko kanpuan eoten zan lanian. Elgoibarko tabernetan ere lan asko ein zaban harek, beti kozinera bezela.

6.41. Artea, Musika, Historia... zaletasunak

- **Hizlaria(k):** Iriondo Garate, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref:** EGB-073/018
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:38:14. **Bukatu:** 00:40:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura
 - Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Etengabe ikasten ari da Luis. Elgoibarko kultura ekintza guztietan dago. Artea, Musika, Historia... bere zaletasun nagusiak. Etxea liburuz beteta du. Hainbat entziklopedia. Orain Interneten topatzen du informazioa.

Transkripzioa

-Oin nahi dot zure zaletasunak, zure afiziuak. Oin esan dozu jerenterako ikasi zendula, baiña bizitza guztian ikasten ezagutu zaittut. Historiazalia zera, artezalia zera, irakurketa asko itten dezu. Elgoibarko kultur ekintza guztietara fijo-fijo Luis Mari Iriondo (...). Eta zaletasun haundi bat Historia eta Artea. (...).

-Nik oin artian euki dotena da, etxian beti andria protestaka, ez oin, baiña esan nahi dot gaztiauak giñanian, estanterixak ipiñi ta liburuak... Neria izan da... enziklopediak, enziklopediak... Esate baterako, "Enciclopedia del Arte", nik nakan gogo bat eukitzeko, ta han dakat. Ta gero Enciclopedia de la Música. Bueno, hantxe daude enziklopediak. Eta bat, haundixena, Enciclopedia Vasca, zela da, Auñamendi. Larogei bolumen, joe, hori izan da, estanterixa guztiak beteta, hamengua, Debakua, eta hau (dirua) ere asko, hamar mila pezeta kostatzen zan gitxi gora behra liburu bakutza. Baiña beti ere ikusi-ikusi eta hortan. Liburuak hoixe. Ta gaur egunian, inziso bat egingo dot, horrek danak han daude geldi-geldi-geldi ikutu barek. Pena ematen dit, e. Dana zela dakaten ordenadorian, dana, ta horrek larogei liburu horrek, hainbeste kostau dianak, zenbat bidar itten doten aprobia, juten naiz oin Interneten eta artikulo bera, mekauden, hamen daok, barren, debalde.

6.42. Elgoibarko Izarra; Olentzerorekin kantuan; Juan Igartuaren abesbatza

- **Hizlaria(k):** Agirregomezkorta Laka, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-104/006
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Musika
 - Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- **Laburpena:** Elgoibarko Izarra euskara elkarteak atal desberdinak zituen eta bera dantza-taldeko kide moduan joaten zen. Gabonetan Olentzerorekin kantuan irteten hasi ziren eta, horretarako entseguetan zebiltzala Juan Igartua elgoibartarrak abesbatza bat sortzea proposatu zien. Euskarazko kantak abesten zituzten.

Transkripzioa

Bueno, hor, ni gehienbat juaten nitzan gero ya Elgoibarko Izarrara, bueno, elkartera, dantza-taldeko arduradun moduan-eta juaten giñan. Elgoibarko Izarra elkartean zeuden talde desberdiñak; gu dantzatik juango giñan. Ez dakit. Orduan ere hasi giñan, klaro, Gabonetan Olentzeroarekin irtetzen giñan kantuan. Eta hori dala-ta, hortarako ensaiatzen hasi giñala edo, Elgoibarko -bueno, orduan uste dut, ez dakit, unibersidadeko... Madriden-edo uste dot zauala- Juan Igartua -elgoibartarra zan- hasi zan gure ensaiotara etortzen. Bera asko mobitzen zan kanpuan - atzerrian eta- eta talde bat, koro bat, abesbatza bat zeratu nahi zuela. Eta, bueno, sortu genuen holako koro bat edo. Bueno, oso ausartak giñan. Igual eukiko genittun 17-18 urte eta danetan ibiltzen giñan. Ez? Orduan, gaiñera harek esaten zigun Alemaniara jungo giñala kantatzera. Euskeraz kantatzen genuen. Eta hola.

6.43. Txitxilibakio aldizkaria eta etxez etxe banatzen ziren binetak

- **Hizlaria(k):** Agirregomezkorta Laka, Itziar; Larrañaga Uriguen, Sebas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

- **Erref:** EGB-106/025
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:33:58. **Bukatu:** 00:37:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- **Laburpena:** Elgoibarko Izarrako lantalde batek Txitxilibakio aldizkaria sortu zuen, herrian euskarazko aldizkari bat egon zedin. Izenaren jatorria. Aldizkaria osorik beraiek egiten zuten. Horrez gain, motibazioa sustatzeko ekintzak bideratzen hasi ziren. Esaterako, euskarazko binetak banatzen zituzten etxez etxe. Lana nola egiten zuten. Euskal Herrian Euskarazen ekintzetan ere parte hartu zuten. Geroago, Elgoibarko Izarraren bigarren fasean, gaztelaniaz ematen ziren ikastaroak euskaraz eskaintzea izan zuten helburu.

Transkripzioa

- Eta lehen esan dozu Txitxilibakio aldizkarixa. Zer zan?

- Sebas: Elkartzen giñan han, Loriton, eta gure helburua zan -izango zan Elgoibarko Izarrako kultura, euskera... kultura taldia izango zan, ze Kristina ere bazauan, Agustin Gorostiza...- helburua zan herrixan aldizkari bat edo rebista bat azaltzia, baiña euskeraz, ez zauana, herri-maillakua.

- Itziar: Ez zan idazmena bultzatzea ere? Edo...

- S.: E... baiña gehixau... Bueno... ze azken baten idazten zeбенak gure lagunak, ezagunak zian, pin-pin-pan. Eta Txitxilibakio jarri genion izena, ba, hemen behartsu bat etortzen zian, Sakamantekas biharrian, Txitxilibakio. "Txitxilibakio ipiniko diou?" ta Txitxilibakio. Ta horrekin lotuta hasi giñan pixka bat... Hori ateratzen zan. Ez dakit zenbanaka. Ta zenbat atera genittun ere ez naiz gogoratzen. Dana eitten gendun guk: azala, aurrekua, atzekua, ezkerrekua eta dana. Nahi izan gendun motibazio zerbait egitea. Eta, orduan, eitten genittun biñeta batzuk, komik batetan - batzuk- banatzen zianak etxez etxe. Ta danak zian euskeraz hitz egiteko. Ba "lehen hitza euskeraz" eta egoera desberdiñak, ez? Orduan, eitten gendun komika, juaten giñan Danobatera, eitten ziguten ez dakit-ze -"fituan", hola deitzen zan- eta harekin inprentara juaten giñan, gero tolostu danak eta banatu etxez etxe. Eta danak zian hola pixkat... Horren barruan ere egon giñan Euskal Herrian Euskarazen barruan ere bai. Tartean. Elgoibarko Izarrako euskera taldea baiña -bueno, euskera taldea, motibazio taldea- Euskal Herrian Euskarazen ere bai. Euskal Herrian Euskarazeko kanpañetan parte hartu gendun. Txiripaz librau guardia zibilletatik ere bai. Gogoratzen naiz telebistekin behin. Euskal telebista eskatzeko, kanpaña zan herri bakoitzak ipini bihar zittulako telebista zahar batzuk aurrian "Euskal telebista" pegauta. Lortu genittun telebista zaharrak, ipini gendun pegatzeko eta gero jua giñan, ba, Goiko plazan zeuan kabina bat, kabina gaiñan, zubixan ez dakit nun... ipinitta. Eta gero enterau giñan, atzetik guardia zibillak pentsatzen bonbak ziala atzetik euki genittun, baiña ez zian enterau e, itxura danez. Eta gu felizmente ipini gendula ta... Holako... Eta gerora begira, pixkat motibatzeke, hasi giñan antolatzen -baiña gero, e! bigarren fasia ya izango litzake, beranduago-, ba, sukaldaritzako ikastaroa euskeraz... e... erderaz antolatzen zian ikastaroak euskeraz ere posible zala ziurtatzeko, ba, holako antolaketak eitten genittun.

- I.: Kultura taldea zan hori, ez?

- S.: Kultura, kultura.

- I.: Zu kultura taldean ibili ziñan.

- S.: Kultura, kultura izango zan.

- I.: Elgoibarko Izarraren kultura taldea.

6.44. Kultura lantzen, euskara hauspotzeko

- **Hizlaria(k):** Loiola Ugarteburu, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-112/024
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:37:54. **Bukatu:** 00:41:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Musika
 - Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

- **Laburpena:** Jabier Arrizabalaga zinegotziak bertso eskola, trikiti eskola eta soinujoleen omenaldiak egin behar zirela esan zion. Ferietan lehiaketak egiten hasi ziren. Euskararen Eguna ere antolatu zuten. Horrekin dena egina zegoela uste zuten orduan.

Transkripzioa

- Tokatu zitzaidan zinegotzi bat, Jabier Arrizabalaga, Belarreta baserrikoa, eta harek esan zidan: "Ba, bueno, hamen itzulpenak eingo dia, baiña hamen beste gauza batzuk ere egin behar dira: kultura bultzatu behar da. Eta, horretarako, bertso-eskola bat antolatu behar dugu, trikiti eskola bat antolatu behar dugu eta omenaldiak egin behar dizkiegu soinujoleei eta..." guzti hori. Ba, esaten dizut, nahiko lan! Gero, badakizu, hillian behin Elgoibarren feria egiten da. Eta feri hoiiek, ba, nabarmentzen ziran Gabon Zaharretako feria eta San Bartolomeetako feria, baserriarren eguna. Gabon zaharretan, ba "Aber, nola egingo dugu?" berdura-barazki lehiaketa, gazta lehiaketa, lora lehiaketa... Gazta lehiaketan Espainia mailako lehiaketa antolatu zan. Galiziako batek atera zun behi-esnearen saria eta Mausitxak, ze esanikan ez, ardi-esnearena. Orduan, ba, bueno, hori zan Gabon Zaharretan. San Bartolomietako baserriarren egunian, ba, egin behar zen Pirenaica arrazaren lehiaketa, sagardo lehiaketa... eta abar eta abar. Eta hola bultzatu genuen. Eta horren inguruan, esan bezela, soinujoleei egin zitzairen omenaldia, Galbuso eta zerari, Uberari. Eta jende pilla bat. Euskeraren eguna antolatu genuen! Eta bueno...! Pentsatzen genuen horrekin dena eginda zegoela. [...] Eta orduan Gotzon Garate eta abar.... ba, bueno, herrikoak ziren eta hoiien hitzaldiak eta euskararen egoera... Unibersidadian orduan ya euskera pixkat sartzen hasi zan... Eta, bueno, nere ustez hitzaldi hoiiek jendea motibatu egiten zutela. [...]

- Franco hil eta gero.

- Bai, bai, ze esanikan ez, Franco hil eta gero.

- Baimenik ez zan eskatu bihako orduan.

- Ez, ez, zauan baimenik eskatu biharrik, bakarrikan gogua eta... Orduan beste arazo bat izaten zen. Orduan alkateak ez zuten kobratzen, e! Eta dirua ere tamañan zegoen danerako! Elgoibarren bi alkatek ez zuten lana kobratzen. Luis Arrieta lehenengo alkatia eta gero Lucio Beitia. Orduan, ba... esango diazu. Ordu pilla bat sartzen genituen, hala zalako, eta kobratu ba... tamañan zegoen dirua. Eta zerbait antolatzerakuan ere esaten zizun: "Aber, e! diruakin ez gabiz ondo". Hala da. Eta ba antolatzerakuan ere beti ere preziuak eta aurrekontuak eskatuta eta abar eta abar. Baiña bai, gogua zegoen eta, gogua zegoenez, gauza asko egiten ziren. Ilusioa ere bai eta... oso garrantzitsua guzti hori aurrera eramateko.

6.45. Ixidor Solupe; Haritz dantza taldearen sorrera

- **Hizlaria(k):** Arrieta Soraiz, Ion; Odria Aldazabal, Lurdes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-114/034
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:53:02. **Bukatu:** 00:55:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Ixidor Solupe ez dakite Ondarroan jaioa zen edo ez baina bizi osoa Elgoibarren egin zuela diote. Dena den, ama eta emaztea ondarrutarrak zituela kontatzen dute. Umeen eta helduen dantza

taldeko arduraduna zen Isidor. Elorra taldea desagertu zenean, soka dantza mantentzeko ahalegina egin zuten mutil batzuek. Haietako batzuk umeen dantza irakasle ziren. Haritz dantza taldea osatzea erabaki zuten.

Transkripzioa

- Ixidor Solupe bera elgoibartarra da, ezta?

- Ion: Bai, bueno... Harek beti ondarrutarra... buruan Ondarru dauka. Bere... izango da aitta edo ama? Solupe...

- Lurdes: Ama izango zan.

- I.: Ama izango zan ondarrutarra. ta bera ere ondarrutar batekin ezkondu zan, gaiñera. Baiña, bueno, nik uste dot bera Elgoibarren... ez dakit E lgoibarren jaiua, baiña bizi guztia Elgoibarren eingo zaban. Bera eta bere anaixa. Bera zan buru, bai umien taldian eta bera jutun zan Elgoibarko Izarrako bileretara, arduradun bezela, dantza-taldeko arduradun bezela, umien dantza taldeko arduradun bezela, eta Elorrako... bera zan ere arduraduna. Eta harek laga zabanian, momentu baten iritsi giñan, ba, jaixak zetorrela, San Bartolomeko jaixak zetozela eta aureskua egiteko, soka-dantza egiteko, ez zauan talderikan, Elorra desagertu zalako. Eta haura dala-ta, juntau giñan batzuk soka-dantza hau pixkat mantentzeko - Elorran ibilitako batzuk eta beste batzuk igual iñoiz dantza egin gabekuak. Baiña, bueno. Orduan jutun giñan mutillak. Eske soka-dantzan -esan daban moduan Lurdeseke- soka-dantzan mutillak parte hartzen zeuben, nahiz eta gero jendian artetikan atara neskak. Eta, orduan, haura sortu gendun taldia soka-dantza edo aureskuka egiteko San Bartolomekoa. Eta batzuek lehendikan ziran eta jarraitzen zeuben izaten umien maisuak, umien dantza maisuak. Eta, orduan, ba, taldia azkenian pentsau gendun talde bat osatzia ya neskekin.

L.: Bai, neskak eta mutillak danak, talde bezela. Eta izateko pixkat guk nausiak ikasi dantzak guk egiteko... porke, bueno, Elgoibarren eitten zian lau edo bost... dantza batzuk -sei edo- beti berdiñak, beti berdiñak, eta nahi gendun ikasi dantza berrixak kanpokuak. Ikasi guk, nausiak, eta gero umieri erakusteko dantza diferetiak. Eta horrela sortu zan pixkat idea horrekin, osea, talde... Haritz Dantza Taldia. Bai, bai.

6.46. Gabonetako dantza saioa eta karrozak

- **Hizlaria(k):** Gartzia Konde, Pake
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-124/022
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:36:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Gabonetan, Eguberri egunean, dantza saioa egiten zuten. Non entseatzen zuten eta zein dantza egiten zituzten kontatzen du. Karroza egiten zuten. Ama Birjinaz eta San Josez mozorrotzen ziren. San Joserena egin zutenak aipatzen ditu. Neskek egiten zuten dena. Txistulariekin joaten ziren. Marisol Gurrutxaga Konde eta Itziar Garzia Isasti aritzen ziren dantzan erakusten.

Transkripzioa

- Eta gero hor, Gabonetan...

- A! Klaro, hori... 12 bat urte eukiko nittun. Badaukat argazki bat oso politta, gaiñera. Eta, orduan, Marisol Gurrutxagak -nere lehengusiña- eta Itziar Garciak -nere lehengusiña- egiten zuten zortziko bi talde eta ikasten zian hiru dantza: `Artzai buru txuri bi´ kantuan, `Ingurutzua´ eta `Txalodantza´ egiten zan, edo `Makil-txiki dantza´. Nik uste dot txaluekin egiten gendula. Edo makillekin, ez dakit seguru. Hiru hoiek. Eta egiten zian ensaiuak elizako sakristiaren atzekaldeko lokal batetan, santuak gordetzen zian armarixuan lokal haretan. Egiten zian... ensaiatzen zian, ba, ez dakit, hillebete edo bi hillebetian. Kriston lana egiten zuten, ze bueno... Nik uste dot ziala zortziko... zortziko edo hamaseiko bi talde igual zian, e! Ta Natibitate egunian -edo hemen Natibidade egunian- egiten zan... karroza bat ipintzen zan San Jose, Ama Birjiña eta umia. Eta egiten zan dantzan herrixan zehar. Eta Txarridunian bokadilluak ematen ziguten eta gero buelta. Karroza zauan... egiten zan Sigmako fenwick batetan. Fenwick-a da barru... badakizu zelan dan, ez? barruko [...] Eta hor montatzen zan. Pentsatzen dot Mari Ezenarro ere ibiliko zala montatzen, beti ibili izan zan. Montatzen zan hori ta San Jose eta Ama Birjiña. Neskak zian biak: San Jose ta Ama Birjiña neskak. Ama Birjiña izan bihar zuan rubixatxo bat, ile kixkurra, politta, eta San Jose izan giñan morenak eta, ahal dala, bigotia geneukanak. Gogoratzen dittut nere lehengusiña batzuk, ba, Arantxi uste dot izan zala, Mari Kontxi Zuazubizkar eta ni. Hoiekin gogoratzen naiz. Morena-morenak giñan. Ta gu... Bizarra ipintzen ziguten, e! Neska morena bat San Jose eta neska rubixatxo bat Ama Birjiña. Eta umia pentsatzen dot orduan muñeko bat izaten zala. Artzaitxo batzuk, holaxen, neska... ume txikiak, eta gero gu dantzariak.

- Hor neskak bakarrik parte hartzen zeuben, ez?

- Neskak egiten gendun.

- Eta ze eitten zenduen? Karrozan juan...

- Ez, karrozan juaten zan jaiotza eta gu atzetik dantzan.

- Dantzan eta kantuan?

- Ez, pasakallian juaten giñan txistularixekin, pasakallian, eta gelditzen zian ez dakit zein tokitan gelditzen giñan eta han egiten zan. Gogoratzen naiz ni plazan `Artzai buru zuri bi´ gero eta jendiak ere kantatzen zuen. Politta zan.

- Hori 10 bat urte zekazuzenian?

- Nik 12 pentsatzen dot; kalkulatzan dot, argazkixa ikusita, 12 bat urte. Pentsatzen dot bi urtetan edo. Ze zian nahiko adin... uste dot beti adin berdiñekoak hartzen zituzten, ba, ez dakit, 12-14 edo. Pentsatzen dot, e. Eta hurrengo urtin batzuk horkuak eta beste batzuk berriak izaten zian.

- Eta hor, esan dozu, erakusten dantzak-eta zure bi lehengusiña ibiltzen ziala.

- Itziar Garcia Isasti eta Marisol Gurrutxaga Konde.

- Bai. Eta eurak euskeraz eingo zeuben umiekin? Goguan dakazu?

- Bai. Nik uste dot baietz. Nik uste dot baietz, ze nik Mari Solekin euskeraz hitz egiten nuen orduan. Orduan... Eta Itziarrekin ere bai pentsatzen dot. Nik pentsatzen dot egiten genuela euskeraz.

- Eta gero, plazan, hori, `Artzai buru txuri bi´ kantau eta jentia...

- Pentsatzen dot baietz, behintzat familiako... bueno, nik pentsatzen... ikusten... osea, ikusten dot orain jendia, jende aurrian dantzan. Kalian, kalejiran, bueno, jendiak begiratuko zaban, baiña plazan jendia biltzen zala. Ipiniko zan jaiotza elizaren azpian, pentsatzen dot, eta haren aurrian edo plazan dantzan egiten zan.

- Hau zelan sortuko ete zan? Igual apaizak, abadiak...?

- Ez dakit. Itziar ta Mari Solek, haiek, Mari Solek eta Itziarrek ikasi zuten Mendaroko mojetan eta nik pentsatzen dot han ikasi zutela dantzan. Pentsau eitten dot, ez dakit seguru.

- Baiña ideia hori... ezta...?
- Ez dakit euren izango zan.
- Hemen abadiak be egon zian...
- Euskalzaliak.
- ... euskaltzaliak. Ez? Ez dakit orduan sasoian zein izango zan abadia.
- Don Jose igual. Don Jose, Ondarruko bat. Don Jose Juaristi. Bueno, ez dakit Ondarrukua zan, Juaristi-kin... Bere illoba bat etortzen zan, gure edadeko bat etortzen zan Ondarrun bizi zana. Juaristi.
- Azkoitiarra...
- Azkoitiarra igual izango zan. Badakit egin zitzaioala sekulako hileta gero.

6.47. Euskal kulturaren astea eta Urruzunori omenaldia

- **Hizlaria(k):** Arrieta Soraiz, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-125/013
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:25:34. **Bukatu:** 00:27:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- **Laburpena:** Euskara eta euskal kulturaren astea antolatzen zuten. Hitzaldiak antolatzen zituzten, baita liburu eta disko azoka ere. Pedro Migel Urruzunoren omenaldian egin zirenak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Gaiñera, plataforma hoietan Euskal Astea ere antolatzen gendun urtero, euskera eta euskal kulturaren astea. Eta ekartzen gendun, ba, Juanito San Martin euskeraren inguruan, euskal historia klase zeraren bat... hitzaldiren bat emateko, euskal literatura eta abar eta abar.

- Liburu eta diska azoka be...

- Liburu eta diska azoka. Gero ez naiz gogoratzen ze urtetan zan, baiña Pedro Migel Urruzunoren urteurrena izan zan. Ez dakit jaiotzaren urteurrena izan zan... ez, jaiotzarena... edo beharbada bai edo lehen liburuarena. Eta zera antolatu gendun ere, eta guk ere parte hartu gendun horretan. Eta Euskaltzaindiko bilera udaletxian antolatu zan horren bueltan. Irratitik ere, ba, horren berri eman genduan. Gogoratzen naiz Bikuña bergararra etorri zala, baiña baita ordurako Loiola Herri-irratikuekin, Arratekuekin eta abar harreman hori eta... informazioa ematen... Ya ordurako euskera nahiko hitz egiten genduan eta...

- Pedro Migel Urruzunon urteurren hori eta izan zan ekitaldi bat, ez?

- Ekitaldi bat. Euskaltzaindikuak egin zuten bilera bat eta Pedro Migel Urruzunori buruzko liburutxo bat ere atera gendun. Ez dakit, ez naiz gogoratzen orain izenburuarekin. Baiña bai. Eta norbaitek hitzaldi bat eman zun han, udaletxeko aretoan, ez dakit San Martinek berak ala besten batek, ba, Pedro Migel Urruzunori buruz

6.48. Elkarte gastronomikoak kultura edo kirol jardueraren batekin lotuta

- **Hizlaria(k):** Mugerza Oria, Begoña; Mugerza Oria, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

- **Erref:** EGB-138/012
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:15:03. **Bukatu:** 00:16:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- **Laburpena:** Ongarri elkartearen noiz sortu zen. Garai batean familia baten taberna izan zen eta gero gizonezko talde batek elkarte gastronomiko bihurtu zuen. Gerora eskatu zen baimena kultur elkarte ere bihurtzeko. Garai batean elkarte gastronomikoak kultura edo kirol jardueraren batekin lotu behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Noiz sortu zan Ongarri?
- Begoña: A, hori nik ez dakit.
- Gloria: Hori ez dakigu noiz... zenbat urte eingo zaban... Bueno, entereau leike.
- B.: Ez dakit, 59an, 60an... hor, hor gutxi gorabehera.
- G.: Lehenengo tabernia izen zan haura, Errezabalko tabernia.
- B.: Baiña famillia baten tabernia izen zan.
- G.: Baiña gero, harek laga zebenian...
- B.: Gero soziedade bezela erosi zan.
- G.: ... hartu zeben...
- B.: Bai, gizonezko...
- G.: Grupo hori, gizonezko grupuori.
- B.: Gizonak bakarrik zian, e. Eta gastronomika bezela hasi zan.
- G.: Gero eskatu zeben kultural bezela. Zeatikan -orduan ez dakit- gero bihar zan soziedadiak zabaltzeko...
- B.: Soziedadiak bihar zeben aktibidade kultural bat eukitzia. Horregatik da Gure-bide ziklismo, Biar Dana musika, Egotoki atletismo, Zubi-ondo ajedrez... Bakoitzak daka aktibidade bat.
- G.: Ta ein bihar zan urtian behintzat aktibidade bat.
- B.: Hori bai zala legezkoa, usten det, e. Derrigorrezkoa, bete bihar zala. Eta hoiek hasi zian kultural. Kultural.
- G.: Bai, kultural. Hola egon zian... ez dakit zenbat urte eingo zian.

7. Herria, azpiegitura

7.1. Etxera bidean zuen ingurua

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/002
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:02:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Maalatik Toletxe gainera igotzen zen Soteraren etxera joateko. Mojen komentua zegoen eta bidean zuhaitz ugari baserriraino. Mojekin gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Zuretzako, bueno, zure kalia zelakua zan gerra aurretikan?
- Gerra aurretikan, ba, gure kalia kalia ez zan, basarrixa zan ta. Ixotzen... Maalatikan ixotzen zan Toletxegaiña esaten zitzakon. Oin bezela dana etxiak dia harek. Alde batian, Ormetxe zauan, moja frantsesen zera... konbetua. Bai, etxe haundixa Ormetxe. Eta han hori dana [lagun-lagun] ta horrek danok arbolak zian horrek, txopu haundi horrek, arbolak, Maalan hasi ta Toletxeraiño. Toletxeko basarrixa zauan eta haraiño dana arbola haundixak kerizpia [eitten], ta mojak han. Mojak frantsesak zian mojak, e! Frantsesak. Nere aizta behin gure e... —bai ba, soruak geunkazen, Olaitza esaten zitzakon, oin dana San Roke baillia da haura eta—... hara zixen atxurrakin. Eta moja, mojak-edo ortu haundixak zeukazen, bai, ba, terreno haundixak Maalaraiño esaten dizut, Toletxeraiñuak zian euren ta. Esan zion eze, atxurrakin ikusi zaban ta esan zion eze: "Canta [...] hija mia, canta [...] [zurcir, zurcir]" esan zion mojiak.

7.2. Ura ur-putzutik atera eta barrikan garbitzen ziren

- **Hizlaria(k)**: Irizar Goiburu, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-019/012
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:21:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Jaunartzea egin zuenean amak soineko dotorea egin zion. Amari gustatzen zitzaion umeak ondo janztea, baina ez zegoen baliabiderik. Bakoitzarentzat arrautza bana ere ez zen iristen. Etxean ez zuten kanilako urik eta bozaderatik (putzutik) ateratzen zuten ura. Barrika baten ura jarri eta hantxe garbitzen ziren.

Transkripzioa

- Nik, akordatzen naiz, komuniua ein nabanian, nik ez dakit zenbat urtekin eitten zan ordun komuniua. Ordun bi komunio eitten zian. Komunio ein nabanian, soiñeko bat ein zian amak, e... oso, bastante dotoria. Ordun ez zeon hola zuriz ta jantzitta ta... soiñeko korriente bat, baiña bastante. Gure ama zana hortan, e... bastante, e... gustatzen zikon umiak ta ondo jantzi ta... zea ta... ondo mantentzia ere bai, ba ahalegiñe, badakizu. Hainbeste giñen ta danai arrautza bat emateko egunero ere ez zan ailegatzen. Arrautzak saldu ein bihar zian. Ta pixkat eskastxua giñenai ba: "ala, hartu ta jun ganbara txikira ta jaizu hori arrautza hori". Badakizu, orduko gauzak. Danontzat ez zeon. Saldu ein bihar zian gauzaik ekarriko baldin bazan.
- Hori. Eta bazauan dutxa zuen baserrixan?
- Ez.
- Eta nun eitten zenduten garbitzeko-ta, askian?
- Bai, askan. Etxian orduan, hola, bozaderia. Ez dakit dakizun zer dan bozaderia. Potzu haundi bat [zuluakin].
- Bai, aska, ezta? Baserriko aska.
- Ez, ez, ez. Ez dakit zenbat metro eukiko zittuan harek. Bozaderia.
- Putzuan modukua?

- Bai, potzua. Baiña borobilla, hola, haundixa. Handik etatzen genduan ura. Ur korrientia ez genduken guk etxian.
- Eta gero berotu eitten zan hori, igual, pixkat eta...
- Bai, bai, bai.
- ... holantxe. Oso ondo.
- Ta ba, zea baten, barrika moduko tiña baten garbittu.

7.3. Bizikletara erosi zuen lanera joateko

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Lizarralde, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-026/013
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:20:22. **Bukatu:** 00:20:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena:** Lanera joateko bizikleta erosi nahi zuen. 60 duro eskatu zizkioten eta ordurako lanean zebilenez, lortu zuen dirua. Gero bizikletaz joaten zen San Lorentzo auzotik Estarta lantegira.

Transkripzioa

- Hirurogei duro.
- Asko izango zan orduan.
- Pentsaik. Berrogeta hamar-edo banaukazen. Lanian najabixan ta!
- Bueno, behintzat.
- Bueno, hirurogei duro. "Datorren astian-edo etorriko nok ikustera" ta berriz ere ta hirurogei duro osatu nittunian, jun ta hartu naban bizikletia. Ta nik bizikletia hartu ta San Lorentzon jarri nitzanian, goittik behera Estartanera juteko, Sigmara juteko, buf! Gaur ezta Principe de Asturias ere!
- Orduan lujua zan bizikletia?
- Bizikletia? Bizikletia zaukan gizona, mutila orduan ez pentsau edozein zanikan, e! Edozein zanikan. Banekak bajatzen zian bizikletan San Lorentzotikan behera. Banekak, bai.

7.4. Pilarika eguna "Ama Birjina garotako" eguna

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Lizarralde, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-026/022
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:33:44. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Udazkenean garoa asko ekarri behar izaten zen menditik, urte guztirako, azpiak egiteko. Urriaren ekartzen zen garoa eta urriaren 12aren zain egoten ziren, lantegietan lan egiten zutenek laguntzeko,

egun hori jai eguna zen eta. Hau dela eta "Ama Birjina Garotako" deitzen zioten egun horri. Bide txarrak zeuden orduan baserrietara.

Transkripzioa

- Ta gero beste [arazo] bat zuan e... garua, mendixan. Ta garua ekarri bihar izeten zuan asko urte guztirako. Derrigor bihar izeten zun haura, ganauen azpizak ein ta gero simaurra izateko sororako. Ta haura dana ein bihar izaten zuan udazkenian. Ta udazkenian eguna moztuta egoten dok, hor e... "octubre", bai, oktubrian ta novie..., bai, oktubrian izaten dok hori. Ta basarrixan zaudenak egoten zittuan kaleko langillien, taillerrian, gu bezela taillerrian zebizenen zain. Pilarika eguna "doce de octubre" ez dok izaten? Hillan hamabixan. Ta hango zain egoten zittuan mendirako lagunak izeteko taillerretan jai, mendiko lagunak izeteko, garotarako, han zabizenen zain egoten zittuan, gure zain egoten zittuan. Ta gero asmau juen horrek Ama Birjiña Garotako, Ama Birjiña Pilarrekua esan biharrian Ama Birjiña Garotako esaten jakon horri. Holaxe ibiltzen giñuazen! [...] zuan oingo aldian, astuna. Ta gero txarren-txarrena zuan, zera, biderik ez baserrietara, kamiñorik ezer ere ez baserrietara. San Lorentzora bizikletan etorten bahintzan, beste... Sigmatikan San Lorentzoraiño bide [zaukan Urkaira] juteko, gure etxera juteko.

- Bai, baiña bidia ta...

- Bidia txarra! Lokatzia asko! Ta neguan gabian e... gaba, sei ta erdiak arte lana eindda illunduta taillerrian ta San Lorentzon jo txikito bat eta hala, etxera!

7.5. Eibarrera enkargura joan eta zinta-karreran jolasean

- **Hizlaria(k):** Arrieta, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lodoso, Ainhoa
- **Erref:** EGB-030/005
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Heria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
 - Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Aitak tailerra zeukan eta Eibarrera bidaltzen zuen Unzetako ferreteriara piezen bila. Unzetaneko ferreteria garrantzitsua zen orduan. Eibarrera joaten zenean hango "Casa del Pueblo"-ko "zinta-karreran" (ginkana) parte hartzen zuen. Bizikleta gainean eserita, makila batekin, lazo batzuk harrapatzera jolasten zuten.

Transkripzioa

- Gure aittak, zera, taillartxua edo zaukan ta hamen ez zauan, bueno, bazauan ferreterixia baiña Eibarko Unzetanekua ere bazan, oin oindiokan zerian dao, San Antoliñen. Ba haura ferreterixia inportantia zan. Honek ingo, bera Pedro Unzeta, ferreterixia sortu zaban gizona, hantxe dendan eoten zan beste bere seme bi eta beste dependienteren bat ere bai ta hara bialtzen zian aittak taillarrerako edo, zeozer piezaren bat edo, hola. Eta maietza ointxe dator, maietza lehenengua, gogoratzen naiz ba, esan zian eze "Eibarrera jua bihar dok, Unzetanera" ta "bien". Ba muestria edo zeoze emango zian pieziana ta hauraxe ekartzeko. Eta nik zenbat urte

eukiko nittuan ba?

- (andria) Zazpi urte edo?

- E?

- (andria) Zazpi bat urte edo.

- Gehittuago igual eukiko naban zeatik eze Eibarren, beti izan zan Eibar socialista ta republikano ta hamenguen aldiari oso abantzauak eta han "Casa del Pueblua" ere bazuan eta han jaixa edo zan, jaixa zan Eibarren. Hamen ez zan artietan holakorikan eta zintta jokua. Horrek bizikleta gaiñian jarri, eta zinttak ez dakit iñoiz ikusi dozun? Ez e? Holakotxe lazo ederrak izeten zian, luziak, metro terdikuak edo metro bat ingurukuak, karrete batzuetan batu, ta anilla bat han barrenian ta paluekin bizikleta gaiñetikan sartu in bihar zan, han zerian.

7.6. San Inazio kalea dotorea; deskribapena

- **Hizlaria(k):** Unzueta Iriondo, Pepita; Unzueta Iriondo, Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-040/002
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Estazio kalea oso dotorea zen. Estazio kalean zeudenak: Klinika (etxe dotorea), lorategi dotoreak, Aiziarreneko jauregia... Beraiek taberna izan zuten.

Transkripzioa

- Hemen jaixua zan aitta, etxe honetan jaixua. Ta gero handik estaziotik etorri giñan hona.

- Eta lehen Trenbide kalia zelakua zan?

- Uiii! Dotoria benetan! Benetan!

- Ze zauan?

- Ba zauan, klinikia zauan, baiña etxe politta, e! Klinika bat ez zaban ematen, etxe dotoria. Eta gero zeuden jardiñak, gorutz e! Eta gero zauan Don Inazion palaziuua. Ta han zeuden arbola edarrak "naranjas de la China". Jo! Ze arbola zauan, zeuden han! Bueno, danerakua. Eta gero zauan jardiña eta gero berriz ere palazio bat. "¿Cómo era el palacio?" [...] Aiziarren, Aiziarrenekua.

- Aiziarrenekua.

- Aiziarrenekua. Ta harek ere bazaukan bere bueltatxua, jardiña, palmera haundi bi. Oso dotoria zan San Inazio kalia.

- Eta dendarik bazeuzen lehen kalia?

- Ez.

- Ez, han ez dendarik.

- Han ez, han ez zauan.

- Erosketa guztixak eitteko behera, ezta?

- Behera. Guk tabernia geunkan, guk tabernia geunkan, baiña harek galerixa zuri harek? Han beheian tabernia geunkan.

- Hantxe bizi giñan gu.

- Hantxe bizi giñan ta, baiña dendarik ez zauan. Baiña dotoria kalia, benetakua.

7.7. Aitak egindako altzariak sakristian

- **Hizlaria(k):** Iriondo Bergaretxe, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-041/015
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:34:28. **Bukatu:** 00:36:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Altzari denda jarri zuen bere etxean, 50eko hamarkadaren hasieran. San Bartolome elizako sakristian dauden armairuak Julenen aitak egindakoak dira.

Transkripzioa

-Negoziua izan zan mueblerixia edo?
-Mueblerixia, dendia.
-Zeuk ez ziñuan eitten mueblerik aittan modura?
-Ez, ez, ez. Ni ez nintzan ebanistia, ni naiz mekanikua. Mandrinadorea, fresadora eta horrek gauzok.
-Esaten dabe ba arotzekin lo eindakuak gero arotzak izaten diela.
-Bai, nere aitta bizi balitz ni seguramente arotza izango nitzan. Eta gaiñera uste dot arotz ona, arotz ona izango nitzala. Zeatik esaten dabe nere aitta oso ona zala, oso ona, e. Ta oin askotan joaten naizenian elizara sakristixara; zuek ez zerate joaten elizara baiña gu bai oindiokan. Ba joaten baldin bazara egunen baten sakristixara egunen baten Elgoibarrera, han daude armaixo batzuek nere aittak eindakuak, armaixo edarrak, e!, haritzakin eindakuak, "roble americano".
-Tallakin eta?
-Tallak ere bai, ezta; gehixen ba honek koluna honek, torniautako, eskuz eindako honek eta. Baiña lan edarrak, e.
-Aittak eindakuak.
-Aittak eindakuak, bai. Ta ni hara joaten nitzanian, joe!
-Zein elizetan da hori?
-Hementxe, san Bartolome. Joaten baldin bazara, ta ikusi, han armaixo batzuk daude, armaixo haundi batzuk daude, ezta.
-Baiña sakristixia itxita egongo da, ezta?
-[...]
-Ze urte zan gutxi gorabehera?
-Ba hori izango zan año cincuenta-cincuenta y uno, cincuenta y dos, hortxe. Cincuenta y tresian ezkondu nintzan.

7.8. Etxean abarketak josten

- **Hizlaria(k):** Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-051/010
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:19:48. **Bukatu:** 00:23:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

• **Gaia(k):**

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

- **Laburpena:** Larrinagako kartzelan egona da Miren, osaba sestaoar bat ikustera joanda. Mirenen amak, alabak lagunduta, abarketak josten zituen etxean. Aitonak Elgoibarko “Alpargatería Peñalba” abarketa lantegian egiten zuen lan. Amak ere lantegi horretarako josten zuen. Peñalbak denda ere bazuen, eta etxeetan josten zizkioten abarketak dendako salgaiekin ordaintzen zituen, ez dirutan.

Transkripzioa

- Zuek beste seniderik edo galdu zebein gerran?

- Ez.

- Tia-tion bat edo primon bat edo ez?

- Eibarkuak, harek gorrixetan ibili zian ta. Gero kartzelan ta bai, kartzelan ta egon zian. Aittan anaixa, Tio Jazinto. Bai, horrek, horrek Zestaon bizi zian.

- Ta han harrapau zittuen?

- Harek, harek aurrera jua zanian, juanda ibili zian baiña gero buelta ingo zebein zeatikan Larrinagan eon zan.

- Kartzelan?

- Bai. Gogoratzen naiz jua zin... jua giñala bisittara.

- Bai, Larrinagako kartzelan egonda zaoz, e?

- Bai. Hori Bilbon, zerian dao, ezta? Bai. Han, jua giñan. Eta Eibarko lehengusuak eta ere, horrek, ba, ez dakit nun ibili zian. Bestela etxekorik, ba... ez.

- Ia, eta amak ze bizimodu klase, ama betik etxian ala eitten eben beste leku baten?

- Ama, ba, ba, ama. Ama, ama ba, abarketak josten eoten zan haura.

- Abarketak josten?

- Ta ni berari laguntzen. Bai.

- Baiña aittajuna, aittajuna be Elgoibarren bizi zan? Zuen aittaitta Elgoibarren bizi zan?

- Aittaitta, bai. Haura bizi zan beste aittan arreba batekin. Beste etxe baten.

Amama, amama bizi zan gurekin aman ama. Aitta ta ama ta gu anai-

arrebok. Baiña aittaitta aittan partetik beste alaba batekin bizi zan. Bizi zan Felix Etxeberrian?

- Bai.

- Haren alaban etxian. Osea ke, Felix Etxeberrian amaiñarreba zan gure aittan arreba. Ta horrek bizi zian beste etxe baten. Bai.

- Eta zer euken, abarketak eitteko taillarren bat euken edo?

- Bera, bera zauan lanian haura.

- (gizona) Ez baiña Peñalbak jaukan oin Kaia tabernia dauan tokixan...

- Bai, abarketerixia.

- (gizona) Abarketa fabrikia eta andreri lan asko ematen jauen josteko.

- Handikan ekartzen genduzen guk ere.

- (gizona) Han andra morduak lan eitten zebein taillarera jun barikan.

- Ia, ia. Zure amak ez zebein eitten aittajunantzako.

- Ez.

- A, eitten eben Peñalba.

- (gizona) Peñalba, Peñalbanerako.

- Bai. Gure aittaitta zeuan han lanian. Peñalbanian, ezta? Aittaitta? Aittittak

nun eitten zaban lana?

- (gizona) Zer, zelan...

- Aittitta Vallejok! Abarketerixan.

- (gizona) Zuen aittak esaten dozu?

- Aittak ez, aittittak.

- (gizona) Nik ez baiña jakin haren berri.

- Hoixe baiña gaude esaten, aittitta. Aittitta Peña...

- (gizona) Ama esan dozu.

- Ama bai, ama abarketak han josten...

- (gizona) Peñalbanekuekin lan eitten zaban harek.

- Bai, bai, bai.

- Zela esan dozu fabrika, tailler horren izena, Peñalba?

- Peñalba.

- (gizona) Peñalba.

- Peñalba.

- "Alpargatería".

- (gizona) [Jose] Peñalba. Fabrika fabrikia jauken harek. Eta berez zan makiñekin ta bere lana baiña gero jostekua. Orduan abarketia eskuz josten zuan ba dana.

- Dozena bat, dozena bat pare. Dozena bat, ezta?

- (gizona) Andrak eitten juen kartoikadia etxera ta josi ta gero atzera taillarera.

- Geuk eruatzen genduzen hara...

- Taillarrera, taillarrarian ez. Lana etxian.

- Hara eruan, jositta dana, ta ematen ziuena, ba, hainbeste, dozenako hainbeste. Gero handikan zeuken denda bat ere, "de ultramarinos", ta trukez, dirua ez ziguen ematen, jenerua hartzen genduan.

- (gizona) Dana etxian geratu!

- Dana, dana etxian.

- Osea ke...

- Alderdi baten entre...

- En espeziak kobraitzen zenduen.

- Bai. Entregatzen genduzen abarketak, dana beitzen zeben, ta dozena bat hainbeste, edo bi dozena, ze geunkan.

- Bale, baletxo bat.

- Gero handikan eskillara batzuk bajatu eta pare-parian, zera...

- Dana Peñalbana?

- Dana.

7.9. Markinara eta Azkoitira autobusak Elgoibartik

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/027
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:30:54. **Bukatu:** 00:31:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena:** Garai batean egunean hiru autobus egoten ziren Azkoitira eta Markinara.

Transkripzioa

-Zuek hamendik Azpeitira edo Azkoitira joateko joera haundixa zeukazuen?

-Lehen autobusak zeuren hemen asko, hemendikan Azkoitira autobusa. Egunian hiru, goizian, eguardixan eta iluntzixan. Hiru bidar zeuan autobusa Azkoitirako.

-Hori zu gaztia ziñanian?

-Ni gaztia nitzanian.

-Zertara joanda, zergatik euen hainbeste mobimentu?

-Ez dakit nik; hiru egunian. Eta Markiñatik ere baita etortzen zan. Oin lo ke pasa ke danak kotxiak daukez oin, oin dao kotxia e, vamos...

7.10. Josefinaren astoak trena gelditu

- **Hizlaria(k)**: Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-054/036
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:40:16. **Bukatu**: 00:43:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Behin kaletik etxera zetorren astoaz lasterbidetik. Trenbidea zeharkatu behar zuen, ikusi zuen trena bazetorrela, hasi zen astoari tiraka..., eta astoa geldi. Eskerrak trena gelditu egin zela. Tiraka hasi zelako geratu ei zen erdian. 'Pulman'a luxuzko trena zen. Egunero pasatzen zen.

Transkripzioa

-Bueno-bueno bueno!

-Ze pasau zan astuakin?

-Ez daka inportantziarikan. Gu juten giñan kalera eta zeuan atajua, eskillara batzuetan behera; gero trenbidia zeuan bertan, trenbidia. Gero bueltan bestetikan juten zan, han ere trenbidia zeuan. Trenbidia, kalera pasatzeko trenbidia pasau bihar zan. Eta ni jun nitzan atajutikan, eskilletan behera,... A, ez, etxera natorren, etxera hor atajutikan. Eta ikusi naban, orduan zauan, izena zakan "Pulmana". "Pulman", tren txiki bat, etortzen zan aparte, korreuz aparte. Haura etortzen zan hamaikak aldian edo ez dakit noiz etortzen zan. Ikusi naban zela zatorren urrutittikan, ta astuari hasi nitzan tiraka, ta...

-Astua trebide gaiñian?

-Trenbidia pasatzeko hasi nitzan tiraka, ta astuak ze in zaban? Jarri holaxe ta kieto parao!

-Trenbide gaiñian?

-Trenbide gaiñian. Ta trena geldittu in zan, e; geldittu in zan trena. Ni tiraka hasi nitzan ikusi nabanian; tira egin ez banio haura pasauko zan, baiña neuk ikusi naban, estutu nitzan eta hasi nitzan tiraka katetikan, astuak jarri holaxe hankak... Kitto! Ta trena geldittu in zan trena.

-Eskerrak poliki zoiala, ezta?

-Bueno, estaziora ya gelditzen zatorren, ya estazioa urrian zauan, ya gelditzen zatorren, ezta, Pulmana geldittu in zan.

-Susto edarra orduan, e.
 -Bueno... Gauza asko pasatzen dia, gauza asko pasatzen dia horrenbeste urtian.
 -Eta Pulman hori zer zan, jentiaren trena edo?
 -Hori zan "como un tren de lujo" bezela. Bi bagoie edo hiru ez dakit zenbat zakozen, eta haura jente... Orduetatik aparte, normaletikan aparte zeuan haura tren haura. Pulmana esaten zitzakon.
 -Hori zer zan, jente aberatsarentzako edo hola?
 -Ba bai. Bai, hola izango zan.
 -Jende normala ibiltzen zan?
 -Bueno, normala ibili leikian, baiña ordu diferentian etortzen zan haura. Goizian zeuan korreua ta gero eguardixan beste bat eta hola, baiña haura etortzen zan aparte. Ta egunero, egunero. Pulmana esaten zitzakon.
 -Ixa arrapau astua ta bixok. Zenbat metrotara geratu zan zuengandik?
 -Trena bastante hurrera aillegau zan, bastante aillegau. Ta astua hantxe. Ta nik ezer ezin in.
 -Ta astua geldi?
 -Astua geldi.
 -Zelakuak dien astuak, e. Gauza bat buruan sartzen xate ta...
 -Jo! Hankak ipintzen dittue luze-luze ta adios!

7.11. Auzolanak: lurra jasotzea eta garia ebakitzea

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/007
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:12:53. **Bukatu:** 00:14:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Soro barreneko lurak jasotzeko lana auzolanean egiten zen. Sorbalda gainean saskietan jasotzen zuten lur hori. Garia ebaki eta jo ere auzolanean egiten zuten.

Transkripzioa

-Eta auzolanian lurra jasotzen zertarako ibiltzen zinein ba?
 -Ba ganauakin labratzen zanian, lurak beti behera itten zaban, eta guenian lurra palta, eta haura jaso itten zan.
 -Orduan joaten ziñain beste batzuen etxera...
 -Bai, bata bestiari laguntzen ere ibiltzen giñan. Bai, auzolana.
 -Lurra jasotzia auzolana...
 -Bai, zestua kargau eta lepuakin guenera eruan. Hori indakua naiz ni, askotan gaiñera. Bai, eta gazterikan hala're.
 -Beste auzolanik eitten zeuen?
 -Bai, garixa ebaten ere bai. Gari ebaten izeten giñan. Bueno, lehen esan [dotsutena] Aubixa, harek, goixa nola dan haura, (hemen behian baiño) hamar egun lehenao igual heltzen zan hemen garixa, eta harek etorten zien gurera. Aubixa ta Urkiolatxikikuak eta, Goiketxeuak eta horrek danak etorten zien gurera. Eta gero gu jutten giñan, geuriak ebaitta ipintzen genduzenian metia inda, jasota, hara jutten giñan laguntzera. Zorrak

pagatzera.

-Eta zuek garixa ebagi be auzolanian eitten zenduen?

-Eskuekin.

-Baiña auzolanian?

-Ibilitta nao ni, bueno!

-Ebaten auzolanian.

-Garixa ebaten.

-[...]

-Joten eta ebaten eta danian ibilitta nao ni auzuetan, Jesus! Hoixe bai, gazte askorikan!

7.12. Baserri ugari orain Elgoibarko kalea den lekuan

- **Hizlaria(k)**: Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref**: EGB-068/018
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:21:52. **Bukatu**: 00:23:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Oso auto gutxi zegoen orduan Elgoibarren. Guztiz aldatuta dago herria. Hainbat baserri zegoen orain kalea den lekuan: Etxezuri, Toletxe, Usetxe, Artetxe...

Transkripzioa

Nati: -Bi edo hiru kotxe ezautu douz Elgoibarren guk.

Agurne: -Beitu, begiratzen dozu nere balkoitik horra aurrera, eta lehena ikusi bazendu, lehengo fatxadia horkua, esango zenduke: hau totalmente aldatu da. Bueno, "irreconocible".

Nati: -Bai, ez dao oin ezautzerikan. Baserrixak zeuden. Etxezuri, zauan Toletxe, zauan Usetxe, zauan Artetxe... Pentsau zenbat baserri zauden hemen.

-Basarrixak zian?

Nati: -Hemen zeuan Toletxe, hemen zeuan Etxezuri.

Agurne: -Bai, baiña gero taillar bi; Fundiciones...

Nati: -Geruao, baiña guk ezautu dou horrek danak. Ezautu dou Usetxe ta ezautu dou Artetxe. Danak baserrixak.

-Eta hemen etxerik bestela ez zan egongo.

Nati: -Ez. Gero gero hasi zian, hau Torria. Gero hamen taillerrak in zittuen baserrixen bittartian, eta Alba, Arana, horrek.

Agurne: -Bat zauan zahar-zaharra taillarra... Ta gero akordatzen haiz zela ipiñi zebe garajia. Guk ere euki gendunan hor kotxia. Goixan zahar-zaharra, behian aterpe batzuk, eta hola. Total-total-total bota egin, etxe berrixak in dittue...

7.13. Euskarazko lehen agiri eta batzordeak udaletxean

- **Hizlaria(k)**: Loiola Ugarteburu, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

- **Erref:** EGB-112/045
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:21:27. **Bukatu:** 01:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Udaletxean hasi zenean, agiri ofizialak bi hizkuntzetan ateratzen hasi ziren. Ondoren, osoko bilkurak itzultzen hasi ziren. Kultura batzordeak euskaraz egiten hasi ziren gero. Hasierako urteetan alkateek kobratu gabe jarduten zuten.

Transkripzioa

- Zu udaletxian hasi ziñanian, kontu danak ondiokan erderaz egingo zian udaletxian...

- Bai. Hasi ziren, esan dizudan bezela, ba, lehendabizi ofizial ateratzen ziren idatziak, bai Diputaziorako edo bai beste toki baterako, bi hizkuntzetan ateratzen ziren. Eta gero hasi ziren bilerak, Plenoak, Osoko Bilkurak, hoiek itzultzen. Eta gero baita ere Kulturako Batzordea, e? Batzarrak euskeraz egiten. Baiña asti haundirik ere ez, e! Ze feriak, jaiak, omenaldiak eta abar... denpora asko hartzen zizuten. Asko.

- Hori da, Kultura arlua bazeuan, baiña teknikaririk igual ez zan egongo, ala?

- Gero jarri zuten neska bat. Bai... teknikaria ni nintzen orduan, baiña zan "desbordado" esaten dana, gehiegizkoa. Eta gero baita ere ujalteak suertatu zitzaizkigun 87an. Eta lan asko. Lan asko zan. Eta orain, bueno, ekonomikoki udaletxeak ondo daude, alkateak liberatuta daude, hainbat Batzordetan lehendakaria liberatuta dago... baiña orduan ez, e! Hasierako urteak izan ziren, ba, hori alkatea etorri eguardian, firmatu, arratsaldean etorri, bilera preparatu eta guzti hori. Eta gu bitartian euren esanetara pixkat, e. Esanetara, bueno, ba, hau egin behar da, bestea egin behar da... itzulpenak? bueno, ba, egingo da ahal danean edo, bueno, gazteleraz bidali edo... Eta gero, beste asko euskeraz etortzen zirenak, lehen esan dudan bezela, ba, gazteleraz jarri behar ziren. Etortzen ziren hainbat idatzi etortzen ziren euskeraz, ba, igual beste udaletxe batetik edo... Bai bai. Edo kaleko jendeak, zerbait eskatu nahi bazuen, ba, igual euskeraz aurkezten zuen idatzia. Eta hori pozgarrixa zan. Pozgarrixa zan, ze gutxienez bateronbat badago euskeraz gai dena bere eskariak aurkezteko.

8. Politika

8.1. Bonbardaketan etxetik ihesi

- **Hizlaria(k):** Zubiaurre Garitaonaindia, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Erref:** EGB-013/024
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:41:11. **Bukatu:** 00:44:22
- **Transkribatzailea:** Elgoibarko Udala
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Etxe inguruan, sagardoa egiteko sagar-arbola ugari zituzten. Bonbardaketan, etxea eta ingurua suntsitu egin zituzten. Soterak, haur txikia zuela, hura hartu eta etxetik ihes egin zuen; zulo batean ezkutatu behar izan zuen.

Transkripzioa

Gero, bonbardeuak gerra denboran. Hamen, begira, hamen dago barandaua, tiestuak daude hamen, tiestuak lorekin, eta hamen barandauan jo zaban, ni joan nitzan... bonbardeua, gure... ibai aldera, honek ibaixa dauka atzian eta ibai aldera hasi ziran, txanalan onduan jauzi zan lelengua. Goazen hamendikan! Joan nitzan etxera, galtzerdirik ta orduan ezer, galtzerdixak jantzera, galtzerdixak jantzen, bata jantzitta ta bestia jantzi ba(g)e, etorri da beste kaiñonazo bat, ta hamentxe jo zuan eskillara honetan. Hau eskillari hau dana apurtu zan, eta nik erten nuan, ba, ahal zan moduan erten nuan sentidu nabanian, batian galtzerdixa eskuan, ta bestia jantzitta, ta joan giñan Melittongora, umia, umia neukan orduan, ume bat, lelengua, eta txikixa ondiokan, ta hartu umia ta Melittongo aldera. Melittongo aldera daguan, han trenbidepian zulo bat dago, behintzat, hantxe sartu giñan. Kaiñonazua etorri zanian, kristal hots bat bai, ta ni ezkonberrixa ondiokan, ta gauzak, bajillak eta kristalerixia eh! halako ederrak! Nere penia, ene! Danak apurtuko zittuan, ezin nitzan egon han, han sotano haretan ezin nitzan egon. Ni banixe, ni banixe, ze pasau da ta! Ez zaitte joan! ondiok ez debe amaittu ta, ez zaitte joan! Horregaitiokan, txiri-txiri, ixil ixilik, joan nitzan, ta ezer ez. Kanpoko kristalak bakarrik apurtu ziran baiña barrukuak oso osorikan, ezer ez zan apurtu. Nere poza! Nere poza!

8.2. Kalamuakoa fronte gogorra; bonbardaketak

- **Hizlaria(k)**: Maiztegi Iriarte, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-018/069
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 01:43:32. **Bukatu**: 01:45:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Kalamuakoa izan zen inguruetako fronte gogorrena. Gogoratzen du hildako jendea nola ekartzen zuten herrira. 7 hilabetez egon zen frontea Elgoibarren. Irailetik apirilera egon ziren bertan eta, negua tarteko, gogorra izan zen. Eibarko eta Gernikako bonbardaketak nola bizi izan zituen.

Transkripzioa

- Bueno, dirudi... gure inguruan, hamen, gertakari odoltsuenak Morkaiko mendittik gertu izan ziala, ezta? Holan, ba, borroka gogorra egon al zan Morkaiko aldian?

- A bai, hor Kalamuan, Kalamuan.

- Eta gogoratzen dozu hori? Zelan...

- Bai...

- ... Zelan bizi izan zan hori?

- ... Hildakua nola ekarri zaben. Hamentxe danok bildurrez ta...

- Herriko jendiak borrokatu zaban hortxe?

- Guk ez genduan ikusi, baiña egon da frentian, bata bestiakin anaixa baten eta bestia hamen beste bat. Ta horrek izan dia zer gogorrek, momentu gogorrek.

- Ta gutxi gorabehera zenbat denboratan egon zian hor frentian?

- Hamen zazpi hillabete.

- Zazpi hillabete egon zan frentia Elgoibarren?
 - Bai.
 - Ordun, nahiko gogorra, ez?
 - Bai, jolin! Ta gaiñera, negua! Sartu zian "treinta y uno de septiembre" ta gero, urten zaben, ez dakit, "veinti seis de abril" edo. Bonbardeau zebenian Gernika.
 - Alde ein zaben hemendikan?
 - Bai.
 - Eta zelan enterau ziñan Gernikako bonbardeuaz?
 - Abioiak ikusi genduzen! Abioiak ikusi genduzen hor, Azkarate aldian. Bruu! Buelta ta "hor zeoze pasatzen dok ba..." ta [...] "Están bombardeando Eibar, están bombardeando Eibar" eta beste batek esan zaban: "Están bombardeando Guernica". Eta bai, ba. Ta egun bixen gorabeheria zan.
 - Klaro, hamen, hona etortzen zan ta buelta emon ta harutzao, ez?
 - Bai.
 - Eta hamendikan entzun eitten zan, ez, zeoze?
 - Bai.
 - Bonbardeua ta...
 - Bai, jo!
 - Ta zerua zelan zauan ta...
 - Bai.
 - Ta nun zeunden zu ordun?
 - Elgoibarren.
 - Etxian?
 - Etxian. Guk hamabost [urtekin] ez zakaun bildurrik, bueno...!
 - Zu ez ziñan atera? Gerran ez zendun parte hartu?
 - Ez, ez.

8.3. Kontzentrazio-esparruetako egoera

- **Hizlaria(k)**: Arregi Garate, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EGB-020/008
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:13:05. **Bukatu**: 00:15:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Politika » Politika eta Franco
 Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- **Laburpena**: Bere senarra sozialista zen. Kontzentrazio-esparruen inguruko kontuak azaltzen dituen liburu bat aipatzen du. Hango egoera gogorra omen zen. Beraiek arropa guztiak ur irakinetan garbitu eta eguzkitan lehortzen zituzten eta ez zuten zorririk izan. Ez zegoen komunik eta edateko ura ere itsasotik hartzen zen zuzenean.

Transkripzioa

-Bera (aita) zer zan, sozialistia?
 -Bai. "En el libro ese se lee, casi todos los eibarreses eran de la UGT y socialistas. Oso ondo dao liburua, barri-barrixa da, eta esaten dau "todos los campos de concentración que hubo. Pero no dice ni la mitad de lo que pasó allí. Los piojos y la sarna y. Nosotros no agarramos nada. Teníamos un cuidao...". Katxarro zikin bat gekagan, eta beste katxarro bat, sua emon

han... (erderaz jarraizen du).
-Garbi mantentzeko, ezta?
-Ta ez komunik, ez ura... "Qué cochinidad de agua bebíamos...". Plaian....
(erdaraz).
-Zuek ezkondu...
-Ezkondata genden, bai, bai.
-Bera gero gerran.
-Gerran, bai, bai. Fronteria kruzau genduan, "usted para aquí y usted para
allá". Ni Elgoibarrera, ta bera eruan zeben. Ez dakit zenbat denpora jakin
be ez nun zeuan. Ta gero azaldu zan hor herri horretan. Zer herri zan. Es
muy muy oído.
-Aranda de
-Aranda ... no. (erdaraz).

8.4. Familiako baten laguntza trenean itzultzeko

- **Hizlaria(k):** Arregi Garate, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EGB-020/010
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:16:55. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Gerraostean Donostiatik Elgoibarrera etorri behar zen
batean tren-geltokian familiako bat ikusi zuen (Kleto Rementeria) eta
hark lagundu egin zion.

Transkripzioa

-Haura zeuan faktoria, faktoria edo zeoze estazian, ta zeuan Donostian.
Nik segiduan ikusi neban. "Se me vió el cielo abierto. 'Ay, ayúdame,
ayúdame!' Nik zesto haundi batekin dana. Eta dirua gitxi. Ta "Quiero ir a
Elgoibar". "No no te preocupes". (Erdaraz jarraitzen du). Anacleto
Rementeria. Roken laguna zan. Nik orduan ez nekixan, parentela ezta
batere. Bakarrik hori, Roken laguna zala; ta ikusi nebanian, u!

8.5. Kontzentrazio-esparrutik Monzonek atera zituen

- **Hizlaria(k):** Arregi Garate, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EGB-020/015
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:37:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
- **Laburpena:** Egoera txarrean zeuden eta bere senarra Monzonengana
joan zen. Emakumeak atera egin zituzten eta Eusko Jaurlaritzaren

egoitza batera eraman zituzten. Handik piskatera gizonak ere atera egin zituen Monzonek, Tolosa ondoko herri batera eraman zituen lan egitera. Eibarko eta Soralueko emakume batzuk ere joan ziren lanera, makinak erabiltzen bazekiten eta.

Transkripzioa

-Pilar, lelengo egunetan ez zan egongo organizaziñorik eta,

-Ezebez. baiña gero...

-Baiña gero egunetara ta hasiko zan organizatzen.

-Gu han genden artian ez. Gero bai. Liburuan ipintzen dau. Harek gure lagunak, eta Rikardok esaten du "De eso aquí no se habla más. Ahí se acabó". Era terrible, e. "Aquí se acabó". Ez genduan itten horren zerik batere ez. "Se acabó aquí eso".

-Zenbat denpora ein zenduen?

-Asko ez baiña bastante. Gero altabozetik hasi zan Monzon: "Los vascos no se qué..." Ta nere senarrak esan zeban: "Joan in bihar gara", ta esan zion: "Ni ez najoiak kasorik be ez diou ingo. Esan bai hor, ta ez dakit zer ta...". Era muy... A todo lo tenía. "Ba ni banajoiak -le dijo Ricardo- hik nahi duana ein". Joan in zan azkenian. Esan zion: "tenemos las mujeres aquí". "Son mujeres de veras?, estáis casaos? Ezkondata zagozie?" "Bai, papelak nahi dittuzu ala?". "Ez, ez". Baiña esan ei zion: "Zuek eibartarrok gehixen eitten dozue euskeraz, baiña txartuen. Baiña ez dio ardura, e. Hola segidu". Yo siempre he dicho que fue nuestra salvación Monzon. Esan zion prest egoteko, zortzi egun barru edo lehenao etarako... "que nos sacaría". Eta halaxe in zaban. Halako baten "Que se presenten en no sé qué lugar... Hantxe jua giñan ta autobus batian en una residencia que pagaba el Gobierno Vasco. Qué de dinero tenían, Maite. Jo, haura zan. Ez hori bakarrik, e.

-Ha paraisua izango zan zuendako, ez?

-Bai, guretzako izan zan, bueno, bueno... Refujixo baten, ta han egon giñan ez dakit zenbat denpora, ta gero Monzonek etara zittuan gizonak be bai lanera. Aroudy Pau-n onduan dago, herri txiki bat da, eta han zeuan abiazioko, abioiak itten zittuen... Uste dot oin be eitten dittuela abioiak han. Dago cerca de Toulouse... Ta han sartu zittuan biharrera, ta sartu zittuanian ba "tenian dinero, les pagaban bien. Porque dijeron: o nos pagan como a los franceses o nosotros no hacemos nada". Ta halaxe ein zeben.

-Baiña eurak bazekixen lan hori eitten, ez?

-Ba ba, horreaittik etara zittuen eurok, euren billa jua zian. Andrazkuak be bi edo hiru que sabían manejar, eibarreas que sabían manejar las herramientas, que yo en la vida había visto (...)

-Eibarko arma fabriketan...

-Bai, biharra itten zeben, bi zian. Dos hermanas, bai. Gero beste batzuk zian Plazenziakuak edo.

8.6. Gerraostean Eibarren bizi izan ziren

- **Hizlaria(k)**: Arregi Garate, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EGB-020/023
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:54:00. **Bukatu**: 00:56:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elxpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Muga pasatu eta senarra eraman ziotenean Elgoibarrera etorri zen. Hasieran bakarrik egon zen, baina gero izeba batengana joan zen baserrira. Kalean ez zegoen ezer eta han, behintzat, jatekoa zuten. Ez zekien senarra non zegoen kontzentrazio-esparrutik idatzi zion arte. Gerraostean Eibarren bizi izan ziren. Eibar guttiz txikituta zegoen.

Transkripzioa

-Gero basarri batera joan nitzan. Tia bat nekan Elgoibarren basarrixakin ta esan ei zian behin: Ez dozu nahi nerekin hara gora etorri? Ume bixak. Yo dije, si te vas, Pilar, tienes leche, tienes huevos... Hamen ez euan ezer, ez euan. Ogi zikin bat, que no sé ni de qué estaba hecho. Ta bueno, joango naiz edo ez naiz, joan ein nitzan. Ez nekixan nun zeuan, e. Ricardo jua zan eta kitto. Hasta que me escribió... de ese lugar. Ta gero joan nitzanian ikustera ta esaten dizut ba: "Deja de llorar y levanta el brazo". "No voy a levantar", esan neban nere artian. No levanté, no levanté nunca. Rikardok esaten zeban: "Yo he levanta por todos, así que mis hijas no van a levantar. Y les metimos también en la escuela porque... fue más que nada por eso, para que no levanten el brazo. Arraguetan bizi giñan, 19, numero 19. Panaderixa badao ba, hantxe bizi giñan bigarren pisuan. Beran tia zan panaderia, Unanue, Dolores Unanue. Beste tia bat zan ... (erderaz). Halaxe joan zan eta segiduan esan zion baietz. Etxia hor dauala.

-Eibarrera joan ziñazien? Destrozauta egongo zan, ez?

-Bai, bai. "Regiones desbastadas" zekan izena Eibarrek. "Regiones desbastadas", ez zeuan batere ez. Gero presuak hasi zian, eruan zittuen preso mordua, ta harek eitten zeben los escombros y las... Todo era un desastre. Pero mira ahora...

8.7. Jendea diruz larri soldadutzan

- **Hizlaria(k):** Etxaniz Osoro, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-021/018
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:32:20. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Diruarekin ibiltzen zen gaizki jendea soldadutzan. Batzuetan pospolo bakar batekin zigarro mordoa pizten zuten dirua aurreztearren. Berak ez zuen diru-arazorik izan, baina beste askok bai. Etxetik dirua bidaltzen zieten, baina segituan tabakoan eta edanean gastatzen zuten. Soldadutzak jendea alpertu egiten duela dio.

Transkripzioa

- Dirua jartzen zan hartzeko gaizki dan jendia; diru [...], ezkondua ere asko ta etxian igual andria ta umiak eta... zelan bialduko jauan, ba, dirua hari? Han bertan eguneko ez dakit ze pagatzen zuan, pezetia edo zuan eguneko, tabakotarako lain ez! Orduan erre eitten genduan ta...

- Bai? Erre eitten zendun orduan gaztetan?

- Orduan erretzen najuan, bai; gero laga najauan, oin dala hamar bat urte laga najauan, baiña... oin noizbehin puru banakan bat edo, baiña ez juat erretzen oin. Ta... Han orduan bai. Han, e, han tabakorik soldauak tabakorik ez jok eukitzen...! Surik... Igual, pospolo bat ixutu, zigarrua ixutu bati ta handik larogei zigarro igual ixutu: bata bestiai, bata bestiai, bata bestiai kuartelian. Ze poltsikuan euki, la ostra... Dirua, dirua ez juan eukitzen ezta, ezta... soldauak... bai. Ta askok, gaiñera, diruripe ta gaur alleatzen jakuen girua igual: hiru durokua, hamar pezetakua igual. Erten kalera ta dana zioz gastauta ta bate be jun etxera itten juan askok. Ni hola bate be sekula ez nitzuan eon, baiña batzuk bai ibiltzen [...] eske: "Hi, lagako diaz bi pezeta? Lagako diak duro bat? Lagako diaz..." ta laga, baiña bueltarik ez zuan egoten!

- Klaro, lelenguan bai, baiña bigarrenian...

- Gero esaten juen: "Girua etorritakuan emango dizut, emango dizut girua etorritakuan", ta girua juten jakuen baiña, kalera juten zittuan ta tabakua ta txurrustian gastatzen jaittuen ta akabo, bigarren egunerako zentimoripe, tabako eske berriz ere. Jentia asko e! Jente gaiztua asko juntatzen dok. Soldaua, soldaua alperra jartzen dok. Neu [jarri nitzuan alperrena uste juat], neri han lana eittiak ematen [...] pena.

8.8. Karakatetik ikusi zuten nola bonbardatzen zuten Eibar

- **Hizlaria(k)**: Barrutia Mendikute, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Ibon
- **Erref**: EGB-022/019
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:33:25. **Bukatu**: 00:34:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Eibar bonbardatu zutenean Karakatetik egon ziren begira, belar-meta atzean ezkutatuta. Elgoibarren ere kanoikadak bota zituzten; non lehertu ziren. Gerra denborako bizipenak.

Transkripzioa

- Gernika ta Eibar botatzen egon zianian, hor Karakatetikan egon giñan gu begira.

- Goittik?

- Bai, goittikan, Julian Zabaleta —Eibarren bizi da hau— ta ni. "Pedro, juan ingo gaittuk ikustera" ta "Bai" ta tirua batetikan ta bestetikan ta gu jarri han e... zera, hau e... bedarran metia, ta bedarran meta ostian jarritta. Ta han [señia] gero beste batzuek eta ba... Ta gero, orduantxe "ra, ra, ra" abioiak eta "danba! danba! danba!" ta Eibarren botatzen ikusten, ikusi eitten genduan zelan botatzen zittuen.

- Ixo ein bihar da hor gora hori ikustera, e!

- Gero Elgoibarren ere, ba, gu han gaudela, zera, kañonazuak bota zittuen ta hemen e... bat surtidora bat badao, ba? Hantxe errekan birek esplotau zebeñ han. Jo-ta esplotau zebeñian, jo-ta ura jo-ta gora, baiña zelako zera, txorrua! Bueno! Ixa Elgoibarko torrian alturara. Demasa! Ta horrek danak ikustia tokau jakun [gerra-denporan]. Ta gero, zera, ibili, ibili, ibili, ni asko ibili, ostian, gero. Neri gustau. Gero ba... gero batakin ta bestiakin ta txofer ta jun ta Bartzelonara ta gero danera.

8.9. Gerrara deitu zuteneko bizipenak

- **Hizlaria(k):** Artetxe Egia, Pedro Joxe; Zendoia Oregi, Iñaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iriondo, Irune
- **Erref:** EGB-024/003
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** 22 urterekin gerrara joatea tokatu zitzaion. Gerrarako deitu zuteneko bizipenak. Donostiara joan ziren Lauzirika eta biak, eta handik Segoviara joan behar zutela esan zieten.

Transkripzioa

- Gazterikan, e... eskolai laga nion. Ama gazterik hil zan, aitta [ere bai].
- Ta lanian?
- Etxian, soldautzara arte.
- Bai, e?
- Zentralian ere ibili nitzan. Ta zentralian e... orduak libre nakazenak etxian. Ta hogeta bi urtekin gerrara.
- Gogorra tokau jatzue, e?
- Bai. Erdi-erdixan harrapau giñuazen [...] kuentuak ta gero zera ta holaxe, barixaku baten abixua domekan Donostian presentau bihar genduala. Presentau giñan ni ta beste bat Elgoibarkua, Eladio Lauzirika, Lerungua. Ta esan ziguen ba domekan presentau ta martitzenian zera hartu bihar genduala, hori, destinua ta martitzenian juateko. Ta bixok e... alkarren modukuak giñan gu, [bixok elgoibartarrak] eta "orduan martitzenera arte ez guaz etxera bate", Donostian geratu giñan.
- Ondo ein zenduen.
- Gero, hartara, ta itxuria gero telefonua jo zaben etxera astelehenian presentatzeko ta gu Donostian. Ta hantxebagenden Bulebarrian jarritta ta joño! radixotikan lehelengo Eladion izena ta gero neria esan zaben. Arratsaldeko hiruretan presentatzeko [...]. Joño! Geuk e... beste pentsamentu batzuk, baiña jua giñan hara ta jua giñanian, e... [...] ba pasillo luze bat ta danak maletekin, ta han jentia, ta gu ezerre bare etxetik jun giñan. "Cuatro de marzo" zan ta praka milraiaekin-ta, bero eitten zaban ta...
- Dotore asko!
- Bai! Hara jua giñan ta, bueno, txandiori allegau zan ta kapitan buruzuri bat zauan ta "Bueno, a las cuatro tenéis que salir a Segovia".

8.10. Gerra denborako ibilerak; Espainian batetik bestera

- **Hizlaria(k):** Artetxe Egia, Pedro Joxe; Zendoia Oregi, Iñaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iriondo, Irune
- **Erref:** EGB-024/004
- **Iraupena:** 0:05:05. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Donostian zeudela, gerrara joateko data aurreratu zieten eta ezer gabe harrapatu zituzten. Dirurik ere ez zuten. Berarekin zegoen lagunak ezagun bati dirua eskatu zion, eta hala joan ziren Segoviara trenez, etxekoen ezjakinean. Han egun batzuk egin eta mugitzen hasi ziren: Leon, Asturias... Teruel inguruan zauritu egin zuten. Hasieran, Gipuzkoara ekarri behar zuten, baina zauritu asko sartu zen eta Zamorara eraman zuten. Sendatu zenean, Ebrora, eta handik Bartzelonara. Bere laguna eta bera Segovian banandu ziren eta Bartzelonan elkartu ziren berriz lizentziazterakoan.

Transkripzioa

- Diruak be gastauta geunkazen gehixenok eruandakuok ta "Ointxe [gaoz] edarki" zerari, Eladiori. Kapitainak kontestau zigun: "Ez estutu, toki onera zuazte-ta". Toki ona bai, ostra!
- Beretzat hala izango zan haura.
- Bai. Gero hartaraxe, ba, ezer ere ez gendun aldian edo, zera, erropak ta dirua be, lehen esan douna, ixa gastauta. Ta nik ez naukan ezaunik Donostian, baiña harek bai, [amakin-edo] junda ta Elgoibarko bat, [Manuela Zabala]-edo esaten ziuen. Ta haretxi berrogei duro kendu ta Segoviara. Haura zan ona!
- Ta zelan jun ziñeten Segoviara?
- Segoviara? Ba, trenian. Asko jun giñan, trenkaria. Ta handitxik etxera abixau Segovian gendela. Gero han pixkatian egon giñan ta Leonera. Leonen mendira segiduan ta handikan zerera berriz, Asturiasera. Asturiasen amaittu genduanian, etorri giñan Rincón de Soto, deskansatzera. Ta hor egun bi pasau eta Ebron atake haundixak zaurela ta [...] Ebron pasau naban, ba, dizienbrian hamaseixan jun ta zerera arte, hori, martxuan seira arte. Martxuan seixan heridu ninduen han. Handikan e..., ez, Teruel, Terueletikan Valentziara urtetzen dan herri bat dao Toro esaten diuena. Ta hantxe heridu nindduen ta gero handikan Zaragozara eruan giñuazen ta Zaragozan preguntau ziguen ia aber hona nahi genduan etortia, hamen zeren heriduak e... kauen diez!... Gipuzkoan dao, ba, hori!
- Bueno, berdin da. Berdin da akordatzen ez bazera.
- Horra ekartzia nahi genduan ta baiezkoa guk ta pozik gaiñera horra etorteko. Ta gero, heridu asko sartu zan gau haretan ta horra ekarri biharrian, eruan giñuezen Toro, Zamorara, de Toro a Toro.
- Bai, hori da.
- Bi Toro daure-ta. Ta hantxe saniau arte egon nitzan. Ta gero, berriz, han saniau-ta ein giñanian, berriz e... orduantxe Ebrora. Ta Ebrotikan Barzelonara arte. Hantxe Barzelonan [lizentziau]-ta.
- Nahikua Espaiñia rekorridu zenduan, e?
- Bai.
- Jolin, behin etxetik erten ta...
- Bai, artian iñora ere urten be.
- Dana Elgoibarren eingo zenduen gehixena?
- E?
- Elgoibarren gehixena eingo zenduen. Jolin! Hori biajia, hori!
- Bai, ibillaldi edarra ein genduan. Ta azkenian, Barzelonan hantxe pasau nittuan lau hillabete amaittu zanian. Gero handikan... ba hamendik juan giñan zer, hori, Eladio ta bixok ba Segovian apartau giñan ta ikusi ere ez gehixao. Ta gero lizentziazteko neu nenguan kuartelera etorri zan Barzelonara, bai. Ta alkarrekin lizentziau. Hogeta hamabi hillabete pasau genduzen. Juan giñan "cuatro de marzo" ta "cuatro de julio", ez, "cuatro de octubre" lizentziau.
- Ta batera etorri ziñaten Bartzelonatik?

- E?
 - Bartzelonatik batera etorri ziñaten?
 - Batera, bai.
 - Jolin, nahikua!
 - Bai. Soldautzia edarra ikusi gendun.
 - Bai, soldautzia ez zan soldautzia bakarrik izan haura, e! Gerria-ta tartian tokau ta...
 - Gerria txarrena tokau jakun.
 - Hombre, aber!
 - Lehenengo Teruelen ibili giñan...
 - Ta zuek Francon alde ein bihar!
 - Bai.
 - Txarrena hori!
 - Hoixe ba! Geratu giñan hamentxe ta harrapau giñuazen ta hala aurea!
 Orduan ez zauan asko, jende asko gure edadekoik han, baiña...
 - Ez, baiña zeudenak be eraman!
 - Bai, gu geratu giñan ta...

8.11. Ezkondu eta urtebetera senarra gerrara

- **Hizlaria(k)**: Arakistain, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Ibon
- **Erref**: EGB-028/008
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:13:28. **Bukatu**: 00:15:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Ezkondu eta urtebetera, Teodoraren senarra ere gerrara joan zen, bera ume txikiarekin utzita. Aurretik soldadutza marinan egin zuen beste bi urtez. Gerrara joan zen eguneko kontuak. Gutun bidez jasotzen zuten haren berri.

Transkripzioa

- Aitxitxa ze ibili zan, kanpuan orduan?
 - Aitxitxa? Bai, Valladolidera juan zan eta gero frentian [zain, zain han].
 - Zenbat debora egon zan han?
 - Urte t'erdi-edo, ixa bi. Ya lehen hiru urte ixa einda zauan marinan.
 - Marinan ze ein zaban, soldautzia?
 - Soldautzia marinan zertu zaban.
 - Zenbat, hiru urtian?
 - Eta gero Republika etorri zanian etorri. Hiru urten bat e... hiru urte osatu be etorri zan, e! Zortzi-hamar hillabete-edo, zortzi-edo falta [...] Republika erten zabanian, ba soldauak etxera [baltzen] zittuen orduan. Bizimodu [galanta haura bazuan, ba]? Gero jun zan, santa-eske egunian juan zan gerrara. Ta Andres ume txiki-txikixa ta...
 - Jo, ba urtiak orduan eitten zittuan urtiak, ez?
 - E?
 - Urtiak ein ta bi urtetara, bi egunetara.
 - Bai, bai ba. Urtiak ein [...] ta bi urtetara hogeta, bai, hogeta bederatzi zittun egunian, jun zan soldau gerrara. Ta Andres txiki-txikixa hemen nik. Ta orduan etorri zian santa-eskaliak hona. Ta akordatzen naiz aldeko Bitorik, [Joseñ amak] esaten zaban: "Soiñuakin zatozte hona?"

Errosarixuakin etorri bihar da, errosarixuakin". Gu hamen erdi-negarrez, orduaintxe erten zeban trenera ta [...] soiñua, bueno!

- Trenian jun zan?

- Bai, trenian. Gau-erdiko trenian jun zan, 11ak aldian erten zan eta bestiak eguardixan hemen soiñuakin.

- Ta bere barririk ez zenuten eukitzen?

- Bai, [...] eukitzen genduan berrixa. Bai. Eta gero beste bat —oin hil zan, gerotxuao [...]— oso majua, zera, Baserrin kuñaua zan gaiñera bera. Eta haura ere nazionalistia zala, ez dakit ze zala, neskia zaukan gaixoik eta ez zion kartaik ez zion pasatzen eta gure zerak, Lorentzok, eskribitzen zaban harentzako kartia, haren neskiari kartia. Ta, ba, [...]. Bai.

- Orduan, ezkondu ta gero...

- Urtia.

- Urtera, hala!

- Bai, bai. Urtia. Bai ba, abruillian ezkondu eta hurrengo julixuan, hurrengo juliuan, e... juliua [...], berdin da.

- Bai, zela esaten dozu?

- Guk e... juliua, horrek esaten dittue, ez dakit, julio, junio, julio guk erderia sartzen dou asko, e!

- Bueno...

- Lehengua hori da. Baiña oin, ba... ta asko gaiñera. Abendua ta oin be esaten dou bestera, e!

8.12. Gerra denboran bala sartu zioteneko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde , Joxe
 - **Elkarrizketatzailea(k)**: Iriondo, Irune
 - **Erref**: EGB-035/007
 - **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:07:50. **Bukatu**: 00:09:52
 - **Multimedia**: audioa online entzungai
 - **Transkribatzailea**: Odria, Ane
 - **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena**: Bi aldiz zaurituta egon zen gerra denboran. Bala non sartu zitzaion azaltzen du. Hilabete eta erdi inguru egin zituen ospitalean. Honen inguruko kontuak.

Transkripzioa

-Zuk badakazuz hola abenturak?

-Bai. Bi bidar heriduta be egon nitzan ta...

-Heriduta e?

-Bai, baten balia hementxe sartu —gabonetan zan— ta hementxe geratu. Hau hazurrau apurtu ta hemendikan erten zialakuan —hemen zuluau zauan ta— zauan medikua ta hartzen ninduan ginasietan ta ezin aguantau, ezin, min baliakin. Ginasia eitten be min ematen dau harek galanta. Ta nik hementxe naukala ta etara die plakia ta "Errezioa zeukan". [...].

- Baltza izango zan hori, e?

- Gabian illunabarra zan, [...], "Blast!" eta behera.

- Jo-ta seko? Eta gero ospitalian horrekin zenbat denpora egon ziñan, ba?

- Ba, hillebete pasau. [Pamplonan], Marcillan etara zien. Marcilla, azukrien fabrikia dao han, herri txiki-txiki bat. Ba, hillebete ta erdi bat ein nittuan

han.

- Han onduen, igual...

- Ta direktoriak esan zian —nafarra zan ta—: "Oin zortzi ordu daukaaz etxerako ta oin jun hari saniau artian. Ta, bestela, saniau arte egoten bahaiz, hemendik frentera jun bihar dok". Saniau [barik] etorri etxera, etxera etortiarren.

8.13. Anaiak elkarren kontra gerran

- **Hizlaria(k)**: Txurruka Arozena, Dionisio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Ibon
- **Erref**: EGB-036/012
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:11:59. **Bukatu**: 00:13:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Frontea zazpi hilabetean egon zen Kalamuan. Erreketeak alde batetik etorri ziren eta milizianoak bestetik; Arrate aldetik Elgoibar aldera tiroka aritzen ziren. Anaiak anaaien kontra ibili ziren gerran. Elgoibarren hil ere jende asko hil zen.

Transkripzioa

- Urte txarrak, urte txarretan jaixotako umiak gera gu.

- Bai, gerria hemen egon zan ere bai!

- Bai, bai. Hamen gerriak, ba, hiru urte ein zittuan ta hamen Kalamuan bertan ere zazpi hillabetian egon zan frentia.

- Zu akordatzen zera?

- Bai, bai! Akordatzen naiz, hamen e... nere emaztia-ta hamen etxian egoten zian, bost lagun-edo geratu zian ta hortxe ta hor beste aldetikan etorri zian reketiak eta milizianuak beste aldetik eta hamen tiroteua Arratetikan hona, ta...

- Ez zan giro egongo.

- Bai, oin, oin, oingo gaztiak e... barre eitten dabe, ez...

- Guk ez dogu entenditzen.

- Ez dakazue motiborik ere. Motiborik ere ez dakazue jakitzeko.

- Entzun, entzuten doguz beti, baiña...

- Bai, ez dakazue motiborik.

- Haura bizi ein bihar da jakitzeko.

- Bai, bai. Ta gero, ba, hamen ibili zan, ba, anaiak-anaiak alkarren kontra; bata batetik eta bestia beste aldetik eta hola ibiltzen zan jendia. Billurra zaon ta aurrera joan zienak, emaztiak laga etxian ta gizonak aurrera. Ta gero aurrian, ba, miliziano janzten zittuen ta "¡Venga, al frente!" ta...

- Juan bildurtuta ta gero bildurtuta hamen ze pasauko ete zan.

- Bai, bai, bai, bai, bai, klaro ba, klaro ba. Hamen e... justizia gitxi egon zan lehenenguan, e! Ta hil ere, Elgoibarren hil ere batzuk ein zittuen, ta... ba! Hori ya, gerratiaren pasaueriak dia horrek.

8.14. Gerra denboran ospitalea, komandantzia eta kuartela Altzolan

- **Hizlaria(k):** Isasti Irusta, Pako; Lariz Muguruza, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-038/006
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- **Laburpena:** Gerra garaiko bizipenak. Frontea Kalamuan eta Mutxurixun egon zen. Balnearioan ospitalea egon zen eta hildako ugari ikusten zituzten. Komandantzia ere bertan egon zen; eta, hotela zen lekuan, militarrek egon ziren.

Transkripzioa

-Ba zuek orduantxe eskolan ibili ziñatenian, gerria hortxe-hortxe egongo zan, ez?

-Ez, ez...

-Zuek gaztiak ziñatenian...

-Guk e...

-Zuek hamahiru urte...

-Ba hoixe, hoixe. Gerra denboran hasi nintzan hamahirukin ta...

-[...] inguruan.

-Guk beratzi inguru... Guk beratzi urte ingurukin gerria.

-Ta akordatzen zerate? Gerrako kontuak eta bai?

-Bai. Hamen abioiak zela ibiltzen zian ta...

-Hemen ere ibili zian ezta, inguruan?

-Bai. Ta hamen frentia zerian egon zan, Kalamuan ta Muskitxun (Muskurutzun?). Hor bata bestian tiroteuak eta gu horra mendira jun ta tenplau begira, umiak...

-Hemen zerian, balnearixuan, zera egon zan, ospittala egon zan.

-Ospittala...?

-Bai, gerra denporan.

-Balnearixuan. Ta hor, bueno, hilledakuak eta mordua ikusi genduzen, hor e, gu mutil koskorrak eta... Hilledakuak barra-barra ikusi genduzen.

-Ez zan giro egongo orduan, e?

-Bueno...!

-Hori kapilliori hor daon lekuan zera, komandantzia. Ta Hotel Altzola dan lekuan militarrek zaozen lehen; kuartela baiña militarrena edo... jefiena e! Kapitana, tenientia ta holakuak. Ta han ospittala, honek esaten dabana, ta hamen zubi hau, restaurana dauan lekuan kuartela. Frentetikan bajatzen zian hiru-lau kamioikada soldau ta beste batzuk jun, [...] frentian].

8.15. Hileta-elizkizuna 74 urte geroago

- **Hizlaria(k):** Iriondo Bergaretxe, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-041/024
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:54:37. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena:** Onaindiaren aldeko hileta-elizkizuna 2010. urteko udazkenean egin zen Gasteizen. Moja eta abade asko hil zituzten gerran eta gerra aurretik.

Transkripzioa

-Funerala, ointxe ein da funerala Bitorixan. Egon ziñan? Ez, zuek ez zeate joaten elizara.

-Gutxi.

-Gitxi, bai. Ba hasi bihar zarte juten, e, zegatik zuek ere zabizte "desnortaos", zabizte. Lehenguan Bitorixan ein dabe, noiz izan da? Udazkenian, neu be hantxe egon nitzan, Bitorixan, katedralian. Hildako guztien, apaiz guztien izenian funerala. Baiña ointxe arte ez da in ezer, e. -Urte pila bat joan da.

-Aber, e. Harek garbittu. Gero Vaticanua dator hamen esaten, e, "los muertos". Bai, efektibamente. Españian egon dia heriotzak, frailliak eta mojak eta mordua. Lenguan nere arraba koittauai billau nion estanpatxo bat eta zan, bere lagun bat itxuria monja joan eta Ciudad Realen edo ez dakit nun, ez dakit nundik nora zeukan harek haura, monjatxo bat hil in zaben. Hil eta biolau eta dana. Oin esaten dabe, "muertos y violadas" y danetik. Oseake gauzak kontatzen dia bai, baiña zuk esan dozuna, zela, zela zien horrek gauzok, ezta? Bueno ba lenguan nere arreban papel zar batzuk eta billa ta ene!, estanpatxo bat, "fulanita de tal murió en Ciudad Real asesinada por..." Joe, esaten beban nere artian... Oindio zortzi egun. Orduko estanpatxua, jode... Hori, orduko kontuak zien horrek. 33, 34, 35, Republika denporakuak. Ta gero esaten dozu, joer...

8.16. Aita batzokiko lehendakari

- **Hizlaria(k):** Ajuria Garate, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-042/005
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:09:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Aita batzokiko lehendakaria zen, eta Bilborako mandataria lanbidez. Gerra hasi zenean, aitaren anaiak Bizkaira joan ziren, baina bera herrian gelditu zen.

Transkripzioa

-Eta ze rekuerdo daukazu, zela etorri zien nazionalok edo gorrixok?

-O, bai, bai, gu gorrixak giñen eta eurak zian nazionalak; eta bueno, auskalo, zer ez. Ba arratsaldeko bostak aldian edo seirak aldian edo...

Horrek Felixek esango dizuz hobeto baiña. Gero aitta, aitta zan batzokiko lehendakarixa zan.

-Kontxo...!

-Nere aitta orduan. Bilbora errekadista juten zan. Itxuria hemen lana eskaxtu edo in zanian ni umia nitzala Bilbora errekadista hasi zan. Eta lehendakarixa zan, beti batzokixan sartuta. Gure amak esaten zeban: "Baiña etxakiñat zer daukan horrek batzokixan, beti han dao". Klaro, Bilbotik etorri, afaldu justu-justu ta batzokira. Eta gero ba eon zan jun edo ez jun bestaldera, Bizkai aldera. Bere etxeko guztiak Bizkaixan zian, anaixa-arrebok, eta bi anaixak jun zian Bizkaira eta bat hogeta hamaseiko urtarrillan soldadu jun zan. Bai, zarrena, ni baiño hamar urte zarrua. Eta haura harrapau zaban gerriak Burgosen. Oseake haura Burgosen eta beste bi Bizkaixan. Eta gu erdi-erdixan hantxe aitta ta ama ta ni. Beste mutiko bat izan nuen, beste anaia bat baiña zortzi urtekin edo hil zan. Hortxe gaude danok. Eta aitta ta ama ta ni geldittu giñan etxian. Eta aitta jungo ete zan, ez zakixan ze in, ta bere estuasuna zan ama ta ni han lagatzia bakarrik. Ta beste asko're jun zian, eta Gotzonen aitta, nere aman anaia, harek: "Bazatoztie? Etorri, e, atiak itxi bihar dittugu eta. Etorri!". Aj, gure aitta estu ta larri ba "Ez dakit ze in, ez dakit ze ematen dian hemen gelditzia edo alde eittia". Ta holaxe geldittu in zan.

8.17. Gerra denboran Guardia Zibilak beti atzetik

- **Hizlaria(k)**: Ajuria Garate, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-042/006
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:09:31. **Bukatu**: 00:11:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Guardia Zibilak eta falangistak egunero atzetik izaten zituzten. Etxeko dendan zituzten gauza guztiak lapurtu zizkieten. Komandantzian emakume elgoibartar bat, Juanita, hartu zuten telefonista lanetarako. Jende asko salbatu omen zen hari esker.

Transkripzioa

-Gero damututa eon zan aldi luzeruan, zeatik jun zan Gasteizera, han zeukan Iberak engusu bat, udaletxeko prokuradoria edo zan, eta berak tira, baiña esaten zeban, hiru edo lau egun in zittuan Gasteizen, aguantau ezin alabekin falangian sartuta, eta entzun zittuala entzutekuak eta azkenian etxera etorri zan. Etorri zan etxera. Egunero genduzen guardia zibillak eta falangeko, ai!, kanariua zan bera, "Epaña" esaten [zaban]. Egunero. Eta sastrerixako, hasi berri zan baiña zeoze, gauza haundirik ez zan eongo baiña zeuan dana eruan zeben.

-Guardia Zibilak?

-Reketiok, reketiok, bertan herriko... ez dot nahi aittatu zegatik eze "Karlita Txikixa" esaten ziuen eta. Gero haren semia nere lagun batekin ezkondua zan eta. Ba haura etorri zan guarda zibil birekin eta eruan zittuen dianak eta ez dianak, danak!, dendako gauza guztiok. Bueno. Eta egunero-egunero bisittia, [bat hara] komandantziara, hementxe, neu ointxe bizi naizen lekuan zeuan, entzueria izango dozu, Don Pedro Muguruza, arkitektua.

-Bai, kale baten ziena da beria, ezta?

-Bai. Ba hementxe zeukan etxia, etxe haundi eder bat aspaldikua, eurak

udaran-ta azaltzen zian orduan, eta hemen jarri zebeu komandantzia; hau gero eindakua da etxe hau, ezta, baiña komandantzia zeuan. Eta beti gaur deittu komandantziara. Baiña billurrik gehixen ematen ziun guardia zibillak. Eta komandantzian zeuan emakume bat, batzokikua zan gaiñera emakumietaikua, Juanita, oso andra jatorra, haura hartu zebeu telefonosetako, orduan ez zan etxietan telefonorik eta, telefonista itten zebeu harek eta beste Dolores, eta hoixe Juanita hartu zebeu hemen komandantzian lanian. Eta harek zenbat salbatu ete zittuan harek.

8.18. Ozta-ozta salbatu omen zen aita

- **Hizlaria(k):** Ajuria Garate, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-042/008
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:16:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Hiru semeen portaera onaren ziurtagiriak eskatu zizkioten aitari; eta, Itziarren iritziz, soldadutzan zegoen seme zaharrenaren ziurtagiriak zekarren "adicto al movimiento" esaldiak salbatu omen zuen aita. Semeetako bat "nacionalista como su padre" omen zen.

Transkripzioa

-Esan bezela, zarrena soldaduxkan zela zeuan, zertifikatua eskatu zittuen danenak, zegatik gero bestia(k) ba ibilli zan zeozetan Bizkaixan baiña gero hemen hartu zebeu eta Batallón de Flandes edo Gasteizera eruan zebeu. Eta harena bazeuan zertifikaua bihar bezela. Bestia Imnaolena ez dakit nora jun zan, Valladolidera edo. Eta han lelentotikan esan i ziuen sartu zanian: "nacionalista como su padre" esan ei ziuen, eta hemen egondako maixo batekin eta haretzek laguntza haundixa eñ ei zion han Valladoliden. Eta gero hirugarrena zaharrenak Burgostik haura ba "adicto al Movimiento" etorri zan zertifikaua. Eta nik uste det haretzek salbau zebala gure aitta. Neuk pentsatzen det haretzek salbau zebala. Seme bat zeukan "adicto al Movimiento". Bestia ez, bigarrenanak bialdu zebeu zertifikaua ere "nacionalista como su padre". Eta influentziak, geuk esneduna gendun Azkubek baserrikuak, eta esnia ekartzen zebeu gure etxera, eta Petra, gure amak esaten ziozen hari... Gizona zeban "sindikato" edo zeoze; bai, zeoze, esto. Eta hango karguduna eta udaletxian eta danian, eta harek itxuria bialdu zeban informia. Eta gure amak esaten zion: "hara, gure mutilla galtzen bada, zeuen kulpaz izango da, e". Beti. Ai, zenbat amenazu. Oin oso, bueno, , seme-alabak eta beittu, oso tratu haundixa daukat. Eta holaxe, nik uste det aitta holaxe salbatu zala.

8.19. Soldaduak izan zituzten etxean

- **Hizlaria(k):** Unzueta Iriondo, Pepita; Unzueta Iriondo, Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-043/005

- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:37. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerran, Francoren militarrek Azkaratetik sartu ziren. Berehala iragarri zuten soldaduek herriko etxeetan lo egingo zutela. Haietako lau zazpi hilabetez eduki zituzten etxean, jaten eta lotan. Ez zuten ezer ordaintzen.

Transkripzioa

-Ta ze rekuerdo daukazue gerria hasi zanekea?

P: -Beittu, Azkaratetik hona, Azkaratetik etorri zian. Eta hemenguak bazixezen danak, ahal zebe guztiak bazixezen, eta gu hementxe geratu giñan. Gure aittak-eta ez zaben pentsatzen zeoze pasauko zanik eta, hementxe. Atiak itxi, etxeko atiak itxi eta Azkaratetik behera ta ikusten zittuen nola sartu zen, ta sustua. Ta sartu zianian ba bandua. Batzuk joango diala lo eittera ta prestatzeko ohiak. Ta ba hortik hasi ta gero ya...

-Hamen sartu zien Franconak, ezta?

-Bai, reketiak.

-Zeuek euki zebe jenteik etxian lo eitten?

-Lau lagun zazpi hillebetian. Bi ohi zauden eta nola ez zauan esan zebe alkarrekin eingo zebela lo.

-Lau lagun bi ohetan.

-Bai.

-Ta lo bakarrik eitten euen edo jan be bai?

-Ez, gurian ez. Gu han estaziuan bizi giñan, eta zauan ba labadorea, labaua [medikuantzakoa ta], han leku asko zauan, eta hantxe su bajua zauan, ta hantxe eurak eitten zebe rantxua mendirako, eta haura jaten zebe baiña eurak jatera geure etxera etortzen zien.

J: -Eurak ekartzen zebe.

-Amak prestau askotan. Eurentzako amak prestau. Eta gure etxian jaten zebe.

-Eta pagau eitten eben ezer?

-Pagau? Apurtu ez zittuenian... Demonio, pagau!

8.20. Umeak Elgoibartik Mutrikura bidali zituzten

- **Hizlaria(k):** Unzueta Iriondo, Pepita; Unzueta Iriondo, Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-043/009
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Frontea Elgoibarren egon zen bitartean, Pepita Mutrikun egon zen. Anaia gaztea eta biak Elgoibartik Mutrikura bakarrik joan ziren. Mutriku baketsu zegoen egun haietan.

Transkripzioa

-Eta zuk orduan gerra denpora dana pasau zeen Mutrikun?

-Hiru hillebete, azkenak. Hemen frentia nola zauan eta kaiñonazuak hasi

zianian herrira, orduantxe bueno, ale! Gogoratzen naiz ba, ni hamalau urte, eta nere Antoniok ba hamaika edo. "Aillegatzen zeatenian diar ein, e!" Ze diar ein, telefonoik ez [geunkan] eta. Ze diar eta ze kuento. Baiña aittak esan zian: "Deban artuizue auto zurixa". Ondarruako autuak zurixak zian. Auto zurixa. "Eta geatu Mutrikun eta gero badakizu basarrirako bidia ta ale jun". Nik oin esaten dot, ze trankil.

-Hamalau urtekin.

-Hamalau urtekin eta bestia hamahiru urtekin eta ale! Eta horraittiokan hurrengo domekan etorri zan aitta, aber ondo geunden edo. Telefonorik ez zauan eta, zela abixauko genduan ba?

-Topau zeuben etxioi?

-Bai porzierto! Topau genduan, bagenkixan bidia.

-Eta Motrikon ze giro euen? Ez euen gerrarik?

-Han ez zeuan ezer, ezer, ezer ere ez. Ha ez zeuan.

-Militarrik be ez?

-Ez, ez. Baserrin baten Bizkai aldera. Zegattik eze hor zeuan frentia, Markiña eta Elgoibar bittartian Kalamuan. Baiña han ezer ere ez. Enee. Gogoratzen naiz nere aittaitta artua zertzen, eta "Ba esan debe Elgoibarrera bota dittuela batzuk". " Eta?" "Ez dakixe ba ezer ere ta. Han barkua egon dala han parian eta. Barko haura datorrenian ba..., etorriko da hurrenguan ere ta". Itsasua ikusten zan, barko bat etortzen zanian, seguru esaten zaban eta. Ez dakitt ipuiñak zian ala zer zian, baiña.

-Basarri horretatik ikusten zan itsasua?

-Bai, itsasua ikusten zan.

8.21. Mutrikutik bueltan Elgoibar apurtuta aurkitu zuten

- **Hizlaria(k)**: Unzueta Iriondo, Pepita; Unzueta Iriondo, Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-043/011
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:24:03. **Bukatu**: 00:26:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Mutrikutik Elgoibarrera bueltatu zirenean, herria puskatuta eta oso triste aurkitu zuten. Elgoibarren eliza barruan babesten ziren bonbatatik. Markina aldera ere joaten omen ziren babes bila.

Transkripzioa

-Eta gero hiru hillabete horrek pasau eta bueltau ziñenian hau zela topau zeuben?

-Triste-tristia, dana apurtuta kaiñonazuekin, ene ba. Apurtuta, baiña bueno, pixkaka-pixkaka...

-Eta zuen aittak ze lan eitten eben hemen?

-Forjan.

J. -Gure etxe aurrian ortuak zauden, ta bonbak eta "Eh!, ya se ha caído una bomba" eta begira "tranquilas tranquilas".

-Bai, baiña etxe atzian haundixa jausi zanian laster makurtu giñan.

P: -Elizara juten giñan.

-Gordetzera?

-Elizan kanpantorre parian hor erdixan zakuak, hondarrakin zakuak ipini

zittuen, eta haren azpira. Ta segurantzia haundixa. Bai zera, segurantzia. Pentsau.

-Jente asko juntaitten ziñaten?

-Bai por zierto, danak. Bueno, beste batzuk etxe batzuetara. Eta esaten zebeu hona kaiñonazuak bota zittuela mendi horretatik, Eibarko mendi horretatik[...] Eta esaten zebeu horra Markiñako aldera ezin leikiela aillegau handik, eta Markiña alderutz horra jente asko joaten zan. Hemengo kaleko jentia horruz.

P: -Markiñako bidera amakin hor zihar juten nitzan.

-Baiña aillegau zian horra ere, e. Ez dakizu ba, klinika horretan Tia Felisa ere bizi zan. Eta, zela dauka izena mendi horrek, hor puntan daon mendi horrek? Gure tio, sozialistia, Plazentziakua, "socialista". "Eta han gure Felisa porru billa dao ortuan". Handik ikusten zeban bere andria ortuan ibiltzen zala.

-Mendi puntatik?

-Hango puntatik. Famosua da. Alperrik, urtiak daukadaz eta alperrik. Da holakotxe mendi bat. Eta han puntatik bota zittuen eta andria ikusten zeban harek handik.

8.22. Bando ezberdinetako eibartar bi

- **Hizlaria(k)**: Unzueta Iriondo, Pepita; Unzueta Iriondo, Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-043/032
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 01:11:32. **Bukatu**: 01:13:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Eibartar bi Huescako frontean elkartu ziren, baina bando ezberdinetan borrokan zebiltzala. Gerra bukatu eta gero, Eibarren elkartu ziren berriro.

Transkripzioa

-Huescan hor ze izen dala? La batalla de... Juntau dia bi eibartar, "Juanito con otro eibarrés". "Zeekin habil?" "Ni honekin. Eta hi?". "Horrekin" "Enee!". Estutu holaxe eta bakoitza bere tokira, bata batera ta beste... beste lineara ta ale! Eibarrera arte.

-Bakoitza bando baten?

-Bai. Bata bestiekin, Catalunyan zaudenekin eta bestia Francokin, Francok hartu zaban Eibar eta. Estutua ein eta ale! Bakoitza bere tokira.

-Jakin barik...

-Suertau ein zian hantxe.

-Baiña jakin barik...

-Ez zakixen, soldauak, eta "La Batalla del Ebro no era".

-[...].

-Eibartarra ta bestia be eibartarra, ta hara! [...] Eibarren ikusten zian. Nik ez dakit ze gerra klase zan haura. "El cuerpo a cuerpo" edo.

-[...].

-Hilik ez. Lehengusuak-eta hil zien baiña, aittan lehengusua hil zebeu nazionalistia zalako...

8.23. Errazionamenduko ogia

- **Hizlaria(k):** Unzueta Iriondo, Pepita; Unzueta Iriondo, Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-043/040
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:27:33. **Bukatu:** 01:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Abertzaleek arazoak izaten omen zituzten errazionamendua jasotzeko. Azala kendu gabeko artoarekin egiten zuten errazionamenduko ogia Elgoibarren. Errotak prezintatuta zeudenean, zaila zen irina edukitzea.

Transkripzioa

-Nazionalistak, nazionalistak zien baiña hala ta ere eskatu in bihar, ez zauan.

-Nazionalistak ez zebeñ jasotzen?

-Nazionalistak ez zauan zerian, aiuntamentuan, karlistak zian eta. Ze uste dozu ba? Politikari hoixe in bihar [...]

-Eta nazionalistak azkenengo...

-Eskatu zebeñ eta eman ziuela ta pozik zeuden.

-Ba nik entzunda daukat ha ogixa txakurrak be ez ebalá jaten.

-"Qué asco". Hori-hori-horixak, gogor-gogor-gogorrek; haura zela jan ba?

-Baltzak izaten ziela esaten eben.

-Baltzak? Hemen hori-hori-horixak.

-Zaixakin indako...

-Ba hemen artuakin azal eta guzti indakuak zien harek; artuakin azal ta guzti, zegatik eze... Eneee!

R: -[...] Morokilla eitteko iriña.

-Arto-uruna ekartzen eben, e?

P: -Harek ere tranpazko errotara joaten zian. Errotia ere zertuta, prezintauta. Ta Bizkaixan dauala errota bat. Ene, jakitzen zebeñ. Segittuan jakitzen zebeñ, ez dakit zela, eta nola Mutriku ta Bizkaixa nola zerian, Markiña aldera, errotara astuakin.

-Gabaz?

-Bai. Ni ez nintzan jun sekula, baiña mutillak bai joan zian eta gabaz ekarri eta morokilla. Esnia etxian eta.

8.24. Mutikoak erreketek batekin lo egin behar

- **Hizlaria(k):** Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-045/004
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Babes-etxeko leiho batetik ikusi zituen tropak Elgoibarren sartzen. Soldaduek elgoibartarren etxeetan egiten zuten lo. Ferminek erreketek batekin egin behar izaten zuen lo derrigortuta.

Transkripzioa

-Eta ze rekuerdo daukazu zuk gerrian hasierakua?
-Gose galanta pasau genduala.
-Gerra ostian, ezta?
-Gerra ostian.
-Eta gerra denporan? Hemen tropak etorri zienian akordaitten za?
-Bai. Ospitalian [genden] gu, asilo. Bentanatican begira tropak zela zatozen Elgoibarrera. "Tropas requetés".
-Denpora asko egon zien hamen, ezta?
-Zazpi bat hillabete. Ez dakit segurur. Zazpi bat hillabete edo, ez dakit zenbat in zittuen.
-Ondo portau zien edo?
-Eee, danak txarri batzuk zien.
-Esan dostai bi edo hiru soldau etxe danetan partidu egin zittuela lo eitteko.
-A bai, gurian ere bai hori amakin. Ni amakin nenguala soldauak gaiñera derrior hartu bihar, e. Neri tokau jatan, ez dakit zeuden bi, bi edo bazeuden. Beste bat etorri ta derrigorrian hartu bihar. Ta norberakin ifini gaiñera, neurekin lotan reketia. Ez dakit zein zan baiña txarri galanta bai.
-Oseake mutikuakin soldaua.
-Bai.
-Ohe baten edo kuarto baten edo?
-Ohe baten eta kuarto baten. Eta beste ohian ba beste bat. Ez dakit zein, zeintzuk zianik ez dakigu ta. Baina horrek esan biharrik ez dao, horrek, e... Normala begittantzen jata neri zala orduan.
-Etxe danetan pasau zan.

8.25. Bonbardaketatik babes bila

- **Hizlaria(k)**: Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-045/009
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:18:22. **Bukatu**: 00:20:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Elgoibar bonbardatzen zutenean, ahal zen lekura ahal zen azkarren joaten ziren babes bila. Elizan gordetzen ziren askotan. Abioiek bonbardatzen zuten herria, baina Muneta menditik ere botatzen zituzten kanoikadak.

Transkripzioa

-Eta hemen goguan daukotzu bonbardaketak-eta egon zienian?
-Bai.
-Zuen etxe inguruan jausi zan baten bat edo?
-Ez, etxian ez. [...]. Baiña bonbardeua bai; refujixora saltaka ahal dan modura.
-Nora joaten ziñen?
-Saltaka.
-Baiña nora?
-Refujion batera.
-Lurpera edo?

-Ba karreteraperera. Parrokixara ere bai kanpantorrera. Ahal zan lekura.
 -Kanpantorriak errespetau eitten zittuen, elizak eta?
 -Bai. Hamen bai behintzat.
 -Eta nundik etortzen zian bonbok?
 -Bonbardeua? Abioiak etortzen zian.
 -Baiña kaiñoiak egongo zian, ezta?
 -Kaiñoiak hamendikan, Munetatikan, Muskurutxu. Hortikan botatzen zittuen.
 -Intxortatik be esaten dabe Eibarrera eta botatzen zittuela.
 -Bai. Eibartikan ere botatzen zittuen hona.
 -Arrate gaiñian zer zeozen, gorrixak edo?
 -Gorrixak eta berdiak? Rekekiak-eta zeuden han.
 -Arraten?
 -Bai.
 -Eta haik handik Eibarrera eta eibartarrak honutz. Eta zuek erdi-erdixan.
 -Gu bai. Kalkulatzen genduan noiz hasten zian eta hasten zianian trote.
 -Refujixora?
 -Bai.

8.26. Mutikoak soldaduen arrantxotik jaten

- **Hizlaria(k)**: Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-045/012
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:23:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Frontea Elgoibarren zegoenean, mutikoek soldaduen arrantxora gerturatu eta zerbait jan ahal izaten zuten. 1941. urteko gosete gogorra gogoan du Ferminek. Baserrietara joaten ziren jateko bila, baina garestiegia omen zen.

Transkripzioa

-Eta gero zure amak gerra denporan be lana egin eben?
 -Bai, honbre.
 -Kriada. Gero reketiok-eta fan zienian bizimodua normalera bueltau zan aguro edo miserixa haundixa euen edo?
 -Igerri ere ez guk. Joan zienian ba adios, joan ziela.
 -Jatekuak eta...
 -Jatekuak eta karu ta gitxi ta dana zeuan; gosia galanta pasau genduan.
 -Razionamentua noiz hasi zan?
 -Auskalo, nik ez dakit. Guk beti orduan sasoi baten. Porke eurak egon zianian, reketiak-eta hemen egon zianian, rantxora ta joaten giñan gu. "A donde daban".
 -Joango zien umiak rantxora, ezta?
 -Klaro ba, geu, gaztiak. Ostian? Bizimodu gogorra izan da hamengua.
 -Eta zure amak jaten-eta etxian emoten otsuen edo?
 -Erosi in bihar. Errekauak in eta.
 -Baiña dendetan-eta ez zan egongo gauza askorik garai hartan.
 -Ze egongo zan, ezta urrik emanik ere. Kuarentayunuan eta orduan gose

galanta pasau zan hemen, e! Joe!

-Esan dostenez basarritarrak sikiera etxerako eukitzen eben. Zuek faten ziñen basarritara jan eske edo lanera edo?

-Lan eske. Lan eske ez, jateko eske. Baiña karu eskatzen zeбен eta. Ezin erosi.

8.27. Elizarekin izandako tirabirak

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Larrañaga, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-046/007
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Urte berean lau pertsona hil ziren Parapan baserrian. Euretako bat Azkoititik ihesi etorritako emakume bat. Azkoitiko parrokoak esan zion aitari ez zuela hiletarik izango, aurrez ez bazuen ordaintzen.

Transkripzioa

-Eta horrek, parroko berri horrek, don Ramon Ormaetxea zala uste dot, on horrek, errakaua bialdu zigun goizetik ez bagenduan entierrua pagatzen atsaldian ez zigula eingo entierrurikan. Hori, eta guk ez gaukan haren entierrua zetan pagau. Lau urtian euki genduan etxian eta ondiokan ere guri hori eskatu ziun, eta harrezkero eliziakin nao, e, bueno. Gorrotua geruao eta gehixao.

-Higuingarri portau zan, ezta?

-Elizia bai. Harrezkero geruao ta okerrago. Eta gero ikusitta Francoren ondoren ze pasau dian..

-Hori ["impuesto credo"] hori sekula entzun barik neukan. Ze..., inpuesto baten modura edo?

-Kuota bat zan.

-Etxe bakoitzak pagau bihar ebena?

-Katoliko guztiak pagau bihar zebela. Eta gurian ba erdixa pagatzeko konforme zauden aitta, ta parrokuak ez zion ametitzen amari, eta hori zan diskusiua.

-Eta gero denunziau eta kuarteletik kobrau?

-Kuartelera, kuartelera. Orduan autobusa zauan Azkoititik Elgoibarrera, eta autobusian etorri zian aitta ta ama, semia hilda. Semian gorputzan zain eta kuartelera. Eta gero, hori pasauta gero, entierrua eginda gero, deittu zion kuartelera berriz ere; eta esaten zeбен aittak graduazio haundiko guardia zibil batek esaten ziuela, galdetu ziuela aber ze pasau zan, eta esplikau ziuela eta esan ziuela: "Tontuak izan zeate hori pagau dozuelako, hori periodikuan anunziatzeko modukua zan ze in dizuen zueri; ez dao hortarako eskubiderik eta". Baiña einda, ordurako einda zeuan gauzia.

-Jo..., elizia.

-Bai, nik harrezkero sinpatixa gitxi eliziari. Nik ez dot euki, sekula ez naiz izan elizara... Eta aittak esaten zigun: "Kontuz horrekin. Elizia marasmia bezela da, marasmia, eulixa katiatzen bada geruao ta batuao eitten jok eta hortik ez daok eskapatorixaik eta; kontuz ibili!".

-Baekixen orduan zuen aittak, e.

8.28. Errepublikaren eragina Sallobente auzoan

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Larrañaga, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-046/008
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:20:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Lizarrako estatutua zela eta, Felixek bost urte zituela, bizkarrean propaganda txartela eta eskuetan panfletoak zituela, errepidean egoten zen paperok banatzen. Garai hartan Sallobente auzoan mitinak, antzerkiak, dantzariak, etab. egoten ziren. Aitarekin joaten ziren ikustera.

Transkripzioa

-Bost urte naukazela aittak alanbre-arantziakin ipini zian bizkarrian propaganda abertzalia bizkarrian ipini zian. Ta kamiñua dao gure basarrixan onduan, kamiñua dao, ta kamiñua pasatzen automobillak, eta erakusten niuen, bizkarra erakusten niuen autokuari propagandia zabaltzen. Eskuan'e papelak naukazen eta geratzen bazan automobilla ba eman itten [gendun], eta bost urte neukazen orduan.

-Eta zer zeukazun bizkarrian, ikurriña edo?

-Ez, letrerua zan zeoze. Abertzalien propaganda. Orduan Estellako Estatuana. Hori 1931n zan.

-Justo Republika etorri zanian.

-Bai, ba orduantxe. Estellako Estatutua zala edo ez zala, Bizkaitarrismuan, Bizkaitarren zerak zien harek, Bizkaitarristak zian, orduan esaten zana. Ta propaganda hoixe naukan nik, eta autuari ematen nion propagandia; geratu eta propagandia... Batek eman zian, Bilboko matrikulia zeukan kotxe batek eman zian bost zentimo.

-Propiña?

-Propiña. Ta hartu zian propagandia. Ta horixe neukan esateko. Ta gero orduan momento horretan gure auzuan Sallobenten mitiñak, antzerkiak, dantzarixak, gauza asko egoten zian eta hara juten giñan aittakin haura ikustera. Hori zan Republikako denporan.

-Entzun dot beste leku batzuetan be Republikiak alaittu ein ebela pittin bat...

-Bai, ni akordatzen naiz, danzarixak etortzen zian, ez dakit Tolosatik edo nundik autobusian etortzen zian Azkoitti aldetik, eta itxuria Sallobentera ez zeuan autobusa juteko modurik eta gure basarri inguruan geratzen zian eta gure basarritik jaixten zian illeran danak dantzari guztiak goittik behera. Hori goguan daukat. Eta hori zango zan gutxi gorabehera milla beratzirehun eta hogeta hamalau-hogeta hamabost. Holako bat izango zan.

-Republika-republikan.

-Bai. Edo lehenao, hogeta hamaikatik hasi ta...

-Baiña gerria sortu aurretik.

-Bai, gerria sortu aurretik.

8.29. Durango eta Gernika Parapanetik bistan

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Larrañaga, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-046/045
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:24:42. **Bukatu:** 01:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Parapan baserritik Bizkaia aldea ere ikusten da, eta ondo ikusi eta entzun zituzten Durangoko eta Gernikako bonbardaketak. Haizeak kea nola ekartzen zuen gogoratzen du Felixek.

Transkripzioa

-Beste gauza bat: Parapan basarrixa leku politian da, oso leku politian, euzki lekua da, eta hortik ikusten da Durango aldera dana ikusten da gure basarritik, eta baita San Migeldik zihar Gernika're bai. Eta Durango ta Gernika bonbardeatzen begira egoten giñan, begira bakarrik ez, keia etortzen zan, keia edo hautsa edo mendi puntetan laiñua izango balitz bezela, eta ikusi eitten genduzen abioiak botatzen, bonbak botatzen.

-Entzun be bai?

-Entzun be bai. Zenbat bide egongo zan ba. Guretikan Gernikara hogeta hamar kilometro egongo dia zuzen? Ez dia egongo. Ta bista-bistan, ta hegazkiñak bueltan. Ta entzunda nao ni itsasora joaten ziela formaziua hartzera hegazkiñak, baiña nik usten dot Urola Baillarara eitten zebela bueltia, ta Urolatik joaten ziala Gernikara zuzenian gero. Nik ikusi... hori bai Durangokua eta bai...

-Baiña orduan bazeukazuen idearik ze pasaitten zan Durangon eta Gernikan?

-Idea, ideia?

-Radixua eta holakorik hemen?

-Ez, artian ez, radixorik ez. Geruao bai radixua, geruao euki genduan radixua.

8.30. Lanean hasi eta berehala irten zen gerra

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-047/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Eskola amaitutakoan, Eibarren hasi zen lanean inprenta batean; Irasuegui y Maruri izena, baina berehala etorri zen gerra.

Transkripzioa

-Hamalau urtekin Marianistetatik urten eta lanian hasi ziñan?

-Lanian; lanian edo. Nere aitta lelengo armerua zan. Eskopeta eitten zaban

lana Eibarren batzuek zertuta, bat einda lanian hasi ziran. Ta denporiak in ba jausi in zan. Orduan nere aitta ba bizimodua bastante gogortzen hasi zan eta bihurtze ipiñi zan. Ta orduan Eibarrera juten zan asko ta Elgoibarren taillarretan bisittia in eta. Eibarren zeukan zer asko inprenta batekin, Irasuegi y Maruri zakan izena. Ta zela konfiantza haundixa zakan han, berba in zion neregatik eta hasi zan lanian han, hasi [nintzan] lanian, ta belaxe gerria.

-Inprentan hasi ziñan?

-Bai, baiña hutsa, porke hasi lanian eta gerria etorri zan. Eta zenbat denpora ibiliko nintzan ba... Hillebete bi? Ta gerria, harrezkero gerria.

-Eibarko, zela esan dozu izena?

-Inprenta? Irasuegi y Maruri

8.31. Aitarekin frontera

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-047/007
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:08:44. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra heltzeaz zegoela, aitarekin lehenengo Markinara eta gero Lekeitiora joan zen. Aita sozialista zen, eta Batall&ocaron;n Prieton apuntatu zen. Armagilea zenez, egunero joaten zen frontera armak konpontzera. Josek sarri laguntzen zion.

Transkripzioa

-Rekuerduek ez dia onak. Ia gerria ta tropak honutz ia Elgoibarrera sartzeko, ta egun bat lehenao aitta ta ni. Esan zian: "Nerekin etorri bihar zaz" eta "Bai-bai, ni zurekin jungo naiz". Halaxe jun giñan Markiñara ta Markiñatik Lekeitio. Ta han ya etxe baten sartu giñan ta. Gu bakarrik ez, Elgoibarko asko.

-Zuek etxian zenbat ziñien, zenbat anae-arreba?

-Ni bakarrik, aittakin. Ta arreba, orduan nobixua zeukan eta, Eibarkua zan eta berakin alde in zaban. Ta ama hamen geratu zan aittittakin.

-Etxeko bi gizonak Lekeitiora.

-Bai. Ta han, orduan aita armerua zela zan ba apuntatu zan "en el Batallón Prieto". Sozialista zan aitta. Ta han apuntatu zan armero ta egunero juten zan, bueno, juntatu zian Eibarko bi ta bera, ta juten zan goizian egunero frentera. Entre Lekeitio aldiñ ta Ondarrua aldiñ, hantxe zan frentia. Eta juten zian egunero fusillak edo ametralladorak zela... eskas, aberixia bazauken ba eurak konpontzen zaban. Ta ni askotan, ixa egunero juten nintzan berakin.

8.32. Amarekin elkartu Bilbon

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-047/009

- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Aitarekin batera joaten zen frontera. Batailloiari jarraitzen zioten. Azkenekoz, Ubidean egon zen. Hasieran pentsatzen zuten zortzi egun barru etxean izango zirela berriz, baina ia hiru urte egin zuen kanpoan. Ama Elgoibartik bidali zuten Bilbo alderantz eta han elkartu zen semearekin.

Transkripzioa

-Nora jutun zan batailloia, ni ere aittakin. Eta askotan bisittan frentera ere berakin jutun nitzan goizian. Gero buelta. Ta azkenengo bidar zan Ubidea, ia frentia puxkat urrutixao; ta kañoiak [zeuan] lekuan hantxe egoten nitzan aittakin. Bueno, haura batailloiak in ibiltzen [...] baiña ni han geratzen nitzan. Enda halaxen ta, nora jutun zan aitta, batailloia, neu're aittattokin juaten nintzan.

-Batailloia ez zan betik egoten Lekeitio inguruan?

-Bai, inguruan beti. Porke eurak euron lan ein ta puxkat erretirau eitten zien ya atzerao, "retaguardia", esaten zan moduan, "la reguardia". Ta halaxe egon nitzan frente askotan; bueno, askotan-askotan ez baiña. Segun zatozen tropak ya ba korrika atzera ta atzeta. Gu urten giñan hamendik asmuan esaten: "Bueno, pronto vendremos, dentro de ocho días ya estamos aquí". Joo! "Ocho días". Hiru urte.

-Hiru urte egon ziñan batailloi hortan?

-Hiru urte ez baiña. Ya izango zan "la retirada de Barcelona". Baiña orduan aittakin ez. Aitta hamen zertu zan... Gero pasau zan, kuartela zauken Bilbon, "Callle General Concha", ta han dabilela, ama hemendik expulsau in zeben.

-Horrek trenbidetik bialdu zittuenak?

-Hori da! Maltzagara. Ta gero ba, klaro, ni ya ama etorri zanian, ya amakin geratu nitzan.

8.33. Treboux-eko errefuxiatu gunean

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-047/014
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:17:11. **Bukatu:** 00:18:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Treboux-en, errefuxiatu-lekuan, denak euskaldunak ziren. Ondo egon ziren. Eusko Jaurlaritzaren ardurapean zeuden. Han ikasi zuen odolostea gozoarekin jaten.

Transkripzioa

-Treboux-en zer moduz?

-Ondo eon giñan. Bai. Ondo eon giñan.

-Ze egon ziñen, refugiau asko?

-Bai. Danok euskaldunak giñan, e, danok euskaldunak. Bizkaitarrak asko

ere bai. Bizkaitarrak, eta esaten deben moduan, "giputzak".
-Treboux-en etxe haundin baten edo?
-Bai, zera haundixa zan.
-Eta zela organizaitten ziñein jateko ta?
-Hori Gobierno Vasco-k zertuta jun giñan hara.
-Baiña jana ta jatorduak eta zeuek preparaitten zittuen?
-Ez, eurak, eurak. Nik hantxen ikasi naban odolostiak gozuakin jaten.
-Zer?
-Gozuakin, azukriakin. Hantxe ikasi neban jaten hola.
-Treboux-en zenbat denpora?
-Ein gendun hiru hillebete bat edo.

8.34. Guardia zibilen kuarterera

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Ondartza, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-047/023
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:32:54. **Bukatu:** 00:34:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Elgoibarrera heldu eta,kuarterera presentatu aurretik, karlista batengana jo zuen eta harekin batera joan zen guardia zibilengana. Tratu ona eman zioten. Luzaroan presentatu izan behar zuen kuarterera.

Transkripzioa

-Ta etorri nintzan ta etxera ta. "Bueno, ahora tengo que ir donde..." Nik neukan lagun bat hemen, foballian-eta ibiltzen giñan kuadrillako kanpeonatuetan eta haren denporan eta. Esan nion, guardiazibillera jun baiño lehenao, honen aittakin, karlistak zian, honen aittakin egon bihar nitzan, Rafael Etxanizen aitta. Dendia zauken. Jun nitzan eta "hombre, José y tal!". Bueno. "Pues mira, esto y esto y esto". "Tú tranquilo, vamos a ir ahora al cuartel los dos". Joan giñan kuarterera; klaro, harekin zela jun nitzan ba beste tratu bat. Ez, ez, komandante itten zabana, ez zan komandantia baiña itten zabana... Nerekin behintzat. "Bueno, vamos a ver, vamos a tomar informes donde has estao, cómo y tal. Tú tranquilo, no te preocupes de nada que no te pasará nada. Son cosas que hay que tomarte cuentas. Y además tienes que presentarte aquí cada ocho días. Pero tú tranquilo. Nada más". Ta halaxe ba, gero presentau. Ta denporalian egon nitzan; ta gaiñera ezin urten herritik, e!

8.35. Aitaren eskusoinua soldaduak bereganatu

- **Hizlaria(k):** Leiaristi Iriondo, Floren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-049/016
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena:** Etxe azpi batean babesten ziren bonbardaketak zirenean. Aita soinujolea zen; soldadu batek tabernan jotzeko soinua eskatu zion. Zaharra eta berria zituen, berria utzi zion... eta gaur arte. Gabe geratu zen.

Transkripzioa

- Gerriakin akordatzen naiz. Gerriakin akordatzen naiz zela egoten zien tiroteuak hor mendi puntatikan, Arratetikan horra ta, hamen zela egoten zien ta orduan, haura abioiak eta hasten zienian bueltan, danok antxitxika. Hor suterraneo bat zauan etxe haundi baten azpitan. Danok haintxe sartzen giñan, bonba bat jausi balitz, danok haintxe hilko giñan. Baiña, ixkutu behintzat abioiagandik ta han sartzen giñan danok. Bai, nik goguan daukat hori.

- Zu orduan gerra denporan kalia bizi ziñan.

- Bai, bai, bai. Kalia, kalia, kalia. Haintxe Kamiñokuan. Bai.

- Eta abioiak eta bonba asko bota zittuein?

- Bai, bai, bai, bai. Jo-ta kriston bonbardeua ta egoten zan ta hamen. Bu! Billurgarrixa izeten zan. Bai.

- Oseake, hamenguak Arraten, Eibar bonbardeaitten, eta eibartarrak honutz botatzen.

- Holaxe, holaxe. Bai, bai, bai, bai. Hor, Karakate puntatikan, zeara, Arrate gaiñera ta, jo-ta kaiñonazuak. Kaiñoiak eta ipinitta hor goixan. Bai, hamen kriston zera egon zan.

- Eta Intxortatik be botatzen zittuein, ezta?

- Bai. Ta gure aitta soiñojoillia zan ta hor Kamiñokuan tabernia zauan.

- Soinujolia?

- Gure aitta zan soiñojoillia. Bai. Ta hor Kamiñokuan zauan tabernia, ta gure aittak soiñua zela jotzen zaban, ba, han esan ziu "hamen soiñua..." Ta "Ene! Nik badakit ba soiñua jotzen", soldau batek. Ta bueno, "da!" etorri zan ta "Zu, mesedez, lagako diazu soiñua hortxe pieza batzuk joteko tabernan?" ta "Bai". Ta bi zeukazen, zahartxuaua ta berrixa aittak, ta berrixa eman. Gizajua! Soldaua gehixao ikusi ez, ez soiñu ta ez... Akabo! Han joteko zala baiña ixkutu ta akabo! Gaur arte.

8.36. Trena errepublikako banderarekin

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-050/006
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:08:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** 14 urte bete baino lehen utzi zion Benturak eskolari, etxean lan asko zegoen eta. Bera umea zela, trena errepublikako banderarekin etorri zenekoa gogoratzen du. Gerrak ez zuen eskola eten, baina Bentura, beldurrez, ez zen joaten. Gerraostean jarraitu zuen eskolan, 13 urtera arte.

Transkripzioa

-Baiña guk ez genduan izan hamalau urte arte juteik, lana egin bihar zan etxian ere ta.

-Zenbat urtekin hasi ziñan, zazpikin? Orduan Republika garaixan, ezta?

-Republika garaixan. Ni hogeta bost urtekin jaio (1925ean jaio) ta zazpi urtekin hasi nintzan...

.Hogeta hamaikan etorri zan republikia.

-Republikia bai, klaro. Ni republikia justu-justu-justu akordatzen naiz, akordatzen naiz nola trena etorri zan republika banderiakin. Gu trenantikan urrian giñan, urrian bizi giñan trenbidetik, eta anaiak nola deittu zion amari, "ama, ama!..." Orduan zan erregia botako zabela eta ez zabela ta, republikia bazetorrela eta ez zetorrela eta hola. Eta nola deittu zion anaixak amari: "ama, ama, republikano banderiakin dator trena" Aibala!, orduan jaiki da Republikia!

-Republikia lelengo lekua deklarau zana Eibar izan zan.

-Eibar, Eibar altzau zana lenengo. Ba ni horixe akordatzen naiz zela esan zion eta.

-[...]

-Nik ez dakit nola etorriko zan, ez daukat, ez daukat... Ikusi nabala badaukat ideia baiña ez zelako banderia zan edo zela zan ez daukat. Umiak giñan eta ez. Baiña hori deittu ziona bai, hori klabao. Bai ba, geu ere bildurretan eta, gurasuak ere ba [...] pasauko ete zan. Erregia bota ta ze izango ete zan eta beste izango ete zan eta entzuten genduzen horrek gauzok. Eta bueno...

-Entzun bai baiña entendidu ez, ezta'

-Entenidu ez, ze enteniduko gendun ba...

-Edozein modutan zu hogeta hamabixan hasi baziñan eskolan, lau urte geruago gerria hasi zanian hamaika urte zeukatzun.

-Bai.

-Gerran eten egin zan eskolia?

-Ez, eskoliak segidu zeban baiña guk, klaro, bildurra zeon etxetik urtetzeko ere, eta bestetik gurasueri orduantxe aizta hil zakun eta anaiak gerran eta. Etxian aitta ta amakin, umiak etxian eon giñan. Gero berriz ere hasi giñan eskolan eta berriz ere segidu giñun puxkaten hamahiru urte arte. Hamahiru urte ezkerero ez, ez nintzan jun ni hamahiru urte ezkerero.

8.37. Eibarko sozialista guztiak euskaldunak ziren

- **Hizlaria(k)**: Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-051/007
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:13:50. **Bukatu**: 00:15:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- **Laburpena**: Eibarko orduko sozialista guztiak euskaldunak omen ziren. Gerra garaian, familiak aurrera joateko plangintza egina zuen, baina amona gaixotu eta denak bertan geratu ziren.

Transkripzioa

-Eibartarrak gorrixak baiña euskaldunak dia ba asko eibartarra-eibartarra.

Danak. Sozialistak... Bueno, gure tio ez dakit nik zekixan, e. Salbadorek bai baiña aittak, tio Balentiñek jakin be ez zaban... Ni ez naiz gogoratzen tiok zekixan. Salbadoren eta aittak, gure aittan-eta anaixa zan baina, harekin ez naiz gogoratzen euskeraz eitten zaban edo ez. Semiak bai, baiña. Tio Balentiñek bai?

-Bueno, gerrara aillegau ga. Ze rekuerdo daukatzu gerrakuak?

-Ba!, gerrakuak, e...

-Etxian egon ziñan denpora dana?

-Bai, geunkan, ya topauta geunkan gu etxia joateko, Sestaokuekin eta. Anaixa tio Jazintokin eta, aurrera joateko. Baiña amama genkan gaixorik. Aman ama oso gaixorik zauan. Ta laga ein genduan joatiakin, ta geldittu giñan hemen.

-Danok geratu ziñain?

-Danok.

-Eta aittak gerrara fan biharrik izan eban?

-Ez. Aitta hemen egon zan baiña...

8.38. Gernika gorriek erre zutela sinetsarazi zuten

- **Hizlaria(k)**: Vallejo Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-051/049
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 01:30:48. **Bukatu**: 01:31:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Jende askok Gernika gorriek erre zutela sinetsi zuen. Mirenen aitak egia esan zuelako ia hil egin zuten.

Transkripzioa

-Ta segiduan izan zan bonbardeua, segittuan izan zan. Ni etxera nixen eta hamahiru urtekin. Haura zan, ez sinistu baiña. Askota gogoratzen naiz zarata harek baa-baa, ustez jausi in bihar ziela. Haik zaroen pixua! Pentsaizu in zebena itteko.

-Baiña ez zien lau abioi bakarrrik izan.

-Ez. Ba orduantxe gure aittak esan zabalako egixa, egixa esan zabala...

-Ixa garbittu eben.

-Ixa garbittu zebe. Eta zenbat denpora egon zan hola. Askok sinistuta, e. Gorrixak eman ziuela sua, e!, gorrixak eman ziuela sua, e.

-Eta hori hamengo jentiak pentsaitten eben?

-Bai.

-Klaro, Francon propagandiak hori sinistu erain.

-Sinistuta egon zien hemen asko gorrixak eman ziuela sua. Gero jakin zan baiña.

8.39. Kanoikada etxera eta osabaren lima lantegia

- **Hizlaria(k)**: Osoro Unzueta, Sabin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-052/005

- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:06:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Gerra denboran, kanoikada batek Sabinen etxeko hormak puskatu zituen. Sabinen osaba Benitok lima lantegia zuen etxe ondoan, eta harri guztiak lantegira erori ziren. Lantegiko bi langileek gerratik ihes egin zuten, Sabin ibili zen osabari lantegia garbitzen laguntzen. Ondoren, hilabete batzuetan limak egiten ere ibili zen. Lana nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Kaiñonazoak gure etxebizitza, holakotxe horma sendo bat zeukan albueta ta jo goian ta alboko taillar gaiñera jausi zian harrixak eta eskonbruak eta danak. Eta gure osaba Benitona zan taillar haura, lima taillarra.

- Zela zeukan izena taillarrak?

- Benito Unzueta.

- Benito Unzueta.

- Bai. Langille bi zituan ta langille biak ihes in zieben aurrera eta neri esan zian, ba, laguntzera juteko ta hantxe lehenengo lana izan zan harri haundixak ibaira botatzen, harek eta eskonbruak, taillarra garbitzen. Gero beste bat segittu naban hillabete batzuk lanian limak egiten ta zerian ta harek pikatzeko galdaretan eta...

- Eta ze itten zebein taillar horretan?

- ba, limak. Limak, lima berriak. Preparau, zera, burdiña eta gero makiñan, zera, pikadura eman eta bestiak, zaharrak ere, kendu zerak...

- Pikadura zaharra?

- Pikadura zaharra kendu eta gero berrixa eman. Horixe zan.

- Kertenak be zeuke itten zittuein?

- Bai, edo bestela zera, kertena edo zera, makiña baten di-da di-da, jotzen ia gorrittuta, berak osabak egiten zuan lan hori. Ni, neria izaten zan askotan harri haundi baten pikadura zaharra, zaharrerri pikaduria kentzia ta zan lan gogorra hamalau urteko batentzako.

8.40. Sabaian ezkutatuta bonben beldurrez

- **Hizlaria(k):** Ulazia Etxeberria, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-054/002
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra denboran kanoikadak jausten ziren etxe inguruan eta sabaian ezkutatzen ziren ziur zeudelakoan. Auzoan eta kalean zaurituen bat edo beste izan zen, baina uste du ez zela inor hil.

Transkripzioa

-Geria hasi zenerako eskolan hasita zeunden?

-Ba ez dakit ba. Orduan nakazen nik sei-zazpi bat urte, ta ez dakitt hasitta nenguan, porke orduan berandu hasten giñan eskolara. Ez oingo mouan, sei urtekin eta artian eskolara hasi be. Baiña akordatzen naiz gerra denporan, kaiñonazuak eta eundoko billurra hemen jentiak.

-Nunbaitten gorde edo eitten ziñen?

-Bai. Hor atepe baten sartzen giñan, han seguru zeuala ta danak haraxe juten giñan.

-Hamen auzuan?

-Hamentxe. Goixan zauan lastua edo hortakua zeuan, eta han hobeto geundela ta hara juten giñan. Gure ama ere hartu umiak danak eta haraxe.

-Etxeko kamarara?

-Etxekuan bai ba. Ostian kanpora ez giñan juten. (...). Etxeko ganbara azpitan gu, han lastua zeuala ta.

-Eta soldauak euki ziñuzten etxian?

-Ez, ez, hamen ez.

- (...)

-Hamen armamenturik eta pasau ebein, kamionak eta etortzen zien soldauak?

-Hori baleike, hori baleike, soldauak kamioietan eta. Sekulako soldau pillua ere akordatzen jata zela etorri zian, illaran soldau mordua.

-Oiñez?

-Oiñez, San Lorentzotikan edo ez dakit nundikan pasau zian hona. Edo Azkoittitkan edo, ez dakit nundikan.

-Eta hamen bonbak nundik etortzen ziren, Eibartik.

-Ez dakitt nundik bota... Bota zittuen hamen bonbak, hamen bertan ingiruan ere bai; ta jentia etzan itten zan lurrera.

-Egon zan zauriturik edo?

-Bai, bai, hamen auzoko batek zeoze in zaban. Ta hor kalian ere bai, estazio onduan baten bati zeoze pasau ei zakon. Baiña hil ez, hil ez dot uste iñor hil zanik.

8.41. "Patxi zaharra" hegazkina

- **Hizlaria(k):** Isasti Irusta, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-055/034
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:07:28. **Bukatu:** 01:09:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Altzolan bertan frontierik ez zen egon. "Patxi zaharra" hegazkina gogoratzen du Pakok, beste leku batzuetan, "El abuelo" deitzen zioten bera. Altzolan ez zuten soldadurik eduki etxeetan.

Transkripzioa

-Eta hemen zuk zeuk zer rekuerdo daukazu gerrakuak, hemen frenterik egon zan Alzolan?

-Ez. Neuk dakidanik behintzat hemen ez zan egon frenterik. Hoixe, frentian, Kalamuan hor bai egon zan zera baina ostian hamen...

-Eibartik galdutako bonbak ez zien hona etorten?

-Ez, ez. Galdutako bala bat bai, hemen bentana baten jo zaban, hor etxe hortan, galdutako balan bat, baina hola bonbarik ez.

-Eta abioiak eta akordaitten za zu?

-Bai, bai. "Patxi Zarra" ta.

-Horri beste leku batzutan "Abuelo" esaten otsen.

-Hoixe, Patxi Zarra, "Abuelo". "El Abuelo" ta bai. Brun-brun-brun einda zarata batz, jesus...

-Danon eitten dozue igual brun-brun-brun hori, goguan daukazue itxuria. Askotan ibiltten zan hemen ala?

-Bai.

-Baina hori gorrixena zan, ezta?

-Bai, gorrixena.

-Eta beste txikinak?

-Hamen ez genduan halako zer haundirik euki. Ni neu behintzat. Mutikuak-eta, gitxiao arduratu ere, ez dakizu, baina... Nik ez naban sentidu holako zer haundirikan hemen.

-Bai.

8.42. Bonbak etxe inguruan

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Garate, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-057/012
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:28:20. **Bukatu**: 00:29:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Eibartik nazionalei botatako jaurtigai batzuk Arane ondoan lehertzen ziren. Lehertu ez zirenak Pedrok desgaitu eta etxera eraman zituen.

Transkripzioa

-Bestela jo ezkerreko kaiñonazuak, e. Eibartikan jaurtittakuak hona zerari nazionalei Arratera botata, Arraten elizian pasauta, hamentxe sartuta, hamentxe jaten gaurela ere jota baiñuak eta danak kee beltz-beltzakin eta lurrez dana, bentania zabalik zeuan eta dana beteta laga zaban hortxe jota hamabost eta erdiko proiektillak. Beheratxua beste bat, han behian beste bat esplotau zabana beste bat; beste bat hor arbolia jota handikaldera ere pasau zan, eta beste bat Armoretako etxe berrixa dagon tokixan zihar. Baiña harek, e, lelengua edo zan, han goixan nabua jorratzen gebizen eta harek ekarri zaban du-du-du-du!!!, eta Armoretako behixak han lauan etxe berrixa dauan tokixan jata zoratuta, euren parian pasau zan berta-bertan eta harutzatxuauan behia joa zaban. Jo baleu muturrakin behia akaso esplotauko zaban baiña. Nik hamen jota joan zan hara [...] etxian ondora proiektil bat, eta etxera ekarri ta hustuta hor euki naban eta. Beste bi edo ez dakit nundik ekarri nittuan. Hamabost eta erdiko bastante, holako bala handixa. Eta haura esplotia (espoleta) kendu eta ni mekanikua, esplotatzeko ere. Han eukitzen zaban pistoe handixa, haura soltau, tornillua soltau eta haura pistoia kendu ezkerreko harek ez zaukan arriskurikan. Barrua polboraz beteta, zuri-zurixa, polboria izengo zan edo.

8.43. Anaia bat gerran hil zitzaion

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/018
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:36:13. **Bukatu:** 00:38:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Josefa eta ahizpa etxetik beste baserri batera eraman zituzten, gorriengandik ezkutatzeko. Anaia bi soldadu eraman zituzten gerrara, eta euretako bat han hil zen, Teruelen.

Transkripzioa

-Eta zu ez ziñuzen harrapau gorrixok kozinarako?

-Ni e, hori enterau giñan gu ze in zebeñ; ta nere aittak eta amak, hor Eguen edo hor beheraoko basarri eder hori, oin hemen zuri bat, hara bieldu umiak gu aizta bixok. Nik hamasei urte neukazen eta bestiak hamaika edo, hamar euko zittuan, eta horra bieldu basarrira. Eta anaixak, anaixa bat hil zana, eta artian ez zauken ba eruanda soldau edo, gerrara ez zebeñ eruanda, anaixa bixak ni ezkondu nitzan Armuetara, behera, harek mutilak hona eta neskak Eguenera, Eguen baserrira. Hantxe egon giñan gerria, hemengo frentia jun arte.

-Gero zure anaixak ez zittuen harrapau zerak?

-Gero, baiña gero kintetatikan hots eitten ziuene eta derrior jun bihar.

-Pedro be holaxe joan zan.

-Bai, Pedrok ere urte mordua ingo zaban.

-Bost.

-Bost, hor dao ba.

-Pedrok ere urte mordua. Eta bizik etorri eta guria hil zan gizajua.

-Gerran edo?

-Gerratian hil zatan neri anaixa bata, bestia etorri zan etxera baiña.

-Nun hil zan?

-Teruelen.

-Zela eukan izena horrek?

-Antonio Gabilondo.

-Gorputzik billau zebeñ edo?

-Keba! Iñork ez zaban aztarrenik billau. Ezta bere kinto lagunak ere, bertan zaudenak ere. Ibilli zian, ta anaixa neria ere bai, beste anaixa zarrua, eta haura ibilli zan billa baiña aztarrenik ez giñuan billau.

8.44. Bonba eta bala galduak

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/021
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:44:17. **Bukatu:** 00:45:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Kalamua mendiko aterpetxera garraiatzen zituzten militarren gauzak. Arriskutsua omen zen, baina ez zuten inor zauritu. Elgetatik Arratera botatzen zituzten bonba galdu batzuk jausi ziren Idotorbe (San Pedro) auzoan. Normala omen zen balak lurrean sartzen entzutea, soroan lanean zihardutela.

Transkripzioa

-Orduan egin zittuen karreterogintza lanok eta heridutako barik.
 -Heridu barik, inor ez zan entzun heridu zanikan. Eurek ere billurretan egoten zien. Han lautxua, hola lau-unatxo bat dao Kalamuan eta hantxe refujiua zeuan eta han refugio aldera eruan bihar hori eruaten zaben karigiori burdixakin. Ta hantxe lautxuan, bestaldeko mendixa gorrixena bistan eta ondo tokau, ez zakuen balazoik iñork hartzeik. Heridu iñor ez.
 -Nahikua suerte.
 -Bai, nahikua suerte, ez zan entzun behintzat.
 -Eta frentia joan zanian?
 -Joan zanian hamen hoixe, dana zulu ta. Gero hor Elgeta mendittik edo ez dakit nundikan Arrateko eliziai jaurti ziuazen kaiñonazuak eta han ez zaben jotzen ondo elizia eta bittartetik hona etortzen zien eta edozein tokittatik hemen; bum!
 -Galdutako bonbak?
 -Bai. Balazuak'e bai, balak ere. Balak ere etorten zien. Zzzu! Igual souan lanian eta zzust! eta albuhan.
 -Ez zan bromia izango, e.
 -Ez hoixe, billur earra eukitzen giñuan. Usau azkenerako; halaxe zzust lurrian albuhan balia ta. Jo bihar dabenik pentsau ere ez. Bai. Tristia zan haura.

8.45. Soldaduskara joan eta itzuli ez ziren mutilak

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirregomezkorta, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-058/024
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:52:21. **Bukatu:** 00:53:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Soldaduska gerran egin zuten gazteak izan ziren gerra garaian hildako gehienak.

Transkripzioa

-Mutil asko hil zan herrixan.
 -Horrek hildakuak bando bixetatik?
 -Ez, hemendikan, hemendikan. Hemen ez zan gorrixetara..., gorri gitxi zan hemen. Nik ezautu gitxi in dot. Soldautzia-ta in eta.
 Soldadutzara eruan eta...
 -Bai. Kintuan, kintuan jun zan hori. Kintua ba, treintayseisa zan urten zabana gerria, tan handikan "Quinta del 36" eta hurrengo siete, ocho ta nueve ta cuarenta y unoraino aillegau zan mutillak eruatia. Eta cuarenta y unuan amaittuko zaben, gehixao ez. Gaztiak zielako handik atzerakuak.

-Uste dot 39n hartu zittuela 41kuak, "La Quinta del Biberón" edo, 17 urteko mutilak.

-Bai, bai. Soldau gizajuak. Bai ba. Ezkonduak, gora ekin ezker, ezkondua tokatzen zan asko, ezta, kintuetan. Jeneralian behera, gaztia, gaztera jotzen zeben. Ta ezkonduak umiak edo eukitzen zittuan eta umiak zeukazena librau eitten zan.

-Nekezao joan.

-Bai, nekezao jun. Baiña solterua aurrera. Prentera. Harek gizajuak.

8.46. Errepublikako sorreraren bertsoak

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Iñarra, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-061/006
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:10:32. **Bukatu**: 00:11:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: 1931an Errepublikaren sorrerak sortutako poza adierazten duten bertsoak.

Transkripzioa

ERREPUBLIKAREN SORRERARI

Milaz gaiñera beratzirehun
hogeitamaikagarren urtian
Errepublika sortua zaigu
Españiako partian,
ez det uste nik izango dala
guziontzako kaltian
alkarregana gorrotu gabe
ondo konpondu gaitian.

Errege edo morroi beltz hori
egiña dute bialdu,
berrogetabost urte inguruan
hemen egin da mantendu
aspaldi samar batzuen partetik
egiña zuten ba saldu
Berriz honuntza agertzen bada
ez aterikan zabaldu.

Fermin Galan eta
Garcia Hernandez
biak ziran kapitanak,
Abenduaren hamalauetan
afusillatu zianak,
kristau gaiztuak eiten ditue
modu horretako lanak,
aber zer nahigabe hartuko
zeben haiek hazi zituanak.

Gogoratzian nere bihotza
egiten da erdiratu,
sasorik onenian horrela
mundua bihar lagatu.
Españia ta Euskal Herrixa
horrek digute salbatu.

Coronel Franco ere egin dute
kartzelara sartzen hasi,
toki horretan ez omen zeban
paraje ederra ikusi,
leiho batetik salto eginda
Prantzira jun zan igesi.
Orain Españan jan da pasean
nahi dan bezala da bizi.

Arioplano eder bat dauka
noranahi azkar juteko,
nahi duanian Prantziara ta
igual Portugalerako,
raia badaka mekanikua
makiña arreglatzeko,
horrebai badakala
burua defenditzeko.

8.47. Miren Katherine Agurne

- **Hizlaria(k)**: Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref**: EGB-068/016
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:20:12. **Bukatu**: 00:21:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Miren Katherine Agurne du izena Agurnek. Natiri Jaione ipini nahi zioten baina ez zioten utzi.

Transkripzioa

-Agurne esan dozu, baiña izena ez dala Agurne bakarrik. Luziagua dakazu.

-Bai, beste bat. Rosario...

Nati: -Ez. Miren Agurne Katherine. Daneri jartzen zakuen lehen, Miren edo Maria.

-Ba eon gera herrixan hiru bakarrikan izen honekin.

-Eske rarua da...

Agurne: -Baiña oin bai, oin ipintzen jakue. Periodista bat ezautzen dot gaiñera Motrikukua edo, Miren Agurne. Ezautzen dozu?

-Bai, bai.

-Je-je. Entzun nionian hari talebistan, beittu, ni bakarrik ez naiz, e.

-Eta zuri esan dozu Jaione nahi zetsuela ipintzia.

-Etxian, baiña beti Nati izan naiz. Ez ziuen utzi amari.

8.48. Soldaduak etxean lotan

- **Hizlaria(k):** Iriondo Lizarralde , Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-069/010
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:16:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Soldaduak etortzen ziren lotara etxera gerra denboran. Goizean frontera joaten ziren, Kalamura. Aitak kamillero lanak egin behar izan zituen Kalamua barrenean. Gero zaurituak autoetan eramaten zituzten norabait.

Transkripzioa

-Gerra denporan gure etxera etortzen zian lo eittera. Garai hartan soldau batzuek etortzen zian etxe partikularretara, lo eittera ta abar. Ta gurera etortzen zian, ez dakit lau edo sei. Ez dakit nik zela eitten genduan ere; lo eittera. Eta gure ama horretan oso serbiziala zan. Eta batzuek igual naparrak eta beste batzuek... Jeneralian hemen inguruko zera izaten zien soldauak. Eta hurrengo goizian urtetzen zuten euren fusil ta guzti, ta konpontzen zien ta jutun zien ba Kalamura. Kalamuan hemen zazpi hillabetian egon zan frentia, eta denpora horretan jarraitzen zaben soldauak zerian. Gero egon zian hemen kuartelak eta eskoletan ta abar ta ere bai, eta gauza asko. Eta gu mutil koskorak giñan eta arrantxua hor plazan eitten zuten, eta gure aitta-zana orduan garai hartan ba kamillero ta kontratau bihar izaten zittuen. Ta boluntarixuak ez, "voluntario obligatorio", bestela pagau ein bihar zenduan diru bat, eta hori diru hori pagatzeko dirurik ez zauan. Orduan aitta jutun zan tokatzen zitzakonian Urkiola basarrira Kalamu barrenian, ta hor frente gogorra zela egon zan ba hor heriduak hor hartzen zittuen eta eruaten zittuen San Migelera; ta gero San Migelen ba eruaten zittuen automobilletan eta heriduak hara edo hona, Donostiara edo halako zerbait.

8.49. Salbakonduktoa behar batetik bestera ibiltzeko

- **Hizlaria(k):** Iriondo Lizarralde , Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-069/019
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:29:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena:** Inguruko mendietara joaten ziren gatzetxotan, Urko, Izarraitz... Gero, Aizkorrira, Aralarrera... kamioietan. Larrunera-eta leku guztietara joateko 'salbakonduktoa' atera behar zen Gobernu Zibilean.

Transkripzioa

-Mendira itten genduan, hemen oiñezkuak eitten genduzen hemen inguruan, ezta? Urkora, Izarraitzera, Karakatera, Irukurutzetara... Eta orduan haundixa zan, motxiliakin hola juan, zera ta... Gu mutikuak beti...

Gero juten giñanian Aizgorrira, Aralarrera, San Donatora... Horretara juten giñanian, juten giñan Gorbeara, kamioietan. Komioiei ipintzen zuen toldua gaiñian eta hala juten giñan. Eta orduan Larunera ta eskursio guztietara juteko salbakondukto bat etara bihar izaten zan Gobierno Zibillian. Bestela ezin zan mobidu herrittikan hola kanpora ta zerera, eskursiua hola organizatzen genduanian ofiziala taldeak, horrela mobitzen giñan. Bastante berandu arte.

8.50. Euskara lehiaketak Odeon antzokian

- **Hizlaria(k):** Mujika Latxa, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-111/015
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Euskara eta politika
 - Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Odeon antzokian euskara lehiaketak egiten ziren. Besteak beste, Felix Etxeberriak, Jesus Larrañaga eta Pako Juaristik osatzen zuten epaimahaia. Adinaren arabera, galdera ezberdinak izaten ziren. Berak aitak irakatsitako bertso batzuk bota zituen eta saria irabazi zuen 10 urtekoen mailan. Gogoan du nagusiago bati "esparrago" nola esaten den euskaraz galdetu ziotela. Aitak lagundu zion galderekin Felix Etxeberriari.

Transkripzioa

- Odeon -Odeia teatrua zan, zinia, ta- hor ere eitten zian noizbehinka, akordatzen naiz, konkursua eitten zan, euskerazko konkursua. Ni egonda nao han konkursuan. Ta han zeuan tribunala. Ba zeintzuk? Ba esan dizutena, 'Plaentxi', Felix Etxeberria, Pako Juaristi... ba enfin, pixkat, hor. Ta segun ze adin zakazun... 14 urtekuak ba galdera batzuk, 10ekuak beste hori... tal, tal, ta bestia. Ni akordatzen naiz aittak buruz erakutsi... "Hizkuntzak jakin arren zazpi edo zortzi, euskerak merezi du... " bueno, ez dakit. Bertso batzuk ikasi naban buruz eta han bota naban eta premixua eman zien.

- Eta euskerian lehiaketia zan?

- Bai, euskerian lehiaketia.

- Euskeraz zeñek ondo ein edo?

- Bai! Hori da, lehiaketia. Ta, aber, kategorixa... 16 urtera arte, ba, 15-16, fulanito irabazle, bigarren ez dakit zein... Ba, premixu bat emon zeoze... Ni 10 urteko kategorixan egon nitzan. Euskerazko konkursua. Osea, euskeraz eitteko. Sinistu leike? E? Ba holaxe. Hori nik ezautu dot eta sinistuidazu hola zala. Ta aittak, gaiñera, Felixi in zion... blok bat zakan hola eta ipintzen zaban "6 urtera arte", ba, galdera oso-oso erretzak, sinpliak; "6-8"... pixkat... kuestionarixua, ez dakizu? ze galdera ein. Eta Felixi pasau zion hori ere eta hori ere erabiltzen zeben. Ta holaxe. Bati, nausi bati, galdetu zion "esparrago" ta "esparragua" esan zeban, akordatzen naiz, ta ñeee. Ez dakit zela esaten dan, e!

- Zainzuria.

- Zainzuria, egixa! Errezioa dakazu, bai. Bai, baiña galdera hori akordatzen naiz, nausi bati, ño... hori ya zan "nivel universitario".

- Ta nausixauak be hor ibiltzen zian zuekin euskeria ikasten?

- Bai, hor nik esan dizuten izen batzuk ni baiño nausixauak dia, baiña, bueno danok nahastuta. Giro ona zan. Neretat hori: "Menditik nator, pilota polita", horixe zan neri sartu jatana.
- Jo, ba, hori oso kuriosua lehiaketiana.
- Bai, lehiaketa? Bai, bai, Odeoian, Odeoian. Honbre! Ya lo creo! Egongo zian beste gauza batzuk, baiña konkursua ere. E? Konkursua. Mahai bat, - jo-ta unibersitatian ikusten dia, ba, tribunala?- tribunala egoten zan han eta han jun bihar ziñan eta erantzun harek galdetzen zizuena. Apuntatzen juten zian..
- Gaur egungo telebistako lehiaketa bat izatia moduan.
- Bai, baiña euskeria ein, euskeraz ein. Holaxe da. Bai, bai, bai.

9. Ekonomia eta industria

9.1. Alarguntasunik gabe gelditu zen senarra gerentea zelako

- **Hizlaria(k)**: Irizar Goiburu, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leon, Jabi
- **Erref**: EGB-019/017
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:27:16. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: 7 eta 9 urteko umeak zituen senarra hil zenean. Hiru urtez lehenbizi amaginarrebaren etxean bizi izan zen, baina bizimodua berak atera behar izan zuen alarguntasunik gabe gelditu zen eta. Bere senarra gerente moduan zegoen enpresan eta, orduko legearen arabera, gerenteak ez zuen kotizatzen. Denda baterako alkandorak josten hasi zen lanean eta etxea erosi zuen kalean.

Transkripzioa

- Eta gero nora jun ziñan bizitzera?
- Gero, hiru urte hantxe egon nitzan, pentsaizu, hamar-beatzi urte eta zazpi urteko umiak gelditu [zittazen].
- Zenbat seme-alaba euki dittuzue?
- Bi.
- Bi, neska ta mutilla?
- Bai, neska ta mutilla.
- Eta nora jun ziñaten bizitzera gero?
- Gero, hiru urtian bertan bizi izan nitzan, etxe hartan bertan.
- [...] txikixak zianian...
- Hantxe bertan. Eta gero, ba, nik ez neuken... nik bizimodua etara ein bihar non zeatio... Gaiñera euki naban kasua, ba, nere gizona, "Arriola y compañía"-ko soziua zan. Eta aurretik zeudenak, bera baiño nausixauak zianak, ba bi batera hil zien, batera samar. Iruzta bat, Iruzta. Eta gero bestea nere gizonan anaie, Migel Arriola. Harek hil zien batera eta gero gerente batenbat sartu bihar zan eta nere gizona sartu zan gerente. Ta orduan, Francon denboran, gerentiek ezin zeuben kotizau, ez zoen kotizau behar. Itxuria, legia zeon hala. Ta berak esaten zaban: "Bai, bai, baiña seguroik eta ezer ere ez eta hola ez da..." Ta lehengusiña batek,

Kartutxonekua genduan guk, eta harek esaten zion, e...: "Hola ez hago ba ondo, seguroik eta ezer ere...", "Bai, baiña ezer pasauko balitz, ba taillerrak korrespondidu bihar jon". Baiña hil zan, eta kitto gero. Hil ta hamabost egunera kendu [ziaten] jornala eta geldittu nitzen ezer´e be, ez alarguntasunik ta ezer´e be. Nik zela edo hala bizimodua etara ein bihar naban. Eta pixkat afiziuua josteko euki naban ta ba, alkondarak josten ikasi naban ta alkondarak josten nittun horra, Karkizanoko dendarako. Orduan jende guztia urdiñez juten zan lanera. Alkondara urdiñak josten. Eta gero ba, hiru urtera, ba, hori etxia eitten ziharduen. Ni bizi naiz, Lanbroa badakizu? Lanbroa?

- Bai.

- Han goixan, bai, han goixan bizi naiz.

- San Lorentzotikan hara pasau ziñaten bizitzera?

- Bai. Gure etxia eitten ziharduen ta zela edo hala hantxe pisuari heldu nion. Ta gero, "el año cincuenta y tres" etorri giñan horraxe bizi izatera. Baiña geldittu nitzan oso gaizki. Neuk etara bihar izan naban bizimodua. Oso gaizki.

- Gogorra.

9.2. Galarragak jarritako fabrikara lanera Mexikora

- **Hizlaria(k)**: Arregi Garate, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EGB-020/025
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 01:00:00. **Bukatu**: 01:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lantegiak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena**: Galarraga zen josteko makinaren fabrika jarri zuena Mexikon eta senarra bertara joan zen lanera. Hilabete egin zuten Mexikora bidaian.

Transkripzioa

-Fabrikia zer zan, Galarragan fabrikia?

-Badakizu Galarraga ziala ala?

-Ez dakit ba. Izan leike Alfak...

-Alfako makinak los Galarraga hicieron. Estaban cosiendo a máquina. Qué haremos? Y que le dijo: A, mira, vamos a hacer máquinas de coser. Y luego les dieron una patada Charlot. Gerria urten zebanian. Bai, harek ein zeban.

-Ta Mejikon ein zeben?

-Mejikon in zeban, ta gizona joan in zan. Juan ein giñan. Barkuan hillebete.

-Juteko.

-No iría otra vez... Y fui por culpa mía. Nik esan neban, ni abioian? Mira ahora qué de viajes. Yo un avión? Estáis locos todos. Yo no...

9.3. Bartzelona bost aldiz garestiagoa

- **Hizlaria(k)**: Barrutia Mendikute, Pedro

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Ibon
- **Erref**: EGB-022/021
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:35:25. **Bukatu**: 00:37:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: 28-30 urterekin Bartzelonara joateko aukera izan zuen. Han bizimodua bost aldiz garestiagoa zen gutxienez. Kafe konpletoa zenbat kostatzen zen Elgoibarren eta Bartzelonan.

Transkripzioa

Gero bai, e... jun ta zerera, ba klaro, etorri hemendikan ta hogeta hamar-hogeta zortzi urte nittuanian, hogeta hamar bat urte, Bartzelonara-ta jutia tokau. Orduan e... Lasa hemen egon zanak e... Lasak: "Bueno, zer, taillerretik hola ta hola lagundu ein bihar diak, lagundu ein bihar diak" eta Bartzelonara. Eta Bartzelona ikusteko gogua nik. Eta bueno, Sigman lanian ta [Sigmakuari esan] "Bueno, motorrak martxan dao, ta ni banixe Bartzelonara". [Zortzi egunerako] holaxe jun giñan. Ikusi Bartzelona ta ikusi gero hango ambientia ta ikusi hau ta "Jode! Tokittan bizi dittuk!" Orduan hemen kafe konpletua kostatzen zan, ba!, lau bat pezeta, holako bat. Altuena, kafe konpletua, kopiakin ta dana, ba!, behintzat bost pezeta ez! Ta orduan, Bartzelonan, han jun giñan zer batera ta Bartzelonan hogeta zazpi pezeta-hogeta zortzi pezeta; kafe konpletua, ba, ezer ere ez, fariasa ta zerian. Ta gero, etorri hona ta hemen "Hola ta hola jun gaittuk holako lekutara" ta orduan [enkargauak zian] harek Elgoibarren ta "Zer?" ta "Buf! Hi! Kafe konpletua hola ta hola, korrientia baiña, e, hemen korrientia dana!" Bai ta [...] hemezazpi-hemezortzi pezeta ta "Ba! Hogeta zortzi pezeta pagauta hemen gauaz! Bueno, nik ez najuan pagau!" esan nion, ta "E?" ta "Bai". Ta txanpan botillia orduan hiru bat duro balixo zaban, ba! Hortxe. Balixo bazaban, ez bazaban, holakotxe bat. Eta "segunda filan" giñalako "trescientas pesetas" ta aurrian izan bagiña, "seiscientas pesetas" txanpan botillia.

9.4. Gerraostean lan asko zegoen

- **Hizlaria(k)**: Iriondo Bergaretxe, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: EGB-041/009
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:17:11. **Bukatu**: 00:18:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Pedro Muguruza elgoibartarrak ("Valle de los Caídos"en arkitektoa) eraiki zuen Artetxe kale-etxe auzoa. Etorकिनak etortzen hasi zirenean lan asko zegoen, baina pobrezia ere halakoxea zen. Orduan hasi ziren etxebizitza berri asko eraikitzen.

Transkripzioa

-Kanpotik etorri zan jentiantzako etxiak baegozen hemen?

-Ba, gaizki. Suertau zan hamen eon zan personaje bat. Personajia edo, bai, personajia zan haura, don Pedro Muguruza, El Valle de los Caídos diseña zebana, arkitektua. Ta harek hartu zaban terreno batzuk, ta ideau zaban eta ein zaban barrio bat, Artetxe esaten giñun ta han dao oin ere. Etxe txiki batzuk, polittak ein zittuen. Orduantxe suertau zan hori, Elgobartarra zan bera, Madriden bizi zan eta akabo, ezta, baiña hori kapritxo hori euki zaban eta ein zaban barrio hori, Artetxeko barriua, han dao oindiokan haura, etxe polit batzuek. Ta bueno ba, hori mobimentu hori hasi zanian ba jentiak apopillo edo behintzat danak sartu zien. Etxiak bazauden? Ba ez, ez. Baiña harek hasi zienian etortzen orduan hasi zien etxiak eitten edo orduan hasi zan herrixan. Hau etxiau erre in zan, hau jaso genduan berriz eta hamen albuan zeuan beste terreno bat, orduan ein zan beste etxe bat, ta hau Santa Ana kalia aurrera, poliki-poliki-poliki, poliki-poliki baztarra joteraño orduan hasi zian etxiak eitten. Baiña pobrezia zaon haundixa ta lana, erderaz esaten dana, "por un tubo". Lana...!

9.5. Lau lantegi ezberdinetan lan egin zuen

- **Hizlaria(k):** Iriondo Bergaretxe, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-041/014
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:33:04. **Bukatu:** 00:34:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
 - Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Urtebete eskas egon zen soldadu. Etxera bueltatu eta Gabilondorenean jarraitu zuen lanean. Pedro Loiola, "Arana y Uribe" eta "Juaristi Hermanos" lantegietan jardun ondoren, bere negozioa jarri zuen martxan.

Transkripzioa

-Neretzako izan zan haura, nik zenbat denpora eingo naban, urtebete be ez. Zeatik gero azkenian "como hijo de viuda" jubilau ein niñuen, jubilación... Jubilazioa ez...

-Lizentziau.

-Lizenziau, bai. Urtebete baiño lehenao bialdu niñuen etxera. "Por hijo de viuda" ta hori, orduan hori oso inportantia zan. Eta etxera. Bueno, eta gero ba atzera Gabilondonera lanera.

-Jubilau arte Gabilondonian egin dozu beti?

-Ez, ez, gero aldatu nitzan beste fabrika batera eta gero beste batera eta gero beste batera ta bueno, bueno, toki askotan ibili.

-Gabilondotik nora fan ziñan?

-Loiola. Pedro Loiola.

-Gero hurrengua?

-Arana y Uribe.

-Eta oindio gehixao?

-Eta gero Juaristi Hermanos. Azkena.
-Jubilau hor egin ziñan?
-Ez. Handik alde ein naban hau negoziua ipintzeko. Hau negoziua ipintzeko orduantxe alde ein naban.

9.6. Lehen greba orokorra

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Larrañaga, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-046/017
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:40:48. **Bukatu:** 00:42:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** 1948. urtean izan zen Francoren kontrako lehen greba orokorra. Garai hartan grebara irtetea oso arriskutsua omen zen.

Transkripzioa

-Oin irakurtzen hori liburu hori irakurtzen nauela konturatzen naiz ze hankasartze. Berrogeta zortzixan uste dot izan zala huelga bat Francon garaian, lelengo huelgia edo. Ta gure inguruan taillarrian sozialista ba zauan. Ta harek esaten zaban: "huelgia in bihar juau, e, huelgara erten bihar dok /biok/". Ta haura lehenao ertenda zaon huelgara eta gu sekula erten gabiak, eta pentsatzen genduan nobedadia zala hori. Eta "ertengo juau, ala?" ta. "Bueno, erten bihar baldin bada erten ingo juau". "Ba bixar huelgia dok". Halaxe bi lagun geratu giñan lanera jun gabe. Eta bera, hori esaten zebena, lanera jun zan. Bai, billurtuta, itxuria, azkenengo orduan. Etxian kontra ingo ziuén, eta gu jai hartu ta. Oin konturatzen naiz ze arrisku jokatu genduan guk orduan; garbitzeko kapaz zian orduan.

-Edozer gauzagatik, ezta?

-Bai. Hamen ikusten da. Naparruan eta holako gauza bategatikan jota garbittu. Ta ointxe konturatzen naiz ze hankasartze ein genduan. Ta bi lagun atera giñan. Eta bazauden berrogei lagun baiño gehixao langilliak.

-Berrogeittik bi bakarrik?

-Bi bakarrik atera giñan. Jakin gabe ze zan huelgia. Jakin gabe ixa huelgia ze zan.

-Eta manifestaziñorik edo ezer egin zan?

-Ez, ez. Orduan ez dakit besteik ateako zan herrixan, e, berrogeta zortzixan, e. Ez dakit. Hori ez daukat goguan.

-Orduan guarda zibilak...

-Orduan ezerre nobedaderik gabe erten naban nik. Ta uezabak ez dakitt, parterik eman ez edo. Ez dakit zer pasauko zan, neri ezer ere ez zitzaten pasau.

-Huelga hori Elgoibarren bakarrik izan zan edo?

-Ez, ez. Hori Euskal Herri osokua zan.

-Lelengotako huelgia izango zan.

-Lelengua, lelengua. Hamen irakurtzen dot ointxe lelenguetakua zala. Ta zela tratatzen zeben jendia huelgara jundakuak. Garbittu ere bai.

9.7. Agurneren ugazaba zatarra baina jatorra

- **Hizlaria(k):** Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref:** EGB-068/043
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:02:01. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
- **Laburpena:** Agurnek etxean egiten zuen grabatzen Eibarrerako. Damaskinatua deitzen zaion teknika. Ugazaba zatar-zatarra ei zen baina jatorra.

Transkripzioa

-Eta zuk grabatzen?

Agurne: -Damaskinado, bai. Eibarren. Etxian eitten naban baiña Eibarko, Eibarrerako.

-Hango taillarren baterako. Ze taillerretarako?

Agurne: -Bueno. Partikularra zan, Adolfo Santos. Beittu, zan zatarra, baiña, Nati, zenbat maitte nindduan harek! (barre). Zan zatar-zatarra, holako belarrixak, eta neri "me parecía hasta guapo!" (barre). E, Nati...

-(...) Hor ze itten zenduen edo zela zan hori?

Agurne: -Bueno ba haura zan partikularra eta ni lanera presentau nitzan ta hartu nidduan, eta haretxentzako itten naban lana, ta npla?, ba ez zan izango asko baiña kobratzen naban hillian azkenian, ba nere aiztiari ekartzen nion ipuinak.

Nati: -Eta baitta telak eta ere bai, gonak... Nik euki naban gona bat honek ekarritta telia etxian jositta. Bai. Etxian josten genduan.

-Zenbat urtekin hasi ziñan?

-Hamabost bat urte edo hamasei, ez dakit zenbat. Eta lehen gaiñera ni Eibarrera juten nitzan mordo batetan. Nakixan Eibarko barri, ta oin ez dakit ezer. Ahaztu jata dana

9.8. "Pintxe"aren lanak

- **Hizlaria(k):** Iriondo Lizarralde , Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-069/005
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:09:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Bi "txangil" (botijo) hartu eta ura ekarri eta argiaren etengailuari eman, ziren "pintxe" bezala lehendabizi egin beharreko lanak. Geltokira joan gauzak eroan eta ekartzera, langileei tabakoa ekarri eta horrelakoak. Arriola tailerra non zegoen.

Transkripzioa

-Ni hortikan lanera. Hamahiru urtekin.

-Eta pintxe zer egiten zenduan, errekauek edo taillerra garbittu edo?
-Ba ze eitten naban? Orduan garai hartan, bizikletan han ikasi naban, lelengo lana zan goizian hartu bi txangil, bi botijo ta ura ekarri. Eta interruptorari eman goizian zortzietan.
-Hamahiru urtekin?
-Hamahiru urtekin. Ta kendu gero hamabixetan. Ta ordubateterdian berriz'e sartu, ta illuntzian kendu. Ta gero errekauek ba estaziora fakturatzeko gauzak. Estaziora zatozen gauzak hartu ta zeera eraman, korrespondentzia hartu. Eta langille askori ba tabakua ekarri. Eta horrelako gauza pilla bat.
-Nun euen Arriola tailler hori?
-Arriola taillarra zan lendabizi San Franzisko kalia. Baiña han denbora gitxi. Ta gero handikan, taillar berrixa ein zan Txarridunanetikan gora, Malan ezkerretara, han etxiak daure oin, hantxe in zan tailler oso politta.

9.9. Sigmatik ACMera

- **Hizlaria(k):** Iriondo Garate, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref:** EGB-073/012
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:26:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak
- **Laburpena:** ACMera joateko deia jaso zuen. Deban beste lantegi bat martxan jartzea izan zen bere lehen lana. Hark indarra hartu zuenean beste proiektu batera pasatu zuten.

Transkripzioa

-Eta orduan nun hartzen doten diar bat Amadeok, Amadeo Aizpitartek, ACMera joateko. Ta baietz, nik baietz. Eta orduan joan nitzan hara, ta ipini zien Acmeke zentralian. Ta lelengo-lelengo lana ipiñi ziena zentral zan ACME Deba, Deban, taillarra sortu bihar zala. ACMEkin eta debar batzuekin, gero nere lagun haundixak izan dianak, Patxi ta, hamengo... Patxi Aldabaldetrek ta. Lelengo lana, haura martxan ipiñi. Haura martxan. Ta lelengo proiektuak in. Han in bihar zan produktua zian "Unidades autónomas" eta makina espezialak eta. Lelengo proiektuak in nittuanak hemen, armazoiak eta abar, ta haura martxan ipini. Ta orduan gero harek hartu zaban indarra, ipini zaben jentia ipini zan eta orduan beste proiektu bat esan zien, taller auxiliarra.

9.10. Leku Ederren makina berezia

- **Hizlaria(k):** Iriondo Garate, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref:** EGB-073/015
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:29:23. **Bukatu:** 00:30:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak
- **Laburpena:** Gaur egun Leku Eder den tokian kokatu zuten Genevatik ekarritako makina berezia

Transkripzioa

-Nun jarri zenduen lelengo aldiz makina hori?

-Nun? Hamen Barrutianeko ortuak, Azpirineko ortuak, Azpirineko gaur eguneko etxe atzekaldian. Hor ortuak zauden, Azpirinekoa, Barrutianekua... Ta lehenau-lehenau hor zauan etxe bat inda, honek igeltseruak, zela zan haura, oin Durangora joan zian harek. Bueno ba, haura aprobetxau, hutsik zauan eta hantxe bertan bai.

-Makina berezi hori, zuk esan dozun moduan, kokatuta Plaza Txikixan eta Leku-Ederren.

-Bai-bai, hori-hori. Leku-Ederren, gaur egunian Leku-Eder dan hori. Hortxe-hortxe euki gendum, bai, hortxe euki gendum.

10. Euskara

10.1. Inguruko euskalkien arteko aldea; hauen inguruko iritzia

- **Hizlaria(k):** Etxaniz Osoro, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Erref:** EGB-021/033
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:58:59. **Bukatu:** 01:01:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Odria, Ane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Azkaratetik Azkoitia aldera euskara asko aldatzen dela uste du, batez ere hitzetan eta doinuan. Hala ere, Azkoitia-Azpeitia-Tolosa inguruko euskara garbiagoa dela uste du. Eibar-Elgoibar inguruan erdi euskara erdi erdara egiten omen da. Deban antzera egiten dela uste du, baina Itziarren berriz Azkoitia aldeko ikutua hartzen omen du. Bizkaiko euskara ulertzeko zaila dela dio. Bera morroi egon zen Eibarko auzoan ere batzuetan ulertzeko arazoak izaten zituen.

Transkripzioa

- Zuk ze uste dozu Elgoibarren eta inguruko herrixetan berdin berba eitten dogula? Elgoibarren, Azpeittin, Azkoittin...

- Ez, ez, ez, ez. Behin, Azkaraten harutz pasau ezkerro asko kanbixatzen da e, asko kanbixatzen dok.

- Bai? Ze eitten dou, ba, diferente guk?

- Hor e... gauzia esaten [...] gauza asko esaten jako, baiña beste izen bat esaten jako gauza askori. Bai, hori bai. Konparazio, "abarketak" guk esaten dogun moduan "aparketak" han.

- Hori nun?

- Azkoittixan.

- Azkoittixan?

- Azkoittixan, "aparketak". Ta... gauza asko. Han "hoixek" eta "haixek", han beste, beste zera bat dao hor, hor zihar darian. Oin, euskaria hau baiño garbixaua izango dala haura? Hori pentsatzen juat nik.

- Azkoittikua garbixaua?
- Azkoitti, Azpeitti, Tolosa... Hor goittik beherakua, hori euskera garbixaua dala hori. Hau Elgoibarren asko e, hamengo jentia ta Eibarkuak ta ere, erderaz ez juau eitten ta euskeraz ez juau eitten. "Bentaniari" Azkoittixan "lehixua" esaten jauek, hamen "bentania" esaten diok ta "ventana" dok erderaz. Ta ze esaten juau? Ez erderaz, ez euskeraz. Azkoittixan ta "lehixua" esaten juek, horreatikan hor euskeria hor asko garbixao dao hamen baiño.
- Ta, Deba aldian ta?
- Deba aldian hamengua asko.
- Bai?
- Bai, hau hamengoau, hamendikaldetikan. Behin Itziar aldera asko berriz ere Azkoittiko zera sartzen dok pixkat.
- [...].
- Bai, bai, bai. Ta Bizkaikua, berriz...
- Markiña aldian ta...
- Entendi eik horkua! Hor gurekin ibiltzen danorrek eta...
- Lekeittixo aldekuak entenditzeko...
- Horrek... Entendi eik hori! Hori ez juek entenditzen ezta, ezta... Hor e, iñoiz e, ni zela egon nitzan hor Eibarren, Agiñan edo morroe egon nitzan lekuan, han Bizkaiko hizkeria itten zuan. Nik han dana [...] najuan, entendidu najuan hangua, Bizkaikua dana entenditzen juat, nik bizkaitarra dana entenditzen juat, baiña, askok "Ze esan jok horrek?" ekiñaldixa einda. Baiña harek euren eitten juek eta...
- Bai, bai, normala...
- Hamen e, paraje bakutzian bertakua ei dok edarrena eta...
- Bai, bai, guk geuria eingo dou.
- Hori dok, hori dok.

10.2. Elgoibarko auzoetan alde euskaran

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Osoro, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Ibon
- **Erref**: EGB-021/034
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 01:01:04. **Bukatu**: 01:01:49
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Odria, Ane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Elgoibarko auzoen artean ere badago alde pixka bat. Esaterako, San Migelen Bizkaiko ikutua sartzen da eta beste aldean Azkarate aldera dauden baserriei gauza bera gertatzen zaie.

Transkripzioa

- Ta auzuen artian diferente eitten dogu? Igual San Lorentzokuak eta San Migelguak diferente eitten dabe?
- San Migelen pixkat sartzen dok Bizkaikua.
- Bai?
- Bai, hor hegalian sartzen dok hor; hamen behian ez, baiña goixan bai, San Migelen Bizkaikua sartzen dok pixkat.
- Ta Azkarate aldian ere berdiña pasauko da, ez?
- Azkarate aldian ere Lekunberriraiño sartzen dok Azkoitikua sartzen dok.
- Ya Lekunberri aldian bai ya?

- Lekunberrin ere bai iñoiz, bai, bai, nik Lekunberrikua iñoiz entzun juat azkoitiar: "hau esan dixe" ta "haura eman dixe" ta "ein zixen haura" ta hamen ez juau hori esaten, hamen "ein juen" ta "ekarri juen" ta...
- Bai, bai...
- Baiña sartzen dok, hor hegalian sartzen dok, ta San Migelen ere Bizkaikua sartzen dok pixkat.

10.3. Euskara ia galduta egon zen kalean

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bergaretxe, Bentura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lodoso, Ainhoa
- **Erref:** EGB-027/017
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:22:49. **Bukatu:** 00:24:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Sasoi batean euskara ia galduta egon zen kalean. Bera eskolan zebilenean irakasleak debekatu egiten zien euskaraz hitz egitea. Lagunartean ere gaztelaniaz hitz egiten zuten eta azkenerako euskara ia galdu egin zen kalean. Hala ere, etxean euskarari eutsi zioten .

Transkripzioa

- Euskeria sasoi bat izan zan galdu zana esate baterako. Guk ez, baiña kalia-ta bai.
- Bai, eskerrak, zuek baserrixan bizi izatiak...
- A, horretarako gu [...]. Oin, gaztetan, eskolan ibili giñan sasoi haretan galdu erain... galerazi in ziguen, e, euskeria praktikatzia o euskeraz berbetan eittia galdu erain ziguen, e! Eta goguan dakat eskolan ibili giñanian, maistriak nola esaten zigun —Altzolan, gu han San Antolindik— nola esaten zigun maistriak: zerian, ez, e! —esaten ziun— kanpua nahi genduana, baiña eskolan ezta berbarik ere ez euskeraz, e! Eta dana erderaz. Gero umiak, ohi dan moduan, ohittu giñan erderaz eittera kanpora ertenda ere eta lagun artian ere ya euskeraz baiño errezaio kasik eitten gendun erderaz orduan. Erderaz. Zihero erderara. Eta gure atzeraokuak oindio gehixao. Sasoi baten ya zihero galdu zan euskeria. Guk etxian-ta ez, basarrixan, eitten gendun euskeraz, familixan, euskeraz, ezta? Baiña kanpua, lagun artian-eta, ba, erderia. Maiorra erderia eitten gendun. Ta gero, ba, esan doana: euskeraz. Ta gero hona etorri ta nere gizonak erderaz batere ez, ba, zihero euskeraz-euskeraz. Guk zihero-zihero-zihero euskeraz eitten dou familixan. Zihero. Oin, gaztiak erderaz ere ondo eitten debe, [kanpua dabilta eta]. Baiña guk bai.

10.4. Euskara kalean ikasi zuen

- **Hizlaria(k):** Ruiz de Gauna Ibañez de Garayo, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-045/005
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:07:57. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elxpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak
- **Laburpena:** Gurasoak erdaldunak ziren, eta Ferminek euskara kalean ikasi zuen.

Transkripzioa

-Zure aitta-amak euskaldunak zien?
 -Ez dizut ba esaten? Salbatierrakua aitta ta...
 -Aittak eitten eben euskeraz?
 -Ez.
 -Eta amak?
 -Ezta.
 -Zuek nun ikasi dozue?
 -Kalian.
 -Kalian, e?
 -Ta erderaz baiño lehenao.
 -Bai? Orduan euskeraz eitten zan beti, ezta?
 -Guk bai behintzat.
 -Zuk jaixo ta segidan ikasiko zebeu euskeraz baiña etxetik kanpo.
 -Klaro, amak-eta ez zekixen eta. Nik bixetara eitten neban gero, erderaz eta euskeraz.
 -Orduan hemen erdeldun gutxi egongo zan.
 -Erdeldun gutxi? Erdeldunak ointxe geanak edo gehixao igual.
 Elgoibarkuak.
 -Baiña artian be kalia eta mutikuak-eta danak euskeraz.
 -Euskeraz asko, bai.
 -Zuek anai-arrebok danok ikasi ziñuen euskeraz?
 -Danak.

10.5. Eskolan erdararekin arazoak

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Larrañaga, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** EGB-046/015
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:37:28. **Bukatu:** 00:40:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan ez zuen futboleko jolasten, erdaraz hitz egiten ez zekielako. Berak pilotan edo amuarrainak harrapatzen jolasten zuen. Euskaraz egiten zuenari eratzuna jartzen zioten. Ostegun arratsaldea hartzen zuten jai eskolan, baina larunbat goizean eskolara joaten ziren. Maisua donostiar erdaldun bat izan zuten.

Transkripzioa

- Eskola denporan-ta ze jolas klase eitten zittuein mutikuen artian?
 - Bueno, jolas klasiak... Orduan futbola bazauan. Futbola bazauan, baiña nol futbolian eitteko, erderaz ein bihar zan. Orduan anillua ta puñetia zauan euskeraz eitten zabenari.
 - A! Zuei ifintten otsuein anillua?

- Bueno, neri ez zien ipini sekula, baiña...

- Baiña hori ezautu dozu?

- Ezautu dot. Eta nik, orduan, edo pelotan eitten naban edo erre kara juaten nitzan amorraiañak harrapatzera eskuakin. Ta hantxe ematen naban nik... Eske ezin naban ein berbarik, ez nekixen ta! Eta eraztuna ez erutiarren, ba, errekan egoten nitzan amorraiañak harrapatzen eta errekreua amaitzen zanian, juaten nitzan eskolara.

- Orduan zuei eskolan euskeraz itteatik eraztuna ifintten otsuein?

- Bai! Hori Francon denporan. Aurretik ez, e.

- Bai. Baiña hamen uste dot lehenengo aldixa entzuten dotena, e! Gurian bai, osea, Oñati añdian eta Debagoixenian eitten zan hori.

- Hamen ere bai. Hamen ere bai, e! Bai, bai, bai.

- Eta gero eguna akabaitten zanian eraztuna euketak ze kastigo eukitten eben?

- Ba ez dakit ez zan izeten zapatuan artsaldian eskolara jun bihar edo holakon bat.

- Orduan zapatu goizetan be eskolara faten ziañain?

- Bai.

- Lanian modura?

- Eguena eitten genduan jai uste dot, eguen atsaldia edo, jai eitten genduan.

- Orduan zuk eraztunana ezaututa dako zu, e?

- Bai, bai.

- Eta zuk eskolan, auzuan bertan zeuket zuein eskolia?

- Bai, Sallobenten. Sallobenten.

- Oindiok eraikuntza hori esistitzen da?

- Eraikuntza hori esistitzen da, baiña soziedade bezela dao oin.

- Bai, bai, eskola askokin pasau da hori. Eta maisua nungua zeukat zuein?

- Donostiarra zan ta ez zakixen euskeraz. Ta ez dakit zenbat urtian egongo zan hemen, igual 50 urtian bai, basarrixan. Ta ez zakixen euskeraz.

- Donostiarra bera?

- Bai.

- Eta, orduan, esan dozu amorraiañak harrapa itten ta pelotan ta...

- Pelotan ta holaxe. Gero korrika ere bai.

- Fubolian?

- Fubolian, klaro, berba ein bihar zan fubolian gitxi bada be ta...

- Errekreuan be eraztuna ifini eitten otsuein, e?

- Bia, bai.

- Eta, bestela, lagunarteko beste jolasik eskolatik kanpo ezpada be?

- "Erre ta libratzen" esaten giñon, "erre ta libratzen", eskuakin ikutzen bata bestiari. Ez dakit zela dakan izena.

- Bai, bai, "libraitzen" edo, bai. Eta "Txorro, morro" ta? Bata bestian gaiñian... ilaran... makurtu ta bata bestian gaiñian...

- Ez... bueno, bai, zeoze akordatzen naiz, e, baiña ez daukat gauza garbirik hori.

- Eta neskakin sekula eitten ze ben jolasian?

- Ez, ni hortan izan naiz motza izan naiz. Oso motza. Gero ere bai, e! Gero ere bai.

10.6. Etxean giro euskalduna; euskarazko "kina"

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Laka, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: EGB-104/003

- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:01:41. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Etxean euskaraz egiten zuten arren, eskolan erabat erdalduna zen giroa. Amak gogor egiten zien gaztelaniaz egiten bazuten, eta "isunak" ordainarazten zizkien. Zortzi urte inguru zituela, Elgoibarko Izarrak antolatutako euskarazko "kina"ra joaten zen, Loritoneko lokalera, euskarazko hiztegia eta euskal kantak lantzeko. Anai-arreba gehienak eskola nazionaletara joan ziren, baina gazteena ikastolara.

Transkripzioa

- Eta etxeko girua... ze hizkuntza... euskeraz eitten zan zuen etxian?
- Hori da. Euskeraz eitten zan nere etxian, baiña, klaro, eskolara hasi giñanian, erabat erdalduna zan giroa eta nere ama zanak ipintzen zaban frigorifiko gaiñian ipintzen zaban itxulapiko bat eta pezeta bat edo ez naiz gogoratzen oin -ze txakur haundiak eta txakur txikiak ere ezagutu genituen-, baiña dirua sartu bihar izaten genuen, ama oso gogor jartzen zalako, euskeraz egin bihar genuela eta... Klaro, gu eskolatik, bueno, etxera juaten giñanian, hasten giñan erderaz eta... hori. Hori ezagutu naban, bai. Eta gerora, ba, 8 bat urtekin-edo hasi giñan... hasi zan ba Elgoibarko Izarra elkartearen bittartez edo, euskera pixka bat reforzatzeko edo, Kinak. Umeentzako kina sortu zuten. Hemen Loritoneko -gerora izango zana ikastolia- Loritoneko lokaletan edo, Kina eitten gendun arratsaldetan. Eskolatik irten eta euskerazko hiztegixa lantzearen eta euskal kantak abestearren eta hola. Eta han izan nittun gerora nere ikasleak -ikastolan- nere ikasleak izango ziran irakas... ikasleak izan nittun irakasle kina horretan: Begoña Andonegi, ta izan zan... Lurdes... ez naiz gogoratzen abizena, Lurdes `Zorrillo´ esaten genion, baiña. Eta, ba, bueno Begoña izan zan gero nere ikaslea gau-eskoletan hasi giñanian ikastolan klasiak ematen.
- Eta Kina horretan hiztegixa esan dozu lantzen zala?
- Bai. Zian holako kartoi batzuk, ba, bingoko kartoiak bezela, eta ipintzen genitun tirita batzuk, ba, bueno "urrutizkiña" ta holako hitzak ikasten genittun; ba "aterkia", guk "guardasola" esaten gendun ta "aterkia"... ta bueno. Hola. Ikasten genuen hori. Eta gero, ba, euskal abestiak, ez bakarrik herrikoiak. Nik gogoratzen dot: "Arratsa Moskun, hotza ta ilun..." ta halako ba euskalduntutako erdal abestiak edo hola ikasten genituen. Hortik ya... ba, klaro, orduan umia nitzan, baiña...
- Eta hori, baiña, zelan? Elgoibarko Izarrak antolatutakua zan?
- Bai, bai. Hor Elgoibarko Izarran, bueno, hasiera-hasieratikan ibili zan zera, Felix Etxeberria, lan hoietan, ez? Eta nik uste dot hor zerbait egin bihar zala Elgoibarren euskera galtzen-edo ari zala edo Elgoibar nahiko industrializatua zegoen, ba, nahiko erdalduna zala-ta, ba, nik uste dot hortan hasi ziala. Eta, kasualidadez, ni bizi nitzan herriaren arrabaletan, oin Maala dan gune zentro horretan, eta, adibidez, nere senarra izango zana bizi zan plaza aldian eta haiek ere juaten zian. Batzuk juaten zian kina horretara. Ez? Ba ez dakit. Ta nere amak... ni bakarrik uste dot egon nitzala. Nere anaiak-eta ez zian jun. NI, bueno, txikienetakua nintzan, e.
- Baiña hori izango zan baitta ama oso euskaltzalia zalako eta...
- Bai, bai, bai. Eta, adibidez, nere... Gu danok ibili giñan eskola nazionaletan edo. Seigarrena nitzan eta ya zazpigarrena -orduan hasi zan

ikastola eta- ya haura jun zan ikastolara, ze ordura arte ez zauan. Ni baiño, ba, ez dakit... Elgoibarko ikastolia... 62an-edo uste dot hasi zala. Anaia gazteena jaio zan 64an eta haura ya jun zan.

10.7. Aitak "euskara-klaseak" ematen zizkion etxean

- **Hizlaria(k):** Mujika Latxa, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-111/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Eskola txikian hasi zen umetan, Satur irakaslearekin. Zazpi urterekin fraideetara joan zen. Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten eta baita lagunartean ere. Euskaraz etxean bakarrik. Aita konturatu zen Txominen euskara trakesten ari zela eta eguerdian "euskara-klaseak" ematen zizkion etxean.

Transkripzioa

- Ni eskola txikixan hasi nitzan hemen. Señorita Satur zan, Elgoibarko ume guztiak 50-55 urtetan zihar hor egon zian Saturrekin umetaz. Eta gero ya 7 urtekin jun nitzan frailliengana, horra, kolegixora, "Clérigos de San Viator" zian haretzek. Baiña bai hemen eta bai han erderaz, erderaz, dana erderaz. Euskeraz ezer ezer... ezta... ezer ere! Bueno! Lagunen artian erderaz. Telebisua ez zauan orduan, baiña... dana erderia zan! Dana erderia! Etxian. Etxian. Eta goguan dakat ni... gu lau anai gera eta ni nausixena ta, klaro, etxian bai dana eitten gendun euskeraz, dudarik be! Baiña beste dana... Ta aitta konturatu zan ñooo... nik erderakada batzuk be botatzen nebala ta aditz batzuk ez nebala ondo esaten ta hau ta bestia. Ta aittak ein zaban... gure etxian ordubatian bazkaltzen zan beti, ta aitta ertetzen zan taillarretik hamabixetan. Eta denboraldi luze baten egon zan - gu hamabixak eta hamarrian ertetzen giñan kolegixotik-, ni kolegixotik etxera etorri ta aitta txikiteua laga -klaro, hamabixetatik ordubatera, ba, txikiteua lagunekin-, laga txikiteua ta etxera etortzen zan. Ta han zekan liburu bat; bixok jartzen giñan mahai baten eta aittak: "Benga, hau ez dao ondo esanda, hau hola esaten da" ta ra-ra-ra-ra. Bai. Jolin...!

10.8. Aita euskararen egoerarekin eta etorkizunarekin kezkatuta

- **Hizlaria(k):** Mujika Latxa, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-111/013
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:15:01. **Bukatu:** 00:16:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Euskara » Euskararen egoera

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Aita oso kezkatuta zegoen euskararen egoerarekin eta etorkizunarekin eta hala esan zion Felix Etxeberria `Parapan´i: lehenago topatuko zuela perretxiko bat Plaza txikian, umeak euskaraz hizketan baino. Zorionez, umeak hasi ziren pixkanaka euskaraz, baina aitak perretxikoa ere topatu zuen.

Transkripzioa

- Sarritan erten da hor Elgoibarko Izarrako anekdotetan eta. Aitta zauan euskerian egoerakin ta ikusten zan etorkizunakin... bueno! Ta Felix Etxeberriakin `Parapan´ekin berba eitten zaban. Ta aittak esan zion Felixi: "Hi, Felix, nik lehenau topauko juat perretxikua Plaza Txikixan -Plaza Txikixa hori da- Plaza Txikixan perretxikua - nere aitta perretxikozalia zan amorratua- lehenau topauko dot perretxikua Plaza Txikixan Elgoibarren ume batzuk euskeraz eitten baiña". Eta gero umiak euskeraz eitten. Baiña gure aittak perretxikua topau zaban Plaza Txikixan! Bai. Hor, enbor baten onduan, ta-ta-ta... aiba perretxikua! Ordurako ya euskeria ya hasitta zauan, baiña bai.

- Zure aitta zan hori esan zebana, ezta? Hori entzunda nekan.

- Bai, bai. "Lehenau topauko dot perretxikua Plaza Txikixan...". Ta harrixa zan, ez zauan besterik, baiña enbor baten onduan topau zaban. Ta esaten zeban "Oin ya, zorionez, ya euskeraz entzuten dou, baiña nik ere perretxikua topau dot, e!". Bai.

10.9. Erdaraz ikas zezan, neskame erdalduna

- **Hizlaria(k):** Loiola Ugarteburu, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-112/005
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:02:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Erdaraz ez zekien. Neskame bat ekarri zuten, berak erdaraz ikasteko. Eskolan hasi zenean, ez zekien erdaraz. Sarri zigortzen zituzten gazteleraz ez hitz egiteagatik.

Transkripzioa

- Hemen auzuan eta etxian euskeraz eingo zenduen danak, klaro.

- Zuk esango diazu... Nik erderaz ez nekien. Eta orduan ekarri zuten hona kriada bat, nik erderaz ikasteko, gazteleraz ikasteko. Ze eskolan hasi giñenean, izugarrizko arazua izan zen. Nik ez nekien erderaz. Ni bezela inguruko guztiak; inork ez genekien. Orduan, ordu asko pasatzen genituen belauniko, besuak altxatuta. Eta zigor asko gazteleraz ez hitz egiteagatik. E? Garai zaillak zien. Oso zaillak. Guk, gogoratzen naiz, "Cara al sol" nola abesten genuen eta "Viva España" nola abesten genuen. Eta horrek gero kontraesan haundi bat zeukan etxekoekin, aittitta, amama... amama ez hainbeste, baiña aittak-eta: nola leike hori abestu umeei, nola abestuarazi. Bueno, baiña garaiak haretzek zien eta burumakur ahal zan neurrixan dana aguantatzen euskeraz ez jakitzeagatik eta ez egiteagatik.

10.10. Konturatzeko, erdaraz

- **Hizlaria(k):** Loiola Ugarteburu, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-112/009
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:09:06. **Bukatu:** 00:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Konturatu gabe, auzokoen artean ere gaztetan erdaraz hasi ziren. Gazteleraz hitz egiteak maila altuagoa ematen zizula zirudien.

Transkripzioa

- Baiña gero, pentsaizu, ya erromerixan hasi, 15-16 urte, eta konturatu barik hasi giñen geure artean ere gazteleraz hitz egiten. Konturatu barik.
- Auzokuak?
- Auzokuak. Hori sartu ziguten eta... Zer esango dizut? Giroa ere halakoa zen. Esan dizudana, bertso-saio bat egiteko, baimena eskatu behar zen. Hainbat gauza egiteko, baimena eskatu behar zen. Orduan, bazirudien gazteleraz hitz egite horrek maila altuago bat ematen zizula. Hala da. Hala da. Gero, ba, zer esango dizut? Ikastolak eta guzti hori hasi zanian, ba, ze esanikan ez, ya... geu giñan, euskaldunak. Geu giñan geurera berriz bueltatuta.

10.11. Euskara irakasle eta itzultzaile udaletxean

- **Hizlaria(k):** Loiola Ugarteburu, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-112/023
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:35:57. **Bukatu:** 00:37:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena:** Udaltzainek galdetu zioten ea euskaraz erakutsiko zien. Hala, pare bat urtez aritu zen haiekin. Udaletxean eskatu zioten funtzionarioekin lan bera egin zezan. Itzulpenak egiten ere hasi zen. Udaletxeko lehen itzultzailea izan zen.

Transkripzioa

- Gero, ya handik, bueno, itzultzaile ikastarua egin eta gero, hasi ziñan udaletxian edo...?
- Bai, hori da. Ni... Klean bi munizipalek esan zidaten: "Zuk erakutsiko zenizkiguke guri euskeraz?" eta "Bueno, ba, bai, nahi baduzue, bai" eta bata zan gallegua eta bestia andaluza. Eurak ez zeukaten heziketa ezta gazteleraz ere, e? Oso zaila zan, ortografiako faltak eta abar, ezta? Baina, bueno, hor egon nintzan eurekin pare bat urtian edo. Eta gero... hoiiek hasi ziren eta gero udaletxean esan zidaten aber zergatikan ez nintzan hasi langileekin, funtzionarioekin, ezta? Eta hasi nitzan funtzionarioekin. Eta jendea interes haundiarekin eta dana, eta baita ere batzuk titulua ere -EGA ere- atera zuten. Eta hor hasi nitzen, ba, bueno, eman zidaten itzulpen batzuk egiteko, ofizialki atera behar zirenak, beste euskeraz zetozen

idatziak ere gaztelera ipintzeko eta abar eta abar. Eta hola hasi nitzan. Goizian pare bat ordu euskera irakasten, alfabetatzen jendea, eta gero, ba, besterik Gabe.Hitzarmen bat egin zidaten. Baina, esaten dizut, hasi nintzanean nik ez nekien zer egin behar nuen eta eurak ere ez zekiten nerekin zer egin.

- Zu izan zinen lehenengo itzultzailea, ez? Udaletxeko...

- Bai. Bai. Eta orduan halaxe zan.

10.12. Pedro Muguruza eskola publikoa euskaldundu zenekoa

- **Hizlaria(k):** Segundo Armero, Andoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-123/015
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Pedro Muguruza eskola publikoan irakasle euskaldunak sartzen hasi zirenean, lehenago zeuden irakasle erdaldunak, jatorrizko herrietara itzuli ziren. Euskalduntze prozesua bi urtekoen gelatik hasi zen.

Transkripzioa

- Esan doguna, zuek hasi ziñaten ya guraso bezela D ereduia lortu nahian eta zer gertatu zan... hasi ziran irakasle euskaldunak etortzen eta hango irakasliekin zer gertatu zan? Euskaldundu ziran edo...?

- Ba ez. Alde batetikan ya nagusiak ziran. Eta, gaiñera, ba, bueno, lortu zuten -puntuazio nahiko altua zuten eta- lehiaketa.... Zelan esaten da? Leku-aldatze lehiaketan lortu zuten bere probintzietan edo beste lekutan... hau da, bueltatu zian jatorriko... jatorrizko herrietara.

- Orduan, eskolia berritu in zan guztiz, ez?

- Guztiz, guztiz, guztiz. Elgoibartar batzuk ere ya sartu zian eta, enfin, hasi zan... Prozesua, ba, pentsau, ba, 6-8 urte zian EGBn gehi 2 eskolaurrian, ba, 10 urteko prozesua izan zen.

- Pixkanaka-pixkanaka, ez? Nundik hasi zan euskalduntze-prozesu hori, Haur Hezkuntzatik?

- Klaro, klaro, 2 urteko gelatikan.

- Behetik gora juan zan.

- Behetik gora, klaro. Behetik gora. Allegatu zan, adibidez, ba, azkenengo urtia izan zen, ba, euskeraz ez zekiten irakasleak bizpahiru ziran eta gelditu zirenak azkenenego kurtsoakin, bukatzeaz zegoen kurtsoakin. Baiña sasi-baztertuta, ez?

- Eta gero, hori, irakasliena esan dogu, baiña gero materiala ere lehen dana gaztelaniaz egongo zan, irakasgaiak euskeraz...

- Bai, ba, prozesua paralelo... ikastolan egin zan bezala, ez? Ba paraleloa. Klaro, aurrera jun ahala, bai liburuak, materiala, apunteak... Eta ohiturak, adibidez, irteerak edo bisita didaktikuak eta...

- Hori da. Dana.

10.13. Guraso erdaldunen onespena D ereduari

- **Hizlaria(k):** Segundo Armero, Andoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-123/016
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:33:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Guztiz espainolizatuta zegoen eskolan D eredia ezartzea ez zen erraza izan. Gurasoen onespena behar zen eta gehienek ez zekiten euskaraz, eta D ereduaren alde egin zuten.

Transkripzioa

Eta azpimarratu behar dut, gainera, D eredia ezartzea guztiz -guztiz, e!- espainolizatutako eskola baten ez dala erreza, lehen esan dudana bezala. Klaro, gurasoen onespena ere lortu behar zan eta guraso gehienek ez zekiten euskara. Eta, hala ere, D eredia beti babestu egin zuten, hau da, oso babestua izan zen D eredia. Eta Muguruza eskola garai hartan oso kontraste haundiko eskola zan. Ze zan eskola komarkala. Ordun, jasotzen genitun auzoetako ikasleak, inkluso baserrietako jendia. Ordun, bazegon -ba, ez dakit ze porzentaia egongo zan, baiña- porzentai bat euskaldun peto-petoez... [dago]. Hau da... Holan. Eta kontrastea zen. Ba, bueno, hori lortu zan aurrera eramatea. Baiña, klaro, D ereduakin kriston lasaitasuna guraso horientzako eta besteentzako be, ba, euskalduntze-prozesua onartzen zuten eta, gaiñera, ba, guraso gehienek bezala, ezta? ba beren seme-alabentzako hori nahi zuten etorkizunera begira.

10.14. Etxe euskalduna erdaldundu eta berriz euskaldundu

- **Hizlaria(k):** Arrieta Soraiz, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-125/005
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:03:39. **Bukatu:** 00:06:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararekiko sentimendua
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Ume zelarik, etxean erabat euskaraz egiten zuten. Kalea erdalduna zenez, pixkanaka erdara ere etxean sartu zen. Neurri batean, mantendu zuten euskara eta ez zuten galdu. Hamalau urterekin seminariora joatea erabaki zuen eta hantxe piztu zitzaion euskararekiko irrika. Berriz etxea euskaldundu zuten.

Transkripzioa

- Euskeraz eingo zenduen.
- Bueno, euskerarena aipatuko dot ondoren, baiña, bueno, txikitari eta bizitzako lehenengo urteetan euskara zan nagusi gure etxian. Gure etxian euskeraz hitz egiten zan. Baiña arrebak... kalia zihero erdalduna zen, eskola erdalduna zen, eliza erdalduna zen, kuadrillak erdaldunak zian. Eta, orduan, poliki-poliki erdal mundu hori, erdal hizkuntza hori gure etxian ere sartzen hasi zan. Eta gurasoak ahalegina egin arren ez gendun lortzen

erabat etxia euskaldun izatia, nahiz eta saritu edo zigortu. Baiña... Azkenian kalia zan ufala, uholde haundi bat bezela, eta eraman gintuzten aurretik danok. Ezta? Dena den, nik usten dot mantendu gendula neurri batian euskera. Ez zihero, baiña mantendu gendula, ez gendula galdu. E? Eta euskeraz ere hitz egiten gendula. Pilarrian 14 urtera arte ikasi nun, Batxillerra, laugarren kurso... bueno, laugarren kursora arte. Eta ya 14 urtekin ze eta pentsatu eta erabaki nun Seminariora jun behar nuela. Gurasoak pozik. Aitta eta ama oso erlijiosoak zian. Eta 14 urtekin Seminariora jua nintzian, tak! piztu zitzaidan euskera mundua. Eta kontzientzia hartu nun, ikustia gure kursuan, ba, Laxaro Azkune -arpegi ezaguna da bertso munduan, Loiola irratan... Azpeitiko baserri batekoa-, Jon, Juanito, Amenabar -Azpeitiko ikastolako zuzendari izandakoa, haura ere Urrestillako basarri batekoa-, beste batzuk Abaltzisketakoak, beste batzuk Gaintzakoak, ez dakit zer ta... Euskal mundua ere bazegoela gure artian, gure kursoan, nahiz eta erdaldunak egon, euskaldunak. Eta euskaldunen artean ere ohitura zutela euskeraz hitz egiteko. Ni eurengana arrimatu nitzan eta euskera hasi nitzan euskera gehiago eta gehiago. Oporretara nentorrenian ere, etxian eta abar, hasi giñan kontzientzia hori eta berpizten eta martxa hartzen eta berriro euskaldundu gendun erabat gure familia euskerarekiko zera hori, harreman hori, ya estutu in zan, ezta?

10.15. 1950-1970ean Elgoibar hain erdalduna izateko arrazoiak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Soraiz, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-125/018
- **Iraupena:** 0:05:35. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:41:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** 1950-1970 tartean Elgoibar hain erdalduna izateko arrazoiak ematen ditu: inmigrazioa, elizaren jarrera, erregimenaren aginduak, eskolaren jarrera erdalzalea eta etxeetako transmisioa galdu izana. Baserritarrei burla egiten zieten, baita fraideek ere.

Transkripzioa

- Zuk esan dozu lehen zuek umiak ziñazienian oso erdeldunduta zeuala Elgoibar. Zeintzuk dia horren arrazoi nagusixak? Bueno, bai, debeku horrek eta holako... eskolia oso erdelduna zalako edo kokapenagaittik, pasoko herrixa zalako edo...?

- Nik usten dot... horrek danak du... Arrazoiak hoiak danak dia, e. Gerra ondoren aurretik immigrazio haundia izan gendun, baiña dana ez dao horri leporatzerik. Elizak bere eragina izan zun nahiz eta gero apaiz batzuk ez dakit zer ezkutuan. Erregimen totalitario horrek jarritako eta oin esandako araua, debekatuta zegoela eta, gaiñera, paisajetik euskera kendu behar zala: kale izenak-eta gaztelania hutsez, kanposantura joan eta han ere gaztelaniaz hutsez izan behar zuela. Elizak. Eskola erabat erdalduna eta erdalduntzeko interes haundia zuen. Eta, gaiñera, hortan bakarrik... maisu guztiak erdaldunak izan genitun. Eta bateron bat euskalduna baldin bazan ere, ez genekien, ze euskerarik ez genion entzun inoiz. Horrek berak ere nahikua egin zun, horrek, eskolak eta elizak, denok erdalduntzeko gure mutil-koskor eta neska-koskor garaian, denok gaztelaniaz hitz egiteko. Eta poliki-poliki hori eragin hori ere etxeetara iritsi zan. Eta lehen esan dot:

immigrazioa ere inportantea. Gure geletan kanpoko jendia: galegoak edo andaluzak eta abar.

- Eta gero baita Araba aldetik etorri zan jente asko, ezta?

- Arabatik, eta batzuk naparrak ere bai. Arabatik ere dexente etorri zian. Baiña gehienbat galegoa 50eko hamarkadan. Galiziatik asko. Eta, konkretuki, Allariz ingurutik jende pilla bat. Urte batzuetako datuak jaso nitun nik Udaletik. Hasieran ba urtean hainbeste etortzen zirela edo hau etor... jasotzen zan. Gero ya utzi zan. Gero padroietatik atera beharko litzateke hori, zenbat etorri zian kanpotik. Baiña aipatuko nuke kanpotarrei erru guztia bota biharrian, nik usten dot euskal sukaldeetan, gure sukaldeetan, galtzen jua da... jua zan euskera. Gure kuadrillan badaude euskal abizenak guztiak euskaldunak dituztenak eta nik usten dot famili hoietan edo gutxi hitz egin zan edo ez zan hitz egin eta hoiek ez dakite tutik ere ez. Eta nere kuadrillan dauzkat nik batzuk. Eta ez dutenak egin, gaiñera, esfuertzorik euskera ikasteko geroago. Gutxi batzuk egin dute esfuertzo hori. Euskera basarri munduan. Eta gero ze iten gendun kaletarrok? Burla egin basarritarrei euskeraz... edo arloreak zirelako edo... Garai hartan ere jantzi desberdin jazten ziran. Pilarren bageneuzkan basarritarrak. Praileek barre egiten zuten euren kontura. Usaiña. Garai hartan, basarria, korta... Jantzi. Gu ondo ez. Guk azkenian [krisiko] jertsia eta aurreko anai-arreben erroa erabiltzen gendun, ez gendun aldatzeko erroa asko, apurtzen bagenduan, haura konpondu eta aurrera eitten gendun. Gaztetxoak giñala hori, umeak eta. Eta haiek desberdiñak zian garai hartako baserritarrak. Eta gelan nabarmen gelditzen ziran. Eta praileek haien kontura barre egiten zuten. Eta besteok korua egiten gendun haien kontura. Ezta? Iruditzen zait tristeza zala. Erregimenak berak bere alde jarri gintuzten eta barre egiten eta burla egiten haieri.

- Bai. Eta gero azkenian basarritarrek be izango zian euskeraz gehixau eitten zebenak, baiña konplejuagaittik... ba gero gaztelerara...

- Konplejuagatik batzuk baztertu ere euskera edo... zera. Nik nere emaztearen tia bati entzun izan diot kalia barre egiten zietela euskaldunak zialako. Azkenian, maitasun-gorroto hori sortu zan ere, ezta? Hemen hizkuntza eta kultura nagusia gaztelania zan eta española zan eta mekanismo ugari goitik jarrita Erregimenak eta legeak ere bai, baina gero denok barruan sartu gintuzten eta gurea zana baztertu eta gorrotatu azkenian. Prozesu hori eman zan.

10.16. Urasandiko eskola A erdutik B eredura aldatzeko prozesua

- **Hizlaria(k):** Castilla Molin, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** EGB-143/015
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:18:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Euskara indarra hartzen ari zela ikustean, Urasandiko eskola publikoak A erdutik B eredura pasatzeko urratsa ematea erabaki zuen. Horrek euskara zekiten irakasle berriak kontratatzea eta euskararik ez zekitenak beste nonbaitera bideratu beharra suposatzen zuen. Eskolan geratu nahi zuten irakasleek euskara ikasi beharra zuten eta horrela hasi ziren zenbait irakasle herriko euskaltegietara joaten. Prozesu gogorra izan zen.

Transkripzioa

- Ta gero, horretaz aparte, pues, hori, ikusten genuen zer indarra hartzen ari zen euskera eta ikusterakoan zer indarra hartzen ari zen, eskolak berak beraren planteamentua egin behar izan zuen. Orduan, A eredutik lehenengo pausua izan zen B eredia eskatzea. Horrek suposatzen zuen plantillatikan hainbat plaza perfilatzen zirela euskera... Orduan, horrek suposatzen zuen zeuden irakasleen artean beste toki batera jun beharko zirela. Hori ez da inoren gustokoa, baina, klaro, mahai gainean jarri behar dituzu gauza guztiak. Aurrera jarraitzea nahi badegu, gure aldetikan ere jarri behar degu. Orduan, hasi giñen hortikan. Klaro, geundenon artean ere euskera ez genuen menperatzen. Eta menperatzen bazendun eta ez bazeneukan titulorikan ere ezingo zenuen aurrera jarraitzea. Orduan, geure aldetikan ere jarri behar genuen. Ez bakarrik eman behar dizkiguten baliabideak ez zen asuntua, baiziki eta geuk hortxe jarraitzea nahi bagendun, geure aldetikan ere egin behar genuen. Orduan, klaro, bakoitzak pentsatzun zun: "Bueno nik nere etorkizuna nun kokatu nahi dudan. Hemen Elgoibarren? Pues, badakit zer egin behar dudan. Hasi behar dut nire aldetikan euskera klaseak hartzen". Orduan, honela hasi giñen. Hemen Elgoibarren zeuden bi euskaltegi, pues orduan klaseak bukatu ondoren, orduan hasi giñen euskaltegira etortzen. Baiña, klaro, hori zen bakoitzaren erabakia, bakoitzak zer nahi genuen geuretzat. Eta, orduan, honela jun giñen pues, hori, eskolaren eredia aldatzen, baiña suposatzen zuen eskolan beherakada handi-handia eta hortikan, esaten den bezala, "como el ave Fénix", heltzen zara eta gero, pues, hori, aber ze planteamentu egiten dituzun aurrera jarraitzeko.

- Irakasle euskaldunik batere ez zegoen?

- Gero A eredutikan B eredura pasatzerakoan ya departamantuan segun eta zenbat ikasle zeuden, hainbat irakasle euskerakoak izan behar ziren. Orduan, hortikan harrez geroztik ya hasi ziren euskera zekiten irakasleok etortzen. Ba B ereduak suposatzen zuela, pues, hori, gizarte klasea, matematika klasea, natur klaseak eta horrelako klaseak euskeraz izatea. Orduan irakasle hoiak izan behar zuten perfil hori klase hoiak euskeraz emateko.

11. Iritziak

11.1. Ahal zen azkarren ekarri behar umeak

- **Hizlaria(k)**: Muguruza Alberdi, Agurne; Muguruza Alberdi, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Erref**: EGB-068/010
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:11:56. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ezkondu ziren eta ekarri zituzten umeak. Ahal zen azkarren ekarri behar ziren orduan, ez zen orain bezala. Bizimodua zeharo aldatu da, ez daki onerako ala txarrerako. Orduan errespetu handia zegoen etxean.

Transkripzioa

Eduarne:-Eta gero hori. Ezkondu giñan eta, Nati, ekarri gendunazenan umiak...

-Zuen sasoiak umia eukitzia ta haurdun egotia ta zela izaten zan?

Eduarne:-Euki in bihar zan; derrepente ez bazenduan ekartzen, ematen zaban ez zenduala balio. Ez da oin bezela, programauta dauala dana.

-Lehen ezkondata segiduan ekartzen zan...

Eduarne:-Ahal zan azkarren, ahal zan azkarren.

-Puxkat tardau ezkerro ya, horrek ez dau balio.

Eduarne:-Ene, horrek ez dau balio. Hola zan, e. Eta oin enkanbio esaten debe ezkondata, bueno, aprobe txau in bihar dou oin urte batzuk, ondo pasatzeko eta. Baiña ez, oso diferentia bizimodua. Beittu, gu gaztiak giñanetik hona "ciento ochenta grados" esaten dana kanbixau da. Oin, ez dakit onerako o txarrerako, e! Batzuetan pentsatzen dot ez dala hain onerako ere. Zegatik oin dauan beste libertade ez zauan lehen eta.

Nati:-Eta lehen zeuan errespetu haundixa etxian. Eta esaten zeuben, halako ordutarako etorri bihar dozu eta halako ordutarako etorri bihar giñan. Eta angelusa hamarrak inguruan, ordua zan etxeratu bihar ziñana.

Eduarne:-Enkanbio oin eitten debe gaupasa, bi gaupasa igual, zeatik nik nere etxetik ikusten dittut, hor Guass-a egonda ez, horren kontra. Bueno, "unos panoramas...".

12. Bestelako kontuak

12.1. Ordenagailua, loteriarik onena

- **Hizlaria(k)**: Iriondo Garate, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref**: EGB-073/020
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:43:32. **Bukatu**: 00:45:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- **Laburpena**: Ordenagailua izan da beretzat loteriarik handiena. Eta hori hasieran gorrotoa ziola. Jubilatuta gero, semeak oparitu zion. Kazetagunean egin zuen ikastaroa, han ikasi zuen erabiltzen eta orain hori barik ezin da bizi.

Transkripzioa

-Ordenadora izan da neretzako loteriarik haundixena. Eta gorrotua nion, e, gorrotua nien ordenadoreeri zeatik eze beti zela jerentzian egon naizen, beti administratibuak, ezta. Ta esaten nittuan datuak, ba "ordenadora ez dabil". Mekauben la ley, nik datuak bihar jittuat ba ointxe. Ta beti ordenadora, beti, nik gorrotua nakan ordenadoriari. Ez naban ondo ikusten, ta jubilaute gero, jubilaute ta bost bat urtera semiak, fisikuak, esan zian: "Aita, zuretzako ordenadora...", Bai, baiña... "Neuk ekarriko dotsut ordenadora bat. Ta itxuria bera dabillen enpresan ordenadora zarrak kendu eta bat ekarri zian. "Beittu, aita, gauza bat..." DVD asko nakazen, DVD historixakuak eta, DVD nakazen erositta, ta ikusi! Joe!, sartu ta plast! Hori bakarrikan. Ta gero hasi nitzan horrek klasifikatzen, baiña ez gehixao. Ta kasualidadia, nik, hori momentu horretan Kazetagunea sortu. Kasualidadia!

Kazetagunea sortu danian, Elgoibarren ere bai. Ta jun giñan kursillora, ta jun giñan edadekuak Joseba Laparra ta Manolo Zabala ta ya edadeko jentia kursillora. Ez genkixen ezer, baiña esker kursilluari gero in nittuan beste batzuek, beste kursilluak ere bai, eta oiñ da, bueno-bueno, oin hori barik bizi ezin. Gauza edarra, edarra... Hor dago dana.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. "Pollera", Boliviako jantzi tradizionala (101-213/014)

Jantzi tradizionalak. Bolivian gona luzeari "pollera" esaten diote. Koloretakoa izaten da. Buruan txapel modukoa janzten da. Emakumeek bakarrik eramaten dute arropa tradizionala.

2. Boliviako hizkuntzak (101-213/020)

Boliviako hizkuntzak. Amak aimara hitz egiten du eta aitak ketxua. Norekin hitz egiten duten.

3. Ketxueraz hitz batzuk (101-213/025)

Ketxueraz hitz batzuk.

4. Boliviako janari tipikoak (101-213/029)

Bolivian ohikoa da janari pikantea baina Axeli ez zaio gustatzen. Amak Boliviako plater batzuk egin ohi ditu: "picante de pollo", oilaskoa barazki saltsarekin, edo "cuñapé", gazta beteriko opila.

5. Kongoko jantzi koloretsuak (101-214/016)

Kongon askotan janzten dira koloretako zapiekin. Stefiak ere jantzi ohi du amak egindako soinekoa ospakizunen batetara joatean.

6. Stefiak eta bere gurasoek hitz egiten dituzten hizkuntzak (101-214/018)

Gurasoek hitz egiten dituzten hizkuntzak: frantsesa, lingala eta gaztelera. Stefiak dakizkien hizkuntzak: aurrekoek gainera, ingelesa eta euskara. Gurasoekin gaztelera hitz egin ohi du.

7. Esaldi batzuk frantsesez (101-214/033)

Esaldi batzuk frantsesez.

8. Zotz egiteko abestia lingaleraz (101-214/035)

Zotz egiteko abestia lingaleraz.

9. Kongoko janari tipikoa: "fufu" (101-214/042)

"Fufu", Kongoko plater tipikoa, erakusten du argazki batean.

10. "Fufu" nola prestatzen den (101-214/044)

"Fufu" nola egiten den azaltzen du: juka-irina ur beroarekin nahastuta.

11. Ilean txirikordak nola egiten diren (101-231/019)

Txirikordak ilean nola egiten diren erakusten du Estrellak.

12. Esaldi batzuk lingaleraz (101-231/025)

"Zer jaten ari zara?", "zure izena zein da?", "eserita zaude", "jan behar duzu"... esaldiak lingaleraz.

13. Abesti bat lingaleraz (101-231/028)

Estrellak lingaleraz sehaska kanta bat abesten du.

14. Lehen aldiz Txinara (101-232/007)

Cristina 2019ko udan egon zen lehenengo aldiz Txinan. Jende eta auto pila bat zeuden han.

15. "Euria" txineraz nola idazten den (101-232/017)

"Euria" txineraz nola idazten den erakusten du ikasliburuan.

16. Txineraz hitz batzuk (101-232/032)

Txineraz hitz batzuk

17. Txinatar zotzak (101-232/036)

Txinatar zotzak erakusten ditu. Han ohikoa da jateko zotzak erabiltzea baina Cristinak nahiago ditu hemengo sardexka eta koilara.

18. Txinan plateren orde, katiluak (101-232/038)

Plateren orde ohikoa da katiluak erabiltzea Txinan.

19. Urte Berri txinatarra, ilargiaren arabera (101-232/040)

Txinan ilargiaren arabera kalkulatzen da Urte Berria.

20. Nolatan etorri zen Elgoibarrera (101-233/006)

Madriren ikasten ari zela, Elgoibarko mutil-laguna ezagutu zuen. Hark Euskal Herriko Unibertsitateaz hitz egin zion eta doktoretza egitera etortzea erabaki zuen. Euskaraz ezer gutxi zekien ordura arte, baina mutila euskalduna da (Ken Zazpiren abestiak kantatzen zizkion) eta pixkanaka euskara ezagutzen hasi zen.

21. "Lotsagarria da hemen bizi eta euskaraz ez hitz egitea" (101-233/007)

Euskara ikasten ari da eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko B1 maila dauka. Hitz egitea zaila egiten zaio eta bere buruarekin haserretu egiten da. Hala ere, ikasi beharra duela dio, lotsagarria iruditzen baitzaio hemen bizi eta euskara ez jakitea.

22. Brasilgo paisaia eta biztanle aniztasuna (101-233/009)

Brasilgo Recife hirikoa da. Kostaldean dago, Salvador de Bahiaren goialdean. Brasil oso handia da; Espainia 17 aldiz bezalakoa. Paisaia eta biztanle aldetik aniztasun handia dago.

23. Brasilgo hizkuntza ofiziala, portugesa (101-233/010)

Paisaia eta biztanle aldetik aniztasun handia dago Brasilen. Hala ere, hizkuntza ofiziala bakarra da, portugesa, nahiz eta hegoaldeko leku batzuetan beste hizkuntza batzuk hitz egiten diren, alemana eta japoniera, adibidez. Hizkuntza indigenak ia galduta daude; guaraniera da hiztun gehien dituen. Eskoletan portugesez irakasten da. Bigarren hizkuntza ikasiena ingelesa da. Brasilgo portugesa eta Portugalekoa hizkuntza bera dira.

24. Brasildarrei buruzko aurreiritziak (101-233/011)

Egia da, orokorrean, brasildarrek bizitzaren ikuspegi positiboa dutela. Baina aurreiritzi negatiboak ere badaude, Euskal Herriari buruz bezala. Brasildarrek alperrak direla esaten da, parrandazaleak... eta inauteriei buruzko ideia okerrak ere badaude.

25. San Juan jaiak Brasilen (101-233/012)

Bere eskualdean San Juanak ospatzen dira, hemengo oso ezberdinak. Frantziar jatorriko dantza berezi batzuk egiten dituzte. Brasilen negua izaten da eta suak pizten dituzte kalean.

26. Bere eskualdeko inauteriak (101-233/013)

Inauteririk ezagunena Rio de Janeirokoa da, baina ez du zerikusirik, adibidez, Simoneren eskualdekoarekin. Txarangaren atzetik dantzan ateratzen da jendea mozorrotuta.

27. Brasil eta Euskal Herriaren arteko desberdintasunak (101-233/014)

Brasil eta Euskal Herriaren arteko desberdintasunak. Bere eskualdean uste osoan egiten du bero eta Elgoibarrera iritsi zenean "tipula bat" bezala jantzen zen. Euskaldunon izaera nolakoa den azaltzen du. Integrazioa nola bizi izan zuen.

28. Jendearen erantzun txarrek ez zuten euskara ikasteko gogogabetu (101-233/017)

Euskara ikasteak integratzerako orduan asko laguntzen duela uste du. Erreakzio txarrak ere jasan izan ditu, euskara ikasi nahi zuela esatean edo baita behin baserritarrez jantzi zenean ere. Horrek pixka bat gogogabetu zuen, baina gero berriz ekin zion euskara ikasteari.

29. "A canoa virou" kanta-jolasa (101-233/023)

"Cantigas de roda" deituriko kanta-jolasak tipikoak dira Brasilen. Haurrak borobilean esertzen dira jolasteko. Indioek erabiltzen zituzten kanoekin lotura duen jolas bat azaltzen du: "A canoa virou".

30. "Brigadeiro", Brasilgo goxoki tipikoa (101-233/025)

"Feijoada" oso plater tipikoa da Brasilen, hemengo babarrunen antzekoa. Umeen artean goxoki ezagunena "brigadeiro"-a da. Esne kondentsatua eta txokolatearekin egiten da.

31. Brasilgo inauteriez saltzen den irudia (101-233/026)

Brasilgo inauteriei buruz saltzen den irudia, arropa gutxi daramaten emakumeena da. Baina samba eskoletan milaka parte-hartzaile egoten dira eta hauetatik bi emakume bakarrik izaten dira arropa gutxirekin ateratzen direnak. Hala ere, Simoneren eskualdean desberdinak dira inauteriak. Dantza bereziak egiten dituzte, "frevo" deiturikoa adibidez.

32. Hitz batzuk portugesez eta euskaraz (101-233/029)

Hitz batzuk portugesez eta euskaraz.

33. "Garota de Ipanema" abesti ezaguna (101-233/031)

"Garota de Ipanema" abesti ezaguna.

34. Mutil-lagunak Simone konkistatzeko erabili zuen trikimailua (101-233/033)

Mutil-lagunak Simone konkistatzeko Ken Zazpi taldearen "Ezer ez da betiko" kanta erabili zuen. Izatez, abestiaren letra tristea da, harreman baten bukaeraz hitz egiten baitu. Baina mutil-lagunak Simoneri ez zion benetako itzulpena esaten. Euskara ikasi zuenean konturatu zen gezurraz. Abestu egiten du.

35. Brasilgo kondaira zahar bat (101-233/035)

Brasilen uretan sortzen den "Victoria Regia" izeneko loreari buruzko kondaira.

36. Brasili buruzko datuak: kokapena, biztanleria... (101-233/038)

Brasili buruzko datuak azaltzen ditu: kokapen geografikoa, biztanleria...

37. "O pato" haur kanta (101-233/043)

"O pato" haurren abesti ezaguna kantatzen du.

38. Italiako Calabria eskualdekoa da Emilio (101-234/003)

Italiako Calabria eskualdekoa da Emilio. Toki honi buruzko datuak eta bitxikeriak kontatzen ditu. Italiako hegoaldean kokatua dago, "botaren" puntan. Bertako "Ciro" ardoa ezaguna da.

39. Calabriako hizkuntzak (101-234/004)

Calabrian italiara hitz egiten da baina baita bertako dialektoa ere. Albaniera, greziera eta okzitaniera ere hitz egiten dira.

40. Italiara batuaren jatorria (101-234/005)

Italiara batuari buruzko teoria desberdinak daude. Toscanan jaio zela diote, baina Sizilian ere antzerakoa hitz egiten omen zen. 1861ean, herrialdeko batasuna lortu ondoren, hedatzen hasi zen hizkuntza ofizial moduan. Ikastetxeetan italiara batua irakasten da.

41. Garai batean gaizki ikusia zegoen dialektoan hitz egitea (101-234/007)

Emilio haurra zela gaizki ikusia zegoen dialektoan hitz egitea.

42. Italieraren ezaugarriak (101-234/009)

Italiara latinetik datorren hizkuntza erromantze bat da eta 800 urte inguru ditu. Italiara ezaguna da batez ere artean edo musikan. Suitzan, Estatu Batuetan, Australian... ere hitz egiten da. 70 milioi hiztun inguru ditu italierak.

43. Euskara, hizkuntza ezezaguna (101-234/012)

Bere emaztea Calabrian Erasmus egiten zegoela ezagutu zuen. Ikasketak amaituta, hona etortzeko erabakia hartu zuten. Emiliok ia ez zekien ezer Euskal Herriari buruz. Lehen aldiz etorri zenean, harritu egiten zuen jendea "hizkuntza ezezagun batean" hitz egiten entzuteak.

44. Euskara ikasteko prozesua (101-234/013)

Emiliok hizkuntzak ikasteko erraztasuna duen arren, euskara zaila iruditzen zaio, ez baitu loturarik beste hizkuntzekin. Euskalkiek are zailagoa egiten dute.

45. Familian, hiru hizkuntza: euskara, italiara eta gaztelera (101-234/015)

Emaztearekin italieraz egiten du, hizkuntza horretan elkar ezagutu baitzuten; alabei emazteak euskaraz egiten die eta Emiliok italieraz.

46. Euskara, integrazio hizkuntza (101-234/016)

Euskara ikasteak, Emilioren ustez, integrazioa errazten du. Lana aurkitzea errazagoa da, adibidez.

47. Italiako jolas zahar bat: "bost harritxoak" (101-234/021)

Bost harritxorekin egiten den jolasa azaltzen du, tortolosen jolasaren antzekoa.

48. Pizza nola prestatzen den (101-234/023)

Emiliok sarritan egiten du etxean pizza. Nola egiten den azaltzen du.

49. Ravioliak eta beste italiar jaki tipiko batzuk (101-234/027)

Ravioliak nola prestatzen dituen azaltzen du. Risottoa (arroza) ere prestatu ohi du. Saltsa ezberdinak. Postreak.

50. "Ferragosto" eta Epifania (101-234/028)

Italiako bi festa nagusienak: "Ferragosto" egunean (abuztuak 15) egunpasa joan ohi dira italiarrak; Epifania egunean (urtarrilak 6), Befana izeneko sorginak opariak ekartzen dizkie haurrei.

51. Hitz batzuk italieraz (101-234/030)

Hitz batzuk italieraz.

52. "Chi vuole un fiore" haur abesti ezaguna (101-234/033)

"Chi vuole un fiore" haur abesti ezaguna.

53. Jatorduetako ohiturak Saharan (101-236/009)

Saharan, familia guztiak plater handi bakar batetik jaten du. Eskumako eskua erabili behar da jateko.

54. Ramadana zer den azaltzen du (101-236/012)

Ramadana azaltzen du. Txerrikirik ez dute jaten, ezta "halal" moduan hil ez den animaliarik ere.

55. Saharako janari tipikoak (101-236/015)

Saharako janari tipikoak: arroza okelarekin, gisatuak, kuskusa, falafela...

56. Saharako ospakizun garrantzitsuenak (101-236/016)

Saharako ospakizun garrantzitsuenak: Eid al Fitr (Ramadanaren amaiera), Aid el Kebir (bildotsaren festa)

57. Hitz batzuk arabieraz (101-236/020)

Hitz batzuk arabieraz.

58. Albaniako arropa tradizionala (101-237/012)

Albaniako arropa tradizionala erakusten du, familiako argazki batzuetan.

59. Albaniako plater tipikoak (101-237/020)

Albaniako plater tipiko bat "byrek" deitzen den kalabazaz edo barazkiz beteriko pastel bat da. Gabonetan jaten den postre tipikoa "bakllava" da.

60. Hitz batzuk albanieraz (101-237/025)

Hitz batzuk albanieraz.

61. Arabiera hizkuntza (101-238/003)

Arabiera hizkuntzari buruzko datuak ematen ditu Imanek. Bi aldaera mota daudela azaltzen du: arabiera klasikoa (idazkeran, hezkuntzan edo administrazioan erabiltzen dena) eta dialektoak. Hizkuntza berbereak (edo amazigak) ere badaude. Imanek Arabiar Literaturako lizentziatura ikasi du.

62. Semeak erakusten dizkio euskarazko hitzak (101-238/006)

Euskaraz dakizkien hitzak. Hobeto ikasteko klaseak hartu beharko lituzkeela uste du.

63. Euskaldunekin ez du inongo arazorik izan (101-238/009)

Ez du inongo arazorik izan integratzerako orduan. Euskaldunek beti ondo hartu dutela dio.

64. Meskitan egiten dituzten ekintzak (101-238/012)

Elgoibarko komunitate musulmanean elkar laguntzen dute eta ospakizunak ere egiten dituzte. Meskitan elkartu ohi dira. Imanek, adibidez, ingelesa irakasten die hurrei meskitan. Arabieraz idazten eta irakurtzen ere ikasten dute.

65. Erljio musulmaneko 5 betebeharrak eta Ramadana (101-238/013)

Erljio musulmaneko 5 betebeharrak azaltzen ditu. Horietako bat, Ramadana, zer den azaltzen du.

66. "Bildotsaren festa" (101-238/014)

"Bildotsaren festa", Ramadanetik 2 hilabetera ospatzen dute. Zentzu erlijiosoa dauka: Jainkoari eskainitako sakrifizio bat da. Baina zentzu soziala ere badu: arkumearen erdia familia behartsuei entregatu behar diete. Ohitura da, baita ere, haiek bazkarira gonbidatzea.

67. Harritxoekin egiten den Marokoko jolas bat (101-238/019)

Harritxoekin egiten den Marokoko jolas bat azaltzen du.

68. Marokoko plater tipikoak: oilasko-pastela eta kuskusa (101-238/021)

Marokoko plater tipikoak: oilasko-pastela eta kuskusa.

69. Ospakizunak eta ezkontzak (101-238/023)

Marokon aniztasun kultural handia dago. Ospakizun berezietarako emakumezko janzkerak erakusten ditu. Ezkontzak Marokon.

70. Oujda, Imaneren jaioterria (101-238/025)

Oujda, bere jaioterriko argazkiak erakusten ditu eta hiriari buruzko azalpenak ematen ditu.

71. Abesti bat arabieraz (101-238/028)

Abesti bat arabieraz.

72. Transilvania, Drakularengatik ezaguna (101-239/005)

Errumania non dagoen eta nolakoa den azaltzen du. Maria Transilvaniakoa da. Zonalde hori famatua da Drakula kondearengatik. Udan turista asko joaten da bere gaztelua ikustera.

73. Nolatan etorri zen Euskal Herrira? (101-239/006)

Mariaren senarra etorri zen lehendabizi Euskal Herrira lanera. Maria hasieran oporretan etortzen zen eta azkenean bertan gelditu zen. Lehenengo 3 urtez Orion bizi izan ziren. Lehen aldiz Madrilera iritsi zenean ez zitzaion gustatu, baina Euskal Herrira heldu zenean paisaiak bere jaioterriaren antza gehiago zuela ikusi zuen eta bertan bizitzeko gustatu zitzaion.

74. Semearen laguntzarekin euskara ikasten (101-239/008)

Euskarazko hitz solte batzuk badakizki eta gutxi gorabehera ulertzeko gai da. Semeak lagundu ohi dio euskararekin; adibidez, Elgoibarko 'Barren' aldizkarian ulertzen ez dituen gauzak semeari galdetzen dizkio. Hari euskarazko ipuinak irakurtzearen poderioz ere ikasi du. Euskarazko "tz" soinua errumanieraz ere existitzen da eta horregatik Mariari erraza egiten zaio ahoskatzea.

75. Euskal Herriko festak oso gustuko ditu (101-239/011)

Euskal Herriko festak asko gustatzen zaizkio Mariari: inauteriak, danborrada...

76. Errumaniako plater tipikoak (101-239/014)

Errumaniako plater tipikoak: "Sarmale" gabonetan (azarekin bildutako haragia eta arroza) eta "Mamaliga" (arto-irinaz eginiko opila). Zonaldearen arabera janari desberdina jaten da. "Mititei" (saltxitxa modukoak) tipikoak dira azoketako janari-postuetan.

77. Aste Santuko ohitura: arrautzak margotzea (101-239/016)

Aste Santuan Errumanian ohitura da arrautzak margotzea eta Pazko Igandean lagun edo senideen artean arrautzak elkarren artean kolpatu eta gero jatea. Errumanian Aste Santua hemen baino astebete beranduago izaten da. Arrautzak margotzeko koloretako hauts bereziak egoten dira. Baina Mariak modu naturalean tindatzen ditu, tipula-orriekin batera egosita. Gainera, hostotxoak pegatzen dizkie, marrazkiak egiteko.

78. Hitz batzuk errumanieraz eta euskaraz (101-239/021)

Hitz batzuk errumanieraz eta euskaraz.

79. Errumaniako aho-korapilo bat (101-239/023)

Errumaniako aho-korapilo bat esaten du, hurrek "r" hizkiaren ahoskera ikasteko.

80. Gaztetako kontuak; bizitza eta eskola Elgoibarren (AB-876/001)

Gaztetako kontuak; bizitza eta eskola Elgoibarren

81. Iluntzeetako dibujo klaseak; Julen txikitatik azkarra marrazkian (AB-876/002)

Iluntzeetako dibujo klaseak; Julen txikitatik azkarra marrazkian

82. Gerra garaiak; Elgoibarren lanean eta soldaduskara Ceutara (AB-876/003)

Gerra garaiak; Elgoibarren lanean eta soldaduskara Ceutara

83. Txikitatik Eibarrera: Julenen aita Elgoibar-Eibar autobusetako txoferra (AB-876/004)

Txikitatik Eibarrera: Julenen aita Elgoibar-Eibar autobusetako txoferra

84. Lehen pilota partiduak Eibarren (AB-876/005)

Lehen pilota partiduak Eibarren

85. Gerra aurreko Eibar; eliza eta inguruak (AB-876/006)

Gerra aurreko Eibar; eliza eta inguruak

86. Gerra aurreko Eibar; Untzaga plaza-Isasi (AB-876/007)

Gerra aurreko Eibar; Untzaga plaza-Isasi

87. Gerra aurreko Eibar; Kalbetoi kalea (AB-876/008)

Gerra aurreko Eibar; Kalbetoi kalea

88. Gerra aurreko Eibar; Untzaga plaza eta Villabella tailerra (AB-876/009)

Gerra aurreko Eibar; Untzaga plaza eta Villabella tailerra

89. Juan San Martin: gizon umoretsua (AB-876/010)

Juan San Martin: gizon umoretsua

90. Gerra aurreko Eibar; Zezen plaza (AB-876/011)

Gerra aurreko Eibar; Zezen plaza

91. Gerra aurreko Eibar; Ibarkurutzea (AB-876/012)

Gerra aurreko Eibar; Ibarkurutzea

92. Eibar erre zen eguneko oroitzapenak (AB-876/013)

Eibar erre zen eguneko oroitzapenak

93. Julen marrazkiak egiten (AB-876/014)

Julen marrazkiak egiten

94. Soldaduskatik buelta; proiektista Arana y Uribe enpresan (AB-876/015)

Soldaduskatik buelta; proiektista Arana y Uribe enpresan

95. Makina-erremintan lanean (AB-876/016)

Makina-erremintan lanean

96. Julen eta Carmelo Urdangarin; elkarlanean egindako lana (AB-876/017)

Julen eta Carmelo Urdangarin; elkarlanean egindako lana

97. Julen eta Azpiazuren arteko lanak (AB-876/018)

Julen eta Azpiazuren arteko lanak

98. Juan San Martin eta "Beti Gazte" kuadrilla (AB-877/001)

Juan San Martin eta "Beti Gazte" kuadrilla

99. Indalecio Ojanguren, argazkilaria eta laguna (AB-877/002)

Indalecio Ojanguren, argazkilaria eta laguna

100. Juan San Martinekin eskalatzen (AB-877/003)

Juan San Martinekin eskalatzen

101. Pico del Frailera igoera (AB-877/004)

Pico del Frailera igoera

102. Juan San Martin, hizkuntza eta herriko ohituen zaintzaile (AB-877/005)

Juan San Martin, hizkuntza eta herriko ohituen zaintzaile

103. Juanito eta beste eibartar batzuekin goi-mendietan (AB-877/006)

Juanito eta beste eibartar batzuekin goi-mendietan

104. Ipar-kale eta Pipar-kaleren kontua (AB-877/007)

Ipar-kale eta Pipar-kaleren kontua

105. Gerra aurreko Eibar; Klub Deportiboa eta Noche taberna (AB-877/008)

Gerra aurreko Eibar; Klub Deportiboa eta Noche taberna

106. Klub Deportiboa; sekzio eta ekintza ezberdin askoko kluba (AB-877/009)

Klub Deportiboa; sekzio eta ekintza ezberdin askoko kluba

107. Gerra aurreko Eibar; Alhondiga (AB-877/010)

Gerra aurreko Eibar; Alhondiga

108. Gerra aurreko Eibar; Aldatze (AB-877/011)

Gerra aurreko Eibar; Aldatze

109. Gerra aurreko Eibar; Merkatu plaza (AB-877/012)

Gerra aurreko Eibar; Merkatu plaza

110. Gerra aurreko Eibar; San Andres eliza (AB-877/013)

Gerra aurreko Eibar; San Andres eliza

111. Gerra aurreko Eibar;Eibarko Portalea (AB-877/014)

Gerra aurreko Eibar;Eibarko Portalea

112. Ego: erreka zikina (AB-877/015)

Ego: erreka zikina

113. Eibar, azkarregi egindako hiria (AB-877/016)

Eibar, azkarregi egindako hiria

114. Areatza auzoaren izenaren jatorria (AB-877/017)

Areatza auzoaren izenaren jatorria

115. Untzaga eta Abontzako iturriak (AB-877/018)

Untzaga eta Abontzako iturriak

116. Egiguren (Eguren) baserria; Juan San Martinekin baserrira (AB-877/019)

Egiguren (Eguren) baserria; Juan San Martinekin baserrira

117. Orbea baserria (AB-877/020)

Orbea baserria

118. Eibarko ermitak; San Salvador eta Santa Kurutze (AB-877/021)

Eibarko ermitak; San Salvador eta Santa Kurutze

119. Azaroko Jaiak (AB-877/022)

Azaroko Jaiak

120. Kontzeju zaharra (AB-877/023)

Kontzeju zaharra

121. Eibarko kale zaharrak: Ifarkale, Elgetakale eta Txiriokale (AB-877/024)

Eibarko kale zaharrak: Ifarkale, Elgetakale eta Txiriokale

122. Homenaje a la vejez, Eibarko udaletxean zaharrei ematen zitzaien saria (AB-878/001)

Homenaje a la vejez, Eibarko udaletxean zaharrei ematen zitzaien saria

123. Julio eta Nicolás: Elgoibarko mikeleteak (AB-878/002)

Julio eta Nicolás: Elgoibarko mikeleteak

124. Gerra aurreko Eibar; Ipurua, Dos de Mayo, ... (AB-878/003)

Gerra aurreko Eibar; Ipurua, Dos de Mayo, ...

125. Markanotarrak; Alberto, kopiak etaratzeko makinaren jabea (AB-878/005)

Markanotarrak; Alberto, kopiak etaratzeko makinaren jabea

126. Merkatu plazara astoekin (AB-878/006)

Merkatu plazara astoekin

127. Ospakizunak Eibarren; Untzagan eta Salon Teatroan (AB-878/007)

Ospakizunak Eibarren; Untzagan eta Salon Teatroan

128. Astelena Frontoia; goiz, arratsalde eta gabetan partiduak (AB-878/008)

Astelena Frontoia; goiz, arratsalde eta gabetan partiduak

129. Salon Teatroa; suntsitu zen egunekoa (1952) (AB-878/009)

Salon Teatroa; suntsitu zen egunekoa (1952)

130. Errepublikaren aldarrikapen eguna Elgoibarren (AB-878/010)

Errepublikaren aldarrikapen eguna Elgoibarren

131. Gerra aurreko jantziak; Eskolara blusarekin joaten ziren (AB-878/011)

Gerra aurreko jantziak; Eskolara blusarekin joaten ziren

132. Eibarko ermitak; Agiñagako San Migel eta San Roman (AB-878/013)

Eibarko ermitak; Agiñagako San Migel eta San Roman

133. Pedro Zelaia: behar asko egin zuen gizona (AB-878/014)

Pedro Zelaia: behar asko egin zuen gizona

134. Basarri: bertsolari jantzia (AB-878/015)

Basarri: bertsolari jantzia

135. Eibar: herri kirolzalea (AB-878/016)

Eibar: herri kirolzalea

136. Zezenketarako afizioa; onenak Eibarko korrida plazan (AB-878/017)

Zezenketarako afizioa; onenak Eibarko korrida plazan

137. Eibarko artistak, Paulino, Careaga etabar. (AB-878/018)

Eibarko artistak, Paulino, Careaga etabar.

138. Juan San Martin; arte kritikoa (AB-878/019)

Juan San Martin; arte kritikoa

139. 16 txakur handirekin Debara hondartzara (AB-878/020)

16 txakur handirekin Debara hondartzara

140. Julenen lehen soldata: 3 duro. Eibarren diru gehiago mugitzen zen (AB-878/021)

Julenen lehen soldata: 3 duro. Eibarren diru gehiago mugitzen zen

141. Eibar, katurako herri ona. Kuadrilla eta eliza bakoitzean kantu taldeak (AB-878/022)

Eibar, katurako herri ona. Kuadrilla eta eliza bakoitzean kantu taldeak

142. Amaia; Bilbora joaten ziren konpainiak Eibarren geratzen ziren (AB-878/023)

Amaia; Bilbora joaten ziren konpainiak Eibarren geratzen ziren

143. Eibarko banda Untzagako kioskoan jotzen (AB-878/024)

Eibarko banda Untzagako kioskoan jotzen

144. Ostegunetako baileak; Elgoibartik Eibarrera bizikletan (AB-878/025)

Ostegunetako baileak; Elgoibartik Eibarrera bizikletan

145. Gerra ostean eibartarrak Elgoibarrera futbola ikusi eta Banda entzutera (AB-879/001)

Gerra ostean eibartarrak Elgoibarrera futbola ikusi eta Banda entzutera

146. San Andres jaia; azokarik ez eta pilota partiduak (AB-879/002)

San Andres jaia; azokarik ez eta pilota partiduak

147. San Juan jaiak; 3 pilota partidu eguneko (AB-879/003)

San Juan jaiak; 3 pilota partidu eguneko

148. San Blas eta Santa Ageda: eliza kanpoa jendez beteta eta etxez etxe abesten (AB-879/004)

San Blas eta Santa Ageda: eliza kanpoa jendez beteta eta etxez etxe abesten

149. Aratosteak edo karnabalak: Elgoibarretik Eibarrera jende asko etortzen zen (AB-879/005)

Aratosteak edo karnabalak: Elgoibarretik Eibarrera jende asko etortzen zen

150. Gerra ostean karnabalik ez. Donostian, Fiestas de la primavera (AB-879/006)

Gerra ostean karnabalik ez. Donostian, Fiestas de la primavera

151. Arrate eguna: asto gainean jatekoa eraman eta egun pasa bertan (AB-879/007)

Arrate eguna: asto gainean jatekoa eraman eta egun pasa bertan

152. Elgoibartik Eibarko merkatu plazara loinak eta sargu eskailuak saltzera (AB-879/008)

Elgoibartik Eibarko merkatu plazara loinak eta sargu eskailuak saltzera

153. Torradak eta pellak San Antonetatik Karnabalak arte (AB-879/009)

Torradak eta pellak San Antonetatik Karnabalak arte

154. San Juanak: oilaskoa jateko ohitura (AB-879/010)

San Juanak: oilaskoa jateko ohitura

155. Aiastia (San Migel) auzoa (EGB-001/002)

Aiastia (San Migel) auzoa zelakoa zen. Erromeriak. 1934ko iraultza izan zenean Eibarren, "Guardia de Asalto"koak San Migelera joan ziren.

156. Aiastia (San Migel) auzoko erromeria (EGB-001/003)

Aiastia (San Migel) auzoko erromeria. Tabernak; benta.

157. Pilotari onak Elgoibarren (EGB-001/004)

Aiastia (San Migel) auzoko frontoia. Elgoibarren sasoi batean pilotari onak egon ziren. Bolatokia.

158. Elgoibarrera eta Altzolara esnea saltzera (EGB-001/005)

Aiastia (San Migel) auzoa. Mugarria non dagoen. Elgoibarrera tratura edo esnea-saltzera astoan. Altzolako bainuetxera esnea saltzera. Estraperloa.

159. Aiastia (San Migel) auzoak beherakada azken urteetan (EGB-001/009)

Aiastia (San Migel) auzoa. Baserriak galdu; saldu; etab. Beherakada handia azkenengo urteetan. Sasoi batean 60 baserri inguru.

160. Aiastia (San Migel) auzoaren mugak (EGB-001/010)

Aiastia (San Migel) auzoa San Antolinera arte heltzen da. Herrira jaisteko bidea. Gerra aurretik oso auto gutxi.

161. Eskola kontuak (EGB-001/012)

Aiastia (San Migel) auzoko eskola. Auzoko eskolara beharrean Urkaregin zegoen eskolara joaten ziren. Mardaras maisua. Inguruetako auzokoak ere bertara joaten ziren.

173. Elgoibarko inauteriak eta antzezlanak (EGB-004/010)

Nola gogoratzen duen Elgoibar. Inauteri sinpatikoak. Arropak jantzita, alemaniar erara. Teatroa egiten zen, El Caserío ikuskizuna aipatzen du.

174. Dantza eta jai giroa oso gustuko zituen (EGB-004/011)

Gaztetan dantzan ibiltzen zen, asko gustatzen zitzaion. Jai guztiak zituen gustuko. Dantzan zekiten mutilak zituen gustuko. San Bartolomeak: zezenak, soinuak, jazbana... Dantza zen gehien gustatzen zitzaiona.

175. Aita eskopetagilea, inguruko gazteei irakatsi zien ofizioa (EGB-004/015)

Tailerra zuen aitak etxean. Eibarkoak etortzen ziren eskopetarekin. inguruko gazte askori irakatsi zien aitak.

176. Eskolan denbora gutxi eman zuen (EGB-004/020)

Irakurtzen bakarrik ikasi zuen. Eskola gutxi ezagutu zuen. Bautista maisuarengana joan zen ikastera. Anaiak gehiago joan ziren eskolara.

177. Auzoko lagunak (EGB-004/021)

Lagunak auzokoak ziren. Olasokoak lagunak ziren, haiekin jaisten ziren Elgoibarrera. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Auzoan bertan ibiltzen ziren sasoi batean, tabernetan gutxi.

178. Euskararen kontrako jarrera Franco garaian (EGB-004/027)

Lagunekin euskaraz. Gerra amaitu eta gero, Francoren garaian, euskaraz hitz egiten jarraitu zuen, baina euskararen kontrako jarrera zegoen.

179. Ibaira arrantzan, barboak hartzera (EGB-004/030)

Ibaira joaten ziren barboak hartzera, aitarekin. Zakukada arrain hartu eta txorro handiarekin garbitzen zituzten etxean.

180. Arropak, garbitasuna, makillajea... (EGB-004/034)

Jantziak. Mantala urdina. Apainketa pertsonala asko zaintzen zuen. Ura berotu eta txandaka ibiltzen ziren garbitzen. Eibarren erosten zituzten arropak, baita Elgoibarren ere, Patxikuren dendan. Makillajea ez zuen erabiltzen, aurpegia erretzen zion eta. Pelukeriarik ez, berak orrazten zuen bere burua.

181. Jatekoak (EGB-004/035)

Babak, porruak, txerrikiak, buzkantza... jaten zituzten Buzkantza: ardiaren tripak, egosia, odolestean egiten diren modura. Jatekoa baserriko produktuek ziren. Txerria hiltzen zenean askako txorrota handia erabiltzen zen garbitzeko. Ogia etxean egiten zuten.

182. Ama Birjina agertu zela eta, batzuek negozio handia egin zuten (EGB-004/037)

Ezkion Ama Birjina irten zela esaten zen. Jende asko gerturatu zen bertara. Batzuek negozioa egin zuten bertan.

183. Dutxarik ez eta baserriko askan garbitzen ziren (EGB-008/011)

Orduan dutxarik-eta ez zegoen eta askan garbitzen ziren. Berari amak moztzen zion ilea, baina anaiak pelukerira joaten ziren. Elgoibarko pelukeri batek "Agapito" zuen izena. Arraroa egiten omen zitzaion norbait ezpainak pintatuta ikustea.

184. Mutilak hurbiltzen ziren dantzara neskengana (EGB-008/012)

Auzoan neska eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren gaztetan. Plazara joaten ziren dantzara. Makalak omen ziren neskak eta beti mutilen zain egoten ziren, eurak joan beharrean. Bere senarra erromerian ezagutu zuen, dantza eskatzera etorri zitzaionean.

185. Urruzon neskame zegoela ezagutu zuen bere senarra (EGB-008/013)

Lekunberri baserrian neskame egon ostean Urruzuno etxetxo baserrira joan zen. Bere senarra izango zena auzo horretakoa zen eta neska-laguntzea egiten zion dantza ostean. Aldapa baserriko maiorazgoa zen bere senarra eta bertara ezkondu ziren. Aurretik beste mutil batek ere lagundu izan zion etxera, baina hura ez zitzaion gustatzen.

186. 21 eta 22 urterekin ezkondu ziren (EGB-008/014)

Nobiotan Azkarateko Kurutzeta ingurura joaten ziren ibiltzera. Erromeriara ere beti elkarrekin joaten ziren. 5 urte eta erdi egin zituzten elkarrekin ezkondu aurretik eta 21 eta 22 urterekin ezkondu ziren. Berarentzat herriko guapoena bere senarra zen, ez zion beste inori begiratzen eta. Ezkutuko gauzak etxera bidean egin behar izaten zituzten.

187. Belarriz ikasi zuen panderoa jotzen (EGB-008/018)

Panderoa jotzeko zaletasuna zuen eta senarrak irratia oparitu zionean handik ikasten zuen belarriz. Amak umeak zaintzen zizkion eta Katalotzarekin batera kanpora irteten hasi zen panderoa jotzera.

188. Gaztelaniaz ez zuen ikasi (EGB-008/020)

Eskolan irakasleak kanpokoak izaten zirenez gaztelaniaz ikasten zuten. Bera ez zen eskolan ibili eta horregatik ez zuen gaztelaniaz ikasi. Bere bi ahizpa Donostiara joan ziren neskame eta haiek ere ikasi zuten.

189. Ia Madrilerira joan zen pilotan jokatzera (EGB-008/023)

Pilotan jokatzeko zaletasun handia zuen eta mutikoekin aritzen zen. Osaba bat pilotaria zen eta Madrilerira eraman nahi izan zuen bera pilotan jokatzera, baina artean 12 urte zituen eta amak ez zion utzi umea zela-eta.

190. Lan eta lan, bazkaltzeko astia justu-justu (EGB-008/024)

Pilota partiduak ikustera joateko astirik ez zuen izaten. Lana besterik ez zuen egiten. Sarritan mutilarekin egoteko ere astirik ez eta "betozkoa" jartzen omen zion.

191. Familia osoak zuen pilotarako zaletasuna (EGB-008/027)

Partiduetan euren arteko apustuak egiten zituzten pilotariek. Familian denek izan dute zaletasuna, baina bereziki anai batek. Astean abarka pareta apurtzen omen zuen, eta Julianak konpondu behar.

192. San Bartolome jaiak; Madarixako erromeria (EGB-008/029)

San Bartolomeak ziren gehien gustatzen zitzaizkien jaiak. Iluntzean joan eta 11-12ak aldera itzultzen ziren etxera. Madarixara ere joaten ziren, baina han debekatuta zegoen lotuta dantza egitea. Soinujoleari ere multa jartzen zioten.

193. San Bartolome jaiak; sokamuturra, bertsolariak. (EGB-008/032)

Sokamuturra egoten zen San Bartolome jaietan. Goizeko 7tan izaten zen zezena eta kale guztietan ibiltzen zen 11ak aldera arte. Gutxitan joaten zen ikustera, baina asko gustatzen zitzaion. Bertsolariak ere etortzen ziren: Lizaso eta Agirre. Sokamuturrean korrika ere egiten zuen. Sustoak hartu bai, baina sekula ez zuen zezenak harrapatu.

194. Baserriko gaiak, etxeakoak, jaten zituzten (EGB-008/033)

Neguan seiak alderako jaiki eta esnea saltzera jaisten zen kalera. Baserriko gaiak jaten zituzten: artoa eta esnea, baba gorriak urdaiarekin... Etxean egindako sagardoa edaten zuten. Etxean falta zena bakarrik ersoten zuten dendan. Ogia ere berak egiten zuen. Urdaia eta haragia ere etxeakoa jaten zuten. Lehen urtean txerri bat hiltzen zuten. Behiak, txerriak, oilaskoak eta astoa izaten zituzten etxean.

195. Lehen etxean eta laguntza gutxirekin jaiotzen ziren haurrak (EGB-008/035)

Bi senide "aingerutan" hil zitzaizkien, baina bestela ez du gogoratzen besterik gaixotu zenik. Bere amak Armaitta baserrian izan zituen ume guztiak eta auzoko emakumeren bat joango zitzaion laguntzera. Julianak ere Aldapa baserrian izan zituen bere seme-alabak. Medikiak: don Tomas Zubizarreta eta don Jose Eizagirre. Norbait gaixotzean etxera joaten ziren.

196. Umea jaiotakoan ospakizuna (EGB-008/037)

Umea izan eta egun batzuetara bataiatzera eramaten zen eta ospatzeko bazkaria egiten zen gurasoen kontura. 7 seme-alaba izan ditu Julianak, sei seme eta alaba.

197. Doktrina eta katona auzoan ikasi zituen (EGB-008/038)

Armaitagoikoa baserriko Juanarekin ikasi zituen doktrina eta katona.

198. Lehenengo meza goizeko seietan; abadeak (EGB-008/039)

Parrokiara joaten zen igandero mezara eta bestelako funtzioetara ere joaten zen. Lehenengo meza goizeko 6tan izaten zen eta meza nagusia 11tan. Bere gaztea zela don Julian apaiza zegoen eta harekin ere ikasi zuen doktrina. Don Makario. 11 urterekin egin zuen jaunartzea.

199. Berak egindako traje beltzarekin ezkondu zen (EGB-008/040)

Parrokiaren alboko kapilan ezkondu ziren eta Aldapan egin zuten ospakizuna. 47 lagun elkartu ziren. Berak egindako traje beltzarekin ezkondu zen eta senarra amak egindako traje marroiarekin. Ganbaran egin zuten ospakizuna. Manuel Gelatxok jo zuen soinua eta bere ahizpa Franziskak panderoa.

200. Goizeko seietan ezkondu eta egunpasa Donostiara (EGB-008/041)

Goizeko seietan ezkondu eta, ondoren, Donostiara joan ziren ezkon-bidaian. Handik etorritakoan argirik ez zuten etxean eta auzoko mutil batek jarri zien. Sukaldaria Maiorta baserrikoa zen. Bi bikote joan ziren trenez Donostiara, baina galduta bezala sentitzen ziren han.

201. Sorgin-kontuak; aitari eta amari gertatutakoa (EGB-008/045)

Sorgin-kontuak. Esaten zutenez, kanpora irtendakoan, hanka-hotsa edo arnas-hotsa sentitzen ei zen atzean, eta bueltatutakoan ezer ez. Aitari eta amari gertatutako pasadizoa.

202. San Lorentzo eta Urruzuno auzoetako baserri-izenak (EGB-008/048)

Inguruko baserri guztiekin izaten zuten harremana. San Lorentzo auzoko baserrien izenak: Upei, Zabaleta, Kurutzeta... Urruzuno auzoko baserriak: Urruzuno, Azkarate, Aranbeltz...

203. Tropa batekoek eurekin joateko esan zioten (EGB-008/055)

Gerra zibilean, tropak Azkarate aldetik sartu ziren Elgoibarrera. Kaletik etxera zetorren batean, tropa batekin egin zuen topo. Mairuek neskei bularrak kentzen zizkietela, eta eurekin joateko esan zioten; baina berak ezetz.

204. Hegazkinak gertu-gertutik pasatzen ziren bonbardaketetan (EGB-008/057)

Bere anaiak ez ziren ibili gerra zibilean. Bere anaia bat Afrikan hil zuten gerran. Gogoan ditu Gernika eta Eibar bonbardatu zituzten egunak. Bere ahizpa bizi zen baserria erre egin zen. Bonbardaketen inguruko berriak bolobolo zebiltzan kalean. Hegazkinak gertu-gertutik pasatzen ziren. "Abuelo" deitzen zioten hegazkin bati. Elgoibar ez zen hainbeste hondatu, baina Eibar guztiz apurtuta geratu zen.

205. Gerraostea: debekuak eta gosetea (EGB-008/059)

Euskaraz hitz egitea debekatu egiten zuten Francoren garaian. Gerraostean, ogirik ez zuten jaten eta gosetea egon zen. Baserrietan izaten zuten janaria, hala ere.

206. Oleta baserrian jaio eta bizi (EGB-009/001)

Oleta baserrian jaio eta bizi izan da beti. Baserriaren egitura azaltzen du.

207. Ama Oleta baserrikoa eta aita Azkoitiko Urrategi auzokoa (EGB-009/006)

Ama Oleta baserrikoa eta aita Urrategi auzoko Uzingoikoa baserrikoa zituen eta 10 anai-arrebako familia zuen.

208. Elkarrekin lo egiten zuten anai-arrebek asko zirelako (EGB-009/008)

Aitona ez zuen ezagutu, amona, aldiz, bai. Emakumezkoak ziren gehienak etxean. Anai-arreba asko ziren eta binaka lo egiten zuten. Etxean atea egurrezko trangarekin ixten zuten eta eskuz zabaltzen zen.

209. Aitak baserrian lan egiten zuen (EGB-009/009)

Aitak baserrian lan egiten zuen eta beste baserrietako jendeei jornalean laguntzen zien.

210. Ama etxean, umeak zaintzen (EGB-009/010)

Amak lan handia zuen umeak zaintzen. Orduko eta gaurko zaharrenaganako errespetuaren inguruko ezberdintasunak aipatzen ditu.

211. Eskolara Altzolara (EGB-009/011)

Eskolara Altzolara joan zen, anai-arreba gazteagoak, berriz, kalera. Eskolaren kokapena azaltzen du. 8-9 urterekin hasi eta 11ra bitartean ibili zen. Neska-mutilak eta adin ezberdinetakoak batera joaten ziren eskolara. Irakaslea nor zen. Doktrina izaten zuten ikasgai nagusi eta aurrera jarraitzen zutenek matematika.

212. Baserritarrak eskolara gehien huts egiten zutenak (EGB-009/012)

Eskolatik piper egin arren ez zieten zigorrik jartzen. Kaletarrak ziren piper gehien egiten zutenak eta haiek belauniko jarrita zigortzen zituzten.

213. Eskolara joan aurretik esnea banatzera (EGB-009/013)

Eskolako liburuak aipatzen ditu. Oinez joaten zen eskolara, marmitan esnea hartuta, kalean banatzeko eskolara sartu aurretik. Ostegunak eta urtean egun batzuk opor egunak izaten zituzten. Ez zuten uniformerik eramaten.

214. Eskolatik Getariara txangoa (EGB-009/014)

Eskolatik irteerak antolatzen zituzten eta haietako batean Getariako Elkano ikustera joan ziren. Orduko kontuak kontatzen ditu.

215. Emakumeak ezin tabernara bakarrik sartu (EGB-009/015)

Gaztetan ez zen tabernara sartu ere egiten 17 urte egin artean. Emakumeak ez ziren bakarrik sartzen tabernara. Elgoibarko tabernak izendatzen ditu.

216. Festetara Elgoibar, San Lorentzo eta inguruetara (EGB-009/016)

19 urterekin hasi zen herritik ateratzen eta Kamineroko frontoiko erromeriara joaten ziren. Neskek debekatua zuten hara joatea. Festetara Elgoibar, San Lorentzo eta inguruetara joaten ziren. Kanean lan egiten zuten lagunek festa

gehiago egiten zuten. Erromeria garrantzitsuenak Kaminerokoan eta Maltzagan egiten ziren.

217. Astegunean eta asteburuan arropa ezberdina (EGB-009/018)

Astean zehar eta asteburuan arropa ezberdina edukitzen zuten eta normalean abarkekin ibili ohi ziren. Arropa gehiena Elgoibarren erosten zuten amak.

218. Etxean dutxarik ez (EGB-009/019)

Etxean ez zuten dutxarik eta lehenengo dutxa hartu zuenekoa kontaktzen du. Lixiba egiteko arropa nola egosten zuten azaltzen du. Ilea Elgoibarko ile-apaindegian mozten zuten.

219. Emaztea ezagutu zuenekoa (EGB-009/020)

Lagunartean neskak eta mutilak bananduta ibiltzen ziren. Erromerietara joaten ziren, baina ez zuten dantzarako afiziorik. Emaztea noiz ezagutu zuten eta elkarrekin nola hasi ziren kontaktzen du.

220. Neska lagunarengana Altzolara (EGB-009/022)

Neskalaguna uda pasatzen Altzolan egoten zen eta Markos berarengana joaten zen.

221. Arrebarekin Debara hondartzara (EGB-009/023)

Lagunak kanpora ateratzen ziren Bilbo edo Donostiara baina Markosi ez zitzaion gustatzen. Arreba bati bainua komeni zitzaiola eta berarekin joaten zen Debara.

222. Deba ibaian arrantzan jende ugari (EGB-009/024)

Markosek etxeko leihotik ikusten zuten jendea Deba ibaian arrantzan. Berak ez zuten arrantzan egiten, baina aitak ezkailuak harrapatzen zituen eskirolarekin. Eskirola nolakoa den azaltzen du.

223. Elgoibarko zineak (EGB-009/025)

Elgoibarko zineak aipatzen ditu; neskarekin zinera joan zenekoa kontaktzen du. Egunkaria saltzen zuena izendatzen du, etxerik etxe banatzen zuten.

224. Euskaraz herrian, etxean eta lagunartean (EGB-009/027)

Euskaraz hitz egiten zuten erabat eskolan eta lagunartean. Eraikuntzako lana hasi zenean sartu zen erdara Elgoibarren. San Pedrorra lanera hasi zenean, enkargatuak erakutsi zion erdaraz. Gerra garaian euskara debekatua zegoen.

225. Soldadutzako instrukzioetara bizikletaz (EGB-009/028)

Lagunartean futbolera joaten ziren. Ez zuten pilota partidak ikustera joateko ohiturarik. Bizikleta bazuen eta soldadutzako instrukzioak egitera bizikletaz joaten zenekoa kontaktzen du.

226. Herriko raketistak eta korredoreak (EGB-009/029)

Neskek ez zuten kirolik egiten. Markosek ezagutu zituen neska kirolari bakarrak erraketistak izan ziren eta izendatu egiten ditu. Pilota partiduetako korredoreen inguruan hitz egiten du.

227. Arriaga auzoko jaiak (EGB-009/030)

Arriaga auzoko jaien inguruko kontuak kontatzen ditu.

228. Idi probak inguruetan (EGB-009/031)

Idi probetan jende ugari biltzen zen. Probalekua izendatzen du, Soarte. Altzolako festak eta Trinitadeak.

229. Arrain-saltzailea Ondarroatik Elgoibarrera zaldiz (EGB-009/033)

Baserrian egunero babak jaten zituzten eta arrain-saltzailea bertara joaten zen Ondarroatik zaldiz, karroa hartuta. Etxean abereak zituzten eta okela ere ez zuten falta izaten. Ogia etxean egiten zuten.

230. Ermitako dolarean sagardoa egiten (EGB-009/034)

Sagardoa etxean egiten zuten; aitari sagarrak sartzen laguntzen zion. Sagarrak non zituzten azaltzen du. Ermitan dolarea zegoen eta ermitako ugazabaren errenteroak ziren Markosen etxeok.

231. Auzokoen artean erositako ermita (EGB-009/035)

Ermitara jende asko joaten zen meza entzutera bai auzokoak, bai kanpokoak. Ermita auzotarrek erosi zutenean 24 sozio ziren. Apaizak izendatzen ditu, Elgoibarko parrokiakoak. Igandero joaten zen Maalara goizeko 6retako mezara.

232. San Migelgo ermitan ezkondu zen 1944an (EGB-009/036)

San Migelgo ermitan ezkondu zen goizeko 6 eta erdietan. Ezkontza eguneko kontuak kontatzen ditu. 1944an ezkondu zen. Ezkon bidaiara Bilbora joan ziren kuadrillan.

233. Eibar eta Elgoibarren arteko pikea futbolean (EGB-009/040)

Artaso pilotari ezaguna izendatzen du. Eibar eta Elgoibarrek futbola zela eta pike handia zuten elkarrenganako.

234. Oleta 600 urtetik gorako baserria (EGB-009/043)

Oleta baserria 600 urtetik gorakoa da. Ezkondu ondorenean etxean bizitzen jarraitu zuen eta bi alaba izan zituen.

235. Barazkiak kalera saltzen zituzten (EGB-009/044)

Etxeko produktuak, baratzekoak, saltzera andrea joan ohi zen Elgoibar, Soraluze eta inguruetara. Inguruko baserrikoekin laguntasun handia zuten. Auzoko baserriak izendatzen ditu.

236. San Pedron enpaketazio eta pintxe lanetan (EGB-009/045)

Gurasoek etxean lan egiten zuten eta anai guztiek tailerrean. Lantegi ezberdinak izendatzen ditu. San Pedron lanean aritu zenean lehenengo enpaketazioan eta gero pintxe lanean aritu zen; nola egiten zuen azaltzen du. 14 urtez aritu zen eta aita gaixotzean baserrira bueltatu zen. San Pedron 6retatik 6retara egiten zuen lan, ez zuen oporrik izaten eta egunean 6 pezeta irabazten zituen.

237. Ln-baldintza gogorrek lantegian (EGB-009/047)

Aurrenetik ez zuen lantegian ez sirena eta ez fitxatu beharrik izaten, gerora jarri zituzten baldintza horiek. Lan-baldintza gogorrek zituzten, baserriko lana baino gogorragoa zen. Sindikatuak sortu zirenean izan zituzten onerako aldaketak.

238. Diktadura eta II. Errepublika (EGB-009/050)

Diktadura garaian baserritarren aurka gauza asko esaten ziren. Lege traketsak jartzen zituzten. Nazionalistak ziren gehiengoa. II. Errepublika garaiko kontuak kontatzen ditu.

239. Gerra garaiko bizipenak (EGB-009/052)

Frontea Azkaratetik behera heldu zen Elgoibarrera. 100 soldadutik gora egon ziren Markosen etxean eta jan ere bertan egiten zuten. Derrigorrean joan behar izan zuen soldadu gerrara Lizarra, Palentzia eta abarrera. Oso oroitzapen onak ditu eta orduko ibilerak kontatzen ditu.

240. Errazionamendu garaia (EGB-009/054)

Emakumeak etxeko lanetan aritzen ziren gerra garaian. Errazionamendua ezagutu zuen, baina beraiek etxeko ogia jaten zuten.

241. Fusilaketak Elgoibarren (EGB-009/055)

Elgoibarren, fusilamenduak hilerrri atzean egiten zituzten. Han hildako zenbait aipatzen ditu. Francok irabazi ondoren, dena hankaz gora geratu zen.

242. Lehen errespetu handiagoa jende nagusiari (EGB-010/006)

Lehen jende nagusiari askoz errespetu gehiago zitzaion.

243. Sallobenteko eskolan hasi eta beste hainbat irakaslerekin ibilia (EGB-010/007)

10 urte zituela hasi zen Sallobenteko eskolan. Gero esneak kalera eramanez kalera hasi zen eskolara, don Erasmorengana. Don Erasmoren eskola non zegoen. San Lorentzoko eskola elizako ganbaran zegoen. 50 umetik gora juntatzen ziren eta neska eta mutilak denak batera ibiltzen ziren. Irakaslea Silibistro Ansola zen, Txanbolintarren aitona. Euskaraz egiten zien irakasleak, baina erdaraz ikasteko eraztunaren zigorra izaten zuten. Goiz eta arratsalde ibiltzen ziren eskolan. Irakurtzen, ikasten eta doktrina ikasten zuten gehienbat.

244. Gau-eskoletan Sallobenten bertan eta Mokoroa baserrian ikasten (EGB-010/008)

Baserrian askotan lanak egoten ziren egiteko. Bera zenez etxeko gazteena lan txiki guztiak berak egin behar eta ezin izaten zen eskolara joan. Orduan gau-eskolara joaten zen, Sallobenten bertan. Beste negu bat Mokoroa baserrian pasa zuen ikasten. Oporrik ez zuten izaten. Irakaslea jaietan danbolina jotzen ibiltzen zen.

245. Elgoibarko eskolak: mojena, don Erasmorena, eskola publikoa... (EGB-010/009)

Piper egiten zuen neska bat izan zuten eskolan. Txangoak zer ziren ere ez zekiten. Erdarazko liburuak erabiltzen zituzten eskolan: eskuizkribuak, katona... Irakasleak euskaraz egiten zien, beraiek ez zekiten gaztelaniaz eta. Elgoibarren zeuden eskolak: ospitalean mojena, Erasmo irakaslearen eskola, Plaza txikiko eskolak

246. Igandetean erromeria Sallobenten; taberna (EGB-010/010)

Sallobenten taberna bakarra ezagutu du beti; elkarte geroago jarri zuten. Orain elkarte dagoen lekuan lehen baserriko korta zegoen. Igandetean erromeria egoten zen Sallobenten. Gurutzetan eta Kaminerokoan ere egiten ziren erromeriak.

247. Tabernak; "erdikia" edo osoa edaten zen (EGB-010/011)

Jaiak zirenean kalera ere joaten ziren, baina bestela asko ez. Kaleko tabernak: Errezabalenekoa (Maalan), Etxegiñanekoa… Etxagiñanekoa tabernaren inguruko azalpenak. Txarridunenekoa geroagokoa da, lehen perratokia zegoen bertan. Tabernetan "erdikia" (edalontzi erdia) edo osoa edaten zen orduan. Neska-mutilak ibiltzen ziren kuadrillan, baina neskak ez ziren tabernetan sartzen.

248. Auzoko neska-mutilak elkarrekin (EGB-010/012)

17 urte ingurura arte auzoan bertan ibiltzen ziren neska-mutilak kuadrillan. Hortik aurrera hasi ziren hona edo hara joaten. Elgoibarko beste auzoetara ez ziren asko joaten, Gurutzetara eta Madariagara bakarrik. Madariagan ezin zen dantza lotuan egin.

249. Egunez festa; angelusa jotakoan etxera (EGB-010/015)

Beste herrietara ez ziren asko joaten, bide egokirik ere ez zegoelako. Oinez joan behar izaten zen eta urruti geratzen zitzaizkien leku asko. Orduko festak egunez izaten ziren eta iluntzean angelusa jotzen zuenean etxera. Madariagako erromeriara ere arratsaldean joaten ziren.

250. Orduko janzkera eta arropa-dendak (EGB-010/016)

Orduan erabiltzen zituzten arropak. Baserrian lanerako arropa bat erabiltzen zen. Erromeriatarako edo kalera joateko arropa antzekoa erabiltzen zen eta baita domeketan mezara joateko ere. Abarketak erabiltzen zituzten eta bata zapatak ere. Abarketak segituan apurtzen ziren. Kaleko arropa dendak: Karkizanonekua, Munaundinekua... Munanundinekua non zegoen. Lehen gaur egun baino alde handiago zegoen aberats eta pobreagoen artean.

251. Dutzarik ez etxean; ile-apaindegi eta orrazkerak (EGB-010/017)

Dutzarik ez zuten etxean, nahiz eta ur asko eduki. Lehenago ur bila urrutira joan behar izaten zuten. Berak ez du hori ezagutu, baina buru gainean ekartzen omen zuten lehenago ura ontzietan. Gizonezkoak kalera joaten ziren ilea moztera; bera nora joaten zen. Emakumeek ez zuten ilerik moztzen lehenago, mototsa egiten zuten.

252. Sallobenteko erromerian ezagutu zuen emaztea (EGB-010/018)

Sallobenteko erromerian ezagutu zuen emaztea, hau ere auzokoa zen eta. Berak 27 urte zituen eta emazteak 17. Lau urteren ostean ezkondu ziren. Erromeriatan elkartzen ziren bikoteak orduan eta neska-laguntzea egiten zen gero neskari etxera lagunduz.

253. Baserritarrak ez ziren zinera joaten (EGB-010/021)

Sindikatoaren ondoan zegoen lehenago zine zaharra eta gerora Odeon zinea egin zuten. Maalako Kapitola berriagoa da. Bera ez zen joaten zinera eta ezta bere lagunak ere. Baserritarrak normalean ez ziren zinera joaten.

254. Orduko egunkariak (EGB-010/023)

Orduko egunkariak: Argia, El Pueblo Vasco, El Diario Vasco... Garai hartan, Elgoibarren ez zen egongo sozialista asko.

255. Herriko musikariak: banda, soinujoleak... (EGB-010/024)

Zenbaitzuk solfeoa ikastera joaten ziren garai hartan, adibidez, Gelatxo soinujolea. Banda ere bazegoen herrian; igandetan jotzen zuen plazan. Kanean danbolina ere ibiltzen zen. Erromerietan Gelatxoren aitak jotzen zuen eta Madariagan baita bertako soinujole batzuk ere. Panderojoleak neskak izaten ziren. Sallobente auzoko Upei Txiki baserriko gizonak ere jotzen zuen soinua.

256. Sallobenten pilota partidak jaiero (EGB-010/027)

Kiroliek ez du egin izan. Jaietan joaten ziren frontoira pilota partidak ikustera, baina normalean ordainduta ez. Sallobenten jaiero jokatzen ziren partiduak eta haiek ikusten sarri egoten ziren. Kamiñerokotan ere egoten ziren partiduak. Pilota partida ofizialetan eta idi-probetan egoten ziren soilik korredoreak.

257. Jose Odriak jokatutako apustua (EGB-010/028)

Jose Odriak jokatu zuen apustua: Kamiñerokotik bere baserriraino joan zen begiak itxita. Bidezidorrak eta erreka ere pasa behar izan zituen, baina ondo egin zuen ibilbidea.

258. Kanpoan ibili ziren 3 neska raketista (EGB-010/029)

Neskak beranduago hasi ziren pilotan; erraketistak: Kanpoan pilotan ibili ziren 3 neska aipatzen ditu.

259. Herriko jaiak: Trinidadeak, San Bartolomeak, San Lorentzo... (EGB-010/031)

Herriko jaiak (Trinidadeak eta San Bartolomeak) nolakoak ziren lehenago. Trinitateetan atrakzioak etortzen ziren eta umeak han entretenitzen ziren. Sokamuturra ere egoten zen, baina bera ez zen han ibiltzen. Sallobenteko jaiak uztailean izaten dira: meza, pilota partiduak, erromeria... egoten ziren. Orduan ez zen herri-kirol erakustaldirik egiten.

260. Ogia etxean egin ezean, "lauko ogia" erosten zuten kalean (EGB-010/033)

Orduko jatekoa: babak, urdaia, sagarrak, gaztainak, esnea, taloak... Amak batzuetan egiten zuen ogia etxean. Etxean egindakoa ez zegoenean "lauko ogia" kalean erosten zuten. Ze okindegi zeuden. Egun normaletan etxean egindako sagardoa edaten zuten; ardoa jaietan bakarrik edaten zen.

261. Medikuak: don Arturo, don Tomas eta don Jose (EGB-010/034)

Elgoibarko medikuak: Don Arturo, Don Tomas eta Don Jose. Norbait gaixorik zegoenean etxera joaten ziren, oinez. Ospitale bakarra gogoratzen du: Maalakoa.

262. Sallobentera joaten ziren apaizak: don Satur eta don Severiano (EGB-010/036)

Sallobenten meza ematen zuten apaizak: don Satur eta don Severiano. Garai hartan apaiz asko zegoen Elgoibarren. Santa Klarako komentuan mojak egoten ziren eta mezara ere joan izan zen inoiz. Goizeko 6retako mezara joaten zen sarri Maalara.

263. Komunioa 11 urterekin (EGB-010/037)

Komunioa kalean egin zuen 11 urterekin. 8retan izaten zen meza eta gosaria ematen zien komunioa egin ostean. Gero etxean egingo zuten ospakizuna bazkari bereziren batekin.

264. Goizeko 6retan ezkondu eta Bilbora gaua pasatzera (EGB-010/038)

Goizeko 6 eta erdietan ezkondu ziren parrokan. Gero Konderenean gosalduekin joan zirenekin eta Bilbora joan ziren trenez. Bertan lo egin eta hurrengo egunean itzuli ziren. Ezkontzan Marianok Genaro sastreriako traje urdina eraman zuen eta emazteak Eugenia Arriola jostunak egindako soineko beltz bat. Don Ramon apaizak ezkondu zituen.

265. Hiletetako eta bederatziurrenetako ohiturak; erreguteak (EGB-010/039)

Norbait hiltzen zenean, bederatziurrenak egiten ziren; eta, haiek bukatutakoan, kalean taberna batean banketea ordaintzen zitzaien etortzen zirenei. Hiletara joaten zirenei ardoa eta ogia emateko ohitura zegoen. Lehortea zegoenean, Santua kalera ateratzen zen, eta erreguteak egiten zituzten: San Lorentzo lehenengo kalera jaitsi eta berriz gora igotzen zuten. Berak ez zuen ezagutu, baina Ibarreneko presan sartu omen zuten behin santua.

266. Giro politikoa; gerra hasierako bizipenak (EGB-010/043)

Herriko politika-giroa. Gerra hasi zenean, kamioikadak joaten ziren frontera. Irailaren 21ean sartu ziren soldaduak Azkaratetik. Kanoikadak botatzen hasi ziren handik. Arratetik Elgoibar aldera botatzen zituzten kanoikadak, eta mando bat hil zuten.

267. Maiorta baserriak Upaitzabekora (EGB-010/044)

Maiorta baserrian jaiotako eta bertan bizi izan zen ezkondu artean. Gero Upaitzabekora baserrira, emaztearen baserrira joan zen bizi izatera. Lehenago baserria don Antonioren emaztearena zen eta bere familiak erosi zuen baserria. Marianoren emazteak 16 urte zituela galdu zituen gurasoak eta hiru anai-arreba gazteagoekin geratu zen.

268. Ermuaran-Sallobente auzoko baserrien izenak (EGB-010/045)

Etxeko hazienda: ganaduak, ahuntzak, astoak, oiloak... Maiorta eta Upaitzabekora baserrien inguruko baserrien izenak.

269. 4 urte forjan eta 36 Urasandiko fundizioan lanean (EGB-010/047)

Baserriko lana gogorra da, baina kalean ere lan gogorretan ibili zen: 36 urte egin zituen Urasandiko fundizioan eta beste 4 urte Estazioko forjan. 1939 inguruan hasi zen lanean kalean, ezkondu aurretik.

270. Fundizioko lan zikina; lan-baldintzak (EGB-010/049)

Lehenengo Estazioko forjan ibili zen lanean lau urtez. Forjatik irtenda Iruretako tabernara joaten ziren eta han jakin zuen orduan sortu berri zen fundizioan langileak behar zirela. Soldata hobea eskaintzen zuten (egunean 10 pezeta) eta Fundizioan hasi zen lanean. 9 ordu lan egiten ziren egunean; ordutegia. Fundizioko lana lan zikina izaten zen.

271. Fundizioko lan zikina; lan-baldintzak (EGB-010/050)

Lan zikina zen fundiziokoa. Honen inguruko azalpenak. 10 pezeta irabazten zituen. Aizkorak, tenazak, aliketak eta halakoak egiten zituzten tailerlean. Opor edo jai egunetan ez zen kobratzen, lan-orduak bakarrik kobratzen ziren. Lan egin duen lantegietako enkargatu edo nagusien izenak. Emakume askok lan egiten zuen lantegian. Euren lantegian ez zegoen sirenarik, Sigman jotzen zen sirena.

272. Lehengo diruak: zentimoa, txakur txikia... (EGB-010/052)

Orduko diru-klaseak: zentimoa, txakur txikia, txakur handia, erreala... Lauko ogiak (lau librakoak) 11 txakur handi balio zituen.

273. Lehenengo kotxeak herrian (EGB-010/054)

Lehenbiziko kotxeak nortzuk izan zituzten herrian: Arrieta, "Txankia"...

274. Gerraren etorrerako bizipenak (EGB-010/059)

Maiatzean hauteskundeak egin, eta uztailean gerra hasi zen. Nola bizi izan zuten gerraren etorrera. Irailean sartu ziren Elgoibarrera eta berari ere gerrarako deitu zioten. Gerrako bizipenak. Milizianoei jatekoa eman zietela gogoratzen du.

275. Burgos eta Santanderko frontean (EGB-010/060)

24 urte egin behar zituenean joan zen gerrara. Frontean non ibili zen. Lehenbizi Donostian egon zen instrukzioan eta gero Burgos eta Santanderko frontera eraman zituzten. Hango bizipenak. Beste bi elgoibartar ibili ziren berarekin frontean.

276. Don Zelestino apaiza fusilatu zutenekoa (EGB-010/061)

Fusilamenduak egon ziren herrian. Gloriak (Marianoren emazteak) don Zelestino abadea eta beste bi gizon fusilatzeko eramaten ikusi zituen.

277. Teruelgo fronteko bizipenak (EGB-010/062)

Teruelgo frontean egon zen; fronte gogorra izan zen hangoa. Bertako bizipenak. Espainia guztian zehar ibili zen frontean.

278. Gerra ostean ogi-gosea (EGB-010/064)

Gerra ostean gosetea egon zen, batez ere ogiarena. Errazionamenduko kartila. Azukrea beltz-beltza ematen zuten. Olio, patata... jenero asko errazionamenduan ematen ziren.

279. Kubatik bueltan lan-egoera (EGB-011/006)

Kubatik bueltatu zenean, Arrietak porrot egin zuen eta haren ondoko dendan aritu zen lanean bere ahizpa eta koinatuarekin. Kubara koinatuarekin eta azkoitiar batekin joan zen.

280. Neskame Madrilera (EGB-011/009)

Kubatik bueltan estazioko abarketa lantegian lanean aritu eta gero neskame joan zen Madrilera. Senitartekoak ditu bertan. Han mutil-laguna ezagutu eta Elgoibarko mutil-laguna utzi zuen.

281. Sevillako mutil batekin ezkondu eta alaba izan zuen (EGB-011/012)

Madriren zegoela, Sevillako mutil batekin irteten hasi eta berarekin ezkondu zen. Elgoibarrera itzuli eta bertako parrokiaren ezkondu zen 24 urterekin; gero atzera bizitzera Madrilera bueltatu ziren. Han haurdun geratu zen, baina harremana hautsi eta Elgoibarrera itzuli zen; bertan alaba bat izan zuen.

282. Umea izan eta gero Manzidorrean berriz ere alpargatagintzan (EGB-011/014)

Umea izan eta gero ere Manzidorren tailerrean jarraitu zuen lanean.

283. Eskola publikora eta mojetara joan zen (EGB-011/015)

Eskolara mojetara eta eskola publikora joan zen. Irakaslearen inguruko kontuak aipatzen ditu. Dirua zela eta, komeriak izaten zituzten eskola

ordaintzeko. Eskola publikoa plaza txikian zegoen eta Tolosako maistra zuten. Bera baino txikiagoei erakusten aritzen zen Teodosia.

284. Eskolan 100 ume eta irakasle bakarra (EGB-011/016)

Maistra bakarra eta ia 100 ume zeuden eskolan. Maistraren inguruko kontuak eta anekdota bat kontatzen ditu.

285. Eskolara sartu aurretik enkarguak egin behar (EGB-011/017)

Eskolara goizean 09:00etarako joaten zen, etxerako enkarguak egin eta gero. Eskola inguruak deskribatzen du. Aitari El Pueblo Vasco egunkaria erosten zion eskolara sartu aurretik.

286. Lagun artean neska eta mutil futbola ikustera (EGB-011/018)

Lagunartean kalean ibiltzen ziren; plazan mutilekin limonada edaten zuten. Elkarteak zegoen eta bertan neskak egoten ziren eta mutilek erdia ordaintzen zuten futbola ikusteagatik.

287. Hondartzara eta mendira lagunekin paseatzera (EGB-011/019)

Debako hondartzara joaten zen lagunekin trenez. Ez ziren bainatzera joaten, dotore jantzi eta paseatzera baizik. Mendira Mendaroko kobetara joaten ziren. Lagunak auzokoak zituen.

288. Igandetan arropa dotoreagoak (EGB-011/021)

Lanera zihoanean bata janzen zuen eta igandeetarako arropa dotorea erabiltzen zuen. Anekdota bat kontatzen du. Amonaren janzkera aipatzen du.

289. Ilea bilduta erabiltzen zen (EGB-011/022)

Orduan ilea bilduta eramaten zuten eta orraztera Eibarrera joaten zen. Ezpainik eta aurpegirik ez zuten makilatzen.

290. Plazara dantzara eta futbola ikustera lagunekin (EGB-011/023)

Neska-mutilak dantzara plazara joaten ziren, banda egon ohi zen. Futboleko sozio ziren eta neskek ez zuten ordaintzen.

291. Elgoibarko zineak: Zine Zaharra eta Odeon (EGB-011/026)

Elgoibarren Zine Zaharra eta Odeon antzokia zeuden. Teodosiak ez zuen dirurik izaten zinera sartzeko eta kanpoan zeuden koadroei begira egoten zen.

292. Anaiak musikariak (EGB-011/028)

Musika eta dantza gustuko bazituen ere ez zen sekula musika ikastera joan. Etxean bi anai musikari zituen, bandan eta txistua jotzen ibiliak.

293. Irratia entzuten (EGB-011/029)

Etxean bazuten irratia eta albisteak entzuten zituzten. Izebaren etxean politika gehiago entzuten zen. Anekdota bat kontatzen du.

294. Etxetik kanpo erdaraz (EGB-011/032)

Eskolan eta kalean erdaraz egiten zuen gehienbat. Aitak bietara egiten zuen ondo. Gerra garaian, euskara debekatua egon zen. Anekdotak bat kontatzen du bere aitaren inguruan.

295. Eibarko eta Elgoibarko futbol taldeen arteko lehiak (EGB-011/033)

Futbola gustatzen zitzaizkien, baina mutilek bakarrik jokatzeko zuten. Igandero joaten ziren futbol partiduak ikustera. Elgoibar eta Eibarren arteko partidetan pike handia egoten zen, jende ugari joaten zen.

296. Elgoibarko auzoetako jaiak (EGB-011/034)

Elgoibarko San Bartolomeak zituen Teodosiak gustukoak. Jaietan egon ohi ziren ekintzak aipatzen ditu. Teodosiaren kaleko, Arrosarioko festak handiak izaten ziren. Anekdotak bat aipatzen du. Kaleen artean ika-mika handia izaten zuten.

297. Eguneroko jatekoa (EGB-011/035)

Etxean baba gorriak jaten zituzten urdai eta txorizoarekin. Ostegunetan ama azokara joaten zen.

298. Elgoibarko parrokiaren ezkondu zen (EGB-011/038)

Igandero mezara joaten zen goizeko zortzi eta erdietarako. Parrokiara joaten zen; hango apaizak izendatzen ditu. Elgoibarko parrokiaren ezkondu zen Eibarren erositako jantziarekin eta gizona traje urdinez. Goizeko zazpitan ezkondu zen eta aita-amabitiak joan ziren soilik elizkizunera.

299. Gerra denboran aitaren jaiotetxean (EGB-011/044)

Aita Apraiz baserrikoa zen, San Antolin auzokoa. Gerra-denboran han egon ziren eta gero libre zegoen etxe batera joan ziren hegazkinak zirela eta.

300. Aita eskopetagintzan eta ama abasketak josten (EGB-011/045)

Aitak eskopetak egiten zituen eta ama abasketak josten zituen. Teodosiak ez zuen dirurik irabazten ahizparenean lanean aritu zenean, txartelak ematen zizkieten jana erosteko. Anaiaren inguruko kontuak aipatzen ditu.

301. Jende gehiena trenez ibili ohi zen (EGB-011/047)

Elgoibarren lehenbiziko kotxea ikusi zuenekoak; taxiaren inguruko aipamena egiten du. Jende gehiena trenean ibiltzen zen.

302. Etxetik gertueneko dendak (EGB-013/003)

Lehenengo denda eta estankoa aipatzen ditu. Teodosiaren denda zen gertuenekoa eta kokapena azaltzen du.

303. Erromeria Toletxe gainean (EGB-013/005)

Lehenengo Elgoibarko Madalena jaiak nahiago zituen. Gauean erromeria izaten zen Toletxe gainean eta garaiz amaitzen zen. Ama ez zen erromeriara joaten 8 seme-alabak zaintzen egoten baitzen; ama erromeriara joatea gustatzen zitzaion Soterari.

304. Ama Ermukoa eta aita Elgoibarkoa (EGB-013/008)

Ama Ermukoa eta aita Elgoibarkoa zituen. Aita soldadu Madrilén egon zen; aitaren inguruko kontuak kontatzen ditu. Aitonaren inguruko kontuak.

305. Aita San Pedroko lantegian eta ama etxean lanean (EGB-013/010)

Aita San Pedroko lantegiko enkargatua zen eta ama etxeandrea, baserrian lan egiten zuen. Neskak ez ziren kanpora ateratzen lanera, arrebak bakarrik aterata ziren josten ikastera kanpora. 4 mutil eta 4 neska ziren.

306. 5 urterekin hasi eta 13ra Maalako eskolara (EGB-013/014)

5 urterekin hasi eta 13ra arte joan zen eskolara. Kaletar eta baserritarrak batera joaten ziren. Orduko pasadizoak kontatzen ditu. Elgoibarren bi eskola zeuden. Anai-arreben eskolaz hitz egiten du.

307. Euskaraz hitz egitea debekatua (EGB-013/015)

Euskaraz hitz egitea debekatua zuten, eta erdara hutsean ikasten zuten. Lagun artean ere erdaraz gehiago egiten zuten. Maistra, moja azpeitiarra zuten.

308. Erromeriak eta igandetako dantzaldiak (EGB-013/031)

Mutiletan igandeetan plazan eta erromerian egiten zuten. Festa garaiz bukatzen zen.

309. Gizona ezagutu zueneko (EGB-013/032)

Gizona Elgoibarren ezagutu zuen; Sotera baino 4 urte zaharragoa zen. Sotera mutiletan dezente egiten zuena zen; mutil politak asko izaten ziren. Nobiotan zuten intimitate bakarra etxerako bidea izaten zen.

310. Igandeetan lagunekin zinera (EGB-013/035)

Zinera astero joaten ziren eta 3 txakur handi balio zituen. Lagunekin joaten zen mutil-laguna izan aurretik. Orduko pelikula batzuk aipatzen ditu. Igandeetan izaten zen zinea.

311. Orfeoian kantuan (EGB-013/038)

Kantore triplea izan zen orfeoian, bakarlari modura aritzen zen. Urteak pasa ahala ahotsa aldatu zitzaion eta bigarren ahotsen jarri zuten.

312. Lehenbiziko irratia gerra-denboran entzun zuen (EGB-013/041)

Lehenengo aldiz irratia gerra-denboran ezagutu zuen. Gizona elektrizitatean lanean aritzen zen eta hark konpontzen zituen. Soteraren aitarekin batera lan egiten zuen gizonak.

313. Etxetik kanpora gaztelaniaz (EGB-013/042)

Euskararen alde eta kontrako jendea zegoen Elgoibarren. Orduan euskararen alde gutxi egiten zen, etxean soilik hitz egiten zuen euskaraz. Batzokia zegoen Elgoibarren.

314. Aita kontsejupeko pilotari txapeldun (EGB-013/043)

Jokoak egiten zituzten lagunartean. Emakumezkoek ez zuten kirolik egiten eta ikustera ere ez ziren joaten. Bera etxean aritzen zen pilotan anai-arrebekin. Aita kontsejupeko pilotari irabazlea zen. Pilotari ezagunak izendatzen ditu. Txala jokoaren inguruko kontuak eta anaia txirrindulari ibili zenekoa.

315. Anaiak txori-ehizan (EGB-013/045)

Ez zuen bizikletaz ibiltzen ikasi. Herri-kirolak ikustera baserritarrak joaten ziren eta ehizara etxeko mutilak. Anaien ehiza-kontuak kontatzen ditu.

316. Elgoibarko jaietako kontuak (EGB-013/046)

Elgoibarko jai onenak San Bartolomeak ziren Soterarentzat. Dantzarako desiratzen egoten ziren. Txiki eguna ez zen emakumezkoentzat izaten, sokamuturra egoten zen goizean eta hura ikustera joaten ziren. San Anton eguna eta inauteriak aipatzen ditu. Anekdotak bat kontatzen du "Mariaren alabak" kongregaziokoak zirenekoa.

317. Elgoibarko medikuak (EGB-013/049)

Medikuak izendatzen ditu eta anekdotak bat kontatzen du.

318. Igandero mezetara parrokiara (EGB-013/052)

Apaizak izendatzen ditu. Mezetara igandero joaten ziren 10etarako Parrokiara eta ondoren Maalara. Santa Klarako komentuaren aipamena egiten du.

319. Elgoibarko lantegiak; aitaren laneko anekdota (EGB-013/061)

Elgoibarko lantegi garrantzitsuenak aipatzen ditu. Aitaren laneko anekdota bat. Lanean ez zuten segurtasunik.

320. Elgoibarko lanbide ezberdinak (EGB-013/064)

Gizonak erosi zuen lehenengo irratia, baina ez zuen entzuteko astirik izaten. Telebista berandu izan zuten. Grabatzaileak, armaginak eta abar izendatzen ditu.

321. Lehengo gizarteak zuen eragina (EGB-013/066)

Amaren aipamena egiten du. Lehengo gizartearen eragina.

322. Errepublika garaiko kontuak (EGB-013/069)

Errepublika garaian bozketan gertatutako pasadizoa.

323. Gerra Zibileko ibilerak (EGB-013/070)

Gerra Zibila hasi zenekoa eta herriaren egoera. Etxea suntsitu zitzairen. Harrapatu egingo zituzten beldur, etxetik ihesi joan ziren beste etxe batera eta, ondoren, Mendaron anaiaren etxean egon ziren gerra amaitu arte.

324. Gerra garaiko bizipenak (EGB-013/071)

Gerra garaian, anaiak San Migelera nola joan ziren azaltzen du eta haien pasadizoa kontatzen ditu. Senitartekoen kontuak.

325. Errazionamendu garaiko kontuak (EGB-013/074)

Errazionamendu garaiko kartilak eta jakiak.

326. Mutikotako lanak: ardiak zaindu, itulan egin... (EGB-014/010)

Mutikotan baserrian lagundu behar izaten zuen: ardiak zaindu mendian, itulan egin... Elgoibarrera etorri zirenean ere etxean lagundu beharra izaten zen. Ardi batzuk Damakorta baserritik ekarri zituzten eurekin.

327. Soldadutzan bi urte beharrea bakarria egitea tokatu zitzaion (EGB-014/012)

Gerra amaitu zenean hasi zen eskolan Luis Etxanizekin. 34ko kintakoa da bera eta Burgosen egin zuen soldadutza. Bi urte beharrea urtebete bakarrik egin zuten.

328. Soldata 6 pezeta eta bazkaria 6 erreal (EGB-014/013)

Elgoibarrera etorri zirenean, lagun-kuadrilla egin zuen. San Lorentzon pilotan edo errekan igerian ibiltzen ziren. Geroago, txikiteoan ere ibiltzen ziren; 3 xemeiko balio zituen txikitoak. Etxegiñanera joaten ziren bazkaltzera eta 6 erreal ordaintzen zituzten (1,50), baina asteko jornala eguneko 6 pezeta izaten zen. Gauetz lan egiten zutenean, pezeta 1 gehiago jasotzen zuten. Elgoibarko tabernak.

329. Arostegiko plazan futbolearen aritzen ziren; umetako gaiztakeriak (EGB-014/014)

Lanetik irten eta etxera joan aurretik, txikitoren bat edaten zuten kalean. Gazte gehienek elkar ezagutzen zuten, herriak txikiagoak ziren eta. Auzoko mutikoen Sallobente auzoko Arostegi jauregian futbolearen jokatzeko zuten. Fruta-arboletatik lapurretan ere ibiltzen ziren. Honen inguruko anekdota. Perretxikotara joaten ziren, batez ere urdinak eta onddoak biltzera.

330. Sallobente errekan eta Upeigoitin bainatzen ziren (EGB-014/015)

Auzoen artean edo koadrilen artean egoten ziren pikeak. Uda inguruan Sallobente errekan joaten ziren bainatzera eta baita Upeigoitira ere. Bertan ikasi zuen igerian Joxek. Hondartzara ere joaten ziren baina oso tarteka. Trenez joaten ziren Debara.

331. Andikao inguruan trenaren irauli zen (EGB-014/016)

Lehenagoko trenak nolakoak ziren. Bere anaia ibili zen trenbidean kableak jartzen. San Anton egunez, Andikao inguruan trenaren errailetik irten zenekoa gogoratzen du. Bera ardiekin zegoen mendian eta trenaren iraulita.

332. Mutilen janzkera: belaunetarainoko brusa eta abarkak (EGB-014/017)

Kuadrillan mutilak bakarrik ibiltzen ziren. Umetan, belaunetarainoko brusa jantzita ibiltzen ziren. Abarkak erabiltzen zituzten normalean, eta kalera joateko zapatak ere izaten zituzten. Dutxarrik ez zuten eta askan garbitzen ziren. Ilea amak moztzen zuten etxean.

333. Maltzagako erromerian ezagutu zuen emaztea (EGB-014/018)

Neska-mutilak erromerietan ezagutzen zuten elkar. Maltzagan egiten zen erromeria ezaguna eta bertan ezagutu zuen Joxek Teodora Aldazabal, bere emaztea izango zena. Teodora Soraluzeke Ezozki auzokoa da eta haraino joan behar izaten zen Joxe neska-laguntzera. Nobiotan zortzi urte egin ondoren ezkondu ziren.

334. Maltzagako erromeria igande arratsaldetan (EGB-014/020)

Igande arratsaldetan izaten ziren Maltzagako erromeriak. Joxeren koinatuak, Aldazabalek, jotzen zuen soinua.

335. Plazan egiten ziren dantza-txapelketak (EGB-014/022)

Soinua gustatzen zitzaion asko eta dantza egitea izugarri. Dantza txapelketetan ere ibili zen eta sariak ere irabazten zituzten. Orduko dantza-txapelketak nolakoak izaten ziren. Plazan egiten zen txapelketa.

336. Euskaraz egin izan du beti, baita eskolan ere (EGB-014/023)

Euskaraz egiten zuten beti bai lagunartean eta bai etxean. Luis Etxaniz irakasleak ere euskaraz ematen zituen klaseak. Berak ez du inoiz zigorrik jaso euskaraz egiteagatik, baina baziren halakoak.

337. Futbolearen Arostegin eta pilotan Kamiñerokoa; Kamiñeroko erromeriak (EGB-014/024)

Mutikotan futbolearen aritzen ziren, bi kuadrilla elkarren kontra, Arostegi jauregiaren plazan. Pilotan ere ibiltzen ziren Sallobenteko frontoian eta Kamiñerokoa. Kamiñerokoa pilota partiduak eta erromeria egoten ziren. Leiaristi izaten zen soinujotzailea.

338. Auzo guztietan izaten ziren idi-probak (EGB-014/025)

Idi-probak ikustera asko joatenu zen. Orduan baserri guztietan zeden idiak, baita eurenean ere. San Migelera bidean zegoen probalekua. Auzoetan ere (Sallabente, San Pedro...) sarri izaten ziren idi-probak.

339. Bizikletan joaten zen errotara edo lanera (EGB-014/027)

Bazuen bizikletan ibiltzeko zaletasuna. Bizikleta ere izan zuen eta Ibarreko errotara edo San Pedrorra lanera joateko erabiltzen zuen. Boletan ere jokatzeko zuten batzuetan Kakatzan. Beste joko batzuk.

340. San Bartolomeak, Elgoibarko jai garrantzitsuenak (EGB-014/028)

San Lorenzo jaiak. Goizean meza eta ondoren erromeria egoten zen. Elgoibarko jairik garrantzitsuenak San Bartolomeak ziren. Goizean sokamuturra egoten zen; Maalan irten eta behetik gora joaten zen zezena. Hiru zezen ateratzen zituzten. Plaza txikian lau korro egoten ziren dantzan. San Anton eguna, jai eguna izaten zen. Trinitateak.

341. Inguruko erromeriak: San Migel, Madarixa, Maltzaga eta Azitain (EGB-014/029)

Erromeriak. San Migelen erromeria handia egiten zen eta Bizkaitik ere jende asko etortzen zen. Madarixan ere jende asko biltzen zen erromerian. Maltzagako erromeriaren antzera Azitainen ere egiten zen Eibarren.

342. Bazkaltzeko baba-gorriak eta sagar-erreak (EGB-014/030)

7ak aldean jaiki lanera joateko eta 10ak aldean lotaritzen ziren. Etxean hartutako artoarekin artoa eta esnea gosaltzen zuten. Baba-gorriak jaten ziren gehienetan bazkaltzeko eta postre moduan sagar erreak. Ospakizunen bat zutenean etxean beti jaten zen zerbait desberdina. Lagunekin kafea hartzera Kamiñerokora joaten zen.

343. Santa Klarako komentua (EGB-014/032)

Igandero joaten ziren mezara. Batzuetan goizeko zazpietako mezara joaten ziren eta neguan, artean ilun egoten zenez, su emandako lastoarekin argi eginda joaten ziren. Santa Klarako komentua. Hiru moja Elgoibarkoak bertakoak ziren. Behi bat zuten mojek eta gizon bat joaten zitzaien laguntzera.

344. Komunio txikia sei urterekin (EGB-014/033)

Sei urterekin egin zuen komunio txikia Larruskainen eta gero Elgoibarko parrokiaren komunio handia. San Rokeitik parrokiara joaten ziren mezara normalean.

345. Ezkon-bidaian Donostiara (EGB-014/034)

Soraluzeko Ezosi auzoan ezkondu zen eta emaztearen etxean, Aldasoro baserrian, egin zuten bazkaria. Eguna han pasa ostean Donostiara joan ziren (ezkon-bidaian) eta lau egun egin zituzten bertan hotelean.

346. Jauna hartu aurretik konfesatu egin behar (EGB-014/035)

Aste Santuko prozesioak oraingo antzekoak izaten ziren. Sermoia egiten ondo zekien fraideren bat ekartzen zuten eta pulpitotik hitz egiten zuen. Lehenago garrantzi handia zuen konfesatzeak, konfesatu ezean ezin zen jauna hartu. Beldurtuta egoten ziren abadeek pulpitotik botatzen zituztenak entzuten. Gabonetan familia osoa elkartzen ziren.

347. Elgoibartar eta eibartarren arteko pikeak (EGB-014/036)

Elgoibarko gabonetako feria betidanik ezaguna izan da eta inguru guztietatik etortzen zen jendea. Eibar handiago izan arren, feria kontuetan ez zen hain ezaguna. Eibar eta Elgoibarrek elkarren kontra futboleko jokatzeko zutenean giroa sortzen zen katean. Pikeak eta partiduen inguruko komentarioak ugari izaten ziren. Elgoibartarren eta eibartarren artean beti egon izan dira pikeak.

348. Ama astoarekin kalera barazkiak saltzera (EGB-014/038)

Guenetxeberri baserrian ganadua eta ardiak izaten zituzten. Baratzea ere bazuten eta kalera saltzen zituzten baserriko gaiak. Ama joaten zen kalera astoarekin. Damakortan bizi zenean Mendarora joaten zen ogitara eta Elgoibarrera etorri zirenean Ibarreko errotara.

349. Baserritarrek elkarri laguntzen zioten (EGB-014/039)

Kaletarrek eskola gehiago izaten zuten eta baserritarrak beti "aplastatuago" egoten ziren. Baserriko bizimodua gogorra da. Hurbilen zituzten baserriak Basoeta eta Goenaga. Baserritarrek asko laguntzen zioten elkarri.

350. San Pedroko fabrikako lan-baldintzak (EGB-014/040)

19 urterekin hasi zen lanean San Pedroko fabrika. Ze lan egiten zituen bertan. Zortzi ordu lan egiten zituen egunean, baita larunbatetan ere. Hamabost egun izaten zituzten oporrak. Sei pezeta kobratzen zituzten eguneko eta gauez egiten zutenean zazpi.

351. Lehenbizi San pedroko fabrika eta gero hojalatero (EGB-014/041)

Gerra aurreko enpresa garrantzitsuena San Pedroko fabrika zen. Gerora hasi ziren Alkorta, Gabilondo eta besteak. San Pedroko fabrika lanean zegoela soldadutzara joan beharra izan zuen. Handik itzultzean berriz bertan hasi zen lanean. Bi urte eta erdi egin zituen bertan. Gero Fructuoso Iriondorekin hasi zen hojalaterian lanean. Urtebete inguru egin zuen honekin eta gero bere kontura hasi zen hojalatero lanetan.

352. Elgoibarko lehenengo kotxeak (EGB-014/045)

Elgoibarren ezagutu zituen lehenengo kotxeak Patxi "Polon"-ena eta Iglesiasena ziren. Geroago Ortuetak ere bazuen kotxea eta eurak ehizara joaten ziren harekin.

353. Iruñean batailoia osatu eta Elgoibarrera etorri ziren (EGB-014/049)

Espainiako Gerra Zibila. Azkaratetik behera etorri ziren soldaduak, eurak baserrian zeudela. San Migel aldera ihes eginda zegoen jendea. Nazionalek jandea eraman zuten Iruñe;era gerrarako. Han osatu zen bere batailoia eta, kasualitatez, Elgoibarrera ekarri zituzten. Iristean, zerrendan jarri eta zozketa egiten zuten bakoitza zein gunetara bidali. Berari, hasieran, udaletxera joatea tokatu zitzaion. Gero Ipintzaburura, San Pedro ondora.

354. Kapitanak laguntzaile gisa hartu zuen (EGB-014/050)

Hilabete egon ziren Ipintzaburun; eta, gero, hiru hilabete Arraten egin zituzten. Soldadutzako denbora ondo pasatu zuen. Kapitaina nafarra zen, eta emaztea Donostiarra zuen. Hasieratik, bera laguntzaile moduan hartu zuen eta haren aldamenean ez zitzaion ezer falta izaten.

355. Bilbo inguruan zauritu egin zuten (EGB-014/051)

Bilbo inguruan zauritu egin zuten: gerri aldean sartu zioten bala, ezkutatzen ari zela. Bilbora eraman zuten ospitalera eta hurrengo egunean operatu zuten. Ospitalean leku gutxi zegoen eta laster Gernika inguruko herritxo batera

eraman zuten. Hiru hilabeteren ostean, Iruñera eraman zuten eta handik Kataluniara. Han berriz zauritu zuten.

356. Gernikako bonbardaketa Sollubetik ikusi zuen (EGB-014/052)

Elgoibar ez zen asko apurtu bonbardaketen eraginez. Gernikako bonbardaketa gertatu zenean, Solluben zeuden eurak. Bederatzi hegazkin etorri ziren; bonbak nola ikusten zituzten. Arratsaldeko bostetan kez beteta geratu zen dena eta hurrengo egunera arte ez zuten ikusi herria.

357. Aita Bolibarkoa eta ama Mendarokoa (EGB-015/003)

Taberna bat zegoen "Naparkua" deiturikoa Altzolan. Juanen aita Bolibarkoa eta ama Mendarokoa ziren eta ezkondu ondoren joan ziren Altzolara. 5 anai-arrebako familiakoa da Juan.

358. Baserria osabena zen (EGB-015/004)

Anai-arrebetan hirugarrena zen Juan. Aitona-amonak etxetik beheragoko baserrian bizi ziren. Altzolako baserria aitaren senideena zen, osabena.

359. Aitak zentrala zaindu eta amak etxeko lanak egin (EGB-015/005)

Zentraleko etxea txikia zen, bi gela eta sukaldea zituen. Aitak zentrala zaintzen zuen eta ama etxeko lanetan aritzen zen. Amona ez zuen askorik ezagutu, baina bera eta osaba ziren umetan sorginen ipuinak kontatzen zizkietenak. Errespetu handia zieten zaharragoei orduan.

360. Lehenbizi Altzolako eskolan eta gero Mendaron (EGB-015/006)

Eskolan Altzolan bertan ibili zen 14 urtera arte eta, ondoren, Mendarora joan zen 16 urtera arte. Altzolan eskola bakarra zegoen; Elgoibarko eskolak izendatzen ditu. Neska-mutilak batera joaten ziren. Doktrina zuten ikasgai nagusi eta apaizarengana joaten ziren hura ikastera. Erdaraz ikasten zuten; maistra gernikarra eta zumaiarra izan zituen.

361. Eskolan diziplina handia (EGB-015/009)

Eskolan diziplina handia zuten. Ikasle bakoitzak bere liburua izaten zuen. Geografia, historia, marrazketa eta abar ikasten zuten. Mendarora egunean bi orduz joaten zen ikastera, ordainduta. Maisuaren inguruko kontuak kontatzen ditu. Mendaron 20 bat lagun joaten ziren. Altzolan adin ezberdinetakoak batera ibiltzen ziren.

362. Altzolako giroa (EGB-015/010)

Gaztetan 16 urtera arte ez ziren tabernara sartu. Altzolako kuadrilla zuen eta bertan ibiltzen ziren. Altzolako tabernako giroa aipatzen du.

363. Gerra ondoren hasi ziren tabernetara sartzen (EGB-015/011)

Garai hartan tabernan ardoa edaten zen eta kafea, pattarra eta purua. Gerra bukatu ondoren hasi zen parrandara ateratzen Elgoibarrera; han pasatzen zituzten tabernak izendatzen ditu. Etxean baino kalean denbora gehiago igarotzen zuten.

364. Mendira eta hondartzara inguruko bazterretara (EGB-015/012)

Baserrietan fruta-lapurretan aritzen ziren umetan. Mendira kuadrillan joaten ziren, Madariaga, San Migel eta inguruetara. Hondartzara bizikletaz eta oinez Debara joaten ziren; Altzolako errekan ikasi zuen igerian. Itsasontziak Altzolaraino sartzen ziren garai hartan.

365. Jai edo aste, arropa desberdinak (EGB-015/016)

Umetan, astegun edo asteburu izan, arropa ezberdina erabiltzen zuten. Prakak eroatera, jostunarengana joaten ziren. Baserrian abarkekin ibiltzen ziren, eta asteburuan zapatekin. Gasteizko gizon garrantzitsu bat Altzolara joaten zenekoa aipatzen du.

366. Etxean dutxarik ez eta errekarara bainatzera (EGB-015/017)

Bainujantzia arropa zaharrekin egina izaten zen. Presan bainatzen ziren udan. Etxean ez zuten dutxarik eta jendea errekarara joaten zen. Ilea etxean mozten zuten. Arropa dendak izendatzen ditu. Orduan ez zen gaur bezala begiratzen zeinek zer janzten zuen.

367. Neskalgun bila erromeriara (EGB-015/018)

Neska-mutilak erromerietan ezagutzen zuten elkar; Madarixa, Maltzaga, Mendaro eta inguruetara joaten ziren. Neska-laguntzeak aipatzen ditu; neska asko izan zituen. Orduko neska politen aipamena egiten du. Neskekin une goxoak pasatzera nora joaten ziren.

368. Neskak mutilekin soilik tabernara (EGB-015/019)

Neskak mutilekin joanez gero bakarrik sartzen ziren tabernara. Orduan erre ere ez zen egiten.

369. Egunero irakurtzen zuen egunkaria (EGB-015/020)

Elgoibarren bi zine ezagutu zituen, baina gutxitan joaten zen, ez zitzaion gustatzen eta. Egunero irakurtzen zuen egunkaria, 'La Voz de Guipúzcoa'. Dantza erromerietan egiten zuen eta orduan trikitia zen musika nagusia.

370. Lehenengo irratia etxean (EGB-015/021)

Lehenengo irratia gerra ostean izan zuten etxean eta albisteak eta musika entzuten zituzten, erdaraz gehienetan. Elgoibarren herriko banda eta Gelatxo ziren musikari ezagunenak.

371. Dantza lotua debekatua zenbait lekutan (EGB-015/022)

Gustukoen zituen erromeria-lekuak aipatzen ditu. Azkoitia partean soltean dantza egiten zen eta Elgoibarren helduan. Dantza lotua toki batzuetan debekatua zegoen.

372. Elgoibar eta Altzolan euskara nagusi (EGB-015/023)

Altzolan eta Elgoibarren dena euskaraz egiten zuen Juanek. Euskararen kontra zegoenik ez zegoen inor Altzola inguruan, baina kanpotik heltzen ziren erreketeez ez zuten gustuko inor euskaraz hitz egiten entzutea.

373. Oinutsik pilotan jokatzeko (EGB-015/024)

Pilota eta bizikleta atsegin zituen Juanek. Pilotak beraiek eginak izaten ziren eta alpargatak ez puskatzearen, oinutsik jokatzeko zuten askotan. Orduko pilotari eta futbolariak aipatzen ditu.

374. Lehenengo bizikleta Orbea markakoa (EGB-015/026)

Bizikletan asko ibili zen, Azkoitia eta Ondarroara joaten zen lagunekin. 16 urterekin, gerra-aurrean, ikasi zuen bizikletaz ibiltzen eta ez zuten arropa berezirik. Lehenengo bizikleta Orbea markakoa izan zuen, aitak oparitua.

375. Herri-kirolak, bola-jokoa eta futbola (EGB-015/027)

Etxean ilusio gehien egindako oparia bizikleta izan zen; ez zuen lasterketetan sekula parte hartu. Herri-kirolen aipamena egiten du; apustuak. Boletan Altzolan eta Mendaron ibiltzen zen. Neskek ez zuten kirolak egiten. Futbolearen auzotarrekin behin jokatuak partiduaren eta marrazain ezagun baten inguruko kontuak.

376. Elgoibar, Altzola eta inguruko festak (EGB-015/028)

Altzolako jaiak San Joanetan izaten ziren eta festetan izaten zen giroa aipatzen du. Elgoibarko San Bartolomeak, Txiki eguna, Mendaroko prozesioak...

377. Gaztetako eguneroko bizimodua (EGB-015/029)

Gaztetako eguneroko bizimoduaren nondik norakoak aipatzen ditu. Baba gorriak jaten zituzten nagusiki eta gainontzeko janaria erostera Elgoibarko azokara joaten ziren oinez. Ogia okinak eramaten zuen zaldiz karroa hartuta eta gero autoz.

378. Elgoibarko medikua bizikletaz Altzolara (EGB-015/030)

Altzolan ez zegoen botikarik, Elgoibarren bai. Medikua Elgoibartik joaten zen inor gaixotuz gero. Juanen medikua Don Jose zen eta bizikletaz joaten zen Altzolara.

379. Oporretara errioxar ugari bainuetxera (EGB-015/031)

Altzolakoa izan arren, sekula ez zen bainuetxera bainua hartzera joan. Oporrak pasatzera errioxar asko joaten zen Altzolara. Garestia zen.

380. Igandero mezetara; monagilo-lana (EGB-015/032)

Derrigorrean joan behar izaten zuten igandero mezetara. Egutero egoten zen meza. Umetan monagilo lanetan aritu zen Juan. Apaizaren inguruko aipamena egiten du.

381. Mendaron ezkondu eta Zaragozara ezkonbidaian (EGB-015/035)

Mendarokoa du emaztea eta Mendaron bertan ezkondu ziren. Gonbidatu asko izan zituzten. Ezkonbidaia Zaragozara egin zuten 12 egunez eta emaztearen

anaiarekin batera joan ziren hura ere orduantxe ezkontuta zegoelako. Autobusez joan ziren.

382. Jatekorik ez zitzaien falta baserrian (EGB-015/041)

Juanen baserria handia zen. 10 lagun bizi ziren etxean. Anaiekin lo egiten zuen Juanek. Baserrian babak, artoa, garia, eta abar zuten. Izeba joaten zen azokara saltzera. Behiak, ardiak eta beste hainbat ganadu zuten etxean. Ez zitzaien jatekorik sekula falta izan.

383. Gerra aurretik Zentralean eta ondorenean Sigman lanean (EGB-015/043)

Soldadu joan baino lehenago Rezolaren zentralean elektrizista moduan aritu zen lanean. Gerra etorri zenean utzi eta 24 urterekin Sigma lantegian hasi zen lanean, 59rekin jubilatuta arte. Sigman fresadoran eta tornuan lan egiten zuen. Zapatuetan ere lanera joaten ziren. Oporrak zortzi egunekoak izaten zituzten eta soldata egindako lanaren arabera izaten zen.

384. Elgoibar inguruko lehenengo kotxeak (EGB-015/048)

Elgoibar eta inguruetako lehenengo kotxeak. Telebista 65. urte inguruan erosi zuten.

385. Errepublikaren onurak (EGB-015/052)

II. Errepublikako kontuak kontatzen ditu. Kanean, askatasun gehiago lortu zuten; eta, lantegietan, ordutegi eta oporrak lortu zituzten. Eliza haserre zegoen eta apaizaren sermoietan nabarmena izaten zen. Errepublikak onura ekarri zuen Juanen ustez.

386. Altzolatik Markinara, gerratik ihesi (EGB-015/053)

1934ko eta Gerra Zibileko kontuak aipatzen ditu. Altzolatik ihesi, "gorriekin" Markinara joan ziren, eta trintxerak egiten lan egin zuten. Gerrate garaian, Bilbo eta Balmaseda inguruan ibili ziren. Bi aldeetan egotea tokatu zitzaion: "gorriekin" eta Francoren aldekoekin. Zaragoza, Cordoba eta beste leku batzuetan ere ibili zen. 7 urte egin zituen.

387. Gerraren ondorioak Elgoibarren (EGB-015/054)

Gerra ondorenean etxera bueltatu eta jende ugari zegoen kartzelan. Fusilatutak aipatzen ditu. Gerraren ondorioak Elgoibarren ez ziren asko antzeman.

388. Frankismoak gosea ekarri zuenekoa (EGB-015/055)

Frankismoak urte gogorrak ekarri zizkien, gosea pasa zuten errazionamendua zela eta. Zumarragara tren zegoen eta estraperloa egiten zuten.

389. Lanera bizikleta eta ziklomotorrean (EGB-015/056)

Lanera Sigmara joateko bizikleta eta mobiletean moldatzen zen.

390. 1916an Mutrikuko Sakonetan jaioa (EGB-017/001)

Mutrikuko Sakoneta baserrian jaio zen 1916an. Gurasoak hil zirenean baserria saldu egin zen. 8 anai-arreba ziren eta aitaren gurasoak ere beraiekin bizi ziren. Aita Sakonetakoa eta ama Etxebarrikoa zituen. Anai-arrebetan bosgarrena zen.

391. Elgoibarko "Arriola" tabernan aritu zen lanean (EGB-017/004)

28 urterekin ezkondu eta Elgoibarrera joan zen eta bertan jarri zen bizitzen. Arriolanekoa tabernakoak lehengusuak zituen eta hara joan zen lanera. Senarra bertan ezagutu zuen.

392. Etxeko atea trangarekin bakarrik ixten zen (EGB-017/006)

Bere baserria nolakoa zen deskribatzen du. Etxe ataritik pasatzen zen jendea Eibar eta inguruko herrietara joateko. Ez zuten etxeko atea sekula giltzaz ixten, trangaz ixten zuten.

393. Baserriko lanetatik bizi ziren (EGB-017/007)

Aitak baserriko lana egiten zuen eta Mariak eta anai-arrebek ere baserriko lanetan jarduten zuten. Sagardoa egiten zuten etxean eta ganadua zuten. Urik ez zuten etxean.

394. Jauna hartzeko doktrina jakin behar buruz (EGB-017/009)

San Isidro eskolara joan zen jaunartzea egin arte, 11 urtera arte, zazpirekin hasita. Doktrinari ematen zitzaion garrantzia handiena eta konfesatzera joandakoan doktrina ez bazekiten ez zuten jaunik hartzen.

395. Euskaraz ikasten zuten (EGB-017/010)

Maisuen izenak aipatzen ditu. Euskaraz ikasten zuten eta neska eta mutil batera joaten ziren.

396. Eskolatik atera orduko, etxera lanera (EGB-017/011)

Eskolatik atera eta etxera joan behar izaten zuten lanera. Goiz eta arratsalde izaten zuten eskola eta oporrak gutxitan izaten ziren.

397. Eskola liburuak eta zigorrak (EGB-017/012)

Maistra elgoibartarra izan zuen. Liburu gutxi izaten zituzten eskolan. Piper eginez gero belaunikatuta edukitzen zituzten zigortuta.

398. 17-18 urterekin Bilbon neskame (EGB-017/014)

17-18 urterekin Bilbon egon zen neskame etxe batean. Ahizpak ere han zeuden lanean beste etxe batzuetan. Mariarekin beste hiru egon ohi ziren eta "Campos Eliseos"era joaten ziren lagunekin dantza egitera. 15 egunean behin jaisten ziren kalera.

399. Umetako gaiztakeria eta ibilerak Mutrikun (EGB-017/015)

Mutrikun gazte guztiak ezagunak ziren eta auzoan bertan egoten ziren. Umetako gaiztakeriak aipatzen ditu. Arno mendira eta Arno-atera joaten ziren erromeriara dantzara. Bertako gizonak jo ohi zuen soinua.

400. Arnoateko erromeriak (EGB-017/016)

Arnoaten pazko eta kandelario egunetan egiten zen erromeria eta inguruko herrietako jendea joaten zen. Jana baserrian ematen zuten.

401. Umetako jantziak (EGB-017/018)

Umetan bata, jertse eta abarkak jantzi ohi zizkien. Arropa onena igandetarako uzten zen eta amak egiten zizkien jantziak.

402. Neska-mutilen nobio garaietako kontuak (EGB-017/020)

Neska-mutilek erromerietan ezagutzen zuten elkar eta etxerakoan mutilek neska-laguntzea egin ohi zuten. Gustukoarekin hasteko dantza eskatzen zuten. Lehenengo izan zuen mutil-lagunaren inguruko kontuak kontatzen ditu. Garai hartan matxismo izugarria zegoen, etxean emakumeek egin behar izaten zuten lana.

403. Debako hotelean, Ondarroan neskame eta Elgoibarko Arriola tabernan lanean (EGB-017/021)

Bilbotik bueltan Debako hotelean zerbitzari eta Ondarroan neskame egon zen Elgoibarrera bueltatu aurretik. Elgoibarren Arriola tabernan hasi zen lanean eta bertan ezagutu zuen gero bere senarra izango zena.

404. Herritar gehienak Sigman lanean (EGB-017/022)

Arriola tabernaren kokapena azaltzen du; tabernaren inguruko kontuak. Herri guztiak Sigma lantegian lan egiten zuen eta jende asko hurbiltzen zen tabernara. Gizonak Gabilondo lantegian lan egiten zuen eta lantegia Gasteizera eraman zutenean beraiek herrian geratu eta Aldanondo kooperatiban hasi zen lanean.

405. Elgoibarko "Odeon" zinema (EGB-017/023)

Elgoibarren "Odeon" deituriko antzokia zegoen eta bertan pelikulak botatzen zituzten. Maria gustura joaten zen zinera igandero; 5etatik 7retara izaten zen eta Sara Montiel eta Cantinflasen pelikulak jartzen zituzten.

406. Senarraren familia, soinujole mundukoa (EGB-017/025)

Zinea amaitzean, igandero, dantza egoten zen plazan, iluntzean hasita. Orduko bandako partaideak izendatzen ditu. Mariaren senarraren familiakoak soinujole eta soinu munduarekin lotura handia zutenak ziren: Gelatxo soinujole ezaguna Mariaren koinatua zen.

407. Garai hartan Elgoibarren euskara nagusi (EGB-017/026)

Elgoibarren euskaraz egiten zen gehien, Mariak erdaraz gutxi zekien. Arriola tabernan ere euskaraz egiten zen.

408. Elgoibarko festak (EGB-017/028)

Mariarentzat Elgoibarko jai politenak San Bartolomeak izaten ziren. Sokamuturra eta banda militarra egoten ziren eta banda asko gustatzen zitzaion. Txiki eguna egun handia izaten zen. Trinidadetan tanborrada egoten zen, baina ez ziren festa garrantzitsuak. Elgoibarko auzoetako erromeriak aipatzen ditu.

409. Etxeko jatorduetako jakiak (EGB-017/029)

Goizetan 8retan jaikitzen ziren eta eskolara 9etarako joaten ziren. Eskolarik ez zutenean etxeko lanetan aritzen ziren. Arto-esnea, morokila, kafesnea, baba, berdura eta abar jaten zuten. Larruskaingo errotaraino joaten ziren artoa ehotzera eta ogia etxean egiten zuten. Etxean egindako sagardoa edaten zuten.

410. Mezara igandero (EGB-017/030)

Igandero joaten zen mezara goizean sei eta erdietarako. Apaizak izendatzen ditu. Parrokiara joaten ziren. Santa Klarako parrokia aipatzen du eta haien inguruko kontuak.

411. Jaunartzea Mutrikun eta ezkontza Elgoibarren (EGB-017/031)

Jaunartzea Mutrikun egin zuen 11 urterekin. Jantzi dotorea eraman zuen. Ezkondu Elgoibarren egin zen; goizeko 6etan izan zen elizkizuna. Ezkonbidaiara Donostiara joan ziren bi egunerako. Ezkondu ondorengo bizilekuak aipatzen ditu.

412. Elgoibarko prozesioak (EGB-017/032)

Bi seme izan zituen. Mutrikun egondakoa bazen ere elgoibartartzat dauka bere burua. Elgoibarko prozesioetan bere senarra eta anaia santua eramatera joaten ziren. Prozesio ezberdinak aipatzen ditu.

413. Lehenengo kotxe, irrati eta telebistak (EGB-017/038)

Elgoibarko lehenengo kotxeak zeintzuk izan zituzten aipatzen du. Irratia Mutrikun izan zuen lehenbiziko aldiz. Arrate irratia entzuten zuten; soinua izaten zen nagusiki. Telebista Elgoibarren zegoela izan zuen lehenbizikoz, semeek erosita.

414. Errepublika garaia (EGB-017/040)

Primo de Riveraren inguruko kontuak. Errepublikak eragin txarra izan zuen Mariaren ustez, gerra zetorrela ikusten zen. Gerra atera zenean, Maria Bilbon zegoen eta aberatsek dirua ezkutatu eta jendea lan eta diru gabe geratu zen. Uda pasatzera Algortara joaten ziren eta han zeudela ikusi zituzten gerra zibileko karlistak.

415. Gerra garaian, Laredora ihesi (EGB-017/041)

Gerra garaian, Donostiako neska bat eduki zuten etxean. Maria ahizparen etxean egon zen, eta handik Laredora ebakuatu zituzten gauez trenez. Atarietan ezkutatu joan ziren, baletatik babesteko. Ahizpa eta sendikoei buruzko kontuak kontatzen ditu. Jatekoa bazuten, baina ardorik ez, eta askok koñaka edaten zuten.

416. Ormaetxea jauregian jaioa; etxeko giroa; biografia (EGB-018/001)

Ramon Elgoibarren jaio zen 1921ean Ormaetxea jauregian. Gero 4 urte zituela Santa Klarara joan zen bizitzera eta han pasatu du bizi osoa. Deba kalea nolakoa zen orduan; ez zegoen ezer. Sei familia bizi ziren euren eraikinean. Etxean aita-amak, anaia eta bera bizi ziren. Amak etxeko lanak egiten zituen. Lehengo Elgoibar eta oraingoaren arteko aldea. Elgoibarrek kanpandorra izan

du berezia. Aita Soraluzekoa zen eta ama bergararra. Aitak lana topatu zuelako Elgoibarren etorri ziren Elgoibarrera bizitzera.

417. Ormaetxea jauregia (EGB-018/004)

Euren etxea handia zen, jauregia izandakoa, eta armarría ere bazuen. Eraikinean bizi ziren familiak.

418. Kirol asko egiten zuten (EGB-018/007)

Beste entretenimendurik ez eta kirola egiten zuten.

419. Eskolako zigorrak (EGB-018/008)

Zigor moduan hainbat bider esaldi bera idaztarazten zieten, baina bestelako zigor gogorrik ez zieten ezartzen. Don Erasmo irakaslea omen zen gogorra, baina ez zen izan bere irakaslea.

420. Eskolatik Eskoriatzara txangoa (EGB-018/010)

Lau liburu oinarrizko izaten zituzten eskolan. "Don Quijote" irakurtzen zuten irakurketa egiten zutenean. Urtean behin txangoa egiten zuten ikaslerik aurreratuenekin. Gogoan du behin Eskoriatzako San Viator ikastetxea ikustera joan zirela.

421. Elizan emakume eta gizonak aparte (EGB-018/014)

Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Elizan ere banatuta esertzen ziren emakume eta gizonezkoak. Azkenean don Jose parrokoak kendu zuen ohitura hori.

422. Mendirako eta perretxikutarako zaletasuna (EGB-018/015)

Lehenagoko umeak ezjakinagoak zirela uste du. Mendira asko joaten ziren mutikotan. Erlo, Kalamua eta inguruko mendietara joaten ziren. Beste herri batzuetako mendietara ere joaten ziren tarteka. Perretxikutarako ere zaletasun handia izan du. Urritxak eta zizak batzen zituzten gehien. Mendira joateko arropa eskasa zuten lehen. Oinetakoei ura sartzen zitzairen.

423. "La Elgoibarresa" autobusak (EGB-018/016)

Inguruko herrietara ere joaten ziren erromerietara. Oinez edo autobusean ibiltzen ziren batetik bestera. Eibarrera joateko "La Elgoibarresa" autobusak egoten ziren. Pedro Loiola zen hauen jabea. Autobusak utzi ondoren fundizioa eduki zuen. Gerra aurretik Ezkion Ama Birjina azaldu zela esaten zutenean ere jendeak autobusa alokatzen zuen hura ikustera joateko.

424. Gerra-ostean udalak dutxak jarri zituen kalean (EGB-018/019)

Etxeetan ez zen dutxarik egoten eta presara joaten ziren bainatzera. Udalak gerra-ostean dutxak jarri zituen San Frantzisko kalean. Fabrikatik irtendakoan jendea hara joaten zen txandaka dutxatzera. Emakume batek garbitu eta zaintzen zituen dutxak eta zerbait ordaindu egin behar izaten zen. Horren aurretik presan edo etxean palanganarekin garbitzen ziren.

425. Hondartzara bizikletaz joaten ziren (EGB-018/022)

Bizikletaz joaten ziren Debara hondartzara. Presan ikasi zuen igerian. Bainujantzirik ez zen izaten eta futboleko frakekin bainatzen ziren.

426. Antzerki-talde onak zeuden herrian; antzezlan ezagunak (EGB-018/024)

Antzerkia ikusteko zaletasuna ere izan du. Herrian talde onak omen zeuden. Herriko zenbait artista: Juaristi, Vallejo, Rementeria... Orfeon Lagun onak taldea ibiltzen zen antzerkiak antolatzen eta antzeztzen. El Caserío antzezlan. Odeoia inauguratu zen inguruan Las chicas del tren antzezlan ekarri zuten eta zinea egunero beteta egoten zen.

427. Udaletxean zegoen liburutegia (EGB-018/025)

Irakurtzea ere gustatu izan zaio, batez ere historia kontuak. Udaletxean bertan zegoen lehen liburutegia eta liburu ezagunak egoten ziren bertan. Ezin izaten ziren liburuak handik atera eta bertara joaten ziren irakurtzera.

428. 'Marca' eta 'El Diario Vasco' irakurtzen zituen (EGB-018/026)

Kirol-kontuak asko interesatzen zitzaizkion, eta As eta Marca egunkariak irakurtzen zituen. Aitak ez zuen egunkaririk erosten baina berak bai; El Diario Vasco irakurtzen zuen La Voz de España baino euskaldunagoa zelako. Lanean hasi zenetik egunero irakurtzen zuen egunkaria. Lehenagoko egunkariak.

429. Domeketan musika plazan; don Eugenio aguazila (EGB-018/028)

Igandetan musika-bandak jotzen zuen plazan. Aguazila jendea zaintzen ibiltzen zen eta dantzarik egiten ez zutenak apartatu egiten zituen. Don Eugenio aguazila zorrotza zen. Domeka iluntzetan izaten zen musika plazan.

430. Euskararen alde egin zuten herritarrak (EGB-018/030)

Umetan dena euskaraz egiten zuten. Eskolan ere euren artean euskaraz, baina irakasleekin gaztelaniaz. Saturnina Ciaran irakasleak bietara egiten zuen. Bazeuden herrian euskararen alde egiten zutenak: Felix Etxeberria 'Parapan', Frantzisko Juaristi, Maite Vallejo, Lurdes Alberdi... Euskaraz ez zekitenek "Habla en cristiano" esaten zuten.

431. Bizikleta lanera joateko erosi zuen (EGB-018/032)

Morkaiko elkartetik mendira joaten zen. "Gure bide" txirrindulari taldean antolatzaile moduan ere ibili zen. Futbolean ere ibili zen, baina ez omen zen oso ona eta atezain jarri zuten horregatik. Bizikleta Eibarrera lanera joateko erosi zuen, baina gero lasterketetan ere parte hartzen zuen, afizionatu mailan izan arren.

432. Pilota partiduak ikustera Eibarrera (EGB-018/033)

Gutxitan joaten zen pilota partiduak ikustera, baina tarteka joaten ziren Eibarrera Ogetak-edo jokatzeko zuenean. Elgoibarren plazan jokatzeko partiduak eta esertzearren ordaindu egin behar izaten zen.

433. Morkaiko elkartearen sorrera (EGB-018/035)

Eibarko klub deportiboaren barruan ibiltzen ziren elgoibartarrak eta halako batean herritar batzuk (Etxaniz, Izagirre...) elkartu eta bertako taldea sortzea pentsatu zuten. Horrela sortu zen Morkaiko mendi elkarte 1943an. Iñaki Conde jarri nahi izan zuten lehendakari, baina kartzelan egondakoa zenez Eduardo Agirre jarri zuten ofizialki lehendakari.

434. Pilota partiduak tanto bakoitzean txandatuak jokatzeko ziren (EGB-018/036)

Lehen ez zegoen pilota irakaslerik, baina jendea beti frontoian egoten zen eta euren kasa ikasten zuten. Pilota partiduak txandaka jokatzeko zitzuten, hau da, bakoitzak tanto bat egin eta gero bigarren tantoa. Ez hoztearren egiten zen hori. Pilotari ugari zegoen lehen herrian.

435. San Bartolome jailetako egitaraua (EGB-018/039)

Ez zen erronomia zalea. San Bartolomeak ziren herriko jai garrantzitsuenak. San Bartolome egunean bandaren kontzertua egoten zen. Burgosko banda militarra etortzen zen. Giro oso ona egoten zen jailetan; gainera, jendeak asko abesten zuen kalean. Sokamuturra ere egoten zen. Atrakzioak ere egoten ziren.

436. Mendi-itzulia egin ostean Altolako bainuetxera (EGB-018/044)

Behin bakarrik egon zen Altolako bainuetxean. Mendi-itzulia (Elgoibarko itzulia) egin ostean joan ziren bainuetxera eta berrituta irten omen ziren. Ezagun baten bitartez joan zirenez ez zieten kobratu.

437. Santa Klarako mojak (EGB-018/045)

Igandero joaten zen mezara parrokiara. Hiru meza egoten ziren parrokian eta bera 10etako meza nagusira edo goizeko zazpitakora joaten zen. Santa Klarako mojen komentuaren ondoan bizi zen eta lan ugari egiten zutela komentatzen du.

438. Prozesioetan santua eramanez izan du oinutsik (EGB-018/048)

Aste Santuko prozesioak. Santua eramanez joan izan da askotan oinutsik. Nondik nora egiten den prozesioa; lehen batzuetan Maalaraino ere joaten ziren. Ordu erdi inguru izaten zen. Abestu ere egiten zuten.

439. Elgoibartar eta eibartarren arteko pikea (EGB-018/049)

Beti egon izan da pikea eibartar eta elgoibartarren artean. Eibartarrek elgoibartarrak sikuak zirela esaten omen zuten. Eibar handiagoa zen eta eibartarrak horretaz harro zeuden.

440. Eibar-Elgoibar futbol partiduetako giroa (EGB-018/050)

Elgoibar eta Eibarren arteko futbol partiduak zeudenean tren espeziala egoten zen eta Eibartik jende asko etortzen zen partidura. Gero kalean geratzen ziren eta giro ona egoten zen.

441. Elkarte askotako kidea zenez, ez zen politikan sartu (EGB-018/051)

Politikarako interesa beti izan du, baina ez da inoiz partidu konkretu batean sartu. Elkarte askotako kidea zenez, ezin zen politikan nahastu.

442. 16 urtetik jubilatuta arte "Estarta y Ecnarro"-n lanean (EGB-018/055)

Aita mekanikoa zen eta San Pedroko fabrika lan egiten zuen. Bera 16 urterekin hasi zen "Estarta y Ecnarro"-n lanean eta jubilatuta arte bertan jarraitu zuen. Tornero lanak egiten zituen hasieran, gero almagaz buru egin zuten eta gero bulegora pasatu zuten. Hasieran larunbatetan ere lan egiten zuten eta 10 ordu egiten zituzten. Gerora orduak gutxitzen joan ziren. Oporrak. Eulogio Estarta, nagusia, langileekin batera ibiltzen zen txikiteoan.

443. Lehenbizi gaztelaniazko irratiak; geroago Arrate irratia (EGB-018/063)

Lanean hasi eta lasterrera erosi zuten lehenbiziko irratia. Radio San Sebasti´n edo Radio Nacional entzuten zuten. Gaztelaniaz bakarrik zeuden irratiak orduan. Arrate Irratia hasi zenean entzuten ziren trikitixa eta halakoak.

444. Herriko armagin, aguazil eta serenoak (EGB-018/064)

Elgoibarko armaginak: Gabilondo, Arrieta... Elgoibarren ez zegoen grabadore asko, Eibarrek zuen horretan fama. Aguazilak: Eugenio Arrien eta Benito Iruretagoiena. Eugenio aguazilaren inguruko kontuak. Serenoak: Justo Etxabe, Ziarda, Antonio Juaristi, Luis Artetxe...

445. Herriko pertsonaiak: notarioa, arrain-saltzaileak, zapatariak... (EGB-018/065)

Agerrezabal baserrikoak ekartzen ziren eurei esnea. Arrain-saltzaileak: Emili, Angela Mendizabal... Errekadistak: Etxabe, Teodora Arriola, Dorita Aranguren. Azken bi hauek Donostiara joaten ziren. Notarioa: Natalio Arrien. Pelukeroak: Gorostiza eta Agapito. Azken hauek aita-semeak ibiltzen ziren Agapito eta Juan Gabilondo. Sastreak: Genaro Garate eta beste Garate bat. Harakina naparra zen: Bizente Unzilla. Okindegiak: Foterokoa, Ibarre... Zapatariak: Paula "kojia". Arotza: Antonio Unamunzaga. Iglesias anaiak lehenengo taxi-gidariak izan ziren.

446. Soldaduak etxeetan geratzen ziren lotan (EGB-018/068)

Nazionalak Azkaratetik behera sartu ziren Elgoibarrera, eta bere etxetik ikusi zuen. Jendeak beldurrez bizi izan zuen gerra garaia. Aurretik ez zuten inoiz etxerik ixten, baina orduan aurrera bai. Etxeetara sartzen ziren eta bertan lotan ere geratzen ziren batzuetan.

447. Fusilamenduak gerra garaian (EGB-018/071)

Fusilamenduak ere egon ziren gerra garaian. Osaba baten anaia fusilatuta zuten Olason: Jose Alberdi. "Olasope" izeneko zentrala zegoen eta bertan telefonoa zuten. Erreketek batek gerrari buruz hitz egiten ikusi eta salatu egin zituen. Epaiketa egin ostean, heriotza-zigorra ezarri zieten zazpi laguni. Bi fusilatuta egin zituzten.

448. Gosea gerra-ostean; errazionamendua (EGB-018/072)

Gerra amaitu zenean poztu egin ziren alderi bietakoak. Herria ez zen asko apurtu gerra-denboran. Ezagun baten ama bonbardaketan hil omen zen. Gerra-ostean gose handia pasa zuten. errazionamendua.

449. Idiazabalgo Mitzizar baserrian jaioa (EGB-019/001)

Idiazabalgo Mitzizar baserrian jaio zen 1912an artzain familia baten. 14 urtera arte bizi izan zen Mitzizar baserrian. 7 anai-arrebatatik bigarrena zen bera, baina anai bat umetan hil zen. Aita gripe-izurritean hil zen. Amona ere eurekin bizi zen.

450. Baserriko bizimodua; ama Ordiziako azokara joaten zen (EGB-019/002)

Baserri zaharra zen eurena, baina ingurua oso polita zen. Lur-sail ederrak zituzten. Ganadua eta oiloak izaten zituzten eta baita ortua ere. Artoa, eta garia ereiten zituzten. Ama Ordiziako feriara joaten zen jeneroa saltzera eta beharrezko gauzak ekartzen zituen gero kaletik. Amona bizi zenean etxean egiten zuten ogia baina gero Ordiziatik etortzen zen okina.

451. 11-12 urterekin erromeriara joaten ziren (EGB-019/005)

Astegunean eskolan egoten zen lagunekin eta jaietan erromeriara joaten ziren. Danbolinarekin egiten zen erromeria. Inguruko festetara joaten ziren 11-12 urterekin: Segurara, Olabarrira... 16 urterekin neskame egon zen Donostian etxe aberats batean.

452. Ahizpa Bilbora bidali zuten 4 urterekin (EGB-019/006)

Eskolan oporrak izaten zituzten. Ahizpa batek 7 hilabeterekin meningitisa pasatu zuen eta ez zuen hizketan ikasi. Abade batek esan zien Deustun bazela halakoentzat eskola bat eta 4 urterekin hara eraman zuten. Udaran alabaren bila joateko lanak presaka bukatzen ibiltzen zen ama. Orduan abentura handia zen Bilbora joatea.

453. Inguruko herrietako jaietara erromeriara (EGB-019/007)

Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Inguruko erromerietara joaten ziren: San Juanetan Segurara, San Pedroetan Mutilora... Oinez egiten zuten joan-etorria eta iluntzerako etxean egon behar izaten zuten. Gaiztakeriak: behin amari kexuz joan zitzaizkion aranak lapurtu zituztela eta.

454. Etxegaraten terrenoa zuten (EGB-019/008)

Etxegaraten zelai bat zuten eta hango belarra ebakitzera joaten zirenean bazkaria egiten zuten bertan.

455. Donostiako etxe dotoreenetakoan neskame (EGB-019/009)

Hondartza zer zen ere ez zekien 14-15 urterekin Donostiara neskame joan arte. Etxe aberats eta dotore batean (Guraya familiarenean) egon zen neskame Urbieta kalean. Argentinatik etorria zen familia, baina ama elgoibartarra zen izatez eta senarra markinarra. Argentinan ezagutu zuten elkar eta senarra hiltzean emakumea bi alabekin Donostiara etorri zen. 10

urtez egon zen etxe horretan neskame eta ondoren bi urte egin zituen Ursula hotelean. Etxe partikularrean baino askatasun gehiago zegoen hotelean, baina ez zuen ondo pasatu, diktadura garaia zen eta.

456. Senarra ezagutu zuenean militarizatuta zegoen Donostian (EGB-019/010)

Bere senarra frontera eramango zuten beldurrez, militarizatuta zegoen Donostian eta bertan ezagutu zuten elkar. 1940an ezkondu ziren, 27 urte zituela, eta Elgoibarrera etorri zen bizitzera.

457. Mutilari besotik heltzea ere gaizki ikusia zen orduan (EGB-019/014)

Bere senarra ezagutu aurretik beste mutil batzuekin ere ibili zen. 13 urte ingururekin mutil batekin hartu-emanen hasi zen, baina amari ez zitzaion gustatzen fama txarra zuelako eta utzi egin zuen. Orduan besotik heltzea ere nahiko gogorra zen.

458. Igandero 'Gelatxo'rekin erromeria egiten zen San Lorenzoko frontoian (EGB-019/020)

Koinata eta biak hileko lehenengo ostiraletan goizeko 06:30eko mezara joaten ziren. Ondoren plazan zegoen Ziaran kafetegian gosaltzen zuten. Igandetan San Lorenzon gelditzen ziren. Auzo animatua omen zen, erromeria egiten zen igandero Gelatxorekin frontoian. San Bartolome txiki egunean bakarrik jaisten ziren kalera. Gizonezkoek bazkaria izaten zuten eta eurak Debara joaten ziren umeekin.

459. Odeoia egin zenean antzerki-talde onak etortzen ziren kanpotik (EGB-019/022)

Ezkondu ostean ez zen inoiz dantzara joan izan. Gainera, senarra hil zenetik lan asko egin behar izaten zuen eta irteteko gogorik ere ez zuen izaten. Estankoa hasi zenean animatu zen, eta orduan hasi zen ateratzen lagunekin zinera (Odeoira) edo kafea hartzera. Odeoia egin zenean antzerki-talde onak ere etortzen ziren kanpotik. Batzuk bere etxean lo egiten zuten eta ordaindu egiten zioten.

460. Baserriko jendea biltzen zen San Lorenzoko erromerian (EGB-019/025)

Gelatxok jotzen zuen soinua San Lorenzoko erromerietan. Iluntzean hasten zen erromeria eta gauerako amaitu. Baserri inguruko jendea biltzen zen. Boletan ere ibiltzen zen jendea.

461. Bizimodua aspergarria egiten zitzaion ortu eta abererik gabe (EGB-019/027)

Goizean 07:30ak inguruan jaikitzen zen. Senarra lanera joaten zen eta seme-alabak San Lorenzo bertako eskolara. Ez zuten orturik ere eta berarentzat bizimodu aspergarria zen. Umea izandakoan ohitura izaten zen oilo zaharren bat hil eta oilo-salda hartzea. Amak oilo bat ekarri zion; honen inguruko pasadizoa.

462. Don Tomas medikua oinez baserrietara (EGB-019/030)

Don Tomas medikua oinez joaten zen baserrietara. Etxera bueltan koñak kopa bat hartzen zuen euren tabernan. asko laguntzen zuen medikua zen; umeak

izan ostean ere bisitan joaten zen. Don Jose medikua ere ezagutu zuen. Etxeberria botikan analisiak egiten zituzten.

463. Goizeko 06:30eko mezara jaisten ziren (EGB-019/031)

San Lorenzora joaten zen apaiza don Satur zen. Euskaraz ematen zuen meza. Umeak izan ostean txandaka joan behar izaten ziren mezara. Koinata eta biak goizeko 06:30eko mezara joaten ziren herrira eta gero gizonak San Lorenzoko ermitara. Lasto-argiarekin jaisten ziren goizean kalera. Santa Klarako komentua. Bertako enkarguak egiten zituen emakumea San Lorentzokoa zen.

464. Patrizio Etxeberriak fabrika egiteko, beraiek baserria utzi behar izan zuten (EGB-019/033)

Euren baserria zegoen lekua oso ederra zen. Gerra denboran, Patrizio Etxeberriak fabrika berria egin nahi zuen Idiazabalen, eta euren baserria zegoen lekua gustatu zitzaion. Eurak errenteroak ziren eta Tolosan bizi zen maiordomo batek kobratzen zien errenta. Halako batean, etxea uzteko agindua etorri zitzaion. Herriak euren alde egin zuen, nahiz herrian industria komeni zela jakin. Baina Francoren garaian kontuz ibili beharra zegoen, eta mehatxuak jaso zituen euren aitak. Azkenean, etxea utzi behar izan zuten eta 1939an egin zuten fabrika. Politika-kontuak isilpean erabiltzen ziren orduan.

465. Aita azkoitiarra eta ama Elgoibarko "Pikantenekoa" (EGB-020/002)

Elgoibarren jaio zen. Aita azkoitiarra zen eta ama bertakoa, baina 7-8 urte zituela hil zitzaion ama eta lau ume geratu ziren aitarekin. Ama "Pikantenekoa" zen. Hauek Urasandin etxe bat zuten. Errekaren beste aldean sagasti bat omen zuten eta hura batetik bestera pasatzeko ze sistema zuten azaltzen du.

466. Gerraostean senarra non zegoen ez zekiela egon zen (EGB-020/006)

Gerraostean, errazionamendu garaian, kalean ezer ez zegoen eta izebarengana joan zen baserrira bi alabekin. Senarra non zegoen ere ez zekien, lehenengo Frantzian eta gero Espainian kontzentrazio-esparruetan aritu zen lanean. Behin senarra bisitatzeraz joan zen. Orduko bizipenak.

467. Bere senarra abiazioan egon zen; mendiz pasa ziren Frantziara (EGB-020/011)

Bere senarra Armeria Eskolatik abiazioko eskuadrilara eraman zuten Murziara. Bi hegazkin mota zeuden: bonbak botatzen zituztenak eta defentsarakoak. Handik Kataluniara joan ziren. Han mugaz beste aldera eraman nahi izan zituzten autobusean, baina Frantziak ez zituen mugak irekitzen eta mendiz, Pirinioak zeharkatuz, pasa zuten muga.

468. Mendiz pasa zituzten Pirinioak, Frantziara joateko (EGB-020/012)

Mendiz, Pirinioak zeharkatuz, pasa ziren Frantziara. Abiazioan bazeuden denentzat botak, nahiz eurentzat handiegiak izan, eta haiek jantzita, manta bat bueltan eta maleta sokarekin lotuta igo zuten mendia. Mendi puntara iristean eibartar batzuek esne kondentsatua eman zien jateko. Beraiek 4 ziren, baina jende gehiagok ere gauza bera egin zuela ikusi zuten.

469. Frantziara heltzean poliziarekin gertatutakoa (EGB-020/013)

Mendia jaistean poliziek gizonak kontzentrazio-esparruetara eramaten zituzten. Poliziak senegaldarrak omen ziren, gizonezko beltz handiak. Besteek zenbait gauza eramaten zituzten bitartean bera maletak zaintzen geratu zen. Polizia senegaldarrek maletak kendu zizkioten. Jendarmeriara joan eta han aurkitu zituzten maletak. Honen inguruko kontuak. Emakumeak ere azkenean kontzentrazio-esparruan sartu zituzten.

470. Frantziako kontzentrazio-esparruko egoera (EGB-020/014)

Emakumeak ere azkenean kontzentrazio-esparruan sartu zituzten eta denak batera egon ziren hondartza ezagun batean. Bi bikoteek bina manta zituzten; bata azpian jartzen zuten eta beste tapatzeko. Abiazioko kapitain izandako donostiar bati gertatu zitzaiona. Jatekorik ez zieten ematen, alanbreen gainetik ogi batzuk botatzen zizkieten, baina emakumezkoek ez zuten bat ere harrapatzen.

471. Autobusean bidali zuten Biarritzera, umea izatera (EGB-020/017)

Lanean egon arren, ez zieten uzten herritik irteten. Azkenean nekatu egin ziren eta libre ez baziren ez zutela lanik egingo esan zuten. Horrela aske utzi zituzten. Gero gerra amaitu zenean etxera itzuli behar izan zuten. Frantzian zegoela umea izan behar zuen eta Eusko Jaurlaritzako ospitale batera bidali zuten Biarritz ondora. Han gerran zauritutako ugari ikusi zituen.

472. Umea izan eta astebetara autobusean buelta (EGB-020/019)

Bakar-bakarrik joan zen umea izatera Biarritzera. Justu bere urtebetetze egunean jaio zen, gainera, nahiz bera ez zen konturatu. Aste bukaeran senarra joan zitzaion, eta umeak 8 egun zituela autobusean itzuli ziren. Umearentzako gauzak ospitale ondoan zegoen "Villa de Madrid" dendan erosi zituen.

473. Itzultzean, alokairuan bizi izan ziren umearekin (EGB-020/020)

Itzuli zirenean senarrak etxe bat hartu zuen alokairuan eta hara joan ziren umearekin. Etxea alkatatu zien frantziar familiaren inguruko kontuak. Ondo konpontzen ziren familiarekin, baina herritik urrun zegoen etxea eta gerora erdigunean zegoen etxe batera joan ziren. Zerbait erosi behar zutenean batzuetan Pora joaten ziren, hurbil zuten eta.

474. Muga pasatzeaz bat, berriz kontzentrazio-esparrura preso (EGB-020/022)

Gerra amaitzean etxera itzuli behar ziren. Hasieran zalantzak izan zituzten harrapatu egingo zituzten beldurrez, baina azkenean muga pasatu zuten. Hasieran Iruneraino etorri ziren. Euskadiko pezeta batzuk zituen eta beldurrez bota egin zituen. Mugara heltzearekin batera, gizona atxilotu egin zioten eta hilabeteetan ezer jakin gabe egon zen. Espainiako kontzentrazio-esparru txarrena izan omen zenean egon zen.

475. Mexikora joateko ez zieten pasaportetik eman nahi (EGB-020/024)

Senarrak hasieratik zuen gogoan Mexikora alde egitea, beldurra zuen eta. Senarrak bazuen lana Mexikon, koinatuak lehendabiziko josteko makinaren fabrika zabaldu baitzuen bertan. Hasieran Juan de los Toyos-i eskatu zion Mexikora joateko biletea, baina honek ukatu. Pasaportearen ere ez zieten ematen "desafecto al régimen" zela esaten zioten eta. Azkenean eman zizkieten pasaporteak eta Mexikora joan ziren.

476. Euskara aldatuta lehendik (EGB-021/001)

Euskara asko aldatu dela komentatzen du. Berak gaur egunean esaten diren hitz asko ez dituela ulertzen dio. Gazteei ere gauza bera gertatzen zaie, ez diete nagusiei ulertzen.

477. Oporretako egunak nolakoak izaten diren (EGB-021/006)

Udaran hondartzara joaten dira. Neguan nekazaritza-turismoan egoten direnean egunean zehar zer egiten duten. Jaten oso ondo ematen dietela eta moduz komentatzen du.

478. Nekazalturismoetan familia-giroan (EGB-021/008)

Egon izan diren nekazaritza-turismoetan oso ondo hartu izan dituzte. Oporretan kanpora joan eta hoteletan egoten direnek ez dute izaten nekazaritza-turismoetan jasotzen den epeltasun hori. Honen inguruko kontuak.

479. Munoandin jaioa (EGB-021/011)

Luis Etxaniz Osoro Munoandin jaio zen. Munoandi non dagoen. Ezkondu zirenean kalera etorri ziren bizitzera. Aita Azkoitiko Aldazabal baserrikoa zen eta ama, berriz, Abatetxekoa. Bederatzi anai-arreba ziren, zazpi anai eta bi arreba.

480. Anaia nagusiak 7 urte egin zituen soldadutzan (EGB-021/012)

Anaia nagusienak 7 urte egin zituen soldadutzan gerra-denbora parean tokatu zitzaion eta. 2 urtez etxera etorri gabe egon zen eta etxean ez zuten haren berririk.

481. Gerran zeudenen berririk ez (EGB-021/013)

Gerra-denboran kalean entzuten zen soldadu asko hiltzen zirela gerran eta beraiek uste zuten anaia ere hilda egongo zela. Halako batean etxean azaldu zen. Harakin moduan lanean ibili omen zen.

482. Soldadutzako kontuak; armen teorika eta instrukzioak (EGB-021/015)

Soldadutzan armen teorika ematen zuten. Eguzki galdatan jarri, arma zatiturik jarri eta pieza bakoitzaren izena eta zertarako zen esan behar izaten zuten. Instrukzioak. Arratsaldeko 6tan kalera irteteko aukera izaten zuten, baina 18:30erako berriz kuartelera. Lista pasatzean ez zeudenei jartzen zizkieten zigorrak.

483. Soldadutzako zigorra: ilea zerora moztea (EGB-021/016)

Soldadutzan jartzen zieten zigorretako bat ilea zerora moztea zen. Gero kalera irtetean burla egiten zieten, baina normalean soldaduei gutxi axola izaten zitzairen. 16 hilabete egin zituen soldadutzan. Burgosen zazpi errejimentu zeuden.

484. Soldadutzako 16 hilabetetatik bost inguru baimenarekin (EGB-021/017)

16 hilabete egin zituen soldadutzan, baina zortea izan zuen eta baimenekin denbora asko etxean pasa zuen. Burgosen zazpi erregimentu zeuden. Tiro-lehiaketan beraiek (infanteriakoeak) irabazi eta 45 eguneko baimena eman zieten. Etxean zegoela kartaz adierazi zioten beste 15 eguneko baimena ere bazuela.

485. Soldadutzan tarteka sukaldean lagundu behar (EGB-021/019)

Soldadutzak jendea alfertu egiten duela dio. Batzuetan sukaldera joan behar izaten ziren lanera: patata zuritu, almazenetik jeneroa ekarri... Egiten zituzten lanak. Batzuetan jeneroa beraientzat hartzen zuten. Azukrea poltsikoan sartuta ere eraman izan zuten inoiz.

486. Formatzerakoan txukun azaldu behar izaten ziren (EGB-021/020)

Gerrarik ez dagoenean soldadutza egitea ez dela hain gogorra dio. Hala ere, edozein momentutan formatzeko esaten zieten eta zapatak eta gerrikoa garbiak eta trajea ondo plantxatuta izan behar zuten. Trajea nola plantxatzen zuten.

487. Gutxi libratzen ziren soldadutzatik; anaiak 7 urte egin zituen Afrikan (EGB-021/021)

Garai hartan ia inor ez zen libratzen soldadutzatik. Soldadutzatik libratzeko akats fisiko larriren bat izan behar zen edo, bestela, militarren baten errekomendazioa izan. Bere anaia horrela libratu zen. Anaia nagusienak 7 urte egin zituen soldadutzan gerran Afrikan. Askok hil zituzten bere inguruan, baina bera ondo atera zen.

488. Soldaduek Azkaratetik ingurua zaintzen zuten (EGB-021/022)

Gerra denborako kontuekin ondo oroitzen da. Soldaduak Azkaraten eta Kalamuan egon ziren. Beraien etxea Azkaratetik bistan zegoen. Behin soldaduek argiren bat ikusi euren etxe inguruan eta, seinaleren bat zelakoan, kartzelara eraman zituzten aita, anaia eta auzoko beste batzuk.

489. Egunez, mina-zuloan babesean; eta, gauetz, etxera lotara (EGB-021/023)

Berak 6-7 urte izango zituen gerra garaian, baina ondo gogoratzen ditu orduko kontuak. Tiroak izaten ziren han-hemen eta Urruzuloko mina-zuloan egoten ziren egunez, babesean. Gauetz, dena lasaitzean, etxera joaten ziren lotara.

490. Urruzuloko meatze-zuloaren inguruko kontuak (EGB-021/024)

Meatze-zuloa oraindik garbia dagoela dio. Nolakoa zen. Urruzulok bertan urrea aurkitu zuela esaten da. Urre bila egindako lau zulo zeudela bertan entzun izan zion aitari. 20 urte ingururekin, zulo horietako batean sartu zen eta izugarria omen zen. Etxean esan zuenean han ibili zela, errieta egin zioten arriskutsua zelako. Meatze-zuloan aurkitutako errearen inguruko kontuak.

491. Aurrerapenik ez zegoen lehenago (EGB-021/025)

Urruzuloko mina-zuloa oraindik ere ondo egongo dela komentatzen du. Zuloak pikatxoiekin egingo zituztela dio. Honen inguruko kontuak. Lehen ez zegoen ez enpresarik, ez kotxerik, ez telebistarik... Iluntzen zenean argirik ez zegoen eta kandelarekin edo karburoarekin egiten zuten argi.

492. Eskolan doktrina ikasten zuten gehien (EGB-021/026)

Eskolan gutxi ibili zen, baina denbora gehien Kortazarren egin zuen. Bertan bizi ziren emakume batzuk irakasten zieten. Eskolan gehien ikasten zena doktrina izaten zen. Bi komunio egiten ziren (handia eta txikia) eta bietarako doktrina buruz ikasi behar izaten zen. Eskoletan neskak eta mutilak aparte ibili behar izaten ziren. Abade batek ematen zien dotrina.

493. Eibarko Agina auzoan morroi (EGB-021/028)

Eibarko Agina auzoan morroi egon zen bi urtez. Han ere ibili zen gau-eskolan auzoan bertan, baina sarritan ezin izaten zen joan baserrian lana egoten zelako.

494. Inguruetako mendi-erromerietara joaten ziren; neska-laguntzeak (EGB-021/029)

Madariagara, Kurutzetara eta inguruetako mendi-erromerietara joaten ziren. Madariagara joaten ziren gehien erromeriara. Azkoitia partean debekatuta zegoen dantza lotua eta Elgoibar partean egiten zuten "dultzemeneoa". Eskolatik irtendakoan joaten ziren erromeri batetik bestera. Neska-laguntzeak ere egiten zituzten. Sorgin-kontuak asko entzuten ziren, baina berari inoiz ez zitzaizkion irten. Inguruetako "pailazo" batzuk izaten omen ziren jendea beldurtu nahian zebiltzanak. Orduan bideak lokatzaz beterik egoten ziren eta botin edo abarkekin joan behar izaten ziren neska-laguntzera. Bestela abarketa zuriak erabiltzen zituzten.

495. Pinuak asko laguntzen du baserriko bizimodua aurrera eramaten (EGB-021/030)

Ezkondu artean baserrian bizi izan zen. Baserriko bizimodua gustatu izan zaio, hala ere gogorra dela dio. Gaur egun baserriko bizimodua asko aldatu da lehen hartzen zen jenero asko gaur ez delako hartzen. gaur egun pinuak asko laguntzen dio baserritarrari bizimodua ateratzen.

496. Forjan lan egin zuen 22 urtean (EGB-021/032)

16 urte ingurura arte morroi egon zen. Gero basoan ere ibili zen lanean. Inguruetako jende ugari ibili zen bideak egiten. 19 urterekin tailerrean hasi zen lanean, lehenbizi pulimentuan eta gero forjan tornero. Non zegoen berak lan egin zuen forja. Gero tailerra Zaragozara joan zen eta Elgoibartik jendea bertara joan zen.

497. Okinak beti "lo-goseak"; lanbide gogorra (EGB-022/002)

Okinak beti "lo-goseak" bizi direla dio. Bizimodu gogorra zen okinarena eta horregatik utzi zuen lanbidea. Urtean bi egun bakarrik izaten zituzten jai. Etxean zentrala zuten eta ogiak egin eta banatu egiten zituzten.

498. Argietxeak (zentralak) ikusteko zaletasuna (EGB-022/005)

Elgoibarko Barrenako zentralaren inguruko kontuak. Inguruetako zentralak. Zentralak ikusteko zaletasuna izan du.

499. Argentinara bidaia; munduko zentral handiena (EGB-022/007)

Argentinan egon zeneko kontuak. Munduko zentral elektriko handiena ikusi zuten bertan. Iguazu ur-jauziak. Honen inguruko kontuak.

500. Matematika eta geografia gustatzen zitzaizkion (EGB-022/011)

8 urte ingururekin hasi eta 15 urtera arte ibili zen eskolan. Matematika eta geografia asko gustatzen zitzaizkion. Don Erasmorekin ibili zen. 30 lagun ibiltzen ziren. Baserritarrek neguan 6 hilabete inguru egiten zituzten eskolan eta udan baserrira lanera.

501. Errekan jolasten ziren (EGB-022/012)

Errekan jolasten zuten asko. Igerian edo arrantzan ibiltzen ziren errekan.

502. Txofer lanean soldadutzan, gerra amaitu aurreko urteetan (EGB-022/018)

Gerra amaitu baino lehentxoago egin zuen soldadutza. Madrilgo frontean egon ziren; eta, handik, Toledora gero. Han txofer lanetan ibili zen; eta txofer ona zelako, azkena izan zen etxera etortzen. Ama alarguna zen eta etxera itzultzeko eskaerak egin zituen. Horren inguruko kontuak. 20 hilabete egin zituen. Gerra hasi zenean, 16 urte zituen.

503. Bartzelonatik Venezuelara oliotara joaten ziren barkuak (EGB-022/023)

Bartzelonatik Venezuelara oliotara joaten ziren barkuak nolakoak ziren. Gelditu gabe egiten zuten bidaia. Ekuadorra pasatzen ibiltzen omen ziren gaizki. Barkuaren nagusiarekin (Zumalaberekin) izan zuen elkarrizketa.

504. Abiazioko motorra zaintzen egon zen (EGB-022/025)

Denetariko lanak egin izan ditu. Elektrizista lanetan ere ibili zen herrian. Tailerretan ere denetarik egin izan du. Sigman egon zenean abiazioko motorra zaintzen egon zen. Honen inguruko kontuak.

505. Abiazioko motorra martxan jarri zuteneko anekdota (EGB-022/026)

Sigman egon zenean, abiazioko motorra zaintzen egon zen. Horren inguruko kontuak. Hasieran, motor txiki bat ekarri zieten; baina, gerora, 500 zaldiko motor handiagoa. Horren inguruko azalpen teknikoak. Motorra arrankatu zuteneko anekdota; sortu zen lur-mugimenduarekin 18 baja izan zituzten.

506. Txakur haundia ordaindu behar dantza egiteko (EGB-022/028)

San Migelera joaten zen askotan erromeriara. Kurutzetara ere inoiz joan izan zen. Trinitadetan plazan musika egoten zen, baina txakur haundia ordaindu behar izaten zen dantza lotua egiteko.

507. Bere adineko gazteen aldean asko ibili zen hara eta hona (EGB-022/029)

Lehen jendea gutxi ibiltzen zen batetik bestera. Hala ere, bera asko ibiltzen zen garai hartarako. Gerra aurretik ere lau-bost aldiz joan zen Donostiara estropadak ikustera. Sei pezeta kostatzen zen joan-etorria trenez. Bilbora ere joan izan zen aitarekin kotxeentzako piezak ikustera.

508. Ondarroa eta Lekeitio ezagutu zitueneko kontuak (EGB-022/031)

Beti izaten zuen Ondarroa eta Lekeitio ikusteko gogoia eta behin aitak eraman zuen herriak ezagutzera. Beste inguru batzuetara ere (Azkoitia, Zumarraga...) eraman izan zuen aitak.

509. Ez du izan inoiz besteen euskara ulertzeko arazorik (EGB-022/032)

Inoiz ez du izan arazorik beste herrietakoen euskara ulertzeko. Gainera, berari nahi gabe besteen euskara ateratzen omen zaio batzuetan. Soldadutzan ere ez zuen ulermen arazorik izan. Nafarrei ere ondo ulertzen die. Tolosa eta Eibarko bi lagunen arteko anekdota.

510. Neskari helduta joatearren 250 pezetako isuna (EGB-022/034)

Frankismo garaiko debekuak. Aurretik beti euskaraz hitz egiten zen, baina gero debekatu egin zuten. Neskari helduta joatearren 250 pezetako isuna jartzen zuten. Abadeek izan zutela erru handia uste du eta horregatik galdu omen da asko fedea.

511. Bainujantzia janztearren, apaizen sermoia entzun behar (EGB-022/035)

Debako hondartzan, sokak egoten ziren neskak uretara sokari helduta sartzeko. Neskek arropa mordoarekin bainatu behar izaten zuten. Debako neska baten inguruko gertakizuna: Ingalaterrara joan zen; eta, handik etortzean, bainujantziarekin bainatu zen normal-normal. Apaizak pulpitutik kritikatu zuen, baina neskak aurre egin zien apaizei.

512. Sarjentuari Deban gertatutakoa (EGB-022/037)

Deban egoten zen sarjentu baten inguruko kontuak. Erretzen zegoen emakume bati zigarroa kendu zion, jeneralaren "kerida" zela jakin gabe eta bidali egin zuten.

513. Euskal Herrian bikini lehenengoz Getarian (EGB-022/038)

Abadeek asko lotzen zuten euren debekuekin eta azkenean esplotatu egin zen jendea. Getaria beti aurreratua goan omen da beste herriak baino. Euskal Herrian lehenengo Getarian jantziko omen zen bikini, atzerritar asko egoten zen eta.

514. Getaria aurreratuta hondartzan arropa gutxi erabiltze kontuetan (EGB-022/039)

Getarian neska-mutil kuadrilla bat biluzik ikusi zuteneko kontua. Getaria beste herriak baino aurreratua egon izan da halako kontuetan, atzerritar asko etortzen zirelako bertara. Holanda, Belgika eta Sueziatik "balandroan" (belauntzietan) etortzen omen ziren asko.

515. Euskarak sortutako elkar ulertu ezinak (EGB-023/001)

Euskararen inguruko kontuak. Bermeon soldadu egon zenean gaztelaniaz egin behar izan zutela elkar ulertzeko dio Imanolek eta Bittorek beraiek dena euskaraz egiten zutela. Elgoibar erdi-inguruan dagoenez denei ulertzeko errazagoa dutela uste dute.

516. Herriko eskolan lehenengo eta gero Pilarren (EGB-023/004)

Herriko-eskolan ibili ziren hasieran eta gero Pilarreko eskolara pasatu ziren gerra hasi arte. Gerra garaian 3 urte inguruan eskolarik gabe egon ziren. Irakasleak. Bitorrek apaiz katalan bat izan zuen irakasle eta oso gogorra omen zen.

517. Umetan batzuk erdaraz eta besteak euskaraz (EGB-023/005)

Euren artean beti euskaraz hitz egin izan dute, baina irakasleek gaztelaniaz ematen zituzten klaseak. Imanolek 14 urte ingurura arte gaztelaniaz hitz egiten zuela kontatzen du. Bittorrek dena euskaraz egiten zuen eta, gainera, hika hitz egiten zuten. Lagun-taldean nortzuk ibiltzen ziren. Lehen denek hika hitz egiten zuten, baina orain asko galdu da.

518. Satur Ciaran irakaslearekin hasi eta don Felixen eskoletara (EGB-023/007)

Imanol hiru urte bete zituenean Satur Ciaran irakaslearekin hasi zen eta sei urte ingururekin Pilarrera eraman zuten. Han gerra hasi arte ibili zen. Gerra ondorenean don Felix irakaslearekin ibili zen. Irakasle ona omen zen.

519. Don Jose "Kojua" irakaslea (EGB-023/008)

Don Felix irakaslearekin ibili ondoren don Jose irakaslearengana joan zen. Bere etxera joaten ziren. Hasieran 8 neska-mutiko inguru ibiltzen ziren, baina jendea gehitu zitzaionean estazio ingurura joan zen beste etxe batera eta han jarraitu zuen klaseak ematen, baina gero handik bota egin zuten. Eskolarik gabe geratu zenean aitarekin lanean hasi zen Imanol.

520. Umetako jolasak (EGB-023/009)

Umetako jolasak: kanikatan, tronpan, "Tres navios"-ka, banderetan, xakaponetan (edo tabetan). Errekan ere denbora asko pasatzen zuten.

521. Euskaraz idaztearren 5 puntu gehiago (EGB-023/010)

Pilarreko irakasleak (don Eulogio eta don Moises). Irakasle batek idatzia euskaraz eramaten zionari 5 puntu gehiago ematen zizkion.

522. Irakasleei egindako gaiztakeriak (EGB-023/011)

Irakasleen izenak: don Eulogio, don Ambrosio, don Seberiano... Eskolak gaztelaniaz eman arren, doktrina euskaraz ikasten zuten. Don Ambrosiori egiten zizkioten gaiztakeriak.

523. Umetako denbora-pasak: txabolak egin, txori-habiak topatu... (EGB-023/012)

Imanolek umetako denbora gehiena [Belokineko] presa azpian pasatzen zuen lagunekin. Zer lagun ibiltzen ziren taldean. Txabolak egiten zituzten, eta elkarri istorioak kontatzen, bertan pasatzen zuten denbora. Bittorrek Maalan pasatzen zuen denbora lagunekin. Txori-habiak hartzen ere ibiltzen ziren.

524. Santiren txanalarekin arrantzan (EGB-023/013)

Santi izeneko batek txanala zuen (errekan ibiltzeko txalupa bezalakoa). Guardia Zibilek behin tiro egin zioten beldurtzeko. Arrain ugari harrapatzen zuen txanalarekin errekan eta gero Eibarren saltzen zituen.

525. Gazteen entretenimendua: futbola, dantza eta zinea (EGB-023/014)

Igandero musika bandak jotzen zuen plazan eta jendez beteta egoten zen. Aguazila makilarekin ibiltzen zen dantzan zebiltzanak zaintzen. Futbola garrantzitsua izaten zen. Futbola 4tan, gero dantza eta ondoren zinea. Hori izaten zen gazteen entretenimendua. Euren lagun batek izugarrizko zaletasuna zuen dantzarako eta ez zuen ezergatik ere uzten. 9 pieza jotzen zituen bandak dantzarako. Piezen tarteko deskantsuan jendea Maalara joaten zen paseatzera.

526. Kamioian herririk herri (EGB-023/015)

Herrian futbolik ez zegoenean inguruko herrietara joaten ziren partiduak ikustera. Kamioietan joaten ziren batera eta bestera. Txofer joaten zenak melokotai galantak harrapatzen omen zituen, baina hala ere kamioia jendez beteta ekartzen zuen herrira. Honen inguruan gertatutako anekdotak. Herrietako jaietara ere kamioian joaten omen zen.

527. Goitibeherekin edo txirinbolarekin bideetan (EGB-023/016)

Lehen oso kotxe gutxi ibiltzen zen bideetan. Goitibeherek hartu eta Kurutzetara igotzen ziren gero handik behera jaisteko. Maalaraino jaitsi eta berriz gora. Txirinbolarekin ere asko ibiltzen ziren. Nolakoa zen. Honen inguruko anekdota.

528. Bonbardaketetan ezagunak hil ziren (EGB-023/017)

10 urte zituzten bonbardaketak izan zirenean. Imanolen osaba bat ere bonbak harrapatuta hil omen zen. Eurak zuloetan ezkutatuta egoten ziren.

529. Erreketeekin kanpandorrean (EGB-023/019)

Fronteak 7 hilabete egin zituen Elgoibarren, eta apirilean Eibar hartu zuten. Imanolek 9-10 urte zituen eta kanpandorrean egoten zen erreketekin. Mapa bat zuten erdian eta hegazkinak nondik zetozen begiratuta jakiten zuten erreketek euren aldekoak ziren ala ez. Hegazkin bati "el abuelo" deitzen zioten.

530. Erreketeak eta falangitsak: fletxak eta pelaioak (EGB-023/020)

[Katanarreko] etxean komandantzia jarri zuten. Mutikoak "pelaioak" edo "fletxak" izan behar izaten ziren. Imanol eta Bittor "pelaioak" izan ziren. Errekete eta falangistak ibiltzen ziren orduan. Erreketeen umeak ziren "pelaioak" eta falangistenak "fletxak". Kapitainak mandatuak egitera bidaltzen zituzten batzuetan. Nola janzten ziren "pelaioak". Pelaioak erreketek errekiatutako lokalean egoten ziren. Gerra- enborako abestiak.

531. Akabatzaileak ganbara batean lanean (EGB-023/021)

Gerra denboran, beldur handia pasatzen zuten. Vallejoren inguruko kontuak. Vallejo, Uria eta Sanchez akabatzaile moduan ibili omen ziren gero pistolak egiten. Ganbaran zuten tailerra, baina orduan hori normala zen eta inor ez zen kexatzen zikin edo hautsagatik.

532. 1937ko jaunartzeak urtebete atzeratu ziren (EGB-023/024)

Gerra-denboran, 11 urterekin, hiru lagun eurak bakarrik (guraso gabe) joan ziren jaunartzera. Don Ceferino apaizarekin ibili ziren. Euskaraz ikasten zuten doktrina. 1937an ez zen egon jaunartzerik eta urte horretakoak 38ra atzeratu ziren.

533. 1937ko jaunartzeak urtebete atzeratu ziren (EGB-023/025)

Elkarrekin egin ote zuten jaunartzea eztabaidatzen dute. Urtebete atzeratu zen gerra-denbora jaunartzea eta 1938ko maiatzaren 1ean egin zuten bi urtetakoek.

534. Apaizak noiz etxeratzen ziren ere kontrolatutzen zuen (EGB-023/026)

Gerra-denboran doktrina euskaraz ikasi zuten. Don Ceferino apaiza euskaltzalea zen. Zinea izaten zuten eta apaizak guztiz kontrolatuta izaten zituen, baita etxera noiz joaten ziren ere. Angelusa jotzen zuenean etxera joan behar izaten zen.

535. Umetan, lehertu gabeko balekin jolasean (EGB-023/027)

Umetan, errekan ibiltzen ziren eta baita karbueroarekin jolasean ere. Gerra denboran, ezjakinean, arrisku ugari pasa zituztela konturatzen dira orain. Lehertu gabeko balak lehertzen jolasten zuten. Imanolek bala ugari etxean gordeta izan zituen. Bala klaseak; deskribapena.

536. Gerra denboran dena zen nobedadea 9 urteko mutiko batentzat (EGB-023/028)

Imanolentzat, gerra denbora sasoi polita izan zen, nobedadea zelako beraientzat. Gurasoentzat garai gogorra izan arren, berak 9 urte zituen; oroitzapen onak ditu. Orduan probatu zituen berak marmeladak edo ogi zuri-zuria, esaterako. Soldaduek San Bartolome kalean zuten intendentzia eta eurak tailerreko karretilarekin joaten ziren hara enkarguak egitera. Ordainetan, jatekoa ematen zieten soldaduek.

537. Gerra denborako bizipenak; soldaduekin kuartelean (EGB-023/029)

Hiru lagun ibiltzen ziren elkarrekin gerra-denboran: Jesusu Jauregi, Pantxo eta Imanol bera. Soldaduek emandako jatekoarekin, Pantxo lagunaren etxera joaten ziren eta han jaten zituzten antxoak eta marmeladak. Kuartela nolakoa zen. Gerra denborako bizipenak.

538. Euskaraz irakurtzea kostatzen zaie, ez dutelako inoiz ikasi (EGB-023/030)

Euskal Telebistako euskara ulertzeko ez dutela arazorik komentatzen dute. Arazo handiena euskaaraz irakurtzeko dute, ez dutelako ikasi. Honen inguruko kontuak. Eskola guztietan gaztelaniaz ikasten zen euren gazte-denboran; doktrina bakarrik ikasten zuten euskaraz. Barren aldizkaria irakurtzen ere arazoak izaten dituzte.

539. Baserritarrek euskara hobea darabilte (EGB-023/032)

Elgoibarko auzoen artean ez dute desberdintasunik nabaritzen euskararen eta ezta baserri eta kalekoaren artean ere. Hala ere, baserritarrek euskara hobeto mantendu dutela uste dute. Honen inguruko adibideak.

540. Elgoibarko euskara eta inguruko antzekotasun eta desberdintasunak (EGB-023/033)

Inguruko herrietako euskararekin ez dute alde askorik nabaritzen. Mendaro aldekoa pixka bat desberdina ote den diote, baina aldea txikia da. Ezberdintasun honen adibideak. Soraluzekoekin dituzten desberdintasunak. Imanolek euskara bakarra behar litzatekeela uste du. Honen inguruko iritziak. Elgoibarko euskarak antzekotasun handiena Markinakoarekin duela uste dute.

541. Beste euskalkietakoei ulertzeko arazorik ez (EGB-023/034)

Markinako euskararen ezaugarriak. Euskara desberdina izan arren berak denei ulertzen ziela soldadutzan dio Bitorrek. Gaizkiulertu baten inguruko anekdota. Beste herri batzuetako hitz eta berezitasunak. Elgoibar leku onean dago denen euskara ulertzeko, erdian dago eta.

542. Gaztelaniaz ez jakitearren konplexua, batez ere baserritarrek (EGB-023/035)

Euren gurasoek gaztelaniaz gutxi zekiten. Euren sasoiari baserrietako emakumeak hasiak ziren pixka bat gaztelaniaz, azokara jaitzita eta. Euskaraz egitea beti ikusi izan da gauza bajutzat eta burlak ere jasan behar izaten zituzten, batez ere baserritarrek. Baserritarrek beldurra izaten zuten gaztelaniaz ez ote zuten ulertuko eta konplexuz beteta egoten ziren. Baserritarren inguruko txiste ugari sortu izan dira euskaldunen kalterako.

543. Baserritarrek eskola gutxi eta lana gogor (EGB-024/006)

Iñaxi Maalan ibili zen eskolan. Lehen eskola gutxi ikasten zen eta, gainera, handik iretandakoan gogor lan egin behar izaten zuten. Gaur egun ikasketa gehiago hartzen dela eta ondo egiten dutela uste du. Bordatzen ikasten ere ibili zen, etxean ez zegoen ezer eta. Baserrian lan ugari egin arren gero horrek ez du ordainik ekartzen; lantegietan, osterara, bai.

544. Kamiñeroko erromeria eta plazako musika (EGB-024/007)

Kamiñerokoan erromeriak egoten ziren. Gelatxo edo Galartza izaten ziren soinu-joleak. Hango erromeriak amaitutakoan plazara etortzen ziren dantzara. Eibartik ere jende asko etortzen zen. Dantza-kontuak nola aldatu diren.

545. San Antonio egunean Urkiolara oinez (EGB-024/013)

Irukutzetara joaten ziren erromeriara. Karakatera igo eta handik gainez gain joaten ziren. Arratera era oinez joaten ziren. San Antonio egun batean Urkiolaraino joan-etorria oinez egin zuten. Santa Eufemiara ere halaxe joaten ziren goizean goiz irtenda.

546. Markinara kotxean joan-etorria bost pezeta (EGB-024/014)

Iglesias anaiak izan ziren kotxea izan zuten lehen elgoibartarrak eta jendea erabiltzen zuten hara eta hona. Iñaxi gogoan du behin Santa Eufemiara joateko kotxea hartu zutela Markinaraino. Neska kuadrilla joan ziren eta bakoitzak bost pezeta ordaindu zituen.

547. 16 urterekin lehenengo aldiz Santa Eufemiara (EGB-024/016)

Santa Eufemiara, Arratera... joaten ziren jaietan, baina Iñaxi inoiz ez omen da oinez joan Santa Eufemiara; Pedro, osterara, bai. 16 urterekin joan omen zen lehenengo aldiz.

548. Udaletxean balea eskatu behar ogia hartzeko (EGB-024/022)

Errazionamendu garaian, ogia hartzeko, udaletxean bale bat hartu behar izaten zen. Hara joan zen batean gertatutakoa kontatzen du Iñaxik.

549. Guardia Zibilak arrantza zaintzen (EGB-024/025)

Ezkailua aingira baino goxoagoa zela jateko dio Iñaxik. Harrapatu berritan nola salto egiten duten kontatzen du. Guardia Zibilak arrantza zaintzen ibiltzen ziren. Beraiek harreman zuten Guardia Zibilekin, txorizo otartekoa eta ardoa ematen zieten. Guardia Zibilei egin zien bromatxoa.

550. Guardia zibilekin harremana (EGB-024/026)

Guardia zibilak ondo hartzen zituzten etxean eta gero beraiek ere ez zieten ezer esaten arrantza egitearren.

551. Estraperloan gertatutako anekdota (EGB-024/027)

Estraperloa. Arto-irina eta ogi-irina ekartzen ziren estraperloan Soraluzeko Iturbe baserritik. Pedrori estraperloan gertatutako anekdota.

552. Gipuzkoa aldekoa euskara "dotoreagoa" (EGB-024/028)

Elgoibarko euskarak baduela aldea ingurukoekin uste du Pedrok. Elgoibarren euskara "bastoa" egiten dela dio eta Azkoitia aldera dotoreagoa egiten dela. Markina aldeko euskara ere "torpea" dela dio. Elgoibarko auzoen artean ez omen dago alderik.

553. Inguruetan egondako fusilamendua (EGB-024/030)

Goiz batean, txakurrak aterata zebilela, gauza arraroak sumatu zituen eta gero gizon batzuk fusilatzen ikusi zituen. Don Estanis abadeak uste zuen haiek errurik ez zutela; baina, orduan, badaezpada, ezin zen hitzik egin.

554. Elgoibarren fusilatutakoak (EGB-024/031)

Elgoibarren bi abade ere fusilatu omen zituzten. Herrian fusilatutakoak.

555. Umetan Maalan jolasean (EGB-025/002)

Joxepa Aranberri Arostegi 1911ko martxoaren 17an jaio zen Maalan. Ama Elgoibarko Kurutzetakoa eta aita Azkoiti partekoa, Ugarixa baserrikoa. 7 anai-arrebatatik bosgarrena zen bera. Umetan Maalan bertan jolasten zuten. Pixka bat nagusitutakoan Kamiñerokora joaten ziren dantzara.

556. Azkoitia partean dantza-lotua debekatuta (EGB-025/003)

Pixka bat nagusitutakoan Kamiñerokora joaten ziren dantzara. San Isidro hurrengo jaietan Azkoitia partera joaten ziren jaietara, baina, Elgoibarren ez bezala, han debekatuta zegoen dantza lotuan egitea eta Guardia zibilak egoten ziren zaintzen.

557. 11 urterekin tabernara lanera (EGB-025/004)

Joxepa 11 urterekin hasi zen lanean tabernan. Oraiko zuen izena tabernak eta hiru pisuko eraikina zen. Lehen ez zegoen hainbeste taberna eta gazte-jende

asko egoten zen eurenean. Mutil-kuadrillak egoten ziren mahaietan, maalatarrak eta plazatarrak. Denboraldi batez ume-zain ere ibili zen.

558. Senarra Caracasen lanean (EGB-025/005)

Senarrarekin bi ume izan zituen. Etxe zaharra erosi eta berria egin zuten hura botata. Igeltseroa zen senarra, eta Caracasera (Venezuela) joan zen han lana zegoela eta. Bera ere joatekotan egon zen, baina azkenean senarrari esan zion etortzeko. Gazterik hil zitzaion senarra, 42 urterekin.

559. Ezkonbidaiko anekdota eta gertakizunak (EGB-025/007)

1941ean ezkondu ziren eta eztei-bidaian lehenbizi Donostian, gero Gasteizen eta gero Logroñon ibili ziren. Haizete handiak izan ziren garai hartan eta Elgoibarren trena irauli zuen haizeak. Gasteiztik Logroñora zihoazela gertakizun horren berri eman zien gizonezko batek eta beldurtuta etxera itzuli ziren. Etxera taxian bueltatu ziren eta Maalara iristean Guardia Zibilek taxistari multa jarri zioten.

560. Goserik ez zuten pasatu (EGB-025/008)

1941an gose eta haize urtea izan zen. Estraperloa. Beraiek taberna zeukaten eta neska batzuek ekartzen zieten kafea eta azukrea Bilbo aldetik. Goserik ez zuten pasatu; soldaduek janaria izaten zuten eta haiek ematen zieten eurei.

561. Gerra denboran egindako nobioa (EGB-025/009)

7 hilabetez egon ziren soldaduak Elgoibarren gerra denboran. Erreketek nafarrak egoten ziren inguruan, eta berak nobioa topatu zuen. Gerrak aurrera egin ahala, alde egin zuten eta hortxe bukatu zen harremana. Ezkondu eta gero, haren gutun bat jaso zuen eta ikustera ere etorri zitzaion.

562. Tabernako bizimodu gogorra; gertakizunak (EGB-025/012)

Alarguna izanda, eta ume txikiekin, taberna eramatea tristea zen, lan asko egin eta gauza asko jasan behar izaten zituelako. Tabernan gertatutako anekdota. Elgoibar herri txikia zen orduan eta denek ezagutzen zuten elkar. Inguruan ezaguna zen bera; eta, ezezagunen bat baldin bazegoen, zaindu egiten zuten bakarrik gera ez zedin.

563. Baserrian jaio eta ezkondu ostean kalera (EGB-025/014)

Agustina Arrizabalaga 1912an Idotorbe (San Pedro) auzoko Urkieta (Urkitta) baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen ezkondu arte. 24 urterekin ezkondu eta kalera joan zen bizitzera.

564. Lehengo bizimodu gogorra; ibaian arropak garbitzen (EGB-025/015)

Lehengo bizimodua gogorra zen, lana gogor egiten zelako. Agustinak zorua nola garbitzen zuten kontatzen du. Argizaria ematen zitzaion eta ispiluaren antzeko distira atera arte garbitzen zuten. Arropak garbitzera errekarara joaten ziren otzarakada arropa hartuta, berandura arte urik ez zen egon etxeetan eta. "Arenaketia": lur-zorua harearekin garbitzen zen.

565. Pobrezia konformidadearekin bizi zuten (EGB-025/017)

Lehengo bizimodua ezberdina zen. Ez zegoen gaur adinako inbidiarik eta lasai bizi ziren. Etxeetako ateak zabalik egoten ziren eta auzokoak beheko suaren ondoan biltzen ziren. Denak antzera zeuden ekonomikoki eta konformidade handiagoa zegoen. Lehengo pobrezia. Arrosario kalean mahaiak kanpora atera eta jokoan aritzen ziren. Medikua gaixoa bisitatzera zetorrenean ohe-gaineko zuria jarri behar izaten zen, eta eduki ezean auzokoari eskatzen zitzaion. Esnelitroa lau txakur handian saldu ezinda ibiltzen ziren gerra aurreko urteetan.

566. Oilo eta arrautzak saldu beste zerbait erosteko (EGB-025/018)

Baserrian oilorik ez zen jaten; kalera eramaten ziren oilo eta arrautzak saltzera etxerako dirua ateratzeko. Diru harekin etxerako behar zena erosten zen.

567. Agustina sastrearekin ezkondu zen (EGB-025/019)

Agustina 24 urtera, ezkondu arte, bizi izan zen baserrian eta gero kalera ezkondu zen. Senarra sastrea zen eta hango lanak ikasi behar izan zituen gero. Senarrak lehendik bazuen seme bat eta gero beste lau mutil izan zituzten. Etxean ez zuten labadorarik, plantxa bakarrik.

568. Maalatarrak eta plazatarrak; inauterietako anekdota (EGB-025/021)

Maalatarrak eta plazatarrak pikeak izaten zituzten eta borrokan ere egiten zuten batzuetan. Inauterietan aurpegiak estalita ibiltzen ziren. Mutil altu batek dantza eskatu zion Agustinari eta hankak apurtuta amaitu zuen. Hurrengo egunean jakin zuen nor zen berarekin dantza egin zuena.

569. Egurrezko komuna (EGB-025/022)

Lehen jende pobrea, baina sanoagoa zegoen. Euren etxe inguruan egurrezko komuna zegoen, zuloa besterik ez zuena, eta batzuk behetik begiratzera joaten ziren.

570. Fruta lapurtzen (EGB-025/023)

Joxepa Errotaberrira joaten zen askotan, eta denetariko frutak egoten ziren bertan. Agustina alboko baserrian fruta lapurtzen ibilia da.

571. Ezagun baten inguruko anekdotak (EGB-025/025)

Ezagun baten inguruko kontuak. Dirua aldatzera beti euren tabernara joaten zen. Txakur txiki bat zuen "Maria perlita" deitzen ziona. Honen inguruko kontuak.

572. Karmelitoren inguruko anekdotak (EGB-025/027)

Karmelitoren inguruko anekdotak. Behin, bainatu eta arropak erdi jantzita zituela joan zen jostundegira, neskak zeuden lekura. Bere urtebetetzean pastelak ekarri zitueneko kontuak. Batzuetan, enkarguren bat egitera bidali eta dirua gastatuta itzultzen zen.

573. Katgoria desberdinetako hiletak (EGB-025/029)

Lehen katgoria desberdinetako hiletak egoten ziren diruaren arabera. Elizetan aldare bat baino gehiago egoten zen eta abade bat baino gehiago egoten ziren aldare bakoitzean meza ematen.

574. Euskara ez dela galduko uste dute (EGB-025/034)

Gaztelania errazagoa izango dela uste dute. Euskara ez dela galduko sinisten du Agustinak.

575. Mitinean entzundakoa bete egin zen (EGB-025/037)

Bi urtez egon ziren gerra hasteko zegoela mitinak ematen ziren. Berak 22 urte inguru zituela Bergarako nazionalista batek eman zuen mitina. Kanpokoak etorriko zirela eta haiei ez zitzairela sartzen utzi behar esaten omen zuen. Gerra-ostean halaxe izan zen: kanpotarrak hasi ziren etortzen euren maletatxoekin.

576. Gerra garaian, soldaduak izan zituzten etxean (EGB-025/040)

7 hilabetez egon zen frontea Elgoibarren; Agustinaren baserri inguruan, gainera. Gerraren amaiera aldera, beltzak ere etorri omen ziren eta beldurrez egoten ziren. Behin sukalderraino sartu zitzaizkien zaldi eta guzti. Erreketek etortzen zitzaizkien etxera eta gauzarik onenak utzi behar izaten zizkieten.

577. Gerra garaiko bizipenak; soldaduak etxean; tiro-hotsak (EGB-025/041)

Gerra denborako bizipenak. Frontea San Pedron egon zen zazpi hilabetez. Soldaduak hotzak egoten ziren neguan. Irunaberri ostatu edo taberna modura ipini artean, baserrira etortzen zitzaizkien soldaduak eta haiei jatekoa eman behar izaten zieten. Etxetik bi aldeetako tiro-hotsak entzuten zituzten. Familiak baserrietan elkartzen ziren beldurrez.

578. San Migel egunean, frontea aurrera (EGB-025/042)

Soldaduek San Migel guztiz hartuta zeukaten. San Migel eguna zetorrenean, Agustinaren aitak iragarri zuen fronteak aurrera egingo zuela egun horretan, San Migel bera ere gerlaria zela eta. Eta halaxe izan zen. Soldadu multzo handiak ikusi zituzten Kalamua mendian gora. Arraitza baserria sutan ikusi zuten.

579. Soldaduek Elgoibar guztia hartuta (EGB-025/043)

Soldaduek Elgoibar guztia hartuta izan zuten eta ez zieten uzten hara edo hona pasatzen. Bere senarrari utzi zioten kaletik baserrira pasatzen. Eibarko jendeak Bilbo aldera ihes egin zuen, baina eurak etxean geratu ziren.

580. Gerra garaian hildako ezagunak (EGB-025/044)

Inguruetan ezagun asko hil zituzten nazionalistak izateagatik: don Zelestino apaiza, Angel "Mutriku" igeltseroa... Alberto Epelde gerraostean atxilotu egin zuten; baina, ozta-ozta, libre utzi zuten.

581. Elgoibar gerra-ostean erdaldunduta (EGB-025/045)

Gerra-ostean askok ez zekiten gaztelaniaz, baina konturatu ziren gaztelaniaz jakitea garrantzitsua zela eta seme-alabek gaztelania ikas zezaten ahalegindu ziren. Horren ondorioz, kasu askotan guraso euskaldunak eta seme-alaba euskaraz ia ez zekitenak gelditu ziren.

582. Gaztelania ikastera Burgos edo Arabara (EGB-025/047)

Lehengusina batek esaten zion Agustinari elgoibartarrak harroak zirela, gaztelaniaz hitz egiten zutelako, "dotoreagoa" zela eta. Jendea Burgosera edo Arabara bidaltzen zen gaztelania ikastera, gaztelania jakitea inportantea zelako.

583. "Mariaren alabak" eta "luistarrak" kongregazioak (EGB-026/001)

Bi kongregazio egoten ziren: Mariaren alabak (neskak) eta luistarrak (mutilak). Konfesatzera joaten zirenean txartel bat izaten zuten eta hura entregatu behar izaten zen joan zirela jakiteko. Don Esteban apaiza. Neskei beldurra sartzen zieten ariketetan eta gero ez zuten nahi izaten lotuan dantza egiterik. "Dultzemeneoa" hitzaren inguruko azalpenak. Kongregazioko neska batzuk besteak zelatatzen egoten ziren.

584. Euria zenean bakarrik eskolara (EGB-026/004)

Eguraldi txarra zenean joaten ziren eskolara, bestela baserriko lanak egin behar izaten zituzten eta. Hau zela eta, atzeratuta ibiltzen ziren eskolan. Baserritarrek kalean bazkaltzen zuten etxe batean, ez zutelako eguerdian astirik etxeraino joateko. bederatzi urterekin hasi zen eskolan eta lehenbizi Katonarekin hasten ziren, irakurtzen ikasteko. Doktrina ondo ikasi behar izaten zuten. Maria Cristina Iturrioz donostiarra zen San Lorenzo eskolako irakaslea.

585. 18 urterekin soldadu; sei urte etxetik kanpora (EGB-026/006)

16-17 urterekin, "Itturginera" joan zen lanera, lehen han zeuden mutil asko soldadu joan zirelako. 18 urte egin zituenean, bera ere soldadu joan zen. Espainia osoan zehar ibili ziren hara eta hona. Sei urte inguru egin zituen soldadu. Handik etorritakoan, Estartarenean hasi zen lanean eta 40 urte egin zituen bertan.

586. Soldadutzako bizipenak Hondarribian (EGB-026/007)

Soldadutzan trenez egiten zituzten bidaiak batera eta bestera. Etxera etortzeko baimenak. Hondarribia inguruan egon zireneko kontuak. Alemaniarrek, etorritakoan, euren bandera jarri zuten Frantziakoa kenduta. Geroago, Bilbon ere egon zen kuartelean.

587. Idi-probaren inguruko apustua jokatu zutenekoa (EGB-026/011)

Urkidin proba-apustua jokatu zuten idiekin. Honen inguruko azalpenak.

588. Hasieran Sigmara lanera oinez; gero, bizikletan (EGB-026/012)

Urkiditik Sigmara oinez joaten zen egunero. Bide txarrak egoten ziren orduan, lokatzaz betetakoak. Sasoi batean bizikleta erosteko aukera izan zuen, 60 duro balio zituen.

589. Karakol-jana egin zuteneko kontakizuna (EGB-026/014)

Lankide bati bururatuta, karakol-jana egin zuten behin. Ama Parapan baserrikoa zuen hark, eta han prestatu zituen amak karakolak. Neskabila gazteak ekarri zien karakol-lapikoa. Enkargua egitearren, bina pezeta eman zizkioten neskatoari; guztira zortzi lagun inguru zirenez, diru asko jaso zuen neskatoak.

590. Bariku Santu egunean amarekin kalera (EGB-026/017)

Bariku Santu egunean kalera jaisten ziren amarekin. Oinez jaitsi kalera, kale inguruan belarretan garbitu botak eta elizara. Don Estanis zen apaiza, baina gaitzizenez deitzen zioten. Harekin konfesatu eta elizakoak egiten zituzten. Handik tabernara joaten ziren kafesnea hartzera. Txakur handiko pota zopak eginda kafesnearekin hartzen zuten.

591. Gari-jotzearen inguruko azalpenak; gero, Mendaroko errotara (EGB-026/020)

Gari-jotzearen inguruko azalpenak. Alotza. Gari-jotzeko makinak. Gari-alea ganbaran gordetzen zen kutxetan. Garia gero Mendarora eramaten zuten errotara. Errotan "lakia" kentzen zen, garia ehotzearen ordaina. Gariarena zen lanik gogorrenetakoa.

592. Belarra lehortzeko eguzkia behar (EGB-026/021)

Belarra moztu eta lehortzeko lanak ere gogorrak izaten ziren. Gaur egun sega-makina daude eta lana asko erraztu da, baina lehen segarekin ebaki behar zen dena. Gainera, eguraldi ona behar izaten zen eta eguzkiaren zain egoten ziren.

593. Praka bustiak beheko sutan lehortzen (EGB-026/023)

Baserrian beheko sua zuten. Lanetik prakak bustita etorri eta amak beheko sutan uzten zituen eta hurrengo egunean berriro haiek jantzita lanera.

594. Domu Santuetatik aurrera gaztaina erreak (EGB-026/025)

Hamabi anai-arreba ziren. Zer jaten zuten. Gaztaina asko biltzen zen orduan. Makalena zen gaztaina egosita jaten zen eta gogorragoa erreta. Domu Santu Egunean hasten omen zen jendea gaztaina erreak jaten. Udaberri aldera arte egoten ziren gaztainak. Gustura jaten zituzten.

595. Baserriko lanak (EGB-026/026)

Ardiak gobernatzea da baserriko lanetan gehien gustatzen zaion lana. Baina baserrian badaude lan gogorrak ere: basoak garbitzea, adibidez.

596. Baserriko bizimoduaren inguruko kontuak (EGB-026/027)

Baserriko bizimoduaren inguruko kontuak. Baserrian jaiki eta lehenbiziko lana kortara joatea da, nahiz eta gero lantegira joan behar izan. Ospakizunen bat izanez gero ere, handik etorritakoan baserriko lanak egin behar.

597. Kaletarrek baserritarren inguruan duten ikuspegia (EGB-026/029)

Kaletarrek ez dakite baserriko bizimodua nolakoa den. Lehen kaletarrek burla egiten zieten baserritarrei. Baserritarrak hilean behin feriara joaten dira. Halako egunetan egun-pasa egiten dute eta kaletarrek hori ikusitakoan pentsatzen dute baserritarrak ondo bizi direla. Azpeitiko feriara asko joaten ziren eta baita Basurtora eta Santanderrera ere.

598. Euskara asko aldatzen da herri batetik bestera (EGB-026/034)

Inguruko herrietako euskara asko aldatzen da. Batetik besterako aldeak aipatzen ditu.

599. Inguruko auzoetako euskara antzekoa (EGB-026/035)

Inguruko auzoetan antzerako euskara hitz egiten da.

600. Askori euskaraz hitz egiten ahaztu (EGB-026/036)

Joseren ustetan, kalekoei euskara ahaztu egin zaie, gaizki hitz egiten dute. Euren artean erdaraz egitearen ondorioz, euskara ahaztu zaie.

601. Astoarekin plazara saltzera (EGB-027/008)

Lehen plazara joaten zen saltzera astoarekin. Batzuetan bi astorekin joaten zen, bata esnearekin eta bestea barazkiekin. Dirua hartzen zen saldutakoarekin, ondo saltzen zen eta. Esnea saltzera egunero joaten zen eta plazara ere sarri.

602. Baserrian sasoi gogorrena udagoiena (EGB-027/010)

Udagoienean egoten da lanik gehien baserrian, uzta batu behar denean. Lehen garai gogorrena garia ereiten zen sasoi izaten zen, uztail inguruan. Gaur egungo baserriko bizimoduak ez du lehengoarekin zerikusirik.

603. Irakurtzeko zaletasun handia zuen gaztetan (EGB-027/015)

Gaztetan irakurtzeko zaletasun handia izan zuen, baina familia aurrera atera behar zuen eta ez zuen horretarako astirik izan. Liburuak asko gustatzen zitzaizkion. Gaur egun ere gustatzen zaio, baina gaur egun ez omen zaizkio buruan geratzen irakurritakoak.

604. Gerra aurrean euskara garbiagoa zerabilten (EGB-027/018)

Euskara batuaren inguruko iritzia. Bere ustez gerra aurretik hitz egiten zen euskara Euskara batua baino garbiagoa zen. Telebistan denetarikoa euskara entzuten da. Bertsolariak nahiko garbi hitz egiten omen zuten, batez ere, Basarrik.

605. Gerra garaian, babeslekuan gordeta (EGB-027/020)

Gerra denbora ondo gogoratzen du; garai tristea izan zen. Beraiek ez zituzten soldaduak asko ikusi, baina hegazkinek bonbak botatzen zituzten eta babesleku batean gordeta egoten ziren.

606. Gerraostean gosetea; garia entregatu beharra (EGB-027/021)

Gerraostean gosetea egon zen. Baserrietan ere hartzen zen jeneroaren zati bat entregatu egin behar izaten zen.

607. Etxean hika eta zuka (EGB-027/023)

Senar-emazteek elkarri beti zuka egin izan diote eta seme-alabei beti "hi".

608. Senarraren familiaren inguruko kontuak (EGB-027/025)

Senarrari gurasoak gazterik hil zitzaizkion eta amamak hazi zituen. Gurrutxaga zuen abizena.

609. Baratzerako komeni den eguraldia (EGB-027/030)

Eguraldiaren inguruko komentarioak. Hegoaizea edo trumoi-giroa dagoela diote. Iparraizea dagoenean eguraldi "naturalagoa" egoten da. Baratzerako ze giro-klase komeni den.

610. Lehen "abadea" esaten zen (EGB-027/032)

Lexikoaen inguruko galdeketa. Lehen beti "abadea" esaten zen, nahiz eta gaur egun "apaiz" ere erabili.

611. Elgoibarren erabiltzen diren berbak (EGB-027/033)

Lexikoaen inguruko galdeketa: buelta bat eman (ez "ostera"), atzazkalak, guraizak, aittitta, amama, anaixa...

612. Elgoibarren erabiltzen diren berbak (EGB-027/034)

Lexikoaren inguruko galdeketa: gizajua (gizonari), koittaua (emakumeari), maasmia, kerizpia, ume drogosua, okerra, drogan ibili, ihintza, oi♦utsik, aizerixa, arkakusua, ortua, basia (lokatza), simaurra, txingorra...

613. Elgoibarren erabiltzen diren berbak (EGB-027/035)

Lexikoaren inguruko galdeketa: okarana, madarixa (udarea), mallukixa (marrubia), kortia (ikuilua), orrixak (zuhaitzarenak), buitria, kirikixua (trikua), okelia, lantzian behin, pixkat, bienke, gaiztua (zaila), poliki, gehixegi, edarki, geizki, segiduan, urruti, hurrian...

614. Elgoibarren erabiltzen diren berbak (EGB-027/036)

Lexikoaren inguruko galdeketa: apropos, ostontzian, albuana, uhertu (erdoitu), jolasian egin, amaittu, jaurti edo bota, jausi, errieta egin, gogoratu, aspergarrixa edo gogaikarrixa, aspertu, higuña...

615. Elgoibarren erabiltzen diren berbak (EGB-027/037)

Lexikoaren inguruko galdeketa: begittandu, berba egin, hitzaldixa, berbalduna, damutu, emendau, isiotu edo piztu, ohittu, begittantziua, ezkutau, zuzendu, "txokau egin jata" edo harrittu, saltaka (korrika), lapurretia, harrapau...

616. Elgoibarren erabiltzen diren berbak (EGB-027/038)

Lexikoaren inguruko galdeketa: laga, ernegau, kaso egin, bidar edo aldiz, premixia, posturia (apustua), atsaldia, ganorabekua edo arduragabia, atzamarra, bihetza, aldapia, motza, nola, txatxarra, zilla, lepua...

617. Elgoibarren erabiltzen diren berbak (EGB-027/039)

Lexikoaren inguruko galdeketa: "maskala", "mantsua", "mozolua", "ziharrera", "etxapliuak", "nahi", "lain", "jan eragin", "elderra darixola", "moduan", "jentia", "denporia", "kipulia", "ezpaiñak"...

618. Elgoibarren erabiltzen diren berbak (EGB-027/040)

Lexikoaren inguruko galdeketa: "labaiña", "labaiñ egin", "gitxi", "solua", heldu (oratu), erabaki, "eskuturra" (eskumuturra) ...

619. Irakasleak urritz-makilarekin jotzen zituen (EGB-028/005)

Irakasleak urritz-makilarekin jotzen zituen okerra egindakoa; hala ere, neskak baino mutilak gehiago jotzen zituen eta bera ez zuen inoiz jo.

620. Gerra denborako bizipenak (EGB-028/007)

1935ean ezkondu, eta 1936an gerra zibila. Nazionalek bederatzi hilabete egin zituzten Elgoibarren. Bera ume jaioberria zen eta beldurrez egoten zen. Tiroek ateak zeharkatuko ote zituzten beldurrez, koltxoiak jartzen zituzten. Senide batzuk eta inguruko batzuk ezkutatu egin ziren. Neskak ere eraman nahi izaten zituzten. Atzetik moroak zetoze eta haiek txarragoak zirela esaten zieten beraiekin joateko.

621. Anaiak elkarren kontra gerran (EGB-028/011)

Gerran egon ziren senideak. Bi anaia elkarren kontra ibili zirela kontatzen du.

622. Eztei-bidaia itzulitakoan ezkon-ospakizuna (EGB-028/012)

Elgoibarren ezkondu eta Donostian hiru egun egin zituzten eztei-bidaian. Gero, larunbatean etxean ospakizuna egin zuten Gelatxo soinujolea eta guzti. Ospakizunaren inguruko kontuak.

623. Biarritzen kondeen etxean neskame (EGB-028/014)

Neskame egin zituen bi urte Biarritzen konde batzuen etxean. Zerbitzari asko zeuden. Hala ere, etxean beti gonbidatuak izaten zituzten eta lana izaten zuten.

624. Frantsesez hitz solteak ikasi zituen (EGB-028/016)

Kondeak espainiarrak ziren eta frantsesez hitz solte batzuk ikasi zituen bakarrik. Sukaldaria Hondarribikoa zen.

625. Baserriko bizimoduaren aldaketa (EGB-028/018)

Baserriko bizimodua asko aldatu da; aurrerapenak. Gari-sasoia izaten zen sasoirik gogorrena. Senarrak etxean lan egiten zuen, obretan ere ibili zen arren.

626. Esne-partitzera astoarekin (EGB-028/021)

Iriarte-Etxeberritik esneekin kalera joaten zen saltzera, astoarekin.

627. Kurutzetara edo Kamiñerokora erromeriara; San Lorentzoko erromeria (EGB-028/023)

Erromeriara Kurutzetara edo Kamiñerokora joaten ziren. Plazan ere musika egoten zen eta han dantza egin ostean Kamiñerokora joaten ziren eta handik San Lorentzora. San Lorentzoko erromeria galduta egon zen sasoi batean. Ze soinujole egoten ziren. San Lorentzoko festak.

628. Umetan ardizain mendian (EGB-028/025)

Ardizain egoten zen umetan mendian. Zein ingurutan ibiltzen zen.

629. Herri bakoitzean euskara desberdina (EGB-028/029)

Herri guztietan hizkera desberdina egiten dela dio. Bakoitzaren inguruko iritzia. Azkoitia aldera euskara garbiagoa egiten dutela uste du, Elgoibarren erdarakada gehiago erabiltzen direlako. Lehen euskaraz esaten zituen zenbait hitz gaur egun gaztelaniaz esaten dituela dio.

630. Elgoibarko auzoen artean alderik ez euskaran (EGB-028/032)

Elgoibarko auzo batetik bestera euskara ez da aldatzen. Orain kanpotarrak ere etorri direnez ezkondata haien euskararen eragina egongo dela uste du. Telebistako euskara ulertzeko ez du arazorik. Itziar aldean euskara batuarengandik hurbilagoko euskara egiten dutela dio. Armaitta baserriko ama omen zen egokia hizketan.

631. 17 anai-arreba ziren (EGB-029/001)

Inazio eta Balentin Egaña. Euren baserriak hilerria Altzolan duela komentatzen dute. 17 anai-arreba ziren, 3 ama batenak eta beste 14ak beste batenak. Lehenengo ama zen bertakoa eta aita Itziarkoa. Aita berriz ezkondu zen euren ama izango zenarekin. Euren ama Larruskaingoa zen.

632. San Migelgo eskolan ikasiak (EGB-029/002)

San Migelen ibili ziren eskolan, orain elkarte dagoen lekuan. Zortzi urte ingururekin hasi eta lau-bost urte egin zituzten, baina astia zutenean bakarrik joaten ziren. Gero, gau-eskoletan ere ibili ziren. Bi irakasle egon ziren San Migelgo eskolan.

633. Soldaduak izan zituzten etxean (EGB-029/005)

Gerra denboran, Balentinek 2 urte zituen eta Inaziok 9. Soldaduak 8 egunean etxera joaten zitzaizkien jatera, baina gero fronteak aurrera egin zuen Urkaregi aldera. Pareko baserri batetik euren baserria bota nahi izan zuten, soldaduak zeudelako bertan; baina eragotzi egin zieten, ume asko bizi zen bertan eta.

634. Alde guztietatik heltzen zitzaizkien tiroak (EGB-029/006)

Tiroak nonahi izaten ziren. Sukaldean zeudela, anaiari bala bat sartu zioten. Baserria tontorrean zegoen eta alde guztietatik heltzen zitzaizkien tiroak. Beldur handiz bizi izan zuten gerra denbora.

635. Beraiek goserik ez zuten pasa; anaia zaharragoak bai (EGB-029/008)

Euren anaitzako batek gerra garaian egin zuen soldaduska eta lizentziatuta etorri zen etxera. Baina, berehala, beste bi urterako joan behar izan zuen. Euren etxean, hark (anaia zaharragoak) pasa zuen miseria pixka bat, baina beraien garairako labeko sua egiten zuten eta jateko zerbait beti izaten zuten. Errazionamenduko ogiak, paretaren kontra botata, ez omen ziren apurtzen.

636. Soldadutza Burgosen (EGB-029/009)

Balentinek ez zuen soldadutza egin, baina Inazio Burgosen egon zen urte eta erdiz. Soldadutzaren inguruko iritziak. Lehen gaztetatik lanean ohituta egoten ziren, baserrian gogor lan egin behar izaten zelako. Burgosera joan-etorriak trenez egiten zituen. San Migelera autobusak egoten ziren lehen (Markinara zihoazenak), baina kotxeak ugaritzean kendu zen autobusa.

637. Baserriko bizimodu gogorra; gariak lan gehien (EGB-029/011)

Baserriko bizimoduaren inguruko iritziak. Gogorra da baserriko bizimodua. Gaur egun aurrerapen handiak daude, baina garai batean lan gogorragoak izaten ziren. Lanik txarrenetakoak garaiaren ingurukoak izan ohi ziren eta baita garai txarrena ere.

638. Baserriko bizimodu gogorra (EGB-029/012)

Baserrian beti dago lana eta ordutegirik ere ez dago, gainera: goizean goiz hasi eta ilundutakoan utzi. Gaur egun oraindik badute baratzea eta haragitarako ganadua ere badute. Kaleko jendeak ez du ulertzen baserriko bizimodua. sarritan barazkiak erostean garesti direla dio jendeak, baina ez dira konturatzen nolako lana dagoen atzean.

639. Inguruko erromerietara oinez (EGB-029/014)

San Migelera, Isasira (Olatz ingurura), Santa Eufemiara... joaten ziren erromeriara. Oinez edo autobusean joaten ziren hasieran erromerietara, gero baita bizikletan eta motorrean ere.

640. San Migelgo eskola (EGB-029/016)

Gaur egun soziedade dena lehen eskola zen.

641. Basurdeak ibiltzen dira inguruetan (EGB-029/019)

Ez dute ehizarako zaletasunik, baina beharra ba omen dago. Basurdeak ibiltzen direla inguruetan aipatzen dute. Inguruetan basurdeak ikusi izan dituzteneko kontuak.

642. Elgoibar eta inguruko herrietan euskara desberdina (EGB-029/021)

Elgoibarren eta inguruko herrietan euskara ezberdina hitz egiten dela uste dute. Azkaratetik beste alderakoa (Azkoitikoa) desberdina da eta baita Urkaregitik haruzkoa (Markinakoa) ere. Euskara eta "boza" (tonua) desberdina omen da. Arrate aldera antzekoagoa ikusten dute euskara, baina Eibarrera ere zerbait aldatu egiten omen da. Elgoibarren bertan auzoen artean alderik ez dagoela euskaran uste dute eta ezta kaletik baserrietara ere.

643. Telebistako euskara batzuetan ulergaitza (EGB-029/022)

Telebistako euskara batua batzuetan ez dutela ondo ulertzen aipatzen dute. Irratia entzuten dutenean Arrate irratia entzuten dute normalean.

644. Moja frantsesekin eta Maalako kapellauarekin monagilo (EGB-030/001)

Moja frantsesak egon ziren Elgoibarren. Etxezuri etxekoek, Lizundiarrek, "karreterixia" zuten, hau da, Azkoitira garraioak egiten zituzten. Bertako semea, Bizente, monagilo egoten zen mojekin. Harek utzi zuenean, berari eman zioten monagilo lanetarako enkargua. Mezak laguntzen zituen. Apaiza ere frantsesa omen zen. Gero Maalako kapellauaren monagilo izan zen. Mezak goizean goiz hasten ziren.

645. Domu Santu Egunean gaztaina erreak (EGB-030/002)

Domu Santu Egunean aitak gaztainak erretzen zituen. Hura izaten zen gaztainak erretzeko lehenengo eguna. Nola erretzen ziren gaztainak.

646. San Antonio egunean tren berezia Urkiolara joateko (EGB-030/003)

San Antonio egunean Urkiolara joateko tren berezia egoten zen eta inguruetakoa baserritar guztiak etortzen ziren. Geltoki inguruan zegoen Butroiko taberna gau osoan irekita egoten zen. Jendea oinez ere asko joaten zen, "kamiñua betian", kotxerik ez zegoen eta.

647. Umetako jolasak: pilota eta "Tres navíos en el mar" (EGB-030/004)

Umetako jolasak. "Tres navíos en el mar" jolasaren inguruko azalpenak. Pilotan edozein txokotan jolasten zuten, batez ere elizako fatxadan. Orduan kotxerik ez zegoen eta lasai ibiltzen ziren kalean.

648. Eibarrera enkargura joan eta zinta-karreran jolasean (EGB-030/006)

Jaietan, zinta-karrera (ginkana) egiten zen Eibarren. Neskek uztaidun lazoak jartzen zituzten eta mutilek bizikleta gainetik, makila batekin, haiek harrapatu behar izaten zituzten. Gero asko hedatu zen arren, orduan leku gutxitan egiten zen zinta-karrera. Aitak Unzeta burdindegira bidali zuen pieza baten bila, eta bera zinta-karreraren parte hartzera joan zen. Berandutu egin zitzaion, eta aitaren errieta entzun behar izan zuen.

649. Bizikletan kanaberarekin gertatutako anekdota (EGB-030/007)

Behin arrantzara joan zen kanabera bizikletan hartuta. Luzetara beharrean, zabaletara zeraman kanabera bizikletari lotuta eta bide osoa hartzen zuen. Bide ertzean zihoan emakume bat kanabera ertzarekin ukitu eta bizikletatik jausi zen.

650. 1914ko gerra garaiko eskolako bizipenak (EGB-030/008)

1914ko gerra-garaiko bizipenak. Maristetan ibili zen eskolan. Eskolan kategoriak izaten zituzten: "primera", "segunda"... "Segunda"-n zebilela bere ikaskidea Urbano Arriaga izan zen. Binaka egoten ziren eserita. Gerraren berri zerbait jakin zuten eta berehala irakasleek ihes egin zuten eta eskola itxi egin zen. 9 urte zituen berak orduan.

651. Maristen eraikinean gerora aurrezki kutxa (EGB-030/009)

Ikastetxea itxi egin zen gerra garaian. Eraikina eta ingurua nolakoa zen. Gerora mikeleteek zuzendutako Aurrezki kutxa egon zen bertan. Julio Mugerza alkate izan zena orduan ezagutu zuen, "Caja de Ahorros Provincial"ean lan egiten zuen eta.

652. 1914ko gerrako oroitzapenak (EGB-030/010)

1914ko gerrako kontuak Gerra zibilekoak baino hobeto gogoratzen dituela dio. Ze kontu entzuten zituzten.

653. Gerra zibilean, txofer lanetan komitekoekin (EGB-030/011)

Gerra zibileko bizipenak: errekiak, ihesa... Zaurituak tren berezietan ekartzen zituzten Altxolako bainuetxera. Fronte Popularra. Udalean zeuden karguak kendu eta 5-6 partidotako jendea jarri zen agintean: nazionalistak, komunistak, CNT-koak, UGT-koak, ideologia guztietakoak. Bozgorailu bat jarri zuten plazan eta txofer bat behar zutela esan zuten. Berak ordurako bazuen gidatzeko baimena eta joan egin zen. Ze bidaia egin zituen. Abantzea aurrera zetorren eta komitekoekin Markinara alde egin zuen.

654. Azkoiti aldetik etorri ziren erreketek (EGB-030/012)

Markinara bidean, Azkoiti aldetik erreketek nola zetozen ikusi zuten. Beste aldeko mendian, euren ezagunak zeuden defentsarako.

655. Erreketeei oztopoak jartzeko, trintxera egitera Azkaratera (EGB-030/014)

Erreketek sartu aurreko egunean, bidaia bat egin zuen Azkoitira. Azkarate gainera egin zuen bidaia Ramon Uncilla UGTkoarekin, txofer moduan. Bide ertzean trintxera bat egin zuten Azkoitia aldetik zetozen erreketeei kontra egiteko. Azkaratera heltzeaz bat, kotxea Elgoibar aldera begira jarri zuen, badaezpada, prest izateko. Aldazabal baserriaren inguruan, lehergailuak jarri zituzten erreketek geldiarazteko.

656. Erreketeak sartu aurreko uneen tentsioa (EGB-030/016)

Erreketeak sartu aurreko gauean, kotxea prest utzi zuen plazan eta ez zen oheratu. Denak alerta zeuden, badaezpada. Ordena publikokoak balira bezala, "Upei" eta Gastesi ibili ziren gauean kalean fusilarekin, zaintzan.

Biharamunean, erreketek bazetozela-eta, 2-3 kotxetan, komitekoak Markinara eraman zituzten. Bidean geratu eta beste aldeko mendira begira geratu ziren. Tiroak entzuten ziren ordurako. Markinan gau hartan alarma faltsu bat izan zuten eta jendeak beldurtuta Lekeitio aldera ihes egin zuen.

657. Markinatik Lekeitiora ihesi (EGB-030/017)

"Ondarru" txoferra San Migeletik zehar Garate baserrira joan zen eta han erreketek batekin tiroketa izan omen zuen. Markinan gauean alarma sortu zenean, eurak ere Lekeitiora joan ziren. Urbieta anarkista eta Mariano sozialista eraman zituen berarekin eta Lekeitio ostatu bila ibili ziren.

658. Mariano sozialista (EGB-030/019)

Mariano sozialista El Liberal egunkariko korrespontsala zen eta Estartan lan egiten zuen.

659. Gerra denborako bizipenak; denbora luzez Markinan (EGB-030/020)

Lekeitiotik berriz Markinara itzuli zen kotxearekin, eta 7-9 hilabete egin zituzten bertan. Kalamuako frontea. Soldaduek esaten omen zuten euskaldunak arrosarioa errezatzen egoten zirela beti.

660. Frontea Kalamuan (EGB-030/021)

Frontea gelditu egin zen Kalamuan eta erreketek zeuden bertan. Baserri inguruan, kotxe blindatu bat zegoen errepedea zaintzen "txapelgorriak" pasa ez zitezen. Frontea Kalamuan zegoen bitartean, eurak Markinan egon ziren, 7-9 hilabetean.

661. Herrian geratutako emakumeak bidali egiten zituzten (EGB-030/022)

Herrian geratzen ziren emakumeak bidali egiten zituzten euren umeekin batera; izan ere, senarra non zegoen galdetu eta ezin zuten erantzun. Trenbidetik Maltzaga aldera joaten ziren.

662. Gerra garaiko bizipenak Markinan; kuartela, Ituarte taberna (EGB-030/023)

Markinatik Eibarrera edo Durangora mugitzen zen. Markinan zuten kuartel nagusia. Ituarteko tabernan egoten ziren. Beraiek intendentzian sartzeko aukera izan zuten eta ez zuten arazorik izaten tabernarako jeneroa eramateko. Handik gertu, Urberuagan, "Rosa Luxenburgo" batailoia komunista zegoen. Komandantea ezagutu zuen, irundarra, kontrabandista ibilitakoa. Rosa Luxenburgo nor zen. Gernikako bonbardaketa izan zenean, Markinatik alde egin zuten Bilbo aldera.

663. Gerra garaiko bizipenak; jeneroa biltegian soldaduentzat (EGB-030/024)

Facundo Benito "Juventudes socialistas"eko idazkari bilbotarrarekin jarri zuten, haren esanetara. Frontetik "asemillauak" etortzen zitzaizkien astoarekin Markinako almazenera, frontean zebiltzan soldaduentzat jenero bila.

664. Indalecio Prieto sozialista ezagunarentzat enkarguak egitera (EGB-030/026)

Asturias aldera joan zen gero. Indalecio Prieto sozialista ezaguna zen; hitzaldiak ere ematen zituen. Hura Santanderren zegoen eta harentzako enkarguak ere eramaten zituen. Gero Gijon aldera joan zen; eta, Torrelavegatik pasa zenean, hiri erdia sutan ikusi zuen. Indalecio Prietoren semea, Luis, ondo zainduta zegoen, aita gizon inportantea zen eta.

665. Gerra garaian, txofer lanetan; enkargua eramatera Santanderrera (EGB-030/028)

Santander aldetik jendea ihesi zihoan Gijon aldera. Berak ere Santandertik pasa behar zuen, enkargu bat zuen emateko eta; kargu handiko militarrik ikusi zituen bertan. Hurrengo egunean sartu ziren erreketek Santanderren. Etxe batean pasa zuen gaua eta gasolindegia handik hurbil zegoen. Gasolindegia abandonatuta zeuden eta norberak nahi beste gasolina hartzen zuen. Bere kotxea lapurtu nahi izan zuten, baina berak, nahita, pieza inportante bat kenduta zeukan kotxean, inork ez eramateko.

666. Gernika bonbardatu zuten hegazkinei begira Aulestitik (EGB-030/031)

Gernikako bonbardaketa egunean, komandanteak Bilbora joan behar zutela esan zion. Iruzubietan aldetik ezin zela pasatu, eta Aulestira joan ziren. Dagoeneko arratsaldean hegazkinak zebiltzan Gernika bonbardatzen, eta komandanteari esan zion aurrerago ezingo zirela joan. Eliza ondoan eginda zegoen babesleku antzekoan gordeta egon ziren, eta hegazkinak ikusten zituzten joan-etorrian.

667. Aulestitik Bilbora bidaia; Gernikaren irudia bonbardaketa ostean (EGB-030/032)

Komandanteak Bilbora joatea nahi zuen eta Aulestitik abiatu ziren Bilbora, Gernikatik pasatuz. Gernikaren irudia bonbardaketa ostean; dena erretzen ikusi zuten. Gerra-liburuetako irudia etorri zitzaion gogora. Jendea ebakuatzen zebiltzan Gernikan, eta ezagun bat ere ikusi zuen zaurituta. Kotxe-pilaketa pasa eta lortu zuten Bilboraino joatea, Carlton hotelera. Komandanteak bere eginkizunak egin zituen eta berriz Aulestira itzuli ziren. Aulestiko plaza lehen Kalamuako trintxeretan egondako gudariz beteta zegoen. Ihesi zihoazen.

668. Markinara abiatu; eta, italiarrak bertan zeudela jakitean, buelta Aulestira (EGB-030/034)

Aulestitik Markinara joatea pentsatu zuen eta abiatu ere egin zen. Goitik behera zihoala, Patxi Zabaletarekin, "Patxi kaminerua"rekin, gurutzatu zen. Hark esan zion italiarren tankeak iritsita zeudela Markinaraino eta hara ez joateko. Kotxeari buelta emateko bidea estuegia zenez, atzeraka joan zen errepidea zabaltzen zen tokira arte. Bidean zihoala, kanoikada batek errepidea apurtu zuen beragandik oso hurbil. Ertz-ertzetik pasa eta kotxeari dena emanda joan zen Aulestira.

669. Gerra-osteko lanak; emaztea ere orduan ezagutu zuen (EGB-030/036)

Gerra-ostean ezagutu zuen Agapita emaztea. Lehendik ezagutzen zuten elkar; Agapita Altzolakoa eta bera elgoibartarra. Agapita bainuetxean zegoen neskame eta Juanitok ere han lan egiten zuen. Bainuetxean hasi aurretik txofer moduan lana eskaintzera etorri zitzaion Alfonso Freire, garai hartan inguruko fabrikak militarizatzen ibili zena.

670. Alfonso Freireren txofer lanetan (EGB-030/038)

Freire Vigokoa zen. Han astillero antzeko fabrika bat zuten eta militarizatu egin zuten gerrarako materiala egiteko. Hona etorri zen Alfonso Freire ingeniaria zen. Elgoibarrera etorri eta Barrutiarenean hartu zuen ostatu. Batera eta bestera joateko kotxea behar zuen. Kotxea eskuratu zuen, baina ez zekien gidatzen eta orduan berarengana joan ziren txofer lana eskaintzera. Freire inguruko fabriketara eramaten zuen eta honek fabrikak militarizatu egiten zituen. Txofer egin eta bide batez gidatzen erakutsi zion.

671. Balnearioan administrari lanean zebilela ezagutu zuen emaztea (EGB-030/039)

Freireren txofer lanetan zebilela, Altzolatik etorri zitzaizkion administrari lana eskainiz eta onartu egin zuen lana. Balnearioan lanean ezagutu zuen emaztea. Maitasunaren inguruko gaztelaniazko poesia bat errezitatzen du Juanitok. Berak ez zuen uste ezkonduko zenik, mutil zahartuta omen zegoelako ordurako, baina 38 urterekin ezkondu zen.

672. Hotelean ezkutuka ibiltzen ziren, jendea nobioak zirela ez ohartzeko (EGB-030/041)

Bi urtean ibili ziren elkarrekin, baina hotelean isilka ibiltzen ziren jendeak ez ikusteko. Gero Juanitok balnearioko lana utzi zuen Agapitarekin ezkontzeko. Altzolan bertan ezkondu ziren. 56 urte egingo dituztela ezkondata komentatzen dute.

673. Aita garraiolari lanetan;1925 inguruko ibilgailuak (EGB-030/043)

Bere aitak bidaiarientzako furgoneta zahar bat ekarri zuen. Marka frantsesekoa zen. Orduko ibilgailuen inguruko azalpenak; katedunak izaten ziren. Aita hara eta hona ibiltzen zen autoarekin eta geltokira bultoak eramaten ere ibiltzen zen. Gidatzeko baimena ateratzeko Donostiara joan behar izaten zen.

674. Gidatzeko baimena 1923an nola atera zuen (EGB-030/044)

Berak 18 urte zituenean, gidatzeko baimena ateratzea erabaki zuen. Garai hartan, Donostiara joan behar izaten zuen gidatzeko baimena lortzera, eta esandako egunean aurkeztu zen "Obras públicas"eko bulegoan aitaren autoarekin. Azterketaren nondik norakoak. Lafitte ingeniaria alboan zuen azterketa egiten zebilela, eta ia itsasora erori ziren. Hala ere, gainditu egin zioten azterketa, kotxe zahar harekin ibiltzen jakiteko artista izan behar zelako.

675. Debako astilleroan egindako barkurik handienaren itsasoratzea 1920an (EGB-030/045)

15 urte zituela, 1920an, San Migel egunean Deban eraikitako itsasontzi handienaren itsasoratzea egin zen. 1.200 tonako barkua zen, eta eibartarrak ziren ontziolako nagusiak, Errasti abizenekoak. San Migel eguna erdi-jai izaten zen eta gertakizun handia izango zela eta, aitaren furgoneta zaharrarekin Debara joan ziren. Angel Unzueta elgoibartarra erabiltzen zuten txofer moduan aitaren garraio horrekin. Itsasoratzearen inguruko kontuak.

676. Debako astilleroan egindako merkantea (EGB-030/047)

Barku handia zen Deban egin eta itsasoratu zutena, inguruetan inoiz ikusi gabekoa. Astilleroa non zegoen. Arrantzarako ontziak egiten zituzten normalean bertan, baina hau berezia izan zen. Merkantea zen, beleroa eta 4 poste altu zeuzkan beren belarekin. Posteak eta bela haundi horiek Zumaian jarri zizkioten. Lehenbiziko bidaia Kubara egin zuela azukretara ontzi horrek entzun zuen Juanitok. Europan gerran zeudenez, arriskutsua zen itsasoan ibiltzea.

677. Umetan eskolara joan beharrean ardizain (EGB-031/001)

Juliana Lete Azpiazuk Santa Ana egunean 91 urte egin behar dituela aipatzen du. Gurasoak San Pedro auzoko Ipintza baserrikoak ziren. Umetan eskolara ez zen asko joan, ardizain eta ganadu-zain egon behar izaten zelako.

678. 14 urterekin mendira ardi bila (EGB-031/002)

Ardiak San Pedro gaineko mendian izaten zituzten. Gero ardiak bilatzen lanak izaten zituzten, batzuetan Arrate bailarara pasatzen ziren eta. 65 ardi zituzten. 14 urterekin mendi guztia pasatzen zuen ardi bila. Gauerako etxera etortzen ziren beti.

679. Sokasaltoan edo ezkutaketan jolasten zuten (EGB-031/004)

Jolastea beharrezkoa dela gazteentzat dio, baina beraiek ez zuten horretarako askatasun larregi izaten. Sokasaltoan edo ezkututzen jolasten ziren.

680. Haizea lagun txarra sororako (EGB-031/009)

Baserritarrak onak dira kontuak esateko. Haizea lagun txarra da baserrirako. Aurreko urtean, haizeak baba guztiak bota zizkiela kontatzen du.

681. Gari-jotzea eta lurreta auzolanean (EGB-031/010)

Baserrian ze lantzen zuten: babarruna, garia, arbia... Lehen denean egoten zen garia. Lizundia baserrikoak izan omen ziren garia ereiten azkenak. Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Lurretan ere auzolanean egiten zen. Asko laguntzen zioten elkarri, baina ohitura hori galduz joan zen. Lurreta lan nekagarria da.

682. San Bartolomeetan kalera festara (EGB-031/015)

San Bartolomeetan beti jaitsi izan dira kalera. Dantzarako zaletasuna beti izan du. Geratu gabe dantza egiten zuten gutxi jakin arren. Goiz-pasa edo arratsalde-pasa joaten ziren eta gauean berandu etxera (12etan).

683. Elgoibarko auzoen artean alderik ez euskaran (EGB-031/018)

Emezabal baserriak Mutriku aldera egon arren, hangoen hizkera ulertzeko ez zuten arazorik izaten, antzekoa zen eta. Elgoibarko auzoen artean ez dago hizkeran alderik, kanpotik etorritakoak ez badira behintzat.

684. Ezkonbidaia: Donostiara egunpasa (EGB-031/034)

Elgoibarren ezkondu ziren eta Txankakoan egin zuten bazkaria. Ezkonbidaian Donostiara joan ziren, goizean joan eta iluntzerako etxera.

685. Urkiolara eta Santa Eufemiara erromeriara; inguruko erromeriak (EGB-031/036)

Lehen ez zegoen dirurik eta harrokeria gutxi egiten ziren. San Antonio egunean Urkiolara joan eta gauza izugarria egin zutela pentsatzen zuten. Urkiolara edo Zumarragara ere joan izan ziren inoiz erromeriara. Santa Eufemiara ere joaten ziren. Inguruko auzo batzuetako erromerietara ere joaten ziren (San Roke, San Lorentzo...)

686. Lehen soldata astea ordaintzen zen (EGB-031/043)

Gaur egun soldata hilekoa jasotzen da. Lehen astean ordaintzen zen soldata. Julianaren ustez hori hobea zen, sarriago jasotzen zelako dirua eta horrek poz handiagoa ematen zuen. Honen inguruko kontuak.

687. Gazte-denbora ardizain eta baserriko lanetan (EGB-032/002)

Bizimodu tristea izan duela dio. Umetan, ardizain ibiltzen zen eta eskolarik ez zuen ikasi. 17 urterekin ardiak Elgoibarko plaza zeharkatuz San Roke auzora eramaten zituen. Aitari eta amari ere lagundu behar izaten zien baserriko lanetan.

688. Baserriko bizimodua gogorra (EGB-032/004)

Baserriko lanak gogorrak izaten ziren. Lur-sailak ere etxetik urrun zituzten eta idiak hartuta haraino joan behar izaten ziren. Gaur egungo bizimodua guztiz desberdina da, baina hala ere jendea kexatu egiten da. Beraiek jairik ere ez zuten izaten.

689. San Migelgo erromerian ezagutu zuen senarra (EGB-032/005)

Domeketan bezperetara joaten ziren kalera eta gero San Migelerera erromeriara. Kamiñerokora ezin izaten ziren joan erromeriara Hijas de María kongregaziokoek debekatuta zutelako han dantza egitea. San Migelgo erromeriatik etxerakoan ezagutu zuen bere senarra izango zena. Urkaregitik hurbil zegoen Etxebarri parteko Unamunzaga baserrian bizi zen senarra.

690. Senarraren familia Unamunzaga baserritik Palaziora (EGB-032/006)

Senarra jaiotzez Debakoa zen, baina Etxebarriko Unamunzaga baserrian bizi ziren. Handik alde egin beharra izan zuten eta jakin zutenean Palazio baserria orduantxe hutsik geratu zela, bertara joan ziren bizitzera. Kasualitatez, Eulaliren anaia zen Palazio baserritik Azkoitiko baserri batera alde egin zuena.

691. Eskolan "multiplicar" eta sinatzen ikasi zuten (EGB-032/010)

Eskolan ia ez ziren ibili eta "multiplicar" bakarrik ikasi omen zuten, "dividir" ez. Eulaliak dio sinatzen behintzat ikasi zutela.

692. Gerra denboran etorri ziren Palazio baserrira (EGB-032/012)

Gerra denboran gorriak ikusi omen zituzten, dirurik ez zuten eta. Senarrak kontatzen du baserritik kalera Palaziora nola etorri ziren. Palazio baserria monumentu izendatutakoa dela komentatzen du.

693. Gerra denborako bizipenak (EGB-032/016)

Gerra garaiko bizipenak. Jende askok kanpora ihes egin zuen. Azkaraten tiro-hotsak entzuten hasi zirenean, berak ere ihes egin zuen anaiekin batera, eta 7 hilabete egin zituen. Emazteak ez zekien non zegoen ere. Gero Bizkaia aldean herri-lanetan ere ibili zen, pistak egiten.

694. Gerra denboran herri-lanetan lanean (EGB-032/017)

Gerra denboran, mendian ibili zen ihes eginda. Asperturik, baserri baten lanean ibili zen bi hilabetez jatekoaren trukean. Gero herri-lanetan hasi ziren lanean, pistak garbitzen eta 10 pezeta eta bazkaria ordaintzen zizkieten. Ez zuten goserik pasatu gerra ostera arte.

695. Gerra-ostean gosea ezagutu zuten (EGB-032/018)

Gerra-ostean ezagutu zuten gosea. Etxeko jenero guztia konfiskatu egiten zieten; txerria ezin zen norberarentzat hil, babarruna eta patata entregatu egin behar... Kontrabandoa. Errazionamenduan ematen zieten ogia ez zen jateko modukoa. Gaur egungo bizimoduarekin konparaketa.

696. Fabrikan lanean, militarizatuta ez eramatearren (EGB-032/024)

Senarrak baserrian lan egin izan du beti. Hala ere, tailerrean ere ibili zen lanean, militarizatuta ez zezaten eraman. Lanean zebilena normalean ez zuten eramaten, bere funtzioa betetzen ari zelako; baina, kintak harrapatuz gero, hura ere eraman egiten zuten.

697. Frontea zortzi hilabetean etxetik gertu (EGB-033/006)

Gerra denborako bizipenak. Eibarko koinata eta haren familia etxean izan zituzten 13 hilabetez gerra denboran. Frontea zortzi hilabetean egon zen inguruetan eta ezin ziren inora mugitu. Arraten zauritutakoak beste aldera, Altzola aldera, jaisten zituzten. Soldaduak jateko eskean etortzen ziren eta eman egin behar.

698. San Migeleko erromeria (EGB-033/008)

San Migelen erromeria egoten zen San Migel egunean eta jai egunetan. Orduan, ezin izaten zen edozein egunetan jai hartu. Ezkondu ostean ere lan ugari izaten zuen aste eta jai.

699. Gaztetako entretenimendua dantza-soltea (EGB-033/012)

Gazte-denboran jai eguna iristen zenean erromeria izaten zen euren entretenimendua. Dantza soltean egiten zuten; dantzarako zaletasun handia zuten. Goikone San Migel auzoko bertako soinujoleak jotzen zuen soinua.

700. Baratzean aurrerapenik ez eta gogor lan egin behar (EGB-033/015)

Baratzean aitzurra, area, goldea... erabiltzen ziren. Artoa eta garia egoten ziren lurak labratu egiten ziren. Lurra jaso egin behar izaten zen soro barrenetik eta horretarako karroak ere izaten zituzten. Ez zegoen gaur egungo aurrerapenik. Emakume gogorra izan da. Bazkalostean atseden txiki bat hartzen zuen, baina oso laburra.

701. Enkarguak egiteko diru justua (EGB-033/016)

Beti izan dute ganadua baserrian, baina ez asko. Ganaduei emateko pentsua behar izaten zen eta berak ez zuen pentsu asko erosteko dirurik. Enkarguak egiteko ere justuan izaten zuen dirua.

702. Alabaren tabernan (Unzon) lanean (EGB-033/022)

Pastora kalean bizi izan zen alabarekin urte askoan eta alabaren tabernan lan egiten zuen. Apopiloak egoten ziren tabernan. Tailerrak lekuz aldatu zirenean (kanpora joan zirenean) asko gutxitu zen jendea. Txikitoak edaten zituen jendeak. Aste erditik atzera afariak ere asko ematen ziren. Lan asko izaten zuten garai batean. Sukaldean lanean aritzen zen goizean goizetik. Egunean lapikoko desberdina jartzen zuen. Famatua zen orduan Unzoneko taberna.

703. Ilargiaren eragina baratzeko kontuetan (EGB-033/025)

Ilargiak eragina omen du baratzeko kontuetarako. Ilbehera hazia ereiteko izaten da ona. Perejila edo letxuga ilberrian botaz gero askoz azkarrago goratzen dira.

704. Eguraldiaren aldaketa; lehen "bero garbia" egiten zuen (EGB-033/026)

Baratzearentzat nolako eguraldia komeni den. Pastoraren errainak dio gerra pasatuz gero ez duela lehen egiten zuen "bero garbirik" egiten. Bere osaba batek esaten omen zuen gerra-denboran hegazkinekin atmosfera kutsatu zela. Eguraldiaren aldaketaren inguruko kontuak.

705. Hondartza ez du gustuko, errekan estutasuna pasa zuelako (EGB-033/027)

Gutxitan joan izan da hor zehar herriak ezagutzera. Beti inguruetan ibili izan da. Berak hartutako bainu bakarra "izerdi-bainua" dela dio. Hondartza ez zaio batere gustatzen, behin, erreka batean, "itto-pasadia" hartu omen zuen eta: bazkalostean, erreka inguruan laban egin eta uretara erori zen. Igerian ez zekien eta estutasuna pasatu zuen.

706. Karea lurrearentzat, zomorroak hiltzeko (EGB-033/030)

Baratzean gorrinaren kontrako botika botatzen da eta medikuek ondo garbituta ere hori ez dela kentzen esaten omen dute. Lehen baratzean ez zen botikarik erabiltzen. Ongarri modura simaurra eta karea (zomorroak hiltzeko)

bakarrik erabiltzen ziren. Lurrarekin nahasten zen karea. Honen inguruko kontuak. Lehen askoz zomorro gutxiago egoten zen eta jenero hobea hartzen zen.

707. Sigmaren garrantzia Elgoibarren (EGB-033/035)

Sigma lantegi garrantzitsua izan zen Elgoibarren. Sigma zegoenean goizetan sekulako jende-zarata egoten zen tabernan. Tabernentzat alde handia izan zen Sigma itxi zenean.

708. Soineko bakarra janzteko (EGB-033/037)

Gerraostean soinean janzteko arroparik ez eta Eibarrera joan ziren koinata eta biak soinekoren bate emango zietelakoan errazionamenduan. Arratsalde osoa zain egin eta gastatu egin zirela eta ezer gabe itzuli ziren etxera. Soineko bakarra eta hura apurtutakoan josi eta horrela ibiltzen ziren. Gaur egun nola aldatu den kontua. Oinetakoak ere apurtu arte erabiltzen ziren. Gaur egun jendea ondo bizi dela dio.

709. Ameriketara joan zeneko kontuak (EGB-033/039)

Ameriketara izanda dago bilobarekin semea bisitatzen. 18 ordu egin zituzten hegazkinean eta lehenbiziko aldia zuen. Hilabete egin zuten bertan. Bidaiaren inguruko kontuak.

710. Santa Ageda eskean gau osoa (EGB-034/003)

Aita gogorra izan zen. Santa Ageda eskeko egunean, tailerretik irtendakoan, kuadrilla elkartu zen: bata soinua jotzen, bestea bertsotan, gau guztia egiten zuten baserririk baserri. Hurrengo goizean, baserriren batean lapurtutako oilaskoak jan eta zuzenean lanera.

711. Aitaren lan-baldintzak forjan (EGB-034/004)

Aitak Lasao-iturrirenean lan egin zuen 46 urtean. Behin beharra izan eta soldata gehitxoago eskatu zion nagusiari, baina honek ezin ziola eman. Goizeko 7tatik arratsaldeko 7tara lan egiten zuen eta afalostean joateko beste ordu pare bat lan egitera esan zion nagusiak. Forjan lan txarra izan arren, ordu ugari lan egin behar izaten zuen aitak familia aurrera ateratzeko. Orduko egoeraren eta gaur egungo bizimoduaren arteko konparaketa.

712. Gerra garaiko bizipenak (EGB-034/007)

Mutikoa izan arren, gerra ezagutu zuen. Tiro-hotsak entzuten ziren eta eurak babesleku batean egoten ziren. Soldaduak gehienbat kanpokoak izango zirela uste du.

713. Soldadutza, 18 hilabetez Afrikan (EGB-034/008)

Afrikan egon zen soldadutzan 18 hilabetez. Hango parajea oso gogorra zen bizitzeko, baina berak zortea izan zuen. Ezagun baten bitartez Varela jeneralaren jauregira eraman zuten Tangerrera abereak zaintzera. Sarjentua bezala agurtzen zuten, eta zaldi gainean ibiltzen zen hara eta hona. Ondo pasa zuen soldadutza denbora, baina bere biziko egunik zoriontsuena lizentziatu zen eguna izan omen zen.

714. Lehenbizi "Txitxarruan" tailerrean eta gero Danobat-en (EGB-034/009)

13 urte zituela osaba-izeben baserrira joan zen udako denboran lanean laguntzera eta bi urte egin zituen bertan. Gero, 16 urterekin, "Txitxarruan" tailerrean (Juaristi hermanos) hasi zen lanean. Han urte dezente egin ondoren tailerra ez zebilen ondo eta Danobat-era pasa zen eta 32 urte egin zituen bertan. Guztira, 46 urtean lan egin du. Zer lan-mota egin zuen tailer bakoitzean.

715. Bikoteka pilotaririk onena Gallastegi (EGB-034/013)

Bere bizitzan pilota partidu ugari ikusia da. Gallastegi edo Kortabitarte ikusi zituen bere sasoiari jokatzen eta gaur egungoak ere bai, eta partidu asko ikusi dituela onak dio. Markina ikusi zuen partidu baten inguruko azalpenak. Mendieta eta Gallastegik hirukote baten aurka jokatu zuten.

716. Soldadutzan euren artean euskaraz (EGB-035/004)

Soldadutzan gaztelaniaz egin behar izaten zuten. Euren artean euskaraz hitz egiten zuten. Honen inguruko kontuak.

717. Gosete garaian garia eta artoa zutenak baserrian ondo (EGB-035/011)

Baserrietan ere gosetea ezagutu zuten. Irina estraperloan ekartzen zen. Hura lortzen zutenak edo artoa eta garia etxean zutenak ondo ibiltzen ziren.

718. Ezkonbidaian, Donostiara hiru egunerako (EGB-035/012)

27 urterekin ezkondu zen Panparroi baserriko Petrarekin. Inguruan erromeria asko izaten ziren: Kamiñerokoan, Kurutzetan, San Lorentzon... Eurak Kamiñerokora joaten ziren normalean. Ezkon-bidaian Donostiara joan ziren hiru egunetarako. Trenez egin zuten bidaia. Handik Irun eta Hondarribia ezagutzera joan ziren.

719. Ferrokarrilean lan egindakoa kaltzadore gisa (EGB-035/013)

27 urte egin zituen ferrokarrilean lanean, kaltzadore lanetan. Erreminta astunak erabiltzen zituzten eta lan txarra izaten zen. Orain aurrerapen asko dagoela komentatzen dute.

720. Baserriko lana zakarra; laboreak eta ganadua (EGB-035/014)

Garia, artoa, baba eta patata izaten ziren soroko gai nagusiak. Etxerako lain hartzen zuten. Gariak okertu egiten ziren behera eta segarekin han ibiltzen ziren buruz behera haiek ebakitzeko. Ganadu batzuk ere bazituzten, baina ez asko. Baserriko lana zakarra da; lanik arinena aitzurrean egitea.

721. Sagardo ona egiteko sagarra bere sasoiari bildu (EGB-035/018)

Sagardoa egiten zuten etxean. Sagardo on asko edukia dela komentatzen du. Sagarra bere sasoiari batuz gero sagardo ona egiten da, bestela mingotsa ateratzen da.

722. Egun baten 17 astokada gerezi saldu zituzten (EGB-035/019)

Emaztea gereziak saltzera Eibarrera joaten zen eta sagarrak saltzera Soraluzeera. Egun batean 17 astokada gerezi saldu zituen Eibarren.

723. Lan egitearen inguruko gogoeta (EGB-035/036)

Josek aipatzen du pobreentzat tristea dela lanari gorrotoa izatea, ez duelako lana egin beste erremediorik.

724. Inguruko euskaren arteko aldea; Tolosaldeko euskara hobea (EGB-035/037)

Josek uste du Tolosaldeko euskara Elgoibarkoa baino hobea izan dela beti. Elgoibarko euskarak ingurukoekin (Eibar, Markina, Soraluze...) baditu desberdintasunak, baina ondo ulertzen dute elkar. Elgoibarko auzoetan ez dute nabaritzen alderik euskararen.

725. Urruzuno auzoan jaio eta Aiastian (San Migelen) bizi (EGB-036/001)

Dionisio Txurruka Arozena Urruzuno auzoan jaio zen 1920an, baina Aiastia (San Migel) auzoko Talaixa baserrira ezkondu zen eta bertan bizi izan da. Gurasoak ere Elgoibarkoak zituen.

726. Fruta-arbola ugari dituzte etxe-ondoan (EGB-036/008)

Etxe inguruan zuhaitz-klase ugari dituzte: melokotoiak, gereziak, sagarrak, kindak... Aurreko urtean txoriek eraman zizkieten kindak guztiak.

727. San Migelen ezkondu eta Bilbora eztei-bidaian (EGB-036/014)

1948ko maiatzaren 19an ezkondu zen Talaixa baserriko Manuela Zabala Osororekin. San Migelgo ermitan ezkondu eta Bilbo aldera joan ziren eztei-bidaian. Lehen oinez joaten ziren inguruko erromerietara. Kurutzetan erromeria handia egiten zen.

728. Baserriko bizimodua aurrerapenekin hobetuta (EGB-036/015)

Baserriko bizimodua lehen askoz gogorragoa zen. Pinudiak botatzean ere eskuz kargatu behar izaten ziren egur guztiak. Baserrietara biderik ere ez zegoen diputazioak bide guztiak berri arte eta hori aurrerapen handia izan zen. Lehen bide txarrak zeuden baserrietara eta medikuek ez zuten joan nahi izaten. Telefonoa ere beharrezkoa dela baserrirako uste du.

729. Baserriko bizimoduaren aldaketa (EGB-036/016)

Garairik gogorrena udakoa izaten zen berarentzat, belarra edo garoa zegoen garaikoa. Kalean lan egin ostean baserriko lanak egin behar izaten ziren eta ilundu arte hantxe ibiltzen ziren lanak bukatzen. Baserriko bizimodua asko aldatu da. Lehen gariak lan ugari ematen zuen baina orain lasto-fardoak kanpotik ekartzen dira. Esnea saltzera ere ia inor ez da joaten kalera eta esne-behiak ere gehienek kendu egin dituzte.

730. Baserriko bizimoduaren inguruko kontuak (EGB-036/017)

Baserriko bizimoduarekin bakarrik ez dago bizimodurik ateratzerik gaur egun. Kanean lan egin eta baserriko gaiak ondo etortzen dira, baina lagungarri gisa soilik. Baratzean dituzten gaiak: patata, babarruna, kalabaza... Ganadua eta oiloak ere badituzte. Lanik gustukoena soroko lana du gaur egun, baina garai batean segan egitea gustatzen zitzaion. Gazteek bizimodu hori ezin dutela ulertu dio. Baserrian lan ugari egoten da beti, baina diru gutxi.

731. Baserrian beti eguraldiari begira (EGB-036/020)

Lehen esnea saltzera eramaten zuten kalera eta baita beste gai batzuk ere asko baldin bazegoen. Baserrian beti eguraldiari begira ibili behar izaten da. Belarretan egiteko ere eguraldi ona beharrezkoa da.

732. Oinez inguruko erromerietara; neskalguntzeak (EGB-036/023)

Santa Eufemiara oinez joaten ziren erromeriarako eta baita inguruko beste erromerietara ere: Irukurutzeta, Mendaro... Beti ez ziren erromeriarako "libre" izaten eta gustura joaten ziren. Zenbaitek urrutira egin behar izaten zituen neskalguntzeak.

733. Sorgin-kontuak entzun arren kasurik ez (EGB-036/025)

Sorgin-kontuak entzuten ziren lehen, baina ez zieten kasu larregi egiten, neska laguntzera ilunpetan eta bakarrik joaten ziren arren. Gaur egungo gazteak espabilatuagoak omen dira.

734. Antxoa txakur haundian (EGB-036/028)

Eskolara joaten zenean gurasoek esaten zioten antxoa txakur haundian bazegoen ekartzeko. Txakur haundia:10 zentimo.

735. Elgoibarko euskarak ingurukoekin duen aldea (EGB-036/034)

Inguruko herriekin alderatuta Elgoibarren desberdin hitz egiten dela uste du. Elgoibartik Azkoitira eta Eibarrera aldea dago euskararen eta Bizkaira gehiago. Elgoibarko euskarak ingurukoekin alderatuz dituen aldeak. Tolosa-Andoain aldean euskara garbiagoa egiten dela uste du. Herritik herrira desberdin egin arren elkar ulertzen dugu.

736. Kotxeen inguruan lanean (EGB-036/036)

Bilbon egon zenean lanean kotxeentzat motor berriak egiten zituzten. Fiat kotxeentzat egiten ziren asko. Gidatzeko baimena ateratzeko aukera izan zuten, baina ez zekiten halako aldaketarik etor zitekeenik eta ez zuten aukera aprobe txatu. "Txitxarruan" lanean ibili zenean makina ugaritan ibili zen. Hori ona dela dio gehiago ikasten delako.

737. Elgoibar asko aldatuta garai batetik (EGB-036/038)

Gaur egun kanean bakarrik ezin dira utzi jolasten umeak errepideekin ariskua dutelako. Elgoibarko bariantea lehenengotarikoa izan zen. Hasierako errepidea nondik nora zihoan. San Bartolome kanean baserria zegoen [Pepei] eta ganaduak eta guzti izaten zituzten. Erreka garbia egoten zen eta bertan ere ibiltzen ziren jolasean. Asko aldatu da Elgoibar garai batetik.

738. Elgoibarko auzoetako euskaran alderik ez (EGB-036/039)

Elgoibarren auzo batetik bestera ez dagoela euskaran alderik uste du, nahiz baserriak Azkoitia aldera edo Markina aldera egon. Azkoitian desberdin hitz egiten dute, baina elkarri ondo ulertzeko moduan. Azkoitia alderakoa batuagoa omen da, ederragoa.

739. Euskara batua ulertu ezinda (EGB-036/040)

Euskara batuarekin arazo gehiago du ulermen aldetik. Ilobek euskaraz ikasten dute ikastolan eta berak ezin die lagundu sarri ez duelako euskara hori ulertzen. Telebistako euskara ere hasieran gehiago kostatzen zitzaien ulertzea, baina gerora jarri egiten da. Gauza bera gertatzen da katalan, valentziar edo kanpoko dialektoekin ere.

740. Gazteek euskara batuaren eragina (EGB-036/043)

Nagusiek eta gazteek ez dutela berdin hitz egiten dio, gazteek batuaren eragina dutelako. Nagusiei zaila egiten zaie beste herri bateko euskara hartzea, baina gazteak hara bizitzera joanez gero berehala hartzen dute hango hizkera. Bizkaia izango dela euskara batuarekin gaizkien ibiliko dena uste du. Ikastoletan hizkuntzak irakasten dira eta hori ona da.

741. Guraso erdaldunak eta seme-alabak euskaraz (EGB-036/044)

Elgoibarren kanpoko asko dago eta seme-alabek euskara ikasi arren gurasoei zaila egiten zaie ikastea.

742. Herri-hizkeren galera (EGB-037/005)

Aurrerantzean euskara batua nagusituko dela uste dute. Pena izan arren, denborarekin herri-hizkera galdu egingo dela pentsatzen dute.

743. Euskaraz hitz egitearren zigorrak (EGB-037/007)

Elgoibar eta beste herri batzuetako euskaran "bentania" modukoak esaten direla komentatzen dute. Hala ere, euren gurasoek ere hala esaten zuten nahiz erdaraz jakin ez. Eskolan erdaraz hitz egitearren zigorrak jartzen zituzten. Soralezeko maristak oso gogorrak ziren halako kontuetan. Etxean politika konturik ez zuten entzuten, ezjakinak ziren.

744. Aita gerra denboran idiekin hildakoak garraiatzen (EGB-037/008)

Aitak eskua "mantxua" zuen eta gerratik libratu zen; baina, hala ere, idiekin hildakoak hara eta hona eramaten ibili zen. Bere aitak komunismoaz zuen ikuspegia.

745. Politika kontuetan ezjakinak (EGB-037/009)

Politika kontuez ez zen hitzik egiten etxean, eta eurak ezjakinak ziren. Ama kalera etorri zen batean apuntatu eta Donostiara joan ziren. Han trenean sartu eta janaria ematen zieten. Bere laguna konturatu zen falangeko zerbait zela.

746. Trapuekin egindako kopinekin jolasten zuten; sakaponak (EGB-037/015)

Sekula ez du kopinik izan, trapu zaharrekin egiten zituzten. Elkarrizketatzaileak kontatzen du bere amak-eta artaburuekin egiten zituztela. Kanikekin ere jolasten zuten; ze jolas egiten zuten kanikekin. Sakaponetan ere jolasten zuten eskolan.

747. Baserri inguruko jolasa: "ezkutatzen ta bilatzen" (EGB-037/016)

Baserrian eta kalean jolas desberdinak egin izan dira. Auzokoekin "ezkutatzen ta bilatzen" jolasten zuten. Aste egunean ez zuten jolasten, baserrian lana egoten zelako. Bera behizain ibiltzen zen.

748. Babak eta gereziak batzen ona (EGB-037/017)

Baserriko lana ez zitzaion batere gustatzen. Udazkenean babak batzea gustatzen zitzaion eta gereziak batzen ere ona omen zen. Baina bestelako baserriko lanak gogorrek dira. Gerora senarrak baratzea izan du eta han gustura ibili izan da lanean, denbora-pasa egiten zuelako eta ez derrigortuta.

749. Kurutzetara erromeriara (EGB-037/018)

Kurutzetara joaten ziren erromeriara. Euria zegoenean, barruan egiten zen erromeria eta bestela kanpoan. Soinujoleak nortzuk izaten ziren. Kurutzeta non zegoen. Azkoitia aldean bekatu zen lotuan dantza egitea eta Kurutzetan libre zenez, Azkoitia aldeko jende asko etortzen zen. Bide erdian egiten zen dantzan. Behin kotxeei ez zieten pasatzen uzten eta multa jarriko zietela-eta beldurtuta egon ziren. Garizuman ez zen ezer egoten eta "txakurzuloka" jolasten zuten. Ilunabarrean etxera bueltatzen ziren.

750. Erromeria kontuak; Arratera eta Santa Eufemiara egunpasa (EGB-037/019)

Domeketan egiten zen erromeria Kurutzetan. Behin auzoko 3 neskari San Migelera erromeriara joatea okurritu zitzaien. Berak lanak zituen egiteko lehenbizi. Haiek bukatu ostean San Migelera joan nahi eta berandu zela eta etxean ez zioten utzi. Arratera egun pasa joaten ziren, bokadiloa hartuta. Bokadiloak biltzeko "papel extra" erabiltzen zen. Santa Eufemiara ere joan ziren behin erromeriara bazkaria zapata kaxan hartuta.

751. Elgoibarrera eta Eibarrera "gonbidau" jaietan; treneko anekdota (EGB-037/021)

San Bartolomeetan, izebaren etxera joaten ziren pare bat egun pasatzera; San Juanetan, Eibarrera, gonbidatu gisa. Trenean zihoazela, oiloa zeramaten opari gisa eta zakutik ihes egin omen zien. Bera ez da oroitzen, baina ahizpak beti kontatzen omen du anekdota hau.

752. Lehengo ohiturak arrotzak gaurko gazteentzat (EGB-037/022)

Lehengo ohiturak gaur egungo gazteei oso arrotzak egiten zaizkie.

753. Gereziak saltzera azokara (EGB-037/024)

Esnea saltzera egunero jaisten zen astoarekin umetan. 11 urterekin komunioa egin ostean gereziak saltzera jaisten zen azokara. Harreman oso ona zuen bezeroekin, nahiz eta gaztetxoa izan.

754. Baseriko emakumearen bizimodu gogorra (EGB-037/027)

Etxeko baten bizimodua: ama bera ume-umea zela hil zitzaion eta sei anai eta aitarekin geratu zen bera. Eskolan San Lorentzoz ibili zen pixka batean eta gero neskame joan zen baserri desberdinetara ezkondu arte. Lan gogorrak egin behar izaten zituen baserrian. Oso emakume gogorra.

755. Baseriko emakumearen bizimodu gogorra (EGB-037/028)

Bere senarra zortzi anai-arrebako familiakoa da, Soraluzeko mendi-puntan zegoen baserri batekoa. Ama aita baino lehen joaten omen zen kanpoko lan gogorrak egitera. Behiak ere berak jezten omen zituen eta etxeko lanak ere berak. Lehen, gainera, ez zegoen aurrerapenik eta lanak askoz nekosoagoak ziren.

756. 15-16 urterekin umezain etxe aberatsean (EGB-037/029)

Berak 15-16 urte zituela ume bat zaintzen zuen, aberats batzuen etxean. Berak jantzi dotorea zerabilen etxe hartan. Etxe hartako etxeakoandreak inguruko kontuak. Josten ondo zekien eta pijama batekin trajea egiteko gai zen.

757. Lehenago arropak adabakiekin (EGB-037/030)

Izarak ez ziren plantxatzen lehenago. Adabakiak jartzen zitzaizkien izarek eta baita frakek ere. Orduan adabakiak izatea ez zen zatarra, adabakia nola jartzen zen zen garrantzitsua. Arropak askan edo errekan astintzen ziren.

758. Lasto azaoarekin argi eginda 6retako mezara (EGB-037/031)

Etxeak mendafinarekin eskobatzen ziren. Baserrietakoak hilero goizeko 6tako mezara jaitsi behar izaten ziren kalera. "Lastazauari" (lasto azaoari) su emanda egiten zuten argi bidean.

759. Euskara guztiak ulertzeko gai (EGB-037/034)

Leku guztietako euskara ulertzen duela dio. Tolosakoek poliki hitz egiten dute eta Ondarroakoek azkar. Elgoibarko auzo batetik bestera euskara ez dela aldatzen pentsatzen du.

760. Anaiak sei urte egin Iparraldean eta hango hizkera ikasi zuen (EGB-037/037)

Margariren anaiak sei urte pasa zituen Iparraldean eta handik itzuli zenean hango euskara egiten zuen. Beste batzuk Ameriketara joan arren euren euskara mantentzen dute, baina han euskararik egin ez dutelako ziurrenik.

761. Azkoitiko neskak kongregaziotik kanpora dantza lotua egitearren (EGB-037/041)

Lehen ez zegoen oporrik. Baserrietan igandetan bakarrik egiten zen jai eta erromeriara joaten ziren. Hilero goizeko seietako mezara joan behar izaten ziren. Hijas de Mar&iacut;a kongregazioa. Azkoitian neskak kongregaziotik botatzen zituzten dantza lotuan egitearren.

762. Elosun apaizarekin gertatutakoa (EGB-037/042)

Bere senarra Elosun morroi egon zen. Iluntzeko "angelusa" jo ostean, soinu-jotzaileari beste pieza bat jotzeko eskatu zioten erromerian zeudenek. Apaiza etorri, soinua isilarazi eta izugarrizko sermoia bota zien. Gero, mezan, pulpitutik salatu zuen eta gurasoek seme-alabei errieta egin zieten. Elizak indar handia zuen. Arantzazutik sermoiak egitera etortzen ziren fraideak.

763. Neskak belauniko apaizak gonon luzera neurtzeko (EGB-037/043)

Apaizek sermoietan esaten zuten infernua hanka labean sartzea baino askoz okerragoa zela. San Lorentzoz behin abadeak neska guztiak belauniko jarrarazi zituen ea gonak belauneraino iristen ziren ikusteko. Elizaren indarra. Abadeek eta medikuek agintzen zuten lehenago.

764. Osaba sekula ez zen mezara joaten (EGB-037/044)

Bere osaba batek ihes egin zuen gerra denboran eta 7 urte egin zituen gerran. 7 urte horietan, gauza asko ikusi zituen eta ez zen sekula mezara joaten.

765. Doktrina ondo zekienaren eta apaizaren arteko elkarrizketa (EGB-037/046)

Lehen doktrina ondo ikasten zen. Behin apaiz bati esan zion batek bera adina doktrina inork ez zekiela, dena buruz zekielako. Apaizak esan zion Jesu Kristo pertsona normala zela eta hura ere hil eta ez zela berpiztu, inor ez delako berpizten.

766. Portugalera Fatimara joan zireneko kontuak (EGB-037/049)

Senarra eta biak Portugalera Fatimara joan zireneko kontuak. Portugalen askoz atzeratuago bizi direla komentatzen du. Eurak kotxean eta jende ugari oinez ikusi zuten, hankak odolduta eta negarrez. Hango bizipenak. Jende pobrea zegoen eta zeukaten apurra hantxe (Fatiman) botatzen zuten.

767. Ezkonbidaia eta ezkondu osteko bizimodua (EGB-037/053)

Ezkondu zirenean Pilarikak ziren eta Zaragozara joan ziren eztei-bidaian. Lehenengo Bilbon egin zituzten egun batzuk. "El último cuplé" ikusi zuten Bilbon. Bi aste egin zituzten eztei-bidaian. Senarrak Gasteizen lan egiten zuen, baina hura utzi eta baserrira ezkondu ziren. Gero Alkortarenean lan egin zuen urte askoan. Gerora Galartza baserrian egon ziren erreterero eta bera eskola-umeei jatekoa ematen lanean hasi zen.

768. Altzolakoak jaiotzez (EGB-038/001)

Izenak: Pedro Lariz Muguruza "Txato" eta Francisco Isasti Irusta "el Pako". Pedro Altzolako baserri batean jaio zen, baina gero kalean bizi izan da. Aita

Bolibarkoa zen, baina gaztetan Oizete baserrira joan zen familiarekin bizitzera. Ama, berriz, Mendaroko baserrikoa zen. Bere aitak eta osabak gaur egun elkarte dagoen lekuan egin zuten eurak bizitzeko etxetxo bat eta han bizi izan zen Pedro ezkondu arte. Pakoren aita Endoiakoa zen eta ama Altzolakoa. Bera Altzolan jaio zen Sakristau-etxean eta bizi osoan egin izan du sakristau lana.

769. Lanetik irtendakoan Kortazar baserrira klase partikularretara (EGB-038/002)

6 urterekin hasten ziren orduan umeak eskolan. Pedro ezin izaten zen askotan eskolara joan baserrian lana egoten zelako. 13 urterekin hasi zen lanean eta lanetik irtendakoan Kortazar baserrira joaten zen eskola partikularretara. Bi ahizpak ematen zituzten eskolak eta inguruko baserrietakoak joaten ziren ikastera. Pako 15 urtera arte ibili zen eskolan eta gero arotzerian hasi zen lanean.

770. Doña Hilaria, irakasle gogorra (EGB-038/003)

Eskolan irakasle gernikarra izan zuen Pedrok: doña Hilaria. Irakasle gogorra zen, kaskarrekoak ere ematen zizkien-eta. Orduko irakasleak gogorregiak zirela uste dute.

771. Soldaduen erasoak euskara eta euskaldunei (EGB-038/007)

Gerra garaiko bizipenak. Erreketek batek isiltzeko agindu zion apaizari, euskaraz errezatzen ari zela. Komandante nagusiago batek erreketea errespetuan jarri zuen eta ez zen ezer gertatu. Pedrori eta anaiari kaikuak jantzita zihoazelako hil egingo zituztela esan zieten soldaduek. Etxera joan, jertsea desegin eta berria egin zien amak.

772. Garai batean, zortzi hotel zeuden Altzolan (EGB-038/008)

Gerra garaian, bonbardaketen beldur, ospitaleko jendea "Zelaia" hotelean egon zen. Garai batean, zortzi hotel zeuden Altzolan: Hotel Balneario, Larrañaga, Boulevard, Altzola, Zelaia, Albizkua, Sebastiana eta Ituarte. Udan jende asko etortzen zen bainuetxeko ura hartzera. Jendea deskantsura etortzen zen normalean, baina batzuk parrandara ere bai. Gau osoa jokoan pasatzen zuten batzuek.

773. Udan kanpoko apaizek ere meza ematen zuten; monagiloen soldata (EGB-038/009)

Monagilo-lanak egiten zituzten mutikotan. Uda partean, zenbait egunetan, 10 meza ere ematen ziren, kanpotik etorritako apaizek ere meza ematen zuten eta. Hilean 4 pezeta ordaintzen zizkien parrokoak monagiloek, eta udan 5, lan gehiago izaten zutelako. Horretaz gain, kanpoko abade bakoitzak erreala ordaintzeko betebeharra zuen. Apaiz baten inguruko pasadizoa.

774. Orduan denbora asko egiten zen soldadutzan (EGB-038/010)

Gaztetxoak zirenez, ez zuten gerrara joan beharrik izan. 18 urtekoen kinta izan zen gerrara joan zen gazteena. Pedrok soldadutza ez zuen egin, ama alarguna zuelako; baina Pako Melillan egon zen. Hiru hilabete egin zituen bakarrik, meniskotik operatu behar izan zutelako. Zortea izan zuten orduan,

jendea denbora luzez egoten zen soldadutzan eta. Pedroren bi lehengusu zazpi-zortzi urtean egon ziren soldadutzan. Nola joaten ziren Melillaraino.

775. Ezkonbidaien inguruko azalpenak (EGB-038/013)

Pedro ezkonbidaian Donostiara joan zen. Han gaua pasatu eta hurrengo egunean Iruñe era. Astebete pasa zuten bertan. Pakok ezkondu eta lehenengo gaua Donostian igaro zuen, baina handik Valentziara joan ziren. Handik itzuleran Donostian egin zituzten beste zenbait egun. Orduan ez zen erraza izaten lantegian baimena lortzea. Pedrok alde horretatik zortea izan zuela kontatzen du.

776. Madarixako erromeria; Azkoiti partean dantza lotua debekatuta (EGB-038/014)

Inguruetako erromerietara joaten ziren, batez ere Mendarora eta San Lorenzora. Madarixara ere joaten ziren. Azkoiti partean dantza lotua debekatuta zegoenez, frontoian ezin izaten zuten dantza egin, baina beste aldeko eraikineko ganbaran aritzen ziren ezkutuan Manuel Gelatxok soinua jota. Elgoibar eta Azkoitiko muga non dagoen.

777. Elgoibarrek fama handia zuen ferietan (EGB-038/016)

Plaza txikian korta handi bat omen zegoen eta Santander aldekoek ganadu ugari ekartzen omen zuten bertara. Lehen Tolosaren atzetik Elgoibarrek omen zuen fama handienetakoa ferietan.

778. Baserriko bizimodua; neskaguntzeak (EGB-038/017)

Lehenengo baserriko bizimodua gaur egunekoa baino askoz gogorragoa zen dena eskuz egin behar izaten zen eta. Eguraldi txarra zenean katiuskak eramaten zituzten eta oinetakoak geltoki inguruan aldatzeko, orduko bideak txarrak izaten ziren eta. Neskaguntzetan oinetako eta linternatan dirua gastatzen zutela diote.

779. Errekan igerian ikasi eta ezkailutan egin (EGB-038/020)

Pedrok ehizarako zaletasuna izan zuen gaztetan. Arrantzan egiten zuten errekan "ujala" zetorreanean. "eskiola"rekin ezkailuak harrapatzen zituzten, batek guardia zibilik zetorren zaintzen zuen bitartean. Bainuak ere hartzen zituzten; biek bertan ikasi zuten igerian.

780. "Mozkotenekua" taberna (EGB-040/005)

Etxeko atea giltzarekin itxi izan dute beti. Aitak forjan egiten zuen lan eta amak zuen tabernako ardura. Giro polita egoten zen taberna hartan, batez ere trena heltzen zenean. Azkeneko trena pasatzen zenean, 8etan, taberna ere itxi egiten zuten.

781. Eskolako garaiak (EGB-040/008)

Elgoibarko "publiketan" ikasi zuten 2-14 urte izan zuten artean. Neska eta mutilak banatuta zeuden eta uniformerik ez zuten arren, denak bata zuriarekin joaten ziren. Eskolan gaztelaniaz egiten zuten eta maistra guztiak kanpotarrak ziren. Eskola bukatuta, Eibarko akademia batera joan ziren kontabilitatea ikastera.

782. Ikasgai guztiak liburu batean (EGB-040/011)

Bi ahizpak ikasle onak izan ziren eta zigorrik ez zuten jaso. Eskolako gai guztiak jasotzen zituen liburu bakarra erabiltzen zuten.

783. Don Antonio medikuaren klinika (EGB-040/013)

San Inazio kalean don Antonio Arrillaga medikuaren klinika partikularra zegoen. Eraikin dotorea zen eta jende asko joaten zen mediku harengana.

784. Tabernatako giroa (EGB-040/015)

Tabernatako giroa oso desberdina zen. Mutil koadrilek abesti politak kantatzen zituzten ostiraletako txikiteoan. Emakumeak ere joaten ziren tabernetara, baina gutxi: kafea hartzera bakarrik, eta inoiz ez gauean.

785. Kuadrillako lagunak eta planak (EGB-040/018)

Kuadrilla batuta, mendira joaten ziren: Karakatera, Erlora... Kuadrillan eskolan egindako lagunak biltzen ziren eta normalean neskak bakarrik ibiltzen ziren. Umeak zirela, San Rokera joaten ziren jolastera.

786. Errekara eta hondartzara bainatzera (EGB-040/020)

Beroa egiten zuenean, errekara joaten ziren bainatzera: mutilak presara igerian ikastera; eta neskak beherago, ur txikietan, uretan ibiltzera. Hondartzara Debara joaten ziren trenez. 14:30etan egoten zen tren berezi bat; eta, Eibartik beteta etortzen zenez, elgoibartarrek beti tente joan behar izaten zuten.

787. Soinekoak eta oinetakoak (EGB-040/023)

Umetan soinekoak eta gonak janzten zituzten, prakak inoiz ez, eta beti amak esaten zuena. Igandetarako arropa berezia zuten. Ez zegoen arropa-dendarik, jantziak modistak egindakoak izaten ziren. Asteazken zehar, oinetan alpagatak eramaten zituzten, baita mendirako ere; baina jaiegunetarako oinetakoak.

788. Dutxa harraskan (EGB-040/025)

Gazte-gazteak zirenean, ez zuten dutxarik etxean. Harraskan bainatzen ziren, ura txapan berotu eta gero.

789. Bainujantziak lehen (EGB-040/026)

Hondartzara jolastera joaten ziren, ez eguzkia hartzera. Bainujantziak puntuzkoak edo telazkoak izaten ziren, belaunerainoko gonarekin. Bainua hartzera albornoza jantzita joaten ziren.

790. Neska-mutilen arteko harremanak (EGB-040/027)

Goiz afaltzen zuten, eta afalostean, neska eta mutil kuadrillak batzen ziren paseatzeko. "Mineralera" (Altzolara) joaten ziren. Bi ahizpak ez ziren erromerietara joaten eta beti mutil ezagunekin ibiltzen ziren. Plazara dantzan egitera joatea, ordea, gustatzen zitzaien. Igandetan, lehenengo futbolera joaten ziren eta gero dantzara. Herriko bandak jotzen zuen, jaiero: pasodoble, baltsa eta tangoak.

791. Zineman gustura (EGB-040/029)

Umeak zirela, Elgoibarren zine bakarra zegoen, "Cine Parroquiano" Errosario kalean. Igande arratsaldero joaten ziren. Paga moduan, bi txakur handi ematen zizkieten: bat zinerako eta bestea gastatzeko. Zinea mutua zenean, ondo pasatzen zuten, kantuan ibiltzen ziren, mutilak aurrean eta neskak atzean jarrita.

792. Han eta hemen irakurtzeko aukera (EGB-040/033)

Ez zuten askorik irakurtzen, akaso nobelaren bat. Etxean, irakurtzea denbora galtzea zela pentsatzen zuten. Umeak zirela, Elgoibarren ez zegoen liburutegirik, baina eskolan bai. Elizan ere bazegoan liburuak hartzeko aukera. Laz Voz de Guipúzcoa egunkaria egunero irakurtzen zuten. Elgoibarko kontuak Elgoibarko kartan irakurtzen zituzten. Aldizkarien artean Blanco y Negro gogoratzen dute. Ezin zuten erosi, baina Don Antonio medikuak edukitzen zuen eta hark lagatzen zien irakurtzen.

793. Euskara bigarren mailako hizkuntza (EGB-040/036)

Bai gerra aurretik, baita ondoren ere Elgoibarren euskaraz egitea gaizki ikusita zegoen. Bigarren edo hirugarren mailako hizkuntzat hartzen zen. Ama Mutrikuko baserri batekoa zen eta harekin euskaraz egiten zuten etxean; aitarekin, berriz, gaztelaniaz. Lagun artean ere gaztelaniaz hitz egiten zuten.

794. Elgoibar eta Eibarren aurkako partiduak (EGB-040/042)

Lerun futbol-zelaian jende asko batzen zen partiduak ikusten. Gerra ostean, Eibar futbol-zelairik gabe geratu zen eta orduko bi talde eibartarrek ("El Gallo" eta "Club Deportivo") Elgoibarko zelaia alokatzen zuten. Batez ere bereziak ziren Elgoibar eta Eibarren aurkako partiduak. Oso giro polita egoten zen.

795. Herriko jaiak: San Bartolomeak (EGB-040/048)

Ez ziren kanpora edo auzoko erromerietara joaten jaietara. Beraientzat herriko jai onenak San Bartolomeak ziren. Lehen hiru egun bakarrik irauten zuten jaiak: San Bartolome eguna, San Bartolome txiki eta hurrengo eguna. Jarduera ugari egoten ziren: mezak, bandaren kontzertuak, pilota partiduak plazan, eta sokamuturra goizean. Giro oso polita egoten zen.

796. Egun normaletako jatekoa eta edatekoa (EGB-040/052)

Egun normaletan, salda, babarrunak, garbantzuak eta abar jaten zuten. Edateko, ura.

797. Ferietako giroa (EGB-040/063)

Ferriak hilero egoten ziren. Abereak plaza txikian egoten ziren eta barazkiak merkatu plazan. Abendutik otsailera landareak frontoian ipintzen zituzten.

798. Gerra aurreko mitinak (EGB-040/064)

Ez dira inoiz politikan interesaturik egon. Gerra hasi baino lehenago Dolores Ibarruri egon zen plazako mitin batean. Karlistek ere egin zuten mitina.

799. Elgoibartik Mutrikura baserrira (EGB-040/067)

Amaren baserrira, Abeletxera, urtero joaten ziren, batez ere udan. Gerra denboran hiru hilabete eman zituen bertan Pepitak. Debaraino trenez joaten ziren. Deban Ondarroara zihoan autobusa hartu eta Mutrikun jaisten ziren. Eta Mutrikutik Olatz auzoan zegoen baserrira oinez. Ez zen baserri handia, baina bai oso polita. Baserria ez zen familiarena eta laga egin behar izan zuten. Abere asko eta baratzea zituen baserriak.

800. Arraina saltzera Ondarroatik (EGB-040/079)

Arraina saltzen Angela, Benita, Madalena eta Josefa gogoratzen dituzte. Azken biak Ondarroatik trenean etortzen ziren. Klean karroarekin saltzen zuten. Postua merkatu plazan 11k arte ipintzen zuten; eta gero, kalera irteten ziren.

801. 1934eko urriko iraultza (EGB-040/092)

1934ko urriko iraultza. Eibarren zeuden eskolan eta irakasleak etxera bidali zituen. Eibarren mugimendu handia eta atxiloketak egon ziren.

802. Gerran etxetik irten ezinik (EGB-040/095)

Gerra Zibilean, Pepita Mutrikun egon zen, baina Rosa Elgoibarren geratu zen. Ez ziren etxetik irteten. Etxea, forja eta baratzea Eibarko mendi batetik botatako bomba batek ukitu zituen. Zazpi hilabetez eduki zituzten erreketek etxean.

803. Fusilamenduak Elgoibarren (EGB-040/099)

Fusilamenduak eta epaiketa militarrek egon ziren udaletxean. Hiru gizon fusilatu zituzten, espiak zirela uste zutelako. Ormaiztegiko zubian eibartarren bat ere hil omen zuten. Fusilamenduak Olaso atzean izaten ziren.

804. Gosea gerraostean (EGB-040/100)

Bi ahizpek, taberna zutenez, gerraostean ez zuten goserik pasa, baina jende askok bai. Baserritik ekartzen zuten janari asko. Errazionamendu-liburuxka ezagutu eta erabili zuten.

805. Eskola publikotik Pilar Ikastetxera (EGB-041/003)

Eskola publikoan hasi zen zazpi urte zituela. Herrialdean sozialismoaren eta komunismoaren hastapenak azaltzen ditu. Eskoletatik gurutzeak kendu nahi zituzten, eta horri erantzunez eraiki zen "Colegio del Pilar" eskola berria. Han ikasi zuen Julenek marianistekin, gerra hasi zen arte.

806. Antiklerikalismoa gerra aurrean (EGB-041/004)

Abadeen aurkako mugimendu gogorra egon zen gerra aurrean. Julen 12-13 urterekin sartu zen herriko musika bandan, eta Internazionala eta abadeen kontrako kantuak jotzen zituen bandak manifestazioetan.

807. Pilar Ikastetxea eskola pribatua zen (EGB-041/005)

Pilar Ikastetxea pribatua zen, eta hilekoa ordaintzeko arazoak izaten zituen Julenen familiak. Aita ebanista zen, Gasteizko "Escuela de Artes y Oficios"en ikasitakoa. Julenek zortzi urte zituela galdu zuen aita.

808. Neskek erdara gehiago mutilek baino (EGB-041/007)

Amak apopiloak hartzen zituen etxean. Neskek eskola gutxiago jasotzen omen zuten mutilek baino. Mutilak neskak baino euskaldunagoak ei ziren Elgoibarren.

809. Etorkinak zintzoak ziren (EGB-041/008)

Gerra aurretik ez zegoen etorkin asko Elgoibarren. Gerraostean etorri ziren gehiago. Jende zintzoa zen, Julenen esanetan.

810. Lanerako argindarrik ez (EGB-041/010)

Zelestino Onaindia abadea (gerra denboran fusilatua) apopilo egon zen Julenen etxean. Haren bitartez, "Gabilondo y Cía" armagintzako lantegian hasi zen Julen lanean. Lanera joan eta argindarraren zain egoten ziren, goiz guztia lanik egin gabe batzuetan.

811. Baltasar pilotariaren ostatua (EGB-041/011)

Baltasar "Patxi Polon" (Patxi Arano) pilotariaren kontuak azaltzen ditu. Kotxea zuen, eta Julenen etxe parean zuen kotxearentzako garajea. Diligentzia eta saltzaileen orgak hartzen zituen Baltasarrek bere garaje eta ostatuan.

812. Gerra denboran armagintzan jardun zuen (EGB-041/012)

"Gabilondo y Cía" lantegian, "Llama" izeneko pistola egiten zuten, besteak beste. Errebolberrak ere egiten zituzten. Gerra denboran bonbentzako ojibak egiten jardun zuten.

813. Soldadutza Deustun, gerrako presoekin batera (EGB-041/013)

Gerra denbora lantegian militarizatuta eman zuen, eta gero soldadutza Bilbon egin zuen. Deustuko 'Centro de recuperación de automóviles' sailean egon zen soldadu lanetan, hainbat gerrako presorekin batera.

814. Julen koruan eta herriko bandan (EGB-041/017)

Inazio Bereziartua, organista eta bandako zuzendaria, Julenen etxean bizi zen eta musika irakasten zuen. Julen soprano gisa hasi zen abesten koruan, eta gero bandan sartu zen. Gerra hasi zenean, bandako sei musikari bakarrik geratu ziren herrian.

815. Infanteria eguna ospatu behar (EGB-041/018)

Kontzepzio egun batean, frankisten frontea Elgoibarren zegoela, militarrek Arratera joatera behartu zituzten Elgoibarko bandako musikariak, Infanteria eguna ospatzera.

816. Arrateko elizan, frontean, Elgoibarko banda (EGB-041/019)

Infanteria eguna ospatzera joan behar izan zuten Arratera. Bezperan, Urkiola baserriko kortan lo egin eta hurrengo goizean Arrateko apurtutako elizan jo behar izan zuten. Arratera bidaia hura ez du inoiz ahaztuko Julenek. 16 urte zituen, eta bandako tronpeta solista zen.

817. Gorriek Elgoibar erasotzen zuten (EGB-041/020)

Nazionalak Arratetik Eibar bonbardatzen zuten, eta gorriek Intxortatik Elgoibar. Elgoibarren zibilak hil ziren. Julenen familia egunez amaren jaiotetxera joaten zen; eta gauez, lo egitera, kaleko etxera itzultzen zen.

818. Abadeak eta mediku militarra eztabaidan, Julenen etxean (EGB-041/021)

Francoren soldaduak Elgoibarko etxeetan egon ziren lotan. Julenen etxean, apopiloen artean, hiru abade euskaldun eta mediku militar bat zeuden. Lauren arteko eztabaidak gogoratzen ditu Julenek.

819. Etxean apopilo zuten abadea fusilatu zuten (EGB-041/023)

Zelestino Onaindia abadea Julenen etxetik preso eraman zuten Francoren militarrek. Zortzi egunez Ondarretan eduki eta gero, fusilatu egin zuten. Abadearekin batera apopilo egon zen mediku militarrek ezin omen zuen sinetsi. Lotsatuta, ez zen gehiago itzuli Julenen etxera. Beste abade apopilo bat, karlista, fusilatu egin zuten Onaindiarekin batera.

820. Armagintza eta makina-erreminta (EGB-041/026)

Armagintzan lantegi bakarra 'Gabilondo y Cía' zen. Beste guztiak makina-erremintan jarduten zuten. 'Estarta y Ecenarro' Julenen etxe parean hasi zen lanean.

821. Etxea erre zitzaionekoa (EGB-041/027)

1950. urtean etxea erre zitzaion Juleni. Eulogio Estartak lagundu zion etxea berreraikitzen.

822. Futboletik plazako dantzara (EGB-041/029)

Gerra aurrean, igandetan, arratsaldeko hiruretan futbol partida egoten zen Lerun zelaian. Gero herriko bandak jotzen zuen plazan. Julen bandako kidea zen. Azkoitian ezin omen zen dantza lotuan egin, baina Elgoibarren egin zitekeen. Bandak jotzen zuenean ez, baina "Jazbana" k jotzen bazuen, mutilek ordaindu egiten zuten dantza egiteagatik.

823. Solfeoa irakastetik bandako zuzendaritzara (EGB-041/031)

Joxe Rezola alkate zegoela, gazteei solfeoa irakasteko eskatu zion Juleni. Oso gustuko izan zuen Julenek gazteei irakastea. Bandako zuzendaria erretiratu egin zen, eta Julenek hartu zuen kargua. 30 urte zituen orduan.

824. Gerraosteko lehenengo kalejira (EGB-041/033)

Gerraostean, txistua jotzea debekatuta egon zen. 40ko hamarkadan, luistarren kongregazioko San Luis eguneko ospakizunetan, goizeko seieta jo zuten txistua kalejiran. Goiz horretan bertan Guardia Zibilen kuartelera deitu zieten Julen txistulariari, Luis danbolinjoleari eta on Migel Zabalo luistarren nagusiari.

825. Gerraosteko gosetea (EGB-041/035)

Gerraostean euskal kultura oso zapalduta egon zen. Era berean, ez zegoen jatekorik, eta dirua ere gutxi. Julenek gogoan du bi hilabetez ogirik probatu

gabe egon zela. Okindegietan batatak (boniato) banatzen zituzten. Baserriko senideei esker ondo konpondu ziren, baina benetako gosea ezagutu zuten. Batzuetan, dendetan ere bukatu egiten ziren errazionamenduko gauzak.

826. 90 ume zaindari batekin (EGB-042/003)

Errepublikak eskola publikoetan gurutzeak kendu zituenean, amak mojetara bidali zuen ikastera. Eskolaurrean 90 ume Saturnina Ziaran izeneko emakume baten zaintzapean egoten ziren. Aitak etxean irakatsi zion irakurtzen.

827. Euskal izenengatik iskanbilak etxean (EGB-042/007)

Sarritan joan behar izan zuen aitak komandantziara, aitorpena egitera. Euskaraz idatzitako gutun batengatik sortutako arazoak. Etxean euskal izenek sortzen zituzten iskanbilak.

828. Osaba Bilbon hil zioten (EGB-042/009)

Gerra garaian frontera joan ziren gizonen emazteak herritik bidali egin zituzten. Osaba Justo, Larrinagako kartzelan preso sartu eta hil egin zuten.

829. Hiru anaiak gerran (EGB-042/010)

Itziarren anaia bat kartzelatik kartzelara eraman omen zuten. Beste anaia bat frontean zegoen. Hirugarrena Burgosen soldadu. Ebroko batailan elgoibartar batzuk hil ziren. Anaietako bat armadatik libratzearren, aitak egindako komeriak kontatzen ditu.

830. Militarrentzako sukaldari (EGB-042/011)

Anaia gazteena libratu egin zen armadatik, eta "Estarta y Ecenarro" lantegian hasi zen lanean, armagintzan. Elgoibarrera militar konpainia bat etortzen zenean, elgoibartarren etxeetan banatzen zituzten jan eta lo egiteko. Itziarren etxera bost militar etortzen ziren bazkaltzera denboraldi batez.

831. Falangisten alkandorak (EGB-042/012)

Militarren "rancho" a jaten zuten batzuetan etxean. Falangeko alkandorak banatzen zituen Itziarrek, emakumeek jos zituzten. Falangisten desfileak ikusten egoten ziren.

832. Urte asko etxetik kanpo (EGB-042/013)

Amaren anaia bi eta Itziarren anaia zaharrena jostunak ziren. Itziarren hiru anaiek urte luzeak eman zituzten etxetik kanpo, gerra edota soldaduska zela-eta.

833. Aita-semeak Sigma lantegian (EGB-042/016)

Eskolak bukatu eta josten ikasi zuen Itziarrek. Aitak eta bi anaiek Sigma (aurretik "Estarta y Ecenarro") josteko makina lantegian egin zuten lan.

834. Bizikleta erosteko dirua aurreratzen (EGB-042/018)

Umetako jolasak aipatzen ditu. Igandetan plazako dantzara joaten ziren. "Txanbolin" tarrek jotzen zuten danbolina plazan. Lagun guztiak urtebete egon ziren zinera joan gabe, bizikleta erosteko dirua aurreratzeko. Debara joateko nahi zituzten bizikletok. Lagunetako batek dirua bankuan gordetzen zuen. Garai batean jai egunetan kotxeak erabiltzea debekatu zuten gasolina faltagatik.

835. Zine mutua eta soinuduna ezagutu zituen (EGB-042/019)

Bizikletan izaten zituzten istripuak gogoratzen ditu. Nagusitu ahala bizikletak saldu egin zituzten. Hasieran zine mutua ikusten zuten. Lehen soinudun filma "La ciudad de cartón" ikusi zuen.

836. Doktrina euskaraz ikasi zuen (EGB-042/020)

Zinea zegoen eraikuntza luistarrentzako geratu zen herentziaz, eta parrokoa hango nagusi bilakatu zen. Neska gutxi izan zuten doktrina euskaraz ikasteko aukera eta horietako bat izan zen Itziar.

837. Aitaren irakaspenak (EGB-042/021)

Itziar ez, baina bere aita eskolan euskaraz egiteagatik zigortzen zuten. Aitak azaldu zion Sabino Arana zergatik kartzelatu zuten.

838. Aitaren Ubideko familia (EGB-042/022)

Bere osaba bat kapilau zen, eta hark ekarri zuen aita Ubidetik Elgoibarrera. Aitak bere anaia ekarri zuen Ubidetik. Osaba horren istorioak azaltzen ditu Itziarrek. Osabaren beste anaia bat Iruñeko San Kristobal espetxean zegoen ihesaldia izan zenean.

839. Ubidera bidaia (EGB-042/023)

Gerra bukatu berri, Itziar aitaren jaioterrira joan zen bere anaiarekin. Familia abertzale ezaguna zen bere aitarena.

840. Emakume batentzako lan "ez-egokian" jarduna (EGB-042/024)

38 urtera arte jardun zuen josten. Urte pare batez, goizetan "Banco de San Sebastián"entzako letrak kobratzen jardun zuen, eta arratsaldean josten. Ez zela emakume batentzako lan egokia erabaki zuten Donostian, eta lana galdu zuen.

841. Ikastolaren garapena (EGB-042/026)

San Frantzisko kalean zegoen ikastola. Parean zegoen atletismo elkarteak loro txiki bat zuen, eta horrexegatik ikastola "del lorito" izena jarri zioten. Lokal berriak hartuz joan zen ikastola, eta parrokiak utzitakoak oso lagungarriak izan ziren. Ahal zen moduan egokitzen ziren erdal testuak euskarara.

842. Titulurik gabeko irakasleak (EGB-042/027)

Itziar beti inspektorearen bisitaren beldurrez egoten zen. Titulurik ez zuenez, legez ezin zuen sei urtetik gorako umerik eduki. Azkenean, Ikaztegietako irakasle bat ekarri zuten. Ikastolako laugarren andereñoa izan zen lehen tituluduna.

843. Irakaskuntza ikastaro asko egin behar (EGB-042/028)

Euskal Herrian eta Espainian zehar hainbat irakaskuntza ikastaro hartutakoa da Itziar. Kataluniar talde batek Donostian emandako ikastaroak izan ziren onenak, bere hitzetan. Franco bizi zela lortu zuen lanerako gai zela ziurtatzen zuten agiria.

844. Lehen andereñoaren erretiroa (EGB-042/029)

24 urtez Elgoibarko Ikastolako irakasle izan eta gero, erretiroa hartu zuen. Ikastolako titulu gabeko andereño bakarra izan zen.

845. Gotzon Garate, Itziarren lehengusua (EGB-042/030)

Gotzon Garate, Elgoibarko jesuita, idazle eta euskaltzale ezaguna, Itziarren lehengusua zen. Gotzon eta bere anai-arrebak asko maite ditu/zituen Itziarrek.

846. Gotzon Garate eta anaia jesuitak (EGB-042/031)

Gotzon Garate eta bere anaiei buruzko azalpen ugari ematen ditu Itziarrek.

847. Karmele Esnal irakaslea (EGB-042/034)

Andereño lanerako Karmele Esnal irakaslearekin nola prestatu ziren gogoratzen du. Karmelek 60 ikasletik gora zituen Donostiako etxe batean. Elgoibarko ikastolaren hasieran, umeak lurrean eserita egoten ziren.

848. Umeekin gertatutako bitxikeriak (EGB-042/035)

Ikastolako umeekin suertatutako anekdota bi kontatzen ditu.

849. Elgoibarren eta Eibarren ikasi zuten (EGB-043/002)

Rosa eskola publikoan ibili zen, bi urterekin eskolaurrean hasita. Gerra hasi zen arte eskolatu zen. Gerraostean kontabilitatea ikasi zuen Eibarren. Pepitak ere berdin samar egin zuen, baina Eibarko irakasleak Mexikora ihes egin zuen, Pepitak kontabilitate ikasketak bukatu aurretik.

850. Eskolako ikasketak eta jolasak (EGB-043/003)

Eskolan matematikari garrantzi handiagoa ematen zioten idazteari baino. "Tortoliska" jolasari amak "sakaponetan" deitzen zion.

851. Euren etxea taberna ere bazen (EGB-043/006)

Soldadu nafarrak izan zituzten etxean. Orduan Trenbide kalean bizi ziren, eta taberna zuten bertan. Amari laguntzen zioten tabernan.

852. Etxe ondoan bonba bat lehertu zen (EGB-043/007)

Elgoibarren bonbardaketa hasi zenean, Pepita eta anaia bat Mutrikura joan ziren, amaren jaiotexera. Trenbide kaleko etxe ondoan lehertu zen bonba batek zauritu egin zuen Rosa.

853. Gerrako ospitaleak Elgoibarren (EGB-043/008)

Don Antonioren klinika militarrek hartu zuten, zauri larriak artatzeko. Handik, Altzolako bainuetxean jarri zuten "Hospital de sangre" deiturikora eramaten zituzten zaurituak.

854. Pepita Mutrikun artzain (EGB-043/010)

Mutrikun Arno mendiaren magalean zegoen Abeletxe baserrian egon ziren Pepita eta anaia. Handik itsasoa ikusten zen. Artzain lanean jardun zuen Pepitak bertan, eta aitajaunak txondorrak egiten zituen. Pepitaren anaia Mutrikuko maristen eskolara joaten zen.

855. Milizianoen emazte eta umeak herritik kanpora (EGB-043/012)

Francoren militarrek herritik bota zituzten miliziano joandako gizonen emazteak eta umeak. Zapi zuriak astinduz, trenbidetik Eibarreraino joan ziren. Pepitak ezagutzen zituen osaba-iloba batzuk nola fusilatu zituzten azaltzen du.

856. Mendarora zauria sendatzera (EGB-043/014)

Rosa zauritu zutenean, egun batzuetarako Mendarora joan zen, senideen etxera. Amona Mendaroko Ospazkua dorretxekoa zuten.

857. "Mozkotenekua" etxera bizitzera (EGB-043/015)

Pepita hemeretzi urterekin etorri zen "Mozkotenekua" etxera bizitzera. Bertan jarri zuten mertzeria kudeatu zuen 70 urte izan zituen arte. "Mozkotenekua" aitajaunaren etxea zen, eta izen hori birraitonagandik omen datorkio.

858. Pantaleon birraitona, "Mozkote" (EGB-043/017)

Pantaleon Unzueta birraitonari "Mozkote" esaten zioten, txikia eta zabala zelako. Pilotari ona omen zen. Unzueta abizena Pepita eta Rosaren familiarekin galdu omen da. Pepita gasteiztar batekin ezkondu zen Mozkotenekuara.

859. Pepita dendaria eta Rosa jostuna (EGB-043/018)

50 urte egin zituen etxeko dendan Pepitak. Rosak josten ikasi zuen. Josten jardun zuen, harik eta azkeneko urteetan ahizpari dendan laguntzera joan zen arte.

860. Dantza, futbola eta hondartza (EGB-043/020)

Herriko plazan edo berdura plazan, igandero dantza egoten zen. Futbola ere iganderokoa zen. Kanpoko futbol partidetara ere joaten ziren. Debara igeri egitera ere joaten ziren. Tren berezia egoten zen Debarako. Garai batean egunero Debatik buelta egiten zuen autobusa jarri zuten. Udan jende asko joaten zen Debara.

861. Errosario kaleko etxe zaharrak (EGB-043/021)

Errosario kaleko etxeen izenak oso zaharrak omen dira. Kaleko bi etxeri ez diete jarri izenik, ez daudelako izenokin seguru.

862. Errosario kalean Granadako dukearen etxea (EGB-043/022)

Errosario kaleak punta bietan dorretxe bana izan zituen, baina gaur bakarra geratzen da. Granadako dukearena izan omen zen Errosario kaleko etxeetako bat.

863. Granadako dukearen etxea (EGB-043/024)

Granadako dukearena izandako etxea oso zabala omen zen. Komuna balkoian zegoela dio Pepitak. Horma-hobi batean kokatuta dagoen Ama Birjinak ematen dio izena kaleari.

864. Rosaren joste-lanak (EGB-043/026)

Rosak jostundegitik bidaltzen zizkioten ebakitako prakak josten zituen etxean. Bera josten hasi zenean ez zegoen langile autonomoentzako asegurririk;

geroago jarri zuten aseguru hori. Alfa markako josteko makina zuen Rosak; lehen ehun Alfa makinetako bat.

865. Senargaia arabarra (EGB-043/027)

Pepitaren senargaiaren aita Francoren errepreioari ihesean etorri zen Elgoibarrera, eta handik gutxira bere familia ere etorri zen. Senargaiak gau- eskolan mekaniko ikasketak egin zituen eta Sigma lantegian hasi zen lanean.

866. Don Zelestino abadea fusilatu egin zuten (EGB-043/030)

Hijas de María kongregazioa eta Acción Católica oso zorrotzak ziren. Dantza lotuan egiteagatik, lagun bat kongregaziotik bota egin zuten. Don Zelestino Onaindia abadea abertzalea izateagatik fusilatu zuten. Zelestinoren anaiak, Padre Olaso gaitzizenarekin, Radio Parísetik egiten zuten berba.

867. Unzuetarrak gerran (EGB-043/031)

Aitaren lehengusu bat hil egin zuten Deban. Beste lehengusu karlista bati zazpi tiro eman zizkioten, baina ez zuten hil.

868. Goserik ez zuten pasatu (EGB-043/034)

Trenez etortzen ziren gauzei eta Mutrikuko baserritik ekartzen zituztenei esker, ez zuten goserik pasa etxean. Etxeko tabernak, jatetxea ere bazenak, errazionamendu berezia zuen, eta batzuetan jakiak sobratu egiten ziren.

869. Baserritarrak ogia brusapean hartuta bazkaltzera feria egunean (EGB-043/036)

Feria egunetan baserritarrak bazkaltzera etortzen ziren tabernara, bakoitzak bere ogia brusapean zuela. Behin Mutrikutik babarrunak nola ekarri zituzten azaltzen dute. Esnea baserri batetik ekartzen zieten.

870. Estraperlo kontuak (EGB-043/037)

Estraperlo kontuak. Amak Azkoititik ekartzen zituen babarrunak. Azkoititik eta Markinatik autobusak etortzen ziren tren geltokira.

871. Ganaduen barrukoak errazionamendutik libre (EGB-043/038)

Ganaduren bat hiltzen zutenean, okela errazionatuta ematen zuten, baina barrukoak libre hartu ahal izaten ziren. Goizeko seietan harategietan jende ilarak egoten ziren barrukoak hartzeko.

872. Idi probak eta futbola (EGB-043/044)

Gaztetan Azkarate gaineko San Isidroetako erromeriara oinez joaten ziren, eta egun argiz etxera bueltatu. Azkoitiko partea zenez, dantza lotua debekatua zegoen. Idi probak izaten ziren Elgoibarren. Probalekuan jendearentzako harmailak zeuden. Futbolera joaten zirenean, neskak eta mutilak aparte joaten ziren. Futbol partida ostean plazako dantzaldira joaten ziren.

873. Kalejiretara joateko baimenik ez (EGB-043/045)

Pepitak hamasei urte zituela, ez zioten uzten kalejiretara joaten. Artazo eta Irureta "El zurdo terremoto" pilotarien kontuak.

874. 13 urterekin lanera (EGB-045/002)

Eskola publikoan ikasi zuen. 13 urterekin hasi zen lanean, gerra hasi baino hamar egun lehenago.

875. "Ciarán" lantegian tornulari lana ikasi zuen (EGB-045/006)

Maalan zegoen "Jose León Ciarán" makina-erreminta lantegian hasi zen lanean Fermin. Zulagailuak egiten zituzten bertan. Militarizatu gabe, baina gerra denboran "Ciarán" lantegiak lanean jarraitu zuen. Edozertarako laguntzaile gisa hasi zen lanean, eta denborarekin tornulari bihurtu zen. Hamaika urtez "Ciarán"en jardun eta gero, Sigma lantegira joan zen lanera, josteko makinak egitera. 37 urte eman zituen bertan.

876. Bereizi gabeko bonbardaketak (EGB-045/016)

Bonbardaketak ez omen ziren helburu jakinen gainean izaten, oso zabalak omen ziren. "El abuelo" izeneko abioia gogoratzen du.

877. Frantzian eta Espainian ere pilotan jokatutakoa (EGB-045/019)

Migel Gallastegi eibartar pilotariarekin batera, hirukoteen kontra jokatzen zuen Fermin Leiaristirekin bikote zela, amateur mailan "Distrito de Bergara" txapela irabazi zuen. Frantzian eta Espainian ere jokatu izan du Ferminek. Errioxara ia astero joaten zirela dio.

878. Kirola gehiago festa baino (EGB-045/022)

Baserritar bati neska-laguntzen gertatutakoa azaltzen du. Fermin ez da izan jai zalea. Pilota profesionalean hasi zenean, Elgoibarko futbol taldea utzi egin behar izan zuen. Herrien arteko haserreak egoten zirela dio, baina ez oso larriak.

879. Sigman somara egiten zuen lan (EGB-045/024)

Sigma lantegian somara (destajura) egiten zuten lan. Jatorrizko "Estarta y Ecenarro" lantegian hasi zen Fermin lanean, Sigma izena hartu aurretik.

880. Linimentuarekin hasiberriarena (EGB-045/026)

Oñatin partida bat jokatu zuen batean, ezjakinean linimentua eman zuen gorputz osoan, eta gorriak ikusi zituen partida bukatu arte.

881. Parapan baserri txikia zela eta, familia kalera (EGB-046/002)

25 urterekin etorri ziren Felix eta bere familia Parapan baserritik kalera. Etxeko gazteek ez zioten etorkizunik ikusten baserriari. Ganadu batzuk, astoa eta ahuntzak zituzten.

882. Irakurtzen etxean ikasi zuen, euskaraz (EGB-046/003)

Zortzi urterekin hasi zen auzoko eskolan, baina ordurako irakurtzen bazekien, etxean ikasita. Euskaraz ikasi zuen irakurtzen, eta eskolan, berriz, ikasketak erdaraz ziren. Bost urtetik 14 urtera bitarteko 75 neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten gela berean eta irakasle batekin.

883. 11 urterekin eskola utzi behar (EGB-046/004)

Jaunartzea egin zuen arte zintzo joan zen eskolara, baina gero etxean geratu behar izan zuen, anaia zaharragoek kalean lanean zihardutelako. Aitak herritik kanpo egiten zuen lan. Udalari kupoa emateko, garia erosi egin behar izaten zuten; patatarena ere berdin.

884. Eliza ase ezina (EGB-046/005)

Anaiarik zaharrena gerran hil zen, hamazortzi urte zituela. Felixek zortzi urte zituela, aita negarrez ikusi zuen. "Culto y credo" izeneko diru-sari bat ordaindu behar zitzaion elizari, eta berak ez zuen nahikoa diru ordaintzeko.

885. Elizaren diru-sariak kuartelean ordaindu (EGB-046/006)

Anaia gerran hil zenean, kuarteletik atzeratutako "Culto y Credo" diru-sariak ordaintzeko eskatu zioten aitari. Ordaindu eta gero hobiratu ahal izan zuen semea. Urte berean lau pertsona hil ziren Parapan baserrian. Euretako bat Azkoititik ihesi etorritako emakume bat.

886. Eibarren eraikuntzako peoi (EGB-046/009)

Gerra hasi zen egunean, Tolosako Elo segi txapel-lantegia ikusten egon zen Felix, eskolako txango batean. Bazkaria oinetako kaxa batean sartuta joaten ziren txangoetara. 1941. urteko haizeteagatik, Felix lanean hasi zen, 14 urte zituela. Aita etxea konpontzen geratu zen, eta Felixek ordezkatu zuen bere lanean. Gero eraikuntzan jarraitu zuen, peoi gisa. "Batallón de Trabajadores"eko preso ugarik ziharduen lanean Eibarren.

887. Ameriketara artzain joan nahi izan zuen (EGB-046/010)

Orbea bizikleta lantegian jardun zuen gero. Handik Elgoibarko Sigma lantegira joan zen. Lanbidea ikasteko gogoarekin, Jarbe (Jose Arana eta Rafael Uribe) lantegian hasi zen lanean. Diru gutxi irabazten zuela, eta Ameriketara artzain joaten saiatu zen. Ez zuen lortu.

888. Danobat lantegiaren sorrera (EGB-046/011)

Hamaika lagun elkartu ziren, eta bakoitzak diru apur bat ipinita, Danobat lantegia sortu zuten. Accionalidad Popular edo Accionalidad Obrera izena jarri zioten elkarteari. Oraindik ez ziren kooperatibak ezagutzen.

889. Danobat kooperatiba bihurtu zen (EGB-046/012)

Danobat lantegiko irabaziak langile guztien artean banatzen zituzten. Irabazi horiekin bazkide ez zirenek bazkidetza hartu zuten. Era berean, Arrasaten kooperatibak sortzen hasi ziren, eta Danobat ere kooperatiba bihurtu zen. Artezgailuak (rektifikadorak) egiten hasi ziren Danobat-en.

890. Danobat lantegiaren aurreneko urratsak (EGB-046/013)

Danobat lantegia martxan jartzeko eman zituzten aurreneko urratsak azaltzen ditu.

891. Euskara ikasten "Academia de la lengua vasca"n (EGB-046/019)

1956. urtean, apaiz bi euskara irakasten hasi ziren Elgoibarko "Academia de la lengua vasca" eskolan. Ikasleek bost pezeta ordaintzen zituzten hilero. "Academia" itxi zenean, urte bi geroago, bertako lau ikaslek euskarazko klaseak ematen hasia erabaki zuten.

892. Elgoibarko ikastolaren sorrera (EGB-046/020)

10 urtetik 14 urtera bitarteko ikasleei irakatsi zieten euskara 10 urtez, falangeko lokal batean. Ikasleekin mendira ere joaten ziren. Azkenean lokal bat erosi zuten, eta hor jaio zen Elgoibarko ikastola. Hasieran andere;o bat bakarrik zegoen. Felixek orduan ekin zion euskaraz alfabetatzeari.

893. Elgoibarko ikastola, aitzindaria (EGB-046/024)

Ongarri Kultur Elkarteak eta Elgoibarko Izarra Euskara Elkarteak herriko ikastolaren garapenean izan zuten zerikusia azaltzen du. Euren ikastolako antolaketa ereduak beste herri askotara eraman zen. Eibarko lehenengo ikastola Amilibiak jarri omen zuen.

894. Elgoibarko Izarra euskara elkarteak (EGB-046/025)

Elgoibarko Izarra elkarteak 1.400 bazkide izatera iritsi zen. Bazkideen kuotekin ikastolako gastu asko ordaintzen ziren. Elgoibarko Izarra herriko euskalgintzako eragile nagusia izan da sorreratik. Felix idi proben kontrakoa izan da beti, idiek sufritu egiten dutelako. Baserrian behiak jartzen zituzten uztarrian.

895. Bizi guztia euskalgintzan (EGB-046/027)

"Cooperativa Elgoibarresa" denda nola sortu zen azaltzen du. Ekin gazte taldean ere egon zen Felix. Euskalgintzan jardun izan du bizi guztian.

896. Gose denboran gaizki ibili ziren (EGB-046/033)

Gose denboran gaizki ibili ziren Parapan baserrian. Txahala saltzen zutenean ordaintzen zituzten zorrak. Jaietan beste baserri batera joaten zen Felix "txanketian" garia jotzera.

897. Garia "txanketian" jotzen zuten (EGB-046/034)

Garia "txanketian" jotzen zuten Parapanen. "Txanketian" nola egiten zuten azaltzen du.

898. Baserritarren arteko ermandadeak (EGB-046/035)

Gobernuak baserrietako abere kopurua kontrolatzen zuen. Baserritarrek ermandadeak zituzten, ganaduren bat galtzen zuenari laguntzeko. Ermandadeko arduradunak eramaten zuen kontabilitate makila erakusten du Felixek.

899. Hiztegitxo teknikoa (EGB-046/039)

Berak 1976. urtean Danobat lantegian egiten zuen itzultzaile lanerako prestatutako hiztegitxoak erakusten du.

900. Auzoko abere-hiltzailea besomotza (EGB-046/042)

Urtero hiltzen zuten txerria Parapanen. Auzoko txerri hiltzailea besomotza zen; garia jotzeko makina batek kendu omen zion besoa sorbaldatik behera. Behiak ere hiltzen zituen.

901. Euskal jaialdiak Elgoibarren 50eko hamarkadan (EGB-046/044)

Zailtasunak izan arren, 50eko hamarkadan urtero antolatu zituzten Elgoibarren euskal jaialdiak.

902. Gerra aurretik dutxa eta ekonomika etxean (EGB-046/046)

Beti ezagutu ditu dutxa eta sukaldean ura etxean, baina argindarra bere akorduan jarri omen zuten. Sagardo kupela batek egiten zuen dutxarako andel lana. Parapanen ekonomia sua bakarrik zegoen sukaldean.

903. Avilesetik Frantziara ihesi (EGB-047/011)

Amarekin geratu zen Bilbon bizitzen. Baina frankistak bazetozen, eta Santander aldera (La Cavada) ihes egin zuten lehendabizi; handik Avilesera, eta gero Frantziara barkuz. Portutik Treboux-era, Mediterraneora.

904. Bartzelonatik Frantziara ihesi (EGB-047/017)

Bartzelonatik Gironara joan ziren ihesi. Frantziara pasatu ziren gero. Han soldadu frantsesek oso tratu txarra eman zieten. Berak etxera itzuli nahi zuten.

905. Frantziatik Galiziara Irunetik pasatuz (EGB-047/018)

Irunera etorri ziren lehendabizi. Gero barkuz Galiziara eraman zituzten.

906. Mezara behartuta Padronen (EGB-047/020)

Portutik Padronera eraman zituzten, kontzentrazio esparrura. 1939ko urtarrila zen. Mezara joatea tortura zen eurentzat, baina mehatxatu egin zituzten eta beharko joan.

907. San Pedro bezperaz etxera, ia hiru urte kanpoan egin eta gero (EGB-047/021)

Padrongo errefuxiatuen esparruan luzaro egon zen etxera etortzeko aukera izan zain. Azkenik, ikusi zuen bere izena zerrendan. Etxetik irten eta ia hiru urtera itzuli zen, San Pedro bezperan. Etxean ez zekiten zetorrenik.

908. Distantzia laburrean txapeldun (EGB-047/031)

46 urterekin hasi zen beteranoetan korritzen. Madrilen debutatu zuen. 50 eta 600 metrotan txapeldun gertatu zen. Gero 200 eta 800ean korritzen zuen, eta sarri geratu zen txapeldun.

909. Lasterka titulu asko irabazitakoa nazioartean (EGB-047/039)

Gotenborg-en (Suedia) korritu zuen Munduko Txapelketetan. Italian ere bai. Postu onak egin zituen bietan. Danimarkan ere korritu zuen Euskadiko Selekzioarekin. Irabazi egin zituen 400 metroak. Federazioek ez diote ezer eman. Euskadiko Selekziokoak zirela, eta ez Espainiakoak, onartzea lortu zuten Danimarkan.

910. Lehenengo karrerak gogoan (EGB-047/041)

Lehenengo karrera oso gogoan. Txapeldun irten zen Madrilen, 46 urterekin. Hainbat Espainiako errekor izan ditu. Gero, poliki-poliki, ondu egin dituzte. 52 urterekin 100 metro 12 segundoan egin zituen

911. Joserren marka harrigarriak (EGB-047/043)

Joserren markak: 54 urte, 100 m, 12:09. 50 urte, 200 m, 26:06. 56 urte, 800 m, 2:16:04 (Espainiako errekorra). Marka harrigarriak dira. 88 urte ditu eta oraindik ibiltzen da. Baina igartzen da adina, urtetik urtera gehiago kostatzen da.

912. Idotorbe (San Pedro) auzoko eskola (EGB-048/002)

Zazpi urte zituela, Idotorbe (San Pedro) auzoko ermitan zegoen eskolan hasi zen. 14 urtera arte ibili zen eskolan. Beste bi urtez gau-eskolan ere ibili zen. Bi maistra ezagutu zituen San Pedron. Eskola eta doktrina erdaraz izaten ziren.

913. Esne-bezeroak eta plazako salmenta (EGB-048/007)

Zenbat ganadu zuten baserrian. Behiak eskuz jezten zituzten. Esne-bezeroak zituzten herrian, eta astoarekin jaisten ziren kalera, esnea banatzera. Ama eta arrebak aritzen ziren horretan. Felix ezkondu zenean, haren emaztea ere ibili zen urte askoan esnea partitzen. Eguetan, plazara joaten ziren. Ortuko jeneroa (patata, porrua...), untxiak eta oilaskoak saldu ohi zituzten.

914. Astoak, errotak eta labeko sua (EGB-048/009)

Bi-hiru asto edukitzen zituzten baserrian: belarretarako, kalerako... Artoa eta garia ereiten zituzten, eta auzoko errotan ehotzen zuten. Mendarora, Markinara eta Arratera ere joan izan ziren errotara. Astean behin egiten zen labeko sua: 16 ogi eta lau arto erretzen zituzten aste guztirako.

915. Neskameak eta morroiak (EGB-048/011)

Ezkondu zen garaian, gurasoak, arreba eta Felix bera bizi ziren baserrian. Ordurako, arreba zaharrena Gasteizera joana zen. Aldian-aldean, neskameak eta morroiak eduki izan zituzten baserrian. Garai hartan, baserriak gaur baino gehiago ematen zuela dio Felixek.

916. Labrantzarako idi-parea eta auzolana (EGB-048/012)

Idiak zituzten baserrian, eta haiekin egiten zituzten labrantza lanak. Auzoko ia baserri denetan zegoen idi-parea. Auzokoek elkarri laguntzen zioten egurra mozteko garaian, garia ebakitzen eta jotzen...

917. Gari-jotzea, txanketean eta makinaz (EGB-048/013)

Felix mutikoa zela, garia txanketean (harri-losa baten kontra) jotzen zuten. Gero, makina batekin egiten zen gari-jotzea. Gizon bat ibiltzen zen baserriz baserri gari-jotzeko makinarekin. Gari-jotzeari buruzko azalpenak ematen ditu.

918. Etxeko argia, "ipurtargia" modukoa (EGB-048/014)

Umetatik ezagutu du Felixek argia etxean. Egunez ez zuten argirik pizten baserrian; gauetan, bakarrik. Argi ahula egiten zuen, "ipurtargia". Gerora, Iberdueroren argindarra etorri zen: hasieran, egurrezko posteak; gero, zementuzkoak.

919. Aurrenekoz irratia entzun zuenekoa (EGB-048/015)

Aurrenekoz irratia beste baserri batean entzun zuen. Ez omen zuen ezer ulertzen. Garai hartan, "ikusten diren aparatuak" (telebistak, alegia) agertuko zirela esaten omen zuen osaba batek.

920. Basolana, tresneria eta prezioak (EGB-048/017)

Lehen, egurra botatzeko trontza eta aizkora erabiltzen zituzten. Felixek entzuna besterik ez zuen bazela motozerra izeneko aparatu bat. Zuhaitzak nola botatzen zituzten kontatzen du. Pagadiak bota eta pinua sartu zuten. Lehen, ia 1.000 pezeta ordaintzen omen zen metroa: gaur egun, prezio baxuan dago pinua.

921. Arrate aldetik kanoikadak (EGB-048/019)

Gerra Zibila hasi zenean, Felixek zortzi urte zituen. Auzoan, erreka bazterrean, zegoen baserri zahar batean babesten ziren. Aita gurdi eta idiekin ibiltzen zen munizioa eta hildakoak garraiatzen. Ganadua baserrian geratu zen: egunez joaten ziren haiek gobernatzera. Arrate aldeko dorre batetik botatzen zituzten kanoikadak, eta auzoko Legarda baserrian kanoikada ugari sartu zen.

922. Soldaduen mugimenduak (EGB-048/021)

Gerra denborako kontuak. Auzoko eliza biltegi moduan erabili zuten soldaduek. Urkiola baserrian, klinaka zegoen. Tropen tiroei eta mugimenduei buruz hitz egiten du: soldaduak astoekin ibiltzen ziren hara-hona.

923. Urkiolako ospitalea (EGB-048/022)

Gerra denboran, Felixen aita gurdi eta idiekin ibiltzen zen munizioa, hildakoak, zaurituak... garraiatzen. Urkiola baserrian, ospitalea zegoen, eta hara eramaten zituzten hildakoak eta zaurituak. "Urkiolan" eta Usatorren baziren taberna modukoak.

924. Soldaduekin hartuemana (EGB-048/023)

Gerra denborako kontuak. Felix mutil kozkorra zen, eta soldaduekin ondo moldatzen zen. Lo egitera erreka bazterreko baserri zahar batera joaten ziren etxeak. Idotorbe (San Pedro) auzoan egon ziren soldadu gehienak euskaldunak ziren, nafarrak.

925. Baserri zahar batera, babes bila (EGB-048/026)

Gerrak Elgoibarren iraun zuen denboran, auzoko baserri zahar batean babesten ziren. Baserria erreka zulo batean zegoen, eta tiroetatik ezkutuan

geratzen zen. Egunez, etxera joaten ziren ganadua gobernatzera. Ohe batean lau lagunek egiten omen zuten lo. Arto-malutaz eta artilez egindako oheak ziren.

926. Soldadu denbora (EGB-048/027)

Zazpi hilabete egin zituen soldadu Gasteizen. Aitak 60 urte egin zituenean, soldadutzatik libre geratu omen zen. Soldadu egon zen garaian ere denbora gehiena etxean pasatu omen zuen. Aitaren ezagun baten bidez "entxufatuta" egon zela dio.

927. Idotorbe (San Pedro) auzoko idi-probak (EGB-048/029)

Idotorbe (San Pedro) auzoko jaietan bi urtean atera izan da idi-probetan. Bailarakoek hartu ohi zuten parte. Urtea batean, 60 duro eta kopatxoa erabazi zituen idi-proban.

928. Ganadu-ermandadea (EGB-048/032)

Ganadu-ermandadea auzoko dozena bat etxek osatzen zuten. Ganaduren bat hiltzen bazitzaion baserritarren bati, albaiariak aberea aztertu eta harekin zer egin erabakitzen zen. Haragia saltzeko biderik ez zenean, ermandadea osatzen zuten etxeen artean banatzen zen. Abereren bat gaixotasunez hiltzen bazen, berriz, batzordeak hura tasatu eta zegokiona ematen zion ganadu jabeari.

929. Idotorbe (San Pedro) auzoko tabernak (EGB-048/034)

Idotorbe (San Pedro) auzoko taberna (egun irekita jarraitzen duen bera) duela 60 urte inguru ireki omen zuten. Aurretik, Usatorre baserrian eduki zuten taberna. Ganadu-ermandadeko batzorde bilerak egiten zituzten bertan. Gerra denboran, Urkiolan "taberna modukoa" egon zela dio.

930. Usartzako erromeria (EGB-048/036)

Jaiero izaten zen erromeria Usartzan (Eibar). Maltzagan eta San Migelen ere egiten zen erromeria. Gaiztakeriak eta gaztetako ibilerak: garoari su ematea, neskatan egitea, mutilen arteko borrokak... Emaztea Usartzan ezagutu zuen.

931. Elgoibarko feria (EGB-048/040)

Hileko azken zapatuan feria "ona" egiten zen Elgoibarren. Gaur egun "gastatzen" ari dela dio. Felixek beti eduki izan du feriara joateko ohitura, eta, gehienez, merienda-apari mokadua egiten zuen lagunekin.

932. Ganadu-tratulariak eta esne-behiak (EGB-048/043)

Baserritarrek esnea etxez etxe saltzen zuten denboran, 'Bilbotarrak' ganadu-tratulariak joaten ziren Elgoibarrera. 18 esne-behi edukitzen zituzten plaza bazterrean kortan, eta, askotan, denak saltzen zituzten. Ekarki ahala saltzen omen zen ganadua. Ganadua erositakoan bederatziurrena egoten zen. Behiak eskuz jeztea, esne-bezeroak, esne falta, etxez etxeko banaketa...

933. Santa Eufemiara, oinez (EGB-048/046)

Oinez joaten ziren Santa Eufemiako (Aulesti) erromeriara, lepoan janariz betetako paketea hartuta. Etxetik Santa Eufemiara zer bide egiten zuten azaltzen du: Iruiturri, Etxebarria, Markina eta Santa Eufemia. Erromeria handia izaten zen. Jende asko biltzen zen han.

934. Erreal bi, dantza egiteagatik (EGB-048/048)

Erromerietan, mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteagatik. Hasieran, erreal bi ordaindu behar izaten zuten. Azkenaldian, bi pezeta izaten omen zen. Neskari dantza eskatzerako, kobratzailea zain egoten omen zen. Bost duroekin limonada ardoarekin nahastuta eta dantzaldia ordaintzeko modua izaten zen.

935. Despedidak (EGB-048/049)

Lagunarteko despedidak. Prezioak. "Dirua zainduta ibili behar" dio Felixek.

936. Auzoko errotaria eta guardia zibilak (EGB-048/053)

Guardia zibilek errotak ixten zituzten garaiaz hitz egiten du. Trukean zerbait emanaz gero, ordea, libre uzten omen zuten. Pasadizoa: auzoko Joxe errotariak guardia zibilei bazkaria eman zienekoa kontatzen du. Guardia zibil batek zapata basa artean galdu eta...

937. Kupoa; garia harri xehearekin nahastuta (EGB-048/054)

Gerraostean, zer jenero entregatu behar izaten zen (garia, patata, baba...). Familiaren tamainaren arabera, 10 anega gari entregatu behar izaten zen: gero, etxean falta. Alondegian entregatu eta pisatzen zen jeneroa. Pisua osatzeko, batzuek garia harri xehearekin nahasten omen zuten.

938. Errazionamendua eta txerrikiak (EGB-048/055)

Olioia, tabakoa, ogia... errazionamenduan zeuden. Urtean, bi txerri ahazten zituzten: bata, etxerako; bestea, saltzeko. Olioia urri izaten zen, eta urdaia erabiltzen zuten jakiak prestatzeko.

939. Goserik ez (EGB-048/056)

Baserriko bizimodua. Zer jan eta edaten zuten: txerrikiak, zezina, sagarra, gaztaina, sagardoa... Fruta-arboletatik sagarra bildu, eta auzoko Aranburu baserriko dolarean egiten zuten sagardoa. Sagar asko biltzen zuten. Baserrian ez zuten goserik ezagutu.

940. Anaia pelotari ona (EGB-049/004)

Pelotan eta futbolean egiten zuten batez ere. Anaia pelotari ona izan du, atzelaria, bigarren mailan onenatarikoa. Ferminekin egiten zuen bikote. Ferminen (Ruiz de Gauna) Gallastegirekin ere egin izan zuen bikote. Anaiak Barberitorekin, Garzia Ariñorekin eta beste aurrelari famatu askorekin. Hogeita bi urte egin zituen profesionaletan.

941. Solitariaren aurkako botikak anaiari urdaila izorratu (EGB-049/006)

Lau anaiek ondo egiten zuten pilotan. Bat profesionala. Beste bat ona zetorren baina solitariaren aurkako botikek izorratu zuten Solitariari buruzko xehetasunak.

942. Baserritik kale ondoko etxe berrira bizitzera (EGB-049/009)

Baserritik kale ondora jaitsi ziren, Kamiñokoa etxe berrira. 16.000 pezeta ordaindu zuten. Txalet txikia zen, ederra. Gero autopistak eguzkia kendu zion eta saldu egin zuten etxea.

943. Kaminokua etxea erosi aitzak 16.000 pezetan (EGB-049/011)

Errentero zeuden San Rokeko Sansonguan. Ugazabaren seme nagusia ezkontzera zihoan eta beretzat behar zuen baserria. Orduan Florenen familia Elgoibarrera jaitsi zen. Igeltsero batek etxea egin zuen, etxe dotorea, eta aitzak 16.000 pezetan erosi zion. Maileguan eskatu zion dirua Etxabe izeneko dendariari. 'Kaminokua' Azkarateko bidean zegoen, herritik hurbil.

944. Ama abarketak josten eta aita tailerrean (EGB-049/013)

Amak abarketak josten egiten zuen. Oihala eta zorua ekartzen zioten eta berak josi. Aitzak Unzuetaren tailerrean egiten zuen lan.

945. Artoa, baserriko jakien oinarria (EGB-049/014)

Baserrian arto-irina zen janari askoren oinarria, morokila, taloak eta abar egiteko erabiltzen zen. Orain, berriz, non ogi hobea bilatu ibiltzen gara. Baserrikoa hartzen du berak.

946. Juaristi Hermanos-etik Danok Bat-era (EGB-049/021)

Hamabost urterekin hasi zen Juaristi Hermanos lantegian. Tornero ikasi zuen. Gero Danok Bat-era pasatu zen. Kooperatiba honen leku-aldatzeak. Juaristin egiten zituzten produktuak. Lantegi hori itxi egin zen.

947. Zinera eta neska-laguntzera (EGB-049/033)

Zinera ere joaten zen andregaiarekin. Gero neska-laguntza baserrira, hiru kilometroko bidean. Eta Kurutzetara joaten zirenean, hamar kilometro joan eta etorri

948. Lambretta-n neskaren baserrira (EGB-049/034)

Erabilitako Lambretta bat erosi zuen anaiaren bidez. Harekin joaten zen andregaiarengana. Kurutzetako erromeriara, berriz, oinez joaten zen neskari besotik helduta.

949. Festa bai baina beti erretiro ona (EGB-049/036)

Kaletar zein baserritar, denetik elkartzen zen Kurutzetan. Hainbat auzotan egiten zen erromeria. Eibarrera ere joaten ziren inoiz. Dena dela, beti erretiro ona.

950. Eibar-Elgoibar futbol partidak (EGB-049/037)

Eibar-Elgoibar futbol partidek jendetza handia erakartzen zuen. Oinez joaten zen jendea herri batetik bestera. "Futbol gogorra eta tema handia". Elgoibartarrek indartsu kantatzen zuten: "Eibarren diru asko, jendia ugari/baiña ezin irabazi, elgoibartarri". Lehen erraz ibiltzen ziren oinez batetik bestera.

951. Kanoikadak etxeko ortuan (EGB-050/007)

Benturak ez zuen seniderik galdu gerratean. San Antolin auzoan ere jasan zituzten Eibartik jaurtitako kanoikadak, etxetik oso gertu ere bai.

952. Euskara eskolan, onartua izatetik debeku izatera (EGB-050/008)

Doktrina eskolatik aparte ikasten zuten, abadearekin. Altxolako maisu-maistra eta abadeak gogoratzen ditu. Gerra aurretik ere eskolak erdaraz jaso zituen, baina ikasleen artean euskaraz egitea onartzen zieten. Gerraostean, ordea, euskara debekatu egin zuten.

953. Eskolara nahiago, itaurrean egin baino (EGB-050/009)

Itaurrean egin behar zenean, eskolara ezin izaten ziren joan. Bentura eskolara gustura joaten zen. Pilotan ere jokatzeko zuten neskek. Beste jolas batzuk.

954. Aita hargina zuen (EGB-050/010)

Etxean ganaduak bazituzten, baina idirik ez. Aita, Nikolas "Irabaneta", hargina zen aitona bezala, eta etxetik kanpo egiten zuen lan. Etxe, horma eta zubigintzan jarduten zuen aitak. Arrieta senideek eskopeta lantegia jarri zuten Elgoibarren.

955. Amak hegaztiak hazten zituen (EGB-050/012)

Etxeko esnea etxean gastatzen zuten. Bentura jaio baino lehenago, aitona-amonak kalera joan ziren bizitzera. Ortuko gauzak eta arrautza eta oilaskoak eramaten zituen amak plazara. Hegaztien hazkuntzara dedikatu zen ama. Ezkondu zen arte egon zen Bentura gurasoekin.

956. Zokor-jotzea lan txarra (EGB-050/013)

Eskola utzi eta ezkondu zen arte etxean egon zen. Zokor-jotzea zen berak gutxien maite zuen lana. Etxeko lurrak oso zakarrak omen ziren, eta mazoarekin lurrak apurtzen ibili behar izaten zuten. Etxerako lain gari hartzen zuten. Gerraostean aitak alea gordetzeko leku bat prestatu zuen. Eskuzko errota erabiltzen zuten garia ehotzeko.

957. Ogi faltan, taloa eta artoa (EGB-050/015)

Gerraostean, ogi faltan, taloarekin eta artoarekin konpondu ziren. Astegunetan babarrunak jaten zituzten egunero.

958. "Txanketian" eta makinaz gari-jotzen (EGB-050/017)

Benturak lehenengo gariak eskuz jo zituen, "txanketian", mataza harlauzaren kontra jota. Geroago makinaz jotzen zuten garia. Mutrikuar batzuek ekartzen zuten makina. Garia auzolanean jotzen zen, egunean etxe pare bat eginaz. Ganadu pare bi behar ziren, makina eta motorra etxerik etxe erabiltzeko.

959. Garia jotzeko makinaren aurrerapena (EGB-050/018)

Garia, makinarekin jotzen zenean, makina azpira joaten zen. Makinarena aurrerapen handia izan zen. Garia "txanketian" jotzeko bero handia behar zen, eta jotzeko indar handia ere behar zen. Urte gogorak izan ziren gerraostekoak.

960. Argindarra etxean (EGB-050/019)

San Antolin auzoan okindegi ondoan zegoen argindar zentrala. Nahikoa argindar zuten etxean. Ezkondu zen etxean bazegoen argindarra, baina oso eskasa San Antolingoarekin alderatuta.

961. Lixiba sutako hautsarekin egiten zen (EGB-050/020)

Arropak eskuz garbitzen zituen. Irabanetan lixiba egiten zuten, baina Olazarren ez. Lixiba sutako hautsarekin nola egiten zuen azaltzen du.

962. Aharia sukaldean (EGB-050/030)

Behin Bentura ume birekin sukaldean zegoela, ahari-topekarako prestatutako aharia sartu zitzaion sukaldera. Handik logelara joan eta armairuaren ateko ispiluan bere buruari begira egon omen zen eta gero atzera sukaldera bueltatu. Azkenean irten omen zen sukaldetik, eta Benturak atea itxi zuen. Ahariei buruzko azalpenak.

963. Eskola txikian euskaraz, handian gaztelaniaz (EGB-051/002)

Lau anai-arrebatatik zaharrena zen Miren. Eskola txikira joan zen sei urtera arte, eta handira gero. Eskola txikian euskaraz ikasten zuten eta handian gaztelaniaz. Errepublikan eskoletako gurutzeak kendu egin zituzten, baina Mireni eta lagunei batzokian eman zieten gurutzetxo bana.

964. Juana Bixenta Olaberen bertsoak kantatu zituen Joxe Jauregirekin batera (EGB-051/005)

Gogoan du Joxe Jauregirekin bertsoak kantatzen batzokian egin zuen antzezlan bat. Elizan ere antzezten zuten. Zine aretoan ere bai, baina han gaztelaniaz. Gerra etorri zenean bukatu zitzaion eskola, eta 14 urterekin lanean hasi zen.

965. Eskola handian dena gaztelaniaz (EGB-051/006)

Erdarazko idazlan onak egiten omen zituen Mirenek. Madrilgo lehiaketa batera bidali zuen haietakoren bat. Mirenek eskolan euskaraz egiteagatik ez zuen zigorrik ezagutu. Berak izandako maistra asko gogoratzen ditu, denak erdaldunak.

966. Aita gezurretan salatu zuten (EGB-051/009)

Norbaitek gezurretan aita salatu zuen, eta Lopez guardia zibilar esker salbatu ahal izan zen. Mirenen aita gizon ezaguna eta errespetatua izan zen. Irustaren forjan jardun zuen lanean lehenengo eta Gabilondorenean gero. Geroago txatartegi bat eduki zuen.

967. Nobiotako kontuak (EGB-051/015)

Mirenen senarra Ebroko frontean egon zen, tirorik bota gabe, bere esanetan. 23 urterekin ezkondu zen Miren, 15 urte zituela maitasuna agertu zion mutilarekin. Nobio moduan hasi zirenean, besotik heltzeko ere beldurrez egoten ziren. Zinean zeudela, elkarren eskuak hartzen ausartzen ziren. Gai hauetan beldur gutxiagoko gazteak ere ba omen ziren.

968. Lantegian lanean ezkondu zen arte (EGB-051/018)

Valenciagatarren tailerrean hasi zen lanean Miren lastairentzako malgukiak egiten. Gero "Alcorta y Cía"n sartu zen, eta bertan jardun zuen ezkondu zen arte.

969. Ezkontza zaharrak antzezten (EGB-051/021)

Antzezlanen artean, ezkontza zaharrak antzezten zituzten kalean zehar. Birritan egin zuten hori, 20 urteko tarteaz, elizako kontuak eta lehengo ohiko bazkari eta guzti.

970. Senarra eta biak dantza-solte txapelketetan ibilia (EGB-051/036)

Miren eta senarra nobiotatik fandango eta arin-arin dantzariak izan ziren. Zarautz, Donostia, Oñate, Bergara edo Berrizko dantza-solte lehiaketetan parte hartu zuten eta Bergaran hiru urtez jarraian izan ziren txapeldun. Dantza lotuan ere aritzen ziren, baita dantza-epaile lanetan ere. Ondarroan senarra dantza-solte txapelketako epaile izan zen batean gertatutako pasadizoa.

971. Dantza eta musika gustuko (EGB-051/037)

Fandangoa eta arin-arina zituen gustukoenak dantza soltean, eta tangoa eta foxa lotuan. Oraindik ere irratian tango musika entzuten duenean, bakarrik egon arren, pauso batzuk egiten omen ditu sukaldean.

972. Gerra denboran goserik ez (EGB-051/045)

Soldadu bi egon ziren gaua pasatzen Mirenen etxean. Gerra denboran, ez zuten goserik ezagutu. Soldaduen errantxoak ez bazen, aita beti aurkitzen zuen jateko zerbait.

973. Ogi higuigarri hura ezin ahaztu (EGB-051/047)

Goserik ez zuten pasa, baina ematen zieten ogi higuigarri hura ezin du ahaztu Mirenek. Gogoan du Gernikako bonbardaketa egunean abioiak nola pasatzen ziren. Oso baxu pasatu ziren, karga handiarekin zihoazelako.

974. Eskola kontuak (EGB-052/001)

Zazpi urtera arte, Maalako Karitateko mojen eskolan ibili zen. Andereñoak sor Ana zuen izena. Eskola eta inguruak nolakoak ziren azaldu. Neskak eta mutilak ez zuten batera ikasten. Zazpi urtetik 12 urtera arte, eskola publikoan ibili zen. Don Felix maisuarekin hiru urte egin zituen, eta Dionisio Larrearekin bi: bat, erdalduna zen; beste, euskalduna. Eskolak erdaraz izaten ziren. 12 urtetik 14ra, berriz, marianisten kolegioan ibili zen.

975. Aita gerratik ihesi (EGB-052/006)

1936ko irailaren 15ean Sabinen aita eta osaba batek ihes egin zuten Frantziara Mutrikuko itsasontzi batean. Aita Paue ondoko herri txiki bateko baserri baten egin zituen hiru urte. Osaba Bizkaia aldera bueltatu zen, eta preso hartu zuten. Beste osaba bat, Angel, igeltseroa zen "baina intelektual"; mitinak ematen zituen, eta Euzkadi egunkarian idazten zuen. 1935ean omenaldia egin zioten Angel osabari.

976. Osabak 'Euzkadi' egunkarian idazten zuen (EGB-052/008)

Sabinen osaba Angel igeltseroa zen ofizioz, eta Euzkadi egunkarian idazten zuen. Garai hartako joera politikoak aipatzen ditu. Politika gaiez idazten zuen osabak.

977. Osabaren "Madarixa"ko mitina (EGB-052/009)

Sabinen osaba Angelek "Madarixa"n (Madariga) eman zuen mitin bat. Baserritar guztiak barrezka jarri zituen. Txispa handiko gizona zela dio.

978. Osaba Hendaiara ihesi (EGB-052/015)

Gerra hasi zenean, amaren aldeko osaba batek Hendaiara egin zuen ihes. Ohartu gabe muga zeharkatu zuen, eta Guardia Zibilak harrapatu eta gerrara joan egin behar izan zuen. Ebroko batailoian parte hartu omen zuen osaba horrek.

979. Ama Durangoko bonbardaketan hil (EGB-052/017)

Gerra denborako kontuak. 1937ko otsailaren 11n herriko emakume talde bat "beste alderdira" bidali zuten zigor edo mendeku moduan. Emakume horien artean zegoen Sabinen ama. Frontea trenbidetik pasatu, eta Elgoibartik Eibarrera bidali zituzten. Sabinen amak Durangon senideak zituen, eta hara joan zen. 1937ko martxoaren 31n Durango bonbardatu zuten. Egun hartan, Sabinen ama elizan zegoen meza entzuten, eta bertan hil zen.

980. Urte latzak (EGB-052/018)

Gerra denborako kontuak. Aita Frantziara ihes eginda zegoen, eta ama, berriz, 1937ko martxoaren 31ko Durango bonbardaketan hil zen. Sabin eta anai-arrebak Elgoibarko aitonaren etxera joan ziren bizitzera. 1939an aita Frantziatik bueltatu zen, eta lehengo etxera itzuli ziren. 1939a garai "eskasa" izan zen, gose eta gabezia handia zegoelako. Bi neskame eduki zituzten, baina, garaiko zailtasunak medio, biek utzi egin zuten lana. 12 urterekin arrebak hartu zuen etxearen ardura, baina meningitisa harrapatu eta hil egin zen. 1941ean, Sabinen aita eta anaia Mutrikuko aiton-amonen etxera joan ziren bizitzera. Sabin Elgoibarren bakarrik geratu zen; 19 urte zituen.

981. Bilbora lanera (EGB-052/020)

1942an, Bilbora joan zen lanera 'Bonifacio Etxeberria' lantegira, tornulari moduan. Eguneko 15 pezeta irabazten zituen, eta enkargatuaren etxean egon zen apopilo.

982. Soldadutza, Madrilen (EGB-052/021)

Bilbon urtebete egin zuen lanean, eta soldadutzara joan zen Madrilera. Hiru urte egin zituen soldadu. Soldadutzako kontuak. Automobilak konpontzeko lantegi batean egon zen han, eta hotz handia pasatzen zuten. 200 lagun inguru aritzen ziren han lanean.

983. 38.000 pezetatan etxea zaharberritu (EGB-052/026)

Sabinen aita eta osaba igeltseroak ziren. Beste osaba bat, berriz, arotza zen. Amaren aldeko aitonak etxe zahar bat erosi zuen, eta aita eta bi osabek zaharberritu zuten. Zaharberritze lanek 38.000 pezeta kostatu zuten.

984. 'Danobat' lantegiaren sorrera I (EGB-052/027)

'Zubal' lantegian zazpi urte egin zituen lanean. 1954an 'Danobat' lantegia sortu zuten hainbat lagunek, tartean Sabin eta bere anaia. Sorrerari buruzko azalpenak.

985. Luistarren kongregazioko presidente (EGB-052/029)

1952ko ekainean, Sabinekin 30 urte zituela, luistarren kongregazioko presidente izendatu zuten, bere onespenez gabe. Kongregazioko erromesaldiak, ekintzak... aipatzen ditu. Herrian egondako abadeak izendatzen ditu.

986. 30 urte 'Danobat'en (EGB-052/033)

1954an 'Danobat' lantegia sortu zuten 16 lagunek, tartean Sabin eta bere anaia. Sorrerari buruzko azalpenak: sorreran lantegia non ireki zuten, toki aldaketak... aipatzen ditu. Artezgailu ("rektifikadora") hidraulikoak egiten zituzten. Sabinekin 30 urte egin zituen 'Danobat'en, erretiroa hartu zuen arte.

987. Elgoibarko Izarra eta ikastola (EGB-052/038)

Elgoibarko Izarra euskara elkartearen eta ikastolaren hastapenei buruzko azalpenak.

988. Gazte garaiko kontuak: erromeriak eta zaletasunak (EGB-052/040)

Gaztetako kontuak. Musika-bandak jaietara jotzen zuten Elgoibarren. Arratsalde partean "bailable" eta korroak izaten ziren plazan. Maltzaga inguruan baserri giroko erromeria egiten zen astero. Sabinekin futbol partidak ikustera joateko zaletasuna zuen. Lagunarteko kontuak.

989. Osaba Angel eta 'Gaztezi'ren fusilamendua (EGB-052/043)

Gerra denborako kontuak. Sabinen osaba Angel Elgoibarren geratu zen herritarrek osatutako komando batean "herria zaintzen". Gero, osaba Markina aldera joan zen, eta Urkarregi inguruan harrapatu zuten 'Gaztezi' plaentxiarrekin batera. Hainbat egun herriko kalabozoetan pasa eta gero, biak fusilatu zituzten. Bi abade ere fusilatu zituzten.

990. Zazpi fusilatu (EGB-052/044)

Gerra denboran, zazpi elgoibartar fusilatu zituzten: Don Zelestino Onaindia eta Markina aldetik joandako beste abade bat, Olasope baserriko bi anaia, Laskurain, Arrillaga, 'Gaztezi' (jaiotzez plaentxiarra) eta Angel Osoro (Sabinen osaba).

991. Bost hilabete Mutrikuko baserri batean (EGB-052/049)

Zazpi urte zituela bost hilabete egin zituen Mutrikuko baserri batean. Baserrian behiak zaintzen zituen.

992. Gaztetatik mitinetara (EGB-052/053)

Mutikotatik zuten kontzientzia politikoa. Gaztetatik joaten ziren mitinetara.

993. Sallobenteko auzo-eskola (EGB-053/004)

Sallobenteko auzo-eskolan ibili zen umetan. Neska eta mutil elkarrekin ikasten zuten. Maistra donostiarra zen, erdalduna. Umeekin ikasi omen zuen euskara.

994. Entziklopedia eta doktrinako liburua (EGB-053/006)

Sallobenteko auzo-eskolan ibili zen umetan. Sei urterekin hasi eta 12 urtera arte ibili zen eskolan. Urte horietan guztietan, entziklopedia bakarra izan omen zuen. Entziklopedia nolakoa zen azaltzen du. Doktrina ikasteko beste liburu bat izaten zuten.

995. Doktrina, jaunartzea eta maistra (EGB-053/008)

Eskolan doktrina ikasten zuten, gaztelaniaz. 11 urterekin egin zuen jaunartzea herrian. Maistrari buruzko azalpenak: donostiarra zen, eta umeekin ikasi omen zuen euskara apur bat.

996. Ume garaiko jolasak (EGB-053/009)

Ume garaiko jolasak: sakaponetan, sokasaltoan, "txingurriña", ezkutaketan, "fuerazka", pilotan... Neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren jolasean.

997. Garia entregatzea, ogi falta eta ehotzea (EGB-053/014)

Idiak zituzten baserrian, eta haiekin egiten zituzten labrantza lanak. Artoa eta garia ereiten zuten. Ogi falta eta garia entregatu behar ezagutu zituen Juanak. Etxean ez zuten ogirik egiten: garia entregatzen zuten, eta trukean ogia jasotzen zuten. Gero, garia ehotzen hasi ziren etxean eskuzko makina batekin. Irina bahean pasatzen zuten, fin-fin gera zedin.

998. Labesua (EGB-053/015)

Gerraostean, ogia etxean egiten hasi ziren, labesuan. Igeltsero batek egin zuen labea. Nolako labea zen azaltzen du. 16 urterekin hasi zen Juana ogia egiten.

999. Mendaroko errotara (EGB-053/017)

Mendarako errotara joaten ziren garia ehotzera. Zahia eta irina bereizita eramaten zuten etxera. Zahia ganaduari jaten emateko izaten zen.

1.000. Soldaduak bailaran eta Arrate aldeko kanoikadak (EGB-053/018)

Gerra hasi zenean, eskolak eten egin ziren. Soldadu frankistak egon ziren Sallobenteko auzo-eskolan. Baserri gainaldean kanoia egon zen, Arratera begira. Arrate aldetik botatzen zituzten kanoikadak Sallobente aldera erortzen ziren.

1.001. Anaia Asturiasko frontea galdu (EGB-053/019)

Juanak anaia bat galdu zuen gerran, Asturiasko frontean. Joxe Txurruka Zabaleta zuen izena. Berandu izan zuten anaiaren heriotzaren berri, eta ez zuten haren gorpurik berreskuratu.

1.002. Ahizpa raketistari buruzko kontuak (EGB-053/022)

Juanaren ahizpa zaharrena, Maria, raketista zen. Txurruka izenaren ezagutzen omen zuten pilota munduan. Bikoteka aritzen ziren raketan, eta Maria aurrelaria zen; sakatzaile "oso ona" omen zen. Kirolak eragindako lesioak... Juanaren ahizpak ez omen zuen bere burua botatzen pilota jotzeko.

1.003. Gari-jotzeari buruzko azalpenak (EGB-053/024)

Auzolanean egiten zuten gari-jotzea, motorra eta matxakarekin. Auzoko lau baserriren artean erosi zuten gari-jotzeko makina. Ganadurekin mugitzen zuten makina etxe batetik bestera. Gari-jotzea amaitzen zutenean, merienda egiten zuten.

1.004. Sallobenteko arto-errotak (EGB-053/027)

Sallobente bailarako arto-errotak: Aldamar, "Gelatxo-Errota" (Gelasoroerrot), "Unastei-Errota" (Unastegierrot), Garagartzaerrot eta Ibarre. Arto-erroten eta gari-erroten arteko aldea zein den aipatzen du.

1.005. Altzolara eta Mendarora, garia ehotzera (EGB-053/028)

Bailarako baserritarrak Mendarora joaten ziren garia ehotzera. Mendaroko errotara joaten hasi aurretik, Altzola bideko Errota Berrira joan ohi ziren. Mendaroko errotan zahia eta irina bereizten ziren, Altzolakoan ez.

1.006. Gari-lanak eta "garafaixa" (EGB-053/029)

Garia ereiteko zer lan egin behar ziren azaltzen du. Garia erein aurretik, lurra goldearekin lantzen zuten. Juana itaurrean eta aitzurrean aritzen zen. Ondoren, area pasatu eta garia ereiten zen. Gari-lanak bukatu ondoren, afaria egiten zuten; "garafaixa". Gari-jotzea auzolanean egiten zen, ereitea ez. Gari-lanetarako auzokoren bati deitzen bazitzaion, zerbait ordaindu zitzaion gero.

1.007. Plazako salmenta (EGB-053/031)

Oilaskoak, arrautzak, baba... saltzen zuten plazan. Etxean ez zuten oilaskorik jaten. Salmentan ateratako diruarekin etxerako jeneroa erosten zen: olio, azukrea...

1.008. Argindarra eta ura (EGB-053/032)

Beti ezagutu du argindarra etxean. Ura, oster, beranduago jarri zuten. "Gelatxo"ra ezkondu zenean, han ez zen urik etxean.

1.009. Lixiba eta arropa garbiketa (EGB-053/033)

Arropak etxeko askan garbitzen zituzten. Lixiba nola egiten zuten azaltzen du. Tina batean arropa sartu, hauts-trapua jarri eta ur beroa botatzen zen bertara. Harizko izarei sutako hautsa botatzen zien, baina geroko izarei "lejia-bolak". "Lixa-potua". Arropari erramua jartzen zien, usain ona izateko.

1.010. "Liña-potzua", egurra beratzen edukitzeko (EGB-053/035)

"Liña-potzua" (liho-putzua) esan zioten putzu batzuetan edukitzen zuten egurra beratzen, eta, gero, egur hartatik zumitza ateratzen zuten Juanaren anaia batek. Gaztaina-makatzaren egurrekin ateratzen zuten zumitza. Makina bat erabiltzen zuten zumitza ateratzeko; gero, zumitzak saldu egiten zituen.

1.011. "Silla-bedarra", aulkien ipurdiak egiteko (EGB-053/036)

Juanaren anaia gazteak aulkien ipurdiak egiten zituen "silla-bedarrarekin" (zinta-belarrarekin). "Silla-bedarra" nolakoa den eta zer parajetan egoten den aipatzen du. Aulkien ipurdiak nola egiten diren azaltzen du.

1.012. Sallobenteko erromeria eta 'Gelatxo' soinujolea (EGB-053/038)

Sallobenten eta Kurutzetan jaiero egiten zen erromeria. Manuel Sodupe Gelatxok jotzen zuten soinua Sallobenteko erromerietan. Gelatxoren familiari buruzko azalpenak.

1.013. Sallobenten, baltseoa libre; "Madarixa"n, ez (EGB-053/040)

Sallobenteko erromerian baltseoa egitea libre zen. Azkoitian, "Madarixa" (Madariaga) auzoan debekatuta zegoen dantza lotuan egitea: San Isidro Eguneko erromerian dantza soltean egiten zen, baina "bestaldeko ganbaran garrauan danak" dio Juanak.

1.014. 'Hijas de María' kongregazioa (EGB-053/041)

Juana Hijas de María kongregazioko kidea zen. Hilean behin, goizeko 06:00etarako herrira joan behar izaten zuten kongregazioko meza entzutera. Konfesioko kontuak. Kongregazioak ez zien galarazten dantza lotuan egitea.

1.015. 23 urterekin, "Gelatxo"ra ezkondu (EGB-053/042)

23 urte zituela auzoko "Gelatxo" (Gelasoro) baserriko Pedro Bollarrekin ezkondu zen. Juanaren senarra Munitibarkoa zen jaiotzez, eta haren familiak 1943an erosi zuen "Gelatxo" baserria. Senarraren familiari buruzko azalpenak.

1.016. Erromeriak (EGB-053/043)

Gazte garaiko kontuak. Erromeriak eta etxe-laguntzak. Dantza egiteagatik mutilek ordaindu egin behar izaten zuten; gero, paparrean paper bat jartzen zien ordaindu zutela jakiteko. Mendarotik mutil asko joaten zen auzoko erromeriara. Auzoan bazen taberna bat.

1.017. Abadea eta soroak bedeinkatzea (EGB-053/045)

Abadea kaletik Sallobentera joateko, bailarako etxe bakoitzak hainbat kilo gari eta arrautzak entregatzen zituen. Urtean behin, udaran, abadea soroak bedeinkatzera joaten zen. Bedeinkazioei buruzko pasadizoa.

1.018. Tiroak, hegazkinak eta bonbak (EGB-053/047)

Gerra denborako oroitzapenak. Tiroak, hegazkinak eta bonbak gogoratzen ditu. Arrate aldetik kanoikadak iristen ziren bailarara. Hegazkinak entzuten

zituztenean, kortan sartzen ziren babes bila. Hegazkin bati "gari-jotallia" esaten zioten, ateratzen zuen zaratagatik.

1.019. Herritarrak vs baserritarrak (EGB-053/049)

Ez zuten joerarik kalera edota inguruko herrietara joateko. San Bartolometako jaietan edo Trinitadeetan joaten ziren herrira. Bailaran egiten zuten bizimodua: eskola, eliza eta erromeria bertan zituzten. Kaletarrek burla egiten zien baserritarrei, "las boronas" esaten zien.

1.020. Gerraostean, ogi falta (EGB-053/050)

Gerraosteko lehenengo urtean kaletik errazionamenduan hartzen zuten ogia, eta ogi falta izan zuten. Gero, ordea, ogia egiten hasi ziren etxean, eta ez zuten goserik pasatu.

1.021. Lurretia (EGB-053/052)

Lehen, auzolana egiten zen asko. Bidegintza eta lurretia auzolanean egiten ziren. Lurretia: sorobarrenean otarrak lurrez bete, eta gora jasotzea. Aldapak beherantz eramaten du lurra, eta igo egin behar izaten da.

1.022. Karea nola egiten den (EGB-053/053)

Karea egiteko prozesua azaltzen du. Karobia zuten etxean. Harrobitik harria atera, eta otarrarekin harria karriatzen ibilitakoa da Juana. Bi urtean behin egiten zuten karea, auzoko baten laguntzaz. Harrobiko harria xehetu eta egurrarekin prestatzen zen karobia. Karobian egositako harri koskorrak etxera eramaten zituzten, eta, han, ura botzen zioten hauts egin zedin. Hauts hori (karea) soroan zabaltzen zuten gero. Karea soroan zabaltzen zuten.

1.023. Lehengo baserrietako jatorduak (EGB-053/055)

Asteguneko bazkal garaian, baba gorria jan ohi zuten. Afaritarako, taloa edo morokila. Jaietan, berriz, garbantzua edo baba zuria. Gaztaina denboran, gaztaina erreta edo egosita. Juanaren anaia batek egunero hartzen zuen beratz-salda.

1.024. Gaztaina eta garo biltzea udazkenean (EGB-054/016)

Udazkenean lan asko egoten zen basoan eta soroan. Garotan, gaztaina batzen eta abar. Eta horregatik bi morroi izan zituzten. Garo-metak egiten zituzten.

1.025. "Txanketian" gari-jotzen (EGB-054/017)

Igitaiz ebakitzen zuten garoa; Josefina lotzen ibiltzen zen. Makina erosi zuten bailaran eta harekin jotzen zuten azken aldera, baina lehenago txanketean, harriaren kontra. Gariak ihar-iharra egon behar zuten.

1.026. Etxea erre 1948an (EGB-054/032)

Baserria erre zitzaien 1948an, San Esteban egunez. Bazkaltzen zeudela hasi zen sua. Abereak eta gauza gehienak ateratzea lortu zuten. Garajeon prestatu zuten etxe ordekoa. Paretak lehenagoak dira baina bestela dena berritu zuten.

1.027. Altzolako eskolan ikasi zuen (EGB-055/002)

Altzola auzoko eskolan ikasi zuen, maistra gernikar batekin. Eskolak erdaraz, baina doktrina euskaraz ikasten zuten elizako gela batean. Zortzitik hamabi urtera bitartean ibili zen eskolan.

1.028. Aitajauna hargina eta sakristaua (EGB-055/003)

Pakoren aitajauna Altzolako elizako sakristaua zen, baina ogibidez hargina. Elias Elorza errementariarentzako lantxo batzuk egiten zituen aitajaunak. Errementariak "Naparkua" taberna zuen Altzolan.

1.029. Aitajaunak ikazkintzan ere jarduten zuen (EGB-055/004)

Aitajaunak eliza zaintzen zuen. Hartxingas mendian ikazkintzan ere jarduten zuen, eta orduan Pakok eramaten zion bazkaria mendira. Aitajaunak ez zuen semerik izan, alabak bakarrik.

1.030. Arantzazura joan zen ikastera (EGB-055/006)

Hamabi urterekin Altzola auzoko eskola utzi eta Arantzazura joan zen fraideengana. Urte eta erdira gaixotu egin zen, eta orduan bukatu zitzaizkion Arantzazuko ikasketak. Gosete garaia zen, eta Arantzazun gaizki jaten zutela dio.

1.031. Fraideak gaiztoak omen ziren (EGB-055/007)

Pleurak jota, bederatzi hilabete eman zituen ohean. Ondo sendatu zen. Arantzazuko fraideak gaiztoak zirela dio. Gerrikoa erabiltzen omen zuten ikasleak zigortzeko.

1.032. Arantzazuko koruko tiple (EGB-055/008)

Arantzazun oporrik ez zuten izaten. Pako bertako koruko tiplea izan zen. Harrezkero jaiero abesten du mezan Altzolako elizan. Arantzazuko fraideen eskola zaharrean ikasi zuen; elizara joateko errepide azpitik tunela zegoen. Ikasi eta bizi eraikuntza berean egiten zuten.

1.033. Aroztegi batean lanean (EGB-055/011)

Pleura gaixotasunetik sendatu zenean, aroztegi batean hasi zen lanean. Berak zurgina izan nahi zuen, baina eraikuntzan egin behar izan zuen lan. "Carpintería Juaristi Apraiz"en jardun zuen.

1.034. Soldadutza motza (EGB-055/014)

Soldadutzara joan aurretik Deban ibili zen lanean. Soldadutzan Melillako ospitalean Elgoibarko moja bat ezagutu zuen, eta hari esker goizean meza laguntzea izan zuen Pakok egun osoko lan bakarra. Hiru hilabete pasa zirenean, soldadutzatik etxera bidali zuten, aurretik apurtutako menisko bategatik.

1.035. Moja elgoibartar bat Melillan (EGB-055/015)

Sodaduskatik bueltatu eta gero operatu zioten meniskoa. Gerra denborako bainuetxeko ospitalean egon zen moja bat zegoen Melillako ospitalean. Elgoibarko "Naparrenekua" zen.

1.036. Meza-mutil izan zen sakristau aurretik (EGB-055/019)

Sei urterekin ekin zion Pakok sakristau lanari. Hasieran meza-mutil izan zen, aitajauna sakristau zela. Jaietan maiordomoek pasatzen zuten txapela dirua batzeko. Astegunetako elizkizunetan, ordea, meza-mutilak giltzadun itsulapikoa erabiltzen zuen.

1.037. Elizako maiordomoen eginbeharrak (EGB-055/020)

Dirua batzeaz gain, hiru maiordomoek elizako eginbehar askotan hartzen zuten parte. Ostegun Santu egunean, sagrarioko giltza maiordomo nagusiak gordetzen zuen. Maiordomo bakoitzak, ontzi ezberdinekin, helburu ezberdinetarako diruak batzen zituzten.

1.038. Sakristauaren lanak (EGB-055/022)

Aitajauna sakristaua hil zenean, Pakok jarraitu zuen sakristauaren lanekin, 15 urte inguru zituela. Sakristauaren lanak, besteak beste: apaizaren arropak eta beste arropak garbitu, eliza garbitu eta txukundu, ostiak gorde, kanpaiak jo, asteen behin erlojuaren pisuak jaso... Lan horren truke etxea zuten bizi izateko. Hileta, ezkontza, eta abarretan parrokoak diru apur bat ere ematen zion.

1.039. Egunero ematen zen meza (EGB-055/023)

Denborarekin Pakok meza laguntzeari utzi zion. Igandero korutik meza abesten zuen. Igandetan mezak zazpietan eta hamarretan izaten ziren. Astegunetan, berriz, meza bakarra, goizean edo iluntzean, garaiaren eta abadearen arabera.

1.040. Elizako kanpaia eta erlojua (EGB-055/024)

Kanpaiak ere sakristauak jotzen zituen. Jaietakoak eta hildakoenak jotzen zituen. Hildakoa umea bazen, kanpai-hotsa ezberdina izaten zen. Erlojuaren pisuak lau egunetik behin jasotzen zituen.

1.041. Erlojua konpontzen (EGB-055/025)

Erlojuaren mantentze-lanak berak egiten zituen. Elgoibarko jendeak galdatu eta landutako engranaje berriak jarri zizkioten elizako erlojuari.

1.042. Erromeria antolatzen zuten Deban (EGB-055/026)

Debako Igarzabal baserrira joaten ziren lagun kuadrilla. Soinua eramaten zuten bertara erromeria ospatzeko. Joan-etorria trenez egiten zuten. Biain baserrikoa zen ardiak zaintzen soinua jotzen zuen soinujolea.

1.043. Altzolako koruko zuzendari (EGB-055/027)

Altzolan 20 lagun inguruko korua egon zen, Pakoren zuzendaritzapean. Bainuetxeko zuzendaria organo-jotzailea zen, eta denen artean mezak kantatzen ikasi zuten. Altzolatik kanpo ere abestu izan dute.

1.044. Intendentzia elizpean, komandantzia abade-etxean (EGB-055/029)

Gerra denboran, militarrek elizpean eduki zuten Altzolako intendentzia. Horri esker, txerri ederrak hazi zituzten Pakoren etxean. Altzolan prestatu eta

kamioiez eramaten zuten jana frontera. Komandantzia abade-etxean egon zen.

1.045. Altzolan desagertutako bi lagun (EGB-055/030)

Elgoibarko frontean mutil gazte nafar bat hartu zuten preso. Altzolara ekarri zuten eta han desagertu egin zen. Pakoren osaba Mariano Arrillaga guardia zibilek eraman zuten gerra denboran Pakoren etxeko sukaldetik, eta ez dute gehiago ikusi.

1.046. Bainuetxea martxan zegoenean (EGB-055/037)

Altzolako bainuetxea ur lantegi bihurtu da, bertako ura botilatan sartu eta saltzeko. Pakok bainuetxea ekainetik irailera arte beteta ezagutu du. Irailean, Altzolan asko estimatzen zituzten errioxarrak etortzen omen ziren. Garai batean lau taberna zituen Altzolak, bainuetxekoa haietako bat.

1.047. Altzolako ura nola aurkitu zuten (EGB-055/038)

Altzolako bainuetxera adineko jendea etortzen zen. Gazteagoentzako erakargarritasun ezak ekarri omen zion gainbehera. Gaur ura botilatan sartzeko lantegia da. Ura nondik hartzen duten eta iturria nola aurkitu zuten azaltzen du Pakok.

1.048. Bainuetxera prozesioak (EGB-055/039)

Bainuetxe zaharreko "Saløn de columnas" eta kapera ezkutatuta daude orain. Egun jakinetan prozesioak egiten ziren bainuetxeko kaperara, banda eta guzti batzuetan. Pakoren koruak ere abesten zuen kapera horretan. Elizako organoa eraman izan zuten bainuetxera.

1.049. Eskola publikoa eta gau-eskola (EGB-056/002)

Bost urtetik 14 urtera arte eskola publikoetan ikasi zuen. Gerraostean, marrazketa ikasi zuen gau-eskolan. Behean, Bernardo Ecenarro lantegia zegoen, eta han tailarreko lanak (tornuan, liman...) ikasten zituzten. Joseren aita bi-hiru urtez enkargatua izan zen lantegi horretan, bai eta beste lantegi batzuetan ere.

1.050. Eskola publikotik Pilarrera (EGB-056/004)

Lehenengo, eskola publikoan ibili zen Don Felix maisuarekin. Gero, marianisten Pilar ikastetxean jarraitu zituen ikasketak gerra atera zen arte.

1.051. Eskola kontuak (EGB-056/009)

Lehenengo, Maalako mojen ikastetxean ibili zen, eta, handik, eskola publikora pasatu zen. Sei urterekin, ostera, marianisten Pilar ikastetxera eraman zuten gerra irten zen arte.

1.052. Gerra denborako eskolak (EGB-056/010)

Gerra denboran, eskolak bertan behera geratu ziren. Frontea Elgoibarren egon zen denboran, Pilarreko ikastetxean soldadu italiar eta mairuak egon ziren. Soldaduek aurrera egin zutenean, ordea, berriz hasi ziren eskolak. Abade katalan batek ematen zizkien eskolak. Lezioa galdetu eta gaizki esaten zutenean, abadeak makila batekin jotzen zituen eskuan. Anton Diru arotzak minik egiten ez zuen makila bat prestatu zion abadeari, baina abadea konturatu eta beste makila bat erabiltzen hasi zen. Frankistek hiribururen bat

hartzen zutenean, kanpaiak jotzen zituzten, eta umeak eskolatik ateratzen ziren hura ospatzera.

1.053. 14 urterekin, lanera (EGB-056/012)

Gerra amaitu zenean 14 urte zituen. Eskolan urte gutxi egin zituela dio Bittorek. 14 urterekin, aitarekin hasi zen lanean familiako lantegian, eskopetak egiten. Sigma lantegian pare bat urte egin zituen lanean, eta, han zegoela joan zen soldadutzara.

1.054. Gerra denboran, Karkizanora eta Irabanetara (EGB-056/014)

Frontea Elgoibarren egon zen denboran, Bittor eta Jose Antonio gurasoen jaiotetxeetan egoten ziren Karkizanon (amaren jaiotetxea) eta Irabanetan (aitaren jaiotetxea). Sei anai-arreba ziren.

1.055. Astean behin, solfeoa ikastera (EGB-056/015)

Astean behin, baimena eskatzen zuen eskolan musika ikastera joateko. 12 urtetatik koroan abesten zuen, tripleetan. Garai batean, hildakoren bat izaten zenean, apaiza, organista eta tripleak kantuan joaten ziren hildakoaren portalera.

1.056. Tropak joaterako, lanean hasita (EGB-056/019)

Tropak Elgoibartik joan ziren garaian, Joseren aitak lantegia alokatuta zuen. Aita eta osaba Donostiako 'Garaje Internacional'era joaten ziren lanera, eta Jose geratzen ama eta lau arrebeekin etxean. Garai hartan, Zubiaurre lantegitan lan egiten zuen.

1.057. Zubiaurre lantegian, espoletagintzan (EGB-056/021)

Eskola amaitu eta Zubiaurre lantegian hasi zen lanean. Espoletentzako piezak egiten zituzten. 'Estarta y Ecenarro' lantegian obus txikiak egiten zituzten, eta, Zubiaurrenean haientzako piezak egiten ziren. Domeka eguerdira arte egiten zuen lan. Gerra amaitu arte aritu zen han lanean.

1.058. Gerraostean, aitarekin lanean hasi (EGB-056/022)

Gerra amaitu zenean, aitak alokatuta zuen lantegia hartu zuen, eta Jose eta anaia aitarekin hasi ziren lanean. Artoa txikitu, aletu eta ehotzeko makinak egiten zituzten. "Hojalateroentzako" tripodeak ere egiten zituzten. 'Felipe Zuazubizkar' zuen izena lantegiak. Gerora, bazkide bat hartu eta 'Akar' izena hartu zuen lantegiak. Jose jubilatuta zenean itxi zuen tailerra.

1.059. Familiako lantegia (EGB-056/024)

14 urterekin etxeko tailerrean hasi zen lanean Jose Antonio eskopeta-baskulak egiten. 1940. urtean, 'Arrieta y Compañía' lantegia sortu zuten aitak eta beste hiru bazkiderekin, eskopeta osoak muntatu eta doitzeko. 1955. urtean, sozietatea banatu eta lantegiak 'Manufacturas Arrieta S.L.' izena hartu zuen.

1.060. Aitaren ibilbidea eskopetagintzan (EGB-056/026)

Bittor eta Jose Antonioaren aita I. Mundu Gerrako baziharduen armagintzan. Gernikako Astran aritu zen pistolagintzan. Handik Elgoibarrera bueltatu, eta anaia batekin ikasi zuen eskopetak egiten. Gerra aurrean, eskopeta-baskulak egiten zituzten: besteentzako egiten zuten lana. 1940an hasi ziren eskopetak osorik egiten. Ehizerako eskopetak eta errifleak egin izan dituzte.

1.061. Eskopetagintza (EGB-056/030)

Eskopetagintzari buruzko azalpenak. Eskopetak % 80 eskulana duela diote Arrieta anaiek. Grabatzaileen lana, ordu asko sartu beharrekoa. Eskopeta fina egitea "lan konplexua" da, dena neurrira egiten baita.

1.062. Gaztetatik 'Caritas'en (EGB-056/032)

20 urte zituela hasi zen Jose Caritasen. Elkartea elizatik sortu zen, eta herriko behartsuei laguntza ematea zuen helburu. Elkartearen funtzionamenduari buruzko azalpenak ematen ditu. Ekonomatuak nola funtzionatzen zuen kontatzen du.

1.063. Gaztetan, futbolaria (EGB-056/037)

Gaztetan, futboleko ibiltzen zen Elgoibarko "txikixekin", baina 22 urte zituela bizkarrezurra izorratu zuen.

1.064. Mendian bi "zentenario" egindakoa (EGB-056/038)

Mendian asko ibili da Bittor. Mendi federazioako lehiaketa bati buruz hitz egiten du: lehiaketa horri "zentenario" esaten diotena. 100 mendi egin behar dira gutxienez bost urtean eta gehienez 10ean. Zer mendi egin daitezkeen katalogo batean jasotzen da. Bittorrek bi "zentenario" eginak ditu.

1.065. Gerra kontseilua (EGB-056/040)

Gerra denboran, udaletxean egin zen gerra kontseiluan egon zen Jose mutil gaztea zela. Barretar bat fusilatu zuten kanposantuan, espioitza leporatuta.

1.066. Fusilatuak (EGB-056/041)

Gerra garaian herrian fusilatu zituzten gizon batzuen izenak aipatzen dituzte: Angel 'Mutriku', 'Gaztezi', Don Zelestino abadea...

1.067. Herritik bidali zituzten emakumeak (EGB-056/043)

Frankistek gizona ihes eginda zuten zenbait emakume herritik bota zituzten, ume eta guzti. Trenbidetik oinez joan omen ziren Maltzagara.

1.068. Tropak herrian sartu ziren eguneko giroa (EGB-056/044)

Gerra denborako kontuak. Tropak Elgoibarren sartu ziren egunean Trenbide kalean eta herrian zer mugimendu gogoratzen dituen kontatzen du Josek. Jendeak trenean ihes egin zuen Bilbo aldera.

1.069. Soldaduak etxean hartu beharra (EGB-056/045)

Tropak herrian sartu zirenean, Díez de Rivera teniente koronelaren bandoa jo zuten. Arrietarrean lau erreketek egon ziren lo egitera.

1.070. Bonbardaketak eta balazoak (EGB-056/046)

Abiazioak jaurtitako bonbek eragindako txikizioak. Jendea etxetik irten ezinda, bonba bat Jose Antonio eta Bittorren etxearen kontra-kontra bota omen zuten...

1.071. Kanoi- eta tiro-hotsak (EGB-056/049)

Gerra denboran, Joseren aitak eta osabak Donostian egiten zuten lan, eta Jose eta etxeakoak kanoikadak entzutean Markina bideko etxe batean babesten ziren. Gogoan dituzte kanoi- eta tiro-hotsak. Tiroei "pakun"ak esaten zieten.

1.072. Estazioko babeslekua (EGB-056/050)

Estazioko komunen ondoan, babesleku bat zegoen hondarrezko zakuekin estalia. Kanpaia jotzen zutenean, hara joaten ziren. Erreketek bat trenbidean hil zen obus batek harrapatuta. 16 lagun inguru sartzen ziren babeslekuan.

1.073. Gerra denboran Elgoibarren ibilitako kapitaina (EGB-056/051)

Soldadutzan eduki zuen kapitain bat Elgoibar inguruan ibili zen gerra denboran. Inguruko mendi eta parajeen izenak aipatu omen zizkion Bittorri. Elgoibarren lau kanoi egon ziren mendigain batean. Eibarren kanoi bat omen zegoen, baina handia.

1.074. Nazionalak Azkoitia aldetik sartu (EGB-056/053)

Nazionalak Azkoitia aldetik sartu ziren Elgoibarren, Azkaratetik behera. Soldaduak kalean gora, desfilean, sartu ziren herrian. Soldadu asko ziren, "dena erreketek".

1.075. Eibar ketan, lehengusuaren bila (EGB-056/061)

Lehengusu bat frontean ibili zen. Bittor mutil koskorra zela izebarekin Eibarrera joan zen lehengusuaren arrasto bila. Eibar kea dariola omen zegoen.

1.076. Mojena izandako baserria (EGB-057/002)

Arana baserria Elgoibarko mojena izan omen zen. Liberalak karlisten aurkako gerra irabazi zutenean, mojei baserria kendu eta saldu egin zuten. Pedroren aitajaunak, gerran karlisten alde borrokatu zuenak, erosi zuen baserri hori, 6.000 pezetaren truke. Aitak Santa Colomako dukeari erosi zizkion terreno batzuk. Mendi sail batzuk ere erosi behar izan zituzten, etxerako garoa biltzeko.

1.077. Idotorbe auzoko maisua: txistulari ermuarra (EGB-057/004)

Eskolan ibili zen hiru urteetan dotrina besterik ez zuela ikasi dio. Auzoko eliza ondoan zegoen eskolara joan zen. Maisua ermuarra zen eta auzoan bizi zen. Etxe bakoitzak urteko ogerleko bat ordaintzen zion. Eskola euskaraz jaso zuen.

1.078. Hazitarako idiskoa baserrietan txandaka zaintzen zuten (EGB-057/006)

Auzoko errepidea auzotarrek euren kontura egin zuten. Sei esne-behi izaten zituzten etxean. Auzoan hazitarako erabiltzen zen idiskoaren zaintza, auzoko baserriak txandaka egiten zuten.

1.079. Bilbon saldu zuten txekorra (EGB-057/007)

Gose urteetan ere txekor ederrak hazten omen zituen bere aitak. Trenez eramandako 131 erraldeko txekorra saldu zuten Bilbon 1941. urtean.

1.080. Kupoa berandu arte ordaindu zuten (EGB-057/008)

Etxean ardirik ez du ezagutu Pedrok. 1948. urtean, oraindik zortzi anega gari entregatzen zituen udaletxean kupoa ordaintzeko.

1.081. Gari-jotzeko makinak (EGB-057/009)

Garia jotzeko makina beti ezagutu du Pedrok. Aitak erositako makinarekin jotzen zuten garia inguruko baserrietan. Garia jotzeko makina modernoak lana asko erraztu zuen. Makinarentzako gasolioa kalean erosten zuten, Barrutia jatetxeko ugazabaren hornigailuan.

1.082. Idiak eta idi-probak (EGB-057/010)

Aitak Arrasaten erosi zituen idi beltzak. Auzoko probaleku zaharra zelaian omen zegoen. Bustian erraz, baina lehorrean nekez tiratzen zuten idiok. Gerratean, gorriek San Pedroko elizako bederatzu santu erre omen zituzten. Nazionalen tiratzaileak engainatzeko, San Antonioren estatua erabili omen zuten, horma baten ostetik bere burua erakutsiz.

1.083. Gorriak elizan (EGB-057/011)

Nazionalak Arratera iritsi zirenean, gorriek Eibarrera ihes egin zuten, bolborategiari su eman eta gero. Pedroren etxeari ere eraso egin zioten, eta egun pare batez beste baserri batean babestu ziren.

1.084. Aranan beti zegoen morroiren bat (EGB-057/013)

Txiki-txikitatik izan du Pedrok gauzak desmuntatzeko zaletasuna. Behin morroiren erlojua desmuntatu zuen, bera lanean ari zela. Beti ezagutu du morroiren bat etxean. Leintz-Gatzagako morroi batek euren etxean ikasi zuen euskaraz berbetan. Etxean egon ziren morroi denak aipatzen ditu.

1.085. Soldadu Iparraldeko zein Levanteko fronteetan (EGB-057/015)

1937. urtean deitu zuten soldaduskara. Lehenengo, Logroño, Burgos eta Asturiasko fronteetan; eta, gero, Soria, Teruel eta Ebrokoetan. Handik Villarrealera joan ziren.

1.086. Bere aldekoen kanoikadak ia garbitu (EGB-057/016)

Riosecotik Sierra Puntalera; eta handik jaisten ari zirela, bonbaz zauritu zuten, italiarrek eraso oker eginda.

1.087. Ebroko bataila izugarria (EGB-057/017)

Ebroko triskantzara bueltatu ziren. Luzio Arrieta lehengusua galdu zuen han. Pedro urte bitan etxera etorri gabe egon zen. Bartzelona eta Gironatik ere pasatu zen, Toledoraino joateko.

1.088. Toledotik Murtziara gerra amaitzear zegoela (EGB-057/018)

Toledotik Murtziara joan ziren. Sukaldari egon zen bertan, harik eta Bilbora bidali zuten arte. Etxera etorri zen 20 eguneko baimenarekin.

1.089. Soldadutza Donostian bukatu zuen (EGB-057/022)

Gerra bukatu eta beste hiru urtez egon zen soldadu Donostian. Handik larunbat guztietan joan ahal izaten zen etxera.

1.090. Errazionamenduko ogia (EGB-057/024)

Errazionamenduko ogia oso txarra zen. Arrebak taloak egiten zituen. Kuporako garia eta artoa eraman behar izaten zuten. Gari-uzta ona izateko, lurra lehorra izan behar dela dio Pedrok.

1.091. 12 urterekin eskola uzten zuten (EGB-057/026)

Mutikotan pilotan jolasten zuten. Behin 12 urtez gero, eskola utzi eta umeak baserrian geratzen ziren lanean. Dotrina besterik ez zuen ikasi Pedrok eskolan.

1.092. Sagardoa egiten zuten Aranen (EGB-057/027)

Bizi guztia eman du baserrian. Aitak Ondarroan ikasita, sagarrondoak landatu zituen sagardoa egiteko. Sagardoa eta sagarrak ere saltzen zituzten. Hiru barrika eta beste hiru bukoikada sagardo egiten zituzten urtean etxerako.

1.093. Arraten ezkondu eta ospakizuna etxean (EGB-057/029)

Arraten ezkondu eta etxean elkartu ziren senideekin ezkon-bazkarirako. Legatza, azpizuna (solomiloa) eta xanpaina izan zuten. Afaria ere bertan eman zieten gonbidatuei. Petra, emaztea, emakume fina eta langilea omen zen.

1.094. Karea Markinatik ekartzen zuten (EGB-057/034)

Etxean ez du karegintzarik ezagutu. Markinatik ekartzen ei zuten karea, urtean 60 bat kintal. Oso ona omen da karea botatzea zelai eta soroetan. Markinan nondik ekartzen zuten azaltzen du.

1.095. 1941. eta 2010. urteetako haizeteak (EGB-057/038)

1941. urteko haizete izugarria izan zenean, bera Donostian zegoen soldaduskan. Orduko haizeak eta azkenekoak (2010ekoa) ez zutela era berean jo dio. Ordukoak egin zituen txikizio batzuk gogoratzen ditu.

1.096. Eskolan 62 neska-mutil maistra batekin (EGB-058/002)

Auzoko eskolan ikasi zuen, 9 urterekin hasita. Hiru anaia zaharragoek eliza osteko eskola zaharrean ikasi zuten, baina Josefak elizari atxikitako eskola berria estreinatu zuen. 14 urte arteko 62 neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten, maistra baten zaintzapean.

1.097. Eskolan oinarrizkoa ikasi; jolasak (EGB-058/003)

Eskolak erdaraz jaso zituen eta, kontuak ateratzen, zatiketak ikasi baino lehenago utzi zion eskolari. Orduan emakumeek ez omen zuten eskola beharrik. Jolas-orduetako jolasak aipatzen ditu, tartean pospolinekin (kuku-balak) egiten zuten jolasa. Jai egunetan panderoarekin dantzan ibiltzen ziren.

1.098. Umetatik baserriko lanetan (EGB-058/004)

13 urterekin kalera joaten zen josten ikastera, neguan. Beste sasoietan etxean egoten zen nahikoa lan, baserrikoak nahiz etxeko lanak. Ama-alabak biak ziren jostunak eta apendizak hartzen zituzten etxean. 12 urtera arte ume lanetan jardun zuen, baina gero itaurrean, garia ebakitzen, eta nagusien beste lan batzuk egin behar izaten zituen.

1.099. "Maleketia"rekin garia jotzen (EGB-058/008)

Aurrenengo garia jotzeko makina ez zen motorrez ibiltzen. Ganadu pare birekin bueltaka mugitutako "maleketia"k egiten zuen motorraren lana. "Maleketia" apurtu zenean ekarri zuten gari-jotzeko makina motorduna.

1.100. Herri-kirolariak Armueta baserrian (EGB-058/012)

Josefaren senarra idi-probalari ezaguna izan zen auzoan. Aitaginarreba, berriz, harri-jasotzaile trebea. Auzotarren artean idi-desafioak sortzen ziren. Armueta baserrian baso-sail batzuk zelai bihurtzeko jarri zituzten idiak.

1.101. Auzoko errepidea auzolanean (EGB-058/013)

Bere jaiotetxean bazituen ardi batzuk, baina Armueta baserrian ez zuten ardirik. Errepiderik ez zegoenean, erositako lastoa kanposantu ondotik gurdian ekartzen zuten. Auzoko errepidea nola egin zuten azaltzen du.

1.102. Mililtarrak auzoan (EGB-058/015)

Lehen irratia jarri zutenean, gazteek nahiago izaten zuten irratia entzun, lanean jardun baino. Nazionalak Azkoitia aldetik sartu ziren Elgoibarrera. Herria pasatu eta Idotorbe (San Pedro) auzoan geratu ziren, Armueta baserri inguruan. Gorriak Arraitzaga baserrian zeuden, eta etxea erre zuten ihes egin aurretik.

1.103. Morroiaren ausardia (EGB-058/016)

Josefaren baserrian ez zen bonbarik jausi, baina leiho guztiak balaz zulatuta geratu ziren. Gorriek indarrez eraman zituzten auzoko neska bi, sukaldeko lanak egiteko. Arane baserriko morroiak neska horietako bat atera egin zuen preso zegoen etxetik.

1.104. Teruelen desagertu zen anaia (EGB-058/019)

"Tercio Oriamendi"n eraman zuten anaia gerrara. Balaz zaurituta ikusi omen zuten lagunek, baina gero ezin izan zuten gorpuaren arrastorik aurkitu.

1.105. Militarrentzako garraio-lanetan (EGB-058/020)

Militarrek euren janari, munizio eta abarrak gurdietan garraiatzera behartzen zituzten. Baserritarrek txandaka egiten zuten garraio-lan hori.

1.106. Irina estraperloan (EGB-058/022)

Frontea Elgoibartik urrundu zenean, kupoa ordaindu beharra etorri zen. Garia ehotzera txartelarekin joan behar izaten ziren. Estraperloko irinarekin bide ezezagunetatik ibiltzen ziren.

1.107. Gerraren ondorio larriak (EGB-058/023)

Urtebeteren barruan, Josefak aita-amak eta anaia bat galdu zituen. Aita bere lursailetan egindako trintxerak ikustera joan zen, eta bertan zegoen bonba baten leherketaren ondorioz hil zen. Anaia gerran hil zen, eta ama ezbeharraren ondorioz. Gerratean auzotar asko hil ziren.

1.108. Ezkonberri eta zortzi lagun etxean (EGB-058/026)

Ezkondutuen zenean, Armueta baserrian hirugarren andrea izan zen, amaginarreba eta honen amarekin batera. Josefaren koinaturik gazteenak hiru urte zituen.

1.109. Aitagarrebaren larru-lanak (EGB-058/027)

Baserriko lan guztietan jarduten zuen Josefak. Aitagarrebak larrua lehortu eta "burterak" (gurdia uztartzeko hedeak) eta abarkak egiten zituen, ferietan saltzeko. Eguraldi txarra egiten zuenean, larru-lanak egiten zituen.

1.110. Lehen basoak hobeto zaintzen ziren (EGB-058/033)

Lehen basoetan, garoa biltzen zenean, ez zegoen ez ote ez larririk orain bezala. Hainbeste arbola beltzek bizipoza kentzen dutela dio Josefak. Auzotarren arteko harremana galdu egin dela dio. Lehen haritz, pago eta gaztainondoak ziren inguruko basoetako zuhaitzak.

1.111. Behiak jeztera kandela argiarekin (EGB-058/034)

Josefak beti ezagutu du ura sukaldean. Umetan, behiak jezteko, kandela argiarekin joaten zen laguntzaile. Petrolio-ontziko argia ere ezagutu du. Zazpi urte inguru zituenean jarri zuten argindarra etxean.

1.112. Argindarra errekatik (EGB-058/035)

32 urte zituenean, hiru etxeren artean errota eta zentral txiki bat eraiki zituzten, auzolanean. Zentralak ezin zuten eman arropak garbitzeko makina elikatzeko beste indar eta orduan lineako indarra jarri zuten. Zentralaren mantenua txandaka egiten zuten.

1.113. Uraskak eta lixiba (EGB-058/036)

Baserri bakoitzak bere uraska zuen arropa garbitzeko. Lixiba sutako hautsa eta erramuarekin egiten zuten. Ehunezko izarak zailak ziren astintzeko.

1.114. Erromeriak eta sagardotegiak (EGB-058/038)

Jaietako erromeriak ordu bi besterik ez zuten irauten. Galbuso baserriko soinu-joleak jaietan soina jotzen zuten Idotorbe (San Pedro) auzoan. Josefa Aiastiara (San Migel bailara) eta Maltzagako erromerietara joaten zen. Usatorre baserriko erromeria Josefak ez zuen ezagutu.

1.115. Bizitzeko ohitura zaharrak (EGB-058/041)

Lehen, baserrietako ateak beti irekita egoten ziren eta konfiantza eta laguntasun handia zegoen.

1.116. Umetatik nagusien lanak egiten (EGB-058/042)

Umetatik egunero joaten zen kalera esnea banatzera. Labesua egiten ere gaztetan hasi zen. 40 esne litro inguru eramaten zituen egunero kalera. Lapikoa beheko sutan egosten zen. Sagarrak parrillan erretzen zituen.

1.117. Eguneroko jatorduak (EGB-058/043)

Babarruna izaten zen ohiko bazkaria, okela zezina eta urdai apur batekin. Umetan ikasi zuen jatorduak prestatzen. Arratsaldean merienda egiten zuten, eta afaltzeko barazkiak patatekin eta esne-zopak hartzen zituzten. Gaztaina denboran gaztainak afaltzen zituzten.

1.118. Gosetean kaletarrak baserrietara tripa-alde lanera (EGB-058/044)

Gosetean kaletik etortzen zen jendea garia ebakitzera, tripa-alde lanera. Lapurretarik ez zen egoten, baina motzailekin erne ibiltzen ziren. Motzailei buruzko kontu batzuk azaltzen ditu.

1.119. Txikitatik bertsoarako zaletasuna (EGB-061/001)

Umetan hasi ziren anai-arrebak bertsoan. Aitak ez zien uzten; baina, hala ere, egiten zuten. Erromerian ezagutu zuen senarra; baina, ezkondu arte, etxean egin izan zuen lan.

1.120. Ondoko baserrian soldaduak (EGB-061/002)

Gerra iritsi zenean, gogoratzen da nola apurtu zituzten mendiko txabolak. Beraien etxean ez, baina ondoko baserrian egoten ziren soldaduak.

1.121. Eibartarrak "gorriak" ziren (EGB-063/001)

Eibartarrak "gorriak" ziren. 1959an Mitxelena eta Uztapide bertsoan Eibarren. Gaia: bata eibartar "gorria" eta bestea San Pedro, zeruko ateko zaindaria.

1.122. Sallobenten ez ihes egitea erabaki zuten baserritarrek (EGB-063/003)

1936ko irailaren 21, astelehenez, sartu ziren frankistak Elgoibarren. Sallobenten, meza ondoren gizonak erabaki zuten ez ihes egitea, bertan geratzea. Egunero egunkaria irakurtzen zuen baserritar batek eman zituen azalpenak.

1.123. Frankistak Azkaraten behera Elgoibarrera sartzen (EGB-063/004)

Bera ganadu zain zegoen frankistak Azkoitia aldetik sartu zirenean. 13 urte zituen. Ez zegoen pinudirik garai hartan. Etxera etorri, izara zuria leihoan ipini eta begira geratu ziren. Milizianoak ihesi ikusten zituzten. Esaten zuten teniente bat eta azkarregi sartu zirela Elgoibarren eta arazoak izan zituztela. Astelehena zen.

1.124. Ama eta arreba frontea zeharkatzen (EGB-063/005)

Arreba gazteagoa Bilbon zegoen eta ama bila joan zitzaion trenez. Alaba hartu eta mendiz mendi zeharkatu zuten frontea, Arrate aldetik, komeria ugariren ondoren. Martitzena zen. Emakume bat horrela hil ei zuten.

1.125. Gerra zazpi hilabetez geldi Elgoibarren (EGB-063/006)

Erregearen familiako bat Morkaikon hil zen. Gerra zazpi hilabete geldi egon zen. Soldaduak kuartelatuta auzoan. Karakaten kanoiak zeuden. Bonbardatzera zihoazen hegazkinak ikusten zituzten pasatzen. Burdinazko Gerrikoaz.

1.126. Gerrikoaren koloreagatik hil zuten mutilaren istorioa (EGB-063/011)

Gerrikoaren koloreagatik hil zuten mutilaren istorioa. Handik urte askora, hondeamakinaz lurra harrotzen zebiltzala baserri baten ondoan, hezurrak topatu zituzten, gerrikoarekin batera. Horrela identifikatu zuten.

1.127. "Ama, hau da zuk esaten zenduan gure aitta?" (EGB-068/003)

Bera umetxoa zela joan zen aita gerrara. Itzuli zenean, Agurnek esan zion: "Ama, hau da zuk esaten zenduan gure aitta?". Bizi guztian gogoan geratu zitzaion aitari. Oso gogorra egin zitzaion. Natik oso memoria ona du, Agurnek ez.

1.128. Maistrak jipoia tinta botatzeagatik (EGB-068/004)

Nati hiru urterekin hasi zen Sallobenteko auzo eskolan. Lepoan erabiltzen zuten umeez. Lehenengo egunean tinta bota zuen soinekoan eta maistrak jipoia eman zion. Hiketari buruzko komentarioak.

1.129. Ardiak lotura handia dira (EGB-068/006)

Bost ahizpa dira, anaiarik ez. Behiak eta ardiak zituzten; ardiek asko lotzen zuten. Kendu zituztenean poz handia hartu zuten. Saldu zituzteneko anekdota.

1.130. Eskola erretratua (EGB-068/014)

Eskolako argazki baten aurreko komentarioak. Tarteka hika berba egiten dute.

1.131. Nati Altzolako bainuetxean zerbitzen (EGB-068/021)

Altzolako bainuetxean egon zen Nati jangelako buru gisa. Ezkontza-bazkari bat eskularri zuriekin zerbitzatu zuten. Harizko mantelak eta zilarrezko tresneria... oso dotorea zen dena. Entremesak, zopa, otarraina, legatz-buztana.. Aspertu egin zen eta Sigmara joan zen lanera.

1.132. Serorak zeraman elizako martxa (EGB-068/023)

Serora ezagutu zuten. Elizako ardura eramaten zuten serorek: argitakoa batu, mezak apuntatu... Luistarrak eta Mariaren Alabak. Dotore janzten ziren neskak zein mutilak elizara joateko. "Meza-txandia" deitzen zioten familiako batzuk meza batera joan eta besteak beste batera joateari.

1.133. Maistrak atzamar puntetan egurra Natiri (EGB-068/026)

"Rosarito" deitzen zion maistrak Agurneri. Gerora ere bai. Sallobenteko eskola argazkia. Zitala ei zen maistra baina hainbeste jende menderatzea ez zen erraza. Natiri makilaz eman zion behin behatz puntetan beste baten erruz.

1.134. Eskolako materiala, ikasketak eta lanak (EGB-068/029)

Liburuak eta mapak baziren eskolan. Gero bakoitzak "Entziklopedia" izaten zuen, Historia, Geografia, Historia Sagrada eta horrelako gaiekin. Mahaia, tintontzia eta luma. Josten ere ikasten zuten. Urtean behin herriko agintariak etortzen ziren eta saritxoak banatzen zituzten.

1.135. Zinea, dantza, eta ordurako etxera (EGB-068/036)

Kuruzetako erromeriara joaten ziren dantzara. Nobioa aurkitu aurretik, Elgoibarko berdura plazan egiten zen dantza. Nati dantzaldiaren aurretik zinera joaten zen. Gero bederatzi pieza jotzen zituzten plazan, eta gero saltaka baserrira, ordurako heltzeko. 4 km daude kaletik etxera. Hala ere pozik. Gelatxo-eta izaten ziren musikariak. Baltsak, pasodobleak, tangoak... jotzen zituzten eta trikitiak ere bai.

1.136. Nati Donostiara izebaren etxera oporrak pasatzera (EGB-068/037)

Agurne hogeita bost urterekin joan zen lehenengoz hondartzara. Nati umetan Donostiara joaten zen oporretan izebaren etxera eta han bainatzen zen lehengusinarekin bainu-jantziarekin. Agurneren alaba ere joaten zen. Behin ahatetxoa oparitu zioten honi, etxera ekarri eta berehala hil zen.

1.137. Amak oparitutako ipuin-liburuak (EGB-068/042)

Agurnek Eibartik ekartzen zituen ipuinak. Amak ere bazuen liburuak erosteko ohitura, liburu euskaldunak. Gogoan dute haren ipuin liburuak. Kaxoi handi bat ipuinez beteta zuten etxean; pena dute bota egin zituztelako.

1.138. Agurne damaskinatuan lanean (EGB-068/044)

Damaskinatua zer den azaltzen du. Berak grabatutako dortoka-erloju bat erakusten du. Eibar zen damaskinatuaren zentroa. Gero Toledon hasi ziren, baina makinaz egiten zuten lan. Urrezko hari bat ezarriz egiten da lan. Prozesua azaltzen du. Auzoan ikasi zuen eta gero bere kontura hasi zen. Kanpora saltzen zen gehiena.

1.139. 13 urterekin fabrikara lanera eta gau-eskolara (EGB-069/002)

Mojekin hasi zen eskolan, sei urterekin. Gero, eskola publikora 13 urte arte. 13 urterekin lanean, Arriola y Compañía, arotzeriarako makinak egiten zituzten. Gauean delineazioa ikastera joaten zen eskolara. Doitzailea (ajustadorea) izan da. 1953an Estarta y Ecnarro lantegira joan zen, eta han jardun zuen 1987an jubilatua zen arte.

1.140. Eibartik botatutako bonbek etxea hondatu (EGB-069/008)

Gerra denboran Eibartik bonbardatu zuten beren etxea, eta orduan Pako San Lorentzora joan zen senideen etxera. Aita Zumarragara joaten zen lanera. Bonbak hondatutako etxea konpontzen jarduten zuten tarteka. Konpondu zuten, eta han bizi izan zen 34 urte bete arte.

1.141. Soraluzeko baserri batera janari bila (EGB-069/011)

Gurasoak baserritarrak zituen eta horri esker jatekoa izaten zuten gose denbora hartan. Gainera, Soraluzeko baserri batera ("Asiolatza" Aseginolatza) joaten ziren astoarekin jenero bila. Ogi beltz gutxi jandakoa da. Amak taloak egiten zituen.

1.142. Babesleku naturalera bonben beldurrez (EGB-069/014)

Kalamuan zegoen frontea. Karakaten frankisten artilleria. Eibartik errepublikaren aldekoek kanoikadak botatzen zituzten, eta elgoibartarrak San Migeleko bidera joaten ziren babestera. Iluntzean bueltatzen ziren etxera. Inoiz etxean mahaipean ezkutatuta egoten ziren bonbak entzuten zirenean.

1.143. Eup!; berba subersiboa, Morkaiko, berriz, 'borbondarra' (EGB-069/017)

Eup!-etik 1941ean Eibarko Klub Deportiboan sartu ziren. Eup! mendi gailurrera heldutakoan egiten zen eupada edo oihua da. 1943an Morkaiko sortu zuten. Ez zieten Eup! ipintzen utzi, berba 'subersiboa' zelako. 'Morkaiko' proposatu zuten, mendi horretan gerra denboran borbondar bat hil zelako. Presidentetzarako Pio Etura proposatu zuten, baina ez zuten onartu ez zelako frankista. "Mutilado de guerra" bat jarri behar izan zuten.

1.144. Morkaiko Mendizale Elkarteko lehendakari (EGB-069/020)

Afrikan egon zen soldadu bi urtez. 1953an Morkaiko Mendizale Elkarteko lehendakari izatea proposatu zioten eta onartu egin zuen. Bederatzi lagun ziren bilera hartan. Gauza on asko egin zituzten. Hurrengo batzarrean 300 lagun bildu ziren. 1959ra arte jarraitu zuen. 1956an goi mendietako txangoak antolatzen hasi ziren. Juan San Martin eramaten zuten gidari moduan. Picos de Europa, Pirinioak eta abar bisitatzen hasi ziren.

1.145. Andeetako ikurrinagatik errepresioa, eta Mendi Federazioa desegin (EGB-069/021)

Morkaiko utzi eta mendian gogor ibiltzen hasi zen. 66an Andeetarako espedizioa egin zen Mendi Federazioen eskutik. Baina hango argazki batean ikurrina bat ikusi zuten poliziek, Feliu nafarrak egina. Gobernuaren errepresaliak hasi ziren, batzuk kartzelara, beste batzuk ihes egin behar..., eta Federazioa desegin egin zen. 68an, federazio probisional bat izendatu zen. Bera "delegado de zona costa" izendatu zuten. Hiru urte egin zituen eta mendi-taldeak asko ugaritu ziren epe horretan.

1.146. Pako Iriondo, Euskal Mendi Federazioko presidente (EGB-069/022)

Pako Euskal Mendi Federazioko (Federaciøn Vasco-Navarra) presidentetarako proposatu zuten 1971an. Lau hautagai ziren eta Pakok irabazi zuen diferentzia handiz Iruñean egin zen asanbladan.

1.147. Idazteko makinarik ez Federazioko egoitzan (EGB-069/023)

Lokal txiki bat hartu zuen Elgoibarren, hura zen "federazioko egoitza". Ezer gabe hasi zen. Ez zuen idazteko makinarik ere. Lagun batek uzten zion tarteka

Sigma lantegiko makina. 1971ean Bilbora joan zen federazioko paperak hartzera, eta karpetatxo bat eman zioten bakarrik, 25.000 pezetarekin batera. Epeka erosi zuten makina bat.

1.148. 'Pyrenaica' aldizkaria eta Loiola Irratiko mendi programa (EGB-069/024)

Kuota kontuak zuzendu zituzten. Pyrenaica aldizkaria berriz argitaratzen hasi ziren. Oso talde jatorra sortu zuten, tartean Juan San Martin, Lorente... 1976an utzi zuen federazioa, familia arazoengatik. Federazioa utzi eta gogor entrenatzen eta mendira asko joaten hasi zen. 1972an Loiola Irratia izan zen mendi programa bat egiten zuen lehen hedabidea.

1.149. Ez du kargurik izan nahi diru truke (EGB-069/025)

1986an berriz eskaini zioten Federazioko presidente izatea, eta Oñatin egindako batzarrean hartu zuen kargua. Futbol entrenatzaile izateko eskaintzari uko egin zion. Bere agintaldietan federatu kopuruak asko gora egin zuen. Diru fondo ona ere utzi zuen. Egindako zenbait gauza zerrendatzen ditu. Ez du kargurik izan nahi diru truke.

1.150. Federazioaren urrezko domina 1976an (EGB-069/026)

Lehenengo agintaldiaren akaberan, 1976an, urrezko domina eman zioten egindako lan onagatik. Odriozola zen Espainiako Federazioko presidente, ondo konpondu zen harekin.

1.151. Urtain eta Pako 1971ko kirolari gipuzkoar onenak (EGB-069/027)

Urtain eta Pako 1971ko kirolari gipuzkoar onenak izendatu zituen El Diario Vasco egunkariak. Beste hainbat omenaldi eta sari ere jaso du. Eusko Jaurlaritzarena, esaterako. Sari gisa jasotako bi makila eta argazkia erakutsi dizkigu.

1.152. Euskal Herria, mendizaleen paradisua (EGB-069/030)

Atzerriko mendizale ugari ekarri zituzten hitzaldietara. Euskal mendizaleetasunak izen handia izan du estatuan. Euskal Herria mendizaleen paradisua da, mendi ederrez inguratua dagoelako.

1.153. Euskal Herriko mendi-kirolariak, onenak (EGB-069/031)

Andeetako espedizioa oso ona izan zen. 80an igo zuten euskaldunek lehenbizikoz Everestera. Harrezkero federazio onena izan da. Juanito Oihartzabal, Iñurrategi Anaiak, Eduarne Pasaban eta abar gailurrean daude munduko mendi kirolarien artean.

1.154. Ez dakigu apreziatzen dauzkagun mendi zoragarriak (EGB-069/032)

Euskal Herrian mendi ikusgarriak daude, baina hemengo mendizale askok ez dituzte ezagutzen eta Alpeetara eta Himalaiara jotzen dute ia zuzenean. Hemengo mendiak izendatzen ditu. Durangaldeko mendiak dira beretzat entrenamendu lekurik onena Pirinioetara joateko.

1.155. Jendea zoratzen mendi zeharkaldiekin (EGB-069/034)

Morkaiko gaizki zebilen eta zuzendaritzan sartu zuten. Hainbat zeharkaldi antolatu zituzten: Hernio-Zarautz, Gatzaga-Urbia, San Donato... Berak joan behar izaten zuen gidari, inork ez zekielako biderik. Jendea zoratzen egoten zen. Joanito San Martinek erakutsi zion Degurixa. Joanitok gauza asko egin zuen arlo askotan.

1.156. Joanito San Martin, gizon ona eta jakintsua (EGB-069/036)

Joanito San Martin espeleologian asko ibili zen. San Martineko (Larra, Nafarroa) leize-zulo ikertzen parte hartu zuen. Oso artxibo eta biblioteka handia zuen. Askok ez zion hartutako libururik itzultzen. Euskal izenak ipintzen lagundu ohi zuen. Herriko euskara egin behar zela zioen, baina jende aurrean eta aldatzen zuen apur bat.

1.157. Mendiko arriskuak eta istripuak (EGB-070/002)

Mendiko arriskuei eta istripuei buruz hitz egiten du. Haitza dagoen lekuek zer arrisku duten, elurretan kranpoiekin ibiltzeak izaten dituen zailtasunak... aipatzen ditu. Mendiari errespetua izan behar zaiola dio.

1.158. Mendirako materiala (EGB-070/003)

Mendirako materialak zer-nolako bilakaera izan duen azaltzen du. Pakoren gazte denboran, material gutxi zegoen, eta pisu handiarekin ibiltzen ziren mendian. Mendiko botak non erosten zituen...

1.159. Mendi-lasterketei buruzko gogoeta (EGB-070/007)

Mendi-lasterketei buruzko gogoeta. Iriondo ez da lehiaren aldekoa. Xendazaletasuna, mendi-eskalada txapelketak... ditu hizpide.

1.160. Berezko erraztasuna marrazteko (EGB-071/005)

Berezkoa du marrazteko erraztasuna. Escuela de Artes y Oficios-en ibili zen urtebetez, Don Bernardo Ezenarrokekin, baina laminak kopiatu, besterik ez zuten egiten.

1.161. Hamabost urterekin tornura lanera (EGB-071/006)

Mekanika ikasi zuen, tornuan eta liman. Hamabost urterekin hasi zen lanean, Forjan. Tornua izan zen lehen lana. Oso teknika atzeratuak erabiltzen zituzten.

1.162. Ceutan soldadu (EGB-071/008)

Ziaran enpresan hasi zen 24 urterekin, soldadutzatik etorri berrian. 28 hilabete egin zituen soldadu, Ceutan. Bi anai joan ziren Ceutara, eta bera etxera bidali zuten denbora baino lehenago. Kapitainak begiko zuen karikaturak egiten zituelako.

1.163. Jarbe-n fresadorak eta rektifikadorak egiten (EGB-071/010)

Loiola fabrikara joan zen gero. Gero Arananera (Jarbe) 1950ean. 1951an ezkondu zen, 31 urterekin. Ez zen ezkontza-bidaiara joan. Rektifikadora bat nola lortu zuten martxan jartzea. Bakar-bakarrik zegoen bulegoan. Fresadorak ere egiten zituzten.

1.164. Pepe Arana, enpresario ona (EGB-071/011)

Ondo konpontzen zen ugazabarekin. Pepe Arana enpresari ona zen. Gernikan ikasita zegoen. Fresista ona izateko burua behar da.

1.165. JARBetik Geminisera (EGB-071/012)

Geminis-en trokelak egiteko fresadora bat egin zuen.

1.166. Geminisetik Eibarrera, Goitira eta Danok Bat-era (EGB-071/013)

Eibarren ibili zen lanean pare bat urtez. Gero Goiti-ra etorri zen. Prentsen despiezeak egiten zituzten. Gero, Danok Bat-en jardun zuen, nahiz eta berez Goiti-ko langilea izaten jarraitu. Egin zuten makina bati buruz.

1.167. Danobat-en jubilatuta arte (EGB-071/014)

Barinagako kooperatiba batera bidali nahi izan zuten lan urrialdi batean, baina azkenik Elgoibarren geratzea lortu zuen. Gero Danobat-en ibili zen jubilatuta arte. Despedidako bazkaria ikaragarria izan zen.

1.168. Adiskideei laguntza teknikoa ematen (EGB-071/015)

Etxean ez du planorik egin izan beste tailerrentzat. Baina zenbait adiskideri lagundu bai. Horietako kasu bat kontaktzen du.

1.169. Jubilatuta gero, Danok Bat-entzat beharreen zortzi urtez (EGB-071/016)

65 urterekin jubilatuta zen. Jubilatuta gero, Danok Batentzat jardun zuen beharreen zortzi urtez. Gordeta dauzka planoaketa.

1.170. "Txinoen lana" Txinarako (EGB-071/018)

Azkeneko lana Txinara joandako enpresa batentzat egin zuen. Makina handi baten marrazkiak egin zituen. Etxeko sala planoz josita izan zuen. "Txinoen lana" izan ei zen.

1.171. Oraindik ere hainbat marrazki-lan egiten du herrian (EGB-071/019)

Gaur egun ere Yulenek hainbat lan egiten du marrazkigintzan Elgoibarren.

1.172. Norberak egin behar kalkuluak (EGB-071/021)

Teknologiaren garapena ezagutu du. Lehen norberak atera behar zituen kalkulu guztiak. Argibide teknikoak. Lehen ikusi eta egin egiten zituzten, inork erakutsi barik.

1.173. Makinak kopiatu, hobetu eta asmatu (EGB-071/022)

Kopiatu egin izan da teknologia hemen, baina hobetu ere bai. Honen adibide bat ematen du. Eta norberak asmatu ere bai. Makinak berak erakusten ei du. Rafael Uribek eta Jose Aranak sortu zuten JARBE.

1.174. Aldakuntza tekniko etengabea (EGB-071/023)

Yulenek rektifikadorei armazoia aldatu zien. Bakarrik zegoen bulegoan. Gustura egiten zuen beharra. Kartaboia, takigrafoa eta abar ezagutu ditu. Teknika etengabe aldatu da. Ordenadorera ez da heldu.

1.175. JARBE makinak lanbide eskoletan (EGB-071/024)

Brasilera joan zen Yulenen ugazaba negozio kontuengatik. Fresadora handiagoak komeni zirela abisatu zuen eta bueltan etorri orduko Yulenek eginda zuen makina berria. Makina mota hori asko saldu zen. Eskoletarako JARBE makinak erabiltzen ziren.

1.176. Oso familia erlijiosoa (EGB-073/006)

Oso giro erlijiosoa familian; fanatismotik gertu ama. Oñatitik Arantzazura oinez joaten ziren ortozik, Durangotik Urkiolara ere bai. Dena dela, amaren erlijiotasunak bazuen baserriko ukitu bat; ispilua ezin zen apurtu inola ere, adibidez. Arantzazuko Ama Birjina dela eta, Luisen eta amaren arteko gorabehera.

1.177. "Viva Franco, Viva Mola, Arriba España!" (EGB-073/007)

Irakasletza ikasten ari den bilobak galdeketa egin zion txikitako eskolaz. Satur maistrarekin hasi zen aurre eskolan. Eskola publikoetan Roarekin gero. "Viva Franco, Viva Mola, Arriba España!" esan behar zuten eskua jasota eskolan sartzean. Maisuak etxetik janaria edo zerbait ekartzeko agindu zien. Aita haserretu egin zen, baina ematen zion maisuarentzako tabakoa.

1.178. "Bekario" marianistetan (EGB-073/008)

Zortzi urtetik 11 urtera maistrarekin ibili zen eskolan. Gero Marianistetan sartu zen "bekario" gisa, ez zutelako ordaintzeko dirurik. Bizi guztirako lotsa izan da beretzat, gelen eta komunen garbiketa bekarioek egin behar izaten zuten, eta beste hainbat lan ere bai. Gero seme-alabek "bekak" eskatu behar zituztela adierazi zietenean, izutu egin zen, ezin baitzuen izena entzun ere egin.

1.179. 13 urterekin eskolatik irten eta "pintxe" gisa fabrikara (EGB-073/010)

Eskolan ondo zebilen, baina aitak 13 urterekin lanera bidali zuen. Buzoa erosi zuen, eta jantzi zuenean, ze lotsa! Aranarenean hasi zen lanean "pintxe" gisa. Errekaduak egitea, ura ekartzea eta tailerra garbitzea ziren bere lanak.

1.180. Sigman delineatzaile (EGB-073/011)

Pintxe izatetik "aprendiz" izatera igaro zen hurrengo urtean. Eskoletan apuntatu zen trigonometria eta marrazkigintza ikasteko. Hamazazpi urterekin Sigmako bulego teknikorako hartu zuten delineatzaile gisa. Posta bidezko hainbat ikastaro egin zituen. Hamazazpi urtetik hogeita hamar urte arte ibili zen Sigman.

1.181. Prezisioko makinak egiteko proiektuan gerente (EGB-073/013)

ACMEk prezisioko makinak egiteko beste proiektu bat abiatu zuen eta Luis jarri zuen gerente. Genevara joan ziren makinak ikustera eta teknika berriak ikastera. Han ikasitako hainbat gauza beren lantegian aplikatu zituzten.

1.182. Enpresa zuzendaritzako titulua (EGB-073/016)

Bera ez zen espezialista ezertan, baina gerentzian ibili zen gustura. Ikuspegi orokorra izatea gustatzen zaio, ez da konformatzen parte batekin. Zaragozan enpresa zuzendaritza ikasteko aukera eman zioten, eta bost urtean jardunez eta asteburuetan-eta ikasiz, lortu zuen titulua, duen bakarra

1.183. Arrasateko Udalerako azterketak (EGB-073/017)

Titulu eta ikasketa horiei esker aurkitu zuen hurrengo lana. 83an krisi gogorra etorri zen eta beste lan bat bilatu beharrean aurkitu zen. Arrasateko Udaleko gerentzia lan baterako aukeraketa prozesua nolakoa izan zen kontatzen du. Oso gogorra iruditu zitzaion lehen testa. Aurrez aurrekoa ondo prestatuta eraman zuen eta bera aukeratu zuten askoren artean. Hamabost urte egin zituen lan horretan.

1.184. Irakurzaletasun handia gazte-gaztetatik (EGB-073/019)

Etxea erre zitzaian hogeitau urte zituela. Justu-justu salbatu zituen maite zituen liburuak eta paperak. Egunero irakurtzen du oherakoan gazte-gaztetatik. Beti irakurri du asko.

1.185. Testamentu Zaharreen dago pertsonari pasatu lekiokoen guztia (EGB-073/021)

National Geographic hartzen du hileria, historia sailekoa. Egipto eta Mesopotamia ditu gogokoen. Biblia asko maite du, Testamentu Zaharra, batik bat. Hango istorioak irakurrita txundituta geratzen zen. Dabid-en historia harrigarriaz. Munduaren konjuntoko ikuspegia ematen ei du Bibliak.

1.186. Arkitektura barrokoa gogoko (EGB-073/022)

Arkitektura, Pintura eta Eskultura, hiru sailetan banatuta du artea. Ordenagailua lehendabizi bete egiten du eta gero ikusi. Arkitekturan barrokoa gustatzen zaio asko. Innsbruck-eko elizak eragin zion zirrara.

1.187. Oporretara penaz, lagunak auzoan geratzen zirelako (EGB-076/003)

Ume sasoi Aiestia (San Migel) auzoan. Euren ez zen baserria eta abererik ez zuten, oporretan kanpora joateko aukera izaten zuten. Auzoko lagunak eta lehengusuak, berriz, auzoan geratzen ziren, eta eurak negarrez joaten ei ziren oporretara. 14-15 urterekin Elgoibarrera jaisten hasi ziren. Eskolara ere Elgoibarrera jaisten ziren.

1.188. Aiastia (San Migel) auzoa; umetako jolasak (EGB-076/004)

Aiastia (San Migel) auzoa nolakoa den. Auzoko ume guztiak, adin desberdinetakoak, elkarrekin ibiltzen ziren jolasean. Berak beti futboleak jokatu nahi izaten zuen. Ezkutaketan zebiltzanean, eremu handia hartzen zuten eta zaila izaten zen jendea aurkitzea.

1.189. Kalekoentzat "kaxero" eta auzokoentzat "kalekume" (EGB-076/005)

Inguru baserritarrean bizi arren, berak ez du baserriko lanekin harremanik izan eta erdibideko zerbait izan dela dio. Umetan eskolan "kaxero" deitzen zioten eta auzoan "kalekume". Ez ziren burla gogorrak izaten, baina orduan ere bazegoen kaletar eta baserritarren arteko pike-giro pixka bat.

1.190. Elgoibarko larunbat arratsaldeko parrandak (EGB-076/007)

Saso baten Elgoibarren larunbat arratsaldeetan egoten zen giroaz oroitzapen onak ditu. Inguru guztietako gazteak biltzen ziren. San Frantzisko kalean ibiltzen ziren gehien.

1.191. Elgoibarko gazteen lehenengo irteera: Mutrikuko jaietara (EGB-076/009)

Elgoibartarrentzat beste herri batera egiten zen lehenengo irteera Mutrikuko jaietara izaten zen. Baina berari gurasoek ez omen zioten utzi lehen aldian. Oraindik ez du ulertzen zergatik, izan ere gurasoek nahikoa askatasun ematen zioten. Inguruko beste jai batzuetara ere joaten ziren. Gaztetako ilusioa. Elgoibarren parranda egindakoan gurasoek herrian zuten pisuan geratzen zen lotan. Hurrengo goizean 11etarako mezara joan behar.

1.192. Meza-laguntzaile izateko zain (EGB-076/010)

Igandero goizeko 11etako mezara. Meza-laguntzaile lanetan ere ibili zen urte askoan; 100 pezeta ematen zizkieten. Diru harekin kas-a eta "pazientziak" (gailetak) erosten zituzten. Edatekoa auzoko elkartean erosten zuten eta gailetak amamak auzoan izan zuen bentan. Bi meza-laguntzaile egoten ziren. Behin adin batera iritsitakoan gaztegoek hartzen zuten erreleboa. Txanda iristeko zain egoten ziren. Gabonetan jaiotza ipintzeko goroldio bila ere joaten ziren mendi aldera.

1.193. Inguruko gazteak Joxin parrokoarekin Madrilera (EGB-076/011)

Benantzio parrokoa. Aurretik Joxin izeneko parroko gazte bat egon zen. Harekin Madrilera joan ziren Aiastiako (San Migeleko) eta Idotorbeko (San Pedroko) gazte guztiak, 5-6 urteko umeak ere bai tartean. Berarentzat Donostiara joan eta hango argiak ikustea gauza handia baldin bazen, Madrilekoa New Yorkera joatea bezalakoa izan omen zen.

1.194. Aiastia (San Migel) eta Idotorbe (San Pedro) auzokoen arteko pikea (EGB-076/013)

Idotorbe (San Pedro) auzokoekin beti izan dute harremana. Umetan, gainera, pike tontoak izaten dituztela dio: zein auzo zegoen altuago, zein baserri zegoen altuago, bateko eta besteko frontoien arteko konparaketa, bat...

Elgoibarko gainontzeko auzoekin ez zuten ia harremanik. Kristau Ikasbideko umeak Idotorben batzen ziren, eta eurak mendiz mendi joaten ziren.

1.195. Umetatik baloiari lotuta; Errealeko infantiletara jauzia (EGB-076/014)

Umetako oroitzapen onenak baloiari lotutakoak direla dio. Askotan bakar-bakarrak ibiltzen zen baloiarekin jolasean. 12-13 urterekin Elgoibarren hasi zen jokatzeko federatuta eta 14rekin Errealera eraman zuten, infantiletara. Ander Arantzeta eta Iker Ajuriagerra eibartarrekin batera joaten zen entrenamenduetara, astean bi aldiz.

1.196. Bihotzeko arazoak eta Espainiako selekzioaren deia (EGB-076/015)

Umetan bihotzetik operatu zuten. Eta arazo horren ondorioz, Errealean infantiletan zebilela, medikuek esan zioten ezingo zela profesional mailara pasa. Kolpe handia izan zen. Berriz Elgoibarrera itzuli zen, kadeteetara. Han zebilela, Espainiako selekzioak deitu zion 15 urtez azpikoekin jokatzeko. Wembleyn jokatu zuten Ingalaterraren kontra. Izugarriko esperientzia izan zen. Prentsari esker albistea zabaldu zen eta Erreala berriz harremanetan jarri zen berarekin. Berriz azterketa medikuak egin eta ordukoan ondo atera zen.

1.197. Espainiako selekzioarekin Wembleyn jokatzeko, 15 urtez azpikoetan (EGB-076/016)

Bi esperientziak izan ziren onak: 14 urterekin Errealera joatea eta Wembleyn jokatzeko Espainiako selekzioarekin, baina azken hori izugarria zen. Gainera, kontuan izan behar da berak Elgoibarren jokatzeko zuela orduan. Selekzioan Eibarko Ander Arantzeta jokatu zuen defentsa postuan, berarekin batera. Iker Casillasen debuta ere orduan izan omen zen, baina Errealeko atezainaren ordezkari gisa.

1.198. Gora igotzeko uste gabe futbolean (EGB-076/017)

12 urterekin Elgoibar Taldean futbolean hasi zenean, ez zuen buruan Errealera joatea. Halakorik gerta zitekeenik burutik pasa ere ez zitzaion egiten. Lehen desberdinak ziren kontuak. Orain helburu horrekin ibiltzen dira gaztetxoak.

1.199. Futbol zelaian hastean futbolarekin zuen gozamena galdu (EGB-076/018)

Futboleko auzoan edo ikastolan aritzea gustatzen zitzaion gehien. Futbol zelaian sartutakoan gauzak aldatu egiten dira, han entrenatzaile bat duzulako, presioa... 14 urtetik aurrera jada ez zuela futbolarekin dibertsio handirik lortu dio.

1.200. Futboleko oinetakoetan aldaketa handirik ez (EGB-076/020)

Hogei urtean futboleko materiala ez dela hainbeste aldatu uste du. Nahiz eta aldaketak egon diren, oraindik ere garai bateko Adidas markako "World Cup" oinetakoak nahi izaten omen dituzten futbolariek.

1.201. Errealekin debuta Atletico de Madrid-en kontra (EGB-076/021)

19 urterekin Errealekin debutatu zuen. Clemente zen orduko entrenatzailea. Atletico de Madrid-en kontra jokatu zuten. Berak zaindu beharreko jokalaririk

holandarrarekin tira-bira batzuk izan zituen eta 70. minutuan txartel gorriarekin kalera bota zuten.

1.202. Errealean jokatzearen erantzukizunak gainezka egin zion (EGB-076/022)

Errealearekin jokatzeko hasi zen lehen urtean partida gehienetan jokatu zuen titular moduan. 3-4 urte egin zituen guztira eta pixkanaka gero eta gutxiago jokatzeko hasi zen. Ilusioa galdu zuen. Ez dio errua inori botatzen. Bera baino hobeak zeudelako geratzen zela jokatu gabe uste du. Lehenengo maila handiegi geratu zitzaioela eta gazteegi harrapatu zuela uste du. Erantzukizun handia zen. Prentsa ondo jokatzeko zuzenean bakarrik jarraitzen zuen.

1.203. Rayo Vallecanora, 2.B mailara; Madrilen kezka berriak (EGB-076/024)

Errealek utzita Aljiciras-en jokatu ostean, Madrilerara joan zen Rayo Vallecanon jokatzera, bigarren B mailan. Sei hilabetean 1go mailatik 2.Bra pasa zen eta aldaketa handia izan arren, ondo eraman zuela dio. Madrilerara joateak begiak ireki zitzaizkion eta beste gauza batzuetan hasi zen: antzerkia ikasi, irakurri... Futbolaz pentsatzeari utzi zion. Baina 32 urtera arte jarraitu zuen futboleantzen. Zein taldeetan jokatu zuen. Lemoara joan zenean pilak jarri beharra zuela ikusi zuen. Eta futboleantzen zentratu zen berriro.

1.204. Futbolaren amaiera Beasainen; monologoetara eta telebistara jauzia (EGB-076/025)

Azken futbol taldea Beasain izan zuen. Ordurako monologoak egiten hasita zegoen, eta bi lanak ez zituen oso bateragarriak. Horregatik taldearekin hitz egin zuen aurrez. Han zebilela, telebistara jauzi egiteko aukera sortu zitzaion eta futbola utzi egin zuen. Futbolariantzen ez da erraza izaten futbola uztea, baina berak erraz egin zuen, gehiago gustatzen zitzaion lan betar pasa zelako.

1.205. Arconada zen bere idoloa (EGB-076/027)

Umetan Arconada zen bere idoloa eta atezain izatea nahi izaten zuen. Errealearen garaipen onenak ez zituen ezagutu, baina Arconadaren geldialdiak gogoan ditu.

1.206. Madrilen antzerki-eskolan hasi zen (EGB-076/028)

24 urte ingururekin Madrilerara joan zenean lehentasunak aldatzen hasi zitzaizkion, baina bizimodua ateratzeko futbolaren beharra zuela konturatu zen eta berriz futboleantzen zentratu zen. Umetan bertsoak idazten eta trikitia jotzen ibili bazen ere, ez zuen bestelako loturarik kulturarekin. Berarentzat aldaketa handia izan zen irakurtzen eta antzerki-eskolan hastea. Obra bat prestatu zuten eta ikasturte bukaeran antzeztu egin zuten. Frantses baten papera tokatu zitzaion.

1.207. Gitarra jotzen hasiera; heavy-tik pop-era aldaketa (EGB-076/029)

Errealean ibili zen azken urtean gitarra elektrikoa jotzen ikasten hasi zen. Musika heavy-a gustatzen zitzaioelako hasi zen, baina pixkanaka pop-era hurbildu zen. Madrilen zegoela, Mikel Urdangarinen kontzertu batera joan zen eta kontzertu bukaeran hura agurtzera joan zen. Harreman hartatik etorri zen musika estilo berrietarako zaletasuna. Aurretik Su ta Gar, Iron Maiden eta Metalica entzuten zituen.

1.208. Gitarrarekin kantak sortzen hasi zen (EGB-076/030)

Akorde batzuk elkartuta kantak sortzeko gaitasuna zuela konturatu zen. 14 kanta inguru prestatu zituenean jende aurrean jotzeari ekin zion. 2010ean eman zuen lehen kontzertua. Kantak sortzearen inguruko kontuak.

1.209. Presio eta erantzukizun desberdina futbol zelaian eta agertokian (EGB-076/031)

Berarentzat ez da presio eta erantzukizun bera sortzen futbol zelaian jokatzen edo taula gainean kantuan edo monologoak egiten. Futboleko sufritu egiten zuen presioa handiegia zelako. Taula gainean, berriz, neurriko presioa eta erantzukizuna sentitzen du eta gozatu egiten du.

1.210. Monologoaren hasiera (EGB-076/033)

Monologoekin nola hasi zen. Kontzertu batean, aurrez prestatu gabe, kanten inguruko azalpenak ematen hasi zen era barregarrian eta jendeari gustatu egin zitzaioala konturatu zen. Hurrengo kontzertuan gauza bera egin zuen, baina gehiago esajeratuz. Orduan konturatu zen jendea gusturago zegoela kontuak entzuten kantak entzuten baino. Lehenbiziko monologoan futbol-jokalari gisa bizitako bizipenak kontatzen ditu eta erraz sortu zuen. Bigarren monologoa idazten ari dela, baina ez dela erraza dio.

1.211. Kantak eta monologoak hasieran gaztelaniaz (EGB-076/034)

Van Poppel taldearekin disko bat atera zuen eta kantak gaztelaniaz daude. Garai hartan Zamoran jokatzen zuen eta neska-laguna bertakoa zuenez, naturalki horrela atera zitzaizkion. Baina euskarazko kantak ere sortzen ari da. Lehenengo monologoa ere gaztelaniaz sortu zuen, gaztelaniaz bizitako egoeren berri ematen zuelako eta euskaraz umorerik egin ezinaren beldur. Gerora euskaraz ere hasi zen, umorea berdin-berdin egin zitekeela ikusirik.

1.212. Bere euskararen egindako monologoetan erosoan (EGB-076/035)

Bizkaiko herrietan egiten omen ditu erosoan monologoak bere etxeko euskara erabili dezakeelako. Euskara batuak baino naturaltasun handiagoa ematen duela uste du. Gainontzeko herrietan ere erabiltzen du Elgoibarko euskara, baina beti euskara batura gehiago hurbiltzen saiatzen da eta ez da hain eroso sentitzen.

1.213. Telebistan euskara batura jauzia (EGB-076/037)

Euskara batua ikastolan ikasi zuen, baina gero ez du inorekin erabili izan. Orain Etb-n lanean hasi da eta orduan ikasitako aditzak ondo datozkiola dio. Zuzena ikusten du telebista publikoan batuan egitea. Telebistan bere helburuetako bat da euskara batuan bere euskalkian bezain eroso eta natural sentitzea. Bere monologoetan berak erabakitzen du herri bakoitzean ze euskara erabili.

1.214. `Tumatxak´ saioko aurkezle (EGB-076/039)

Orio Produkzioak-etik deitu zioten telebistarako `Tumatxak´ saioka egiteko. Ez zuen pentsatzen telebistara jauzirik egingo zuenik. `Tumatxak´ saioko elkarrizketak egin ahal izatea zorte handia izan zela uste du. Gauza guztietatik Niko Etxartekin abestea da gehien gustatu zitzaiona.

1.215. `Hizkamizka´ lehiaketako aurkezle (EGB-076/040)

`Hizkamizka´ lehiaketa aurkezteko casting-erako deitu zioten eta `Tumatxak´ saioarekin ari zenez, oso lasai joan omen zen. Hasier Etxeberria zen saioaren arduraduna. Urte eta erdiz aurkeztu zuen lehiaketa. Orduan lan egin zuen lehenengo aldiz plato batean.

1.216. `Herri txiki infernu handi´ saioa (EGB-076/042)

`Herri txiki infernu handi´ saioarekin diharduela kontaktzen du. Aurreko beste bi saioetan gustura ibili zen arren, saio honekin lortu duela naturaltasunik handiena uste du. Saioan bizi izan duen esperientzia. Herri desberdinetako pertsona anonimoak protagonista bihurtzeak hunkitu egiten omen du. Aurrelan bat egin behar izaten da jendea kamera aurrean azaltzeko konbentzitzeko.

1.217. Etorkizuna monologoetan (EGB-076/043)

Telebista gustatzen zaio baina etorkizuna monologoetan ikusten du. `Hiru´ izeneko antzezlanean ere badiharduela dio, Txalo Produkzioak deituta. Badaezpada ez du baztertzen inoiz burutik pasa izan zaion kirol esatari lana.

1.218. Euskararen ibilbidea (EGB-076/045)

Futbola gaztelaniaz bizi izan du, bai kanpoan eta baita Euskal Herrian ere. Errealean erabiltzen zuen euskara gehixeago, baina han ere entrenatzaileak gaztelaniaz egin behar, denek ulertzeko. Aiastia (San Migel) auzoan bizi izan du euskara naturaltasunez. Orain euskararantz hurbildu da berriz ere oraingo lanari esker.

1.219. Aiastia (San Migel) auzoan hika (EGB-076/046)

Aiastia (San Migel) auzoan hika hitz egiten du. Handik kanpora oso gutxi. Elgoibarren kaleko gazteek orokorrean ez dakitela hika uste du. Auzoan ere ez daki gazteagoek ikasiko ote duten, nahiz eta beraiek hika hitz egiten dieten. Auzoan, hika hitz egiteaz aparte, espresioak, tonua eta beste hainbat gauza ere aldatzen direla uste du.

1.220. Zaharragoi eta neskei ez die hika egin izan (EGB-076/047)

Aiastia auzora joaten denean hango lehengusu eta lagunekin hika hitz egiten du automatikoki. Zaharragoi ez die inoiz hika hitz egin eta neskei ere ez. Halaxe jaso dute ohitura, izan ere aitatik berari hika hitz egiten dio, baina bere arrebari zuka. Amak bere ahizpekin hika hitz egiten omen du.

1.221. Hikaren gorabeherak (EGB-076/048)

Auzotik kanpora ez du asko egin izan hika. Gainera, hika asko hitz egiten den herrietan gertatu izan zaio bertakoen hika egiten hastea, eta hori ez du gustuko.

1.222. Sare sozialekin harremana (EGB-076/051)

Sare sozialak (facebook eta twitter) propaganda egiteko erabiltzen ditu batez ere, baina tarteka bere konturen bat ere kontaktzen du jarraitzaileentzat. Hala ere, gero eta gehiago kostatzen omen zaio ezagutzen ez duen jendeari bere biziaren berri ematea. Facebook gehiago erabiltzen du kontuak kontatzeko; twitter, berriz, bere emanaldien berri emateko soilik. Bloga ere badu, baina alde batera lagata omen dauka, ez duelako asmatzen bertan gauzak nola azaldu naturaltasunez.

1.223. Tantoa galtzen zuenari "a fueras!" (EGB-091/002)

Jolasean tantoa galtzen zuena, kanpoan geratzen zen. "A fueras!" esaten zuten.

1.224. Jolasetako zigorra, atzamarka egitea (EGB-091/004)

Pilotan edo futboleko jolasterakoan akatsen bat eginez gero, zigorra ematen zieten elkarri. Eskuetan atzamarka egitea izaten zen.

1.225. Sakamanteskasen mehatxuak (EGB-091/008)

Sakamanteskasen istorioak kontaktzen zizkioten etxean.

1.226. "Primera, segunda, tercera"ka (EGB-091/014)

"Primera, segunda, tercera..." jolasa deskribatzen du. Lurrez betetako kaxatxo batekin jolasten zuten.

1.227. Dama jolasa (EGB-091/016)

Dametan jolasten zuten. Ohol bati kartoizko koloretako pusketak itsasten zizkioten. Irabazten zuena nagusi izaten zen.

1.228. Pilotan "a las afueras"ka (EGB-091/017)

Pilotan "a las afueras" jolasten zuten. Plazan zebiltzan lagunak hasten ziren eta huts egiten zuena kalera joaten zen. Elgoibarko pilotaririk onenek buruz burukoa jokatu zutenekoa kontaktzen du.

1.229. Lapurretan jolasa (EGB-091/018)

Lapurretan jolasa. Plaza Txikian etxe zahar bat zegoen eta hara gora joaten zena ausarta zela esaten zuten.

1.230. Umetako kanta (EGB-091/019)

Kantu bat abesten du.

1.231. Mendira joaten zireneko kanta (EGB-091/021)

Mendira joaten zirenean kantatzen zuten kantua.

1.232. Ogia etxera ekartzea delitu (EGB-091/023)

Bazkalorduan hamabost elkartzen ziren eta ogi gutxi izaten zuten. Hiru anai Berriatura joan ziren eta hiru ogi opil handi erosi zituzten. Anaietako batek sorbalda apurtu zuen txakur batek jota. Guardia Zibilak urrunera ikusi zituenean, ogiz betetako zakua sasi artera bota zuten. Etxean gertakizuna kontatutakoan, bizikletak hartu eta berriz ere ogi haren bila joan ziren.

1.233. Nicetoren pilotak (EGB-091/027)

Nicetok pilotak egiten zituen: kortxo bat borobildu, goma pusketan batekin inguratu eta artilearekin batu. Nola bukatzen zituen kontatzen du: inoiz larrua jartzen ziren gainetik eta seboa ematen zioten.

1.234. Plaza Txikian kaniketan (EGB-091/028)

Plaza Txikian kaniketan nola jolasten zuten kontatzen du.

1.235. Banderaren jolasa (EGB-091/029)

Banderaren jolasa deskribatzen du.

1.236. Igerian eta saltoka errekan (EGB-091/032)

Igerian eta saltoka ibiltzen ziren errekan. Loinak hartzen zituzten. Barbuak ere hartzen zituzten.

1.237. Gerragatik ebakuatuta (EGB-092/001)

Hamaika urte zituela, gerra etorri zen eta etxetik ebakuatuta zituzten. Zazpi hilabete etxetik kanpo pasatu zituzten.

1.238. Poto-zaharka (EGB-092/002)

Bere aita siestan zegoen denboran eta euria ari zuenean egiten zuten jolas. Poto-zaharka jolasten zuten. Saria intxaurrak izaten ziren.

1.239. Atxuntxurre eta afariketan (EGB-092/004)

Atxuntxurre jolasean nola aritzen ziren kontatzen du. Katilu ipurdiekin afariketan aritzen ziren.

1.240. Pilotan eta aponetan (EGB-092/005)

Norbaitek pilota galdu eta topatzen bazuten, huraxe gordetzen zuten ondo. Aponetan ere jarduten zuten pilotarekin.

1.241. Etxeberriko eskolan (EGB-092/006)

Gerragatik zazpi hilabete kanpoan egin eta etxera etorritakoan, Etxeberriko eskolara joaten hasi ziren. Aurretik nora joaten ziren kontatzen du. Mutilak eta neskek gela banatan egoten ziren. Erdaraz egin behar izaten zuten. Maximo eta Flora ziren irakasleak.

1.242. Umetako lan eta bihurrikeriak (EGB-092/008)

Umeek lan asko egiten zuten baserrian. Itulan aritzen ziren aitarekin. Gaztetxoak zazpietakoa mezetara joaten ziren eta bederatzietakora ama. Orduan aprobetxatzen zuten jolaserako eta dantzarako.

1.243. Harrika lehian (EGB-092/009)

Harrika ibiltzen ziren etxe zahar bati, zein haraino helduko.

1.244. Sakamantekasen beldur (EGB-092/012)

Ezkutaketan, saltaka, harrapaketan... jolasten zuten. Sakamantekasi buruzkoekin beldurtzen zituzten. Josten ikastetik etxeratzen zirenean, eta zarataren bat entzun, sasi artera salto egiten zuten.

1.245. Gabon-gabonseta kanta (EGB-092/014)

"Gabon-gabonseta" kantaren zati bat kantatzen du.

1.246. Gabonetako jatorduak (EGB-092/015)

Gabonetan amamaren jatordu goxoak jaten zituzten. Menestra eta oiloa edo oilarra saltsan prestatzen zizkien.

1.247. Amamaren erdara xelebrea (EGB-092/017)

Guardia Zibilak baserrira etortzen zirenean, beldurrez egoten ziren. Bere amamari Etxeberrirako bidezidorra non zegoen galdetzen ziotenean, hauxe erantzuten zuen: "palo y palo, atajo", telefono posteei jarraitzeko esanez.

1.248. Birramamaren erdara xelebrea (EGB-092/018)

Birramamak Bilbon topo egin zuenean, nora zihoan galdetutakoan erantzuten ziena kontatzen du, erdara xelebrea.

1.249. Jostailuen gordelekua (EGB-092/020)

Aponak eta bestelako jolaserako gauzak ortuko horma batean gordetzen zituzten. Tortolosak gordetzeko poltsatxoak saguek jaten zizkieten.

1.250. Etxean egindako pilotak (EGB-092/021)

Umetan lan asko egin behar izaten zuten, behin hamar urte inguru izanda. Pilotan edozein paretetan ibiltzen ziren. Artilez eta trapuz egindakoak erabiltzen zituzten. Poto-zaharka ere pilota haiekin aritzen ziren. Bakoitzak berea izaten zuen.

1.251. Sakaponetan jolasean (EGB-093/003)

Sakaponetan aritzen ziren jolasean.

1.252. Kalean jolasean ere erdaraz (EGB-093/005)

Jolasak askotan erdaraz egiten zituzten. Euskaraz konfidantzakoekin bakarrik egiten zuten. Batek kontatzen du berak ez zuela jakin debekatua zegoenik.

1.253. Sakaponetan eta koloretako orratzekin (EGB-093/008)

Sakaponetan zela jolasten zuten kontatzen dute. Koloretako burua zuten orratzekin ere jolasten zuten.

1.254. Gerra garaian aitaren bila (EGB-093/009)

Frontea zegoela, atea jo zuten Guardia Zibilek hizlarietako baten etxean aitagatik galdezka. Trenbidea konpontzera eraman zuten. Gerra garaian ez zegoen eskolarik.

1.255. Norberak egindako pilotak (EGB-093/010)

Trapuekin pilotak egiten zituzten. Nola egiten zituzten kontatzen dute. Anekdotak bat kontatzen dute.

1.256. Sukaldeka (EGB-093/012)

Kozinetan jolasten zuten baserrietan. Ardi belarrari buruzkoak.

1.257. Txorro-morro-piko-taio-ke (EGB-093/013)

Txorro-morro-piko-kaio-ke jolasa nola zen kontatzen du.

1.258. Andandorrian edo txingor gainian (EGB-093/014)

Andandorrian jolasa azaltzen du. Txingor gainian ere esaten zioten.

1.259. Dantza txapelketak eta jazbana (EGB-093/016)

Dantzari aritzen ziren. Hizlarietako bat dantza txapelketetan ibiltzen zen anaiarekin. Amamak erakutsi zien. Eibartarrak trenez etortzen ziren Elgoibarrera dantzari egitera. Jazbana egoten zen. Anekdota bat kontatzen dute.

1.260. Pasma-belarra, pareta-belarra eta miura (EGB-093/018)

Sendabelarrak aipatzen ditu eta zertarako diren azaldu: pasmo-belarra, pareta-belarra eta miura.

1.261. Umetako hainbat jolas (EGB-093/021)

Esku-jolasen kanta zati bat. Zuhaitzetatik zintzilik ibiltzen ziren. Uztaiarekin ere aritzen ziren.

1.262. Ezkutaketan (EGB-093/022)

Ezkutaketan jolasari tximini-kolpeka eta Tres Navios esaten zieten. "Hemen dago" eta izena esaten zuten norbait harrapatutakoan. "Libre por mi" esaten zuten libratzeko.

1.263. Sakamantekasi beldur (EGB-093/026)

Sakamantekasekin beldurtzen zuten. Umeak eraman egiten zituela esaten zioten. Fernando Amezketarren kontuak ere kontatzen zizkioten hizlari bati.

1.264. Futbol partiduak ikusteko tranpak (EGB-093/028)

Hilariok futbolerako afizioa izan du. Gaztetan lasterketak egiten zituzten. Mendira ere asko joaten zen. Futbol partida baten inguruko pasadizoa kontatzen du. Partidak ikusteko egiten zituzten tranpak kontatzen ditu.

1.265. "Hator hator" eta jostailu denda (EGB-093/030)

"Hator hator" kantatzen dute. Kartoizko jostailuak egoten ziren. Bazegoen Elgoibarren jostailuak saltzen zituen denda bat. Tronpak edukitzen zituzten eta denetariko gauzak.

1.266. Eskola txikian euskaraz (EGB-094/003)

Eskola txikian ibili zen, euskaraz. Orain ere euskaraz bizi da. Ez da orduko jolasekin akordatzen, oso umea zen eta.

1.267. Txirrinbolan eta futbolean (EGB-094/005)

Umetako jolasak: txirrinbolan; aitak egin zion, burdinazkoa. Futbolean ere egiten zuen, eskolan. Defentsa jartzen zen beti. Mutila izan balitz, Realean jokatu lukeela dio.

1.268. "A txafos" jolasa (EGB-094/006)

Umetako jolasa: "en txafos". Bi taldetan banatuta, batak beste harrapatu behar zuen. Lurrean marra bat marraztu, eta hantxe jartzen zuten hanka. Nola jokatzeko zuten azaltzen du.

1.269. "Arbolatik arbolara" jolasa (EGB-094/007)

Umetako jolasa: arbolatik arbolara joaten ziren (aulki-jokoan bezala, kantua amaitu arte bueltaka). Kantatzen zuten kantua zatitxo bat abesten du: "txirrin bat eta bi txirrin".

1.270. "Tres navios" ezkutaketa jolasa (EGB-094/009)

Umetako jolasa: "Tres navios", ezkutaketa. Ganbaretan ezkutatzen ziren.

1.271. "A banderas" eta "obaluetan" jolasak (EGB-094/014)

"A banderas" jolasa nola zen azaltzen du Maitek. Eskolan egiten zuten jolas hori, jolastorduan. Zapiaren jokoa da: batek zapia heltzen zuen. "Obaluetan" jolasa ere aipatzen du, "en óvalos": zirkuluak marrazten zituzten lurrean, eta batetik beste egiten zuten salto.

1.272. "Orratzetan" jolasa (EGB-094/017)

Orratzetan jola egiten zuten azaltzen du. Burudun orratzak erabiltzen zituzten, koloredunak. Eskuan gorde, eta besteak asmatu egin behar zuen orratzak burua gorutz ala beherantz zeukan. "Cabeza o punta". "Perilla" izaten zuten, orratzez beteta. Jolasteko beste modu bat: behatz batekin bultza eginda, bi orratz punta elkarren gainean jartzea. Kromoak eta kanikak ere aipatzen ditu.

1.273. Kaniketan, "txolota" I (EGB-094/018)

Kaniketan, "txolota". Intxaurrekin ez zuten jolasik egiten. Maitek dio orain ere hantxe dagoela zuloa, umetako beraien "txolota".

1.274. "En primeras" jolasa I (EGB-094/019)

"En primeras" jolasa. Zapata lustre kaxatxo bat lurrez bete, eta harekin jokatzeko zuten. Marrak marrazten zituzten lurrean, klarionarekin.

1.275. Kaniketan, "txolota" II (EGB-094/021)

"Txolota" zer den azaltzen du. Kaleko edozein zulo balio zuen, kaniketak egiteko.

1.276. "En primeras" jolasa II (EGB-094/022)

"A primeras" edo "En primeras" jolasa azaltzen du. Bost zenbaki marrazten zituzten, eta sei marra. Joan-etorria egin behar zuten. Ez zuten txingotara jolasten. Kaxari ostikoa ematerakoan ezin ziren bi hankak lurrean izan. Bat airean izan behar zen, eta bestearekin jo.

1.277. Diaboloa eta sakaponak (EGB-094/024)

Diaboloa aipatzen du. Gora botatzen zuen eta bueltan hartu. Sakaponetara ere jolasten zuten. La alderdi zituzten. "De Vitoria" esaten zieten taba batzuei, "Vitorixakuak", handiagoak eta distiratsuagoak zirenei (aharienak edo). Beheko plazan jolasten zuten, kosketan. Sakaponetan egiteko pilota gomazkoa izaten zela uste du.

1.278. Pilota eta raketistak (EGB-094/026)

Pilotan ere ibiltzen ziren, raketarekin. Norbaitek uzten zion, berak ez zuen eta. Raketistak aipatzen ditu, eta "gizon fama" zutela dio. Orain normala da emakumeak kirolari profesional moduan aritzea; lehen ez.

1.279. Tren txartelen jolasa (EGB-094/030)

Tren txartelen jolasa. Txartelak kartoizkoak ziren. Horman marra bat egiten zuten, klarionarekin, eta altura hartatik uzten zituzten erortzen txartelak. Zapata kaxak aipatzen ditu Maitek.

1.280. Trenbidean, alanbrearekin egindako figurak jartzen (EGB-094/032)

Trenbidean, alanbrearekin egindako figurak egiten zituzten, eta txapal-txapal geratzen ziren trena gainetik pasatuta. Txanponik ez zuten jartzen.

1.281. Zapaburutan eta patinetan (EGB-094/033)

Zapaburuak harzten ere ibiltzen ziren, errekan. Bizikletarik ez zuen berak, patinak bai.

1.282. Elkarri gainetik salto egiten (EGB-094/034)

"Txorro-morro" aipatzen du, baina berak ez zuen horretara jolasten: batak bestearen gainetik salto egiten zuen, makurtuta jarrita (astoka).

1.283. Ezkutaketan jolasten (EGB-094/037)

"Ezkutaka" jolasten zutela dio Maitek, ezkutaketan. Paretan jarri, eta zenbatu, besteak ezkututzen diren bitartean.

1.284. Sokasaltoan jolasten (EGB-094/039)

Sokasaltoan ondo moldatzen zen Miren. Maitek dio kontatu egiten zutela. "Bat eta bi, hiru eta lau"...

1.285. "Maru-marutxo" kantu-jolasa (EGB-094/043)

"Maru-marutxo" kantu-jolasa egiten zaio hilabete gutxiko sehaska umeari. Birbilobari egiten dio berak.

1.286. "Lehenengotxu hori" kantu-jolasa (EGB-094/044)

"Lehenengotxu hori" kantu-jolasa. Txikia, nagia, luzea, bizkorra eta lodia.

1.287. Atzamarren jolasa, arrautzarena (EGB-094/045)

Arrautzaren atzamarren jolasa, erdaraz baina euskarazko hitz batzuk sartuta.

1.288. "Arre arre mandako" ume jolasa (EGB-094/050)

"Arre arre mandako" ume jolasa.

1.289. "Nere aitak amari" kantua (EGB-094/051)

"Nere aitak amari gona gorria ekarri". Aditza gaizki dagoela dio, "maiteko dio".

1.290. "Txalo pin txalo" ume jolasa (EGB-094/053)

"Txalo pin txalo" ume jolasa. Aiur bilobarekin egiten du hori.

1.291. Batzokian, pospolina; "Pospolinak gara, zorionean" kantua (EGB-094/056)

Euskal jaietan ezkontza zaharren gurdia ateratzen zuten. Bere senarra saltseroa zela dio: dantza, antzerkia... Bera ere umetan Batzokian ibili zen antzerkia egiten. Pospolinetan ere ibili zen, eta baita erakusten ere. "Poxpolinak gara, zorionean" kantua.

1.292. Hagina jausitakoan (EGB-094/058)

Hagina jausitakoan almohada azpian jartzen zuten, eta oparia izaten zuten, baina ez zegoen ratoncito Perez.

1.293. Abarketak josten, amarekin; "erregeak datoz" kantua (EGB-094/059)

Abarketak josten ibili zen umetan etxean, amarekin. Baina orduan ez zuten josteko astirik. Gabonetan bai, kantatzen zuten. "Erregeak datoz" kantua. Aitak kopak jartzen dituen erregeentzat.

1.294. "Urte berri, berri" eske-kanta I (EGB-094/064)

"Urte berri, berri" gabon eskeko kanta.

1.295. "Urte berri, berri" eske-kanta II (EGB-094/066)

"Urte berri, berri" berriz kantatzen dute. Santa Agedatan kantatzen zuten. Oraingoak ez ei dira intxaurrekin konformatzen. Dirua ere ematen zieten.

1.296. "San Juan portaletaña" I (EGB-094/068)

San Juan kantua: "San Juan portaletaña".

1.297. "San Juan portaletaña" II (EGB-094/070)

San Juan kantua: "San Juan portaletaña" kantatzen dute Maitek eta Mirenek.

1.298. "Urte berri, berri" eske-kanta III (EGB-094/072)

"Urte berri, berri" kantatzen dute Mirenek eta Maitek.

1.299. Maitek asmatutako kantuak (EGB-094/074)

Berak asmatutako kantu bat kantatzen hasten da Maite, baina ez du osorik gogoratzen. Lau kantu ditu, berak asmatuak. Lehiaketa ere irabazi zuten parrokiako jaialdi batean.

1.300. Elizpean, antzerkiak egiten (EGB-095/002)

Umetako jolasak. Elizpean antzerkiak egiten zituzten. Eta plazan dantzan ere ibiltzen ziren, igandetan. Korroan ere ibiltzen ziren, asko, baina ez da kantekin gogoratzen.

1.301. Sokasaltoan, "bikoteetan" (EGB-095/004)

Sokasaltoan "Al cocherito lere" kantatzen zuten. Bi salto segidan egiteari "bikote" esaten zioten.

1.302. "Txafos" jolasa eta "sakaponak" (EGB-095/006)

"En txafos" jolasa nola zen esaten du, eta sakaponetan ere egiten zuten. Kromoak.

1.303. Orratzen jolasa (EGB-095/007)

Orratzekin ere jolasten zuten. Koloretako buruak zituzten. Eskuan gordetzen zituzten.

1.304. "A primeras" jolasa (EGB-095/009)

"A primeras" jolasa nola zen azaltzen du, kaxa bati ostikoka. Mutiko batek kaxa kentzen zien beti.

1.305. Intxaurrekin eta kanikekin jolasean (EGB-095/011)

Intxaurrekin ere jolasten zuten. Kaniketan ere bai. "Txolota", kanika zulora sartzea. "Matarrua" esaten zioten behatzarekin kanika jotzeko keinu horri. Diaboloa aipatzen du. Errezeloa dauka intxaurrak ilaran jartzen zituztela, baina ez du oso ondo gogoratzen.

1.306. "Binbili-bonbolo" kantua (EGB-095/013)

"Binbili-bonbolo" umetako kanta abesten du. Dantza egiten zuten abesti horrekin.

1.307. "Hator hator" kanta, Gabonetan (EGB-095/017)

Gabonetan "Hator hator" kantatzen zuten. Zatitxo bat kantatzen du.

1.308. Gabonetan, "Urte berri, berri" kanta (EGB-095/019)

Gabonetan ohitura zuten kalean eskean ibiltzeko. "Urte berri, berri" kanta.

1.309. Santa Agedan, kantuan (EGB-095/022)

Santa Agedan bera ere ibiltzen zen kantuan, eskean. Gortuta zegoen emakume batengana joan ziren kantuan, eta atea apurtu beharrean jo zuten, entzungo ez zuelakoan; haserre irten zen andrea, iskanbila harekin. Intxaurrak eta txanponak ematen zizkieten.

1.310. Txirikiletan eta "en txafos" jolasak (EGB-095/025)

Umetako jolasak. Txirikiletan mutilak ibiltzen ziren gehiago. "En txafos" jolasa azaltzen du, harrapaketan. Bat ezin harrapatu ibiltzen ziren, berokia oso labankorra zeukalako. "Pote-poteka" mutilak ibiltzen ziren gehiago. Ezkutaketan bai.

1.311. "Txorro-morro" jolasa (EGB-095/028)

"Txorro-morro" jolasari buruz hitz egiten du. Makurtuta ipintzen ziren, ilaran, eta besteek bizkar gainera salto egiten zieten. Astoka ere ibiltzen ziren.

1.312. "En txafos" jolasa (EGB-095/030)

Korrika "en txafos" ibiltzen ziren, elkar harrapatzen.

1.313. Kopinekin jolasten (EGB-095/032)

Kopinak (panpinak). Aita Bilbora joaten zen, eta handik ekartzen zizkion jostailuak: kopinak eta sukaldetxo bat. Kartoizko kopinari bainua eman zioten lagun batek eta berak.

1.314. Anbotoko señoia (EGB-095/033)

Kontatzen zizkieten Anbotoko sorginaren kontuak, baina ez ditu gogoratzen.

1.315. Batzokiko pospolina zen (EGB-095/035)

Pospolina izan zen Batzokian. Romualdo Andonegik erakusten zizkien dantzak. Kanpora joaten ziren dantza egitera, eta gustura. Ipar Euskal Herrira joatekoak ziren, baina gerra hasi zen eta akabo, ezin izan zuten joan. Mikel Gorostiza zeukan dantza bikote moduan. Aita Batzokiko lehendakaria zen. Egiten zituzten dantzak aipatzen ditu.

1.316. Euskarazko lehen antzezlanak: 'Aitona eta biloba' (EGB-095/037)

Antzerkia egiten ibili zen. Beti paper komikoak izaten zituen. Herriko parrokoaren ideia izan zen antzezlanak egitea. Gaztelaniaz hasi ziren, eta gero Pako Juaristik (Miren Vallejoren senarrak) euskaraz egitea proposatu zuen. 'Aitona eta biloba' antzezlanak izan zen egin zuten lehenengoa. Euskara egarria zegoen, eta arrakasta handia izan zuten. Herri askotara joan ziren. Neskamearena egiten zuen berak.

1.317. Beste antzezlan batzuk (EGB-095/038)

"El caserío" antzezlanak ere egin zuten, erdaraz. "Etxe-aldaketa" antzezlanari buruz ere hitz egiten du. Lehiaketa batean parte hartu zuten harekin. "Gai dagonaren indarra" antzezlaneko anekdota bat kontatzen du: txokolata zerbitzatu behar, eta ez zela ateratzen, lodi-lodi zegoelako.

1.318. Antzezlanetako anekdotak (EGB-095/039)

Antzezlanak nork idazten zituen azaltzen du. Programak ere gordeta ditu. Lehenengo antzezlanak, erdarazkoak, aipatzen ditu. "La princesa de Florencia" lanean kojina ipini zizkieten gerri bueltan. "Cadáveres ambulantes" lanean pertsonaia batzuek umeena egiten zuten; sinopsia kontatzen du.

1.319. Antzerki taldekoek parrokoarekin izan zituzten tira-birak (EGB-095/040)

Gerra ondoren hasi ziren antzerkian. Antzezleetako batek, Mari Tere Elkorok, eskotea zeramala-eta parrokoa haserre. Neskak eta mutilak aparte jarri nahi zituen, baina ez zuen lortu. Parrokoarekin nola adiskidetu ziren kontatzen du.

1.320. Etxean erditzearen ideia (EGB-100/002)

Elgoibartarra da bera, baina Getarian bizi da. Hilerokoa joan egin zitzaion denbora batean, eta bere buruarekin eta gorputzarekin konektatzeko aukera eta interesa eman zion honek. Terapeuta etxean erditutakoa zen, eta gai honetara hurbiltzen joan zen Uxue.

1.321. Etxean erditzeko erabakia (EGB-100/003)

26 urterekin haurdun gelditu zen Uxue, eta emaginekin hartu-emanak izandakoan, etxean erditzea erabaki zuen bikoteak, etxean erditzeak erosoago sentiarazten baitzituen. Prozesuan lagunduko zuten emaginak ezagutzeak segurtasuna eman zien bie.

1.322. Aita etxean erditzeaz poztu (EGB-100/005)

Haurdunaldia amaitzeaz zegoela, Uxuek gurasoei etxean erditzeko erabakiaren berri eman zien, eta primerako harrera izan zuen. Bestetik, etxean erditzeko erabakia ez zuten asko zabaldu, kritiketatik babesteko asmoz.

1.323. Erditze ona kontatzea amatasuna idealizatzea ote? (EGB-100/006)

Izandako erditze onen inguruan hitz egitea harrokeriatzat du gizarteak, horregatik, oso gutxitan kontatu izan du Uxuek bere esperientzia.

1.324. Lehen erditzea (EGB-100/007)

Erditzen lagunduko zuten emaginak ezagutzeak segurtasuna eman zion Uxuei. Ere ezagun batean erditzea eta konpainia aukeratzea, lagungarria izan ziren oso.

1.325. "Mina neukan, baina ez neukan beldurrik" (EGB-100/008)

Erditze prozesuaren une batean, mina izugarria bazuen ere, oso seguru sentitzen zen Uxue, ez zuen beldurrik pasa.

1.326. Bigarren erditzea I (EGB-100/009)

Bigarren erditzea lehenengoa baino azkarragoa izan zen. Bigarren honetan, Lur, lagun bat eta bi emagin egon ziren Uxue eta Eñautez gain. Min handiena zuen momentuan, aromaterapia erabili zuen emagin batek, eta horri esker, ez da sufritutako minaz gogoratzen, baina bai unearen usainaz.

1.327. Bigarren erditzea II (EGB-100/010)

Baineran erditu zuen bigarren haurra, eta orduerdiko kontua izan zen.

1.328. Kopiatuz, ikasi (EGB-101/002)

Ipuinak sortzeko modurik onena kopiatzea da, gustuko ipuin bat aukeratu eta estrategiei erreparatzea.

1.329. Irakasteko lehenengo ikasi (EGB-101/004)

Irakurzaletasuna bultzatzeko irakaslea ere irakurzalea izatea funtsezkoa da Uxuerentzat. Literatura ona da literaturazale bihurtzeko gakoa.

1.330. Entusiasmotik dator plazera (EGB-101/005)

Zaila den arren, irakasleak entusiamoa jarri behar du beti, batez ere literaturan. Gaur egun badirudi literaturak erraza izan behar duela.

1.331. Nola kontatu ipuin bat? (EGB-101/007)

Ipuin-kontalariak ipuina ulertzea da funtsezkoena, gogoia eta gustuko ipuina izatea transmititu egiten baitira. Adierazkortasuna ere gakoa da.

1.332. Bozgora irakurtzea gehiago landu behar da (EGB-101/008)

Gutxi lantzen da bozgorako irakurketa. Bozgora irakurtzen jakiteak badu ipuin-kontaketa on bat egiteko garrantzia.

1.333. Idazlea eta bertsolaria (EGB-101/010)

Bietan ikusten du Uxuek bere burua, maila berean. Sortzeak zoriontsu egiten du Uxue. Idaztean, egin behar duena egiten ari dela sentitzen du, misio bat balu bezala.

1.334. "Kantuak sendatzen gaitu" (EGB-101/011)

Kantuak zoriontsu sentiarazten du. Bertsokideekin egotea eta bertsoak duen izaera sozialak etxetik ateratzen lagundu dio, baina baita etxeak hankak lurrean jartzen ere.

1.335. "Txapelketa bera patriarkala da" (EGB-101/012)

Txapelketa bertso munduan bertsolari gisa balidatzeko modu bakarra izatearekin ez dago ados. Bertso-sistema eta txapelketa bera patriarkalak iruditzen zaizkio. Horregatik, txapelketetara ez aurkeztea erabaki zuen. Idatziz sortzeak hobe egiten dio.

1.336. "Plaza jende zaharragoarentzat prestatu behar dugu" (EGB-101/013)

Adin batetik aurrera saioz saio ibiltzea ez da erraza, eta gutxi dira 60 urtetik aurrera martxa hori jarrai dezaketenak. Adineko emakumerik ez da ikusten plazan, ezta ama diren bertsolari asko ere.

1.337. Bertsolaritza oso gogorra da (EGB-101/014)

Ederra bezain gogorra da bertsolaritza Uxuerentzat, fisikoki eta mentalki indar handia eskatzen baitu.

1.338. Gizonen emakumeei toka (EGB-101/016)

Aitak Uxueri hika hitz egiten zion haserretzen zenean, baina Uxuek ez du sekula noka ez tokarik hitz egin. Bestetik, mutil askok toka egiten diotela konturatu da.

1.339. Euskalduntasuna maskulinitatearekin loturik (EGB-101/018)

Euskaldun jatortasuna nahi gabe maskulinitatearekin lotu izan da. Berueteko (Betelu dio, nahastuta) bertso saio batean gertatutakoa. Euskararentzat arnagune, generoarentzat itogune.

1.340. Feminismoa umetatik ezagutu (EGB-101/020)

Txikitatik feminista izatea normala izan da Uxuerentzat. Ama eta izeba eredu izan ditu beti. Espazio publikoan emakume kirolari gutxi zeudela aipatu izan dute sarritan.

1.341. Bertsolaria baino, neska bat ikusten zuten (EGB-101/021)

Plazara bertsotan egitera joan zenean konturatu zen gizonen eta emakumeen desberdintasunaz, izan ere, bertsolari bat baino, neska bat ikusten zuten.

1.342. Emakumea, idazlea (EGB-101/022)

Bertso munduan bezalaxe, literaturaren munduan ere generotik egin du bidea. Generoaren kontzientzia. Emakume izateagatik literatur munduan gertatutako batzuk.

1.343. Bertsolaritza eta generoa: mugak I (EGB-101/023)

Emakume bertsolarien esperientzia eta sentsazioak batzen dituen proiektu batean lanean ari da Uxue. 15 bertsolari elkarrizketatu ditu, eta errepikatzen diren patroiak jaso (22 mugatze). Sufrimendu handia ikusi du eta autoestimutxikia. 22 mugetako batzuk aipatzen ditu pasarte honetan.

1.344. Bertsolaritza eta generoa: mugak II (EGB-101/024)

15 emakume bertsolarien testigantzak jaso ditu Uxuek generoaren eta bertsolaritzaren inguruan, eta gehien errepikatzen diren mugetako batzuk aipatzen ditu pasarte honetan (guztira mugatze 22 jaso ditu): euskalkirik gabeko bertsolaria, umorerik egiten ez omen dakiena, gorputzetik haratago existitzen ez dena...

1.345. Plaza guztiek ez dute balio bera (EGB-101/025)

Plazaz plaza publikoaren iritzia ez da era berean baloratzen. Askotan, balorazio eta aprobazio hori maskulinoa da. Pisu handiagoa du gizonaren iritzia emakumearenak baino, eta askotan, emakumearena bilatu ere ez da egiten.

1.346. 'Femme fatale' bertsolaritzan (EGB-101/027)

'Femme fatale' gizonari begirako estrategia. Sexu askatasuna bizitzea ausardiari lotu zaio denboran zehar, emakumeen plazerari gutxi erreparatu zaio. Emakumearen sexualizazioa bertsolaritzan. Emakume bertsolarien aukerak plazan, gaien errepikakortasuna, topikoak.

1.347. Gizonari bertsotan ez erantzutea ihes egitea ote? (EGB-101/028)

2009ko Euskal Herriko Txapelketan gertatutakoa. Estiballesekin koplatan.

1.348. Desiratutik desiratzailera (EGB-101/029)

Orokorrean bertsotarako gaietan emakumea izaten da desiratu eta gizona desiratzaila. Erotikatik ez kantatzeko estrategietako bat izan du Uxuek desiratzailaren papera hartzea.

1.349. Kontestu feministetan saio gehiago (EGB-101/031)

Zakilari buruzko mila txiste, aluari buruzkorik ez. Kode faltak. Diskurtsoa botatzeko gaiak.

1.350. Zer eman diote emakumeek bertsoaritzari? (EGB-101/033)

Emakumeek gehiago hitz egiten dute sexuaz gizonen baino. Sexualitateak tabua izaten jarraitzen du, baina batez ere gizonen artean.

1.351. Gizonen sexualitate eredia (EGB-101/035)

Gizonen sexualitatea dago edonon, baina sexualitatea egoteak ez du plazera dagoenik esan nahi, gizonen sexualitate eredia dela medio. Autoerrepresentazio beharra, eta modu sexistan irakurtzeko arriskua.

1.352. Adi bizitzea du saioetarako prestaketa (EGB-101/037)

Ahalduntze bertso eskolen onuretako bat elkar ezagutzea izan da. Adi bizitzea da bertso saioetarako Uxueren prestatzeko modua.

1.353. "Eskubide eta genero kontuetan ez dugu beti hoberantz egiten" (EGB-101/039)

Azken 30-40 urtetan genero ikuspegirako mugari izan direnak bildu eta interpretatu dituzte. 80ko hamarkadan mugimendu feminista bazen ere, bertsoaritzak ez zen barruan kokatzen. Era berean, bertsoan zebiltzan emakume askok ez zuten euren burua feministatzat.

1.354. Generoaren ikuspegitik egindakoak (EGB-101/040)

Genero batzordea, bertso eskolak, feminismo eta bertsoaritzak lotzen... Erreferente bakarrik ez. Emakume bertsoariaren sarea.

1.355. Erreferente feministak (EGB-101/042)

Emakume sortzaileei begira urteak daramatza Uxuek. Bertsoaritzak mailan Maialen Lujanbio azpimarratzen du. Feminista izateko modu desberdinak ikusten ditu kide bertsoarietan. Literaturan Eider Rodriguez, Danele Sarriguarte. Kattalin Miner, Mari Luz Esteban, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel...

1.356. Familiaren historia (EGB-102/002)

Elgoibarren jaioa. Aita bertakoa du, aitona-amonak Durangaldekoak. Ama Cuencako herri txiki batekoa da, baina Elgoibarrera joan zen bizitzera, familiarekin. Dendaria izan zen erretiroa hartu arte.

1.357. Bigarren alaba, baina etxeko umea (EGB-102/005)

Bi ahizpetatik bigarrena da, baina alaba bakarra balitz bezala da zentzu batzuetan, adin tarte handia dutelako (zazpi urte).

1.358. Etxeko lasaitasuna eta irakurzaletasuna (EGB-102/006)

Etxean bakarrik egoteak baliteke eragina izatea bere irakurzaletasunean: eremu lasai eta pribatua zeukan eskura.

1.359. Umetatik irakurri du asko (EGB-102/008)

Umetatik irakurri du asko. Hori da bere benetako zaletasuna. Idaztea, berriz, bolada askotan ez du egiten. Bere gurasoak ez dira bereziki irakurzaleak, baina alabek ikastea bultzatu dute beti. Musika eta kantatzea ere gustatzen zaio.

1.360. Danele umetan nolakoa zen (EGB-102/009)

Danele nolakoa zen umetan. Asko hitz egiten zuen, eta helduen elkarrizketak entzutea gustatzen zitzaion.

1.361. Hizkuntza kode moduan (EGB-102/010)

Hizkuntza da Daneleren kodea, komunikatzeko eta transmititzeko bidea. Itzultzailea da, eta hizkuntza da bere lan-tresna. Hizkuntzak ikastea gustatzen zaio.

1.362. Itzulpengitza, euskara lantzeko bide (EGB-102/011)

Itzulpengitza ikasi zuen Gasteizen. Ez zeukan bokazio garbirik. Atzerriko hizkuntzak gustatzen zaizkiolako hasi zen horretan, baina konturatu da euskara dela gehien landu duena.

1.363. Euskaraz lan egitea prozesu naturala (EGB-102/013)

Beti eduki du garbi euskaraz lan egin nahi zuela, baina ez du gogoratzen hizkuntza aukeratu behar izan duenik. Modu naturalean gertatu zen. Etxean giro euskaltzalea izan du, eta Elgoibarren normala zen euskaraz hitz egitea.

1.364. Giro euskaltzalean gustura (EGB-102/014)

Nerabezaroan gaztelaniara jotzeko ohiturari buruz hitz egiten du: ez zen adinkide batzuen "guayismo"-arekin identifikatuta sentitu. Eta 18 urterekin Itzulpengintza egiten hasi zenean, are giro euskaltzaleagoan murgildu zen.

1.365. Idazten noiz eta nolatan hasi zen (EGB-102/016)

Literatur lehiaketaren batera aurkeztu izan zen, baina ez du idazteko zaletasun berezirik gogoratzen. Testu eta marrazketa lehiaketa bat irabazi zuen lagun batekin batera, Elgoibarren. Karrera bukatutakoan idazketa tailer bat egin zuen Uxue Alberdirekin, eta han egindako zirriborro bat izan zen "Erraiak" lanaren lehen hazia.

1.366. Idazteko irakurtzea eta idazteko beharra (EGB-102/017)

Idazteko ezinbestekoa da irakurtzea. Idazteak bizitzen laguntzen duela esan zuen elkarrizketa batean, liburu bat kaleratu ondoren, baina denbora darama idatzi gabe eta ez da ezer gertatzen.

1.367. "Erraiak" lanak ekarritako aldaketak (EGB-102/018)

2012an irabazi zuen Igartza Saria, eta 2014an argiratu zen "Erraiak", kritika onak izan zituen nobela. 24 urte zeuzkan, eta gauza asko elkartu zitzaizkion garai hartan: independizatu egin zen, Donostiara joan zen bizitzera, jende berria ezagutu zuen, euskal kultura gertutik ezagutu zuen... lanbide bat garatzeko aukera ekarri zion. Baina gauza txarrak ere ikusi zituen, eta asko ikasi zuen.

1.368. "Belarrondokoak" (EGB-102/019)

Ezaguna bihurtzeak eta bizitzako aldaketek deskolokatu egin zaitzaketela dio. Orduko "belarrondokoak" aipatzen ditu. Liburuaren edukiari buruzko komentarioek eta idazle ordez "neska gazte" bat bezala tratatua izateak ezustean harrapatu zuen, ez zuen espero.

1.369. Nekagarria gertatzen zaio emakume idazle izateko borroka (EGB-102/020)

Genero-kontzientzia eta idazle izatea. Batetik, errekonozitua sentitu zen idazle moduan, baina komentario eta eztabaida batzuk nekagarriak izan ziren. Bera ez da sentitzen borroka horretarako prest, une honetan.

1.370. Genero-kontzientiaren eragina idazteko garaian (EGB-102/022)

Genero-kontzientziak hainbesteko eragina izan du berarengan, hainbestekoa da borroka... une honetan amore eman duela eta ez duela beste liburu bat argitaratzeko prozesua egiteko gogorik sentitzen.

1.371. Emakumeek kulturgintzan dituzten trabak (EGB-102/024)

Emakumeek kulturgintzan dituzten trabak. Eider Rodriguezen liburua aipatzen du. Bertsolarien kasuan taldean egin dute aurrera, eta enbidia ematen dio; idazlearena bide bakartiagoa da.

1.372. Emakume idazleei egin izan dizkieten galderak (EGB-102/025)

Emakume idazleei (tartean berari) gertatu izan zaien gauzetako bat aipatzen du: galdetzea ea eleberria autobiografikoa den, nahiz eta fikziozko lan bezala aurkeztu. Literaturari buruz bakarrik hitz egitea zaila da, idazlearengan erreparatu gabe. Dena dela, egoera hobetu egin dela uste du.

1.373. Irati Elorrietaren kasua (EGB-102/027)

Berarentzat ukaezina da emakume izateak eragina daukala idazle izateko garaian, baina ez du hori ikusten ez duena konbentzitzen denbora eta energia galdu nahi. Irati Elorrietaren kasua aipatzen du: Euskadi Saria irabazi zuenean, aurrez esandakoak isildu egin ziren (aurrez "Erasmus literatura" bezala definitu zuten haren lana).

1.374. "Literatura feminista" (EGB-102/029)

Ez daki 'literatura feminista' dagoen ala ez, baina emakumeek bizi izandako egoerei hitza eman dieten emakumeen lanak irakurtzea asko eskertzen du.

1.375. Paternalismoa eta amatasuna (EGB-102/030)

Neska gaztea izateagatik paternalismoz tratatzea ezagutu izan du, baina bere erreferente nagusietako bat ez da horrelakoa izan: Iratxe Retolaza. Noiz uzten zaion gaztea izateari: amatasuna da heldutasunerako atea, jende askorentzat. "Neskazahar" hitza.

1.376. Pertsonaia publiko izatearen desabantailak (EGB-102/032)

"Neskazahar" hitzaren esanahiaz. Kanpoko iritziez paso egin ahal izatea nahiko luke, baina ez da erraza, emakumeei txikitatik hori erakutsi digutelako. Pertsonaia publiko izatearen desabantailak.

1.377. Aurreiritziz betetako gizartea (EGB-102/035)

Emakume idazleei buruzko bi aurreiritziri buruzko pasartea: "emakume gaiei" buruz idazten dutela eta gai intimoez idazten dutenean beraiei gertatutakoa dela (ez asmatua).

1.378. "Erractus" errezitaldia eta bertso gai-jartzaile (EGB-102/036)

"Erractus" performanxe-errezitaldia bizi izandakoa lantzeko bide bat izan zen, "oso askatzailea". Jule Goikoetxeak, Kattalin Minerrek eta berak egin zuten. Oholtzara igotzeari buruz hitz egiten du: bertso gai-jartzaile moduan ere ibili izan da, baina ez du bere burua "plazandre" moduan ikusten.

1.379. "Azala erre" nobelari buruz (EGB-102/037)

"Azala erre" eleberria argitaratu zuen 2018an. "Tiraka eta bultzaka" egindako lana izan zela esan izan du. Ez zuen izan nahi liburu bakarra idatzi duen idazleen taldekoa.

1.380. Idazketa tailerrak ematen (EGB-102/038)

Idazketa tailerrak ere eman izan ditu. Nolakoak ziren azaltzen du. Idazteko irakurtzea da oso inportantea eta konstantzia ere bai.

1.381. Literatur lanak itzultzea (EGB-102/040)

Literatur lan gutxi itzuli ditu, eta horietan sormenak badauka lekua. Modu ederrean jositako testuak modu ederrean itzultzea plazerra dela dio, baina itzulpena ulergarria egitea ere inportantea dela.

1.382. "Helearazi" proiektuarekin hasi zen kazetari lanetan (EGB-102/041)

Kazetari moduan Berrian, Argian, Picara Magazinen... ibili da. Garazi Goiarekin "Helearazi" proiektua ipini zuen abian, 2011n, eta oso oroitzapen ona dauka: elkarrizketak, kronikak, itzulpenak... argitaratzen zituzten.

1.383. Argia astekarirako elkarrizketak (EGB-102/044)

Argia astekarian elkarrizketak egitea oso lan polita izan zela dio. Kazetaritza eta sormena. Zer transmititu nahi duzun aukeratu ahal izatea. Herritar xehea elkarrizketatzeko nahiaz hitz egiten du.

1.384. Feminismoaren garrantzia bere bizitzan (EGB-102/046)

Feminismoa oso gauza inportantea da bere bizitzan, baina ez du nahi borroka feministan pertsonaia publiko moduan aritzea.

1.385. Elgoibarko euskalkia eta bere euskalki-nahasketa (EGB-102/049)

Elgoibarko euskalkia nolakoa den azaltzen du. Aitaren euskarak Durangaldeko hizkeraren kutsua dauka. Berak euskara nahiko nahastuta dauka. Donostian urte batzuk daramatza, eta hizkera aldatzen joan da. Euskara batuaren eragin handia izan du.

1.386. Euskal kulturaren osasunari buruz (EGB-102/051)

Euskal kulturaren osasuna eta aldarrikapenak. Katixa Agirrek egindako erreportaje bat aipatzen du. Sormena bultzatzeko bekak produktibitate oso bideratuta ikusten ditu.

1.387. Literatur itzulpenen garapena (EGB-102/052)

Literatur itzulpengintzaren garapena handia izan dela dio: EIZIE, Igela, Literatura Unibertsala bilduma... aipatzen ditu.

1.388. Euskal kontzientzia piztu (EGB-104/004)

14 urte ingururekin euskal kontzientzia piztu zitzaion Burgosko prozesua eta beste hainbat kontu tarteko. 15 urte ingururekin Elorra dantza-taldean sartu zen eta geroago umeei dantzan irakasten jardun zuen, irakasleak behar zirela eta. "Juventud elgoibarresa" taldean ere parte hartu zuen.

1.389. Antzerkian, Mari Ezenarro eta Manolo Rementeriarekin (EGB-104/008)

Mari Ezenarro elgoibartarrak deklamazioa ikasi zuen Madrilen eta antzerki-talde bat sortu zuen Manolo Rementeriarekin batera. Antzerkirako grina sartu zien Mari eta antzerkian hasi zen. "Nekaldia" antzeztu zuten elizan pare bat urtez. 1975-1976 inguruan izango zen. Beste antzerki-obrak Odeioan antzeztu zituzten. Taldeak ez ei zuen izenik hasieran. Ikastolako irakaslea zen Edurne Lasa sartu zenean, berak hartu zuen taldearen ardura eta Taupada izena ipini zioten.

1.390. Anastasio Albisuren `Nekaldia´ antzerki-obra (EGB-104/009)

Mari Ezenarro eta Manolo Rementeriak gidatutako antzerki-taldearekin Anastasio Albisuk idatzitako `Nekaldia´ (1971) antzerki-obra antzeztu zuten elizan. 1975ean haren etxera joan ziren Azkoitira eta liburuak dedikatu zizkien. Elizaren lokaletan egiten zituzten entseguak.

1.391. Herriko ikastetxeak (EGB-104/012)

Aita Agirre plazako eskola nazionaletan ibili zen. Neskak eta mutilak joaten ziren bertara, baina aparte egoten ziren gelan. Herrian mutilentzat bakarrik zen fraideen eskola eta nesKentzat bakarrik zen Santa Klarako mojen komentua ere bazeuden. Maalan ere mojen ospitalea eta eskola zeuden. Eskola nazionaleko irakasle gehienak kanpokoak ziren.

1.392. Euskaraz alfabetatzera (EGB-104/013)

Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten. Etxean amarekin euskaraz egin arren, anai-arreben artean ere gaztelaniaz hasi ziren. Ikastolara lanera etorritako lehenengo irakasleak gau-eskolak ematen hasi ziren eta han ibili zen euskaraz alfabetatzen Antton Aranbururekin. Geroago Bergarara joan zen UNEDera D

eta B tituluak ateratzera. Nortzuk ziren irakasleak. Literatura, soziolinguistika, itzulpengintza... hainbat ikasgai ematen zituzten.

1.393. Nola hasi zen euskara-klaseak ematen (EGB-104/014)

Idazkaritza ikasi zuen eta tapiztegi batean hasi zen lanean, administrazioan. Han zebilela, euskara-klaseak ematea proposatu zioten eta dendara sartu aurretik joaten zen ikastolara, guraso batzuei eskolak ematera. Geroago udaletxeko langileei ere eman zizkien klaseak. Berak utzi ostean, Maritxu Loiola hasi zen. Hasieran zer material erabiltzen zuen. Bietatik izan zituen, bai euskalduntze eta baita alfabetatze taldeak ere.

1.394. Talde zehatz batzuetan egiten zuen euskaraz (EGB-104/020)

Eskola nazionalean dena gaztelaniaz egiten zuten eta, beraz, ez zuten zigorrik jasotzen euskaraz egitearren. Kaleko giroa oso erdalduna zen; oso euskara gutxi entzuten zen. Berak ahizparekin eta talde zehatz batzuetan bakarrik (dantza-taldean, antzerki-taldean...) egiten zuen euskaraz.

1.395. Umetan euskarazko irakurgairik ez (EGB-104/023)

Bera umea zenean, etxean ez zuten izaten euskarazko irakurgairik. Gerora bai, Zeruko Argia. Arrate irratia entzuten zuten egunero eta Herri-irratia ere bai.

1.396. San Anton egunean Elgoibarko Izarraren jaialdia Odeoian (EGB-104/026)

Elgoibarko Izarra euskara elkarteak atal desberdinak zituen: kultura, dantza, euskara, ingelesa, balleta... Urtean behin San Anton egunean jaialdia egiten zen Odeoi antzokian, urtean zehar egindakoa herritarrei erakusteko.

1.397. Emakumeei gaztelaniaz egiteko joera (EGB-105/003)

Etxeko giroa euskalduna zen. Amaren aldeko amamak bi alabei gaztelaniaz egiten zien; semeari, berriz, euskaraz. Garai batean emakumeei gaztelaniaz egiteko joera bat izan omen zen. Horren inguruko teoria.

1.398. Eskola nazionalean dena gaztelaniaz (EGB-105/007)

Eskola nazionalean ibili zen. Ume txikien irakaslea, Satur, euskalduna zen eta lagundu egiten zien zerbait ez zutenean ulertzen. Gainontzeko irakasle guztiak erdaldunak. Bere izebak garbitzen zuen eskola eta, horregatik, harreman handiagoa izan zuen irakasleekin. Don Frantziskok bandera ateratzen zuen. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Ez zuten euskararik egiten edo, egiten bazuten, ezkutuan. Baserritarrei isekak.

1.399. Gehienak euskaldunak izan arren, gaztelaniaz egiten zen (EGB-105/009)

Herrian elkar ezagutzen zuten eta jakiten zuten nor zen euskalduna eta nor ez. Gehienak euskaldunak izan arren, gaztelaniaz egiten zen. Beraiek euskaraz egiten zuten kuadrillan eta bazituzten inguruan euskaraz egitea gogorarazten zietenak. Astean zehar ez ziren asko mugitzen auzotik; igandeetan plazara edo zinemara. Auzoen arteko pikea. "Onu" auzoan kanpotik etorritako jendea bizi zen. Gutxi batzuek bakarrik ikasi zuten euskaraz. Herrikoen artean ere, familia aberatsetakoek edo estatus bat zutenek gaztelaniaz egiten zuten.

1.400. Umeek euskaraz jarduteko "burbuilak" (EGB-105/011)

Gogoan du oso umetan Gabi taberna gaineko falangearen lokalera joaten zela euskal kantak eta jolasak ikastera. Marisol Gurrutxaga, Begoña Andonegi, Miren Vallejo gogoratzen ditu irakasle gisa. Txangoak egiten zituzten mendira eta euskaraz jarduten zuten bertan. Geroago, jada Elgoibarko Izarra sortuta, euskarazko kinara joaten ziren. Garai hartan Elgoibarko giroa oso erdalduna zen eta pertsona batzuk euskararen "burbuilak" sortzen eta zabaltzen saiatu zirela uste du.

1.401. Umeen dantza-taldea; lehenengo Euskal Jaia (EGB-105/013)

Elgoibarko lehenengo umeen dantza-taldeko kide izan zen. Praka zuri motzak erabiltzen zituzten, beste guztiek praka luzeak janzen zituztenean. Loritoneko lokalean entseatzen zuten. Neskak eta mutilak aparte. Beraien irakasleak Peli Uriguen eta Luis Gurrutxaga. Herririk herri ibiltzen ziren euskal jaietan. Elgoibarren egin zen lehenengo euskal jaietan ikurrina jarri zutela eta gorabeherak izan zirela gogoan du. Azokan jaialdia egin zen eta Estitxu abeslaria egon zen. Txistulariak.

1.402. "Juventud elgoibarresa"tik antolatzen zituzten ekitaldiak (EGB-105/014)

14-15 urte ingururekin dantza-taldea utzi eta zenbait herritarrek eskatuta "Juventud elgoibarresa"n sartu zen, euskara talderako jendea behar zutela eta. Hainbat gauza antolatzen hasi ziren: kultur asteak, liburu eta disko azoka, jaialdiak... Lorpen handia izaten zen jaialdi bat antolatzea. Baimenak behar izaten ziren eta abestuko ziren kanta guztien hiru kopia bidali behar izaten ziren gaztelaniara itzulita. Gogoan du Urretxindorrek, Lupe, Leon eta Maurizia... etorri izan zirela. Ez zuten dirurik izaten eta jaialdietan ateratako diruarekin ordaintzen zituzten gastuak.

1.403. Odeon antzokian egiten ziren jaialdiak (EGB-105/015)

Elgoibarko Izarrak hainbat atal zituen eta, urtean zehar egiten zena herritarrei erakusteko, jaialdia egiten zen Odeon antzokian. Herriko jendeak hartzen zuen parte; esaterako, Lurgabe taldeak (aurretik Bereluma) bertan kantatuko zuen lehen aldiz. Bestelako jaialdiak ere egiten ziren. Gogoan du behin Ez dok Amairukoek saio bikotza eskaini zutela eta oso jende gutxi egon zela.

1.404. "Juventud elgoibarresa" k dirurik ez (EGB-105/017)

"Juventud elgoibarresa" taldean diruz larri ibiltzen ziren beti. "Diálogos para la juventud" aldizkaria ateratzeko, elizak jarriko zuela dirua uste du. Bestela, jaialdietako sarreratik ateratzen zenarekin ibiltzen ziren.

1.405. Ikastolarako eta Elgoibarko Izarrarako dirua batzen (EGB-105/018)

Ikastolaren eraikin berria egiteko dirua ateratzeko, kartoia batu eta saldu egiten zuten. Taberna ere jartzen zen jaietan. Elgoibarko Izarrarako dirua ateratzeko, berbenak antolatzen ziren Trinitateetan.

1.406. "Juventud elgoibarresa" ko euskara taldeak danborrada berreskuratu zuen (EGB-105/019)

Bere aitonaren sasoiari danborrada egiten zen Elgoibarren, baina gero galduta egon zen. "Juventud elgoibarresa" ko euskara taldeak berreskuratu zuen. Ez zuten dirurik, baina karrozak paperez egiten zituzten, ahal zen moduan. Pixkanaka karrozak aldatzen joan ziren. Gerora, gustatzen ez zitzaizkien gaiak salatzeko erabili zituzten.

1.407. "Juventud elgoibarresa" (EGB-105/020)

"Juventud elgoibarresa" taldeak elizaren lokalak erabiltzen zituen, bai, jaialdietarako, bileretarako... Atal desberdinak zituen. Bera lehendakari ere izan zen. Eta behin koartelera joan beharra ere izan omen zuen, beraiek antolatutako jaialdi batean ikurrina bat atera zutelako.

1.408. Beste herri batzuetara, ahal zutenean (EGB-105/021)

Gaztetan, ahal zuten neurrian, joaten ziren inguruko herrietako jaialdietara. Orduan ez zen hain erraza batetik bestera mugitzea. Dantza-taldearekin lehenengo ume moduan eta gero irakasle moduan asko ibili ziren herri batetik bestera, euskal jaietan.

1.409. Kotxea hartu eta musikarien bila (EGB-105/023)

Garai batean komunikazioa ez zen hain erraza. Gogoan du Urretxindorrek taldea Elgoibarrera ekartzeko, Bergarara joan zirela taldeko abeslari batekin hitz egitera. Leon eta Maurizia ekartzeko ere kotxez joan omen ziren Arratiara, haien bila. Elgetara asko joaten ziren, hango frontoian jaialdiak egiten zirelako.

1.410. Aubixa aterpetzeko lehen txandetan begirale (EGB-105/025)

Elgoibarko umeei euskararekiko motibazioa pizteko, Aubixa aterpetxea jarri zuten martxan. Bera "Juventud elgoibarresa" n ibiltzen zenez, begirale bezala joatea proposatu zioten eta halaxe egin zituen zenbait txanda. Armeria Eskolan Maisutza industrialeko ikasketak eginak zituen arren, irakasle izateko gogoia piztu zitzaion. Ikastolako gurasoek lan egin zuten aterpetxea prestatzeko. Garai baten ere baziren udalekuak, bera Ozaetan egon zen umetan.

1.411. Aubixa aterpetxean begirale; umeekin egiten zituzten ekintzak (EGB-105/027)

Aubixa aterpetxean ikastolako irakasleak egoten ziren arduradun gisa eta beraiek begirale gisa, haiei laguntzen. Musu-truk egiten zuten. Sukaldaria:

bertako Joxepa. Umeekin zer ekintza egiten zituzten: ibilaldiak, sua...
Igandeetan San Pedrora mezatarra. Han gurasoekin egon ostean, ume batzuek
negar egiten zuten berriz aterpetxera itzultzeko. Arrate irratoria ere joaten
ziren. Dena euskaraz.

1.412. Umeen dantza-irakasle; Haritz dantza-taldearen sorrera (EGB-105/028)

San Bartolome eguneko aurrekuan dantza egiteko deitu zieten eta urteetan jarraitu zuten gero. Orduan, dantza-irakasle moduan ere hasi zen Elgoibarko Izarraren dantza-eskolan. Handik Haritz dantza-taldea sortu zen. Berak ez zuen bertan dantza egin, Donostian ikasten zebilelako, baina jaialdietan laguntzen aritzen zen. Aurretik Isidor Solupek gidatzen zuen Elorra dantza-taldea zegoen. Euskaraz ez zekiten dantza-taldeko umeentzat euskarako klaseak ipini zituzten.

1.413. Urruzunoren urteurreneko jaialdia (EGB-105/029)

Antzerkian ere ibili zen. Olentzerorekin irteten ziren Gabonetan. Juan Igartuak proposatuta abesbatza sortu zuten. Urruzunoren urteurrenean jaialdia egin zen Odeon antzokian. Beraiek abesbatzarekin parte hartu zuten. Pako Juaristik, Miren Vallejok eta beste batzuek Urruzunoren esketx batzuk antzeztu zituzten. 1992an Elgoibarko Izarrak "Ez dok Amaitu" jaialdia egin zuenean, berriz antzeztu zituzten esketx haiek.

1.414. `Nekaldia´ eta `Buruntza azpian´ antzezlanak (EGB-105/030)

Bi-hiru urtez (1973-1975 inguruan) `Nekaldia´ antzezlana antzeztu zuten ostegun eta ostiral santu egunean, meza ostean. Jende asko egoten zen begira eta antzezten ere asko. Bigarren antzezlana Lurdes Iriondoren `Buruntza azpian´ izan zen. Pako Juaristi, Manolo Rementeria, Mari Ezenarro, Miren Vallejo... ziren taldeko arduradun nagusienak.

1.415. Magisteritzan euskara irakasgaia jartzea lortu zuten (EGB-105/033)

Donostiara joan zen Magisteritza ikastera. Hiru urte beharrean bi egin zituen, hirugarrenean jada ikastolan lanean hasi zelako. Azterketetara bakarrik joaten zen. Garai hartan ipini zuten Magisteritza euskaraz Eskoriatzan, baina hasieran bertakoei eman zieten lehentasuna eta ezin izan zen hara joan. Beraiek euskara irakasgai bezala jartzea lortu zuten eta ordu horretan euskaraz zekitenek ez zekitenei irakasten zieten.

1.416. Euskaraz alfabetatzeko ikastaroak (EGB-105/034)

Euskara lantzeko ikastaro asko egin izan zituen gaztetan, esaterako, "Juventud elgoibarresa"n zebiltzanean, Antton Aranbururekin, larunbat arratsaldeetan. Eibarren ere ibili zen eta geroago Bergaran ere bai, UNEDen, D titulua ateratzen.

1.417. Elgoibarko ikastolako irakasle (EGB-105/036)

Bera ikastolan lanean hasi zenean, zortzigarren mailara arteko eskolak ematen ziren, jada eraikin berrian. Haur hezkuntzako umeak herrian sakabanatuta zeuden, bizi ziren lekuaren arabera, gurasoen erosotasunerako. Garai batean Batxilerra ere eman izan zen ikastolan, baina azkenean institutuaren esku utzi zen. Irakasle batzuk ikastolatik institutura joan ziren,

hura euskaldundu asmoz. Haur hezkuntzan izan ezik, beste maila guztietan eman ditu eskolak. Ikastolako zuzendariak.

1.418. Ikastolako ikasmateriala; sortu egin behar I (EGB-105/037)

Bera ikastolan lanean hasi zenean, artean ez zegoen ikasmaterial askorik. Beraiek sortzen zuten materiala. Multikopistarekin materiala sortzeko nolako lanak izaten zituzten. Matematikarako eta natur-zientzietarako, Saioka. Beste liburu batzuk.

1.419. Ikastolako ikasmateriala; sortu egin behar II (EGB-105/039)

Ikastolan ordu asko pasatzen zituzten ikasmateriala sortzen. Kantak eta diskoak erabiltzen zituzten. Bideoak hasi zirenean, Xabier Lete eta Lurdes Iriondoren antzerkiak.

1.420. Ongarri Kultur Elkarte (EGB-106/006)

Elgoibarko Izarra sortu aurretik Ongarri Kultur Elkarte zegoen Elgoibarren. Elkarte horrek ekintzak euskaraz eta gaztelaniaz egingo zituela uste dute eta, horregatik, Felix Etxeberriak eta beste zenbait kidek Elgoibarko Izarra sortu zuten, soilik euskaraz lan egingo zuen elkarte bat izateko. Dantza taldea ere bazuen Ongarrik.

1.421. Elorra dantza taldea xake bizidunean (EGB-106/007)

1964an sortu zen Elorra dantza taldea, baina Itziar beranduago sartu zen. Bera sartu aurreko urteetan taldea nahiko lagata egon zela eta Ixidor Solupek berpiztu zuela uste du. Sebasek gogoan du plazan xake biziduna antzeztu zutenean Elorra taldekoek dantza egin zutela. Telebista edo no-doa joan zela grabatzera gogoratzen du Sebasek. Zenbait herritarri orduan antzeztu zuten figuraren arabera deitu izan diete.

1.422. Elorra dantza taldeko neska irakasle lanetara (EGB-106/009)

Elorra dantza taldeko neska asko Elgoibarko Izarrako dantza-eskolan irakasle lanean ibili ziren. Sebasek gogoan du Ixidor Solupe ibili zela beraiei dantzak irakasten.

1.423. Lehenengo Euskal Jaian umeen dantza taldean (EGB-106/010)

Sebasek Elgoibarren egin zen lehenengo Euskal Jaian parte hartu zuen. Mutilek eta neskek aparte entseatzen zuten eta plazan ere bakoitzak bere dantzak egiten zituen. Mutilek Bizkaiko dantzak egiten zituzten, Dantzari Dantzakoak. Mutilek euskaraz egiten zuten, irakasleak ere euskaldunak zituzten eta; neskek, berriz, gaztelaniaz. Mutilen janzkera. Praka motzekin joaten ziren bakarrak izaten ziren.

1.424. Dantza taldeetarako arropa eta materiala (EGB-106/011)

Elgoibarko Izarran dantza irakasle moduan hasi zirenean, arropak kopuru handietan egiten zituzten, behar zutenaren arabera. Mari Luz jostunak josten zizkien. Materiala nondik lortzen zuten. Askotan beraiek prestatu behar. Umeek matrikula ordaintzen zuten, baina diru gutxi izaten zen. Geroago Elgoibarko Izarrak bere aurrekontutik zati bat ematen zien materialetarako.

1.425. Berriz hasi ziren Euskal Jaia antolatzen Elgoibarren (EGB-106/012)

Euskal jaiak lagata egon ziren Elgoibarren, hasierakoan istiluak egon zirelako eta beraiek hasi ziren berriz antolatzen. Kanpotik etortzen ziren ume guztientzat bazkaltzera joateko etxeak aurkitu behar izaten zituzten. Begiraleek herriko elkarteetan bazkaltzen zuten. Inguruko herrietako taldeak etortzen ziren.

1.426. Herriko dantzarietara laguntzen zieten txistulariak (EGB-106/013)

Garai batean txistulariak: Txanbolindarrak edo Mendarotik etortzen zirenak. Beraiek irakasle lanean jardun zutenerako jada bazegoen txistu eskola. Antonio Azpiazu zen irakaslea. Euskal Jaietara txistulari asko joaten ziren. Kaikua eramaten zuten jantzita: berdea, lauki beltzekin.

1.427. Umeei dantzan irakasteko metodologia (EGB-106/017)

Dantzak irakasterakoan, lehenengo erritmoa lantzen zuten umeekin, musika ezberdinak erabilia eta geroago hasten ziren dantzak irakasten. Magnetofoiaren grabatutako zerbaitekin izaten zuten arren, kanta gehienak abestu egiten zituzten irakasleek. Plazara irteteko bezperan txistulariekin entseatzen zuten.

1.428. Elgoibarko auzoetara dantzara (EGB-106/018)

Elgoibarko auzoetan ere egiten zuten dantza jaietan. Sebask gogoan du bera umea zenean Altzolara joaten zirela San Juanetan. Nagusiagotan aureskua edo soka-dantza egitera joaten ziren beste auzo batzuetara.

1.429. Dantza-solte txapelketak Elgoibarren (EGB-106/019)

Dantza-eskolan umei ez zieten dantza soltea irakasten, taldeko dantzak bakarrik. Entseguetan neskak eta mutilak aparte egoten ziren eta dantza gutxi batzuetarako bakarrik elkartzen ziren. Herrian betidanik ezagutu izan dute dantza solte txapelketa. Ondarrutarren artean lehia gogorra egoten zen. Markinako Txanbolin tarrek jotzen zuten txistua. Maila handiko txistulariak ziren.

1.430. Trinitateetan danborrada, dantzaldia eta umeen Euskal Jaia (EGB-106/021)

Trinitate egunean Euskal Jaia antzeko ekitaldia egiten zuten: dantzan zekiten herriko ume guztiak irteten ziren. Talde bakoitzari inguruko zuhaitz baten izena jartzen zioten eta kartelak egiten zituzten. Bezperan danborrada eta dantzaldia izaten zituzten eta lo asko egin gabe joan behar.

1.431. Itziar izan zen Barren aldizkariaren lehen zuzendaria (EGB-106/026)

Itziar `Barren´ aldizkariaren lehenengo zuzendaria izan zen, Alberto Agirreazaldegirekin batera. Udal euskaltegian lanean zebilela eskaini zioten kargua eta handik irteerakoan joaten zen `Barren´era. Bi kazetari eta maketatzailerik bat kontratatu zituzten hasieran. Jendearen usteak.

1.432. "Ez dok amaitu" jaialdia (EGB-106/028)

Elgoibarko Izarra elkarteak soldatapeko lehenengo pertsona hartu zuen sasoiaren (1992), elkartearen oraindik bizirik zegoela aldarrikatzeko, "Ez dok amaitu" jaialdia antolatu zuten kiroldegian. Herritarrek parte hartu zuten. Garai bateko dantzariak dantza egin zuten eta Urruzunoren urteurrenean antzezterako antzerkia egin zuten berriro.

1.433. Euskarazko kantak abesten zituzten koruan (EGB-106/029)

Beraiek gazteak zirenean Juan Igartuak sortutako koruak ez zuen izenik. Ez zuela ibilbide luzea izan dio Itziarrek. Jende askok parte hartu zuen. Talde handitik otxoteak ateratzen zituen gero, ondoen abesten zutenak aukeratuta. Euskarazko kantak abesten zituzten, asko Arratiako Oihartzunak taldearenak.

1.434. Hiru antzezlanetan parte hartu zuten; arropak eta dekoratuak (EGB-106/032)

`Nekaldia´ obra antzeztu zuten elizan. Aste santuan irudiak zapi beltzez estalita egoten ziren. Arropak. Danborradarako Donostiako "Casa Angelita" tik ekartzen zituzten arropak, alokatuta. Antzeztu zuten bigarren obra Lurdes Iriondoren `Buruntza azpian´ izan zen. Hirugarrenaren izenburua ez dute gogoan. Dekoratuak ahal zen lekutik lortzen zituzten.

1.435. Mari Ezenarro eta Manolo Rementeria, antzerki taldearen zuzendariak (EGB-106/034)

"Apuntadorea"ren lana antzezlanetan. Odeon antzokian "apuntadorea" sartzeko maskorra zegoen. Miren Vallejo ibiltzen zen lan horretan. Mari Ezenarro eta Manolo Rementeria antzerki taldeko zuzendariak. Beraiek ez zuten sasoi hori ezagutu, baina haietako batzuk behintzat aurretik antzerkian ibiliak ziren. Mari Ezenarro pixka bat totela zen eta deklamazioa ikasi zuen Madrilan. Gainera, kanpoan asko ibilitakoa zen, senarra futbol jokalaria internazionala zelako.

1.436. `Etxegiña´ bertsolaria (EGB-106/039)

Sebasen aitona, `Etxegiña´ Ermutik etorri zen Elgoibarrera. Bertsolaria zen. Herrian galduta zegoen Santa Ageda eskea berreskuratu zuten eta berak jardun zuen urte luzez koplari. Garai batean, eskean joandakoan, hildakoren bat egon zen etxearen aurrean errezatu egiten zen, koplak kantatu beharrean. Gerora, `Etxegiña´k berak asmatutakoa zela esaten zuen salbea kantatzen hasi ziren. Salbe horren bi bertso elizako hiletetan ere abesten dira orain. Gizon saltseroa zen, herrian ezaguna. Bertso-paper lehiaketa jarri zuten bere omenez eta omenaldi batzuk ere egin zitzaizkion. 87 urterekin hil zen.

1.437. Hizkuntzaren inguruko gogoeta (EGB-107/001)

Hizkuntza batean erraztasunik ez baduzu, hizkuntza horretan eztabaidatzeko mugatuta sentitzen zara. Gaztelaniaz euskaraz baino erraztasun handiagoa du. Hala ere berarentzat "aita gurea"k eta "padre nuestro"k ez dute esanahi bera; euskarazkoa sakonagoa da berarentzat.

1.438. Euskaraz amarekin bakarrik (EGB-107/003)

1940an jaio zen Elgoibarren, gerraostean. Gurasoak gerran alargundutakoak ziren biak. Bakoitzak bere seme-alabak zituen aurretik, eta elkarrekin izan zuten seme bakarra izan zen Jesus. Amak dena egiten zuen euskaraz, baina aitak gutxiago, lanbide askotan ibiltzen zen eta. Jesusek amarekin bakarrik egiten zuen euskaraz; bestela dena gaztelaniaz. Gainera, umetan hainbat gaixotasun izan zituen eta bi aldiz Madrilera joan beharra ere izan zuen (amaren ahizpa bizi zen han). Tifusarentzat eman zizkioten sendagaiek sendatu zizkioten gaitz guztiak, antza.

1.439. Aitari hileta egin zioten, hil zelakoan (EGB-107/004)

Aita inklusakoa zen, baina Sollube (Bermeo) inguruan hazi zuten. Ameriketara joan zen I. Mundu Gerra baino lehen, hara joandako senideengana. Gerra hasi zenean, itzuli egin behar zela esan zioten. Berandu iritsi zen itzulerarako hartu behar zuen barkura eta ozta-ozta libratu zen, barku hura hondoratu egin zuten eta. Etxekoek hileta ere egin zioten, hil zelakoan.

1.440. Leku bakarrean entzuten zen euskara: elizan (EGB-107/005)

Euskararik ez zen egiten ia inon. Leku batean bakarrik entzuten zen euskara: elizan. Sermoiak eta abestiak euskaraz izaten ziren. Meza latinez izaten zen garai batean eta abadea jendeari bizkarra emanda egoten zen. Berak 17 urte zituela hasi ziren gaztelaniaz ematen. Herriko apaiz guztiek zuten euskararekiko maitasuna. Berak arazoak izaten zituen euskarazko sermoiak ulertzeko.

1.441. Felix Etxeberriarekin eta Sabin Osororekin harremanetan (EGB-107/006)

1954an sortu zen Danobat lantegia eta bera hango bulego teknikoan hasi zen lanean 1956an. Bertan harreman ona egin zuen Felix Etxeberriarekin eta Sabin Osororekin. Haien garai hartan euskaraz alfabetatzeko eskolekin hasita zeuden eta euskara bultzatzeko asmoekin zebiltzan. Nahiz eta lanean gero eta goragoko karguak lortzen joan eta bere lanean zentratuta ibili, Felixekin eta Sabinekin harremanetan jarraitu zuen beti eta euskararen inguruko mugimendu guztien berri izaten zuen: Elgoibarko Izarra, ikastola, bonuak... Felixekin izan zuen harremanaren adibide da, esaterako, berak proposatu ziola semeari Hasier izena jartzea.

1.442. Karlos Santamariarekin eta Rikardo Arregirekin bilera, ikastolako auzi bat konpontzeko (EGB-107/007)

Elgoibarko ikastolari elizak eman zion babesa sorreran. Lehenengo irakaslea Itziar Ajuria izan zen. Ondoren hasi ziren irakasle gazteek politikarekiko lotura handiagoa zuten eta gurasoei kezka piztu zitzaie, batez ere irakasle batekin. Guraso eta irakasleen arteko borroka zegoen, irakasleek euren arabera zehaztu nahi zutelako irakaskuntza. Orduan, Felix Etxeberriak bilera batera deitu zuen Jesus, Barrutiarenera. Lazaro Unzueta bitartez kontaktatu zuen

Karlos Santamaria eta Rikardo Arregi etorri ziren bilera horretara. Guraso eta irakasleekin bildu ziren geroago eta hitzaldi baten bidez Rikardo Arregik garbi utzi zuen gurasoek izan behar zutela indar handiagoa. Rikardo Arregiren inguruko kontuak: "Zeruko Argia"ko artikuluak, heriotza, historikoki izan duen garrantzia...

1.443. Rikardo Arregiren hitzaldia Arrate Kultur Elkartean, h-aren alde (EGB-107/008)

Rikardo Arregi euskaltzain gazteena izan zen. Jesus Laboral Kutxako zuzendaritza-batzordean zegoela, eztabaida handia egon zen, euskaraz h-a erabili ala ez. Eibarko Arrate Kultur Elkartean hitzaldia eman zuen Arregik, h-aren alde. Euskaltzale adinekoak hari txistua jotzeko asmoz joan omen ziren, baina txaloka bukatu zuten. Handik gutxira Laboraleko bilera izan zuten eta Alfonso Gorroñobeitiari gomendatu zion Rikardoren hitzaldira joatea. Hark ere Rikardok dohain berezia zuela komentatu zion gero.

1.444. Pixkanaka euskara hobetzen (EGB-107/009)

Felix Etxeberriarekin eta Sabin Osororekin urteetan harremana euskaraz izan ostean, euskarazko sermoiak ulertzen hasi zen. Haiekin, amarekin eta beste bakarren batekin bakarrik egiten zuen euskaraz. Bestela, lagunartean dena gaztelaniaz. Geroago, alabekin ere euskaraz. Emaztea altsasuarra du eta hark zailtasunak izan ditu euskararekin, nahiz eta ikasten ere jardun zuen.

1.445. Hizkuntza, komunikatzeko tresna (EGB-107/010)

Gaztetan `Zeruko Argia´ irakurtzen zuen. Euskaraz alfabetatu gabea denez, `Barren´ aldizkaria tresna interesgarria izan dela berarentzat dio. ETB hasi zenean, amak ez zuen izan arazorik ulertzeko; arrebak, ostera, bai. Berak oraindik ere batzuetan hiztegia erabiltzen duela dio, bere euskara lagunartekoa edo etxekoa delako. Berarentzat hizkuntza komunikatzeko tresna izan da beti eta inoiz ez dio eman garrantzirik gramatika ikasteari. Idaztea asko gustatzen zitzaion eta saria ere irabazi zuen Pilar ikastetxean.

1.446. Ikastola berria: Danobatek utzitako lur-saila, eraikina, diru-laguntzak... (EGB-107/012)

Danobat lantegiak lur-sail batzuk zeuzkan erosita, lantegi berria egiteko, baina, autobidea egin zenean, harekiko distantzia nahikoa ez zegoela eta lur-sail horiek blokeatuta geratu ziren. Bera zen zuzendaritza-batzordeko buru eta sail horiek ikastolari ematea proposatu zuen. Ikastolaren eraikin berria egiteko prozesuan Araolazak zeresan handia izan zuen. Diru-laguntzak eskatzera Madrilera joatea komeni zela esan zion Jesusi, eta Jose Maria Arizmendiarrietaren laguntzarekin joan ziren Hezkuntza sailera. Madrilera egin zituen bidaietan konturatu zen fama txarra zuela gobernuan.

1.447. Jaime Arreteren eta Marcelino Orejaren laguntza (EGB-107/013)

Elgoibarko ikastola sortzeko prozesuan, garai hartan alkate zen Jaime Arresek lagundu zien hariak mugitzen. Marcelino Orejak ere beharrezkoak ziren kontaktuak egiten lagundu zien. Mugimenduko kideak izan arren, ez zirela euskararen edo ikastolaren aurkakoak dio. Jaime Arrese Orejak utzitako posturako izendatu zuten, baina hara iritsi aurretik hil egin zuten. Bera baino lau urte zaharragoa zen Jaime eta umetatik izan zuen harekiko miresmena. Ideologia ezberdinetakoak izan arren, errespetuz jokatzeko beti. Alkateen Mugimenduan ere parte hartu zuen.

1.448. Lehen lehendakaria izan zen, ikastola kooperatiba bihurtu zenean (EGB-107/015)

Elgoibarko ikastolaren eraikin berria bukatzen ari zirela, Elgoibarko Izarraren babespetik irten eta kooperatiba bihurtzea erabaki zuten. 1976 bukaeran berarengana jo zuten, kooperatibaren estatutuak zehazten lagundu eta lehen lehendakaria izan zedin. Bera enpresen sorreran murgilduta zebilen eta ikastolaren antolaketa oso desordenatua iruditzen zitzaion. Irakasleekin izan zituen tira-birak. Orduko zuzendaritzako kideak: Manolo Zabala, Jesus Mari Iriondo... Agustin Gorostiza kontratatu zuten gestio lanetarako.

1.449. Baketzaile lanetan jardun zuen ikastola publiko egin ala ez erabakitzerakoan (EGB-107/017)

Elgoibarko ikastola publiko egin ala ez erabaki behar zenean, berari ere deitu zioten, nahiz eta bera ordurako aparte samar ibili. Enfrentamendu handia zegoela ikusi zuen eta baketzaile lanak egin zituela dio. Hartutako erabakia ona izan zela iruditzen zaio, eskola publikoak politikoen azpian daudelako, horrek dakartzan arriskuekin. Hala ere, herri-eskola onak daudela aitortzen du.

1.450. Hamar urterekin Pilar ikastetxera (EGB-107/021)

Sei-zazpi urterekin eskola publikoan hasi zen. Irakasle faltagatik arazoa zegoen eta hamar urterekin Pilar ikastetxera joan zen. Hango irakasleak buletinean jarri zion ikasle ona zela, baina oso berritsua.

1.451. Ikasketa guztiak gaztelaniaz; señoita Anitaren eskola partikularrak (EGB-107/022)

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen: Maalako mojekin, eskola publikoan, Pilar ikastetxean, Eskola Profesionalean eta señoita Anitaren eskoletan. Azken horretan denetarik irakasten zuten. Bera bankuan lanean hasteko prestatzera joan zen. Beste batzuek Batxilergorako prestatzen egoten ziren. Leku txiki batean ikasle pila bat egoten ziren eta irakasle bakarra: Ana Etxeberria eibartarra.

1.452. Lagunartean dena gaztelaniaz; baserritarrek euskara gehiago (EGB-107/023)

Lagunartean dena gaztelaniaz egiten zuten. Baserritarrek euren kuadrilletan euskaraz egiten zuten. Bere kuadrillako baten kasua aipatzen du. Danobat lantegian baserritar asko zeuden eta berari euskaraz egiten zioten. Makina-erremintaren historian baserritarrak garrantzitsuak izan zirela dio.

1.453. Lanbide-heziketako eskola eta marrazketa klaseak (EGB-107/027)

Bera ez zen unibertsitatera joan, baina garai hartako Elgoibarko ikastetxe guztietan ibili zen. Lanbide-heziketako eskola; handik sortu zen IMH. Bernardo Ezenarrok sortu zuen marrazketa klasea. Bera ere bertan ibili zen. Lantalde garrantzitsua egon zen gero marrazketan: Amadeo Azpitarte (zuzendaria), Pedro Gabilondo, Manolo Zabala... Lanetik irtendakoan joaten ziren eskolara.

1.454. Sindikatu abertzalea sortu nahian; eztabaidetan euskara ala gaztelania? (EGB-107/030)

Anaia Elgoibarko Izarrako lehendakari izan zen. Ezin du zehaztu zenbateraino egiten zuen euskaraz ala gaztelaniaz anaiarekin. Berak asko hitz egin izan du

eta eztabaida askotan parte hartu ere bai. Sindikatu abertzale bat sortzekotan ibili ziren eta bileretara joateko eskatzen zioten berari, Arzallusi kontra egiteko. Sindikatuari "Euskadi" izena jarri nahi ziotelako apurtu zen adostasuna. Garai hartan saltsa askotan sartuta ibili zen.

1.455. Abertzaletasuna anaiengandik (EGB-107/031)

Amari minbiziarekin hil zitzaion lehenengo senarra. Aitari, berriz, tifusarekin emaztea eta alaba, frontean ibilitako anaiak kutsatuta. Hori dela eta, ez zuen politikaz ezer jakin nahi izaten. Anaia nagusia oso abertzalea zen. Berari Luis anaiak erakusten zizkion ezkutuan ekarritako liburu abertzaleak.

1.456. Deunoro Oridenen atxiloteta (EGB-107/032)

Deunoro Oriden lagun zumaiarra oso abertzalea zen. Berak ez zekien politikan sartuta zebilenik, baina abuztuko egun batez, bulegoan zegoela, guardia zibila atzetik zuela eta ahalik azkarren etxean zeuzkan paperak ateratzeko eskatu zion. Zestoako enpresari bat tokatu zen bulegoan eta zer gertatzen zen jakin zuenean, laguntzeko prest agertu zen. Jesus ez zen sasoiz iritsi Deunororen etxera eta atxilotu egin zuten. Zestoako enpresari hari handik urte batzuetara bi tiro eman zizkion belaunean ETAk eta ozta-ozta salbatu zen.

1.457. Elgoibarko ikastolaren sorrera; eraikin berriaren inaugurazioa (EGB-107/033)

Elgoibarko ikastola. Habia Danobaten egon zen. Ikastolaren sorrerako pertsona esanguratsuak. Irakasleen artean Andres Alberdi nabarmenduko luke. Antton Aranburu ere pertsona garrantzitsua izan zen, hark prestatu zituen ikastolaren erakin berriaren inaugurazio eguneko ekintzak. Inaugurazio eguna nolakoa izan zen.

1.458. Askatasuna, gauza guztien gainetik (EGB-108/001)

Garai batean, pentsaera ezberdina zuenari edo ezberdin jokatzeko zuenari "Herriak ez dizu barkatuko" esateko ohitura zegoen. Bera ez da inoiz ados egon esaldi horrekin. Gauzak indarrez itxiaztearekin ere ez da ados egon inoiz. Berak askatasuna defendatzen du gauza guztien gainetik.

1.459. Euskaraz eztabaidatzeko erraztasunik ez (EGB-108/003)

Gaztelaniaz pentsatu eta euskarara itzultzen zuen gero, Ikastolako irakasleekin eztabaidatu behar zuenean, larri ibiltzen zen, euskaraz ez zuelako hainbesteko erraztasunik.

1.460. Euskararen gaur egungo arazoak: digitalizazioa eta globalizazioa (EGB-108/007)

Bera umea zenean dena gaztelaniaz egiten zenez, orain euskara egoera hobean ikusten du. Hala ere, ulertzen du gazteagoek euskararekiko kezka izatea. Euskararentzako gaur egun sortu den arazo handi bat: digitalizazioa, ingelesa, globalizazioa. Globalizazioarena zeharka datorren inposizioa da eta askotan ez gara jabetzen. Euskarak, horren aurrean, defendatzeko, inposizio zuzenak jarri behar.

1.461. Etxepe eta Felix Etxeberriaren euskararen aldeko apustua (EGB-108/010)

Etxepe lantegia sortu zenean, hainbat neurri hartu ziren, lantegian euskara bakarrik erabil zedin. Fakturak ere euskaraz egiten zituzten. Felix Etxeberria izan zen sortzaileetako bat. Felixek beti euskara ipini izan duela gauza guztien gainetik eta bere ideiekin koherentea izan dela dio. Arriskua hartu zuten lantegi hori sortzean, baina oztopoak gainditzea lortu zuten.

1.462. Ibarrolaren irudia ikastolarentzat dirua batzeko ateratako egutegian (EGB-108/014)

1972 inguruan, ikastolarentzako dirua batzeko, egutegi bat ateratzea pentsatu zuen, herriko lantegiak ere tartean sartuta. Agustin Ibarrolak egin zuen azaleko irudia. Berak eduki du margolana etxean. Ikastolakoek ez zuten nahi izan,

1.463. Poliziak apaiz jantziarekin Arantzazuko ibilaldian (EGB-108/016)

Agustin Ibarrolak Manolo Zabalarekin batera egin zuen soldadutza eta gogoan du haren etxera joan zela behin, gero Arantzazuko ibilaldia egiteko. Abuztuko azkenengo larunbatean egiten zen Arantzazura ibilaldia. Oñatitik oinez igotzen zen jendea, gauez. Deunoro Oliben atxilotu zuten urtean Jose Luis Belloso apaizak abisatu zien, poliziak zebiltzala apaiz jantzita eta kontuz ibiltzeko.

1.464. Erdalduna zen, euskara eduki arren (EGB-108/018)

Ikastola herritik sortu zen, baina pertsona zehatz batzuei esker. Berak nabarmendu nahi du garai hartan bera erdalduna zela, euskara eduki arren. Euskara etxean bakarrik zuen, amak beti euskaraz erantzuten ziolako. Amak ez zuen erraztasunik gaztelaniaz.

1.465. Lehenengo euskara klaseak "Frente de Juventudes"en lokalean (EGB-108/021)

Gerraosteko mugimendu sortzailea. Pako Juaristi, Vallejotarrak... Garai batean ez zegoen lokalik eta arriskutsua zen lokalaren jabearentzat lokalak uztea, politikoki markatu egiten zelako. Gabi tabernaren gainean "Frente de Juventudes"en lokala zegoen. Hango geletako batean hasi ziren euskara klaseak ematen.

1.466. Apaizen garrantzia euskara bultzatzeko (EGB-108/023)

Garai bateko Elgoibarko apaizak. On Jose Juaristi zen parrokoa. On Antonio San Pedro nabarmenduko luke berak. Elizako pertsonak paper garrantzitsua izan zuten. 60-70eko hamarkadako apaizen mugimenduan Elgoibarko apaiz batzuk ere tartean zeuden. Elizaren garrantzia euskara bultzatzen: lokalak, ikastolari babesa, kantzak eta sermoiak euskaraz...

1.467. Rikardo Arregi eta Amatiño `Zeruko Argia´n (EGB-108/024)

Rikardo Arregik `Zeruko Argia´n idazten zituen artikuluak irakurtzen zituen eta euskara lantzeko edo ikasteko lagungarri zitzaizkion. Amatiñoen kronikak ere irakurtzen zituen; orri osokoak izaten ziren. Etxean Arantzazuko egutegia ere izaten zuten

1.468. Loiola irratia, herri-mugimendua (EGB-108/025)

Loiola irratia herri-mugimendua izan zen. Durua batzen ibili ziren eta beraiek ere bazkide egin ziren. Ez zuten lortu baimenik uhin ertainean ("onda media") emititzeko eta FMn ("frecuencia modulada") emititzen zuten. Orduan denek FMko irratiak erosi behar izan zituzten. Dena dela, bera oso irakurzalea izan da eta nahiago izaten zuen egunkaria irakurtzea. Gainera, sasoi batean denbora asko pasatze zuen atzerrian.

1.469. Irakurzaletasun izugarria umetatik; betaurrekoak jarri zizkiotenekoa I (EGB-108/026)

Zazpi urterekin jada egunkaria irakurtzen zuen. Irakurtzeko zaletasun handia izan du beti. Ikastetxean sartu eta handik gutxira egun batez konturatu zen ez zuela ondo ikusten. Eibarko Recalde okulistarengana eraman zuen amak eta betaurrekoak jarri zizkioten. Egunean bi tren egoten ziren Eibarrera.

1.470. Irakurzaletasun izugarria umetatik; betaurrekoak jarri zizkiotenekoa II (EGB-108/028)

Gogoan du umetan Zine Zaharrean "Las zapatillas rojas" izeneko pelikula ikusi zuela. Hura ikusten begiak narritatu zitzaizkion eta malkotan egon zen. Aste hartan bertan bista galdu zuen kolpetik eta betaurrekoak jarri zizkioten. Askok irakurtzen zuelako gertatuko zitzaioela esan zion lagun batek. Gaztelaniazko liburuak irakurtzen zituen; ez zegoen euskarazkorik. Geroago Txomin Agirrerren `Kresala´ eta `Garoa´ irakurri zituen. Deun Olidenek haren hilobia ikustera eraman zituen Zumaiara.

1.471. Baserritarrei irainak gaztelaniaz ez jakiteagatik (EGB-109/004)

Euskaraz jakin gabe hazi zen. Azoka egunetan (hilean behin) euskaraz entzuten zen kalean. Baserritarrek eskolak gaztelaniaz jarraitzeko arazoak zituzten. Irainak eta burlak.

1.472. Musikarekin oso lotuta (EGB-109/007)

Alfonso musikarekin oso lotuta egon da beti. Hamalau urterekin lagun batzuen artean musika-talde bat sortu zuten eta hamasei urte zituztela hasi ziren plazetan jotzen.

1.473. Euskara Radiofonikoarekin euskaraz ikasten (EGB-109/008)

Irakasle-ikasketak egiten ari zela, lagun batek esan zion euskaraz ikastea interesgarria litzatekeela, Elgoibarren ikastola zabaldu berri zegoelako. Euskaraz modu autodidaktan ikasi zuen, Euskara Radiofonikoarekin.

1.474. Aittola-Zar baserrian euskara ikasten I (EGB-109/009)

Elgoibarko ikastolan klaseak emateko euskaraz ikasi eta trebatuko zela hitzeman zuen eta uda batzuk Aittola-Zar baserrian pasa zituen. Asteburuetan, musika jotzeko Elgoibarrera jaisten zen.

1.475. Euskara ikasteko metodologiak (EGB-109/011)

Euskara ikasteko metodologiei buruz: Jon Oñatibiaren "Euskara Radiofonikoa" eta Patxi Altunaren "Euskara, hire laguna".

1.476. Aittola-Zar baserrian euskara ikasten I (EGB-109/012)

Aittola-Zar baserrian euskara ikasten zuen udetan. Baserriko lanetan laguntzen zuen. Euskararen egitura erabat ezberdina zenez, zaila egin zitzaion baina urte gutxitan ikasi zuen eta Elgoibarko Ikastolan irakasten hasi zen.

1.477. Expresión Sonorako abestiak, gaztelaniatik euskarara (EGB-109/013)

Euskara ikasten hasi zenean, kontzientzia bat hartzen hasi zen. Orduan zuten "Expresion Sonora" musika taldean abestiak euskaraz sortzen hasi ziren. Hasieran, ikastolan zebilen Antton Aranburuk idazten zituen.

1.478. Koska taldea: kantak, hitzak... (EGB-109/014)

Urte batzuez taldea geldik egin zen baina disko bat ateratzeko aukera atera zitzaion eta taldea bueltatu egin zen. Euskaraz abesten zuen lehenengo rock taldea izan zen, Errobirekin batera. Kanta gehienak, musikalki, Alfonsok sortutakoak dira.

1.479. Euskal musikaren panorama aldatzen hasi zen (EGB-109/015)

Expresion Sonoraren bigarren diskoa Euskal Herriko testuinguru sozialarekin lotuta egon zen. Abestien egitura musikala eta euskal musikaren panorama aldatu egin ziren hizkuntza, hitzak, estetika...

1.480. Koska taldea: taldekideak (EGB-109/017)

Koska taldearen izena. Taldekideak: Endika Iriondo (bateria), Gabi Agirregomezkorta (gitarra), Luis Miguel Diego "Mitxi" (gitarra akustikoa), Txarra Gurrutxaga (gitarra eta ahotsak) eta Alfonso (baxua eta ahotsak). Soinu-teknikari bezala, Ignacio Garate.

1.481. Expresion Sonora: taldekideak, lehenengo kontzertua (EGB-109/019)

Expresion Sonorako taldekideak: Gabi Agirregomezkorta, Patxi Garcia, Luis Mari Arakistain eta Alfonso Guilló. Lehenengo kontzertua 1969an eman zuten Elgoibarren. Ingalaterrako rock taldeen bertsioak egiten zituzten

1.482. Expresion Sonora: bertsioak ingelesez (EGB-109/020)

Ingelesezko bertsioak jotzeko aurreko lana. Irratiaren bidez ezagutzen zituzten talde ingelesak eta gero diskoak erosten zituzten. Musika-dendak.

1.483. Expresion Sonoraren fama (EGB-109/024)

Euskal rock eszenaren hasierako taldeak, musikariak, kontzertuak, sariak... Expresion Sonora taldearekin sari bat irabazi zuten eta horrek fama eman zien.

1.484. Koska musika-taldearen hitzak, euskaraz (EGB-109/025)

Expresion Sonora-tik, 1971n Koska taldea sortu zuten. Euskarazko bertsiok egiteko erabakia hartu zuten, nahiz eta aldaketa progresiboki egin zuten.

1.485. Euskal musikaren zentsura (EGB-109/026)

Antton Aranburuk Koskaren kanten hitzak idazten zituen, haiek emandako silabak emanez. Zuzenean jotzeko ez, baina disko grabatzerako orduan, abestiek zentsura pasa behar zuten. Zuzenekoetan, gobernadore zibilaren baimena behar izaten zuten.

1.486. Musika jotzeko karnet bat behar zen (EGB-109/027)

Frankismo garaian, musikariek, jotzeko karnet bat atera behar zuten. Donostiako La Perlara joan ziren hura lortzeko.

1.487. Jendearen harrera, euskaraz jotzeagatik (EGB-109/030)

Euskaraz abesteak, posizionamendu politiko bat suposatzen zuen. Ekintza aurrerakoia izan zen eta gaur egun mantentzen den jarrera bat da. Labriten gertatutako pasadizo bat kontatzen du. Gizarteak, euskara bandera bezala hartu zuen.

1.488. Koskaren ondoren sortutako taldeak (EGB-109/031)

Euskal rock-a sortu aurretik, kantautoreak bazeuden. Beraien ostean sortutako taldeak: Itoitz, Akelarre, Izukaitz... Gaur egun, musika egiten bada ere, ez da gorpuzten.

1.489. Rock-a ez zen euskal musikatzat hartzen (EGB-109/032)

Koskarekin diskoa grabatu nahi izan zutenean, diskoetxe ezberdinetan galdezka ibili ziren (Herri gogoia. Artesi, Argia...) baina orduan, rock-a ez zen euskal musikatzat hartzen nahiz eta euskarazko kantak izan.

1.490. Elgoibarko ikastolako hasierako irakasleak (EGB-109/036)

Elgoibarko ikastolako hasierako irakasleak: Nekane Iturbe, Nekane Zubiaurre, Marixabel Mujika, Edurne Lasa, Antton Aranburu, Txomin Urdanpilleta, Angel (Ugarteburu), Andres (Alberdi), Iñazio, Mari Kruz Intxausti, Koldo Leibar, Jose Luis Murgoitio...

1.491. Elgoibarko ikastola: kokapenak (EGB-109/037)

Elgoibarko ikastolako eraikin berria eraiki aurretik (1976), lokal ezberdinetan ematen zituzten klaseak: elizako gela batzuetan, San Frantzisko kalean, Santa Ana kalean...

1.492. Elgoibarko ikastola eta gurasoen inplikazioa (EGB-109/038)

Elgoibarko ikastolan, gurasoek egindako lana handia izan zen: lokalak bilatu, irakasleak kontratatu, kooperatiba sortu... Guraso guztiek sinatu zuten, kontzientzia handiagoa izateko proiektuaren aurrean. 1979an, ikastolako eraikin berria zabaldu zen. Herri guztia zegoen ikastolaren alde.

1.493. Elgoibarko ikastola eta elizaren laguntza (EGB-109/039)

Elgoibarko ikastolaren sorrera, elizaren babesaren ezinbestekoa izan zen. Juan Beristain eta Carlos Agirre Garagarza abadeak izan ziren ikastolako lehenengo zuzendari ofizialak.

1.494. Elgoibarko ikastolako lehenengo zuzendariak (EGB-109/041)

Hasiera batean, Elgoibarko Ikastola eta Elgoibarko Izarrak elkarrekin lan egiten zuten baina gutxinaka banatzen joan ziren. Jesus Bilbao, lehenengo zuzendaria.

1.495. Aubixako aterpetxea (EGB-109/047)

Elgoibarko Ikastolak, Aubixako udalekuaren sorreran izan zuen papera. Gurasoek aukeratu zuten baserria, lanak egin zituzten... Hasierako urteetan, udalekua ikastolako haurrentzat bakarrik zen. Begirale-lanak egiten.

1.496. Aubixako aterpetxea: helburua (EGB-109/048)

Aubixako aterpetxean egiten ziren jolasak. Helburu nagusia, ikastolatik kanpo euskaraz egiten jarraitzea zen. Ikastolako haur gehienak euskaldun familiakoak ziren.

1.497. Lehenengo hitza beti euskaraz (EGB-109/049)

Gaur egun euskararen hedadura handitu egin da. Garrantzitsuena, lehenengo hitza beti euskaraz izatea da.

1.498. Ikastolako liburuak, hasieran gaztelaniaz (EGB-109/050)

Elgoibarko ikastolaren hasieretan, material guztia gaztelaniaz zen baina poliki-poliki aldatzen doa. Saioka.

1.499. UNED-eko euskarazko ikastaroak (EGB-109/051)

UNED-en euskarazko ziurtagiriak ateratzeko, bere kabuz euskal literatura eta idazki asko kontsumitu zituen. Tutorerik ez zuen izan eta azkenean ezin izan zuen ziurtagiria lortu. Larunbat goizetan ikastaroetara joaten zen.

1.500. Kilometroak 1996 Elgoibarren (EGB-109/054)

Ikastolen publikazioan, Elgoibarko ikastola ez zen publikora aldatu eta krisi handi batean sartu zen. Kilometroak Elgoibarren.

1.501. Elgoibarko ikastolagatik lan egindakoak (EGB-109/055)

Elgoibarko ikastolan parte hartu duten pertsona klabeak: Felix Etxeberria eta "Plaentxi"; lehenengo guraso taldea, ikastolako eta gau-eskolako irakasleak, ikasleak eta Elgoibarko herria.

1.502. Euskalduna sentitzea, euskara gaztetan ikasita (EGB-109/057)

Euskara ikasten hasi zenean, beste errealitate bat zabaldu zitzaion. Bere hizkuntza da, nahiz eta ez izan ama-hizkuntza. Euskal Herri euskaldun batean sinesten du.

1.503. Aitak lan-giroan ikasi zuen euskara (EGB-110/002)

Aita Elgoibarren jaio zen, baina haren gurasoak Errioxatik etorri ziren. Amaren aldeko familia guztia, berriz, euskalduna, baserrikoa. Eguren abizenaren jatorria. Aitak lan-giroan ikasi zuen euskara pixka bat eta, ikasteko prestutasuna zuenez, moldatzen zen. Hala ere, aitarekin gehienbat gaztelaniaz egiten zuen. Amarekin eta arrebekin euskaraz.

1.504. Ikasketetan eta lagunekin harremana gaztelaniaz (EGB-110/003)

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen. Mojetan ibili zen lehenbizi eskolan eta gero eskola publikoan. Pare bat urteren ostean fraideetara joan zen Batxilergoa egitera. Delineatzaile ikasketak egin zituen Eibarren, Armeria Eskolan, eta berehala hasi zen lanean. Lagunartean beti gaztelaniaz egin izan du, baita kuadrillan ere, nahiz eta batzuek euskaraz jakin. Hain zuzen ere, lagun baserritarrek gaztelaniaz ikasi nahi zutelako hasi omen ziren dena gaztelaniaz egiten. Familia erdaldunetako lagunek, berriz, ez dute inoiz sentitu euskara ikasteko beharrik.

1.505. Armeria Eskolako zuzendaria, Jose Ormaetxea, zorrotza (EGB-110/005)

Eibarko Armeria Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten, bai eskolan eta baita lagunartean ere. Zuzendaria, Jose Ormaetxea ermuarra, oso zorrotza zen. Aginduak oso zorrotz ematen ziren eta zigortzen zutena igandean eskolara joa behar izaten zen. Behin ikaskide bat gelatik bota egin zuen zuzendariak, ilea moztera joateko esanda.

1.506. Harreman gehienak gaztelaniaz (EGB-110/008)

Futbolean hasi zen gaztetan eta dena gaztelaniaz egiten zuen, bai lagunekin eta baita entrenatzaileekin ere. Lan-giroan ere gehiena gaztelaniaz zen arren, enkargatuak euskaldunak zituen eta haiekin euskaraz egiten zuen.

1.507. Auzoetakoak ez ziren nahasten (EGB-110/011)

Garai batean auzoetako umeak ez ziren elkarrekin nahasten. Bera Maala aldekoa da eta, gehienez, Plaza Txikiraino joaten zen; handik gora mezara joateko bakarrik. Borrokak ere izaten ziren, baina "borrokalaria"en artean bakarrik.

1.508. Euskararekiko lotura Elgoibarko Izarrari esker (EGB-110/013)

Lagun batek aipatuta, Elgoibarko Izarrako bazkide egin zen 1980-1982 inguruan. Ordutik aurrera hasi zen euskararekiko atxikimendu handiagoa izaten. Aurretik ez zuen euskarazko ezer irakurtzen. Ikasketak gaztelaniaz egin arren, ondo moldatzen zen euskaraz irakurtzeko.

1.509. 1987an Elgoibarko Izarrako lehendakari (EGB-110/018)

1983an EAJ alderdian sartu zen eta Batzokian harremanak euskaraz izaten zituen. 1987ko urtarrilean Elgoibarko Izarrako lehendakari lanean hasi zen. Urtebeteko epealdia izaten zen. Artean ez zegoen liberaturik eta borondatezko lana izaten zen. Ikastolaren 25. urteurrenaren antolaketa tokatu zitzaion. Urte horretako maiatzean Elgoibarko Udalean sartu zen zinegotzi moduan.

1.510. Elgoibarko Udaleko lehen Euskara Batzordea 1987an (EGB-110/019)

1987an sartu zen zinegotzi moduan Elgoibarko Udalean eta zortzi urte egin zituen. Urte hartan jarri zen lehenengo Euskara Batzordea. Udaletxeko itzultzailea zen Maritxu Loiolak egiten zuen Batzordeko idazkari lana. Giro erdalduna zegoen udalean bera sartu zenean. Dena gaztelaniaz egiten zen, nahiz eta gero itzultzaileak idatziak euskaratu. Euskara teknikari bat jartzea izan zen hasierako neurrietako bat.

1.511. Euskara Batzordeak bideratutako lehen lana: azterketa soziolinguistikoa (EGB-110/020)

Udaleko Euskara Batzordearen lehenengo lanetako bat SIADECOrri azterketa soziolinguistikoa bat eskatzea izan zen, herrian euskararen egoera zein zen ezagutzeko. Ordurako euskararen egoera pixka bat hobetuta zegoen garai batetik, batez ere ikastolari esker. Izan ere, Juan Marik dio bera umea zenean oso euskara gutxi entzuten zela kalean.

1.512. Ume eta guraso askok gaztelaniarako joera (EGB-110/024)

Gaur egun ez du batere osasuntsu ikusten euskararen egoera Elgoibarren. Berak askotan esaten die umei euskaraz egiteko lagunekin, nahiz eta besteak gaztelaniaz hitz egin, denek dakitelako edo ulertzen dutelako euskaraz. Baina ikastolako atetik kanpora irteteaz bat, gaztelaniarako joera hartzen dute. Gurasoek ere sarri gaztelaniaz egiten dute, euskaraz jakin arren.

1.513. Udal langileak euskalduntzen (EGB-110/026)

Udala nola joan zen euskalduntzen. Udaltzainak euskaldundu beharra zegoela ikusi zuten, herritarrekin harreman zuzena zutelako. Gogoan du udaltzain batzuekin tira-birak izan zituela, ez zutelako ulertzen euskaldunak izanda zergatik joan behar zuten euskaltegira. Udaleko beste langile batzuk ere euskaldundu ziren, garai batean gehienak erdaldunak ziren eta.

1.514. Elgoibarren euskara bultzatu duten entitateak (EGB-110/029)

Elgoibarko Izarrak izan duela Elgoibarren euskara bultzatzen zerikusi handiena dio. Lantegi batzuek ere egin izan dute ahalegina. Etxepe lantegian dena

euskaraz egiten da. Felix Etxeberria `Parapan´ izan zen zuzendaria. Zerbait lortzeko, gogor egin behar: fakturak bueltan bidaltzen zituzten, gaztelaniaz jasotzen zituztenean. Dendetako idazkunak euskaraz jartzeko kanpaina ere egin zen, baina dirua gastatu arren, gero zenbateko emaitza lortzen den ikusi behar.

1.515. Araba aldeko abizenak Elgoibarren (EGB-111/003)

Amak familia zuen Bilbon eta han jaio ziren beraiek (lau anaiak), baina Elgoibarren bizi izan dira beti. Gurasoak ere elgoibartarrak ziren. Latxa abizenaren jatorria. Amaren aldeko aitona Aiaratik etorri zen. Garai batean jende asko etorri zen inguru hartatik Elgoibarrera lanera eta horregatik daude gaur egun Araba aldeko abizen asko.

1.516. Aitari ezin gaztelaniaz egin (EGB-111/004)

Etxean dena euskaraz egiten zuten bai gurasoekin eta baita anaien artean ere. Aita oso euskaltzalea zen. 14 urterekin Gasteizera joan zen kolegiara Txomin. Behin zuzendariaren aurrean aitari azalpenak eman behar zizkion eta aitarekin gaztelaniaz hitz egiteko ezintasuna sentitu zuen.

1.517. Aitaren euskararekiko sentimendua eta kezka (EGB-111/006)

Aitak euskararekiko zuen sentimendua azaltzen duten bi pasarte kontatzen ditu. Txominen seme zaharrena jaio zenean, aitaren lehenengo kezka ea umeak euskaraz ikasiko ote zuen izan zen. Beste behin, Txomin mutikoa zela, 25 pezeta eman zizkion aitak, lagunekin euskaraz jardun zuela jakin zuenean.

1.518. Harrituta, anaia ikastolara pozik joaten zelako (EGB-111/008)

Elgoibarko ikastola sortu zenean, anaia gazteagoa bertan hasi zen. Beraiek harrituta geratzen ziren hark erabiltzen zituen hitzekin: andereño, goxoki... Baina gehien harritzen zituena ikastolara pozik joatea zen. Horrez gain, ikastolan neskak eta mutilak elkarrekin zebiltzan. Hori bekatua zen euren sasoiari. Fraideek errespetu handia ezartzen zuten eta jo ere egiten zituzten, zigor moduan.

1.519. Euskaraz egitearren zigorrik ez, baina gaztelaniaz pentsatzeko gomendioa (EGB-111/009)

Gaztelaniaz pentsatzeko aholkatzen zieten Elgoibarko fraideetan "lengua castellana" irakasgaiari. Fraide euskaldun bat ere bazegoen: Etxaburu, ondarrutarra. 14 urterekin Gasteizko kolegiara joan zen. Han Arzamendi fraide arrasatearrarekin euskaraz egiten zuen. Gasteizen "El vasco" deitzen zioten eta barre egiten zioten, "acento de casero" zuela esanda. Euskaldun gutxi zegoen. Hala ere, ez du ezagutu zigorrik euskaraz egitearren.

1.520. Lagunartean gaztelaniaz; baserritarrek eta nagusiagoek euskara gehiago (EGB-111/011)

Lagunartean gaztelaniaz egiten zuten. Aldea nabaritzen zen baserritarren eta kaletarren artean. Aitaren sasoiari jendeak euskaraz egiten zuen, baina jada sasoi hartan neskek gaztelaniarako joera zutela esaten zuten. Egoerari buelta eman zitzaion eta gerora hasi zen jendea berriz euskaraz, baina oso sasoi gogorra bizi izan zuten.

1.521. 9-10 urterekin euskarazko gau-eskoletara (EGB-111/014)

Gabi tabernaren gaineko lokala Txominen amonarena zen. Garai batean Batzokia egon zen bertan. Gero falangearen esku egon zen 40 urtez. Lokal horretan hasi ziren lehenengo gau-eskolak, euskara irakasteko. Txomin hara joaten zenenean `Plaentxi´ eta `Parapan´ ziren irakasleak. Miren Vallejo ere aritzen zela uste du. Hainbat ikaskide aipatzen ditu, gehienak etxean euskaraz egiten zutenak, nahiz eta euskaraz ez zekienik ere bazegoen. Bera aspertu egiten zen. Euskarazko abestiak, "Boga-boga" liburua... Falangeak desfileetarako izaten zituen egurrezko fusilekin jolasean ibiltzen ziren.

1.522. Arrate eta Loiola irratiak; "Chomin del Regato" (EGB-111/017)

Aita oso euskaltzalea zen eta etxean Arrate irratia entzuten zuten. On Pedro Gorostidi zen irratiaren arduraduna. 1964an itxi egin zuten eta gero urte luzez egon zen itxita. Loiola irratian ere izaten ziren gauza batzuk euskaraz. Garai hartan "Chomin del Regato" zegoen modan. Saio umoretsu bat zen ustez, baina euskaldunei burla egiten zitzaie la iruditzen zaio. Gurasoak bertsolari txapelketetara ere joaten ziren.

1.523. Pan-pin haurrentzako aldizkaria eta Arantzazuko takoa (EGB-111/019)

Bera umea zela, haurrentzako Pan-pin aldizkaria hartzen zuten etxean (Zeruko Argia aldizkariaren gehigarria zen). Gogoan ditu bertako zenbait pertsonaia. Arantzazuko takoa ere beti ezagutu du etxean.

1.524. Euskaraz ez egiteko aitzakia (EGB-111/020)

Zenbaitek gaztelaniaz egiteko aitzakia gisa jartzen zuen garai batean euskaraz egiten ez zietela uzten. Baina etxean ez zegoen euskaraz egiteko inongo mugarik. Horren inguruko gogoeta Miren Vallejori entzun zion behin. Kanean ere Txominen sasoian jada ez zen isunik jartzen euskaraz egitearren.

1.525. Euskal kantak Musika Bandan; alkate baten jarrera (EGB-111/021)

Musika bandan beti jo izan dira euskal giroko abestiak. Orduan besterik ez zegoen eta jendea hunkitu egiten zen. Behin Bizente Beobideren `Rapsodia vasca´ jo omen zuten herri batean eta herri hartako alkateak idatzi bat egin zien halakorik gehiago ez jotzeko eskatuz. Duela 52 urte hasi zen bandan. Gogoan du San Inazio egunean ere euskal giroko doinuak eta San Inazioaren martxa jotzen zirela.

1.526. Aitak zuka egiten zien (EGB-111/023)

Aitak eguerdietan euskaraz irakasten zion etxean zuen liburu batekin. Ez du gogoan liburuaren izena, baina Julen Zabaletaren marrazkiak zituen. Placido Intxaustiren hiztegia ere bazuten etxean. Osaba-izebekin ere euskaraz egiten zuen. Aitak lagunartean hika egiten zuen, baina semeei beti zuka.

1.527. Debako Euskal Jaiak; txistua; abertzaletasuna; mendia (EGB-111/025)

Debako Euskal Jaiak 60ko hamarkadan. Bi urtez izugarrizko festa egin zen eta hurrengo urtean debekatu egin zuten. Bera gurasoekin joan zen eta txistua ikasteko gogoia piztu zitzaion bertan. 13 urterekin hasi zen ikasten Patxiko Etxeberriarekin. Euskaraz egiten zuen harekin. Silbino Gabilondok jotzen zuen danborra Patxikorekin. Biskuterrean ibiltzen ziren. Patxiko hil zenean, Txominek hartu zuen haren lekua. Txistua abertzaletasunarekin lotzen zen eta edozein aitzakiarekin jotzen zuten, mendian adibidez. Urbiako erromeriak. Arantzazurako peleginazioan ere txistua jotzen zuten. Mixel Labeguerieren kantak.

1.528. Aberri egunetako giroa (EGB-111/026)

Aitak ikurrina txiki bat zeukan eta Aberri egunean mahaian jartzen zuen. Miren Vallejoren etxean ere hala edukitzen zuten. Urte batean Mirenen biloba beldurtuta zegoen Guardia zibilak etorriko zitzaizkiela eta. Txominen aitak egin zion broma. Kanean ez zen ezer egoten Aberri egunetan. Behin ikurrina bat bota zuten argindar haritik eta Guardia Zibilek tiroka apurtu zuten.

1.529. Euskal kantak eta kantariak gerraostean (EGB-111/027)

Mixel Labeguerieren kantetako hitzak oso "ausartak" ziren garairako. Donostiako orfeoia beti abestu izan zituen euskarazko kantak. Gerraostean arrazoi politikoengatik orfeoiko hainbat kidek taldea utzi eta Easo abesbatza sortu zuten. 60ko hamarkadan Ez dok Amairu taldeaz gain, euskal kantari asko hasi ziren herrietan. Elgoibarren Isidor Solupe, Edu Iriondo, Lur gabe (gerora Bere Luma izena hartu zuena)...

1.530. Txistua dantza solte txapelketetan eta erromerietan (EGB-111/030)

Elgoibarren betidanik ezagutu ditu dantza solte txapelketak. Txistulariek jotzen zuten. Ondarroako Etxaburu-Bilbao bikotea. Erromerietan jazzband-a egoten zen. Txistuari (erromerietan edo jaietan) Araba aldean eutsi zaiola gehien iruditzen zaio, oraindik ere ohitura handia dagoelako.

1.531. Gasteizko kolegioko giroa; falangeko irakaslearen zigorra (EGB-111/031)

Elgoibarren San Viatorreko fraideekin ikasi zuen. Ondo irakasten zutela eta 14 urterekin Gasteizera joan zen, ikasketak jarraitzera. Hiru urtez egon zen han. Dena gaztelaniaz izaten zen, baina fraideek ez zieten ezer esaten euskaraz egiteagatik. Gogoan du Natxituko ikasle gazteago bat, gaztelaniaz ez zekiena; berehala ikasi zuen. Behin txango bat egin zuten Biarritzera eta hango dantza talde baten postala ekarri zuen, ezkutuan, ikurrina bat agertzen zelako. "Formación del espíritu Nacional" irakasgaiko irakasleak ikusi egin zion eta zigortu egin zuen.

1.532. Txistulariak Elgoibarko Euskal Jaian; neskak ere bai (EGB-111/033)

Elgoibarko Euskal Jaiak 60ko hamarkadan. Patxiko eta Silbino txistulariak, Ansola anaiak eta Zumarragakoak egoten ziren. Zumarragako txistulari taldean neskak ere bazeuden. Orduan nobedadea zen hori. Geroago beraien taldean ere hasi ziren neskak. Garai hartan Musika Bandan ere ez zegoen

neskarik. Dantza taldeetan neskak eta mutilak. Gabonetan karroza egiten zen eta neskak bakarrik irteten ziren dantzan. Berak ez zuen parte hartu lehenengo Euskal Jaietan, baina gero, txistua ikasi zuenean, herri askotara joaten ziren.

1.533. Bere kontura musika ikasten (EGB-111/034)

Jose Antonio Ezeizarekin flauta antzeko bat jotzen ikasi zuen lehenbizi eta geroago txistua. Etxean ez zuten nahi bera Musika Bandan sartzetik, ikasketak utziko zituelakoan. Horregatik bere erara ikasi zuen. Bilbora joan zenean ikastera, hango kontserbatorioan ibili zen, etxekoei ezer esan gabe. 1970ean debutatu zuen Elgoibarko Musika Bandan, 18 urterekin.

1.534. Euskararen presentzia Elgoibarko Musika Bandan (EGB-111/036)

Elgoibarko Musika Bandan gehienbat euskaraz egiten zen, euskaraz ez zekitenak ere bazeuden arren. Zazpi urtez izan zen zuzendari eta dena euskaraz egiten zuen. Euskaraz egiten ez zutenek ere normalean ez zuten ulertzeko arazorik. Valladoliden soldadutzan egon zenean, Musika Banda ikustera joaten zen eta hango zuzendariak obraren inguruko azalpenak ematen zituen. Ideia hori ekarri zuen herriko Bandara eta bera hasi zen aurkezpenak egiten. 38 urtez jardun du lan horretan. Hasieran gehiena gaztelaniaz egiten bazuen ere, gaur egun gehiena euskaraz egiten du.

1.535. Solfeoa Angelita Larrañagarekin; txistua Patxiko Etxeberriarekin (EGB-111/040)

Anton Azpiazu gazteagoei txistua irakasten hasi zen. Baina bere sasoikoek Patxiko Etxeberriarekin ikasi zuten. Maalara joaten ziren iluntzeetan. Patxikok lehenengo solfeoa ikasi behar zuela esan zion. Aurretik beste batzuekin ibili zen arren, Angelita Larrañaga piano jotzailearekin ikasi zuen solfeoa.

1.536. Patxiko Etxeberriak txistuak egiten zituen (EGB-111/042)

Patxiko Etxeberriak txistuak egiten zituen ebanoarekin. Gasteizen ikasten egon zenean, "Hijos de Carrión" musika dendara eramateko txistuak ematen zizkion. Ebanoa Lezon erosten zuen. Danborrak anaiak egiten zituen.

1.537. Florentino Etxeberriak danbolinak egiten zituen (EGB-111/044)

Patxiko Etxeberriaren anaiak, Florentinok, danbolinak eta atabalak egiten zituen. Arotza zen. Ehorztetxea ere bazuen. Bere sasoian artean ez zituen egiten eta berari Bergarako Bonifazio Laskurainek egindakoa oparitu zioten. Txistu asko izan ditu, baina danbolin bakarra. Haren mantenua gero (larrua aldatu, adibidez) norberak egin behar.

1.538. Garai batean dultzainarik ezin lortu (EGB-111/046)

Txominen lehen txistua Donostiako Isidro Ansorenak egina zen. Patxiko Etxeberria geroago hasi zen txistuak egiten. Txistua lortzea ez zen hain zaila, dultzaina lortzea ia ezinezkoa. Gerora, Iruñeko Lakunzak egiten zituen. 50 urtean jotzen du dultzaina. Lehenago hasiko lirateke, baina zaila zen tresna lortzea. Hasierako dultzainak Gasteizen erosi zituzten eta ahokoak Valladoliden. Oso txarrak ziren. Non entseatzen zuten.

1.539. Eibarko Estaziño kaleko dultzaineroa (EGB-111/047)

Eibarko Estaziño kalean dagoen dultzaineroaren irudia. Alfa Artekoak ez ziren gustura geratu hasieran egin zuten modeloarekin eta orduko zuzendaria zen Patxi Mutiloak modelo lanak egitera joateko eskatu zion. Hiru egunez egon zen bertan, eredia har zezaten.

1.540. Tarsizioak, luistarrak eta "Adoración nocturna" (EGB-111/050)

7-8 urterekin egiten zen lehen jaunartzea eta 10 urterekin askoz ere garrantzi handiagoa zuen "comuni3n solemne". Jaunartzea egin ostean, tarsizioetan sartzen ziren eta betebeharrak batzuk izaten zituzten. 15 urte ingururekin luistarren kongregaziora pasatzen ziren eta handik "Adoraci3n nocturna"ra. Azken horretakoek gaua elizan pasa behar izaten zuten. Bera tarsizioa bakarrik izan omen zen. Nesen kongregazioa: "Hijas de Mar3a".

1.541. Estitxu abeslaria Trinitateetan Elgoibarren (EGB-111/052)

San Bartolome bezperan Klub Deportiboan "orkestinak" egoten ziren. Trinitateetan Elgoibarko Izarrak antolatuta musika egoten zen. Ohol batzuk jarri eta taberna ere muntatzen zuten, edariak zerbitzatzeko. Gogoan du behin Estitxu abeslaria egon zela azoka zaharrean. Garai batean Gobernadore zibilaren baimena behar zen halako ekitaldiak antolatzeko eta abestien letrak bidali behar izaten ziren aurrez.

1.542. Bertsolari batek "Euskadi" esan zueneko (EGB-111/053)

Elgoibarko azoketan bertsolariak egoten ziren normalean. Gurasoak bertso-saioetara joaten ziren. Donostian, Astoriara, esaterako. Ondarroako Euskal Jai batzuetan Ireneo Ajuria ikusi izana oroitzen du. Saio hartan bertsolarietako batek "Euskadi" hitza esan eta segituan eskuak ahora eramane omen zituen. Denek uste zuten Guardia Zibilak etorri eta kartzelara eramango zutela, baina, zorionez, ez omen zen ezer gertatu.

1.543. Guardia zibilen kontrolean txistua jotzen (EGB-111/054)

Behin Bitor Zubiaurre eta biak Zumaian txistua jotzetik zetozela, Guardia zibilek kontrolean geratu zituzten. Lehenengo instrumentuak erakutsarazi eta gero jotzeko eskatu zieten. Zenbaitetan debekuak jarri arren, ez dute aparteko arazorik izan.

1.544. Mauxitxa txarangaren sorrera eta lehen emanaldia (EGB-111/055)

Mauxitxa txarangaren sorrera 1970ean. Kuadrillako batzuk txarangarako partitura eske joan zitzaizkion. Ordurako bonbardinoa jotzen zuen eta berak ere parte hartu nahi zuela esan zien. Mauxitxa zuzendari zela, zazpi lagunek osatu zuten lehenengo taldea. Egunero entseatzen zuten. Sorraluzen egin zuten debuta Santa Ana egunean. Instrumentuak kotxean bidali eta beraiek Maltzagaraino lehenbizi eta handik La Vergaresa autobusean. Arrakasta izan zuten eta, afarria eta etxera itzultzeko taxia ordaintzeaz gain, hurrengo jaietarako kontratua lortu zuten.

1.545. Mauxitxa sortu zenean, txaranga gutxi zegoen (EGB-111/056)

Tolosako Alcoyano txaranga etortzen zen Elgoibarrera eta hark sortzen zuen giroa ikusita piztu zitzairen txaranga bat sortzeko ideia kuadrillakoei. Donostian fanfarreak zeuden: "Polito y sus Anastasios", "Los Pomposos"... Baina ez zegoen txaranga asko eta leku askotatik deitzen zieten. Bilbon ere jo zuten jaietan. Franco hil arte ez zen egon festa herrikoirik, zezenketak eta kontzertuak bakarrik. Mauxitxa txaranga hazten eta dotoretzen joan zen. Bergarako Ariznoa dantzalekuan ere jo izan zuten.

1.546. Alkorta tabernako musika jogailuan entzunda ateratzen zituzten kanta berriak (EGB-111/058)

Mauxitxa txaranga erreperitorio handia zuen. Alkorta tabernan musika jogailua zegoen eta bi pezetaren truke aukeratutako kanta entzun zitekeen. Kanta berriak ikasi nahi zituztenean, 10 pezetarekin joan eta bost aldiz entzuten zuten ikasi nahi zuten kanta. Handik ateratzen zuten partitura. Gaur egun Pitxintxu denda dagoen lekuan "Futbolines de Manuel", futbolinak eta billarrerako mahaia zeuden. Han ere musika jartzen zuten jogailuan. Modako musika.

1.547. Euskara beharrezkoa izan dituen hiru lantokietan (EGB-111/061)

"Banco de Vizcaya"n lan egin zuen hiru urtez, gero Kutxan urte askoan eta azkenengo hamar urteetan Bilbao Musikan. Hiru lantokietan euskara beharrezkoa izan da, nahiz eta batzuek euskarak ez duela ezertarako balio esan izan duten. Kutxan Javier Mujika zen euskara arduraduna; Txominek ez zuenez euskara titulurik, elkarrizketa bat egin zion. Bankuek badakite bezeroei arreta euren hizkuntzan ematea garrantzitsua dela.

1.548. Euskararen presentzia Bilbao Musikan (EGB-111/063)

Bilbao Musika Bilboko Udalaren barruko entitate bat da; Udal txistulari banda, Udal Musika Banda eta Udal Musika Eskola batzen ditu. Txomin han egon zenean 53 irakasle zeuden Musika Eskolan. Harreman gehienak euskaraz izaten ziren. Txistulari Bandako kideekin dena euskaraz egiten zuen. Bandan gaztelania gehiago zegoen, kanpoko musikariak ere bazeudelako.

1.549. `Gelatxo´aita-semeak (EGB-111/065)

Elgoibarko trikitilari ezagunena `Gelatxo´ izan zen. Berak ziurrenik ez zuen solfeorik jakingo, baina semea, Pedro, Bereziartuarengana bidali zuen solfeoa ikastera, horren garrantziaz jabetuta. Jende asko joaten zen `Gelatxo´rengana ikastera. Azkoitia aldean trikitilari asko zegoen, baina Elgoibar inguruan ez hainbeste. Juliana pandero-jotzailea. Berak ez zituen ezagutu trikitilari horiek zuzenean jotzen. Pedro `Gelatxo´ bai; musikari ona zen. Egurenekin batera ibiltzen zen. "Jazbana".

1.550. Euskararen egoera asko hobetu da, baina... (EGB-111/067)

Euskararen egoera asko hobetu da garai batetik. Hala ere, oraindik beste herri batzuetako egoeratik urruti dagoela Elgoibar uste du. Amorrua ematen dio ikastolan dabiltzan umeez gero gaztelaniaz egitea. Guraso askori beharbada ez zaie inportako umeez zer hizkuntza darabilten. Berarentzat euskara

altxorra da. Katalanei gehiena ulertzen zaiela baina haiek euskara ezin dutela ulertu ohartzen zen aita.

1.551. Euskaltzaletasunaren transmisioa aititak (EGB-112/006)

Aitita oso euskaltzalea zen. "Gorrixa" esaten zioten. Gerratean kartzelan egon zen. "Eusko Gudariak" abesten zion sarritan. Orduan ez zuen ulertzen, baina gerora ulertu zuen aitak eman nahi ziola bere bizipenen berri. Euskara eta euskal kultura baserrietan mantendu da.

1.552. Euskaraz egitearren, zigorrak San Pedro auzoko eskolan (EGB-112/008)

San Pedro auzoko eskolan ibili zen. Natalia maistra elgoibartarrarekin hasi zen; harekin euskaraz ere egiten zuen. Ondorengo irakasleek gazteleraz gogor egin zieten, baita zigortu ere euskaraz egitearren. Psikologikoki zigortzen zituen.

1.553. Hika gertukoekin, berorika apaizari eta medikuari (EGB-112/011)

Umetan hika egiten zuten mutilekin. Neskei, ostera, zuka gehiago. Etxean esaten zieten hika ez egiteko, hurbilekoei ez bazen. Apaizei eta medikuei berori esaten zieten. Mediku gehienak oinez ibiltzen ziren etxerik etxe. Elur handia zegoenean, aita bila joaten zitzaion, elkarrekin joateko.

1.554. Andabideak (EGB-112/012)

Hildakoa lepoan eramaten zen kaleraino. Horretarako bideak zeuden eta ondo zaintzen ziren; andabideak. Auzokoek txandaka eramaten zuten.

1.555. Maistra bilbotarraren ibilerak (EGB-112/013)

San Pedroko eskolan hamalau urtera arte egon zen. Lehenengo Natalia izan zuen maistra eta ondoren Araceli San Jose bilbotarra. San Migelera joaten zen maletarekin eta inork ez zion laguntzerik nahi izaten. Bilbora joaten zen asteburuetan. Jubilatu eta gero, berarekin hitz egiteko aukera izan zuen.

1.556. Eskolako zigorrak (EGB-112/014)

Maistrak makilarekin jotzen zituen eta bostehun aldiz idatzi behar izaten zituzten akats ortografikoak edo "no hablaré en euskara". Franco hil zenean, askatasuna sentitu zuten, euskaraz hitz egiteko behintzat.

1.557. Kalean euskararik ez zen entzuten (EGB-112/015)

Kalera joaten zirenean, burla egiten zieten baserritarrei. Kalean ez zen euskararik entzuten. Don Josek doktrina euskaraz erakusten zien eta euskaraz berba egiten ere bai. Jaunartzeko egunean, kalekoen pare ziren.

1.558. Arrate Irratia eta Arantzazuko egutegia (EGB-112/016)

Arrate Irratia hasi zen euskaraz lehenengo. Radio Pirenaica entzuten zuten etxean. Arantzazuko egutegia izaten zuten etxean, altxor moduan. Don Pedro Gorostidi zen Arrate Irratiko arduraduna; dena euskaraz izaten zen.

1.559. Aubixa ikastolari lagatzeko hitzarmena (EGB-112/017)

1968an, aita lanean hasi zen lantegi batean, baseritik bizitzea ezinezkoa zitzaielako. Pisu bat erosi zuten herrian eta baserria errentan eman zioten artzai bati. 1973an ikastolako umeak etortzeko hitzarmena egin zuen bere aitak.

1.560. Andres Alberdi eta Antton Aranburu irakasle (EGB-112/018)

Hogeita bost urte zituela egin zuen unibertsitateko sarrera. D eta B tituluak atera zuen. Andres Alberdi izan zen bere irakasleetako bat. Antton Aranburuk gizarteratzeko bide eman zion. Garai hartan kalean oso gutxi hitz egiten zen euskaraz. Euskarari bultzada ematen aritu zirenetariko batzuk aipatzen ditu.

1.561. Gau eskoletan irakasle (EGB-112/021)

Gau eskoletan irakasle ibili zen. Ikastolako geletan ematen zituzten, baita Elgoibarko Izarraren bulegoetan ere. Borondatezko lana izaten zen eta dohainik eskaintzen ziren eskolak. Enpresetako jendea eta irakasleak izaten ziren ikasle. Euskara ikastera gogoz kontra joan zen irakasle baten adibidea ematen du.

1.562. Udaletxeko euskara batzordea (EGB-112/025)

Udal euskaltegia martxan zegoela hasi zen euskara batzordea martxan. Inguruko herrietakoekin harremana zegoen eta batak bestearen ereduari jarraitzen zion.

1.563. San Bartolomeetako feria, oso aspaldikoa (EGB-112/026)

San Bartolomeetako feria egunean egiten zuten lehiaketak arrakasta handia izaten zuen. Ikertu egin behar izan zuten feria noiztik ospatzen zen.

1.564. Auzora bertsolariak ekartzeko egin beharrekoak (EGB-112/027)

Aitak San Pedro auzoko jaietara bertsolariak ekartzen zituen. Kuartelean baimena eskatu behar izaten zuen. Guardia Zibilak gerturatzen ziren zer kantatzen zuten entzutera. Beste auzoetan antzera ibiliko zirela uste du.

1.565. Guardia Zibilak Aubixan (EGB-112/028)

Gogoan dauka Aubixan jaialditxo bat antolatu zutela eta gora zetozela, bide bazterrean ikurrina agertu zenean, beldurtu egin zirela. Urtebete lehenago, Aubixan sartu ziren Guardia Zibilak eta txikitu egin zuten baserria. Hainbat gauza beldurragatik ez ziren egiten.

1.566. Aubixa baserriaren historia (EGB-112/030)

Aubixaren arrastoak XV. mendekoak dira. Parrokiaren maizterrak ziren eta artoa eta garia ematen zioten ordainetan. XVIII. mendean eskuratu zuten jabetza bertan bizi zirenek. Baserritik bizi izan ziren gerora, 1960ra bitarte. Zaildu egin zen baserriko bizimodua.

1.567. Aubixa udalekuetarako egokitzen (EGB-112/031)

Ikastolako umeen gurasoek etxea egokitu zuten umeak uda garaian euskaraz bizitzeko. Hamabi eguneko lau txanda egiten zituzten. Lehendabizi kartoia jaso eta saltzen aritzen ziren. Haien izenak aipatzen ditu. Egokitzapen lanetan guraso asko aritu ziren. Herriko jendeak ahalegin handia egin zuen.

1.568. Aubixa barnetegi (EGB-112/032)

Ondare historiko deklaratu zuten Aubixa 1989 inguruan. Konpondu egin behar zen orduan. Hartan zebiltzala, Eusko Jaurlaritzak barnetegi moduan erabiltzea proposatu zieten. 1991n hasi ziren hortan.

1.569. Jatorri askotako umeak Aubixan (EGB-112/033)

1991tik gaur egunera Aubixan izan diren aldaketak aipatzen ditu. Umeak jatorri askotakoak dira eta lana zailtzen du euskara lantzeko. Ume asko zauri handiekin datozela uste du eta gustora egon daitezen saiatzen dira.

1.570. Joxe Migel Barandiaranen amaren irakaspena (EGB-112/035)

Talde bat motibatzeke, Joxe Migel Barandiaran bisitatzera joan ziren. Klaseetatik aparte, bizipozen bat ematea zen helburua. Joxe Migelek kontatu zien amarengadik jasotako irakaspena: fruituz betetako madariondoa bezala, asko jakin eta apala izatea hobe dela, harroa izatea baino.

1.571. Aubixako udalekuetako hasierako urteak (EGB-112/036)

Bere ama egoten zen sukaldean, Aubixara umeak udalekutan joaten zirenean. Hainbat pasarte kontatzen ditu. Orduan ez zen ikuskaririk izaten. Hezitzaileak boluntarioak izaten ziren; irakasleak, hazitako umeak...

1.572. Aubixako udalekuetako umeak (EGB-112/037)

Hamabi egun etxetik kanpo pasatzea ume batzuentzat gogorra izaten zen. Ume haiek euskaldunak eta euskal giroko familietakoak izaten ziren. Hizkuntzari bultzada handia ematen zieten egonaldi hartan umeek.

1.573. Aubixaren kanta (EGB-112/038)

Antton Aranburuk kanta egin zion Aubixari. Kanta entzutean garai haiek gogoratzen ditu. Umeekin abesten zuten kantua.

1.574. Eskolan egindako gaiztakeriak (EGB-112/040)

Eskola garaian, lehendabizi sua egin behar izaten zuten; hamarrak aldean esnea egiten zuten esne-hautsarekin. Arratsaldetan gazta hori bat jaten zuten. Eskolan egindako gaiztakeria pare bat kontatzen ditu.

1.575. Baserritik kalera bizitzera, aldaketa gogorra (EGB-112/042)

Kalera bizi izatera joan zirenean, ez zuen ulertzen kaleko itxurakeria. Oroitzapen txarra dauka. Bederatzi hilabete egin zituen egoitza batean, biriketako gaitzarekin. Oso aldaketa gogorra izan zen beretzat. Beste mundu bat zen.

1.576. Euskara irakasteko material gutxi, ahozkoari garrantzia (EGB-112/043)

Altunaren liburuak, esaldidun kartel batzuk... Sistema asko erabiltzen ziren, denetik pixka bat, euskara erakusteko. Hitz egiteko motibazioa zen berak gehien lantzen zuena.

1.577. Ikastolako Andereño Itziar (EGB-113/003)

Hasierako irakaslea Andereño Itziar izan zen. Lan handia hartzen zuela dio, koloreak erabiliz gehien bat, eta eredu izan duela.

1.578. Ikastolako hasierako irakasleak (EGB-113/005)

Hasierako urteetan izan zituen irakasleak izendatzen ditu.

1.579. Herriko umeen arteko harremanak (EGB-113/008)

Euskaraz egiten zuten ikaskideen artean. Beste eskoletakoekin ez zeukaten harremanik. Baserritarrak eskola nazionaletara joaten ziren. Herria iturritik gorakoen eta beherakoen artean banatzen zen; Maalatik gorantz kanpotik etorritako jendea bizi zen.

1.580. Mojen ikastetxean, oso gaizki (EGB-113/009)

Mojen ikastetxera joan zirenean, oso gaizki pasatu zuten. Hango heziketa oso bestelakoa zen. Oso oroitzen txarra dauka. Moja gehienak euskaldunak ziren baina erderaz egiten zuten gehienek. Moja bakarra zen euskaraz egiten ziena. Harrezkero erdaraz ikasi zuten. Institutuan politika ikasgaia izaten zuten eta irakaslea JONSetatik etorritakoa zen. Frantsesa ikasi zuten baina galdu ere bai, ez erabiltzeagatik.

1.581. Eibarko manifestaldiak, asanbladak eta grebak (EGB-113/010)

Eibarren asanbladak, grebak eta manifestazioak egiten zituzten. Erdaraz egiten zuten orduan batez ere. Franco hil zenean, jai izan zuten hainbat egunez. Manifestaldietan korrikaldiak egin behar izaten zituzten.

1.582. Belodromoko eta Elgoibarko Izarrak antolatutako jaialdiak (EGB-113/012)

Euskarazko jaialdi guztietara joaten zirela kontatzen du. Belodromokoaren oroitzen ona dauka. Elgoibarko Izarran ere parte hartu zuen. Elgoibarko Izarrak antolatzen zituen jaialdiak: Oskorri, Benito Lertsundi, Xabier Lete...

1.583. Elgoibarko Izarrako dantza taldea eta Euskal Jaiak (EGB-113/014)

Bertso saioak eta bertso jaialdiak antolatzen zituen Elgoibarko Izarrak. Lehen, Euskal Jaiak antolatzen zituzten. Euskal dantzetako irakasle izan zen. Euskal jai eguna zelakoa izaten zen kontatzen du. Bera umetan hasi zen dantzan ikasten. Irakasleak aipatzen ditu, baita non ikasten zuten ere. Dantza eskola, lehen, Elgoibarko Izarraren barruan zegoen. Dantza taldeetan mutilen falta beti egon izan da.

1.584. Trinitateetan dantza saioa (EGB-113/015)

Trinitateetan dantza egiten zutela gogoan dauka. Trinitate Egunean ume dantzariekin kalejira egiten zuten eta plazan dantzan egiten zuten.

1.585. Dantzarako jantziak, materiala eta debekatutako ikurrina (EGB-113/016)

Dantzarako poxpolin jantzia izaten zuten neskek. Jantzia bakoitzak berea izaten zuen. Makilak, zinta dantzako makila, trokelak, ezpatak, Elgoibarko Izarrako ikurrina... erabiltzen zituzten. Ikurrina debekatuta zegoen. Pasarte bat kontatzen du, guardia zibilak ikurrinaren bila etorri zitzaizkienekoa.

1.586. Guardia zibilen aginduak (EGB-113/017)

Guardia zibilekin izandako pasarteak kontatzen ditu: erdaraz egiteko agintzea, etxera bidaltzea...

1.587. Haritz Dantza Taldearen sorrera (EGB-113/018)

Oso gazterik hasi zen umeei dantzan erakusten, Elgoibarko Izarraren baitan. Nagusien taldea sortu zuten, Haritz Dantza Taldea. Sortzaileen izenak aipatzen ditu.

1.588. Haritz Dantza Taldekoak kanpora ikastera (EGB-113/019)

Euskal Jai asko izaten ziren garai hartan bailarako herrietan. Beraiek ikasitakoa umeei erakusten zieten. Haritz Dantza Taldea sortu zutenean, kanpora joaten ziren dantzak ikastera. Galdakaoko Andra Marikoekin harreman handia izan zuten. Kezkakoekin ere egoten ziren, baita Legazpi eta Iurretakoekin ere.

1.589. Elgoibarko txistulari batzuk (EGB-113/021)

Bera umea zenean, `Mausitxa´, Felipe Castillejo eta Sarasua ditu gogoan txistulari moduan. Antonio Azpiazuk txistulari eskola zeukan.

1.590. Gau eskoletan hasi eta udal euskaltegiko irakasle (EGB-113/022)

Gau eskolak ikastolan izaten ziren. Andres Alberdik eta beste batzuek erakusten zieten gainontzeko irakasleei zer eta nola eman. Izenak aipatzen ditu. Elgoibarko Izarrak antolatzen zituen. Ordu berean lauzpabost klase izaten ziren. Zerbait kobratzen zuten irakasleek. Hogeita bat urterekin udal euskaltegietako oposaketetara aurkeztu zen eta Bergaran aritu zen urtebetez. Handik Elgoibarkora etorri zen. Deba eta Mutrikurekin mankomunatu egin ziren.

1.591. Euskararen egoera gaur egun Elgoibarren (EGB-113/028)

Euskararen egoera gaur egun oso eskas ikusten du Elgoibarren. Pasarte bat kontatzen du, umeak erdaraz entzun zituenekoa.

1.592. Hitanoa ia galdu da (EGB-113/031)

Euskara baserritarrei esker mantenduko dela uste du. Azpeitiko lehengusinekin hango hizkeran hika egiten saiatzen da. Elgoibarren hitanoa erabat galdu dela dio.

1.593. Euskara, bihotzekoa eta lanbidea (EGB-113/032)

Naturalki irtetzen zaiona eta bihotzean daramana da euskara. Zorionez bere lanbidea ere badela dio.

1.594. Garai baten euskara gutxi kalean (EGB-114/002)

Etxean euskaraz egiten zuten eta eskolan ikasi zuten gaztelaniaz. Elgoibarko kaleetan ez zen euskararik entzuten eta, umeak zirela, euskara asko galdu zutela dio. Hala ere 14-16 urterekin berriz kontzientzia hartu zuten. Gurasoek denda zuten eta hara joaten ziren baserritarrak gaztelaniaz egiten saiatzen ziren, ondo jakin ez arren.

1.595. Eskolan dena gaztelaniaz (EGB-114/003)

Maalako mojen eskolan ibili zen umetan eta handik Pilar ikastetxera joan zen. Eskolan dena gaztelaniaz zen. Euskaraz egitearren zigorrik jarri ez arren, automatikoki gaztelaniaz egiten zuten. Pilar ikastetxean San Viatorreko fraideak zeuden.

1.596. Unibertsitatean euskal kultura taldean sartu zen (EGB-114/004)

Donostiara joan zen unibertsitatera. Hara joan orduko euskal kontzientzia piztua zuen eta euskal kultura taldean sartu zen. Beste herri batzuetako ikasleak ezagutzeak ikuspegia zabaldu zion. Euskarazko eskolak, kultura asteak, Santa Ageda korua eta beste zenbait kontu antolatuz zituzten. Garai hartako kultura loraldia nola bizi izan zuen. Ez dok Amairu taldearen kontzertuetara joaten ziren.

1.597. 7 urterekin `Aitona eta biloba´ antzezlanean parte hartu zuen (EGB-114/005)

7 urte ingururekin Elgoibarren eskaini zen euskarazko lehen antzerkian parte hartu zuen. `Aitona eta biloba' zen obra. Euskarazko lehen antzerkia izan zela esaten zen. Beste herri batzuetara ere joan ziren antzeztera, baita Bilboko Arriaga antzokira ere. Pako Juaristik egiten zuen aitonaren papera. Manolo Rementeriak "apuntadore" lanak egiten zituen. Antzezleak. Obraren argumentua. Jendearen harrera.

1.598. Umetan dantzan, gaztetxotan txistua ikasten (EGB-114/007)

Elgoibarko Izarra sortu aurretik, Ongarri elkarteak zegoen eta euskararen aldeko ekimenak egiten zituen. Umeen dantza taldea sortu zuten eta hantxe hasi zen dantzan zazpi-zortzi urterekin. Hamairu urte ingururekin txistua ikasten hasi zen; ez zegoen orduan txistulari gazterik. Patxiko Etxeberria izan zuen irakasle.

1.599. Umetan dantzan, gaztetan txistulari (EGB-114/008)

Iñaki Gorostiza izan zuen dantza irakasle. Bizkaiko dantzak ikasten zituzten. Elgoibarren egiten zuten dantzan. Dantzari laga eta txistulari moduan jarraitu zuen, baita Elorra dantza taldean ere.

1.600. Musikazaleak etxean (EGB-114/012)

Bere arrebek soinua jotzen ikasi zuten eta anai biak txistulariak izan dira. Kantu lehiaketa batean laurek parte hartu zuten, koinatuarekin. Musikazaleak izan dira beti. Gaztetan, euskal kantak abesten zituzten, baita mendian ere.

1.601. Estitxu Roblesen kontzertua (EGB-114/013)

Azoka plazan egiten ziren musika jaialdi handiak; jaialdi txikiagoak Odeon antzokian. Estitxu Roblesen kontzertua gogoan dauka.

1.602. Etxean euskaldunak, kalea erdalduna (EGB-114/016)

Etxean giro euskalduna zeukaten; guraso biak baserritarrek ziren. Kanean giro erdalduna zegoen. Plaza Txikian ibili zen lehenengo eskolan eta gero mojetan. Bere lagun gehienek etxean erdaraz egiten zuten. Umetako hizkuntza ohiturak mantentzen ditu.

1.603. Aita dantza solte txapelketetan (EGB-114/018)

Aita dantzaria izan zen, soltekoa, eta lehiaketetan parte hartzen zuen. Aitarekin ikasi zuen etxeko sukaldean dantzan. Aitak dantzarako bikote izan zuen Gelatxoren arreba, baita Miren Vallejo ere. Txapelketa San Bartolomeetan egiten zen. Gelatxok jotzen zuen musika.

1.604. Eguberri eguneko dantza karrozekin (EGB-114/019)

Gabonetan dantza egiten zuen beste neska batzuekin batera, karrozekin. "Artzai buru zuri bi" egiten zuten, baita arku dantza eta makil dantza ere. Maria Luisa Zubiaurre, Itziar Garcia, Barrutia... aipatzen ditu irakasle moduan. Sakristian entseatzen zuten. Poxpolin jantzita irtetzen ziren. Bere osaba Bonik prestatzen zuen karroza, jaiotza eta guzti.

1.605. Alfabetatze klaseetan (EGB-114/022)

Pako Juaristirekin eta Felix Etxeberriarekin ibili zen alfabetatzen.

1.606. Scout taldea eta 'Juventud Elgoibarresa' (EGB-114/024)

Scout taldean ibili zen Ion. Elizaren babesean egiten zuten. Luistarren kongregaziotik sortu zen "Juventud Elgoibarresa" taldea. Ekintzez gain, aldizkaria ateratzen zuten "Di´logos para la Juventud". Elkarrizketak, artikuluak... ateratzen zituzten. Euskaraz oso gutxi idazten zuten.

1.607. Danobaten euskara eskolak ematen (EGB-114/025)

Andres Alberdik eman zizkion lehen alfabetatze klaseak, gero irakasle izateko. Danobat barruan eman zituen gero klaseak. Danobatek lursaila eman zion ikastolari, eraikina egin zezan. Felix "Parapan" aipatzen du eragile nagusitzat.

1.608. Elgoibarko Izarraren ekimenak (EGB-114/029)

Ikastola berrirako dirua ateratzeko, taberna antolatzen zuen. Elgoibarko Izarrak ere jaialdiak antolatzen zituen, dirua batzeko zein giroa sortzeko. San Anton egunean Odeoian antolatzen zuten dantza erakustaldia.

1.609. Elorra dantza taldea (EGB-114/031)

Elorra dantza taldeari buruz berba egiten dute. Elorrako dantzariak izan ziren Elgoibarko Izarrako umeen dantza taldeko irakasle. San Bartolomeetako aurraskua antolatzen zuten; dantzariak mutilak izaten ziren, baina sokara ateratzen ziren neskak kalekoak izaten ziren. Auzoetan dantzatzen zuten. Xake bizidunarena egin zenean ere, dantzan egin zuten. Handik gutxira desagertu zen taldea.

1.610. Atonio Azpiazu txistu irakasle (EGB-114/032)

Elorra taldeko txistulariak aipatzen dituzte. Antonio Azpiazu txistua erakusten zer dela eta hasi zen kontatzen du lonek.

1.611. Haritz dantza taldearen lehen urteak (EGB-114/035)

lonek harremana egin zuen Urbeltzekin eta Gipuzkoako dantzak ikasi zituzten haiekin. Bizkaiko dantzak lurretan ikasi zituzten. Umeei erakusten zizkieten ikasitakoak. Asanblada bitartez funtzionatzen zuten.

1.612. Umeei dantzan erakusteko eredu berria (EGB-114/036)

Umeei dantzan erakusteko metodoa aldatu zuten; Lasarteko taldea izan zuten eredu, erritmoari garrantzia emanez. Dantzen krokisak egiten zituzten, ez ahazteko. Giro ona zuten taldean; bikoteak ere sortu ziren. Elorran zein Haritz dantza taldean dena euskaraz egiten zuten.

1.613. Elgoibarko euskal jai jendetsuak (EGB-114/038)

Euskal jaietara joaten zirenean, dantzari kopuru mugatua izaten zuten. Elgoibarren bat antolatzen zuten herriko ume dantzari guztientzat. Antolakuntza lan handia izaten zela azaltzen dute. Dantzarien jantzia bakoitzak berea izaten zuen; materiala, berriz, taldekoa izaten zen.

1.614. Haritz dantza taldearen aurkezpen berezia (EGB-114/041)

San Anton egunean egiten zen jaialdia Odeoian. 1977an Haritz dantza taldearen aurkezpena egin zuten. Dantzez gain, euskal giroa erakutsi nahi zuten eszenatokian. Jantziei garrantzia handia eman zieten. Jantziak Mari Luz Upaik josten zizkien.

1.615. Umetan lagun artean erdaraz, gaztetan euskaraz (EGB-115/002)

Etxean euskaraz egiten zuten. Fraileekin eskolan ibili zenean, ezin izaten zuen euskaraz egin. Lagun artean erdaraz egiten zuten. Hamazazpi urte ingururekin hasi ziren kuadrillan euskaraz.

1.616. Euskarazko klaseak umetan (EGB-115/003)

Umetan euskarazko klaseetara joaten zen. Irakasleak aipatzen ditu.

1.617. Aita txistu irakasle (EGB-115/005)

Aitak Durangon ikasi zuen kolegioan urte batzuek. Atzeskua izan zen, futbolaria, pilotaria... Umeei txistua eta solfeoa erakusten zien aitak etxeko sukaldean. Handik beste lokal batera pasatu zen. Berak ere txistua jo izan du.

Solfeoa Bereziartuarekin ikasi zuen aitak; musika tresnak jotzen, berriz, bere kabuz ikasi zuela kontatzen du.

1.618. Herri-mezak: euskaraz eta kulturarekin (EGB-115/006)

Elizako organojolea izan zen bere aita. Elizan ume asko ibiltzen ziren kantuan eta gitarrarekin. Don Karlos Agirre parrokoarekin harreman ona egin zuen eta hala hasi zen organoa jotzen. Herri mezak antolatzen zituzten: euskaraz emandako mezak izaten ziren, bertsolariekin, txistulariekin, euskarazko abestiekin, dantzariarekin... Lehenengo 60ko hamarkadan antolatu zuten. Izenak aipatzen ditu.

1.619. Euskara mantentzeko giroa (EGB-115/008)

Elgoibarko Izarraren zeregin nagusia ikastola bera zen arren, euskal giroko gauza asko egiten ziren. Kanpotik etorritako gutxi izaten ziren hortan. Giro horretan mantentzen zuten euskara.

1.620. Juventud Elgoibarresa taldearen sorrera eta ekarpenak (EGB-115/009)

"Acción católica"ren baitan, luistarren taldea zegoen eta handik sortu zuten "Juventud Elgoibarresa", Jose Luis Belloso buru zutela. Talde horrek ere euskara bultzatzen zuen eta Elgoibarko Izarraren baitan kokatu zen. Euskarazko musika jaialdiak antolatzen zituzten. Leon Bilbao eta Maurizia ere ekarri zituzten, aitaren ezagunak ziren eta. Danborrada antolatzen ere hasi ziren eta aldaketak egin zituzten.

1.621. "Dialogos para la juventud" aldizkaria (EGB-115/010)

1975ean egindako "Dialogos para la juventud" aldizkariaren alea erakusten du. Euskarazko testuak ere bazituela kontatzen du, Sebas Larrañagak idatzitakoak. "Juventud Elgoibarresa"ko zuzendaritza zein zen irakurtzen du.

1.622. Ikastola hasitakoan, euskara kalean (EGB-115/012)

Bera baino hiru-lau urte gazteagoak Itziar Ajuriarekin hasi ziren, ikastolan. Orduan hasi zen euskara gehiago entzuten kalean.

1.623. Boy Scout taldea: sorrera eta kanpaldiak (EGB-115/015)

Boy Scout talde bat sortu zuten. Jon Arrieta, Peio Arrieta eta beste hainbat izan ziren sortzaileak. Bera ere izan zen taldeko kide, eta emakumeen taldea ere sortu zuten. Kanpaldia egiten zuten; jolasak egiten zituzten, bizirauteko ariketak... Euskaraz eta erdaraz egiten zuten talde horretan.

1.624. Euskal musika jaialdiak; Maurizia etorri zenekoa (EGB-115/016)

Euskal musikariekin antolatutako jaialdia zelakoa izan zen kontatzen du. Baimena eskatzeko eta eskuratzeko egin beharrekoak aipatzen ditu. Mauriziak anis kopatxoa hartu zueneko pasartea kontatzen du. Jende asko joan zen ikustera.

1.625. Gabonetan trikitilariak eta karrozak (EGB-115/017)

Gabon Zaharren bueltan Arratia bailaratik trikitilari taldea etortzen zela gogoan dauka. Maalako mojek karrozak ateratzen zituzten ikasleekin eta dantzak egiten zituzten.

1.626. Xake biziduna antolatu zutenekoa (EGB-115/018)

Xake biziduna antolatu zutenekoa kontatzen du pixka bat. Jose Ignacio Sarasuaren amamak lagun zuen Basarri bertsolaria.

1.627. Maria Butron, Zeruko Argian idazle (EGB-115/019)

Basarri bertsolaria Sarasuatarren amamaren laguna zen eta hala ezagutu zuen berak. Zeruko Argian idazten zuen emakume hark, Maria Butronek.

1.628. Ikurrina besoan eramateagatik, istiluak (EGB-115/021)

Ikurrina legeztatzekotan zirenean, txarangako kideek besoan ikurrina jarri zuten eta guardia zibilekin istiluak izan zituzten.

1.629. Alkateak baimena euskarazko gauzak antolatzeko (EGB-115/022)

Franco hil zenean, alderdi politikoak eta sindikatuak sortu ziren eta giroa zeharo aldatu zen. Lehen udal hauteskundeetarako talde bat sortu zuten. Euskarazko gauzak antolatzen zituzten eta alkateak baimena ematen zien, baina hainbat gauza ere eskatzen zizkien.

1.630. Jaime alkateak euskararekiko jarrera ona (EGB-115/024)

Udalarekin, Jaime (Arrese) alkatearekin bereziki, harreman handia izan zuten. Elkarri lagundu ziotela dio. Euskararekiko jarrera ona zeukala kontatzen du. Pasarte bat kontatzen du, jaietan txarangarekin ari zirela alkateak guardia zibilak bidali zituenekoa.

1.631. Trinitateko danborrada berreskuratu zutenekoa (EGB-115/025)

Trinitateetako danborrada nola berreskuratu zuten kontatzen du. Karroza kritikoak egiten zituzten. Marinel jantziak erabiltzen zituzten, ez soldaduenak. Gero aldatu zen hori.

1.632. Lurgabe eta Koska taldeak (EGB-115/028)

Lurgabe taldeak Ondarroako Argoitia anai-arreben antzeko musika egiten zuen. Expresión sonora eta ondoren Koska izan zen taldeak rock estiloko musika egiten zuen. Koska taldean euskaraz abesten zuten. Taldearen lehen diskoak arrakasta handia izan zuen.

1.633. Gazte Alaiak txistulari taldea, udal txistulari banda (EGB-115/031)

Dantza solteko txapelketak beti ezagutu izan ditu. Elgoibarko udal txistulari banda sortu zenekoa kontaktzen du. Aurretik zeuden txistulari taldeak aipatzen ditu. Gazte Alaiak taldeak auzoetako jaietan jotzen zuen eta dantza solte txapelketan ere bai; jardun hortatik sortu zuten udal txistulari banda. Izenak aipatzen ditu. igande goizero diana jotzen zuten.

1.634. Dantza solte txapelketak (EGB-115/032)

Dantza solte txapelketan txistua jotzen zuenean, ez zen elgoibartarrik izaten. Ondarrutarrek pikea izaten zutela kontaktzen du. Epaille lanak egiten zituztenen izenak ematen ditu.

1.635. 1972ko Euskal Jaia (EGB-115/036)

1972ko Euskal Jaia gogoan dauka. Uste du etenaren ondorengo lehenengoa izan zela. Elorra taldeak antolatu zuela uste du. Txistua jo zuen egun hartan, baina beretzat bat gehiago izan zen. Etxeetara joaten ziren dantzariak bazkaltzera eta etxean izan zituzten bi.

1.636. Odeoiko jaialdiak (EGB-115/038)

San Anton egunean egiten zen Odeoiko jaialdian txistulariak ere izaten ziren. Ondoren bazkaria egiten zuten antolatzaileekin, Elgoibarko Izarrak antolatuta. Txalaparta, baleta, txistua, dantzariak, kantuak... denetarik izaten zela dio.

1.637. Aitak Antton Aranburu ezagutu zuenekoa (EGB-115/039)

Bere aitak Antton Aranburu ezagutu zuenekoa kontaktzen du. Anttonek Aubixa kantua asmatu zuen.

1.638. Aubixako berritze lanak eta udalekuak (EGB-115/040)

Aubixan hiru urtez aritu zen larunbatero lanean, ikuilua berritzen. Ostiraletan kartoia batzen zuten ikastolarako dirua batzeko. Ez dauka gogoan Aubixa zeinek abiatu zuen. Begirale moduan ere ibili ziren han; jolasak egiten zituzten. Euskaraz egiten zuten dena han. Herritarrek asko lagundu zutela kontaktzen du.

1.639. Txistu akademiaren sorrera (EGB-115/042)

Aita hil zenean, txistu eskolaren ardura hartu zuen hainbat urtetan. Ez galtzearren hartu zuen berak ardura. Saiakera egin zuen erakunderen batek beregain har zezan. Jose Ignacio Sarasuak lortu zuen txistu akademia sortzea udaletxearen baitan.

1.640. Txarangarekin herriz herri (EGB-115/043)

Txistulari batzuk bandan sartu ziren urtean, txaranga hasi zen, eta hurrengo urtean sartu zen bera ere txarangan. Txarangarekin herriz herri nondik nora ibiltzen ziren kontaktzen du. Tolosako inauterietako kantekin hasi ziren. Udako kanta bat ateratzen zuten urtero. Makinak izaten ziren, txapona sartu eta kantak entzuteko.

1.641. Mugerza krosa euskalduntzen (EGB-115/045)

Mugerza krosa antolatzen hasi zirenean, dena euskaratu zuten. Imanol Larrañagak laguntzen zion hortan.

1.642. Zarzuelak eta monologoak (EGB-115/046)

Ez da antzerkizalea izan; aita bai. Aitak antzerki taldea sortu nahi zuen erretiroa hartutakoan. Zarzuelak egiten ziren eta Jose `Balle´k monologoak egiten zituen baina berak ez zuen ezagutu.

1.643. Igartuarekin abesbatza euskaraz (EGB-115/047)

Elizako abesbatzak ez zuen herri-mezetan abesten. Latinez abesten zuen, meza nagusietan. Jose Kruz Igartuarekin abesbatzan aritu ziren, euskarazko kantak abestuz. Odeoian abestu zuten behin.

1.644. Kuadrillak kantuz (EGB-115/048)

Kantuz aritzen ziren kuadrillakoak, asko. Kuadrillak kalean kantuan entzutea ohikoa zen. Bere aitaren kuadrillakoak oso kantari onak ziren. Otxote lehiaketak egiten ziren, baita kantenak ere. Angel Iriondo herririk herri ibiltzen zen aurkezle. Anekdotak bat kontatzen du. Krosean hizlaria izaten zen Angel eta euskaraz egiten zuen.

1.645. Elgoibarko Izarra eta Danobat (EGB-115/050)

Euskararen alde lanean aritu ziren batzuen izenak ematen ditu. Elgoibarko Izarrako zuzendariak Danobati lotutakoak izan ziren garai batean. Ikastola kooperatiba bihurtu zenean, Elgoibarko Izarrak bide berria abiatu zuen.

1.646. Euskararen egoeraz (EGB-115/051)

Euskararen egoera, lehengo aldean askoz hobea dela uste du. Bere adinekoek ohituraz erdarako joera daukatela dio, konplejuengatik. Euskararen erabileran kuotak jartzearen aldekoa ez da, ezta derrigortzekoa ere.

1.647. Euskara sentimenduari lotuta (EGB-115/052)

Euskara sentimenduekin lotuta dago beretzat. Ez du erdaraz berdina sentitzen. Hori sentitu egin behar dela dio eta hori lortzea ikusten du erronka.

1.648. Aita eibartarra eta ama elgoibartarra (EGB-116/003)

Aita eibartarra zen. Astoa eta karroarekin ikatza partitzen zuen etxeetara. Elgoibarrera ezkondu zen, Abetetxe baserriko alabarekin.

1.649. Maalako mojen eskolan gaztelaniaz (EGB-116/005)

Maalako mojen eskolan ibili zen. Moja asko kanpotik etorriak ziren (Salamanca aldetik) eta gaztelaniaz ikasten zuten. Bertako moja gutxi zegoen.

1.650. Kanean gaztelania nagusi (EGB-116/007)

Kanean gaztelaniaz egiten zuten. Eibarrera joaten ziren "baile"ra, baina euskara gutxi entzuten zen. Ikastolak ekarri zuen aldaketa. Baserritarrak, jaunartzea egiteko, kalera jaisten zirela doktrina gaztelaniaz ikastera dio. Era guztietako apaizak egon ziren. Mojak ere asko kanpotik etorriak ziren.

1.651. Amamak ez zekien gaztelaniaz (EGB-116/009)

Amama baserriko alaba zen eta ez zekien gaztelaniaz. Harekin euskaraz egiten zuten. Baina gurasoekin euskaraz eta gaztelaniaz egiten zutela dio.

1.652. Maalako mojak; gaztelania nagusi (EGB-116/011)

Maalan mojak zeuden. Eskola eta ospitalea zen: umeen heziketaz arduratzeaz gain, gaixoak zaintzen zituzten. Gaztelaniaz izaten zen heziketa guztia. Abesti baten inguruko azalpenak. Maiatzeko loreetan ere kantak gaztelaniaz izaten ziren. 15 urterekin Eibarrera joaten zirenean ere gaztelania zen nagusi. Doktrina ere gaztelaniaz.

1.653. 13 urte ingururekin Sigmara lanera (EGB-116/012)

13 urte ingururekin Sigman hasi zen lanean. Piezei marrazkia jartzea izaten zen bere lana. Lan artistikoa zela dio. Gustura aritzen zen. Lanaren alde txarrena pinturaren toxikotasuna. Gaur egunetik begiratuta arriskutsua iruditzen zaio, baina orduan ez zen neurririk hartzen. 25 urterekin ezkondu zen arte jardun zuen bertan lanean.

1.654. Gerrako alargunak (EGB-116/015)

Sigma lantegiaren garrantzia. Ez du gogoan zenbat irabazten zuen, baina ezkontzarako aurrezteko esan zion amak. Neskek lan egiten zuten bertan, baina emakumeek (ezkonduak) ez. Gerrako alargunak ere baziren, gutxi irabazten zutenak. Asko pasatakoak ziren: beldurra, gosea... Gerra sasoa, tristea.

1.655. Mutilak igandeetan sor Natividad ikustera (EGB-116/019)

Maalako mojek kantatzen zuten gaztelaniazko kanta. Baziren euskarazko kantak ere; Ama Birjinari euskaraz kantatzen zioten. Mojek gaztelaniaz egiten zieten. Sor Natividad bilbotarra oso polita omen zen. Mutilak hura ikustera joaten ziren igandeetan. Beraiei iruditzen zitzairen mojak zatarrak izan behar zirela. Garaiak asko aldatu dira. Beraiek oso inozenteak ziren. Aitak oso gaizki kantatzen omen zuen.

1.656. Bilera ugari Elgoibarko Izarrako lehendakari zenean (EGB-116/031)

Lehenbizi Elgoibarko Izarrako lehendakariorde izan zen eta, ondoren, lehendakari. Bilera pila bat izaten zituzten eta kuotak kobratzen ere aritzen zirela gogoratzen du. Ez daki ziur zenbatekoa zen kuota. Apaiz eta fraideek ere asko lagundu zuten.

1.657. Eibartarrek kategoria handiagoa (EGB-116/042)

Eibarren eta Elgoibarren arteko pikea. Futbol partida zenean, jende asko etortzen zen. Eibartarrak beti ekonomikoki hobeto ibiltzen ziren, jantzita ere hobeto. Neskek zer abesten zuten. Eibarren era guztietako armak egiten ziren eta atzerrira saltzen zuten.

1.658. Gurasoak euskaltzaleak (EGB-117/002)

Gurasoekin dena euskaraz egiten zuen. Eskolan erdaraz ikasi zuten eta erdararako joera hartu zuten anai-arrebek. Gurasoek euskaraz egin zezaten esaten zieten. Eskolan ibili ostean, hamar urterekin Santa Clara kolegiara joan

zen. Irakasleak zigortu egiten zituen, euskaraz egitearren. Bost urtera arte, euskaraz egitearren ez zieten ezer esaten. Lagun artean beti erdaraz egiten zuten.

1.659. Kristau ikasbidea, lehenengo euskaraz, ondoren erdaraz (EGB-117/003)

Don Jose apaizarekin euskaraz jaso zuen kristau ikasbidea; kalekoak hiru ziren taldean, beste guztiak baserritarrek. Bigarren jaunartzerako dena erdaraz jaso zuen. Baserritarrek ere erdaraz egiten zuten. Amamak oparia egin zion, kaletarra izanda euskaraz egitearren.

1.660. Euskaraz eginez gero, jolasordurik gabe (EGB-117/007)

Ereñoko eskolan erdaraz egin behar izaten zuen, eta jolasordurik gabe lagatzen zituzten euskaraz eginez gero. Etxean euskaraz eta kalean erdaraz egiten zuen han. Jaunartzea euskaraz egin zuela uste du.

1.661. Miren Vallejorekin euskaraz idazten ikasten; UNEDen alfabetatzen (EGB-117/008)

Mari Karmen Bergarara joaten zen alfabetatzera, autobus txiki batean. Elgoibarko Izarrako bileretan aktak idazten zituen. Umetan Miren Vallejorekin ere ibili zen euskaraz idazten ikasten; Umeen Deia idazten zuten astean behin. Lokala non zegoen azaltzen du.

1.662. Gau eskolak; Marxen liburuak langai (EGB-117/009)

Gau eskoletan ibili zen Angeles. Felix Etxeberria irakasle zela dauka gogoan. Non egiten zituzten aipatzen dute. Mari Karmenek gogoan dauka Marxen kapitalismoari buruzko liburuarekin aritu zirela itzulpenak egiten ikasten.

1.663. Baserritarrentzako itzulpenak makinaz idazten (EGB-117/010)

Miren Vallejorekin oso umetan ibili zen eta gauza errazak egiten zituzten. Gau eskoletan izan zituen irakasleak aipatzen ditu. Baserritarrentzat gau eskoletako irakasleek itzulitako liburuak makinaz idazten zituen Mari Karmenek.

1.664. Hamar urtez Elgoibarko Izarran lanean (EGB-117/015)

Hamasei urte ingururekin hasi zen Elgoibarko Izarran eta ezkondu zenean, hogeita seirekin, laga egin zuen. Orduan, ikastola eta Elgoibarko Izarra banatu egin ziren.

1.665. Elgoibarko Izarraren hasierako urteak; diru-batzeak (EGB-117/016)

Elgoibarko Izarran hasieran ibili ziren batzuen izenak ematen ditu Mari Karmenek. Hasieran dirua batzeko lan handia egiten zen. Higiezinen agentzia moduko bat sortu zuten.

1.666. Elgoibarko Izarraren hasierako urteak; antolakuntza, lokalak, ikastolaren izena (EGB-117/017)

Elgoibarko Izarrako bilerak iluntzetan izaten ziren. Irakasleak ere asko inplikatzeko zirela dio Mari Karmenek. Ikastolaren hasierako antolakuntza eta lokalak aipatzen ditu. Ikastolaren izena, hasieran, Escuela San Bartolome izan zen. Don Carlos apaizak lan handia egin zuela dio.

1.667. Ikastolako hasierako urteak; irakasleak, Pilarrera aldatu beharra, eskola-txartela (EGB-117/019)

Ikastolako hasierako irakasleak aipatzen dituzte. Tituludunak eta euskaldunak behar ziren hasieretan. Hasierako urteetan, bederatzi urtera arte egoten ziren ikastolan eta gero Pilar ikastetxera pasatzen ziren, han eskola-txartela jasotzeko. 1970ean lortu zuten ikastolan umeentzat eskola-txartelak izatea.

1.668. Elgoibarko Izarraren hasierako urteak; arloak eta ekintzak (EGB-117/020)

Hasierako urteetan Elgoibarko Izarrak lantzen zituen arlo eta ekintzak aipatzen dituzte. Baimenak behar izaten zituzten ekintzak antolatzeko.

1.669. Ikastolako gurasoak Elgoibarko Izarrako bazkide (EGB-117/021)

Angeles Elgoibarko Izarran sartu zenean, bereizita zueden ikastola eta elkarteak. Mari Karmenek laguntzaileak aipatzen ditu. Hasieran, ikastolako gurasoak Elgoibarko Izarrako bazkide izaten ziren.

1.670. Dirua ateratzeko taberna (EGB-117/025)

Jaialdiak egiten ziren Odeoian eta dirua ateratzeko taberna jartzen zuten. Berbenak San Antonetan ere egiten zituzten.

1.671. Euskarazko antzerkia (EGB-117/026)

Miren Vallejok, Pako Juaristik eta familiakoek euskararen alde lan handia egin zutela diote. Pako Juaristik bultzatu zuen euskarazko antzerkia. Ballek monologoak egiten zituen. Patxi Lizarralde ere aipatzen dute.

1.672. Miren Vallejo ume erdaldunei euskaraz erakusten (EGB-117/027)

Miren Vallejok ume erdaldunei euskaraz erakusten zien.

1.673. Lurgabe musika taldea (EGB-117/028)

Bego Badiola, Regina Arrieta eta Maria Luisa Zubiaurre ziren Lurgabe musika taldeko kideak. Marisa Agarre ere taldekidea zela diote. Expresion Sonora taldeak gaztelaraz eta ingelesez abesten zuela diote. Anekdotak kontatzen du Mari Karmenek.

1.674. Euskarazko galdera lehiaketa eta eskolak umeentzat (EGB-117/029)

Txomin Mujikaren aita oso euskaltzalea zela dio Mari Karmenek. Behin, euskarazko galdera batzuk egin zizkien umeei eta Mari Karmeni jostailu bat oparitu zion. Miren Vallejok umeentzat eskolak ematen zituen lokala Txominen familiakoena zen. Erdaraz zelako telebistarik jarri ez zuten etxeokoa aipatzen dituzte.

1.675. Bertso saioak jaietan eta gabonetan (EGB-117/031)

Bertso saioak antolatzen ziren jaietan. Bertsolarien izenak ematen dituzte. Gabonetako jaialdia aspaldikoa dela uste dute.

1.676. Edozertarako baimena behar (EGB-117/036)

Antzerki taldea egin zuten Arakistainekin. Guardia Zibilak joan zitzaizkien behin. Edozertarako behar zuten baimena, hainbat lagun batzeko ere bai.

1.677. Accion Catolicakoekin kanpinean Zumaian (EGB-117/039)

Acción Católicakoekin kanpinean joan zen Mari Karmen Zumaiara. Han euskaraz egiten zutela gogoan dauka. Kanpin denda militarra zen, egurrezko sukalde eta komunarekin.

1.678. Aubixa, umeek euskaraz jolas zezaten (EGB-117/040)

Aubixari buruzkoak aipatzen dituzte. Kanean umeek erdaraz jolasten zuten; euskarazko giroan jolasteko sortu zuten Aubixa. Kartoiak batu eta saltzen aritzen ziren batzuk. Konponketa lanak gizonezko boluntarioek egin zituzten.

1.679. Ikastolako ikasleentzat bekak (EGB-117/042)

Elkarrizketa egiten ari diren eraikinean, ikastola egon zen. Etxepe enpresak kulturarako eta euskararako dirua ematen zuen, baita ikastolako ikasleei bekak eman ere. Enpresa eta norbanako askok eman zuten dirua ikastolarako.

1.680. Ikastola legeztatuta, guardia zibilen bisitak akabo (EGB-117/043)

1970eko abenduaren 3an legeztatu zen ikastola. Ordutik aurrera ezin ziren guardia zibilak geletan sartu.

1.681. Ikastolako kuotak garestiak ziren (EGB-117/044)

Elgoibarko Izarra ikastolatik desberdindu zenean, elkarteak ez zeukan dirurik. Kuota ordaindu ezin zutenentzat, bekak sortu zituzten ikastolan. Kuota garestia zela gogoan du Mari Karmenek.

1.682. Elgoibarko Izarrak euskara eta kultura piztu (EGB-117/045)

Elgoibarko Izarrak euskara eta kultura gehien piztu zituena izan zen, eta jarraitzen du egiten.

1.683. Euskara eta erdara noiz eta zela erabiltzen dituzten (EGB-117/046)

Euskararen egoera kaskarragoa ezagutu zuten Elgoibarren. Umeei euskaraz eta helduen artean erdaraz egiteko ohitura dutela diote, eta pertsona bategatik erdaraz hasten direla. Ezagututako hizkuntzan egiten diete besteei.

1.684. Euskaldun berriei zuzentzeak kaltea (EGB-117/047)

Euskaldun zaharrek zuzendu egin izan diete euskaraz ikasten ari zirenei, eta atzera egin izan dute haiek.

1.685. Ongarri kultur taldea abiapuntu (EGB-117/048)

Elgoibarko Izarrak behea jo zuenean, Imanolek-eta beste modu batean goratu zutela kontatzen dute. Ongarri Elgoibarko Izarraren aurretik sortu zen, eta hark bultzatzen zituen euskara eta kultura. Aitarekin joaten zen Mari Karmen Ongarriren lokalera telebista ikustera. Kultur eta gastronomia elkarte zen Ongarri.

1.686. Euskararen transmisioan etena (EGB-118/003)

Gurasoak tolosarrak ziren, SIGMA lantegira lanera etorritakoak. Gurasoek ez zuten euskaraz egiten. Aiton-amonek, amaren aldekoek, elkarrekin euskaraz egiten zuten baina alabarekin eta bilobekin ez.

1.687. Euskaraz ikasteko gogoa (EGB-118/004)

Mojetan ikasi zuen, erdaraz. Euskaraz zergatik ikasi zuen azaltzen du. Hiztegia erosi zuen eta gau eskoletan euskara ikasten hasi zen.

1.688. Gau-eskolak eta ikastaro trinkoa (EGB-118/005)

Gau-eskoletan hasi zen eta ia zazpi urte egin zituen. Irakasleen izenak ematen ditu. Elizaren goialdean ematen ziren eskolak hasieran; ondoren, ikastola berrian. Uda batez, ikastaro intentsiboa egin zuen, hitz egiteko erraztasuna hartzeko. Pare bat anekdota kontatzen ditu.

1.689. Hizkuntza-ohiturak aldatzea zail (EGB-118/007)

Bikotearekin hasi zenean, euskarazko ingurua topatu zuen. Bere kuadrillan gutxiengoa zen euskaraz zekiena. Hiru lagunekin egiten du euskaraz baina gainontzekoek ez dakite. Lehenengo hitza euskaraz egiten du. Ahizpak eta biek batzuetan egiten dute euskaraz baina erraztasuna dute erdararako. Zaila iruditzen zaio hizkuntza-ohitura aldatzea.

1.690. Umetan giro erdaldunean (EGB-118/009)

Umetan dena erdaraz zen. Hitz batzuk besterik ez zituzten esaten euskaraz. Bere giroa erdalduna zen. Euskaraz ez jakiteagatik iraindu zutenekoa kontatzen du. Euskararen erabilera kontzientziarekin lotzen du; bestela erdarak gain hartzen duelako.

1.691. Gau eskoletako irakasle eta ikasleak (EGB-118/013)

Gau eskoletako irakasleak ikastolako maisuak zirela kontatzen du. Elgoibartar bakarra zegoela dio, Alfonso, eta euskaraz gerora ikasitakoa zela. Bere burua euskaldunberri zahartzat dauka. Euskaldunberri asko dagoela Elgoibarren dio. Euskaraz alfabetatzera joaten zirenak ere bazeudela azaltzen du.

1.692. Donostiako Bai Euskarari ekitaldia (EGB-118/015)

Donostian egin zen Bai Euskarari ekitaldira joan zela kontatzen du. Kantariak eta abestiak ezagutzen zituzten. Imanolen CDa Iparraldean erosi zuten.

1.693. Dendan euskarazko liburuak, aldizkariak eta diskak (EGB-118/018)

Denda ireki zutenean, modan zeuden liburu politkoak. Euskarazko liburuak bikoteak eta ahizparen bikoteak erosten zizkieten dendarako. Zeruko Argia eta Ipurbeltz aldizkariak izaten zituzten. Euskarazko taldeen diskak ere bazituzten.

1.694. Euskarari bere lekua ematearen lana (EGB-118/020)

Euskarari bere lekua emateak lana eskatzen du, euskaratzeak eta besteei beharra ikusarazteak.

1.695. Elizak babesa eman zuen, baina atzerakoia ere bazen (EGB-118/025)

Ezkontzeko parrokoarengana joan behar izaten zen eta hark ezkon-bizitzaren inguruko gomendioak ematen zituen, baina bera ez zen joan. Elizak asko lagundu zuen baina atzerakoia zen gauza askotan, aldi berean.

1.696. Baserritarrak erdaraz, euskaraz egitearren sufritutakoarengatik (EGB-118/026)

Moja euskaldunak bazeuden bere eskolan baina ez zuten hitzik egiten euskaraz. Ikasleen artean baserri giroko bat bazegoela dio, eta asko sufritu zuela uste du; eta ondorioz, erdaraz besterik ez zuela (eta duela) egiten. Kuadrillakoen gurasoen kasua ere azaltzen du.

1.697. Haizea talde feminista; aurretikoak eta ondorengoak (EGB-118/031)

Haizea talde feministaren sorrera eta aurretikoak kontatzen ditu. Bazkide gehienak oso helduak direla dio. Gazteek beste talde bat sortu zuten. Antolatzen diren ekimen batzuk euskaraz egiten dira eta beste batzuk ez. "Asociacion de amas de casa" izenekoa aipatzen du. Emakumeen arloan lan asko zegoen egiteko.

1.698. Euskara Elgoibarren lehen baino hobeto, baina ondo ez (EGB-118/033)

Duela berrogei urte baino askoz hobeto ikusten du euskara Elgoibarren, baina kontzientziarik ez baldin badago, alferrik dela dio. Adibideak ematen ditu. Egiteko lan asko daukagula uste du.

1.699. Bizilagunarekin Zeruko Argia irakurtzen (EGB-119/003)

Orokorrean euskaraz egiten zuten kalean, baina erdaraz ikasi ere kalean egin zuen. Amak erdaraz ikasi egin behar zela esaten zuen. EAJren ildoko egunkaria egunero izaten zuten etxean. Bizilagun batek Zeruko Argia hartzen zuen eta harekin aritzen ziren euskaraz irakurtzen.

1.700. Aretxabaletatik Elgoibarrera, euskal girotik erdal girora (EGB-119/004)

Aretxabaletatik Elgoibarrera etorri zenean, erdara gehiago entzuten zen. Aitak gogor egiten zien euskaraz egin zezaten eta amak erdaraz ikasteko. Aretxabaletan mutilek euskaraz egiten zuten eta Elgoibarren denek erdaraz.

1.701. Ume euskaldunak izatearren, zapalkuntza eta irainak (EGB-119/009)

Auzoko eskolan ibili zen lehenengo. Maistra, Isabel, beldurgarria zela dio. Euskaraz egiteagatik zigortu egiten zituen. Hantxe bizi zen maistra, eskolan bertan. Handik kaleko eskola nazionalera joan zen. Euskaldunak izatearren zapalkuntza eta irainak jasaten zituzten.

1.702. Euskaldunak izatearren baztertuta (EGB-119/010)

Euskaldunak izatearren burla egiten zien irakasleak. Erdaraz "erdaltegirik" gabe ikasi zutela dio. Eibarko institutura joan zen gero. Euskaldunak euskaldunekin elkartzen ziren jolas orduan; besteek baztertu egiten zituzten.

1.703. Enrike Larrañaga Eibarko institutuko irakasle (EGB-119/011)

Eibarko institutura joandakoan erdal giroa zegoen; ez zen eroso sentitzen giro hartan. Enrike Larrañaga izan zuen irakasle, euskalduna eta euskaltzalea, eta nabarmen igartzen zuen. Auzoan euskaraz egiten zuten eta hala jarraitzen dute.

1.704. Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkariak irakurtzen (EGB-119/013)

Aldameneko baserrian Zeruko Argia eta Anaitasuna izaten zituzten eta berak irakurri egiten zituen.

1.705. Loiola, Segura eta Arrate irratiak (EGB-119/014)

Loiola, Segura eta Arrate irratiak aipatzen dituzte. Izaskun ume zela oraindik ez zegoen euskarazkorik. Irratia izan ere gutxi zeukaten orduan. Atxukarro izeneko batek bertso saioak egiten zituen. Izaskun ibilita dago etxerik etxe Loiola irratia sortzeko bazkide bila.

1.706. Gau eskolak eta UNEDeko klaseak (EGB-119/015)

Izaskun gau eskoletan ibili zen, ikastolan. Andres Alberdi izan zuen Izaskunek irakasle. Ondoren, Bergarara joan zen UNEDera. Amaiak oso gogoan dauka Juan Martin Elexpuru. Irakasleak aipatzen dituzte. Asteaz zehar joaten ziren.

1.707. Elgoibarko Izarran euskara irakasten hasi eta AEK sortu (EGB-119/016)

Elgoibarko Izarran hasi ziren euskara irakasten. Juan Mari Mendizabal etorri zen Bilbotik eta hark AEKko ikuspegia erakutsi zien. Klaseak egunero ematen hasi zen Juan Mari. Material koordinazioa AEKrekin lantzen zuten.

1.708. Euskaldundu nahi zuten langileak ziren ikasle gehienak (EGB-119/017)

Euskara ikasleak helduak izaten ziren. Euskara ulertu eta hitz egiten ikastea zen ordukoen helburua, euskalduntzea. Lantegietako langileak ziren ikasle gehienak. Enpresetan sindikatuak izaten ziren bultzatzaileak. Felix aipatzen dute, Danobat eta gainontzeko guztia euskaldundu izanaren arduradun.

1.709. Felix Etxeberria, Elgoibar euskalduntzen (EGB-119/018)

Felixek (Etxeberriak) beste lan egin duenik ez dute ezagutzen. Ale bakarra izan zela dio Izaskunek. Beti laguntza handia izan duela kontatu izan du Felixek. Elgoibarko Izarra Felixek eta Plaentxik, Jesus Larrañagak, sortu zutela kontatzen du Izaskunek.

1.710. Bertsolariak Plaza Txikian (EGB-119/026)

Azoka egunetan Plaza Txikian bertso-saioa izaten zen. Lasarte, Uztapide, Lazkao Txiki, Mañukorta... izaten ziren bertsolariak. Elgoibarko Izarratik bertso eskola sortu zen. `Etxegina´ izenekoa bertsolaria zela aipatzen dute.

1.711. AEK, Udalaren babesik gabe (EGB-119/028)

Mendik antolatu zuen gau eskolen aldaketa: egunez ere ematea eta egitura bat sortzea. AEKn beti ibili dira diru-bilketan. Udal langileak ezin ziren AEKra joan ikastera. Udal-euskaltegia sortutakoan, Udalak diruz laguntzen zituen ikasleak, baldin eta udal-euskaltegira joaten baziren. AEKk Elgoibarren oso historia beltza daukala diote, Udalak emandako tratuari dagokionez.

1.712. AEKn dirua biltzeko errifak, Korrika eta talo postua (EGB-119/029)

Urtero errifak eta bi urtetik behin Korrika antolatzen aritu izan dira. AEK proiektu nazionala zelako geratu zen Izaskun AEKn. Taloak egiteko postua ipini izan dute. Baimena ukatu ere egin izan zien Udalak.

1.713. Elgoibarko AEK eta Udalaren arteko harremana (EGB-119/030)

AEKren lokalak beti izan dira Udalarenak. Udalak ez du AEK laguntzen, ikasleak laguntzen ditu. Udalak boikota egin izan dio Korrikari. Elgoibarren gauza zatar asko gertatu direla diote.

1.714. Euskalduntzera lehen, titulu bila orain (EGB-119/031)

Ikasleen perfila asko aldatu da. Titulazioari oso lotuta dagoela salatzen dute. Euskalduntzea orain ez da lehentasuna.

1.715. Euskararen egoera Elgoibarren negargarria (EGB-119/033)

Euskararen egoera Elgoibarren negargarria dela dio Izaskunek. Euskaratik bizi eta bere eremutik kanpo erdaraz bizi direnak aipatzen ditu. Umeek etxean ez daukate euskal girorik; lehen alderantzizkoa zen.

1.716. "Erdaldun berrien kluba" ikuskizunarekin bat (EGB-119/037)

"Erdaldun berrien kluba" ikuskizunarekin oso identifikatuta sentitu izan da Amaia.

1.717. Ahuntzaren esnearekin hazitakoa da (EGB-120/001)

Izen-abizenak. Aita Legorretakoa zuen eta ama Kortezubikoa. Ahuntzaren esnearekin hazitakoa dela kontatzen du.

1.718. Nieves esaten zioten baina Edurne zen (EGB-120/003)

Eskolan mojekin ibili zen. Aitak lantegi batean lan egiten zuenez, etxea alokatzeko aukera zeukan eta umeen kuotak ere lantegiak ordaintzen zituen. Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Etxean euskaraz eta eskolan erdaraz egiten zuen. Eskolan Nieves izenez deitzen zioten. Hogeita hiru urterekin, paper ofizialetan Edurne izena jarri zuen.

1.719. Umetan irudimen handikoa; antzerkiak egiten lagunentzat (EGB-120/004)

Irudimen handikoa zen umetan. Osaba-izeba aktoreak zituen. Dantzatzea zen bere zaletasuna eta antzerki obrak egiten zituen etxeko atarian lagunentzat. Irratian entzundako nobeletako erreferentziak zituen.

1.720. Amaren aspaldiko kontuak (EGB-120/006)

Gurasoek Gernikako bonbardaketa bizi izan zuten, ordukoak kontatzen zizkien amak, baita aita zela ezagutu zuen ere.

1.721. Tropa frankisten sarreraren antzezpena (EGB-120/007)

1936 taldekoen eskaerari erantzunez, Taupada taldekoek tropa frankisten sarrera irudikatzeko herritarrekin antzerkia egin zuten eta dokumentala grabatu.

1.722. Gerra ostean, beldur handia (EGB-120/010)

Mojetan euskaraz ezin zutela egin argi zeukaten. Beldur handia ezagutu du etxean. Aita kartzelan egon zen heriotza zigorrarekin.

1.723. Euskara galdu egin zuen (EGB-120/011)

Etxeko giroa euskalduna bazen ere, galdu egin zuten. Berak garai batean euskara galdu egin zuela dio. Aitak itsulapikoa jarri zuen, gazteleraz egiten zuenak txanpona bota zezan. Aitaren familiakoei ez zien ulertzen, Legorretako hizkeran egiten zutelako. Amaren esaerak gogoan ditu eta apuntatuta.

1.724. Baserritar euskaldunari materiala egokitu beharra (EGB-120/014)

Eskolako lagunekin ibiltzen zen eta erdaraz egiten zuten elkarrekin. Pasarte bat kontatzen du, ikasle euskaldun baserritar bati froga psikologiko bat egokitu zionekoa. Euskara eta jakinduria aberatsagoa zuten baserritarrek.

1.725. Euskara ikasleen bidelagun (EGB-120/015)

Ikasle andaluziar batekin izandako harremana kontatzen du; euskara ikasteko bidelagun nola izan zen bera.

1.726. Euskarazko D titulua ateratzeak ilusio handia (EGB-120/018)

Udako Euskal Unibertsitatean urte luzez eman ditu ikastaroak Larrarekin eta euskatzale askorekin izan du harremana, tartean Txillardegirekin. Euskarazko D titulua atera zuenean, ilusio handia izan zuen. Euskaraz zuzen idazteari garrantzia handia eman izan dio, baita antzerkian ere.

1.727. Titiriteroak ikustera (EGB-120/021)

Herrira etortzen ziren titiriteroak ikustera joaten zen. Kaleko antzerkiak ikusten zituen. Irudimen handikoa izan da.

1.728. Lurdes Iriondoren `Buruntza azpian´ antzezlanean (EGB-120/022)

Lurdes Iriondoren `Buruntza azpian´ antzezlanean parte hartu zuen herrian. Aktore batzuen izenak ematen ditu. Neska mutuaren papera egiteko deitu zioten. Odeoian egin zuten.

1.729. Lurdes Iriondorekin material pedagogikoa euskaratzen (EGB-120/023)

Lurdes Iriondoren antzerkian parte hartu ostean, harremana izan zuen Lurdeseekin. Ikastolako musika irakaslea zen Reginarekin batera, Lurdes Iriondorekin euskaratu zuten musika pedagogiarako materiala.

1.730. Ikastolatik Pilarrera joan beharra, gogorra (EGB-121/002)

Mojetan gustora ez eta ikastolan ibili zen, bederatzi urtera arte (ezin zen gehiago orduan). Pilar ikastetxean jarraitu zuen. Oso gaizki pasatu zuen lehen urtean eta kurtsoa galdu zuen. Hurrengo urtean harremanak berreskuratu zituen eta eskolaz kanpoko jardueretan ibili zen.

1.731. Ikastolako bere lehen eta azken urteak (EGB-121/006)

Loritoareneko geletan hasi zen ikastolan. Gela deskribatzen du. Nekane Iturbe izan zuen irakasle txikitan. 'Xabiartxo' liburua erabiltzen zuten. Parrokiako gelak deskribatzen ditu. Azken urteko irakaslearen abizena Lasa zen.

1.732. Kaxarranka dantzatzen (EGB-121/009)

Dantza taldean ibili zen, lagunekin batera. Irakasleak aipatzen ditu. Kaxarranka dantzatzeko aukeratu zuten. Inpresio handia egin zion kaxaren gainean kalean ibiltzeak. Anekdotak bat kontatzen du.

1.733. Euskal Jaietan, etxeetara bazkaltzera (EGB-121/010)

Euskal Jaietan ibiltzen zen eta herri bakoitzeko familien etxeetara joaten ziren bazkaltzera.

1.734. Taupada antzerki taldean nola hasi zen (EGB-121/011)

Ez du heldutan alfabetatzen ibili beharrik izan. Ez zeukan bereziki antzerki zaletasunik. Aktore baten ordezkapena eginez hasi zen Taupada antzerki taldean.

1.735. Taupada antzerki taldearen sorrera (EGB-122/002)

Taupada antzerki taldearen sorrera. Mari Ezenarrok laguntza eman zien. "Oihu gorrak" izan zen lehen obra.

1.736. Lehenengo obra, "Oihu gorrak" (EGB-122/005)

"Oihu gorrak" obraren prestaketa zelakoa izan zen kontatzen dute: eszenografia, arropak... Edurnek josten ikasi zuen. Hasierako fokoak eta musika ekipoa zelakoak ziren kontatzen du Joxe Marik.

1.737. `Oihu gorrak´ obraren estreinaldi berezia (EGB-122/008)

`Oihu gorrak´ estrenatu zutenekoa kontatzen dute. Txarridunanean txerrikumea erosi zuten eta zozketatu egin zuten. Txapela pasatu eta dirua batu zuten. Oso harrera ona izan zuten. Taupada Antzerki Taldeak bere ikusle taldea daukala dio. Joxe Marik azaltzen du `Oihu gorrak´ estrenatu zutenean, lehenengo aldia zela antzezlan bat kalean horrela ematen zela.

1.738. `Behin batean´ obra Odeoian (EGB-122/010)

Herri gehienetan ez zegoen antzokirik; frontoiak eta egokitutako aretoak egoten ziren. Halakoetan ibili behar izaten zuten. Elgoibarren Odeoia zeukaten; `Behin batean´ antzezlan bertan estrenatu zuten, zuteneko musikarekin. Odeoia itxi aurretik, `Behin batean´ antzezlan egin zuten, jabeak eskatuta.

1.739. Bernardo Atxagak `Liliput´ obra idatzi zien (EGB-122/011)

Bernardo Atxagak `Liliput´ obra idatzi zuen Taupada antzerki taldearentzat. Estreinatuta zutenean, bertan izan zen Atxaga.

1.740. Gidoiak eta eszenografia taldekideek moldatzen dute (EGB-122/013)

Obrak etengabe moldatzen joaten dira. Esteban Larrañagak egin zuen lehenengo antzezlaneko gidoia. Oinarrizko gidoi bat egin eta moldatzen joaten ziren. Mikel Osorok idatzi zuen behin, Rodariren testuak moldatu izan dituzte... Lehenengo eszenografia sinplea zeukaten baina ondoren konplexuagoa egiten hasi ziren.

1.741. "Eta, etxekoak zer moduz?" obraren eszenografia (EGB-122/014)

"Eta, etxekoak zer moduz?" obraren eszenografia konplexua azaltzen du. Audioa grabatu egin zuten orduan.

1.742. Euskaraz egitea arau (EGB-122/019)

Taupadan euskaraz egitea dute arau. Taldekide batek antzerki taldean berreskuratu du euskara. Emanaldi baten bukaeran eibartar batek "noski baietz" esan beharrean, "bai, noski" esateko gomendatu zien. Euskaraz hobeto egiten lagundu izan dio jendeak Edurneri eta eskertu egiten du.

1.743. Euskararekiko kontzientzia hartzea behar da (EGB-122/021)

Euskararen egoera Elgoibarren asko hobetu dela uste du Edurnek; aldi berean, azaltzen du kontzientzia hartzea falta dela, euskara bultzatzeko hainbeste lan egin beharrik ez izateko.

1.744. Aita-amak Mantxatik etorritakoak (EGB-123/002)

Gurasoak Mantxakoak ziren, herri txiki batekoak. Oso bizi baldintza gogorrak zituzten. Aitak hemezortzi urterekin gerrara joan behar izan zuen; preso hartu eta heriotza zigorra ezarri zioten. Behartutako lanetan ibili zen, mehategi batean. Amaren lehengusu bat berdin ibili zen eta Euskal Herrira etorrita, bertako batekin ezkondu zen. Lehengusu haren bitartez, Mantxako herri hartatik Euskal Herrira etorri ziren hainbat biztanle.

1.745. ONU esaten zioten atarian, jatorri aniztasuna (EGB-123/003)

Bera jaio zen atariari ONU esaten zioten, jatorri askotako jendea zegoelako. Oso harreman estua egin zuten denen artean. Bizilagunen arteko harremana erdaraz izaten zen.

1.746. Gurasoen aldarria D eredia eskola publikoan ezartzeko (EGB-123/006)

Pedro Muguruza eskola publikoan hasi zen lanean. Han euskara ez zen existitzen; irakasle euskaldunik ere ez zegoen, kanpokoak baitziren denak. Psikologia ikasketak egin eta semea jaio zenean, delegaritzan D eredia eskatzen hasi ziren guraso batzuk. Delegaritzak kontra egin zuen baina eskolan praktikan jarri zuten. Azkenenean, delegaritzan onartu egin zuten. 1986 urtea zen. Prozesu gogorra izan zen.

1.747. Euskara irakasleak Pedro Muguruza ikastetxean (EGB-123/007)

Euskara aldarrikatu eta ez jakiteak sortzen zion kontraesanak bultzatu zuen euskara ikastera. Jon Suarez zen euskara irakasleetako bat eta irakasle batzuei ere irakasten zien. Euskara ondo ikasteko bidea egin zuen.

1.748. Urasandin D ereduan irakasten, harro (EGB-123/008)

Beldurra izan zuen lehenengo euskarazko klaseak eman aurretik. Harro sentitzen zen euskaraz ikasi izanagatik, baita etxeakoak ere. Urasandin hasi zen D ereduan irakasten.

1.749. Ekintzailea bizi osoan (EGB-123/010)

Pobreziaren aurkako plataforma sortzen aritu zen, droga trafikoaren kontrako elkarteetan eta kultur arloan ere ibili izan da.

1.750. Inazio Garmendiari esker, ekintzaile (EGB-123/011)

Lau eskolen artean lan-talde bat sortu zuten gaztelera irakasgaia lantzeko, eta Inazio Garmendiarekin harreman polita egin zuen. Inaziok esan zion gizarteari ekarpena egin beharra dagoela; uste du horregatik dela ekintzailea.

1.751. Ikastola, erreferente pedagogian ere (EGB-123/013)

Ikastola sortu zenean, erreferentzia bat izan zen pedagogikoki ere. Beraiek ere pedagogia hori aplikatu zuten. Oso gaztea zen irakasle hasi zenean eta mundua aldatu nahi zuen.

1.752. Baserritarrak baztertuta (EGB-123/017)

Baserriko neska-mutilak oso gutxi ziren Muguruza ikastetxean, eta baztertuta egoten zirela dio, haien artean harremantzen zirela.

1.753. Auzotarrak elkarren lagun (EGB-123/020)

Kanpotartzat hartu izana zein maketo hitza bizi izan du, baina ez dio aparteko garrantziarik eman izan. Auzoko historia bildu dute eta dokumental bat osatu, euskaraz zein gaztelera. Bazuen auzoak kutsu marjinala.

1.754. Pedro Muguruza ikastetxean irakasle euskaldunak hasi zirenekoa (EGB-123/021)

Itziar Conde Muguruza ikastetxean "idoneo" moduan hasi zen eta lankide izan ziren. Euskarazko klaseak ematen zituen. "Idoneo" gehienek titulazioa atera eta gehienek plaza lortu zuten bertan.

1.755. Euskara, etengabe ikasten (EGB-123/023)

Euskara ikasten euskaltegian eta IRALEn aritu zen. Euskara ikasteko prozesua gora beheratsua izan duela kontatzen du. Anekdotak bat kontatzen du. Euskararen ikasketa etengabekoa bizi duela dio, eta itzulpen automatikoa egiten duela.

1.756. Euskaltegian ikasle gutxiegia (EGB-123/024)

Beti iruditu zaio euskaltegietan jende gutxi egon izan dela. Bakar batzuk euskaldundu dira bera bezala. Kuadrillan euskaraz dakitenean artean euskaraz egitera ohitu dira.

1.757. Eskola publikoari aitortza (EGB-123/025)

Eskola publikoak egin duen eta egiten duen lana aitortzea falta dela dio, ama hizkuntza euskara izan ez zuten asko euskaldundu zituelako. Ikastolak klasista bihurtzeko arriskua duela uste du.

1.758. Euskararen egoera kezagarria, baina itxaropentsu (EGB-123/026)

Ezagutza eta erabilera ez datozela bat argi dauka. Euskararen egoera kezagarria dela dio. Globalizazioa eta kontsumoa irabazten ari direla uste du. Euskararekiko itxaropena badaukala azaltzen du.

1.759. Euskarak harrotasuna (EGB-123/027)

Euskara ikasi beharreko eta harro sentiarazi duen hizkuntza izan da beretzat.

1.760. Elgoibarko euskalgintzan lider xumeak (EGB-123/028)

Euskalduntzeko prozesuan lidertza izan duten elgoibartarrak oso xumeak izan direla dio. Izenak aipatzen ditu.

1.761. Kondenekua tabernan, familiakoekin euskaraz (EGB-124/004)

Amak euskaraz egiten zien lau ahizpei baina berehala erdaraz hasi ziren. Lagun artean, hemezortzi urterekin hasi ziren euskaraz gehiago egiten. Umetan amaren familiarekin euskaraz egiten zuen, eta bereziki, aittitta bazegoen, ez zuten erdaraz egiten. Tabernan Morkaikok bere egoitza zeukan.

1.762. Umetan euskaraz zeinekin egiten zuen (EGB-124/005)

Mojen kolegiara joan zen. Eskulanak erakusten zizkienak euskaraz egiten zien, antzerkiak antolatzen zituen euskaraz... Lagunen artean, orokorrean erdaraz egiten zuten. Lagun batzuen etxeetara joaterakoan, euskaraz egiten zuten, han euskaraz egiten zelako. Baserritarrekin ere euskaraz egiten zuela dauka gogoan.

1.763. Euskarazko klaseak umeentzat (EGB-124/006)

Euskara ikastera eraman zituzten umetan. Irakasleen izenak ematen ditu: Felix Parapen, Miren eta Pako. Hiztegia lantzen zuten, baita idazketa ere. Umeen Deia aldizkarirako idazten zuten. Irteerak ere egiten zituzten. Kantuan ere egiten zuten.

1.764. Ipuinak eta liburuak etxean (EGB-124/007)

Xabiertxo zeukaten, baita beste bi ipuin ere. Panpin ere hartzen zuten. Ez dauka gogoan irratirik entzuten zenik etxean euskaraz. Herrian euskarazko antzerkirik bazen, etxeokak joango zirela ikustera uste du. "El Caserío" zarzuela egin zutenekoa aipatzen du.

1.765. Juventud Elgoibarresaren sorrera (EGB-124/008)

Mojetan ibili zen hamasei urtera arte. Handik Mekanikara joan zen. Ikasketa guztiak erdaraz egin zituen. Hamasei urterekin lanean hasi zen eta kuadrillako batzuk elkartzen ziren euskaraz ikasteko. "Juventud Elgoibarresa" taldearen sorrera kontatu du. Hasieratik euskararekin zerikusia zeukan taldea zen. Hainbat artistaren izenak aipatzen ditu, Elgoibarrera ekarri zituztenak. Baserriz baserri ibili ziren luistarren kuota kobratzen.

1.766. Juventud Elgoibarresaren lokala eta jarduna (EGB-124/009)

Musika kontzertuak eta hitzaldiak antolatzen zituen Juventud Elgoibarresak. Lokala zeukaten. Jaialdiak antolatzeko baimenak non eta nola eskatzen ziren kontatzen du. Antton Valderderekin gertatutako anekdota bat kontatzen du.

1.767. Pedro Migel Urruzunori omenaldia (EGB-124/010)

Pedro Migel Urruzunori egindako omenaldiaren berri ematen du. Antzerkian parte hartu zuten batzuen izenak ematen ditu. Euskaltzaindiko bilera egin zuten Elgoibarren, horren harira. Luis Ulazia zegoen antolatzaileen artean.

1.768. Ume kanta pare bat (EGB-124/014)

Umeak altzoan hartuta abesteko kanta bat eta umeentzako beste kanta bat abesten ditu.

1.769. Umeentzako euskarazko errezoa (EGB-124/015)

Amamarekin euskaraz errezatzen zuten. Umeentzako errezo bat errezitatzen du. Amamak ere kanta asko erakutsi zizkion. Markesaren Alaba eta Kontsesiri erakutsi zizkion amamak.

1.770. Euskal dantzak umeei erakusten (EGB-124/017)

Elgoibarko ikastolan euskal dantzak erakusten hasi zen. Lehenengo Isidor Soluperekin Elorra moduan aritu ziren dantzak ikasten. Eta gero umeei erakusten ibili zen. Hirurehun ume dantzari izan zituzten. Dantzari eguna egiten zuten Elgoibarren. Ordukoak kontaktzen ditu. Hortik sortu zen Haritz dantza taldea.

1.771. Elorra dantza taldea (EGB-124/018)

Elorra dantza taldea Isidor Solupek bultzatu zuen. Neskak eta mutilak aritzen ziren. Dantzaz gain, kontzientziario saioak ere izaten zituzten. Azoka plazako goiko lokalean egon ziren gero. San Pedron egin zuten lehen emanaldia. El Pilarren ere egiten zituzten entseguak. Anekdotak bat kontaktzen du.

1.772. Euskal jaietan umeekin (EGB-124/019)

Elgoibarko Izarrako dantza taldea zen umeekin sortu zutena. Euskal Jaia antolatzen ez zen ibili. Oso diziplinatuak ziren ume dantzariekin. Elgetarrak, berriz, ondo pasatzera joaten ziren. Txistulariekin joaten ziren batetik bestera. Izenak aipatzen ditu. Umeak etxeetara banatzen zituzten bazkaltzera.

1.773. Apaiz euskaltzaleak Elgoibarren (EGB-124/023)

Gau eskolak ematen apaizak ibili ziren hasieran. Don Seberiano apaiza ere euskaltzalea zela dio. Garai hartako apaizak nahiko euskaltzaleak zirela gogoratzen du.

1.774. Umeen antzerkiak (EGB-124/025)

Gogoan dauka antzerki bat egiteko testua buruz ikasi zutenekoa. Elizako lokalean areto bat zegoen eszenatoki eta guzti, eta han antzerkiak egiten zituzten. Erdaraz izaten zen. "Haurtxo txikia" kanta abestu zuen Kontxi Juaristik.

1.775. Umeen euskarazko abesbatza (EGB-124/027)

Umeen euskarazko abesbatzan aritu zen. Oso ondo pasatu zutela kontaktzen du. "Acción Católica"n entseatzen zuten. Lokal horietan denetarik egiten zela kontaktzen du.

1.776. Euskaraz alfabetatzen lagun artean eta gau eskoletan (EGB-124/028)

Euskaraz alfabetatzen lagun artean hasi ziren, beraien kabuz. Ondoren, Jose Lasa eta Antton Aranbururekin ibili ziren gau eskoletan. Ez dauka gogoan Kinarik euskaraz ikasteko. Bacuninen liburu bat irakurtzeko proposatu zietenekoa kontaktzen du.

1.777. Ikastolaren sorrera (EGB-124/030)

Felix Parapan, "Plaentxi" eta Sabin Osoro izan ziren ikastola sortzeko bultzatzaileak. Hasieran familia euskaltzaleen umeak joaten ziren. Gipuzkoako lehenengoetako ikastola izan zen. Ikastolako lehen irakasleak aipatzen ditu.

1.778. Aubixa (EGB-124/032)

Bere gurasoek ikastolako bonoak erosi zituzten. Bono horiek saltzen eta jaialdian parte hartu zuen. Aubixa montatzeko familia batzuek garrantzia handia izan zutela kontatzen du. Hutsik zegoen baserria zen. Lan oso handia egin zuten batzuek. Arrakasta handia izan zuen. Bera ere begirale aritu zen. Scout taldean aritzen zirenak joan ziren begirale irakasleekin.

1.779. Scout taldea (EGB-124/033)

Euskal Scoutak ziren, euskaraz egiten zuten. Arduraduna apaiz bat izan zela uste du. Anton Zabaleta eta Anton Barrenetxea batez ere mutilekin ibili ziren. Neskak eta mutilak banatuta ibiltzen ziren hasieran, gero batera. Kanpalekuak muntatu, jolasak... egiten zituzten. Harremani buruz ere asko hitz egiten zuten. Arrasatekoekin izan zuten harremana.

1.780. Ikastolarako irakasle bila (EGB-124/035)

Ikastolarako irakasleak zela lortzen zituzten kontatzen du.

1.781. Izeba euskara irakasle eskola publikoan eta lanbide heziketan (EGB-124/036)

Sebas eta biek egin zituzten irteerak ikastolako umeekin eta herri eskolakoekin ere. Maria Luisa eta Ana ziren herri eskolako irakasleak. Eskola publikoan "idoneoak" figura atera zutenean, bere izeba animatu egin zen. Bergaran atera zuten biek euskarako titulazioa. UNEDeko irakasleak aipatzen ditu. Hasieran eskola publikoan euskara ikasgai moduan ematen zen. Bere izebak lanbide heziketan ere eman zuen euskara ikasgaia hamar urtez.

1.782. 1977rako euskara ikasgai eskola publikoan (EGB-124/037)

1977rako bere izebak euskarazko ikasgaia ematen zuen eskola publikoan. Gela berean izaten zituen baserrikoak eta euskaraz batere ez zekitenak. "Euskalduntzen" materiala erabiltzen zuen. Izeba klaseak ematen hasi eta ondoren atera zuen titulazioa.

1.783. Ikastolan bertsolaritza erakusten (EGB-124/041)

Bertsolaritzari buruzko ikastaro batean parte hartu zuenean, hasi zen bertsolaritza erakusten ikastolan. Urtero lehiaketa egiten zuten ikastolan eta gero beste herri batera joaten ziren eskolarteko txapelketara. Angelek antolatutako bertso eskolara joan ziren ume batzuk. Bertsoan ibili zirenen izenak ematen ditu.

1.784. Ikasleak bertsozaletu zituen (EGB-124/042)

Mari Josek eta biek plangintza egin zuten, bertsoak egun konkretuetan abesteko. Hasi ziren bertso-irakasleak bidaltzen ikastoletara. Kanporaketa batera ikasleak eramaten zituen eta finalerako autobusa antolatzen zuten. Asko bertsozaletu zirela uste du.

1.785. Bertsoaletu zenekoa (EGB-124/044)

1972an lehenengo aldiz bertso saio batera joan zen Oiartzunera, eta ez zitzaion gustatu; biziatu zen arte. Orduko bertsolariak izendatzen ditu.

1.786. Seminarioan euskara eta euskal kulturarekiko kontzientzia (EGB-125/006)

Donostiako seminarioan jende asko ezagutu zuen eta harremana mantendu dute. Mundu oso aberatsean sartu zen. Juan Mari Lekuona eta Jose Luis Ansorena aipatzen ditu irakasle. Han ere hizkuntza nagusia gaztelania zen. Euskararen eta euskal kulturaren kontzientzia jaso zituen.

1.787. Euskarazko klaseak umeentzat elizako lokaletan (EGB-125/007)

Euskal dantzetan ibili zen mutikotan. Haien artean bazeuden euskara galdutakoak ere. Gogoan dauka elizako lokaletan euskarazko klaseak ematen zituztela eta han ere kontzientzia mantentzeko gune garrantzitsua izan zela. Irakasleak aipatzen ditu. "Umeen deia" izeneko liburuan daude umeek orduan idatzi zituzten testuak.

1.788. Transmisioaren etena (EGB-125/008)

Irakasleak oharra bidali zien etxerako, aholkatuz etxean erdaraz egiteko, trebatzeko. Euskaragatik ez zuen zigorrik jaso baina ohiturarik ere ez zeukaten. Konturatu zen kuadrillan batzuek euskarari eutsi ziotela eta beste batzuen etxeetan transmisioa erabat eten zela.

1.789. Patxiko Etxeberriarekin txistua ikasten (EGB-125/010)

Etxean anaiak eta biek arrebeekin ikasi zuten solfeoa. Patxiko Etxeberriarekin txistua jotzen ikasi zuten, haren etxean. Euskal Jaietan jotzen zuen txistua tarteka. Zarauzko Euskal Jaietan jo zuela gogoan du.

1.790. Elgoibarko Scout taldea (EGB-125/011)

Bere anaia Ion Scout taldean buru izan zen. Hasiera beste batzuek eman zioten. Sabin Etxaniz eta biak laguntzaile ibili ziren. Talde horretan ere euskara eta euskal kulturaren kontzientzia ardatz zeukaten, baita arlo soziala ere. Hitzaldiak antolatzen zituzten. Mutilen taldea eta neskena zeuden.

1.791. 1965-68 arteko aldaketa sozial handia (EGB-125/012)

1965-68 tarte horretan gertatu ziren aldaketa handiak aipatzen ditu. Garai horretan Juventud Elgoibarresa eta Scout taldea sortu ziren. Bildu egiten ziren kontzientzia sozialaren bueltan.

1.792. Euskarazko antzerkigintza Elgoibarren (EGB-125/014)

"Frente de Juventudes" lokala Izetatarrena zen. Hor euskaltzale eta abertzaleak biltzen ziren. Pianoa zegoen eta Izeta anaiek jotzen zuten. Euskarazko antzerkigintzan ibili zirenen izenak ematen ditu. Gerra aurreko mugimenduaren lekukoa hartu zuten. "Aitona eta biloba" izan zen obrarik entzutetsuena.

1.793. Dimas Gilen laguntza euskarazko antzerkien baimenatarako (EGB-125/017)

Dimas Gil lotzen du legalitatearekin; antzerkian laguntzen aritzen zen eta hari esker lortzen zituzten baimenak. Elgoibarko Udaleko akta liburuetan jasota dago 1939an debekatu zutela herrian euskara.

1.794. Hika zeinekin egiten duen (EGB-125/020)

Aitak semeei hika egiten zien, alabei zuka. Amak denei zuka egiten zien. Berak anaiari hika egiten dio. Hika norekin egiten duen kontatzen du.

1.795. Euskal giroan murgiltzen (EGB-125/021)

Bazituzten euskarazko liburuak etxean. Hezkuntza sistemak behartuta, erdarazko klasikoak irakurtzen zituzten. Euskaraz irakurtzen seminarioan hasi zen. Euskaltzaindiako D titulua atera zuen Arrasaten. EUTGn Filosofia eta Letrak ikasi zuen, eta Deustun, Bilbon, hiru urtez ikasi zuen. Giro euskaldun-euskaldunean murgilduta zegoen ordurako, anaiarekin batera. Giro hura zabaldu nahi zuten Elgoibarren.

1.796. Soldadutzan euskaraz ere bai (EGB-125/023)

Soldadu joan zenean, irakurri eta ikasteko aukera izan zuen. Melillan zegoela, euskarak bazeukan lekua bere egunerokoan. Euskaldunak euskaldunekin euskaraz egiten zuen.

1.797. Institutuan euskara normalizatzen (EGB-125/025)

Euskara eta historia ematen hasi zen eta zuzendari kargua hartu zuen. Euskara normalizatu egin zuten institutuan pixkanaka. Ikastolatik institutura joan ziren irakasleen izenak ematen ditu. Santo Tomas Lizeokoen laguntza izan zuten euskarazko materiala sortzeko.

1.798. Euskarazko testugintza; UZEIrekin elkarlana (EGB-125/026)

1980ko hamarkada hasieran UZEIkoekin kolaboratzen hasi ziren testugintzan eta gizarte zientzien hiztegigintzan. Aurretik ere, testugintzan beste lan batzuk eginak zituen. Ikastolatik zetozenei euskaraz eman nahi zizkieten ikasgaiak.

1.799. Elgoibarko historia aztertzeako ardura (EGB-125/029)

1985ean herriko historia aztertzeako konpromisoa hartu zuen. Udaleko eta elizako artxiboak aztertu zituen, eta Oñatiko eskribauen artxiboa ere bai. Barrenekoek zutabeak idazteko eskatu zioten eta hantxe hasi zen herriko historiari buruz idazten. Jasotako informazio guztiarekin liburu argitaratu zuen. Abiapuntua jarri zuen herriko bestelako liburu batzuk argitaratzeko.

1.800. Liburuetakoa historia eta herrikoa (EGB-125/035)

Institutuan, historiaz gain, Elgoibarko herriko ohiturak eta kontuak kontatzen zizkien ikasleei. Hori transmititzen saiatzen da.

1.801. Erdararako joera Elgoibarren (EGB-125/040)

Elgoibarren umeei D ereduari ikasi arren, erdaraz entzuten dira. Dakitenek berarekin egiten dute euskaraz, eta hizkuntzaz aldatu ere bai bere aurrean.

1.802. Euskara, maite duen hizkuntza (EGB-125/042)

Euskara bere hizkuntza nagusia dela dio, maite duena; gaixorik ikusten duenez, lagundu egin behar zaiola uste du.

1.803. Magisteritza bukatu ostean, Altzolara (EGB-126/004)

Nekane umetan Ikaztegietako eskolan ibili zen. Maistra bakarra zegoen, erdalduna. Geroago Magisteritza ikasi zuen eta lehen urtea Altzolan egin zuen, bertako mojen komentuan. Moja sekularrak ziren, italiarrak, eta ez zekiten gaztelaniaz. Espainiako neska gazte taldeak izaten zituzten eta Nekane "ingreso" ematen zien, hau da, batxilerra egin ahal izateko azterketarako prestatzen zituen. Feli Etxeberriak, berriz, lehen maila ematen zien. On Jazinto Fernandez Setien abade euskaltzalea ezagutu zuten bertan.

1.804. Anaia: Martin Iturbe apaiza (EGB-126/005)

Nekaneren anaia Hondarribiko parrokoa izan zen 40 urtez: Martin Iturbe. Zenbait gauza idatzi zituen euskaraz eta baita itzulpenak egin ere. Hondarribiko seme kuttun izendatu zuten. Euskaltzalea izanik, garai batean ondo zelatatuta egoten zela dio Nekane. Euskarazko sermoiak Gobernu Zibilera bidali behar izaten zituzten eta "eta" zenbat aldiz esaten zuen zenbatzen omen zuten.

1.805. On Jazinto Fernandez Setienen garrantzia ikastolen mugimenduan (EGB-126/006)

Nekane, Altzolan irakasle zegoela, on Jazinto Fernandez Setien ezagutu zuen. Hark ikastolen inguruko kontzientzia piztu zien. Ordurako Felix Etxeberria eta hainbat guraso andereño bila zebiltzan Elgoibarren. On Jazintok herri bateko eta besteko gurasoen eta andereñoen arteko lotura egiten zuen eta baita jendea kontzientziatu ere.

1.806. Eskolaratze-kartilla sinatzeko irakasle tituluduna behar (EGB-126/008)

Elgoibarren guraso talde bat andereño bila zebilen. Felix Etxeberriak egiten zuen buru. On Jazinto Fernandez Setienen bitartez "fitxatu" zuten Nekane. Ikastola martxan zegoen ordurako. Bost urtera arteko umeak zituztela azaltzen du Jonek, baina lehenengo mailarako irakaslea behar. Gainera, eskolaratze-kartilla sinatzeko irakasle tituluduna behar zen.

1.807. Karmele Esnalengana, ikastolarako metodologia ikastera (EGB-126/011)

Jone Etxaberi Felix Etxeberria joan zitzaion etxera, ikastolako andereño lana eskaintzera. Ikastolan hasi aurretik bi hilabetez Karmele Esnalengana joan zen Donostiara, haren metodologia ezagutzeko, eta 1963-1964 ikasturtean zehar prestakuntzarekin jarraitu zuen. 80 ume inguru zituen Karmele Esnalek gela txiki batean. Metodologia berritzailea zen. Ume nagusienak bakarrik esertzen ziren mahaietan, gainontzekoak lurrian. Koloretako arkatzak, zotzak... Askok abesten eta jolasten zuten. Ostegunetan irteera.

1.808. Ikastola beste eskolekin konparatzen zuten herritarrek (EGB-126/012)

Karmele Esnalekin ikasitako metodologia erabiltzen zuten Elgoibarko ikastolan eta jendeari iruditzen zitzaion jolas besterik ez zutela egiten. Beste eskolekin

konparatzen zituzten. Irakurtzen ere beste eskoletakoek baino beranduago ikasten zuten. Parean bizi zen emakume batek beraien alde egiten zuen, aleman kolegioan ere beranduago ikasten zutela eta. Orduko gurasoek itsu-itsuan egin zuten ikastolaren aldeko apustua. Ez zuten materialik eta egunean egunekoa prestatu behar.

1.809. Donostiako andereñoen erresidentzia eta udako ikastaroak (EGB-126/014)

Nekane Iturbe Donostiako andereñoen erresidentzian egon zen. Hitzaldiak ematen zizkieten eta baita euskara eskolak ere (Karlos Santamariak, Pakita Arregik...). Pertsona garrantzitsuak ezagutu zituen han. Udaran ikastaroak egiten zituztela du gogoan Jonek, esaterako, Montessori metodologiaren ingurukoak, Kataluniatik etorritako ordezkariekin.

1.810. H-aren inguruko eztabaida (EGB-126/015)

H-aren inguruko eztabaidak. Elbira Zipitria h-aren aurka zegoen eta Nekaneri eskutitz bat idatzi zion. Baina berak ez omen zekien ezer horretaz eta ez zion erantzun.

1.811. Ikasmateriala; ikastolaren eragina beste ikastetxeengan (EGB-126/018)

Pixkanaka-pixkanaka material asko sortu zen ikastolan. 1980 inguruan ikastetxe publikoak ere euskara irakasten hasi ziren eta beraiek prestatutako materialaz baliatu ziren. Ikastolaren hasieran `Xabiartxo´ eta `Martin Txilibitu´ ziren irakurketa-liburu bakarrak. Ikastolak gainontzeko eskolengan eragina izan zuela uste dute. Ikastolak gero eta ume gehiago hartzen zituen eta, hori ikusita, beste eskolak ere pixkanaka aldatzen hasi zirela uste du Jonek. 1975ean Franco hil ostean eta batez ere 1980-1982 ingurutik aurrera aldaketak nabariagoak izan ziren.

1.812. Eibarren ikastola sortu aurretik ume batzuk Elgoibarrera (EGB-126/020)

Eibarko ikastola Elgoibarkoa baino geroago abiatu zen eta hasierako urteetan Eibarko lau ikasle izan zituztela gogoan dute. Umeetako bat Kareaga familiakoa zen. Haren aitona grabatzailearen eta Espainiako erregearen inguruko anekdota kontatzen du Nekanek.

1.813. Elizaren eta parrokoen laguntza (EGB-126/024)

Elgoibarko parrokoek asko lagundu zioten euskarari eta ikastolari. Beristain mutrikuarra. Abade gehienak izan ziren euskaltzaleak. Elizaren lokalak erabiltzen zituen ikastolak.

1.814. Ikastolaren hasierako gelak eta baldintza eskasak (EGB-126/025)

Ikastolaren hasieretan lokal ezberdinak erabiltzen zituzten eskolak emateko. Beraiek non hasi ziren azaltzen dute. Nekanek fundizioa zuen aldamenean eta hango mailu-hotsagatik leihoak itxita izaten zituzten. Urte askoan egon zen bertan, 60 umerekin. Geroago Marisabel Mujika eta biak egoten ziren. Umeak beste ikastetxeetara edo institutura joateko prestatzen zituzten.

1.815. Ikastolako umeak euskaraz eta gaztelaniaz prestatu behar (EGB-126/026)

Umeak beste ikastetxeetara edo institutura joateko prestatzen zituzten ikastolan, baina inspektoreak ez ziren ikastolaren aldekoak eta gurasoak beldurtu egin ziren, umeak ez ote ziren ikasketekin jarraitzeko gai izango. Umeen gaitasuna demostratu beharra zegoela eta jendaurreko azterketa antzekoak egitea bururatu zitzaion Felix Etxeberriari. Umeei gaztelaniaz ere erakutsi behar izaten zieten, gero institutura joateko. Gaztelaniazko liburuak ikusitakoan inspektoreak ea zer egiten ikastolan galdetu zion Nekaneri.

1.816. Lau irakasle ikastolatik institutura (EGB-126/027)

Ikastolako irakasle batzuk Seminarioan ikasiak ziren eta, Filosofia ikasketak zituztenez, ikastolatik institutura pasa ziren. Lan handia egin zuten institutua euskalduntzen eta ikastolako umeentzat hain jauzi handia izan ez zedin. Gutxienez lau irakasle joan ziren: Angel, Iñasio, Emilio eta Andres.

1.817. Ikastolako andereñoak Magisteritza titulua ateratzera (EGB-126/028)

Jone 17 urterekin hasi zen ikastolan lanean, Karmele Esnalekin pixka bat prestatu ostean. Geroago unibertsitaterako sarbidea egin eta Magisteritza ikasketak egin behar izan zituen, titulua ateratzeko. Ikastolako 6-7 andereñok egin zuten batera. Hasiera batean ikasitako metodologia hura, moldatu egin behar da ikastetxearen arabera eta batez ere umeak gero gaztelaniazko eskola batera joan behar baldin badira. 1980tik aurrera eskolak bateratzen hasi ziren, eskola publikoak ere euskalduntzen hasi zirenean.

1.818. Ikastola: gurasoen apustua, egoera txarrak bizi beharra... (EGB-126/032)

1975ean Franco hil ostean hasi zen egoera pixka bat aldatzen. Gurasoek meritu handia zuten, itsu-itsuan ikastolaren aldeko apustua egin zutelako. Hasieran ikastola ez zen legala eta erdi-klandestinitatean aritzen ziren. Egoera txar asko bizi behar izan zituzten. Guardia zibilen eta inspektoreen bisitak. Nekane umea izatear zegoela, muturrez aurrera erori zen inspektoreari gelak erakusten ari zenean. Inspektoreek aitzakiak jartzen zituzten beti, baina ikastolaren baldintzak ere ez ziren egokienak. Hala ere, lantalde ona zuen ikastolak.

1.819. Ikastolako lan-baldintzak (EGB-126/034)

Gurasoek meritu handia izan zuten umeak ikastolara bidalita. Beraiek ere ez ziren lanean aritu baldintzarik onenetan: erdi-militantzian aritu ziren. Guraso batek behin irakasleei gehiago ordaindu behar zitzaielara esan zuen, baina horretarako gurasoei kobratzen zitzaaien kuota igo behar. Denetariko lanak egin behar izaten zituzten: garbitu, zakarrak atera... Eta gizarte segurantzarik ez zuten. Aseguru partikular bat egin zieten istripuetarako.

1.820. Elgoibarko ikastola, lehenengoetakoa (EGB-126/037)

Gipuzkoan lehenengo ikastolak Donostian, Erreterian, Hernanin eta Elgoibarren jarri ziren. Azkainekoa, Bilbokoa... geroago jarri ziren.

1.821. Ikasitako guztiarekin lehiaketa antzekoak jendaurrean (EGB-126/039)

Ikasturte guztian landutakoaren inguruko galderak poltsa batean sartu eta lehiaketa antzekoak egiten ziren. Bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Beste herri batzuetara ere joan izan ziren. Irakasleak joaten ziren umeekin. Ikastolako umeek ondo ikasten zutela erakusteko.

1.822. Ikastolaren eraikin berria egiteko diru-bilketa (EGB-126/042)

Ikastolaren aldeko diru-batzeak. Ikastolaren eraikin berria egiteko jendeak diru asko eman zuen. Ahal zuenak ahal zuena. Termometroak jarri ziren herrian, diru-bilketa nola zihoan jakiteko. Jaialdiak ere egin ziren.

1.823. Aubixa aterpetxea (EGB-126/045)

Aubixa aterpetxerako diru-bilketa nola egin zen: kartoiak bildu eta saldu egiten ziren, dirua lortzeko. Baserrira egokitu behar izan zen eta guraso asko joan zen lanera. Udan gero han egon behar umeekin. Joxepa, sukaldari ona.

1.824. Elgoibarko ikastolaren lehenengo gelak (EGB-126/047)

Elgoibarko ikastolak eraikin berria egin aurretik izan zituen lokalak edo gelak zerrendatzen dituzte. Adinaren arabera, umeak lokal batetik bestera pasatzen ziren. Jangela jarri zutenean, umeak jangelara eraman behar.

1.825. San Pedro fundizioako emakumeei idazten eta irakurtzen irakasten (EGB-126/058)

Elgoibarren egon zen lehen urteetan Nekane San Pedro fundizioaren etxe batean egon zen beste maistra batekin batera. Orduan idazten ez zekitenek hatzarekin sinatzen zuten eta umiliazioa izaten zen. San Pedro fundizioan kanpoko jende asko zebilen lanean. Hango nagusiak eskola antzeko bat jarri zien bizi ziren etxearen behealdean, eta hango emakumeei irakurtzen eta idazten irakasten zieten iluntzeetan. Gogoan du soldadu joan behar zuen baserritar bati ere irakatsi ziola.

1.826. Aita Sestaon jaioa; ama elgoibartarra (EGB-127/002)

Aita Demetrio; amari Kruzita `Vallejo´ esaten zieten denek, hau da, senarraren abizena erabilita. Aita Sestaon jaioa zen, baina gerora jakin zuten hiru urterekin etorri zela Elgoibarrera; ama, berriz, Elgoibarren jaioa.

1.827. Aitaren jatorria (EGB-127/004)

Aitaren aita Palentziakoa zen, Herrera de Pisuerga herrikoa. Sei seme-alaba izan zituen eta haiek hazi zirenean ganadu-tratulari gisa etorri zen. Sestaora joan ziren. `Porru´reneko Mikaelarekin ezkondu zen. Beraiek ere `Porru´tarrak izan arren, Vallejo abizenez izendatu izan ditu jendeak.

1.828. Anaia biriketako gaitzarekin hil zen gazterik (EGB-127/009)

Bost anai-arreba izan ziren. Lehenengoa ez zuten ezagutu. Orain Miren da zaharrena. Anaia, Imanol, 18 urterekin gaixotu eta 26rekin hil zen, urtebeteko bizia eman zioten arren. Biriketako gaitza zuen. Ama enplasto bidez zaintzen saiatzen zen; belarrak batzen ibiltzen ziren. Penizilina eta estreptomizina urte hartantxe atera ziren Ameriketara.

1.829. Anselma maistra; Mirenen koaderno Madrileran (EGB-127/011)

Eskola publikoan ibili zen Miren. Gerra iritsi zenean eskola itxi egin zuten eta lantegira, lanera. Maistrak kanpotarrak ziren. Doña Anselma zen bere kutuna. Artolaneko ostatuan egoten zen eta eskola bukatutakoan haren gelara joaten zen koaderno bat idaztera. Dotore idazten zuen Mirenek, ortografia akatsik gabe. Koaderno hura Madrileran bidali zuten lehiaketa batera, baina ez zioten saririk eman. Hara joandako maistra batek esan zion azpijokoa egon zela.

1.830. Senargaia 15 urterekin; elkar ukitu ere ez (EGB-127/012)

Gero bere senarra izango zen Pako Juaristirekin hasi zenean, Mirenek 15 urte zituen eta Pakok 18. Soldadu joatear zegoen. Estarta lantegikoek zati bat Eibarko Valenciagari emanda zeukaten eta han ibili zen lanean Miren, Pako soldadu zegoela. Geltokira laguntzen zion, baina kalean zehar elkar ukitu ere ez. Gainera, lagunekin joaten ziren.

1.831. Mirenen gaztetako lanak: lantegian eta etxean jertseak egiten (EGB-127/014)

Valenciagakoekin hasi zen lanean Elgoibarren, baina gero Eibarrera joan ziren. Trenez joaten zen Eibarrera Miren eta kamioneta batean itzuli. Hogei egun besterik ez zituen egin han, Alkorta lantegira lanera joateko deitu zioten eta. Geroago etxean jertseak egiten hasi zen makina batekin. 23 urterekin ezkondu eta senarraren etxera joan zen, haren familiarekin.

1.832. Aitona eta ama Peñalba abarketa-lantegian lanean (EGB-127/017)

Aitona Frantziskok Peñalba abarketa lantegian lan egin zuen. Lantegi hori aurretik Pedro Arrietarena (euren aitona) izan zela azaltzen dute elkarrizketatzaileek. Miren eta Maiteren amak ere abarketak josten zituen Peñalbaretzat eta aitona ez zitzaion batere gustatzen, berritsua zelako. Azkenean, kasualitatez, bere seme batekin ezkondu zen.

1.833. Eskola txikian Satur maistrarekin (EGB-127/019)

Saturnina Ciaran maistrarekin ibili ziren eskola txikian. Euskaraz egiten zuen dena. Ume asko egoten ziren batera. Maitek dio euskaraz egin arren gaztelaniaz ikasten zutela. Oraindik gogoratu egiten da zer ikasten zuten. Orduko argazki bat baduela ere azaltzen du.

1.834. Eskola nazionaleko zuzendariarekin harremana (EGB-127/021)

Eskola nazionalean hiru gela zeuden Maiteren sasoian. Ez du gogoan lehenengo gelako maistraren izena; bigarrenakoa, Pakita Zinkunegi,

abertzalea zen; hirugarrenekoa, Palmira, espainolista zen. Hura zen zuzendaria. Maiteri enkarguak egiteko eskatu zion eta hilean bi pezeta ematen zizkion trukean. Falangeko bat etortzen zitzaien eskolara, ariketa fisikoa eginaraztera. Maitek zuzendariari esan zion ez zuela klase horietara joan nahi, bere aitari ez litzaiokeelako gustatuko, eta baimena eman zion ez joateko.

1.835. 14 urterekin eskola amaitu eta maistrei laguntzen (EGB-127/022)

Maitek 14 urterekin amaitu zuen eskola. Consuelo maistra etorri zen orduan. Oso arduratsua zenez, ikastaroetara maistra moduan joateko eskatzen zioten. Umetatik izan zen arduratsua; plazan ez zuen dantza egin nahi izaten, zapatei azpia ez gastatzearren eta gasturik ez sortzearren, anaia gaixoa zaintzeko dirua behar zuten eta. Maistra gisa egon zeneko pasadizoak.

1.836. Maistrei laguntzen ibili zen sasoiaren ezagutu zuen senargaia (EGB-127/023)

14 urterekin eskola nazionalako maistrak ordezkatzeko zituen Maitek. Jolas-orduan Plaza Txikira irteten ziren eta han ezagutu zuen Tomas, bere senarra izango zena. Maisua zen; Balentin Arrieta maisuari laguntzen zion. 21 urte zituen orduan, zazpi urte nagusiagoa zen. Dore Urbistondo maistra eibartarrak mutil ona zela esan zion. Maitek 15 urte bete zituenean, galtzerdi luzeak oparitu zizkion.

1.837. Senargaia nola deklaratu zitzaion (EGB-127/026)

Dore Urbistondo maistraren ama hil zenean, Eibarrera joan ziren hiletara. Tomas maisua era joan zen eta elkarrekin itzuli ziren trenean. Elgoibarrera iritsi zirenean, ea berarekin zer bait izan nahi zuen galdetu zion Tomasek eta korrika alde egin zuen. Oso mutil ona zen, bizimodu latza izandakoa.

1.838. Gaitzizenen inguruko pasadizoa (EGB-127/029)

Hiru elgoibartar elkarrekin etorri ziren trenean Donostiatik. Euren gaitzizenekin sortutako txistea.

1.839. Iluntzeetan tabernara lagunartera (EGB-127/031)

Miren Txitxarroneko etxera ezkondu zen. Etxea eta lantegia. Baratzeari zuten eta oiloak ere bai. Patxiko Juaristi eta Cesar Latxa "Artes y oficios" lantegiko maisuak izan ziren. Iluntzeetan tabernarako ohitura. Barrutiarenean elkartzen ziren. Euren aita "takillua"rekin joaten zen. Kafea Izetarenean. Nolakoa zen. Han inguruan deklaratu zitzaion Pako Mireni.

1.840. On Zelestino eraman zutenekoa; kristau ikasbidea euskaraz (EGB-127/035)

On Zelestino (Onaindia) hil zutela 77 urte pasa direla aipatzen dute. Mirenek azkenengo aldiz non ikusi zuen eta kotxe batean eramaten nola ikusi zuen kontatzen du. Gizon ona zen. Harekin ikasten zuten kristau ikasbidea, euskaraz. Euskaraz ikasten zuenarentzat erlojua zegoen opari, gainera; nori eman zioten. On Zeferino Urrestarazu parrokoa euskaltzalea zen, baina ez zen ondo portatu.

1.841. Donostian kristau ikasbidea irakasten (EGB-127/037)

Donostiara bizitzera joan zirenean kristau ikasbidea ematen zuen bertan Mirenek. Baina larunbatetan izaten zenez eta asteburuan Elgoibarrera

etortzen zirenez, denbora gutxi egin zuen. Gero San Bizente parrokiatik esan zioten euskaraz irakatsiko zuen norbait behar zutela eta han ere ibili zen denbora batez.

1.842. Palentziako aitarien jarrera eredugarria (EGB-127/040)

Euren aita, Demetrio oso-oso abertzalea zen. Aitita Palentziatik etorria zen, baina, bere semearekin ezkondu zenean, errainari esan zion umeei euskaraz egiteko, berak ulertu ez arren. Garbi zeukan bera zela kanpotik etorritakoa eta berak ohitu behar zuela bertako hizkuntzara eta ohituretara.

1.843. Soldadu frankistak herrira sartu zireneko bizipenak (EGB-127/041)

Gerraren hasiera nola bizi izan zuten kontatzen du Mirenek. Soldaduak sartzen ikusi zituzten. Aitak balkoira irten eta "Gora Euskadi askatuta!" oihukatu zuen; barrutik atera zitzaion, abertzale sutsua zen eta. Parean karlistak bizi ziren. ANVkoa zen aita.

1.844. Etxetik jasotako abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna (EGB-127/051)

Oso euskaltzaleak izan dira. Aitak "euskaldun" eta "abertzale" kontzeptuei buruz ematen zizkien azalpenak. Eskolan gaztelaniaz, baina bestela euskaraz egiten zuten beti. Amak ez zien erantzuten euskaraz egin ezean. Aita garbizalea zen, gainera, euskararekin.

1.845. Karmele Esnalengana, formakuntza jasotzera (EGB-128/002)

Gerraosteko lehenengo ikastola sortu zenetik 70 urte pasa direla dioen albistea du egunkarian. Elbira Zipitriarengana joan behar zen, baina gutxienez urtebete han praktikan egotea eskatzen zuen eta Elgoibarren ikastola martxan ipintzeko ezin ziren urtebetez zain egon. Orduan, Karmele Esnalengana joan zen. Trenez joaten zen. 74 ume izaten zituen gela batean. Jone Etxabe Elgoibarko ikastolako andereñoa ere harengana joan zen. Ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko festa baino 15 egun lehenago hil zen.

1.846. Errepublika sasoian eskola publikotik mojetara (EGB-128/008)

Satur maistrarekin ibili zen lehenbizi eskolan. Ehun ume inguru ibiliko zirela dio. Eskola publikoan jarraitu zuen. Han izan zuen azken irakaslea Priscila Pinedo izan zen. 1931n, Errepublika aldarrikatu zenean, gurutzeak kendu zituzten eskoletatik eta amak ezin zuenez hori onartu, Ospitaleko mojegana eraman zuen. Garai hartan 14 urtera arte ikasten zen. 1935-1936 ikasturtea galdu egin zuten gerraren eraginez eta, horregatik, 15 urterekin beste urtebetez eskolak eman zizkieten. Amari eskola publikora itzuli nahi zuela esan zion eta Priscila Pinedo maistrarengana itzuli zen. Maistra oso ona zen. Bera ere ikasle ona zen.

1.847. Anaiak gerran (EGB-128/010)

Anaia nagusia 1936an Burgosera jan zen soldadu. Beste bi anaiak Bizkaia aldera joan ziren eta, beraz, bando ezberdinetan aritu ziren. Ordurako, anaia nagusia jostun lanean hasita zegoen.

1.848. Banco San Sebastián-eko lana ez omen zen egokia emakumeentzat (EGB-128/013)

Banco San Sebastian-en lan egin zuen bi urtean, 1960tik 1962ra, letrak kobratzen. Soldata. Hasieran ordu pare bat besterik ez zituen egiten, baina amaieran gehiago, sasoi hartan lantegi asko zabaldu zen Elgoibarren eta. Egun batean Pako Juaristik bere bulegora deitu zion eta aipatu zion Donostian erabaki zutela bere lana ez zela emakumeentzat egokia, diru askorekin ibiltzen zelako. Orduantxe proposatu zion Pakok Ikastolan hastea.

1.849. Aita Ubidekoa; familia euskalduna (EGB-128/018)

Aita Ubidekoa zen. Bere jaiotetxea muga-mugan zegoen: zati bat Bizkaian eta beste zati bat Araban. Aitak beti esaten zuen bera Bizkaia partean jaioa zela. Anaiak asko joaten ziren hara. Bera ere anaiarekin joan zen gerra bukatu zenean eta hilabete pasa zuen bertan. Ubideko familia oso euskalduna zen. Aititaren eta amamaren inguruko kontuak. Amamak 13 seme-alaba izan zituen. Izen euskaldunak.

1.850. Euskal izenen gorabeheran eztabaidak familian (EGB-128/019)

Aitak izen euskaldunak jarri nahi izaten zizkien umeei, baina amaren aldeko aitona ez zegoen ados. Lehenengoari aitak Josu ipini nahi zion, baina azkenean Jesus ipini zioten. Ondorengo seme-alaben izenak: Imanol, Karmel, Loretxo eta Itziar. Ama berarekin haurdun zegoela `Itziartxo´ antzezlanana egin zuten Batzokian eta horregatik jarri zioten izen hori. Gazteena Jon Iñaki izan behar zen, baina aitona ez zuen onartu.

1.851. Aita 17 urterekin Ubidetik Elgoibarrera (EGB-128/020)

Aita Ubiden jaio zen 1986an eta 17 urterekin Elgoibarrera joan zen, Santa Klarako kapilaua zen osabaren bitartez. Iturrirenean lan egin zuen lehenengo eta gero "errekadista" moduan ibili zen lanean, Bilbora bidaiak eginez trenean. Gerraren etenaren ostean, San Frantzisko kaleko lantegi batean hasi zen lanean, Iturrienerako piezak egiten. Handik Estartara pasa zen eta Sigman hartu zuen erretiroa.

1.852. Anaiaren gorabeherak Iturri lantegian (EGB-128/021)

Itziarren anaia, Karmel, Iturri lantegian ibili zen lanean. Diru gutxi irabazten omen zuen. Behin lagun bat eta biak lana utzi eta Ondarroara joan ziren inauterietan. Handik itzulitakoan zigorra jarri zioten lantegian eta astebeterako etxera bidali. Anaiak Sigma lantegian lagunak zituen.

1.853. Anaia Iturri lantegitik Sigmara (EGB-128/024)

Iturri lantegian arazoak izan eta gero, Sigman lan egiten zuten bi lagunekin hitz egin zuen anaiak eta bertan lanean hasteko bidea egiten laguntzeko eskatu. Horrelaxe hasi zen Sigman lanean. Hasieratik Iturri lantegian baino soldata hobe izan zuen eta pozik.

1.854. Justo Ajuria osaba (EGB-128/026)

Aita abertzalea eta euskaltzalea zen. Anaiak ere bai. Anaietako, Justo, Elgoibarrera ekarri zuen lanera aitak eta beraien etxean egoten zen. Ask

idazten zuen egunkari eta aldizkarietarako eta idazkari izateko ikastaroren bat ere egin zuen. Sondikan egon zen idazkari lanean, hango idazkaria kaleratu zutenean. Anaia gazteago bat ere idazkari lanean ibili zen. Justok Jose Antonio Agirrerekin ere harremana zuen.

1.855. Gerra Zibileko bizipenak (EGB-128/031)

Gerra zibila hasi zenean aita Batzokiko lehendakaria zen eta horregatik zalantzan egon zen ihes egin ala ez. Orduko bizipenak. Soldaduak etxean hartu behar izaten zituzten. Hasieran bi erreketek etorri zitzaizkien etxera eta herria "kristautzera" zetozela esan zieten. Bere ama asko haserretu zen, oso kristaua zen eta. Beste behin soldaduek esan zieten bi espia harrapatu zituztela. Berehala hil zituzten.

1.856. Justo Ajuria osaba fusilatu egin zuten (EGB-128/032)

Itziarren aita ez zen Bizkaia aldera joan gerra sasoian, herrian geratu zen. Justo osaba ere ez zen ihesi joan. Sondikan bere aurretik egon zen idazkaria falangista zen eta mendekua hartu nahi izan zuen. Larrinagako kartzelara eraman zuten Romualdo Andonegi elgoibartarrarekin batera. Hura libre utzi zuten, baina Itziarren osaba fusilatu egin zuten. Gerora jakin zuten fusilamendua nola izan zen.

1.857. Gurasoek zer irakurtzen zuten (EGB-128/037)

Amak ez zuen ikasketarik, baina Jesusen Bihotzaren takoan etortzen zen "un minuto de filosofía" irakurtzea gustatzen zitzaion. Aitak irakurtzeko zaletasuna zuen eta Zeruko Argia aldizkaria aste osoan poltsikoan erabiltzen zuen.

1.858. Euskarazko D titulua; on Nemesio Etxaniz (EGB-128/039)

Euskarazko D titulua ateratzeko azterketan Patxi Altunak `Bilintx´en bizitzaz galdetu zien eta ondo erantzun zuen, justu aste hartan Zeruko Argian haren bizitzaren berri etorri zelako. Azterketaren amaieran Nemesio Etxanizek aspaldi eman ziela titulua ere idatzi zuen. On Nemesio Etxanizen inguruko kontuak. Karmele Esnalengana joaten zenean ezagutu zuen eta Elgoibarrera ere joan zen behin hitzaldia ematera.

1.859. Gerra zibila Elgoibarren: bonbak, balak... (EGB-128/041)

Gerra sasoiko bizipenak. Plazako banku batean eserita zegoela aitari bala galdu bat sartu zitzaion besoan. Bonbardaketak ere izan ziren. Sirenak entzundakoan elizpean gordetzen ziren. Orduan hil ziren herritar batzuk aipatzen ditu.

1.860. Jose Zubiaurre ´Balle´ (EGB-128/042)

Jose Zubiaurre `Balle´ eta bera senideak ziren, euren gurasoak lehengusuak zirelako. Familia-loturak. Musikaria, komikoa, pilotari ona... zen Jose. Itziar bigarren solairuan bizi zen eta Jose lehenengoan.

1.861. Banketxetik ikastolara aldaketa (EGB-128/045)

Banketxean lanean ari zela, Pako Juaristik aipatu zion Elgoibarren ikastola martxan jarri behar zutela eta ea irakasle moduan hasiko zen. Geroago Felix Etxeberriak esan zion Donostiara joan beharko zela ikastolarako prestatzeko. Banketxean jarraitzeko aukera eman zioten arren, ikastolara joatea erabaki zuen. Raul Gil sartu zen bere ordez.

1.862. Banketxeko lana; ikastolara joateko erabakia (EGB-128/046)

Banketxean lanean ibili zenean, herri osoa pasatzen zuen letrak kobratzen eta ordaintzen. Lantegietara eta dendetara joaten zen. Banketxeko diru-kontakteten inguruko kontuak. Bera han zegoela zuzendari berria etorri zen: Agirre. Banketxean jarraitzea eskaini zioten arren, ikastolara joatea erabaki zuen.

1.863. Sigmako ekonomatorako lan-eskaintza (EGB-128/047)

Sigmako ekonomatora lanera joateko eskaintza egin zion Rafael Etxanizek; Faustina zegoen Sigman eta haren ordez sartzeko. Hasieran Sigman, baina gero kalera etorriko litzatekeela berehala agindu zion. Itziarrek ezetza eman zion, ordurako ikastolakoei hitza emanda zegoelako. Marisol Cano sartu zen azkenean.

1.864. Ikastolako lehenengo andereñoa izan zen 1962-1963 ikasturtean (EGB-128/048)

38 urte zituen ikastolan lanean hasi zenean. 1962-1963 ikasturtea zen. 29 umerekin hasi zen, baina argazkian 30 azaltzen dira, bat ikasturtean zehar sartu zelako. Berandu hasi zuten ikasturtea eta uztailean ere lan egin zuen. Bigarren ikasturtean Jone Etxabe sartu zen irakasle.

1.865. Aita Batzokiko antzerki-taldean ibiltzen zen (EGB-129/005)

Batzokian antzerki taldea bazegoen. Bere aita ere ibiltzen zen antzerki taldean. Modesto Arriolaren emaztea ere egokia omen zen. Nortzuk parte hartzen zuten. Udaletxean egiten omen zituzten antzezlanak. Dantza ere bertan egiten zuten.

1.866. 50eko hamarkadan antzerkiak egiten hasi ziren (EGB-129/006)

50eko hamarkadan On Ramon Ormaetxea parrokoari bururatu zitzaion antzerkiak egin behar zituztela. On Jose Maria Agirrebaltzategi oñatiarra zen haren laguntzailea.

1.867. On Ramon Ormaetxea eta on Jose Maria Agirrebaltzategi antzerki-zuzendari (EGB-129/008)

Antzerkiak egiten hasi zirenean, on Ramon Ormaetxea parrokoa drama zatiaren arduraduna izaten zen eta on Jose Maria Agirrebaltzategi zati komikoarena. Itziarrek beti paper komikoak egiten zituen.

1.868. Aurreko belaunaldikoek `El caserío´ antzeztu zuten (EGB-129/009)

Aurreko belaunaldikoek `El caserío´ antzeztu zuten. Nortzuk parte hartu zuten. `El navarrico´ tenorra.

1.869. 50eko hamarkadan antzerkiak egiten (EGB-129/010)

On Ramon Ormaetxea eta on Jose Maria Agirrebaltzategirekin prestatu eta antzeztu zuten lehen obra. Elena Opakua izan zen aktore nagusia. Beste antzezlan batzuk: `La esclava de Fabiola´, `Cadáveres ambulantes´... Gaztelaniaz egiten zuten. Antzerkien azalpenak. Errosario Kaleko "Cine elgoibarrés"en egiten zituzten obrak. Aurretik egon zen antzokian ere egiten zituzten eta baita Ospitalean ere. 50eko hamarkadan hasi ziren.

1.870. Abadearekin izandako gorabeherak, antzerkia dela eta (EGB-129/012)

`La plasmatoria´ antzezlan egin zuteneko kontuak. On Julian Eguren zen abadea garai hartan. Mari Tere Elkorok eskotea zeramala esan zion norbaitek abadeari eta debekatu egin zien neskak eta mutilak elkarrekin antzerkiak egitea. Baina ez zioten jaramonik egin. Orduantxe `El caserío´ egitea erabaki zuten eta irabaziak elizari eman zizkieten. Harekin egin zituzten bakeak.

1.871. `Aitona eta biloba´, euskaraz egin zuten lehen antzezlan (EGB-129/013)

Momentu batean Pako Juaristik erabaki zuen antzerkiak euskaraz egin behar zituztela. `Aitona eta biloba´ izan zen lehen obra. Herrian oso harrera beroa izan zuen. Gero Eibarrera joan ziren antzeztera, baina han jende gutxi izan zen. Klaudia Lecea izaten zen arropen arduraduna. Geroago Euskaltzaindiak Euskal Jaiak antolatu zituen eta berriz joan ziren Eibarrera. Bigarrengoan antzokia goraino beteta egon zen. Beste herri batzuetan ere antzeztu zuten eta baita Bilbon ere, Arriaga antzokian.

1.872. Pako Juaristi antzerki-zuzendari; euskarazko antzezlanak (EGB-129/014)

Pako Juaristik egiten zuen zuzendari-lana antzerki taldean. Behin plaza zaharreko arrandegi inguruan antzeztu zuten obra bat (ez du gogoan izena). Jose Zubiaurreren ateraldia. Gero beste antzezlan batzuk ere egin zituzten euskaraz: `Etxe-aldaketa´, `Iru-ziri´...

1.873. Antzerki-lehiaketa batean parte hartu zuten (EGB-129/016)

Pako Juaristik zuzendari lanaz gain, aktore lanak ere egiten zituen. Gogoan du behin hernaniarrek antzerki lehiaketa antolatu zutela. Saria hernaniarrek beraiek irabazi zuten. Antzezlanaren argumentua (`Etxe-aldaketa´ zen obra). Kontxita Armendia, komikoa.

1.874. Antzerki-taldearen entseguak non egiten zituzten (EGB-129/017)

"Frente de juventudes"en lokalean egiten zituzten entseguak eta sakristian ere bai. Geroago Loritoneko lokalean. Dimas Gil izaten zen dekoratzailea. Barrutiareneko goiko jangelan pianoa zegoen eta `El caserío´ obrarako han egiten zituzten entseguak. Entseguetako pasadizo bat.

1.875. Antzerki-taldearen inguruko zenbait kontu (EGB-129/018)

Antzerkietan batzen zen dirua benefizentziarako izaten zen normalean. Behin Santo Tomas bezpera batean Arrasaten antzeztu zuten obra bat. Fraideek eman zieten afaria. Santo Tomas egunean, berriz, Donostiako Bartolo jatetxean afaldu eta `Katuska´ ikusi zuten. Handik bueltan autobusarekin gertatu zitzaiena.

1.876. Manolo Rementeria "apuntadore" lanean (EGB-129/020)

Manolo Rementeriak "apuntadore" lanak egiten zituen. Itziarrek dio gorreria pixka bat izango zuela gaztetan, izan ere, espezialista batengana joan zen. "Apuntadore"ak esaten ziona ez entzuteko beldur zen.

1.877. Antzerki-taldeko partaideak eta egin zituzten antzezlanak (EGB-129/021)

Antzerki-taldean egin zituzten zenbait obra. Parte-hartzaile batzuk. Kantariak ere baziren. Opera edo opereta bat prestatzekotan ibili ziren, baina azkenean ez zuten egin.

1.878. Euren artean "Compañía Petachos" esaten zioten taldeari (EGB-129/026)

Kuadrilla ezberdinetako kideak elkartzen ziren antzerki-taldean eta euren artean esaten zuten "Compañía Petachos" zirela, baina taldeak "Grupo elgoibarrés" izango zuela izena dio.

1.879. `Gai dagoenaren indarra´ antzezlanaren inguruko kontuak (EGB-129/027)

Odeon antzokian ere egiten zituzten antzezlanak. `Gai dagoenaren indarra´ euskarazko antzezlanaren inguruko kontuak. Txokolatearekin gertatu zitzaion pasadizoa.

1.880. Beti umoretsu eta zirikatzen (EGB-129/030)

Itziarrek berezkoa izan du umorea egiteko erraztasuna. On Jose Mariarekin (Agirrebaltzategi) koruan ibiltzen zirenean errieta asko jasotzen zituen, zirikatzailea zelako. Abadeak Eva Perón eta Imelda Marcos deitzen zien Kontxita eta bie.

1.881. `El caserío´ zarzuela: argumentua, parte-hartzaileak, kantua... (EGB-129/033)

Pako Juaristik apaizarena egiten zuen `El caserío´ zarzuelan. Antzezlanaren argumentua eta parte-hartzaileek zer paper egiten zuten. Antzezlanaren zati batzuk eta kantua: Jose Zubiaurre `Ballek eta Maria Angeles Kortabitartek kantuan izaten zuten elkarrizketa. Obra horretan "¡Viva Elgoibar!" esaten dute; horren inguruko anekdota bat.

1.882. Antzerki-taldearen amaiera; telebistak etxeetan (EGB-129/041)

Berez-berez utzi zioten antzerkiak egiteari, ez arrazoi zehatz bategatik. Etxeetan telebistak gehitzeak ere eragina izango zuen. Lehenengo telebista jarri zutenean, ama jada nagusia zen. Amarekin eta telebistarekin bizitako anekdotak.

1.883. `Uste dinat´ antzezlan (EGB-129/044)

Uste du Miren Vallejo eta Guada Mujikak egin zutela `Uste dinat´ antzezlan elizaren lokaletan. Gero berari ere esan zioten gidoia ikasteko, baina ez du gogoan antzeztu ote zuen. Gidoiak buruz ikasteko buru ona behar, nahiz eta "apuntadorea"ren laguntza izan.

1.884. Andazarrateko tuberkulosoaren ospitalera, antzeztera (EGB-129/045)

Andazarraten tuberkulosoentzako ospitalea egin zuten. Imanol Vallejo elgoibartarra bertan zegoen eta antzezlan bat egitera joan ziren.

1.885. Inspektorearen mehatxuak, ikastolako andereño zela (EGB-129/049)

Ikastolako oroitzen ona du, nahiz eta hasiera gogorra izan. Ez zuen titulurik eta inspektoreak esaten zion ezin zela sei urtetik gorako umeekin egon. Donostiatik etortzen zen inspektorea.

1.886. Ikastolan bizitako anekdotak eta pasadizoak (EGB-129/050)

Ikastolako andereño zela, umeekin bizitako anekdotak. Ume bati ilargira bidaliko zuela esan zion, beti "ilargian" egoten zelako. Beste behin, elizako lokaletan zegoela, inspektorea etorri zitzaion. Umeak banku luzeetan eserita egoten ziren eta inspektoreak hori ez zela egokia esan zien. Umeetako baten ateraldia. Inspektoreek hasieretan akatsak besterik ez zituzten aurkitzen. Beraiek moldatu egin behar

1.887. Elgoibarko ikastolako bizipenak (EGB-129/051)

Guraso batzuek irakasle tituluduna noiz etorriko zen galdetzen zuten. Euskaraz irakasteko urtebetez prestatzen egon ostean, Nekane Iturbe etorri zen. Eskola publikoko irakasle batek abisatzen zien inspektorea noiz pasako zen. Nekane, haurdun zegoela, erori egin zen, inspektorearekin zihoala. Ikastola elizaren babespean zegoen eta on Beristain parrokoa zen arduraduna. Umeak 9 urtera arte bakarrik egon zitezkeen ikastolan eta gaztelaniaz ere prestatu behar izaten zituzten, handik beste eskola batera joateko.

1.888. Ikastolako ibilbidea andereño gisa (EGB-129/052)

Ikastolako bere ibilbidea. Hasierako urteetan Nekane Iturberri laguntzen ibili zen. Ume asko zituen, baina gogoan du horietako bat oso argia zela. Gero Txomin Urdanpilletari laguntzen ere ibili zen, atzera geratzen ziren umeekin. Gerora bere gela izan zuen, lehenengo mailan eta, zikloak hasi zirenean, lehenengo bi mailatan. Orduko gurasoak ausartak izan zirela dio.

1.889. Aitona Aiastia (San Migel) auzoko maisua izan zen (EGB-129/053)

Garai batean auzo-eskoletan ikasketa pixka bat zuen auzokoren batek ematen zituen eskolak. Itziarrek dio bere aitona, Migel Garate, Aiastia (San Migel) auzoko irakaslea izan zela. Herrena zen. Gerora zapatagilea izan zen, baina batzuek gogoratu egiten zuten garai batean maisua izan zela.

1.890. Amaren aldeko aitona-amonon jatorria; aitona zapataria (EGB-130/001)

Amaren aita Arnoate eta Mutriku bitarteko baserri batekoa zen. Amama, Manuela Ansola, inguru bertuko izango zela dio. Ama Deban jaioa zen, oso umetan Elgoibarrera etorri arren. Aitona zapataria zen. Aititari zapatak eroatera etortzen zitzaion baserriar batekin gertatutako anekdota.

1.891. Anaia gazteena tifusarekin hil zen (EGB-130/005)

Osaba apaiza zen Berrizko Andikoa auzoan. Umetan hara joaten ziren, uda pasatzera. Uda baten bi txikienak joan ziren, baina anaia etxera bidali zuen bueltan osabak. Bihurria zen. Garai hartan ibaiko ura zikina etortzen zen Bergarako mahoi fabrikengatik eta debekatuta zegoen bainatzea; baina Itziarren anaia igerian ibili zen eta hango ura edan zuen. Hori eta beste zenbait gertakari eta gero tifusarekin gaixotu zen. Tolosako mediku ezagun bat ekarri zuten, baina egun gutxiren buruan hil egin zen.

1.892. Baserriarrek gaztelania ikastearen inguruko kezka (EGB-131/002)

Gurasoak biak Aiastia (San Migel) auzokoak, ama Metalgua baserrikoa eta aita Belartondokoa. Etxean euskaraz egiten zuten beti. Garai hartan bazegoen kezka bat baserrikoek gaztelaniaz ez zutela ondo ikasiko eta ikastola sortu zenean ere baserriarren seme-alaba gutxi joan zen. Kaletarra izan arren, bera asko egoten zen izebaren baserrian, Errotatxon. Bazegoen baserriarrei burla egiteko joera.

1.893. Eskolan eta kalean dena gaztelaniaz (EGB-131/003)

Eskolan dena gaztelaniaz. Umetan eskola publikoan ibili zen. "Cara al sol" abesten zuten. Inspektorea. Berak ez zuen errepresiorik jaso euskaraz egiteagatik; aurrekoek bai. Gero Pilar ikastetxera joan zen eta handik Mekanikara, Eskola Profesionalera. Etxean eta baserrian euskaraz egiten zuten, baina kalean gaztelaniaz zen dena.

1.894. Gaztelaniaz egiteko ohitura; gaztelania ondo ikusia (EGB-131/006)

Lagun-taldean bazeuden elkarrekin euskaraz egiten zuten 3-4 lagun, baina gainontzekoekin gaztelaniaz beti. Jakiten zuten nor zen euskalduna, baina askorekin gaztelaniaz egiteko ohitura zegoen, euskaraz jakin arren. Gaztelaniaz hitz egitea ondo ikusita zegoen. Baserriarrek euskaraz egiten zuten, baina normalean ez zuten kuadrillarik izaten kalean, auzoan geratzen ziren.

1.895. Hika egiteko joera (EGB-131/007)

Hika egiteko ohitura du. Arrasatera ikastera joan zenean esan zioten hika egiten zuela; konturatzeke irteten zitzaion. 12-14 urtera arte denbora asko

pasatzen zuen Errotatxo baserrian eta ziurrenik osaba-izebek egingo zioten hika. Umetan ere izebarenean pasa zuen denbora asko, arreba bikiak gaixotasun bat izan zuelako.

1.896. 1970ean Danobaten hasi zen lanean; euskararen presentzia (EGB-131/010)

1970ean sartu zen Danobat lantegian. Hasieran ez zegoen euskararen aldeko ezer ofizialik, baina Felix Etxeberriak 1966-1967 inguruan egindako hiztegitxo txiki bat zegoen. Danobaten bazkide-sortzaileak euskaldunak ziren eta haiekin euskaraz egiten zuten dena, gazteagoek elkarrekin gaztelaniarako joera izan arren. Bulego-teknikora pasa zenean, han handiagoa zen gaztelaniarako joera.

1.897. Bulego-teknikora gogoz kontra (EGB-131/011)

"Maestría" ikasi zuen Arrasaten. Euskararen presentzia ez zen oso handia han. Bere ilusioa makinak muntatzera kanpora joatea zen eta bulego-teknikora joan behar zela lanera esan ziotenean, disgustua hartu zuen.

1.898. Danobat lantegiko ibilbidea (EGB-131/012)

Urte asko egin zituen Danobat lantegiko bulego-teknikoan lanean. Ez zitzaion gustatzen leku berean geldirik egotea eta Madrilera joan zen bi urterako. Emaztea ez zegoen gustura eta Elgoibarrera bueltatu ziren. Esperientzia ona izan zela dio, asko ikasi zuela. Itzuli zenean bulego-teknikoan jarraitu zuen lanean hasieran, baina gero produkziara pasa zen. Han ezagutu zuen Felix Etxeberria 1982-1983 inguruan. Harekin beti euskaraz egiten zuen, baina bestela gaztelania zen nagusi.

1.899. Danobat lantegiaren harremana Elgoibarko ikastolarekin (EGB-131/016)

Danobat lantegiak lur-sail batzuk erosi zituen lantegi berria egiteko asmoz, baina azkenean Arriagan erosi zituen beste lur-sail batzuk eta aurretik zituenak Elgoibarko ikastolari eman zizkion, eraikin berria egiteko. Anton Etxeberria Danobateko gerenteak diru-kontuak eramaten zituen eta ikastolako diru-kontuetan ere zeresan handia izan zuela dio. Felix Etxeberria. Aubixa aterpetxea prestatzen ere lagundu zuten Danobatekoek.

1.900. Danobateko kideak Aubixa baserriaren prestaketan laguntzen I (EGB-131/017)

Danobat lantegiko zenbait kide denbora luzez ibili ziren Aubixa baserria prestatzen, aterpetxe bihurtzeko. Gogoan du Amatiñoren Margola tindategira eramaten zituztela izara eta maindireak eta ez zituztela ordaintzen. Burdindegikoarekin, harrobikoarekin... gauza bera egiten zuten: materiala hartu eta, ikastolarentzako zela esanda, ordaindu ez. Ikastolak ez zuen dirurik. Jendeak borondate handia izan zuen ikastolari laguntzeko.

1.901. Danobateko kideak Aubixa baserriaren prestaketan laguntzen II (EGB-131/019)

Danobat lantegian bere nagusia zen Lazaro `Ziarda´rekin ibili zen Aubixa baserria udaleku bihurtzeko prestatzen. Zer lan egin zituzten. Literak Danobat lantegiko margolariak margotu zituen eta euskaraz tutik ere ez zekien. Jendeak oro har euskararen aldeko jarrera zuen.

1.902. 1999an aldaketa Danobaten euskara arloan (EGB-131/023)

Danobat lantegian aldaketa handiena 1999an eman zen, lehenengo euskarataldea sortu zenean. Emun kooperatibako Deñe Zabalo hasi zen euskara arloan lanean. Bera lantalde horretan zegoen eta borondatea ikusten zuen, baina kontseilu-errektoreak hartu behar zuela ardura defendatzen zuen, handik gutxira bera izendatuko zutela kontseiluko buru jakin barik. 2001ean lehendakari izendatu zuten. Hasieran hartu zituen neurriak. Pixkanaka dokumentu guztiak bi hizkuntzatan jartzen hasi ziren. Asko kostatzen zen, goikoek kezka handiak zituztelako. Ingelesak euskarak baino garrantzia handiagoa zuen.

1.903. Danobat lantegiaren euskalduntzea (EGB-131/025)

Danobat lantegia euskalduntzeko prozesua. Diru asko jarri behar izan zen euskaraz lan egiteko oinarria jartzeko. Informatikarien buruak ez zekien euskaraz eta hori arazo bat izan zen sistema informatikoa euskaratzeko orduan, baina pixkanaka egin zen prozesua. Hasieran euskara hutsean zeuden dokumentu bakarrak kalitateko orriak eta nomina izan ziren. Gogoan du bi bazkide kexatzera etorri zitzaizkiola, oinarrizko eskubideak urratzen zirela eta. Goiko mailan egon zirela arazo handienak dio.

1.904. Kanpora begira, Danobat Euskal Herrian kokatzearen garrantzia (EGB-131/028)

Danobat taldeak, ferietara joaten zenean, ez zuen euskararik erabiltzen. Esportazio handia izan du Danobatek eta ingelesa erabili izan dute. "Danobat group" izenaren inguruko kontuak; berak "Danobat taldea" nahi zuen, besterik ez bada barrura begira. Berarentzat garrantzitsua zen kanpora joandakoan Danobat Euskal Herrian kokatzea eta euskararen berri ere ematea. Pixkanaka hori ere lortu zen.

1.905. Indian euskaraz egin zuenekoa (EGB-131/030)

Danobat taldeko kideak Indiarra joan ziren batean euskaraz hitz egin zuen. Inaugurazio hartan gaztelaniaz ez zuen inork egin eta, berak euskaraz hitz egin zuenez, Espainiako delegatua kargu hartzera etorri zitzaion. Bere arrazoiak azaldu zitzaizkion eta ez zuen hain gaizki hartu.

1.906. Euskararen inguruko gogoeta (EGB-131/032)

Euskararen bidea luzea da eta ez da egun batetik besterako kontua. Ikastolaren zeregina inportantea. Ikastolan gaztelania asko entzuten du gaur egun, garai baten baino gehiago. Bakoitzak bere mailan eutsi behar dio euskarari. Jon Sarasuari esan izan diona euskararen inguruan.

1.907. Extremaduratik etorritako euskaldun berri baten kasua (EGB-131/034)

Osabaren lantegian ezagutu zuen gizon batekin harrিতa geratu zen Extremaduratik etorria zela jakin zuenean, euskaraz ondo egiten zuelako. Itxuraz, barku batera lanera joan zenean ikasi zuen euskara: patrioiak esan zion lehenengo egunean bakarrik entzungo zuela gaztelania.

1.908. Maisuaren zigorra, kalean euskaraz eginez gero (EGB-132/002)

Etxean inork ez zuen gaztelaniaz hitz egiten. Kalean ere euskaraz egiten zuten. Baina maisuak hori jakiten bazuen, gero eskolan zigortu egiten zituen. Lurrean belauniko jartzen zituen, eskuak zabaldua, eta liburuak jartzen zizkien gainean. Jo ere egiten zuen maisuak, baina bera ez omen zuen inoiz ukitu. `Cara al sol` abestu behar izaten zuten eskolara sartzean eta irtetean. Eskola publikoan ibili zen, fraideetara joateko ordaindu egin behar zen eta.

1.909. Gaztelaniaren gorakada industriaren eraginez (EGB-132/004)

Bera umea zenean, jendeak euskaraz egiten zuen kalean. Gero Sigma eta San Pedro lantegietara kanpoko jende asko etorri zen eta gaztelania nagusitzen joan zen. Eskolan ere gaztelaniaz egin behar izaten zen. Eibarren geroago ere artean euskaraz egiten zela dio.

1.910. Umetako denbora Plaza Txikian (EGB-132/005)

Plaza txikian pasatzen zuten denbora umetan. Maala aldeko umeak era hara joaten ziren jolasera. Eskolako jolas-orduan batzuetan etxera joaten ziren korrika, lapikoan ogia busti eta berriz jolasera itzultzeko. Esnea egosten zenean, haren esne-gaina jatera joaten ziren etxera.

1.911. Neskak eta mutilak aparte (EGB-132/006)

Eskolan neskak eta mutilak banatuta egoten ziren. Garai hartan neskekin ibiltzea ia bekatua zela dio. Madariaga auzoan Azkoitia eta Elgoibarren arteko muga zegoen. Elgoibar aldean dantza lotua ere egiten zen, baina Azkoitia aldean soltekoa bakarrik, lotua debekatuta zegoen eta.

1.912. Aitak egunkarietan idazten zuen; gerra sasoiari ihesi (EGB-132/008)

Etxean ez zuen ezagutu euskarazko aldizkaririk, gerraostean debekatuta zeuden eta. Aitak hiru egunkaritan idazten zuen, herriko kontuen berri emateko. Gerra sasoiari ihes egiteko abisatu zioten eta Deustura alde egin zuen. Ama zortzi seme-alabarekin bakarrik geratu zen. Ordurako anaia nagusia "pintxe" moduan lanean hasita zegoen.

1.913. On Jose Maria Agirrebaltzategi abade abertzalea (EGB-132/010)

Bi jaunartze egiten ziren, lehena zazpi urterekin eta bigarrena hamaikarekin. On Jose Maria Agirrebaltzategi abade oñatiarra abertzalea zen eta euskal-dantza bultzatu zuen. 11 urterekin jada beste herrietara joaten ziren dantzara; behin Gipuzkoa osoko dantzariak Oñatin elkartu ziren. On Jose Maria saltsa guztietan sartzen zen eta umeekin aritzen zen futboleko edo pilotan, sotana eta guzti. Haren arreba bati ilea moztu zioten eta, ondoren, fusilatu, abertzalea izateagatik.

1.914. Euskal dantza gerra ostean, on Jose Maria Agirrebaltzategiri esker (EGB-132/012)

On Jose Maria Agirrebaltzategi abade abertzaleak bultzatu zuen euskal-dantza gerraostean. Aurretik dantzan zebiltzanak jartzen zituen irakasle lanetan. Txistularia "Acción católica"koa. Hasieran probalekuan egiten zituzten

entseguak, baina, euria zenean, sakristian. Geroago fraideen eskolan egiten zituzten entseguak domeketan. Fraide gehienak frankistak ziren, baina Ondarroako fraide batek laguntzen zien. Jaunartzea egin zuten mutilak sartzen ziren dantza-taldean. Gerora bera ere irakasle lanean ibili zen eta geroago nesken taldeak ere hasi ziren.

1.915. 11 urterekin jendaurrean dantzan (EGB-132/016)

11 urte zituela, 1943an, jada jendaurrean dantza egin zuten. Zer dantza egiten zituzten. Euskaraz egiten zuten. Nahi zuenak parte har zezakeen, baina gehienak euskaldunak izaten ziren. Bigarren taldean bazeuden euskaraz ez zekiten bi lagun, horietako bat guardia zibilen semea.

1.916. San Bartolome jaietako aureskua eta dantza-solte txapelketa (EGB-132/018)

Umetan dantza-taldearen entseguak sakristian egiten zituzten. Gero auzo guztietako jaietan egiten zuten aureskua. San Bartolomeetan neska-mutilak hasi ziren dantzan gerora. Dantza-solte txapelketa ere egiten zen, baina beraiek ez zuten dantza solterik egiten. Baltasar Pilotazale Elkarteak soka-dantzaren ardura izan zuen sasoiari, Ansola txistulariek esan zieten dantza soltean ez zutela ondo egiten. Gogoan du kide guztiei irakatsi zela aureskua eta denek egin zutela (ez aureskuak eta atzeskuak bakarrik, ordura arte moduan). Gelatxo soinu-jotzailea. Dantza-soltean irakasle lanean Pako Juaristi eta Miren Vallejo. Txistulariak: Ansola anaiak, Julian Iriondo.

1.917. Txistulariak: Julian Iriondo, Egino... (EGB-132/020)

Bera dantzan ibili zen sasoiari Julian Iriondo izaten zen txistularia. Ongarri elkarteak sortu zenean, Egino zen txistularia eta egunero joaten zen entseguetara. Baina gerora lantegian aparteko orduak sartu behar zituela eta ezin. Beste askori ere horixe gertatzen zitzaien eta asko aldatzen ziren txistulariak. Berak utzi zuenean, gramofono antzeko batekin entseatzen zuten.

1.918. Baltasar Pilotazale Elkarteak sortu zuten (EGB-132/022)

Baltasar Pilotazale Elkarteak. Garai batean asto-lekua zen eta gero lantegia jarri zuten. Lantegia itxi zenean, elkarrekin txikiteoan ibiltzen ziren lagun batzuek han elkarteak jartzea pentsatu zuten. Beraiek egin zuten obra guztia. Pilota txapelketa antolatzen zuten. Jaietan dantza-soka elkartetik irtetzen zen.

1.919. Denak onartzen zituzten dantza-taldean (EGB-132/029)

Hasieran hamabi mutil ziren dantza taldean. Zortzi behar izaten zirenez, txandaka aritzen ziren. Gerora jendea gehitzen joan zen eta 16 neska eta 16 mutil izaten ziren. Denak onartzen zituzten taldean. Berak irakasteari utzi zionean, Luis Gurrutxagak hartu zuen ardura. Beste irakasle batzuk ere aritu ziren.

1.920. Gero eta gaztelania gehiago (EGB-132/031)

Dantza-taldean dena euskaraz egiten zuten. Euskaraz ez zekien bakarren bat bazegoen eta hari gaztelaniaz egingo zioten, baina beste guztiak euskaraz. Gerora, hizkuntza-ohitura aldatzen eta gaztelania nagusitzen joan zen. Industriak izan zuen eragin handia. Jende asko etorri zen San Pedro fabrikara lanera. Kanpotik etorritakoekin ere euskaraz egin balitz, ikasi egingo zuten, baina euskaldunen hizkuntza-ohiturak aldatu ziren.

1.921. Euskarari eustea zaila (EGB-132/033)

Gaur egun umeez gaztelaniaz egiten dute asko, euskaraz jakin arren. Badaude euskaraz ikasi duten erdaldunak ere. Norbere hizkuntzari eutsi egin behar zaiola dio. Baina bere ondorengoek eskola gaztelaniaz jaso zuten eta horrela zaila da euskarari eustea. Ikastola sortu ez balitz, euskara galdu egingo litzatekeela dio.

1.922. Euskarazko antzerkiak (EGB-132/035)

Euskarazko antzerkiak. Pako Juaristi eta Miren Vallejo. Itziar Ajuriak paper komikoak egiten zituen. Jose Zubiaurre `Balle´k ere bai. Gainera, batzuetan, inprobisatu egiten zuen eta aho zabalik uzten zituen denak. Zine zaharrear egiten ziren antzerkiak, Errosario kalean. Beteta egoten zen. Beraiek ez zuten dirurik izaten ikustera joateko.

1.923. Kanturako zaletasuna; eibartarrekin lehia futbolean (EGB-132/037)

Garai batean txikiteoan ibiltzen ziren kuadrillek abestu egiten zuten. Eibartarrak zirikatzeke abesten zuten kanta. Eibar herri handiagoa izan da beti eta futbol-taldera kanpoko jokalaria ekartzen zituzten. Hala ere, ezin Elgoibarri irabazi. Partidua zegoenean, eibartar asko etortzen zen. Tren-geltokian zan egoten ziren kuadrillak, borrokan egiteko. Musika Bandak jotzen zuen udaletxeke arkupeetan eta denak dantzara joaten ziren gero. Beste herri batzuetara kamioian joaten ziren, banku luzeak jarrita. Ondarrutarrak eta mutrikuarrak ziren kantuan onenak.

1.924. Futbolearen aritua; partida osteko garbitasuna (EGB-132/038)

Futbol partida jokatu ostean non garbitzen ziren: batzuk Lerungo errekan, beste batzuk Leruntxiki baserriko askan eta beste batzuk San Pedro lantegirako ur-kanalean. Ume-umetatik jokatu zuen futbolearen. Lehenbizi Elgoibar-txiki taldean. San Pedro lantegiko nagusiak dutxak jarri zizkien, baina trukean taldeari Fleje izena jartzeko eskatu zuen. Talde hartan ere jokatu zuen eta, ondoren, Elgoibar taldean.

1.925. Garai bateko futboleko botak eta baloiak (EGB-132/039)

Beste batzuek lagatako botekin ibiltzen ziren futbolearen eta ez ziren neurrikoak izaten. Takoak beraiek egiten zituzten. Baloiak astunak izaten ziren, uhal eta guztikoak. Gaur egun asko aldatu dira gauzak. Gipuzkoako selekzioarekin ere aritu zen eta astean bi aldiz Atotxara joaten zen entrenatzera. Hango baloiak jada arinagoak ziren. Hango zelaia handiagoa izan arren, baloiak bigarren posteraino ateratzen zituen korerretik (eta Elgoibarren lehenengora ere ezin atera).

1.926. Lantegian baimena eskatu behar futboleko entrenamendura joateko (EGB-132/040)

Futboleko entrenamendua astean behin izaten zen, eguenetan. Lantegian baimena eskatu behar hara joateko. Batzuek ez zuten baimenik ematen eta Kirol Elkarteak lantegietako nagusiekin bildu zen arazoa konpontzeko. Berandura arte lan egiten zuten eta aparteko orduak sartzeko zain egoten ziren, gainera, diru pixka bat gehiago irabaztearren. Larunbatetan ere lan egiten zen.

1.927. Zinemara joateko dirua lortzeko, txatartegitik lapurretan (EGB-132/041)

Elgoibarren fundizio asko zegoen eta txatartegiak ere bazeuden. Bat San Roke aldean zegoen eta beste bat Geltoki inguruan. Domeketan itxita egoten ziren eta txatarrak lapurtzera joaten ziren. Batetik hartutakoa besteari saltzen zioten. Errealak behar izaten zen zinemara joateko, eta huraxe lortzearren egiten zuten. Gozokiak ere egoten ziren. Errealarekin karamelu paketea.

1.928. Pilotaren bila errekan behera; beraiek egindako baloiak (EGB-132/042)

Gaur egun umeei pilota errekaraz erortzen bazaie, ez dira bila joaten. Beraiek fabrikako zubiraino joaten ziren. Melitongo zubian zegoen zentrolean gelditzen ziren gehienak. Pilota berreskuratu eta berriz jokatzen! Beraiek egiten zituzten pilotak eta baloiak ere bai, paperarekin eta sokarekin. Alanbrearekin eginez gero, gogorrago geratzen zen. Amari trapuak lapurtzen zizkieten. Orduan ez zegoen aberats asko.

1.929. Bizikleten alokairua; bizkiletan ikasten (EGB-132/043)

Bizikleten alokairua zegoen. Geltokiko aldapan behera jaisten ziren. Ikasi artean nolako kolpeak hartzen zituzten. Behin mutil batek konortea galdu zuen, kolpe handi bat hartuta. Arrillaga klinikara eraman zuten. Ez zioten inori kobratzen.

1.930. Mutikoak presara, igerian ikastera (EGB-132/045)

Errekan ibiltzen ziren jolasean. Mutil guztiak Goikoerrotako presara joaten ziren igerian ikastera. Narro-hutsik ibiltzen ziren. Orduan gutxi izaten zuten barruko arroparik. Neskarik ez zen joaten.

1.931. Errekan arrantzan (EGB-132/046)

Arrainak harrapatzen ere ibiltzen ziren errekan, eskuz. Loinak, barboak... Gogoan du batzuek plazako zubitik salto egin eta arrainak ateratzen zituztela. Arrain asko egoten zen. Lagun batek uholdeak zirenean ezkailuak harrapatzen zituen sarearekin. Lantegien eraginez gutxitu ziren arrainak.

1.932. Dantzarien arropak eta materiala (EGB-132/048)

Dantzan ibili zenean, etxekeok jarri behar izaten zituzten arropak. Ezpatak eta makilak Maalan lantegia zuen Itturri´k jartzen eta gordetzen zituen, on Jose Maria Agirrebaltzategirekin harremana zuen eta. Bizimodua asko aldatu da.

1.933. Elgoibarko abadeak (EGB-132/051)

Garai batean abade asko egoten ziren. Euskaltzaleak ere izan ziren, baina aurrekoak "beste aldekoak" zirela dio. Parrokoak on Jose Maria Agirrebaltzategiren esku uzten zuen dena.

1.934. Ama 14 urterekin Mutrikutik Elgoibarrera (EGB-133/002)

Aita Azkue (San Roke) auzoko Agarre baserrikoa zen; ama, berriz, Mutrikuko Abeletxe baserrikoa. Amaren ahizpak taberna zuen Elgoibarren eta harengana etorri zen ama 14 urterekin. Bera ere mutikotan asko joaten zen baserrira, lan egin eta tripa betetze aldera. Abeletxe baserrian jaio zen, ama hara joanda zegoelako gerra sasoiari.

1.935. Eskolan Maalako mojekin eta Pilar ikastetxeko fraideekin (EGB-133/004)

Karitateko mojek Maalan zuten eskolan ibili zen lehenbizi eta gero Pilar ikastetxean, San Viatorreko fraideekin. `Cara al sol´ eta beste hainbat kanta abestu behar izaten zituzten. Bere sasoiari moja eta fraide guztiak kanpokoak ziren.

1.936. Eskolan gaztelaniaz; kanpotik lanera etorritakoak (EGB-133/005)

Eskolan ez zuten euskararik egiten, horrela ohitu zirelako. Euskaraz ez zekien jende asko zegoen, gainera. Ordurako kanpoko jende asko zegoen Elgoibarren, Sigma eta San Pedro lantegietarako etorrita. Emakume askok lan egiten zuten Sigman. Beraiek baino euskara gehiago egiten zutenak ere bazirela dio. Beste batzuek, berriz, etxean ere ez zuten euskaraz egiten. Bere gurasoek ez zekiten ondo gaztelaniaz; eskolara gutxi joan ziren.

1.937. Azkoitia inguruan euskara gehiago I (EGB-133/007)

Kalean gaztelaniaz egiten zuten asko gaztetan. Gaur egun ere Azkoitia-Azpeitia inguruko ume edo gazteak euskaraz entzuten ditu, baina elgoibartarrak gaztelaniaz.

1.938. Azkoitia inguruan euskara gehiago II (EGB-133/009)

Garai batean etxeetan beharbada euskaraz hitz egiteko beldurra egongo zela dio. Azkoitiarrek euskaraz egiten zuten, baina Elgoibarren gaztelaniaz egiten zen asko.

1.939. Bertsolariak auzoetako festetan (EGB-133/011)

Bertsolariak auzoetako festetan egoten ziren. Herriko talde bat Bilboko Arriaga antzokira joan zen obra bat antzeztera. Gogoan du ekitaldi hartan bost bertsolarik ere hartu zutela parte: Lasarte, Azpillaga, Enbeita...

1.940. Angel Iriondo kantu lehiaketara Hernanira (EGB-133/015)

Euskal kanta ikasi egiten zituzten. Familiaren interesaren arabera. Angel Iriondo `Angelo´ zen abeslari ezagunenetakoa herrian. Bereziartua organo-jotzailearekin entseatzen zuen. "La voz de España"ren lehiaketan parte hartu zuen. Egunkari banatzailearekin joan zen Hernanira.

1.941. Beste herri batzuetatik lanera etorritako jendea (EGB-133/016)

Elgoibarrera kanpoko jende asko etorri zen San Pedro eta Sigma lantegiek egindako etxeetara. Gerra aurrean Araba aldetik etorri zen jendea San Pedro lantegira. Patxiren lagun baten gurasoak ere Ilarduia ingurutik etorriak ziren. Familia euskalduna zen eta Elgoibarrera etorritako senideek euskaraz egiten zuten, baina Araban geratu zirenek galdu egin zuten euskara.

1.942. Meza-laguntzaile zebilela hasi zen antzerkiak egiten (EGB-133/018)

Gaztetxotan meza-laguntzaile ibili zen. Bi motatako laguntzaileak egoten ziren: borondatez joaten zirenak eta derrigortutakoak. Derrigortuta joaten zirenek kolegioa doan izaten zuten. Beraiek borondatez ibili ziren. Han zebiltzala, Ezenarro familiakoek gaztelaniazko antzerkiak egiten jarri zituzten. Geroago, antzerkia egiten aritzen ziren nagusiagoek (Pako Juaristi, Jose Zubiaurre...) euren antzezlanetan sartu zituzten.

1.943. Jaimen Font Andreu obispoari arkuia egin zioten (EGB-133/020)

Bera ez da dantzaria izan, baina gogoan du behin dantzari moduan praka zuriekin jantzi eta arkuia egin ziotela ezpatekin Jaime Font Andreu Gipuzkoako lehen obispoari.

1.944. 12-13 urterekin Maalan antzeztu zuen (EGB-133/021)

Umetatik hasi zen antzerkian. Gogoan du 12-13 urterekin jada Maalan parte hartu zuela nagusien antzezlan batean paper motz batekin. Antzezlan horretako Jose Zubiaurreren inguruko anekdota. Antzerki taldean ibiltzen ziren zenbait kide: Manolo Rementeria, Iriondo, Tomas Garcia...

1.945. Deba ibaian txanelean kantari (EGB-133/023)

Garai batean kanturako zaletasun handia zegoen. Kuadrillek kalean abesten zuten. Angel Iriondoren aitak txanela zuen ibaian arrantzan aritzeko. Arrainak saldu ere egiten zituen Eibarrera. Gogoan du txanelean zebiltzala ere kantuan aritzen zirela. Euskarazko kantez gain, mexikarrak abesteko joera egon da. Eibartarrei futbol partidetan abesten zieten kanta.

1.946. Eibarren futbol partidak Lerunen (EGB-133/024)

Garai batean Eibarren futbol zelairik gabe egon ziren eta Elgoibarrera joaten ziren jokatzera. Lerunera joan aurretik Iruretaneko tabernan hartzen zuten kafea. Jokalarien arropak otarretan eramaten zituzten. Lerungo lehenengo "aldagelak" Lerun baserrian zeuden. Jokalariak hara edo Leruntxiki baserriko askara joaten ziren garbitzera. Leruntxikikoek San Pedro lantegiko bagoiak mugitzen zituzten idiekin. Bagoiak eramateko, errailak zituen zubiak.

1.947. Eibarren eta Elgoibarren arteko "pikera" futboleko (EGB-133/026)

Ipuruia futbol zelaia inauguratu zenean, Elgoibarrek jokatu zuen han eta irabazi. Eulogio Etxeberria (Joseba Etxeberriaren aitona) izan zan gola sartu zuenetako bat. Pedro Gabilondoren iruzkina Eibarri irabazitakoan ematen zieten hobariaren inguruan.

1.948. Herren joan zen soldadutzara (EGB-133/028)

Soldadutza luzea egitea tokatu zitzaion. Gainera, herren joan zen, lantegian istripu bat izanda. Garai hartan guztiz sano ez zeudenei, soldadutzara joateko ordua atzeratu egiten zieten. Elgoibarko enpresari batek lagundu zion teniente korolenarengana. Gainera, kasualitatez, harremana zuten lan-mundutik. Soldadutzan gero lantegian lanean jardun zuen eta "entxfatua" zela esaten zioten.

1.949. `Aitona eta biloba´, euskarazko lehen antzezlan (EGB-133/031)

`Aitona eta biloba´ izan zen euskaraz antzeztu zuten lehen obra, 1959an. Antzezleak: Maria Angeles Kortabitarte, Itziar Ajuria, Kontxita Armendia, Marisol Gurrutxaga, Angel Iriondo, Ion Arrieta... "Apuntadorea" Manolo Rementeria.

1.950. Euskara bultzatzeko ekitaldietara `Ixkiña Mutriku´ monologoarekin (EGB-133/033)

Leku askotan antzeztu zuten `Aitona eta biloba´ antzezlan. Berak monologoak egin izan zituen euskaraz. Esaterako, leku askotan egin zuen `Ixkiña Mutriku´ monologoa : Bermeon, Soraluzen, Urretxun... Euskarazko ekitaldiak antolatzen ziren herrietan musika, dantza, antzerkia eta bestelakoak nahastuta. Ekitaldi horien barruan sartzen ziren euren antzezlan eta monologoak, laburrak izaten ziren eta.

1.951. Andazarrateko tuberkulosoen ospitalera, `La plasmatoria´ antzeztera (EGB-133/035)

Gaztelaniaz egiten zituzten antzezlanak luzeak izaten ziren, ekitaldi oso bat betetzeko modukoak. Gogoan du behin Andazarrateko tuberkulosoen ospitalera joan zirela `La plasmatoria´ obra antzeztera. Bera eta Jose Zubiaurre kutsatzeko beldurrez ibili ziren. Elgoibartar batzuk ere bazeuden ospitalean.

1.952. Andra Mari dantza taldeak antolatutako ekitaldietara (EGB-133/036)

Berak gehien egin zuen monologoa `Ixkiñ Mutriku´; izan zen. `Aitona eta biloba´; antzezlan Eibarren antzeztu zuten lehen aldian oso jende gutxi egon zen eta denbora batera berriz antzeztu zuten. Hango ekitaldian Andra Mari dantza taldekoek parte hartu zuten. Talde horretakoek antolatutako ekitaldietan parte hartu zuen gero berak `Ixkiñ Mutriku´; monologoarekin Bermeon eta Berrizen.

1.953. Antzezlanak lehenengo Elgoibarren (EGB-133/038)

Prestatzen zituzten antzezlanak lehenengo herrian bertan taularatzen zituzten. Hasieran "Accion Católica"ren elizako lokaletan. Igande arratsaldeetan bi saio ere egiten zituzten batzuetan, lokala txikia zelako. Geroago Maalan egiten zituzten antzezlanak, eskolan lekua eginda, Odeon antzokia sortu zen arte. Zinema zaharrean ere egingo zirela antzerkiak dio, baina berak ez zuen parte hartu.

1.954. Arrasatera antzeztera; antzerki taldekoak Donostian (EGB-133/040)

Fraideek deituta, 1959ko Santo Tomas bezperan Arrasatera joan ziren `Aitona eta biloba´ obra antzeztera. Santo Tomas egunean, berriz, taldeko kideak Donostiara joan ziren eguna pasatzera; antzezlan bat ikusi eta Amaiak-bat elkartean jan zuten. Emakumeek debekatuta zuten han sartzea, baina utzi egin zieten. Pepe Yanci egon zen soinua jotzen eta taldeko Maria Angeles Kortabitarte eta Angel Iriondo kantuan aritu ziren.

1.955. Monologoetan Jose Zubiaurre eta biak (EGB-133/044)

Pako Juaristik ematen zizkion monologoak berari eta harekin entseatzen zuen. Bera baino lehenagotik Jose Zubiaurre `Balle´k egiten zituen monologoak. Komikoa zen. Askotan gidoitik atera egiten zen eta "apuntadorea" nondik nora zebilen jarraitu ezinda ibiltzen zen.

1.956. Antzezlan batean gertatutako pasadizoa (EGB-133/045)

Antzerkiko anekdotak. Behin `Los cinco robinsones´ antzezlanean aktoreetako bat pixka bat edanda zegoen eta ezin zuen ondo ahoskatu. Jose Zubiaurre ´Balle´k inprobisatzeko gaitasun handia zuen eta disimuluan kanpora atera zuen taldekidea.

1.957. Ezkondu ostean ere antzezte lanetan (EGB-133/050)

33 urterekin ezkondu zen eta ezkondu ostean ere jarraitu zuen antzezten. 1973an, Urruzunoren omenez, esketx batzuk antzeztu zituzten: `Iru-ziri´. Hogei urte geroago berriz errepikatu zuten emanaldi hura Elgoibarko Izarrak antolatuta.

1.958. Ez zuen dirurik jasotzen monologoengatik (EGB-133/052)

Jose Zubiaurre eta biak ibiltzen ziren monologoak egiten. Dekorazioak Dimas Gilek prestatzen zizkien. Berak ez zuen dirurik kobratzen monologoak egitearren; euskara bultzatzearren izaten zen. Taldeak beste herrietara joaten zirenean zerbait kobratuko zuela uste du. Bilboko Arriagako ekitaldia Alfontso Irigoienek antolatu zuen.

1.959. Mutrikura monologoa egitera joan zenekoa (EGB-133/055)

Gogoan du behin Mutrikura joan zela monologoa egitera eta bertsolariak ere bazirela. Berak Itziar Aizpuruera eramatea proposatu zien, baina berarekin eta bertsolariarekin nahikoa zutela esan zioten.

1.960. Mendira joateko ere baimena behar (EGB-133/057)

Gauza guztietarako baimena behar izaten zen, baita mendira joateko ere. Zapatetan antzematen zuten nor zen guardia zibila. Ibilaldi batera Balmaseda ingurura joan zireneko kontuak. Euskarazko antzerkietan ez zuten inoiz arazorik izan.

1.961. Mendia eta euskaltzaletasuna (EGB-133/058)

Mendi-ibilaldietan izandako arazoak. Esaterako, Andoni Arrizabalaga beraiekin ibili zenean eta guardi zibilak haren bila. Urbiatik jaitsi eta alboko mendira igo ziren ikurrina handi batekin. Euskal Herri osoko mendizaleak zeuden eta beraiek ere atzetik joan ziren. Behera jaitsitakoan, guardi zibilak zituzten zain. Mendia euskaltzaletasunarekin lotu izan da; gutxi zekitenek ere euskaraz egiten zuten han.

1.962. Mendian abesteko ohituraren inguruko anekdota bitxia (EGB-133/060)

Mendian abestu ere egiten zen euskaraz. Atxilotuta egon zen batek kontatu zien komisaldegian erakutsi zizkioten argazkietan Angel Iriondo eta biak agertzen zirela Urbian kantuan, elkarri lepotik helduta.

1.963. Mendia eta euskara; mendian abesten (EGB-133/062)

Mendian abesteko zaletasuna egon izan da. Gogoan du behin Gorizen borobilean eseri eta abesten jardun zutela. Beste behin Curavacas jaisten ere bai. Mendia garrantzitsua izan da euskararentzat. Kalean errazegi jo izan dela gaztelaniara dio. Mendian nagusiagoekin ibiltzen zen askotan eta haiekin beti euskaraz. Oporrak hartu eta Urbiara joaten ziren astebeterako.

1.964. Monte Perdida Felix Etxeberriarekin (EGB-133/063)

Felix Etxeberria `Parapan´ekin Monte Perdida joan zeneko kontuak. Neska batek min hartu zuen eta guardak hari laguntzeko eskatu zien. Azkenean helikopteroan eraman zuten.

1.965. Santa Ageda eskean (EGB-133/065)

Urtero-urtero irteten zen Santa Ageda eskean, kalean ibiltzen zen taldearekin. Talde handia irteten zen. Gizonezkoak bakarrik izaten ziren orduan. `Etxegiña´ren koplak eta salbea.

1.966. Garai bateko Maala: haur-eskola eta hospizioa (EGB-134/002)

Maalako haur-eskolan ibili zen umetan. Ondoan mojek kudeatzen zuten hospizioa zegoen eta belaunaldi ezberdinetako jendea egoten zen bertan: behartsuak, ume-zurtzak... Mojei begirunea izan die txikitatik.

1.967. Maalako mojen oroitzapen ona (EGB-134/004)

Maalako mojen haur-eskolan ibili zen. Berarekin beti ondo portatu izan ziren mojak eta haiek oroitzapen onak ditu. Eliza botere handiko erakundea izan da beti, baina berak mojak bereizi egiten ditu.

1.968. Gurasoek euskaraz egin arren, beraiek gaztelaniaz (EGB-134/005)

Aita bizkaitarra zuen eta ama Elgoibarko baserri batekoa. 11 anai-arreba ziren eta, baserrian jaio arren, kalera jaitsi ziren gero. Gurasoak euskaldunak ziren arren, beraiek gaztelaniaz egiten zuten umetatik, kaleko giroa oso erdalduna zelako.

1.969. Fraide batek euskara klaseak ematen zituen Pilar ikastetxean (EGB-134/006)

Pilar ikastetxean ikasi zuen eta dena gaztelaniaz ikasten zuten. Azkenengo kurtsoan Jose Luis izeneko fraide batek ordubeteko euskara klaseak ematen zituen. Borondatezkoa izaten zen klase horretara joatea eta bera ez zen joaten. Arrazoiak azaltzen ditu. Jose Luis fraidearen izaera.

1.970. `Txusko´ mekanikariarekin lanean; euskara ez jakitearen gabezia (EGB-134/008)

Euskara galdu egin zuen. 14 urterekin lanean hasi zen eta lana ikasketekin tartekatzen zuen. Automozioa ikasi zuen Eskola profesionalan eta motoak eta bizikletak saldu eta konpontzen zituen `Txusko´ mekanikariarekin hasi zen lanean. `Txusko´ euskaldun petoa zen eta hika egiten zuen. Hark baserritarrekin izaten zituen euskarazko elkarrizketak entzun eta gabezia bat sentitzen zuen.

1.971. Eskola profesionaleko baserritarrei begirunea (EGB-134/009)

Pilar ikastetxetik Eskola Profesionalera joan zen, Automozioa ikastera. Ikasketak gaztelaniaz ziren eta gehienek gaztelaniaz egiten zuten, baina baziren euskaraz egiten zutenak ere, batez ere baserrietakoak. Berak begirunea zien.

1.972. AEKra, euskara ikastera (EGB-134/010)

Bere ikasketen ibilbidea azaltzen duenean, AEKn euskara ikasten ibili zela aipatzea gustatzen zaio. Zenbait urtez Elgoibarren ibili zen euskara ikasten eta gero Eibarrera joan zen, bost orduko ikastaro trinkoa egitera.

1.973. Elgoibarko Gaztetxearekin lehen harremana: okupazioa (EGB-134/011)

Bera ez zen inongo mugimendu alternatiboko kide, baina lehenengo egunetik sartu zen Gaztetxean. Aurretik bilera batzuk egin ziren arren, berak ez zuen parte hartu. Gaztetxea egiteko Maalako haurtzaindegia okupatu zutenean, han egon zen. Gazte Asanblada "librea" zela ikusi zuen, ohiko patroietatik kanpokoa. Gaztetxea eskola soziala izan zen berarentzat.

1.974. Maalako giroa Gaztetxea egon zen sasoiari (EGB-134/013)

1986an okupatu zuten Maalako haurtzaindegia, Gaztetxea egiteko. Sei urtez egon ziren han. Herritarrek zer ikuspegi izango ote zuten Gaztetxeaz. Askok ez zuten Maalara jaisteko joerarik, hango giroagatik; orduko giroa nahasia zen: drogak, lapurretak... Gaztetxearen inguruan lantegi asko zeuden eta langile-giroa ere bazegoen.

1.975. Gaztetxeak ospe txarra hasieran (EGB-134/014)

Gaztetzekoen aldarrikapenak uztartu zitezkeen langile-mugimenduarekin, baina Gaztetxea ez zegoen ondo ikusita hasieran. Gaztetxean zebilen jendea bazterrekotzat jotzen zen. Hausnarketa sakonak egin zituzten eta, kostatu arren, ikuspegi horri buelta ematea lortu zuten.

1.976. Gaztetxeko lehen kontzertua; horma bota zutenekoa (EGB-134/015)

Gaztetxea okupatu ostean, gauzak egiteko prest zeudela erakutsi beharra zuten. Delirium Tremens izan zen ekarri zuten lehen taldea. Gaztetxeak horma bat zuen erdian eta, horren erruz, ez zen jende asko kabitzen. Udaleko aparejadoreari eskatu zioten eraikina ikuskatzeko eta agiri bat egiteko, horma hura eraikinarentzat ez zela funtsezkoa adieraziz, eta erdiko horma bota egin zuten. Obra guztiak beraiek egiten zituzten.

1.977. Gaztetxeoak udaletxera; euskaraz aritu zen lehen aldia (EGB-134/016)

Udaletxera joan ziren, Gaztetxerako mahaiak eta aulkiak eskatzera. Euskararekin izan zuen lehen frogia izan zen: euskaraz eztabaidatzea kostatzen zitzaion arren, euskaraz egin zuen. Manolo Rementeriak euskaraz jarraitzeko esan zion. Handik aurrera hasi zen dena euskaraz egiten.

1.978. Euskara Gaztetxean; AEK-ren inkesta (EGB-134/017)

Gaztetxean jendea berritzen joaten zen: batzuk joan, besteak etorri. Aste barruko bilerak gaztelaniaz izaten ziren. AEKren ekimenez, inkesta bat egin zuten bileretako batean eta konturatu ziren erdiek euskara menderatzen zutela. Gaztetxearen sorreran ez zen euskararen inguruko erabakirik hartu, bakoitzak nahi zuen moduan egiten zuten.

1.979. Euskara gehiago Gaztetxean, elkarteen harremanari esker (EGB-134/018)

Euskarari bultzada emateko, garrantzitsua izan zen Intsumisoen presentzia Gaztetxean, haietako asko euskaldunak zirelako. Zazpiki irratiarekin harremana ere bai, euskararen presentzia nabariagoa zelako Zazpikin. Jendeak egur handia eman zion Gaztetxeari drogen kontuarekin eta, horri aurre egiteko, Errotatxo elkartearekin bat egin zuten. Gaztetxea gorpuzten joan zen eta euskararen presentzia ere gero eta handiagoa zen. Era natural batean bilerak euskaraz egitera pasa ziren.

1.980. Harremana Itoizko koordinakundearekin (EGB-134/019)

Itoizko koordinakundeko partaideek Gipuzkoan emandako lehen hitzaldia Elgoibarko Gaztetxean izan zen. Itoizko urtegia egin aurretik autodeterminazioaren aldeko martxa batean parte hartu zuen Orbaizetatik Aoizera. Hartu-emana izan zuen Aoizko jendearekin. Horrekin lotuta, Riañora ere txangoa egin zuten.

1.981. Gaztetxeko taberna eta asteburuetako giroa (EGB-134/020)

Gaztetxearen taberna diru-iturria zen. Asteburuetan 5000 lagun inguru mugitzen ziren Elgoibarko Gaztetxearen bueltan. Euskaldunen presentzia handia izaten zen, inguruko herrietako gazte euskaldunak ere gerturatzen ziren eta. Astean egun batez bakarrik egoten zen irekita taberna, ez zutelako nahi Gaztetxea edateko leku bat bihurtzerik. Sei urtez iraun zuen Maalako Gaztetxeak, 1991ra arte, hain zuzen ere.

1.982. Droga-saltzaileentzat atea itxita Gaztetxean (EGB-134/021)

Elgoibarko Gaztetxean arau batzuk jarri zituzten. Droga-saltzaileei ez zitzaien barrura sartzen uzten, herrian familia askok sufritu behar izan zutelako drogaren eragina. Euskararen inguruko araurik ez zuten ezarri.

1.983. Uholdearen ostean Gaztetxea berritu zuten (EGB-134/024)

Uholdeak izan zirenean, hondatuta geratu zen Gaztetxea. Dirua zuten eta berritu egin zuten, jende askoren lanari esker.

1.984. Elgoibarko Gaztetxearen kultura-eskaintza (EGB-134/025)

Gaztetxearen kultura-eskaintza zabaltzen joan zen pixkanaka. Gaztetxeak jada oinarri sendoak zituen eta jazarpena jasaten zuten arren, gogor eusten zioten. Euskararen presentzia ere goraka joan zen.

1.985. Jon Maiari proposatu zion Gaztetxera bertsoara joatea (EGB-134/027)

Bere kuadrillako bat Jon Maiaren irakaslea izan zen eta haren bitartez ezagutu zuen Capitol antzokira saio batera etorri zenean. Zumaian ere harremana izan zuten geroago. Jaietarako egitaraua prestatzen hasi zirenean, bilera batean erabaki zuten M-ak taldea ekartzea Gaztetxera. Berak eguna borobildu nahi izan zuen eta Jon Maiari proposatu zion bertsoara joatea.

1.986. 1990eko Gaztetxearen jaietako egitaraua: M-ak, Maia, Gozategi (EGB-134/028)

1990eko jaietako egitaraua Gaztetxean. M-ak taldea zetorrela eta eguna borobildu nahi izan zuen. Jon Maiari proposatu zion bertsoara etortzea. Gozategi anai-arrebak ere "fitxatu" zituen, Debako jaietan ikusita. Amnistiaren aldeko txosna King-kong azpian zegoen (artean eraikina egin gabe). Handik hasita Maalaraino kalejiran joan ziren. Pottoko taldea ere egon zen, Bergarako Taun Taun antzerki-taldea ere bai. Egun berezia izan zen berarentzat eta mugarría izan zela uste du, egun hartan euskara izan zelako nagusi. Urtean zehar ateratako dirua kultur-ekitaldietarako erabiltzen zuten. Presoen aldeko txosnak ez zuela dirurik jarri behar ere erabakita zuten.

1.987. Jon Maiak Elgoibarko Gaztetxeko lehen ekitaldiaz idatzitakoa (EGB-134/030)

Jon Maiak idatziz jaso zituen liburuan 1990ean Elgoibarko Gaztetxean kantatu zueneko lehen aldi hartan bizitakoak. Jabik testua irakurtzen du. Berarentzat oso pozgarria izan zen.

1.988. Gaztetxean parte hartzeaz harro (EGB-134/033)

Gaztetxean parte hartzeko hartu zuen erabakiarekin beti oso gustura sentitu izan da. Beste mundu bat ezagutzeko eta ofizialtasunetik kanpo ere gauzak egin daitezkeela ikusteko aukera eman zion.

1.989. Euskara berreskuratzeaz harro (EGB-134/035)

Umetan baldintzatuta sentitzen zen, euskaraz ez jakiteagatik, baina gaur egun aske sentitzen da, hizkuntza berreskuratuta. Zenbait bertsoari ulertzeko

arazoak izaten zituen eta, gabezia bat nabarituta, beste pausu bat emateko beharra sentitzen zuen. Oraindik ere euskara lantzen jarraitzen du. Harro sentitzen da.

1.990. Ikasketak erdaraz (EGB-135/003)

Maalako mojetan ibili zen, señorita Anitarekin gero eta ondoren Mendaroko mojetan batxilergoa egin zuen. Dena erdaraz zen, euskaraz bazekiten mojak baziren arren.

1.991. Erdarazko liburuetan euskarazko orriak itsasten (EGB-135/004)

Ikastolan irakasle ibili zenean, gogoan dauka euskarazko idatziak erdarazko liburuetako orrialdeetan itsasten zituztela.

1.992. Mendaroarren eta baserritarren, euskaraz gehiago (EGB-135/005)

Maalako mojak gogorragoak zirela aipatzen du. Mendaroko neskek euskaraz elgoibartarren baina gehixeago egiten zutela dio. Baserritarren gutxi hitz egiten zutela eta barre egiten zirela kontatzen du.

1.993. Dirudunak erdaldundu (EGB-135/006)

Euskara ez dugula euskaldunok prestigiozkotzat hartu uste du. Aita Bartzelonako Musikaren Lizeora joaten zenean, opera entzuterako, denak katalanez entzuten zirela kontatzen zien. Euskal Herrian, dirua egiten zuena erdaldundu egiten zela azaltzen du.

1.994. Etxean kantuan (EGB-135/007)

Aita musikazalea zuen. Boga-boga, Aitorren Hizkuntz Zaharra, gabon kantak, San Juanetakoak... abesten zituzten etxean. Ahoko soinua jotzen zuen aitak. Pantxoa eta Peio eta halakoen diskak bazituzten etxean.

1.995. Kanturako zaletasuna, tabernetan eta mendian (EGB-135/008)

Tabernetan mutilek abesteko ohitura zeukaten eta neskek ere gerturaten ziren. Emakumeek kopa gozoak edaten zituzten. Patxi Agarrerekin sarri mendira joandakoa da; hark oso ondo abesten zuela dio, eta elkarrekin abesten zutela hainbat ahotssetara.

1.996. Hasieran `Bereluma´, ondoren `Lurgabe´ musika taldea (EGB-135/009)

Lau lagunek Odeiko jaialdian parte hartu zuten. Disko bat atera zuten kanta batzuekin. Hasieran bertako kantak abesten zituzten; "Eurovision" lehiaketa irabazi zuen kanta Juan San Martinek euskaratu zien. Lau nesketako batek taldea laga zuen, mutil-laguna topatu zuenean. Hasieran Bereluma taldea izan ziren eta ondoren Lurgabe. 1969an atera zuten lehen diskoa.

1.997. Miren Vallejorekin euskarazko kantak, dantzak eta antzerkia (EGB-135/010)

Ohitura handia zegoen kanturako, bereziki jatorduen ondoren lagun artean. Miren Vallejok erakusten zizkien kantak, dantzak eta antzerkia, euskaraz. Saioak non egiten zituzten kontatzen du.

1.998. Felix Etxeberriak Jon Oñatibia eta Patxi Altuna ekarri zituenekoa (EGB-135/011)

Felix Etxeberria "Parapan" nekaezina zela dio; Jon Oñatibia euskara ikasteko liburua atera zuenean, Elgoibarrera gonbidatu zuen Jon bertako hainbati erakusteko. Jende bila ibiltzen zela dauka gogoan. Patxi Altunarekin gauza bera egin zuen Felixek.

1.999. Apaizen lana euskararen alde (EGB-135/012)

Parrokian antolatzen ziren gauza asko. Apaizek euskararen alde egindako lana aitortzen du. Ikastolaren legalizazioa ere apaiz baten izenean egin zela dio.

2.000. Eguberri eguneko kalejiran dantzan (EGB-135/014)

Nesken dantza taldeak oso gutxitan ikusten zituzten. Eguberri egunean kalejira egiten zuten eta urte askoan parte hartu zuen dantza eginez. Hainbat urtean erakusten ere jardun zuen. Jaiotza umeek osatzen zuten. "Artzai buruzuri bi" eta arku-dantza dantzatzen zituzten.

2.001. Anaiek euskarazko izenak hartu zituzten (EGB-135/015)

Scoutetan ez zuen parte hartu; bere anaiek bai. Bere anaiek erdarazko izenak zituzten, Juan eta Pedro, baina euskaratu egin zituzten eta euskaraz esanda bakarrik erantzuten zuten. Euskararekiko mugimenduak bete-betean harrapatu zituen bere anaiak.

2.002. Gurasoak seme-alabek euskaraz egiteko ahaleginean (EGB-135/016)

Gurasoek ahal zutena egiten zuten beraiek euskaraz egin zezaten. Orain egoera antzekoa ikusten du. Bere bealunaldikoei euskaraz egitea asko kostatzen zaiela dio. Euskaraz abestu arren, erdaraz egiten zuten kantukideen artean. Bere adineko mutilek euskaraz neskek baino gehiago egiten zutela dio.

2.003. Lurgabe musika taldearen diskoaren grabaketa (EGB-135/017)

Angelita Zabaletak musika aldetik prestatzen zituen. Modako kantak aukeratzen zituzten. Diskoa Madrilen grabatu zuten, Xabier Gereñtikorenkin. Maria Luisa Zubiaurre eta Begoñak Badiolarekin grabatu zuen diskoa. Gitarrarekin Ballek laguntzen zien, bandako zuzendari izandakoak. Patxi Zabaleta (Angelaren anaia) ere beraiekin joan zen grabaketara. Jorge taxilariarekin joan ziren.

2.004. Lurgabe musika taldearen ibilerak (EGB-135/018)

800 diskatik gora saldu zituzten. Iparraldetik ekartzen zituzten diskak garai hartan. Etxe askotan ez zen diskak entzuteko aukerarik izaten. Irrati emisora batean, kantuen zerrendan lehenengo egon ziren astebetetz. Muxikara kantura joan zirenekoa kontaktzen du (Benito Lertxundirekin jo zutenekoa). Trio Unairekin ere harreman handia izan zuten.

2.005. Eibarko dantzalekuan kantu lehiaketak Imanol Urbietarekin (EGB-135/019)

Eibarko Nahia dantzalekuan kantu lehiaketak antolatzen zituzten eta parte hartzen zuten; final batera pasatu ziren. Imanol Urbietak pianoarekin

laguntzen zien parte hartzaileei. Imanolen etxean entsegua egin zutenekoa kontaktzen du.

2.006. Kantari taldeak; Oskarbi (EGB-135/020)

Arrasaten ere antolatzen ziren lehiaketak. Urretxindorrek, Ameslariak... Bergarako taldeak aipatzen ditu. Oskarbikoekin harremana izan zuten. Juan Igartuaren abesbatza ibili zen. Oskarbiren kantak abesten zituzten.

2.007. Arrieta anai-arrebak Odeoian kantuan (EGB-135/023)

Anai-arrebek Odeoian "Guk euskaraz, zuk zergatik ez?" eta "Nagusituko gara" kantak abestu zituzten jaialdi batean. Juan San Martinek eta Azpeitiko musika bandako zuzendariak moldaketa egin zieten.

2.008. Estitxurekin Elgoibarren (EGB-135/024)

Estitxuk Elgoibarren jo zuenekoa kontaktzen du, beraiek ere abestu zuten eta.

2.009. Soralezeko nesken musika taldea (EGB-135/025)

Soraluzeko bost-sei neskak taldea izan zutela kontaktzen du. (Blue Bell taldea). Ile horiak, denak berdin jantzita... Bera baino zaharxeagoak zirela dio.

2.010. Emakumeek lanari eta kantatzeari laga ezkondukoan (EGB-135/026)

Bere garaian ohikoa zen ezkondukoan lanari lagatzea, baita kantatzeari lagatzea ere. Ezkon bidaian haurdun geratu ezean, emakumeak ez zuela balio esaten zen.

2.011. Estitxu eta Ez Dok Amairu (EGB-135/027)

Estitxuk "Agur Maria" zela abestu zuen gogoratzen du. Ez dok Amairu ikustera beste herri batzuetara joaten ziren. Edurne Lasarekin Lurdes Iriondorengana joan zirenekoa kontaktzen du.

2.012. Musika pedagogian prestakuntza eginda, ikastolara (EGB-135/028)

Ikastolan noiz eta zela hasi zen kontaktzen du. Ikastoletako irakasleak oso prestatuta zeuden haur hezkuntzan. Magisteritza titulaziorik ez zutenak legez babesteko, musika pedagogian prestakuntza eman zien irakasle batek. Bera ere animatu egin zen eta bukatu zuen bakarria izan zen. Ikastolan praktikak egin ostean, bertan hasi zen lanean.

2.013. Ikastolari laguntzeko boluntarioak soberan (EGB-135/031)

Guraso batzuek egunkariak biltzen zituzten astero eta horiek salduta dirua ateratzen zuten. Taberna jartzen zuten. Boluntarioak soberan egoten zirela dio.

2.014. Ikastola irakasle bila (EGB-135/034)

Ikastolakoak irakasle bila ibiltzen zirenekoa kontaktzen du. Beste pertsona batzuen tituluak ere erabiltzen zituzten beharrezkoa zenean.

2.015. Ongarri eta "Bihar-Dana" elkarteak (EGB-135/037)

Ongarri elkarteak Olentzeroren etorrera antolatzen zuen eta ume zeneko argazkia dauka. Maala ingurua zelakoa zen azaltzen du. Anaiak euskal dantzan ibili izan ziren Ongarrikoekin. "Bihar-Dana" elkarte gastronomiko eta musikala aipatzen du.

2.016. Gurasoen jatorria (EGB-136/002)

Ama elgoibartarra zen, Metalkua baserrikoa. Aitaren familia Ermutik etorri zen aitak 8-9 urte zituela. Bederatzi anai-arreba ziren eta bi gazteenak jada Elgoibarren jaio ziren. Familia euskalduna eta abertzalea zen Kondetarrena. Aitona-amonek Konde taberna izan zuten Elgoibarko plazan, 1970era arte. Gurasoek ere taberna jarri zuten bera jaio eta lau hilabetera.

2.017. Martxa handia Gorbea tabernan (EGB-136/003)

Konde tabernan jendeak ardoa edaten zuen eta jatekoa etxetik eramaten zuten. Gurasoen tabernan (Gorbea) jada ohitura handiagoa zegoen bertan jateko. Autopistaren eta San Rokeko etxeen eraikuntzak lana ekarri zuen eta kanpotik jendea etorri zen lanera. Sigma zen orduan lantegi garrantzitsua. Zubirik ez zegoen artean eta jendea errepide bazterretik joaten zen. Zubia egin zenean, denak, Santa Ana kalean zehar, euren taberna paretik pasatzen ziren. Horrez gain, Odeon antzokia zuten parean. Martxa handia izaten zen tabernan.

2.018. Gurasoen ikasketak; fraideen bisitak (EGB-136/004)

Ama sukaldaritzaren ikasten ibili zen Hotel Zumaian. Aitak fraide ikasketak egin zituen Arantzazun. Fraide asko lagunak zituen eta sarritan bazkaltzeko orduan joaten zitzaizkien bisitan.

2.019. Konde taberna (EGB-136/005)

Gurasoek Gorbea taberna zeukaten Santa Ana kalean eta aitona-amonek Konde taberna plazan. Puntu garrantzitsua zen. Mendizale elkartearen bilgunea ere izan zen garai batean eta euskaldun asko batzen zen bertan. Kondetarrak abertzaleak ziren. Aitak "Radio Paris" eta Radio Pirenaica" ezkutuko irratiak entzuterara eramaten zuen.

2.020. Ikasketak La Sallen; irakasleak; Burgosko prozesua (EGB-136/006)

Anaia eta biak Eibarko La Salle ikastetxera bidali zituzten umetan. Bi arrazoiengatik izan daitekeela uste du: tabernan trabarik ez egitearren eta La Salle gainontzeko eskolak baino "liberalagoa" zelako. Esaterako, berak ez zuen inolako arazorik izan Joseba izenarekin. 1970ean, unibertsitate aurreko ikasketak (PREU) egiten ari zela, Burgosko prozesuaren inguruko kontuak entzuten hasi zen. Eibar aurreratuagoa zen halako kontuetan. Manifestazioan irten ziren La Salletik, on Jose Elvira `El botas´ irakasleak bota barruan pistolatxo bat eramaten zuela jakin arren. Beste irakasle bat Julio Sarasua zen, abertzalea.

2.021. Joseba izenaren inguruko gorabeherak (EGB-136/008)

Aitari ez zioten utzi Joseba izena jartzen erroldan eta Jose Ramon ipini zioten. Beti Joseba esan izan diotenez, berandura arte ez zuen jakin Jose Ramon zeukan izena. Halako kontuak erraztasun handiz asumitzen zituztela dio.

2.022. Emakumearen egoera 1975 arte (EGB-136/010)

Espainiako Kode Zibilean gor-mutuek, umeek eta eroek ezin zuten kontraturik sinatu eta bankuan konturik ireki. 1975era arte emakumeak ere egoera horretara pasatzen ziren ezkontzen zirenean. Izugarria iruditzen zaio emakumeek eta gizonak hori nola onartzen zuten. Lan egiteko ere gizonak eman behar izaten zion baimena emakumeari. Euskal Herriarekin egiten du konparaketa, egoeraren aurrean ez dela ezer egiten adierazteko.

2.023. Eibarko La Sallera autobusez (EGB-136/012)

Eibarko La Salle ikastetxera "Grillo" autobusean joaten ziren Soralezkoak eta Elgoibarkoak. Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten. Hermano Juanek euskaraz egiten zion. "El botas". Julio Sarasuak frantsesa ematen zion.

2.024. Kalean euskara gutxi, jakin arren (EGB-136/015)

Elgoibarren euskara gutxi entzuten zen kalean bera umea zenean. Etxean euskaraz egiten zuten. 16 urte ingururekin kontzientzia politikoa hartzen hasi ziren eta horrekin batera, euskararekiko kontzientzia piztuta, euskaraz hitz egiten. Amaren aldeko familiako kide batzuek gustuko zuten gaztelaniaz egitea, gaizki egin arren; ziurrenik konplexuagatik.

2.025. 50eko hamarkadako boom industrialaren eragina (EGB-136/017)

Elgoibarko biztanleria asko hazi zen 50eko hamarkadan, industrializazioaren eraginez. Elgoibar herri euskalduna izatetik herri erdalduna izatera pasa zen. Sigmak izan zuen garrantzia makina-erremintaren industrian.

2.026. Aitak irakurtzen zituen aldizkariak (EGB-136/019)

Etxean ez zuten euskarazko irakurgairik. Aitak hilero kaleratzen zen `Reader's digest´ aldizkaria irakurtzen zuen. Bizkaiko `La Gaceta del Norte´ ere bai, Athletic zalea zelako. 1975 inguruan Alfonso Guilló Argiaren harpidetzak saltzen ibili zen eta bera bazkide egin zen.

2.027. Kiroletako eta musikako "ikurrak" (EGB-136/020)

Frankismo giroan, ikurrak hartzen ziren kontuan. Kirolean, esaterako, Loroñok euskaldunak ordezkatzeko zituen eta Bahamontesek espainiarrak. Boxeoa ere modan zegoen orduan; Pepe Legra. Abeslariak ere ekartzen zituzten: Sara Montiel, Antonio Machín... lehenbizi Eibarrera eta gero Elgoibarrera. Odeón antzokian abesti zuenean Gorbea tabernara joan zen Machín. Harekin bizitako anekdota. Odeon antzokia modernoa zen. Politikari ezagunak ere etortzen ziren.

2.028. Bilbon euskara akademian irakasle 70eko hamarkadan (EGB-136/023)

Bilbora unibertsitateira joan zenean, lehenengo ikasturtean beste ikaskide batzuei euskara irakasten hasi zen, borondatez. Handik bi urtera euskara

irakasteko Akademia batean aritu zen, soldatapean. Martin Orbe eta Jose Mari Iturralde ere aritzen ziren irakasle lanetan. Artiñano zen zuzendaria.

2.029. Eskola Profesionalean irakasle hasi zeneko bizipenak (EGB-136/025)

1979-1980 ikasturtean hasi zen "Mekanika"n (Eskola profisionalean). Berak zituen aurreiritziak eta eskola barrutik ezagutzean zer iruditu zitzaion. Eskola txikia zen, 12 irakasle. Administrazioako azken mailetan hasi zen eta ikasle gehienak neskak ziren. Orduko bizipenak. Eskola guztiak gaztelaniaz ziren.

2.030. Elhuyarrekin harremana; Eskola Profisionalaren euskalduntzearen hasiera (EGB-136/026)

1980an UEUren bitartez Baleren Bakaikoa ezagutu zuen. Hark Elhuyarren eta itzulpengintzan parte hartzera animatu zuen. Elgoibarko Eskola Profesionalean Administrarritza lerroa euskaraz ematen hasi zirenean Elhuyarren materiala erabili zuten. Elhuyarreko ekonomia taldean parte hartzen zuen berak, kontabilitate atalean.

2.031. Bergarako UNEDera euskarazko titulua ateratzera (EGB-136/027)

1980an, Eskola Profesionalean lanean hasi zenean, larunbatetan Bergarako UNEDera joaten zen, euskarazko D titulua ateratzeko. Joseba Sarrionandia izan zuen irakasle. Iruñean egin zuen azterketa eta gogoan du Patxi Zabaleta zela zaintzailea.

2.032. Elgoibarko Izarrako lehendakariorde izan zeneko kontuak (EGB-137/002)

1981 inguruan, orduan Elgoibarko Izarrako lehendakari zen Andres Alberdi joan zitzaion lehendakariorde izateko proposamenarekin. Garai hartan antolatutako zenbait ekimen. Karlos Argiñanorekin gertatutako anekdota. Artean ezezaguna zen eta oso jende gutxi egon zen haren hitzaldian. Antolatu zuten bertso-afariko kontuak.

2.033. Unibertsitatea euskalduntzera (EGB-137/008)

1988an Donostiako EHUren fakultatean kontabilitatea eta balantze-analisisa euskaraz emateko hiru urterako kontratua sinatu zuen. Ordura arte irakasgai horiek ez ziren euskaraz ematen. Urtebete besterik ez zuen egin unibertsitatean, lantegira joan zelako lanera.

2.034. Elhuyarreko ekonomia taldean (EGB-137/010)

Elhuyar taldearekin ibili zen hainbat gai euskaratzen. Borondatezko lana zen. Espe Arrizabalaga eta Karmelo Busturia ziren ekonomia taldearen buru. Baleren Bakaikoa ere inguruan ibiltzen zen. Elhuyarrek beste talde batzuk ere bazituen. Esaterako, kimikako taldean Josu Jon Imaz zegoen. Liburuak ere argitaratu zituzten, Pello Juaristi elgoibartarrak prestatu zuena, adibidez.

2.035. Elhuyarren lana gai ezberdinak euskaratzen (EGB-137/012)

Garai hartan hasi zien material asko euskaratzen. Elhuyarrekoak lehenagotik zebiltzan; batez ere matematika taldeak zuen indarra. Andoni Sagarna. Arlo ezberdinen inguruko jakintza zuen jendea ibiltzen zen Elhuyarren, borondatez, gai horiek euskaratzen. Kalitatea ere halako izango zela dio. Gaur egun kontuak bestelakoak direla iruditzen zaio.

2.036. Ekonomiaren inguruko euskarazko materialik ez (EGB-137/013)

Gogoan du materiala itzultzerakoan edo klaseak ematerakoan Uzeiren enpresa-hiztegia ere erabiltzen zutela. Klaseak euskaraz emateko, nork bere apunteak prestatu behar. Ez zegoen ezer. Aldizkarietan ere inork gutxik idazten zuen ekonomiaren inguruan. Baleren Bakaikoa, Mikel Zurbano eta Mikel Navarro izan ziren lehenengotakoak. Fakultatean bazituzten irakasle euskaldunak, baina garai batean burutik ere ez zitzaien pasako irakasgai bat euskaraz ematea.

2.037. Umetan boy scout taldean (EGB-137/018)

Tartsizioen eta luistarren kongregazioak. Umetan boy scout taldean ibili zen. Mendira joan eta euskarazko abestiak kantatzeko aitzakia zela uste du. Ion Arrieta zen burua. Egunero ekintza on bat egin beharra. Elizaren babespean sortutako taldeak ziren.

2.038. Ikasle sasoiko giroa Bilbon (EGB-137/020)

Bilbora unibertsitatera joan zenean Euskal Kultur Taldea zegoen. Hasieran elgoibartar batzuekin egon zen pisuan, baina azken hiru urteetan beste herri batzuetako kideekin Deustun. Azpeitiko pisukidearen lagun bat EMK-ko (Euskaldiko Mugimendu Komunista) burua zen eta euren etxean egiten zituzten bilerak. 1975-1976 inguruan zen eta ordurako euskal kontzientzia piztuta zuen.

2.039. Euskararen egoeraz eta etorkizunaz gogoeta (EGB-137/028)

Bere ezagun batek esaten du 60ko hamarkadako errentetatik bizi garela, emankorra izan zelako garai hori. Euskararen egoeraren inguruko gogoeta egiten du. Gaur egun erakundeak eta legeak alde ditu euskarak eta pentsatu daiteke horrekin gauza handi bat egitera jo behar dugula. Baina bere ustez gauzak berriz ere txikitik egitea da bidea, 60ko hamarkadan egin zen antzera.

2.040. Euskara, munduari begiratzeko modua (EGB-137/030)

1992an Tokiora (Japon) joan zen enpresaburu gisa, Europako beste hainbat enpresabururekin batera. Ekitaldian jaiki, mikroa hartu eta euren burua aurkeztu behar zuten. Horretarako, japonierazko hitz batzuk ikasi zituen. Bera izan zen japonierazko hitz batzuk esan zituen europar bakarra. Bertakoek asko eskertu zioten. Ez zen kasualitatea izan euskaldun batek egitea hori. Euskara munduari begiratzeko modu bat dela iruditzen zaio. Euskara ezin da lehiatu hizkuntza handiekin. Handi egitearen arriskua. Hainbat gogoeta.

2.041. Gurasoek beti euskaraz (EGB-138/003)

Maalan jaio ziren. Gurasoak elgoibartarrak: aita Errosario kalekoa eta ama Melitongoa. Gurasoek euskaraz egiten zuten beti. Beraiek kalean eta eskolan gaztelaniaz egiten zuten.

2.042. Maalako eskolan; neskontzako aukera gutxi (EGB-138/004)

Maalako eskolan ibili ziren, oinarrizko ikasketak ikasten. Haur eskolan neskek eta mutilak. Gero neskek bakarrik. Euren anaiak eskola publikora joan ziren gero. Begoñak administraritza ikasi zuen gau-eskoletan. Garai batean ez zegoen emakumezkoentzat ikasketarik, sukaldean eta josten bakarrik ikasten zuten. Gerora señorita Anitaren akademian eta Santa Klarako mojetan ikas zezaketen Batxilerra. Anaietako bat Sigma lantegiko eskolan ibili zen. Gazterik hasi ziren lanean.

2.043. Emakumeak Elgoibarko lantegietan; lan-asegurua (EGB-138/005)

Elgoibarren emakume askok lan egiten zuten lantegietan: Sigman, oihal-lantegietan, abarketagintzan... Batzuek etxean lan egiten zuten, baina etxean ez zegoen asegururik. Lantegietan ere beti ez. Garai batean ez zen derrigorrezkoa. Gloriak eta ahizpak jostundegian lan egin zuten, batere asegururik gabe.

2.044. Maalako mojen eskolan gaztelaniaz (EGB-138/006)

Eskolan gaztelaniaz ikasten zuten. Bazeuden moja euskaldunak, baina ezin zuten euskaraz egin. Baserritarrek euskaraz egiten zuten elkarren artean. Ez zuten zigorrik jasotzen euskaraz egitearren. Ikasturte bukaerako azterketa egin ostean gailetak ematen zizkieten. Alkatea joaten zen eta guardia zibilak ere bai, asko euren ikaskideen gurasoak ziren eta.

2.045. Emakumeek Zerbitzu Soziala egin behar (EGB-138/007)

Garai batean emakumeek Zerbitzu Soziala egin behar izaten zuten, pasaportea edo gidabaimena ateratzeko. Lanean egonez gero, hiru hilabete egin zitekeen; bestela bi urtean. Ikasi beharrekoak "Formación del espíritu nacional", erlijioa, sukaldaritza, josteta... Bakoitza nork ematen zien. Eskola publikoko Dominika Atxa maistra gasteiztarra zen zuzendaria.

2.046. Kontua irekitzeko gizonezko baten baimena behar (EGB-138/008)

Aitak Aurrezki-kutxan lan egin zuen eta ohitura zuen umeei jaio orduko kontua irekitzeko. Beraiek jada kontua irekita zuten, ez zuten arazorik izan, baina, bestela, emakumeek aitaren edo senarraren baimena behar izaten zuten kontu bat irekitzeko. Emakume askok, ohituraz, lana uzten zuten ezkondu ostean.

2.047. Garai batean familia handiak eta diru gutxi (EGB-138/010)

Garai batean familia ugariak ziren gehienak eta etxean norbait behar zen familia hazteko. Beraiek ere segidakoak dira. Begoña da gazteena, tartearrekin. Zortzi anai-arreba izan ziren. Amak beraiek hazteaz gain, abarketak josten egiten zuen lan etxean.

2.048. Ongarri elkartearen hasierako urteak: gastronomia eta kultura (EGB-138/013)

1968an sartu zen Gloria Ongarri elkartearen, idazkari gisa. Ordurako elkarte gastronomikoa eta kulturala banatuta zeuden. Elkarte gastronomikoak eta tabernak Maalan jarraitu zuten eta kultur-elkarteko kideak parrokiaren Ubitarteko zentroan biltzen ziren. Gerora Errosario kaleko lokal bat alokatu zuten eta geroago beste lokal bat Ubitarten. Kultur arloan indar handia izan zuen.

2.049. Ongarri elkartearen arloa (EGB-138/014)

Ongarri elkartearen arloa antolatu zuten. Arte arloan marrazki-lehiaketak, ikastaroak, erakusketak eta aire libreko pintura-lehiaketa egiten ziren. Abuztu hasieran izaten zen lehiaketa eta San Bartolome jaietan erakusketa. Argazki arloan ikastaroak, erakusketak... "Ateneo Guipuzcoano"rekin harreman handia zuten eta urtean 20 hitzaldi antolatzen zituzten, gai ezberdinen inguruan. Hitzaldietara ekarritako zenbait partaide aipatzen dituzte. Sorospen ikastaroak ere ematen zituzten, Donostiako suhiltzaileekin.

2.050. Ongarri antolatutako Juan San Martinen hitzaldia (EGB-138/015)

Ongarri elkartearen antolatutako hitzaldiak. Juanito San Martinen hitzaldiaren kartela gaztelaniaz zegoen, baina azpian letra txikiz jartzen zuen hitzaldia euskaraz izango zela. Baimena eskatu behar izaten zen Gobernu Zibilean gauza guztietarako eta gero dena justifikatu behar izaten zen. Batzuetan Gobernu Zibilera azalpenak ematera ere joan behar izaten zuten.

2.051. Alkatearen laguntza, Gloria Ongarriko lehendakari izan zenean (EGB-138/016)

Ongarri elkartearen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zortea izan zuela dio Gloriak, harreman ona izan zutelako. Dirulaguntzak ere jasotzen zituzten. 1975an Ongarriko lehendakari izendatu zuten Gloria; Gipuzkoa mailan lehen emakumea izan omen zen kultur-elkarte bateko lehendakari postuan. Garai hartan Jaime Arrese zen Elgoibarko alkate eta hark ere asko lagundu zien. Besteak beste, alkateak eskatuta, herriko elkarte guztien laguntzarekin, Jubilatuen lehen bazkaria antolatu zuten San Bartolome jaietan. Azoka plazako teilatuan ospatu zen lehenengoa. Gero beste leku batzuetan egin izan zen. Antolaketaren inguruko azalpenak.

2.052. Ongarri elkartearen ekintzak jaietan (EGB-138/017)

Ongarri elkartearen aktak gaztelaniaz jasotzen ziren. Zuzendaritzako kideek gero hainbat laguntzaile izaten zuten ekimenetarako. Elizatik sortutako "Juventud elgoibarresa" taldeko kideekin ere bazuten harremana. Ekintza asko antolatzen zituzten jaietan. San Bartolome egunean dantza-solteko txapelketa eta Umeen eguna. Danborrada antolatzen zen Umeen egunean.

2.053. Umeen danberrada San Bartolome jaietan (EGB-138/018)

San Bartolomeetan Umeen eguna ospatzen zen eta danberrada antolatzen zuten. Arropak hasieran Donostiako "Casa Angelita"tik alokatzen zituzten. Gerora beraiek egin zituzten 100 umerentzat arropak. Iñaki Larrañaga marrazkilariak laguntzen zien. Karroza. Musikaren arduraduna Antonio Azpiazu izaten zen. `Elgoibar´ pieza; Isaak Azpiazu anaiak hitzak jarri zizkion Inazio Bereziartuak egindako musika bati eta urtero abesten zen danberradan. Pilar ikastetxean egiten zituzten entseguak.

2.054. Ongarri kultur elkartearen gainbehera (EGB-138/020)

Demokrazia sasoia hasi zenean, Udalean gauzak aldatu egin ziren eta elkartearen arteko sare bat sortu nahi izan zen, elkarrekin lan egiteko. Orduantxe etorri zen Ongarri elkartearen gainbehera. Handik aurrera argazkilaritza arloa eta zine-kluba bakarrik geratu ziren elkartearen.

2.055. `Elgoibar´ kanta, Elgoibarko hereserkia (EGB-138/022)

San Bartolome jaietako umeen danberradan urtero abesten zen `Elgoibar´ kanta abesten dute. Musika Inazio Bereziartuarena; hitzak Isaak Azpiazurenak. Kantaren amaieran "Aupa Elgoibar!" esaten zuten denek batera.

2.056. Herri-mezak; mezak euskaraz (EGB-138/024)

Antonio Azpiazuk umeen korua zuzentzen zuen eta gero elizan abesten zuten larunbatetan. Herri-mezak San Anton egunean egiten ziren on Karlos Agirre abadearen sasoian. Jende gutxi egoten zen egun horretan eta, on Karlos Agirre oso euskaltzalea zenez, herri-mezak egitea bururatu zitzaion. Mezak euskaraz zer garaitan hasiko ziren.

2.057. Abade euskaltzaleak Elgoibarren (EGB-138/025)

Abade euskaltzaleak egon ziren Elgoibarren. Juan Beristain mutrikuarrarekin hasi zen ikastola (ofizialki). On Karlos Agirrek ere asko lagundu zion ikastolari. Garai hartan ikastolaren zati handi bat elizaren lokaletan zegoen. Haren multikopista erabiltzen zuten. Ongarri elkartekoei ere asko lagundu zien euskarazko kontuekin edo testuak idazmakinez pasatzen. Urrestillakoa izan arren, Elgoibarko euskararekin ere moldatzen zen.

2.058. Euskara Ongarri elkartearen (EGB-138/026)

Ongarri elkartearen bakoitzak ahal zuena egiten zuen euskarari zegokionean. Aktak gaztelaniaz jasotzen ziren, euskaraz idazteko ere gai izan behar zen eta. Bazkide berriak lortzeko kanpaina egin zutenean, dena euskaraz eta gaztelaniaz egin zuten. Etxez etxe banatu zituzten paperak.

2.059. 1961ean Olentzerorekin kalejira, Ongarri antolatuta (EGB-138/028)

1961ean Ongarri elkartekoek kalejira antolatu zuten Olentzerorekin. Urte horretan bakarrik egin zen, gero debekatu egin zuten eta. Argazkia dago justu Ongarri elkartearen parean aterata.

2.060. Mari Ezenarro, Ongarri elkarteko antzerki batzordearen arduradun (EGB-138/030)

Ongarri elkarteak antzerki batzordea ere bazuen eta Mari Ezenarro zen arduraduna. Manolo Rementeriak laguntzen zion. 1975 inguruan 'Bizia bizi truk' antzezlanarekin prestatu zuten Trinitateetarako, baina egun horretan Elgoibarko Izarraren beste ekimen batzuk zeudela eta, Odeonan egin zuten emanaldia urrian. Jesusen pasioa irudikatzen duen antzezlanarekin ('Nekaldia') ere eskaini zuten parrokiari bi urtez Aste Santuan. Garai bateko antzerki-taldeko Pako Juaristik, Miren Vallejos eta Kontxita Armendiak parte hartu zuten obra horretan eta baita "Juventud elgoibarresa"ko gazteek ere. Antzezlan gehiago ere egin zituzten.

2.061. Jendea ekimenetan laguntzeko prest (EGB-138/032)

Garai batean gauzak antolatzen jendearen laguntza eskatzen zen eta asko egoten ziren prest borondatez laguntzeko. "Juventud elgoibarresa"ko kideek ere euren burua eskaintzen zuten gauza askotarako, esaterako Umeen egunean laguntzeko. Umeen danborradako karroza muntatzeko ere laguntzaileak izaten zituzten. Garai batean militantzia handia zegoen; gaur egun asko aldatu da kontua. 1960-1961 inguruan Erregeen kabalkada ere antolatu zuen Ongarri.

2.062. Bergarako Bonifazio Laskurain txistulariak egindako danborrak (EGB-138/033)

Beraien osaba, Patxiko Etxeberria, txistularia zen eta harreman handia zuen Bergarako Bonifazio Laskurain txistulariarekin. Lantegia zeukaten eta danborrak egiten zituzten. Umeen danborradarako danborrak egin zituzten eta larruzko mantalak ere bai. Euren osabak txistuak egiten zituen. Udalak dirulaguntza ematen zien, materiala erosteko, baina aurrekontua doitu behar.

2.063. Jaime Arrese alkatearen laguntza (EGB-138/034)

Jaime Arrese alkateak asko laguntzen zien dirulaguntzak edo materiala lortzeko orduan. Emazteak parrokiako koruan abesten zuen beraiekin batera.

2.064. Ongarri elkarteak antolatutako hitzaldiak (EGB-138/035)

Gipuzkoako Foru Aldundiak asko laguntzen zien garai batean eta Gloriak dio gutun bat ere baduela antolatzen zituzten hitzaldiengatik eskerrak ematen. Emakumeak ere ekartzen zituzten hitzaldiak ematera, esaterako, Pilar de la Cuadra idazlea. Usparitza ginekologoaren hitzaldia ere emakumeei zuzendua izan zen. Mikel Laboa ere egon zen behin eta abestu ere egin omen zuen. Iñaki Linazasoro ere sarri egoten zen. Saiatzen ziren emakumeen alde gauzak egiten. Lan handia izaten zen hitzaldiak antolatzea, baimenak eskatzea eta abar. Gainera, dena justifikatu egin behar izaten zen eta "espiak" ere ibiltzen omen ziren gero.

2.065. Garai bateko umeen Euskal jaiak (EGB-138/039)

Euskal jaiak egiten ziren. Argazkiak badituela dio Begoñak. Euren ilobak euskal jaietan ibiltzen ziren 70 hamarkada hasieran. Herriz herri joaten ziren gero. Gloriak Ondarroako 12 ume eduki omen zituen etxean bazkaltzen behin.

2.066. Ongarri elkarte Itziarko zentral nuklearraren inguruko batzarretan (EGB-138/043)

Itziarko zentral nuklearraren inguruko kontuetan ere parte handia izan zuen Ongarri elkarteak. Ongarriren izenean, Gloria joaten zen Deban egiten ziren bilera klandestinoetara. Mila Oiartzabal ere joaten zen "Padres de familia" elkartearen izenean.

2.067. Jende asko Ongarriren aire libreko pintura lehiaketara (EGB-138/047)

Ongarri elkarteko argazkilaritza batzordean errebelatzeko gela prestatu zuten eta ikastaroak ematen zituzten. Abuztu hasieran aire libreko pintura lehiaketa egiten zen. Mucedades taldeko Urangatarren aita etortzen zen parte hartzera. Margolari asko etortzen ziren kanpotik. Margolan ugari egon ziren udaletxean ipinita. Norberto Zabalaren pintura denda zabalik edukitzen zuten, norbaitek zerbait behar izanez gero ere.

2.068. Patxiko Etxeberria osabak egindako txistuak (EGB-138/049)

Euren osabak, Patxiko Etxeberriak, txistuak egiten zituen. Euren anaiak eta koinatuak laguntzen zioten. Bere marka jartzen zien ahokoaren azpian.

2.069. Umetan dena euskaraz (EGB-139/002)

Elgoibarren jaioa. Aita elgoibartarra zuen eta ama, berriz, mutrikuarra. Etxean euskaraz egiten zuten: amarekin mutrikuarrez eta aitarekin elgoibartarrez. Umetan dena euskaraz egiten zuen, baina 9 urterekin Pilar ikastetxera joan zen eta han hasi zen gaztelania gehiago erabiltzen.

2.070. Elgoibarko ikastolako lehen belaunaldietako ikaslea (EGB-139/003)

Ikastolako lehen belaunaldietako ikaslea izan zen. Gelak han eta hemen sakabanatuta zeuden. Inspektore eta guardia zibilekin arazoak izaten zituzten. Hasiera zen eta ikasmaterialik ez zegoen. Itzulpen asko erabiltzen zuten; `Xabierto´ eta `Martin Txilibitu´ liburuak. Zer irakasle izan zituen; irakasleak gazteak ziren eta motibatuta zeuden. Antton Aranbururekin kantuan aritzen ziren.

2.071. Pilar ikastetxean dena gaztelaniaz (EGB-139/006)

9-10 urterekin Pilar ikastetxean hasi zen. Eskola guztiak gaztelaniaz ziren han. Fraideak zituen irakasle. "Mugimendu"ko irakasle bat ere bazegoen eta estu hartzen zituen ikastolatik zetozen ikasleak. Fraide euskaldun gutxi batzuk ere bazeuden. "Hermano" Luis euskaltzalea zen; koruan euskarazko abestiak sartzen zituen.

2.072. 14 urterekin idatzi zuen antzerki bat taularatu zuten (EGB-139/008)

Pilar ikastetxean zebilela, 14 urterekin, antzerki bat idatzi zuen. Mari Ezenarro zegoen guraso elkartearen eta antzerki bat egin nahi zuen. Berak idatzitakoa gustatu egin zitzaion eta antzezlanara prestatu zuten. Odeon antzokian antzeztu zuten.

2.073. Aitaren interesa euskararekiko (EGB-139/010)

Aitak bazuen euskararekiko interesa eta euskara irakasten aritzeko titulu bat ere bazuen. Etxean bazituzten euskarazko liburuak eta Argiako harpidedunak izan dira beti.

2.074. Euskal giroan ibili arren, lagunartean gaztelaniaz (EGB-139/012)

Gaztetan euskal giroan mugitzen zen. Elgoibarko Izarraren dantza-eskolan ibili zen ikasten eta gero baita irakasten ere. Geroago Haritz Dantza Taldean ere bai. Aubixan ere ibili zen udalekua prestatzen laguntzen eta baita begirale gisa ere. Baina lagunartean gaztelaniaz egiteko joera hartu zuten.

2.075. Pilar ikastetxeko boy scout taldean ibili zen (EGB-139/013)

Pilar ikastetxeko boy scout taldean ibili zen. Inazio Zabarte fraide gasteiztarra zen arduraduna eta Gipuzkoako boy scoutekin ibiltzen ziren. Udan egun batzuk pasatzera joaten ziren kanpora eta elgoibartar gehiago ere joaten ziren.

2.076. Mugimendu handiko sasoia (EGB-139/014)

Bera ez zen ibili "Juventud elgoibarresa" taldean. 12-13 urterekin hasi ziren politikoki posizionatzen eta oso goiz utzi zioten elizara joateari. Mugimendu handiko sasoia izan zen: alderdi politikoen sorrera, ideologia berriak, droga...

2.077. 1977an Taupada antzerki taldean hasi zen (EGB-139/016)

1977an Taupada antzerki-taldean hasi ziren kuadrillako batzuk. Mugimendu handiko sasoia zen eta edozertan parte hartzeko prest egoten ziren. Antzerkia euskaraz egiten zuten. `Oihu gorra' izan zen lehen antzezlan eta Plaza Txikian estreinatu zuten. Baliabide gutxi izan arren, zerbait berritzailea egin nahi zuten. Edurne Lasak irakasten zien. Entseguak non egiten zituzten. Beste herri batzuetara ere joaten ziren antzeztera. Harremana zuten beste herri batzuetako taldeekin.

2.078. Taupada antzerki taldea; zenbait talderen profesionalizazioa (EGB-139/022)

Taupada antzerki-taldeko zuzendaritza Edurne Lasak eramaten zuen. Mikel Osorok idatzi izan zituen antzezlan batzuk. `Liliput' antzezlan Bernardo Atxagak idatzi zien. Gerora ezagun egin ziren beste zenbait pertsonarekin ere izan zuten harremana. 1979an Eusko Jaurlaritzaren aurreko Eusko Kontseilu Nagusia sortu zenean bilera egin zuten. Orduan hasi ziren talde batzuk profesionalizatzen. Beraiek amateurak ziren eta antzezteko plazak besterik ez zuten eskatzen. Harremana zuten Daniel Landartekin eta Eugenio Arozenarekin ere.

2.079. Ekekei antzerki-taldearen izaera (EGB-139/024)

Ekekei antzerki-taldean Mikel Osorok idazten zituen antzerki-gidoiak eta gero denen artean osatzen zituzten. Zuzendaritza kolektiboa zuten. Taldearen independentziari eustearren ez zuten dirulaguntzarik eskatzen eta euren poltsikotik ipintzen zuten dirua. Material asko beraiek egindakoa izaten zen eta eszenatokia ere beraiek muntatzen zuten.

2.080. 1988ko `Ni naiz kapitain pilotu´ antzezlanak saria jaso zuen Azpeitian (EGB-139/025)

`Ni naiz kapitain pilotu´ izan zen Ekekei taldeak prestatu zuen lehen antzezlan, 1988an. Azpeitiko antzerki-topaketetan aurkeztu zuten eta 1go saria lortu zuten. Hogeitik gora emanaldi egin zituzten antzezlan horrekin. Normalean herri txikietan antzezten zuten, plazan. Kanpoan antzeztearen arazoak.

2.081. Ekekei taldearen antzezlanak (EGB-139/026)

Ekekei antzerki-taldeak prestatutako bigarren obra txotxongiloekin egiten zuten `Handia zara txikitxo´ izan zen. Antzezlan hori Gaztetxeetan mugitu zuten asko. Horren ostean, beraien obra nagusia izan zen `Hiltegia´ antzezlan dramatikoak prestatu zuten. Taldekide batzuk herritik kanpora joan ziren bizitzera eta taldekide berriak hartu zituzten. Lan zehatzetan ere laguntzen zien jendeak.

2.082. I. Etxepe saria irabazi zuen, poesia sailean (EGB-139/030)

Betidanik izan du idazteko zaletasuna. 14 urterekin antzezlan bat idatzi zuen. 1982an I. Etxepe literatur sariketan saria irabazi zuen poesia sailean, euskararen inguruko poesia batekin. Garai horretan ikastolako irakasle zen. Prosan Hasier Etxeberriak irabazi zuen. Felix Etxeberria `Parapan´ ek eta beste zenbait euskaltzalek sortutako Etxepe lantegiak antolatzen zuen lehiaketa.

2.083. Elgoibarren euskararen erabilera bultzatu nahian (EGB-139/034)

Arrasaten egon zen lanean bederatzi urtez eta 2000. urtean Elgoibarko institutuan hasi zen lanean. Azken zortzi urteak zuzendari karguan egin zituen. Euskararen inguruan aritu da beti. Elgoibarren arazoa egon da beti euskararen erabilerekin eta lan asko egin izan du norabide horretan. Euskararen egoera Elgoibarren gaur egun. Ezagutza asko igo den arren, erabilera beti eskas. Gaztelaniak indar handia du, hizkuntza handia da.

2.084. Amateurismoa defendatzen (EGB-139/038)

Ekekei antzerki taldeak izaten zuen arazo handiena euren antzezlanak eskaintzeko zirkuiturik eza zen. Beraien amateurismoa defendatzen zuten. Amateur izateak ez du esan nahi okerragoa izan behar denik. Behar zuten denbora hartzen zuten antzezlan bakoitza prestatzeko. Euren taldekide `Txotxe´ Durangoko Karrika taldearen arduraduna izan zen urte askoan eta antzezle onak atera zituen, tartean, Eneko Sagardoi. Idazteari dagokionez ere idazle amateurra dela dio.

2.085. Euskara, mundua ikusteko modua (EGB-139/040)

Euskara pentsatzeko modu bat da, mundua ikusteko modu bat. Euskaraz pentsatzen du berak. Bizitzako gauza garrantzitsu bat da berarentzat.

2.086. Ondarroan jaio eta umetan Elgoibarrera (EGB-140/002)

Ondarroan jaio zen. Ama zen bertakoa; aita, berriz, Elgoibarkoa. Hasierako urteetan aitona-amonekin bizi izan zen Ondarroan eta bost urte betetzeko

zituela eraman zuten gurasoek Elgoibarrera. Ez zekien gaztelaniaz eta ez zuen ezer ulertzen. Elgoibarren euskaraz hitz egiten zutenak nagusienak ziren eta hika aritzen ziren. Berak Ondarroako euskalkia egiten zuen. `Ondarru´ esan izan diote.

2.087. Ongarri-n dantzan ikasten; Elorra dantza-taldearen sorrera (EGB-140/003)

Ongarri elkarteko taldean hasi zen euskal dantzak ikasten umetan. Mutilak bakarrik. Iñaki Gorostiza izan zuen irakasle. 1962ko abenduan Ondarroan zuhaitz batean ikurrina jarri zuten. Pako Juaristik kontu horiek utzi eta euskalgintzan aritzeko esan zion. 1963an Elorra dantza taldea osatzen hasi zen. Hasieran mutilak bakarrik. Natibitate egunean neskak dantzan eta kantuan irteten ziren, baina ohitura hori desagertzeaz zegoen. Orduan, bertan parte hartzen zuten neskak ere Elorran sartu ziren.

2.088. Elorra dantza-taldearen izena eta ikurra (EGB-140/004)

Elorra izena nork proposatu zion. Ikurrinaren koloreekin diseinatu zuen Elorra dantza-taldearen ikurra. Gerora ere arazoak izaten zituen irudi horrekin. Behin guardia zibilek gelditu zuten eta bandera kendu nahi izan zioten. Kasualitatez Jaime Arrese alkatea pasa zen ondotik eta guardia zibilekin hitz egin ostean, alde egin zuten.

2.089. Elgoibarko Izarrako umeei dantza, akordeoia, gitarra eta txalaparta irakasten (EGB-140/005)

Elorra dantza-taldea sortu eta hilabete gutxira Felix Etxeberria `Parapan´ek deitu zion Elgoibarko Izarratik eta umeei dantza irakasten hasi zen. Dantzaz gain, gitarra, akordeoia eta txalaparta ere irakasten zituen. Elorra dantza-taldekoek Pilar ikastetxean entseatzen zuten hasieran; gerora Luis Mari Iriondok utzitako lokal batzuetan. Azoka plaza berria amaitu zenean, Jaime Arrese alkateak goiko solairua utzi zien. Gitarra, txalaparta eta akordeoia ere bertan irakasten zituen.

2.090. Solfeoa eta akordeoia non ikasi zituen (EGB-140/007)

15 urte zituen Elorra dantza taldea sortu zuenean eta Armeria Eskolan ari zen ikasten. Bi urte lehenago solfeoa ikasten hasi zen Santa Ana kaleko etxe batean. Akordeoia ikasten hasi zen geroago Felix Arantzabal `Angiozarko itsua´rekin, haren semea Armeria eskolan ikaskide izan baitzuen. Donostian egin zuen solfeoko azterketa. Ikasketak amaitu zituenean, akordeoia ere utzi egin zuen dantza-kontuekin astirik ez zuen eta.

2.091. Elgoibarko Izarraren jaialdietan parte hartzen zuen (EGB-140/008)

Bere kabuz hasi zen gitarrarekin kantu batzuk ateratzen. Elgoibarko Izarrak San Anton egunean Odeon antzokian jaialdia antolatzen zuen urtero, dirua batzeko eta jaialdi horietan parte hartzen zuen abesten, akordeoia jotzen eta txalaparta jotzen. Antzokia bete egiten zen. Elorra dantza-taldeak eta dantza-eskolako umeei ere parte hartzen zuten. Gogoan du Benito Lertxundirekin batera parte hartu zuela Elgoibarko Izarrak antolatutako beste jaialdi batean.

2.092. Ongarriko umeen dantza-taldean hasi zen (EGB-140/010)

Ongarri elkartearen umeen dantza-taldean hasi zen dantzan 11 urte ingururekin. Iñaki Gorostiza zen irakaslea. Pilar ikastetxean entseatzen zuten. Bizkaiko dantzak ikasten zituzten. Maalako jaietan eta Trinitate egunean plazan dantza egiten zuten. Mutilak bakarrik aritzen ziren talde horretan. Neska-mutilak 1964tik aurrera Elorra dantza-taldean.

2.093. Euskara baserritarrek eta gizonezko nagusienek bakarrik (EGB-140/013)

Garai batean Elgoibarren euskararik ez zen entzuten. Baserrietatik kalera esnea saltzera jaisten ziren emakumeek egiten zuten euskaraz eta feria egunean ere entzuten zitzairen baserritarrei. Kanean emakumeen artean ez zen euskararik entzuten; gizonezko nagusien artean bai eta, bereziki, Errosario kalean. 14-15 urtera arte "Ondarru" deitzen zioten, baina "borono" ere bai, gaztelaniaz ez zekielako eta euskaraz ere ondarrutarrez bakarrik.

2.094. Euskara debekatuta; guardia zibilak kaleak zaintzen (EGB-140/015)

Ongarri elkartearen dantza-taldeko ume askok ez zekitelako euskaraz dio. Gainera, garai hartan debekatuta zegoen euskara erabiltzea. Guardia zibilak asko ibiltzen ziren kalean eta berari behin baino gehiagotan ohartarazi zioten euskaraz egiteko. Baina berak ez zekien gaztelaniaz.

2.095. "Borono" esaten zioten, gaztelaniaz ondo ez zekielako (EGB-140/016)

Pilar ikastetxean ikasi arren, txarto egiten zuen gaztelaniaz. "Borono" deitzen zioten. Ikastetxeko fraide gehienak erdaldunak ziren. Bi irakasle euskaldun izan zituen: Arrasateko Inazio Arzamendi eta Ondarroako Juan. Baina haiek ere debekatuta zuten euskaraz egitea. Elgoibarren ez zen euskararik entzuten. Zekitenek etxean erabiltzen zuten euskara, kanean ez, zigorren beldur.

2.096. Elgoibarko Izarraren eragina euskararen indartzean (EGB-140/018)

Elgoibarko Izarra indarra hartzen hasi zenean, aurrerapauso handia eman zen herrian euskarari dagokionez. Elgoibarko Izarrako umeekin beti euskaraz egiten zuen. Geroago, ikastolakoak ez ziren umeak hasi zirenean dantza-eskolan, euskaraz ez zekiteni zuzenean ematen zizkien azalpenak gaztelaniaz eta euskaraz, eta pixkanaka ikasten joaten ziren.

2.097. Dantza-taldea eta dantza-eskola utzi behar izan zituen (EGB-140/023)

1970ean soldadutzara joan behar izan zen eta 1971ko maiatzean amaitu zuen. Gasteizen hasi zen lanean eta dantza-kontuei eskainitako denbora murrizten hasi zen, astea han pasatzen zuen eta. 1973-1974an guztiz utzi zituen Elorra dantza-taldea eta Elgoibarko Izarraren dantza-eskola, Gasteizera bizitzera joan zelako.

2.098. Hiru aldiz dantza egin zuen kaxarranka herrian (EGB-140/024)

1968an xake biziduna egin zen herrian eta kaxarranka dantzatu zuen. Beste bi alditan ere dantzatu omen zuen, urte batzuk geroago Odeon antzokian eta beste behin herriko jaietan. Bere kabuz ikasi zuen kaxarranka. Pausuak bazekizkien, Lekeitioko dantza izan arren, Ondarroan ere dantza egiten zelako.

2.099. Jaime Arrese alkateak Elorra dantza-taldeari ematen zion laguntza I (EGB-140/025)

Elorra dantza-taldeak ez zuen sosik kobratzen. Jaime Arrese alkateak diru apur bat ematen zien urtean behin, materialak erosteko.

2.100. Elorra dantza-taldeko hasierako kideak (EGB-140/026)

Elorra dantza-taldea neska-mutilen herriko lehen taldea izan zen. Berak 15 urte zituen hasi zirenean eta bera zen taldearen arduraduna eta irakaslea. Gehienek antzeko adina zuten. Bi urte nagusiagoak ziren Pedro Bergara eta Manolo Santos. Beste zenbait taldekide aipatzen ditu: mutiletan Imanol Solupe (anaia), Iñaki Elustondo, Odria, Zubiaurre, Etxeberria; nesketan Itziar Elorza, Maria Isabel Aizpurua, Maria Isabel Arakistain, Marijose Arakistain... Regina Arrieta eta Maria Luisa Zubiaurre neskei dantzak irakasten aritzen ziren Gabonetarako. Laga zutenean, 1964an, Ixidorri esan zioten ea berak hartuko zituen dantzari haiek talderako.

2.101. Dantzariantzat materiala erosi zuen Arrese alkateak emandako diruarekin (EGB-140/029)

Jaime Arrese alkateak Elorra dantza-taldeari dirua eman izan zion, materiala erosteko. Gogoan du mutilentzat zangoetan jartzeko txintxarridun larruzko piezak erostera joan zela Gernikara. Elorra taldea utzi zuenean, azoka plazako lokalean utzi zuen materiala.

2.102. Elorra dantza-taldeko txistulariak (EGB-140/030)

Pedro Azpiazu eta Ion Arrieta txistulariak ibiltzen ziren Elorra dantza-taldearekin. Ekitaldiez gain, entseguetan ere bai. Ekitaldietan Jose Inazio Sarasuak eta Txomin Mujikak ere parte hartzen zuten. Elorrakoak gutxitan joaten ziren herritik kanpora dantzara. Gogoan du behin Eibarko Amaia antzokian dantza egin zutela eta berak abestu ere egin zuela.

2.103. Elgoibarko Izarraren umeen dantza-eskola (EGB-140/031)

Elgoibarko Izarraren umeen dantza-eskolan 300 umetik gora ibili ziren. Mutilekin bera bakarrik ibiltzen zen, baina neskekin Maria Isabel Arakistainek laguntzen zion hasieran eta geroago Itziar Elortzak, Maria Isabel Aizpurua eta beste zenbait neskak. Elorra dantza-taldearen entseguak astean bitan izaten ziren eta hurrekin egunero aritzen zen. Udaberritik udazkenera larunbatetan ere bai.

2.104. Trinitateetan umeen Euskal Jaia (EGB-140/032)

Trinitateetan euskal jaia egiten zen herrian eta umeen dantza-eskolan zebiltzan umeak kalera ateratzen zituzten. Egun osoko festa izaten zen. Eguneko egitaraua.

2.105. Ikurrinaren koloreak debekatuta (EGB-140/034)

Umeen euskal jaietan ez zen ateratzen ikurrinik, 1977ra arte ez zen legeztatu eta. Hiru koloreak (ikurrinarenak) debekatuta zeuden. Elorrako banderak hiru koloreak zituen eta arazoak izaten zituen horrekin.

2.106. Urtero Guardia Zibilen kuartelera (EGB-140/035)

1967-1968 ingurutik urtero Guardia Zibilen kuartelera joan behar izaten zuen. Uztarri etxean bizi ziren orduan eta etxera joaten zitzaizkion bila.

1971-1972an joan zen azken aldiz. Orduan jakin zuen pertsona arriskutsutzat zutelako joanarazten ziotela. Semeak berari buruz ondo berba egin ziola eta ez zuela arriskutsutzat hartzen azaldu zion buru zegoen guardia zibilak eta ez zuen gehiago joan beharrik izan.

2.107. Danobat lantegiko fitxak euskaraz egiten hasi zen (EGB-140/039)

Danobat lantegian hasi zen lanean 1968an. Garai hartan bertako langile gehienak euskaldunak ziren. "Métodos y tiempos" sailean lan egiten zuen berak eta harreman gehienak euskaraz izaten zituen lankideekin. Horregatik, lanean egin behar izaten zuen taula euskaraz egiten hasi zen, zenbaitek gaztelaniazko hitzak ez zituztela ezagutzen esaten ziotelako.

2.108. Hitz teknikoak euskaratzen; Juan San Martinengana aholku eske (EGB-140/040)

Felix Etxeberria Parapanekin harremanetan, zenbait hitz tekniko euskaraz jartzen hasi zen. Hitz batekin eztabaida izan zuten, hain zuzen ere, Danobat-ek egiten zituen "rektifikadorekin". Ixidorrek "artezteko makina" proposatu zuen. Kontua argitzeko, Juan San Martinengana joan ziren Eibarrera biak.

2.109. Lan-mundua euskaratzeko lehen urratsak (EGB-140/043)

Ixidor dokumentu teknikoak euskaraz egiten hasi zen Danobat lantegian. Felix Etxeberriarekin harremana. Iraultzailea zen garai hartan lanean euskarazko dokumentuak erabiltzea, ordura arte ez zegoen ezer eta.

2.110. Trikitilariak, dultzaineroak eta dantza-solte txapelketa jaietan (EGB-140/046)

Jaietan trikitilariak izaten ziren. Batzuetan udaletxeko balkoitik jotzen zuten. Plazan oholtza jartzen zen jaietan. Musika bandak jotzen zuen eta baita trikitilariak eta Nafarroatik etorritako dultzaineroak ere. San Bartolomeetako dantza-solte txapelketa ere umetatik ezagutu izan du. Berak ere parte hartu zuen behin 18-19 urte zituela.

2.111. Euskararen alde beti (EGB-140/048)

Euskara zer den berarentzat. Euskarak egiten du euskaldun. Euskararen alde egin izan du beti. Elkarrizketan batua eta gipuzkera nahastu dituela dio, baina bere berezko hizkera Ondarroakoa da. Ondarroako elgoibartarra dela dio. Urte askoan ibili da Elgoibarren euskalgintzan.

2.112. San Bartolome jaietako soka-dantza (EGB-140/052)

Elorra dantza-taldea egon zen garaian beraiek izan zuten San Bartolomeetako soka-dantzaren ardura. Aurretik Ongarrikoek egiten zuten. Fandangoa eta

arin-arina zekizkiten neskak hartzen zituzten gero sokarako; plazan egoten ziren kaleko jantzita. Musika Bandak udaletxeko arkupeetan jotzen zuen igande eta jai-egunetan eta azkenengo hiru piezak fandangoa, arin-arina eta biribilketa izaten ziren. Horregatik neskek jakiten zuten fandangoa eta arin-arina dantza egiten. Elorra dantza-taldeak egiten zuen sasoiari neskak pospolin jantzita joaten ziren soka-dantzara. Elorra Elgoibarko lehen dantza-talde mistoa izan zen.

2.113. German Uriguen Ormaetxea `Etxegiña´ (EGB-141/002)

Euren aitita, German Uriguen Ormaetxea `Etxegiña´, Ermuan jaio zen 1898an. 1924an joan zen Elgoibarrera, Gabilondo lantegian hasi zelako lanean eta bertan ezkondu zen. Bertsolaria eta musikazalea. Saltsa guztietan sartzen omen zen: antzerkian, danborradan, koruan... 1986an hil zen.

2.114. `Etxegiña´ bertsolaria (EGB-141/003)

Santa Ageda eskearekin lotzen dute batez ere `Etxegiña´, euren aitita. Beste kontu askotan ere ibili zen, baina beraiek hori ez zuten zuzenean ezagutu. Bat-bateko bertsolaria zen. Bizkaiko bertsolari txapelketetan ere parte hartu izan zuen. Berak abestutako bertsoak edo Santa Ageda eskean kantatzen ziren koplak buruan izaten zituen.

2.115. Elgoibarko Santa Ageda eskea nola berreskuratu zen (EGB-141/005)

Elgoibarko Santa Ageda eskea nola berreskuratu zen azaltzen dute. `Etxegiña´ Barrutia tabernan zegoen `Estarta´ eta Manu Gabilondo lagunekin eta badirudi apusturen bat egin zutela: bertsoak botaz gero, trukean ardoa emango zutelako. Koplak-kantari arituta dirua irabaz zezaketela konturatu ziren eta horrela hasi ziren inguruko baserrietan kantari eta eskean. Hasierako urteetan beraientzat izaten zen jasotako dirua. Handik gutxira EAJren Emakume Abertzaleen Batzari ematen hasi ziren dirua, haiek ume jaioberriei otarretxoa ematen zutelako. Azkenean dirua beharra zutenei ematen hasi ziren eta ohitura horrek jarraitu du. Dirua nori eman eztabaidak sortzen zirenez, 70eko hamarkada bukaeratik Caritas-en bitartez bideratzen da kontua.

2.116. Elgoibarko Santa Ageda eskean koplak eta salbea (EGB-141/006)

Elgoibarko Santa Ageda eskean ikasitako koplak edo bat-batekoak kantatu izan dira, tokatzen den etxearen arabera. Urtean zehar hildakoren bat egon zen etxeetan erreztatzea zen ohitura garai batean. Euren aititak salbea asmatu zuen eta hildakoren bat egon den etxeetan salbea abesten dute. Hiletetan ere abesten da. Santa Ageda eskea amaitzeko, Errosario kaleko Amabirjinaren aurrean abesten dute osorik. Salbearen lehen bertsoa abesten dute.

2.117. `Etxegiña´, Santa Ageda eskeko koplaria 1925etik 1980ra (EGB-141/007)

1925ean berreskuratu zen Santa Ageda eskearen ohitura. Laster 100 urte beteko ditu, beraz. `Etxegiña´ bera bakarrik ibiltzen zen koplari, harik eta erretiroa hartu zuen arte 1980an. Gero Kepa Urain hasi zen. 2000. urtean, 75. urteurrena ospatzeko, irudi batzuk egin ziren eta logo bezala "Etxegiña taldea" izena erabili zuten.

2.118. Elgoibarko Santa Ageda eskeko koplak inguruko herrietakoekin (eta baita Elgoibarko Izarrakoek baserrietan egiten dutenarekin) alderatuz ezberdinak direla diote. Ez dago errepikatzen den lelo bat; jendeak koplariak abesten duen koplak errepikatzen du. Batzuetan arazoa izaten da hori, jende asko dagoenean ez delako entzuten koplariak zer abestu duen.

Elgoibarko kaleko Santa Ageda eskeko koplak inguruko herrietakoekin (eta baita Elgoibarko Izarrakoek baserrietan egiten dutenarekin) alderatuz ezberdinak direla diote. Ez dago errepikatzen den lelo bat; jendeak koplariak abesten duen koplak errepikatzen du. Batzuetan arazoa izaten da hori, jende asko dagoenean ez delako entzuten koplariak zer abestu duen.

2.119. Elgoibarko kaleko Santa Ageda eskea (EGB-141/009)

Elgoibarko kaleko Santa Ageda eskea Santa Ageda bezperan egiten zen garai batean. Parte hartzen zutenetako asko Sigmako langileak ziren eta baimena ematen zieten eskean irteteko. Baina gauzak zailtzen joan ziren eta 70eko hamarkadan Santa Ageda egunetik gertuen zegoen larunbatean egitea erabaki zen. Ibilbidea. Azken urteetan bi talde egiten dira auzoetara joateko. Urasandiko elkarte hamaiketakoak egin ostean kaleko buelta egiten dute denek batera eta, ondoren, bazkaria. Azken urteetan eskoletako umeei ere parte hartu izan dute. Koplariak. Soinu-jotzaileak.

2.120. Herri osoa pasatzen zuten Santa Ageda eskean (EGB-141/011)

Sebasek gogoan du garai batean nolako antolaketa ona zuten Santa Ageda eskean. Etxeetan tinbreak jo eta barrura sartzen ziren. Herri osoa pasatzen zuten. Aurreko urtean baino diru gehiago batzea izaten zen helburua. Santi Kortabarria zen urtero lanean aritzen zenetako bat.

2.121. Garai bateko Santa Ageda eskean gizonezkoak bakarrik (EGB-141/014)

Garai batean gizonezkoak bakarrik ateratzen ziren Santa Ageda eskean. Badirudi garai batean soldadutzara joan behar ziren mutilek egiten zutela Santa Ageda eskea. 80ko hamarkadan jada hasiko ziren neskek parte hartzen. Elkarrekin emakumeak onartzen ez zituzten sasoiaren euren amak elkartera sartzen ziren Santa Agedako bazkaria ipintzera. Herriko dendariak emandako jatekoa erabiltzen da horretarako. Modesto Larrañagak lan handia egin izan du urtero generoa biltzen.

2.122. Neskek ere Santa Ageda eskean (EGB-141/018)

Urte batzuetan jendea gutxitu egin zen Santa Ageda eskean eta beharbada orduan hasiko zirela emakumeak onartzen aipatzen du Sebasek. Azken urteetan jende gazteagoa sartu da antolaketa-taldean eta hortik ere etor daiteke aldaketa. Garai batean gizonezkoak bakarrik parte hartzea zen ohitura eta emakumeei ziurrenik ez zitzaien bururatuko parte hartu zezaketarik. Emakumeak taldean sartzea naturalki egin zela uste dute. 80ko hamarkadan jada neskek ere parte hartzen zuten.

2.123. Bi talde Santa Ageda eskean Elgoibarren (EGB-141/019)

Garai batean kale inguruko baserrietara ere joaten zen eskean Santa Agedako kaleko taldea. Gaur egun kalean bakarrik ibiltzen dira. Baserri-auzoetan, berriz, Elgoibarko Izarrako taldea ibiltzen da. Elgoibarko Izarrakoak Santa Ageda bezperan irteten dira beti eta kalekoak, berriz, larunbatean.

2.124. "Juventud elgoibarresa"ren kultur-ekimenak (EGB-142/002)

"Juventud elgoibarresa" tik kultur ekimenak antolatzen zituzten: hitzaldiak, euskal astea... Oso zaila izaten zen edozer gauza antolatzea, baimenak eskatu behar izaten zirelako. Dirua lortzeko, dendaz denda ibiltzen ziren. Hizkuntza ere lantzen zuten beraien taldean. Atal desberdinak zituen "Juventud elgoibarresa"k.

2.125. Euskal liburu eta disko azokak Elgoibarren 70eko hamarkadan (EGB-142/004)

Hainbat urtez euskal liburu eta disko azoka antolatu zuten "Juventud elgoibarresa"ko kideek. Larunbat eta igandez izaten zen azoka. Hasieran Donostiako Manterola dendatik bidaltzen zizkieten liburuak eta diskoak. Gerora, herriko Gorostiza liburu-dendakoen bitartez ekartzen zuten azokarako materiala.

2.126. Elgoibarko Izarraren jaialdiak (EGB-142/006)

Elgoibarko Izarraren jaialdiak ostiral iluntzean izaten ziren Odeoian. Ixidor Solupek eta Antton Aranburuk parte hartzen zuten kantuan. Beraiek ere parte hartu izan zuten koruarekin. Urruzunori omenaldia egin zitzaionean, antzerkiak ere egin ziren.

2.127. "Juventud elgoibarresa"k antolatutako jaialdia (EGB-142/007)

"Juventud elgoibarresa"k antolatutako jaialdi batera Urretxindorrek, Lupe, Maurizia Aldeiturriaga eta Leon Bilbao ekarri zituzten. Dirua galdu omen zuten, antzokia ez zelako bete. Musikariak kontratatzeko, haien etxeetara joan ziren bila. Jaialdia antolatzeko "Autores"en baimena behar zen eta abestuko zutenaren berri bidali behar izaten zen idatziz eta, gainera, gaztelaniara itzulita. Fotokopiagailurik ez zegoen eta kopiak ere eskuz egin behar.

2.128. Patxi Altunaren hitzaldian gertatutako anekdota (EGB-142/010)

"Juventud elgoibarresa" taldekoek Patxi Altuna eraman zuten Elgoibarrera, "Euskara hire laguna" liburuaren inguruan hitz egitera. Euskaraz ez zekien taldekide batekin gertatutako anekdota. Ubitarten antolatzen ziren hitzaldiak. Taberna ere bazegoen.

2.129. Ama Malagakoa eta aita Burgoskoa (EGB-143/003)

Aita Burgosetik etorri zen, San Pedro lantegira lanera. Ama, berriz, Malagakoa zen eta Arrillaga ospitalean lan egin zuen. Elgoibarren ezagutu zuten elkar eta San Pedro lantegiak egindako etxeetan bizi izan ziren.

2.130. Euskara hautazko gisa Magisteritzan (EGB-143/004)

Euskararekin izan zuen lehen harremana Gasteizen izan zen, Magisteritza ikastera joan zenean, euskara hautazko gisa eskaintzen zuten eta.

2.131. 1979an hasi zen ofizialki irakaskuntza publikoan (EGB-143/008)

Magisteritza bukatu eta urtebetez langabezian egon zen. Aita Agirre ikastetxetik ordezkapen bat egiteko eskatu zioten hasieran, baina ofizialki

1979an hasi zen irakaskuntza publikoan lanean. Plaza lortzeko prozesuan ez zen euskararen ezagutza eskatzen, nahiz eta izendapenak euskaraz eta gaztelaniaz egon. Irakasle gehienak kanpotik etorriak ziren. Eskolan dena gaztelaniaz ematen zuten.

2.132. 1980tik Elgoibarko eskola publikoan; Urasandira aldaketa (EGB-143/010)

1979an hasi zen irakaskuntza publikoan lanean. Hiruhileko bakoitza eskola desberdin baten eman zuen. Eskola guztiak gaztelaniaz eman zituen. 1980tik aurrera Elgoibarko eskola publikoan lan egin zuen. Aita Agirre eskolaren eraikina ez zegoen baldintza onetan eta urte horretan Urasandiko eraikin berrira pasa ziren. Irakasleek eta gurasoek antolatu zuten ikastetxea.

2.133. Virginia Bollain, euskara irakasle eskola publikoan (EGB-143/011)

Virginia Bollain izan zen Urasandiko eskola publikoko euskara irakaslea zenbait urtez, baina ez daki ziur zer urtetan izango zen. Ziurrenik "idoneo" gisa sartuko zela iruditzen zaio. Irakasle "idoneo"ak.

2.134. 80ko hamarkadan aldaketa eskola publikoan (EGB-143/013)

Hezkuntzako hizkuntza-ereduak 1983 inguruan ezarri zirela eta garai horretan hasi zirela eskola publikoari buelta ematen dio. Ez zen erraza izan "eskola nazionala" izendapena desagerraraztea.

2.135. Euskara ikasteko prozesua: euskaltegiak, ikastaroak (EGB-143/017)

Euskara ikasteko prozesua. Gogoan du hasieran ikastolara joaten zirela senarra eta, arratsaldeetan, euskara-eskolak jasotzera. Gero Udal euskaltegian ibili zen. Bi ikasturtetan liberatuta egon zen, Iralen euskara ikasteko. Maizpide barnetegira era joan zen pare bat urtez eta UNEDen ere egin zuen ikastaroa larunbatetan.

2.136. Eskola publikoaren euskalduntzea: irakasleak, eredu-aldaketa (EGB-143/019)

Urasandiko eskola publikoko irakasle batzuek leku-aldaketa eskatu zuten eta alde egin zuten. Beste zenbaitek euskaraz ikastea erabaki zuten. Herriko eskola publikoetako zenbait irakasle elkarrekin joaten ziren euskara ikastera. Eskola publiko guztietan antzekoa izan zen euskalduntze-prozesua.

2.137. Euskara zekiten ikasle gutxi eskola publikoan (EGB-143/023)

Urasandiko eskolako ikasleak herrikoak eta Sigma auzokoak izan ohi ziren. Ikasle gutxi zekiten euskaraz. Pedro Muguruza ikastetxeak, berriz, herrikoak eta baserrietakoak izan ohi ziren eta han euskaldun gehiago egoten zen. Euskara zekiten ikasleak ikastolara joaten ziren.

2.138. Eskola publikoaren euskalduntzea: prozesu gogorra (EGB-143/025)

Eskola publikoaren euskalduntze-prozesuaz. Urte gazi-gozaok izan ziren. Gazteak ziren eta gauzak aurrera ateratzeko gogoa zuten, baina erronka handia zen. Euren lanpostua zegoen jokoan eta eztabaidak sortzen ziren beraien artean.

2.139. Euskara ikasteko prozesua: buruaren mekanismoa (EGB-143/026)

Euskara ikasteko prozesua ez da erraza eta ez da beti norberak nahi duen bezala joaten. Hasieran gaztelaniatik euskararako itzulpena egiten du buruak; prozesu hori azkartzea eta automatizatzea lortu behar da. Harro sentitzen da euskara ikasi izanaz, baina argi utzi nahi du bi urtez liberatuta egoteak asko lagundu ziola.

2.140. Euskara transmititu nahia (EGB-143/027)

Bere adineko lagunekin gaztelaniaz egiten du, euskaraz ez dakitelako, baina bestela inguruko jendearekin euskaraz egiten du eta ezezagunei ere lehen hitza euskaraz egiten die. Berak esfortzu bat egin behar izan zuen ikasteko eta, horregatik, dakiena transmititu nahi du.

2.141. Ekekei antzerki taldearen sorrera (EGB-144/002)

Taupada antzerki taldean hasi zen 15-16 urterekin. 27-28 urte inguru zituztela, taldekide batzuek (Xabier Ansola, Txotxe, Mikel Osoro eta bera) beste era bateko antzerkia egin nahi zutelana eta, Taupada taldea utzita, Ekekei antzerki taldea sortu zuten. Taldean jende berria sartzeko asmoz, ikastaro bat antolatu zuten. Taldearen hasiera eta 'Ni naiz kapitain pilotu' lehen antzezlanak nola prestatu zuten.

2.142. 'Ni naiz kapitain pilotu' antzezlanak (EGB-144/003)

'Ni naiz kapitain pilotu' antzezlanak Azpeitiko antzerki sariketara aurkeztu zuten eta lehen saria irabazi zuten. Aurretik Elgoibarko Gaztetxean egin zuten aurre-estreinaldia. Antzezlaneko barkua osorik beraiek egindakoa zen.

2.143. Elgoibarko Gaztetxea; Ekekeiren antzezlanak Gaztetxeetan (EGB-144/004)

Garai batean mugimendu handia zegoen Elgoibarko Gaztetxean. Gauza asko antolatzen ziren eta jende asko ibiltzen zen, era askotakoa. Koldo Aranburu. 'Ni naiz kapitain pilotu' antzezlanak aurkeztu zuten, jende asko egon zen, baina inguruko jendea zela dio. Ekekei antzerki taldekoek Gaztetxeen zirkuituan aurkeztu zituzten euren antzezlanak.

2.144. I. Etxepe Literatur saria irabazi zuen 1982an (EGB-144/006)

Idazteko zaletasuna izan du beti. Umetan gaztelaniaz idazten zuen, Pilar ikastetxean gaztelaniaz ikasten zuelako. 18-19 urterekin, euskal kontzientzia piztean, euskaraz idazten hasi zen. Magisteritza ikasten ari zela, D titulua ere atera zuen. 1982an Etxepe lantegiak I. Etxepe Literatur sariketa antolatu zuen. Berak lehen saria irabazi zuen poesian eta prosan Hasier Etxeberriak irabazi zuen.

2.145. Elgoibarko Izarraren umeen dantza-taldetik Haritz Dantza Taldera (EGB-144/008)

7-8 urterekin Elgoibarko Izarraren umeen dantza-taldean hasi zen eta 14 urte ingurura arte ibili zen. 17-18 urterekin umeen begirale gisa hasi zen bertan. Haritz Dantza taldean ere ibiltzen ziren. Beraiek bigarren belaunaldia izan zirela dio. Herririk herri ibiltzen ziren umeekin Euskal Jaietan.

2.146. Izan dituen dantza-irakasleak (EGB-144/009)

Umetan Elgoibarko Izarraren dantza eskolan hasi zenean, Imanol eta Ixidor Solupe, Lurdes Odria eta Ion Arrieta izan zituen irakasle, besteak beste. Geroago Haritz Dantza Taldean hasi zenean, Monasterio izan zuten irakasle. Gipuzkoako dantzak ikastera Donostiara joaten ziren eta Goizaldi taldekoekin egoten ziren. Josu Mujikak dantza-teknikak, luzaketak eta beste hainbat kontu irakasten zizkien.

2.147. Elgoibarko Izarraren dantza-eskola eta Haritz Dantza Taldearen lotura (EGB-144/010)

Haritz Dantza Taldearen sorrera. Taldea sortu zutenak bera baino zaharxeagoak ziren. Beraiek bigarren belaunaldia izan ziren. Taldekide guztiak umetan Elgoibarko Izarraren dantza-taldean ibiliak ziren eta gerora bertako begirale bihurtu ziren. Haritz Dantza Taldeak emanaldi batzuk prestatu zituen eta beste herri batzuetara joaten hasi ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2024-04-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com